

# E U S K E R A

IKERKETA ALDIZKARIA



2025  
70-1  
BILBO  
ISSN 0210-1564



# EUSKALTZAINDIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo  
Telefonoa: 94 415 81 55 • Faxa: 94 415 81 44  
Posta elek.: euskeraaldizkaria@euskaltzaindia.eus  
Webgunea: <https://euskera-ikerketa.euskaltzaindia.eus>

Aldizkari hau beste agerkari batzuekin trukutzen da.  
Esta revista admite el intercambio con otras publicaciones.  
Cette revue s'échange avec d'autres publications.  
This journal can be exchanged for others by agreement.

Testuen hizkuntza-orrasketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoa edo mekanikoa, fotokimikoa, elektrooptikoa, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

ISSN 0210-1564

Lege-gordailua: BI-1244-58

*Diseinua:* [www.ikeder.es](http://www.ikeder.es)

*Aurreinprimaketa:* Composiciones Rali, S.A.  
Costa, 12-14, 7. ezk. – 48010 Bilbo

*Inprimategia:* Printheaus, S.L.

## EUSKERA IKERKETA ALDIZKARIA

*Euskera Ikerketa Aldizkariaren* aurrekari gisa, *Euskera* Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala izan da 1920. urtetik 2022ra bitartean. 2023tik aurrera bi argitalpen dira: batetik, *Euskera Ikerketa Aldizkaria* eta bestetik, *Euskaltzaindiaren Buletina*. Lehenak Akademiaren lan esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzekoak jasotzen ditu, eta paperean eta euskarri informatikoan argitaratzen da. Bigarrenak Euskaltzaindiaren lana eta biltza akademikoa biltzen ditu eta modu elektronikoa argitaratzen da.

*Euskera Ikerketa Aldizkariak* bi zenbaki argitaratzen ditu urtero. Lehena, martxo edo apirila inguruan (urtarila-ekaina aldiari dagokiona) eta bigarrena, irailean edo urrian (uztaila-abendua aldikoa). Ikerketa-artikuluak argitaratzeko, Idazketa Batzordeak, anonimotasuna bermatuz, kanpo ebaluatzaileen iritzia jasoko du PEER REVIEW itsu bikoitza sistema erabiliz.

***Euskera Ikerketa Aldizkaria* honako katalogo eta datu-baseetan dago:**

- Azkue Bibliotekaren katalogoan
- Latindex katalogoan
- Inguma datu-basean
- Dialnet datu-basean
- InDICES-CSIC datu-basean
- Dulcinea datu-basean
- Linguistic Bibliography datu-basean
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)

**Kalitate-adierazleak:**

- Journal Citation Reports (JCR) (2023): JIF 0.1; JCI 0.01, LANGUAGE & LINGUISTICS, Q4
- Dialnet Metrikak (2023) / Inpaktua: 0.0, FILOLOGÍA HISPÁNICA 97/127 (Q4), FILOLOGÍAS 247/318 (Q4)
- CIRC (2024): C maila
- MIAR (2024): c1+m1+e1+x1. ICDS (2021): 8.0

Como publicación previa a *Euskera Ikerketa Aldizkaria*, la revista *Euskera* ha sido la publicación oficial de la Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia y se ha publicado desde 1920 hasta 2022. A partir de 2023, son dos las publicaciones: *Euskera Ikerketa Aldizkaria* y *Euskaltzaindiaren Buletina*. La primera publica artículos de investigación originales, reseñas de libros y otros contenidos del ámbito de investigación de Euskaltzaindia, y se publica en papel y en formato electrónico. La segunda recopila la vida y el trabajo académico de Euskaltzaindia y se publica de forma electrónica.

*Euskera Ikerketa Aldizkaria* cuenta con dos números anuales: el primero (enero-junio) entre marzo y abril y el segundo (julio-diciembre) entre septiembre y octubre. Para publicar los artículos de investigación el Consejo de Redacción recaba, utilizando el sistema de doble ciego PEER REVIEW, la opinión de evaluadores externos.

**La revista *Euskera Ikerketa Aldizkaria* está disponible en los siguientes catálogos y bases de datos:**

- Catálogo de la Biblioteca Azkue
- Catálogo Latindex
- Base de datos Inguma
- Base de datos Dialnet
- Base de datos InDICES-CSIC
- Base de datos Dulcinea
- Base de datos Linguistic Bibliography
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)

**Indicadores de calidad:**

- Journal Citation Reports (JCR) (2023): JIF 0.1; JCI 0.01, LANGUAGE & LINGUISTICS, Q4
- Dialnet Métricas (2023) / Impacto: 0.0, FILOLOGÍA HISPÁNICA 97/127 (Q4), FILOLOGÍAS 247/318 (Q4)
- CIRC (2024): categoría C
- MIAR (2024): c1+m1+e1+x1. ICDS (2021): 8.0

Précurseure d'*Euskera Ikerketa Aldizkaria*, la revue *Euskera* a été la publication officielle de l'Académie de la Langue Basque – Euskaltzaindia de 1920 à 2022. À partir de 2023, il y a deux publications : d'une part, la revue *Euskera Ikerketa Aldizkaria* et, d'autre part, *Euskaltzaindiaren Buletina*. La première contient des articles de recherche originaux, des comptes rendus de livres et autres dans les domaines de travail de l'Académie, et est publiée sur papier et sur support informatique. La seconde couvre le travail et la vie de l'Académie ; elle est publiée électroniquement.

*Euskera Ikerketa Aldizkaria* publie deux numéros par an : le premier vers mars-avril (correspondant à la période janvier-juin) et le second en septembre-octobre (correspondant à la période juillet-décembre). Avant de publier les articles de recherche, le Comité de Rédaction recueille l'avis d'évaluateurs externes en utilisant le système PEER REVIEW double aveugle, qui garantit l'anonymat.

**La revue *Euskera Ikerketa Aldizkaria* est présente sur les catalogues et bases de données suivants :**

- Catalogue de la Bibliothèque Azkue
- Catalogue Latindex
- Base de données Inguma
- Base de données Dialnet
- Base de données InDICES-CSIC
- Base de données Dulcinea
- Base de données Linguistic Bibliography
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)

**Indicateurs de qualité :**

- Journal Citation Reports (JCR) (2023): JIF 0.1; JCI 0.01, LANGUAGE & LINGUISTICS, Q4
- Dialnet Métrique (2023) / Impact: 0.0, FILOLOGÍA HISPÁNICA 97/127 (Q4), FILOLOGÍAS 247/318 (Q4)
- CIRC (2024): catégorie C
- MIAR (2024): c1+m1+e1+x1. ICDS (2021): 8.0

As a publication prior to *Euskera Ikerketa Aldizkaria*, the review *Euskera* was the official publication of the Royal Academy of the Basque Language - Euskaltzaindia, published from 1920 to 2022. From 2023 onwards there are two publications: *Euskera Ikerketa Aldizkaria* and *Euskaltzaindiaren Buletina*. The former publishes original research papers, book reviews and other content in the research area of Euskaltzaindia, and is published on paper and in electronic format. The second documents the academic life and work of Euskaltzaindia, and is published electronically.

*Euskera Ikerketa Aldizkaria* comes out twice a year: the spring issue (January-June) published between March and April and the second (July-December) between September and October. To publish research papers the Editorial Committee requests the opinion of external assessors, using the double-blind PEER REVIEW system.

***Euskera Ikerketa Aldizkaria* is available in the following catalogues and databases:**

- Catalogue of the Azkue Library
- Latindex catalogue
- Inguma database
- Dialnet database
- InDICES-CSIC database
- Dulcinea database
- Linguistic Bibliography database
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)

**Quality indicators:**

- Journal Citation Reports (JCR) (2023): JIF 0.1; JCI 0.01, LANGUAGE & LINGUISTICS, Q4
- Dialnet Metrics (2023) / Impact: 0.0, FILOLOGÍA HISPÁNICA 97/127 (Q4), FILOLOGÍAS 247/318 (Q4)
- CIRC (2024): category C
- MIAR (2024): c1+m1+e1+x1. ICDS (2021): 8.0

# EUSKALTZAINDIA



IDAZKETA BATZORDEA – CONSEJO DE REDACCIÓN – COMITÉ DE RÉDACTION – EDITORIAL COMMITTEE

*Burua:* Andres Urrutia (*euskaltzainburua*)  
*Idazkaria:* Miren Agur Meabe (*Euskaltzaindiaren idazkaria*)

Kideak – Miembros – Membres – Members

MIXEL AURNAGUE CNRS. Paris	ASUN GARIKANO <i>Euskaltzaindia</i>
ENEKO BIDEGAIN HUHEZI. Arrasate/Mondragon	PATXI JUARISTI <i>Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)</i>
JEAN-BAPTISTE COYOS <i>Euskaltzaindia</i>	Leioa
EBA GAMINDE <i>Deustuko Unibertsitatea. Bilbo</i>	PATXI SALABERRI ZARATIEGI <i>Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)</i>
	<i>Iruñea/Pamplona</i>

AHOLKU BATZORDEA – CONSEJO ASESOR – COMITÉ CONSULTATIF – ADVISORY BOARD

OLGA ANOKHINA CNRS. Paris	IÑAKI CAMINO <i>Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)</i>
MIREN AZKARATE <i>Euskaltzaindia. Donostia/S. Sebastián</i>	Vitoria/Gasteiz
JOXE AZURMENDI <i>Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)</i>	PHILIPPE CHAREYRE <i>Université de Pau et des Pays de l'Adour. Pau</i>
Donostia/S. Sebastián	JEROEN DARQUENNES <i>Namur University. Belgium</i>
XARLES BIDEGAIN <i>Pauko eta Aturri herrialdeetako Unibertsitatea</i>	BENASET DAZÉAS <i>Lo Congrès permanent de la lenga occitana. Pau</i>
Baiona	ANA ETXAIDE <i>Nafarroako Unibertsitatea. Iruñea/Pamplona</i>
HERVE LE BIHAN <i>Université Rennes 2. Rennes</i>	JOSE RAMON ETXEBARRIA <i>Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)</i>
JOSU K. BIJUESCA <i>Deustuko Unibertsitatea. Bilbo</i>	Bilbo
GIDOR BILBAO <i>Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)</i>	MAITE ETXENIKE <i>Universitat de València. Valencia</i>
Vitoria/Gasteiz	PILAR GARCÍA MOUTON <i>Profesora ad honorem ILLA-CSIC. Madrid</i>
ANA ISABEL BOULLÓN AGRELO <i>Universidad de Santiago de Compostela</i>	
Santiago de Compostela	

EUGÈNE F.-X. GHERARDI  
*Università di Corsica Pasquale Paoli. UMR CNRS*  
LISA. Corsica

PATXI GOENAGA  
*Euskaltzaindia. Vitoria/Gasteiz*

RICARDO GOMEZ  
*Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)*  
Vitoria/Gasteiz

MANUEL GONZALEZ  
*Real Academia Galega. A Coruña*

MARTIN HAASE  
*University of Bamberg. Alemania*

BERNHARD HURCH  
*Graz University. Austria*

JOSE IGNAZIO HUALDE  
*University of Illinois. USA*

ITZIAR IDIAZABAL  
*Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)*  
Vitoria/Gasteiz

IÑAKI IRAZABALBEITIA  
*Elhuyar Fundazioa. Usurbil*

JACINTO ITURBE  
*Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)*  
Leioa

XABIER ITZAINA  
*CNRS, Centre Emile Durkheim,*  
*Sciences Po Bordeaux*  
Bordeaux

JABIER KALTZAKORTA  
*Deustuko Unibertsitatea. Bilbo*

JOSEBA ANDONI LAKARRA  
*Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)*  
Vitoria/Gasteiz

JON LANDABURU  
*CNRS. Paris*

ALBERTO LOIZATE  
*Basurtuko Ospitalea. Bilbo*

JUAN MADARIAGA  
*Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)*  
Iruñea/Pamplona

JOAN MARTÍ  
*Institut d'Estudis Catalans, Secció Filològica*  
Barcelona

JEP DE MONTOYA  
*Institut d'Estudis Aranesi. Vielha (Llèida)*

ENEKO OREGI  
*Eusko Jaurilaritza. Vitoria/Gasteiz*

JON ORTIZ DE URBINA  
*Deustuko Unibertsitatea. Bilbo*

ROSA MIREN PAGOLA  
*Deustuko Unibertsitatea. Bilbo*

JOSE ANTONIO PASCUAL  
*Real Academia Española. Madrid*

ANDONI SAGARNA  
*Euskaltzaindia. Donostia/S. Sebastián*

IBON SARASOLA  
*Euskaltzaindia. Donostia/S. Sebastián*

ANA TOLEDO  
*Euskaltzaindia. Donostia/S. Sebastián*

MIRIAM URKIA  
*UZEI. Donostia/S. Sebastián*

HANS VAN DER VELDE  
*Fryske Akademy / Utrecht University. Leeuwarden*  
(Netherland)

MIKEL ZALBIDE  
*Euskaltzaindia. Donostia/S. Sebastián*

JUAN JOSE ZUBIRI  
*Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)*  
Iruñea/Pamplona

*Teknikariak: JON ARTZA. Euskaltzaindia. Bilbo*

*IBON USARRALDE. Euskaltzaindia. Donostia*

*Aholkulariak: JOSEBA ZABALETA eta ERRAMUN OSA. Euskaltzaindia. Bilbo*

# E U S K E R A

## IKERKETA ALDIZKARIA

### AURKIBIDEA

#### IKERKETA ARTIKULUAK

- [11-44] Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) ikasleen argudiaketa zientifikoa: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez idazten  
ARIAS-HERMOSO, Roberto; LERSUNDI, Amaia; GARRO LARRAÑAGA, Eneritz eta IMAZ, Ainara
- [45-82] Euskara eta kulturartekotasuna uztartzeko esperientzia berria udalerrri euskaldunetan  
BARQUÍN LÓPEZ, Amelia eta PÉREZ LIZARRALDE, Karmele
- [83-125] Juan Kruz Igerabideren haur-poesia (1992-2005): poemen analisi tematiko, metriko eta estilistikoa  
CALVO, Oihane
- [127-157] *Gezurra dirudi*: hizkuntza figuratiboa, zeharkako gezurrak eta hiztunaren konpromisoa  
GARMENDIA, Joana
- [159-305] *Maria SS.<sup>a</sup> Concepciocoaren Sermoia* (1772an predikatua): Larramendiren beste sermoi baten kopia ote?  
LAKARRA, Joseba Andoni
- [307-359] Erredingo Luiseneko euskal predikuak (XVIII.-XIX. m.): aurkezpena, katalogazioa eta ikerketaren lehen emaitzak  
SANTAZILIA, Ekaitz

- [361-379] Fragmentarismoa testu postmodernoan: errealitatea kontatzeko ezintasuna Harkaitz Canoren *Kandelikaran*  
SOLANA, Paula
- [381-419] *Mikoleta* eskuizkribuko txistukarien auziaz  
ZULOAGA, Eneko

## OHARRAK

- [423-440] Jean-Baptiste Elizanburu (1828-1891) idazlearen lo-kanta ezezagun bat: *Haurcho bati*  
KALTZAKORTA, Jabier

## LIBURU AIPAMENAK

- [443-448] *Language Rights and the Law in Scandinavia: Sweden, Denmark, Norway, Iceland, the Faroe Islands, and Greenland*  
URRUTIA, Andres



**Ikerketa artikuluak**

**Artículos de investigación**

**Articles de recherche**

**Research articles**



# **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) ikasleen argudiaketa zientifikoa: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez idazten**

**Argumentación científica del alumnado de la  
Educación Secundaria Obligatoria (ESO): escritura en  
euskera, castellano e inglés**

**L'argumentation scientifique des élèves de  
l'enseignement secondaire: écrire en basque, espagnol  
et anglais**

**Secondary Education students' scientific argumentation:  
writing in Basque, Spanish and English**

ARIAS-HERMOSO, Roberto

Mondragon Unibertsitatea. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea  
rarias@mondragon.edu

ORCID: <https://orcid.org/0000-0002-0780-7320>

LERSUNDI, Amaia

Mondragon Unibertsitatea. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea  
alersundi@mondragon.edu

ORCID: <https://orcid.org/0000-0002-4951-8236>

GARRO LARRAÑAGA, Eneritz

Mondragon Unibertsitatea. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea  
egarro@mondragon.edu

ORCID: <https://orcid.org/0000-0002-6148-8383>

IMAZ AGIRRE, Ainara

Mondragon Unibertsitatea. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea  
aimaz@mondragon.edu

ORCID: <https://orcid.org/0000-0001-6415-1586>

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v1i70.297>

Jasotze-data: 2024/06/20

Behin-behineko onartze-data: 2024/10/31

Behin betiko onartze-data: 2024/11/26

Ikerketa honen helburua da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) ikasleek zientziaren eremuan euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez ekoizten dituzten argudioak maila diskurtsibo eta lexiko-gramatikalean aztertzea. Horretarako, DBH 3ko 34 ikaslek idatzitako testuetan argudiaketa-elementuak aztertu dira, Toulminen ereduak erabiliz, eta horiek ekoizteko erabilitako baliabide lexiko-gramatikalak diskurtso-analisiaren bidez identifikatu. Emaitzek antzekotasunak erakutsi dituzte hiru hizkuntzen artean, bai argudiaketa-elementuen ekoizpenean, baita baliabide lexiko-gramatikalen erabileran ere.

**Gako-hitzak:** funtzio kognitibo-diskurtsiboak, argudiaketa, idazketa eleaniztuna, alfabetatze zientifikoa.

El principal objetivo de esta investigación es analizar la producción escrita de argumentos científicos del alumnado de Educación Secundaria Obligatoria (ESO) en euskera, castellano e inglés en los planos discursivo y lexicogramatical. Los textos de 34 alumnos y alumnas de 3º de ESO se analizaron siguiendo la propuesta de Toulmin, y mediante el análisis de discurso se identificaron los recursos lexicogramaticales empleados para producir los elementos. Los resultados sugieren similitudes entre las citadas lenguas tanto en la producción de elementos de argumentación como en los recursos lexicogramaticales.

**Palabras clave:** funciones discursivo-cognitivas, argumentación, escritura multilingüe, alfabetización científica.

L'objectif principal de la présente recherche est d'analyser la production écrite d'arguments scientifiques d'élèves de l'enseignement secondaire en basque, en espagnol et en anglais, sur les plans discursif et lexicogramatical. Nous avons pu analyser les textes de 34 étudiants de 3<sup>ème</sup> année de l'Enseignement Secondaire Obligatoire (ESO) selon la proposition de Toulmin et employer l'analyse du discours afin d'identifier les ressources lexicogrammaticales utilisées pour produire ces éléments. Les résultats suggèrent des similitudes entre les trois langues dans la production d'éléments argumentatifs et les ressources lexicogrammaticales.

**Mots-clés :** fonctions du discours cognitif, argumentation, écriture multilingue, alphabétisation scientifique.

The present study aims to explore the written production of scientific arguments of Secondary Education students in Basque, Spanish and English at the discourse and lexicogrammatical levels. Argumentation elements (following Toulmin) were analysed in the texts written by 34 years 9 students, and the employed lexicogrammar was identified through a discourse analysis. Across-language similarities were found both in the use of argumentation elements and in the lexicogrammatical resources employed.

**Keywords:** cognitive discourse functions, argumentation, multilingual writing, scientific literacy.

ARIAS-HERMOSO, Roberto *et al.* (2025). «Secondary Education students' scientific argumentation: writing in Basque, Spanish and English», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 70 (1): 11-44.

1. Sarrera
2. Marko teorikoa
  - 2.1 Funtzio kognitibo-diskurtsiboak
  - 2.2 FKDen ekoizpena hizkuntza batean baino gehiagotan
  - 2.3 Argudiaketa zientifikoa
3. Ikerketa-helburuak eta -galderak
4. Metodologia
  - 4.1 Lagina eta testuingurua
  - 4.2 Datu-bilketarako tresnak
  - 4.3 Datu-bilketarako prozedura
  - 4.4 Datuen analisirako aztergaiak
5. Emaitzak eta eztabaida
  - 5.1 Argudiaketa-elementuen ekoizpenaren deskribapena
  - 5.2 Argudiaketa-gaitasun eleaniztuna: hiru hizkuntzen arteko korrelazioak
  - 5.3 Argudiaketarako baliabide lexiko-gramatikalak
6. Ondorioak, ekarpenak eta mugak

Bibliografia

Eranskina

## 1. Sarrera

Hizkuntza pentsamendua adierazteko bitartekoa dela defendatu da hainbat ikuspegi teorikotatik, besteak beste, ikuspegi soziokulturaletik (Vygotsky 1978) edota hizkuntzalaritza kognitibotik (Tenbrink 2021). Hala, hizkuntza da ezagutzak eraikitzeo eta komunikatzeko tresna nagusia; izan ere, ikaskuntza- eta irakaskuntza-prozesuetan ikasle eta irakasleek hizkuntza darabilte eduki akademikoak eraikitzeo, adierazteko eta ulertzeo (Mohan et al. 2010). Cumminsek (1984, 2021) hizkera akademikoa (*academic language proficiency* edo CALP) eta eguneroko hizkera (*conversational fluency* edo BICS) bereizi zituen: hizkuntza akademikoak barne biltzen du ikasleak testuinguru akademikoan behar duen hizkuntza-gaitasuna eta errepertorioa, hala nola testu akademikoak ulertzeo eta ekoizteo, arlo espezifikotako lexikoa erabiltzeo, edota arrazoitzeo (Li et al. 2022). Hori horrela, hizkuntza akademikoak eguneroko hizkeran ohikoak ez diren beste baliabide batzuk eskatzen ditu, eta horiek ezinbestekoak dira hezkuntza-arrakastarako. Aintzat hartu behar da diziplina bakoitzak hizkuntza-baliabide propioak erabiltzen dituela arloko ezagutzak eraiki eta komunikatzeko eta horietaz jabetu behar direla ikasleak (Beacco et al. 2016; Llinares et al. 2012). Esate baterako, zientziak kontzeptu eta prozedura enpiriko-esperimentalak deskribatzeko hizkuntza behar du, historiak, aldiz, gertaera historiko zehatzak kontatzeko hizkuntza. Ikasleek, beraz, arloetako hizkuntza garatu behar dute, eta horretarako arreta jarri behar da arloko alfabetatzean (*disciplinary literacies*) (Shanahan eta Shanahan 2008, 2012; Moje 2015).

Arloko alfabetatze horri erreparatzea gakoa da arloen eta hizkuntzen arteko integrazioa sustatzeko, bereziki hezkuntza-sistema eleaniztunetan (Dalton-Puffer et al. 2024; Morton 2020). Horretarako, funtzio kognitibo-diskurtsiboen konstruktua (FKD, Dalton-Puffer 2013) erabiltzea proposatzen da ikerketa eta irakaskuntzarako. Izan ere, FKDe arloko edukien, alfabetatzeen eta hizkuntzen arteko zubi-lanak egiten dituzte (Morton 2020). Ikerketa honetan arloko alfabetatzean eta FKDean jartzen da fokua, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) D ereduan ikasten duten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen argudiozko testu zientifikotetan. Testuak hiru hizkuntzetan —euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez— jaso

dira iturrietan oinarritutako ataza baten bidez (ikus Arias-Hermoso et al. 2024; Cheong et al. 2021), eta Toulminen (1958) argumentazio-elementuen eredua zein diskurtso-analisia erabili dira azterketarako. Orain arteko arloko alfabetatzeari buruzko ikerketa gehienek hizkuntza bakarrean aztertu dituzte ikasleen ekoizpenak. Gure ikerketak, berriz, ikuspegi eleaniztuna du, eta ikasleen hiru eskolatze-hizkuntzetako —euskara, gaztelania eta ingelesa— argudiozko testu zientifikoak aztertzen ditu. Ikerketa honen helburua, beraz, ikasleen ekoizpenetan hiru hizkuntza horietan egon daitezkeen ezberdintasunak eta antzekotasunak ikertzea da.

## 2. Marko teorikoa

Arloko alfabetatzea lantzeko gako gisa proposatzen den konstruktua da funtzio kognitibo-diskurtsiboena (FKD, hemendik aurrera; Dalton-Puffer 2013). Dalton-Pufferrek 2013an proposatu zuen FKDen konstruktua, zeinak ikaskuntza-prozesu kognitiboak eta horien errepresentazio linguistikoak barne biltzen dituen, hala nola *argudiatzea*, *konparatzea* edo *definitzea*. Konstruktua aukera ematen du ikasleen ekoizpenak aztertzeko maila mikroan, FKD bakoitza ekoizteko behar diren diskurtso-mailako patroiak eta hizkuntza baliabideak aintzat hartuta. FKDa arloko ezagutzak eraiki eta komunikatzeko gako direnez, horien ekoizpena diziplinak baldintzatzen du (Dalton-Puffer et al. 2024). Ondoko lerroetan FKDen konstruktua orokorrean, haien ekoizpen eleaniztuna eta argudiaketa zientifikoa ulertzeko zerbait gako jasoko ditugu.

### 2.1 Funtzio kognitibo-diskurtsiboak

Dalton-Pufferrek (2013; 2016) FKDa egoera komunikatibo akademiko jakinetan, eta asmo komunikatibo jakinei erantzuten, ematen diren kristalizatutako patroik kognitibo-linguistiko moduan definitzen ditu. Horiek aditz operatiboen bidez azaleratzen dira, hala nola argudiatu, definitu, konparatu edo azaldu. Aditz operatibo horiek zazpi kategoria handiagotan sailkatu zituen autoreak, haien funtzio komunikatibo nagusia kontuan hartuz (1. irudia).



**1. irudia.** FKDen konstruktua (Dalton-Puffer eta Bauer-Marschallinger 2019: 35. orrialdetik itzulia)

Asmo komunikatiboa	FKD motak	Familia berekoak
Esaten dizut posible dela mundua antolatzea ideia batzuen arabera.	KATEGORIZATU	salikatu, alderatu, kontrastatu, adibideak jarri, egituratu, batu
Esaten dizut ezagutza espezializatuko objektu honen hedadura.	DEFINITU	definitu, identifikatu, ezaugarritu
Esaten dizkizut ikusten dudanaren zehaztapenak (metaforikoki ere bai).	DESKRIBATU	deskribatu, etiketatu, identifikatu, izendatu, zehaztu
Esaten dizut zein den nire iritzia X horri buruz.	EBALUATU	ebalatu, argudiatu, epaitu, posizionatu, kritikatu, hausnartu, justifikatu, azaldu
Esaten dizkizut X horri buruzko kausak edo arrazoiak.	AZALDU	argitu, arrazoitu, kausa-ondorioa adierazi, inferitu, ondorioztatuz
Esaten dizut potentziala den zerbait (ez egiazkoa).	ESPORATU	esploratu, hipotesiak formulatu, aurretik esan, espekulatu, asmatu, estimatu, simulatu
Kontatzen dizut zerbait nigandik kanpo gertuko testuinguruan gertatua, eta zilegi da nik jakintza horren berri ematea.	BERRI EMAN	berri eman, informatu, laburtu, kontatu, aurkeztu

FKDak ikaskuntza eta irakaskuntza prozesu osoan agertzen dira, curriculumetako konpetentzia eta ikaskuntza-helburuak barne (Dalton-Puffer eta Bauer-Marschallinger 2019). Ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuan oso presente egonagatik ere, esplizituki landu ezean, FKDei ekoiztea edota horiek erabiltzeko gaitasuna garatzea konplexua izan daiteke ikasleentzat (Gerns 2023). Gainera, hainbat ikerketak erakutsi dute FKDei oinarritutako esku-hartze didaktikoei eragin positiboa dutela ikasleen ekoizpenean (Garro Larrañaga *et al.* 2024; Roca de Larios *et al.* 2023; Gerns 2023; Nashaat-Sobhy 2018).

Irakasleek eta ikasleek haien arteko elkarrekintzan maiz ekoizten dituzte FKDei (Dalton-Puffer *et al.* 2018), eta irakasleek horien ekoizpena aldamiatzeko estrategiak etengabe erabiltzen dituzte, hala nola esplizituki eskatuz, ikasleen erantzunak osatuz, galdera gehigarriak eginez edota birformulatzeko eskatuz (Lersundi 2022). Ikas-materialetan ere badaude FKDei (Lersundi 2022); izan ere, arloko testuliburuetak ariketek maiz eskatzen dute definitzeko, prozesu bat kontatzeko, edota datuak interpretatzeko eta zenbait kasutan horien lanketarako aukerak ere eskaintzen dira.

FKDak bi mailatan gauzatzen dira: maila diskurtsiboan eta lexiko-gramatikalean (Dalton-Puffer et al. 2018; Wu eta Lin 2022). Aurreko ikerketek FKD jakinak ekoizteko ikasleek erabiltzen dituzten patroï diskurtsibo eta lexiko-gramatikalak identifikatu dituzte, hala nola *sailkatzea/alderatzea* (Gerns 2023; Evnitskaya eta Dalton-Puffer 2023) edota *definitzea* (Llinares eta Nashaat-Sobhy 2023). Maila diskurtsiboak FKD jakin baten ekoizpenaren egitura-elementuak jasotzen du (Evnitskaya eta Dalton-Puffer 2023; Llinares eta Nashaat-Sobhy 2021), eta kontuan hartzen ditu diskurtso-mailako patroiak. *Argudiatzea* adibidetzat hartuta, aurreko ikerketek (Toulmin 1958; Crossley et al. 2022; Garro Larrañaga et al. 2024) bost argudiaketa-elementu nagusi identifikatu dituzte plano diskurtsiboan: baieztapenak, datuak, bermeak, kontraargudioak eta ezeztatzeak (ikus 1. taula bakoitzaren definiziorako eta corpuseko adibide zehatzak ikusteko). Horiek argudiaketaren diskurtso-egitura islatzen dute. Bestetik, baliabide lexiko-gramatikalak (BLak hemendik aurrera) agertzen dira, hau da, zein hizkuntza (lexiko, gramatika, sintaxi) baliabide behar diren FKD bakoitza ekoizteko. Liu eta Stapletonek (2014) aipatu moduan, argudiaketa-elementuak ekoizteko markatzaile linguistiko espezifikoak ageri ohi dira, hala nola «nire ustez» baieztapenatarako, «horrez gain» datuak emateko, edota «egia da..., baina» kontraargudioak ekoizteko. Hala ere, aurreko ikerketek ere proposatu duten moduan (Liu eta Stapleton 2014; Qin eta Karaback 2010), ikasleen argumentazioa beti ez dago linguistikoki markatua. Izan ere, ikasleek maiz ez dute erabiltzen marka linguistiko espliziturik haien iritzia adierazteko edo defendatzeko.

## 2.2 FKDen ekoizpena hizkuntza batean baino gehiagotan

FKDen konstruktua edozein hizkuntza edo arlotan aplikatu daiteke, nahiz eta ikerlan gehienen arretagune nagusia ingelesezko CLIL (*Content and Language Integrated Learning*) edota EMI (*English Medium Instruction*) testuinguruak izan diren (Lorenzo 2017; Gerns 2023; Roca de Larios et al. 2023). Ikerketa gutxi batzuek FKDen ekoizpena hizkuntza baino gehiagotan ikertu dute, hala nola gaztelania eta ingelesa (Evnitskaya eta Dalton-Puffer 2023; Llinares eta Nashaat-Sobhy 2021) edota euskara, gaztelania

eta ingelesa (Arias-Hermoso et al. 2024). Hizkuntza bat baino gehiago aztertu duten ikerketek baieztatu dute, oro har, ikasleen FKDen ekoizpenek antzekotasunak erakusten dituztela hizkuntzen artean (Evnitskaya eta Dalton-Puffer 2023; Llinares eta Nashaat-Sobhy 2021; Llinares eta Morton 2024). Adibidez, Llinares eta Nashaat-Sobhyk (2021) bigarren hezkuntzako ikasleen definizioak gaztelaniaz eta ingelesez aztertu ostean, ikasleek bi hizkuntza horietan gehienbat definizio sasi-formalak erabiltzen zituztela ondorioztatu zuten, eta definizioak hedatzeko joera berdintsua erakutsi zutela bi hizkuntzetan (definizioen erdia baino gehiagotan hedapenak zeuden). Evnitskayak eta Dalton-Pufferrek (2023) ere, CLIL metodologia jarraitzen duten H1 gaztelania eta H2 ingelesezko sailkapen-konparazio ekoizpenetan antzekotasunak aurkitu zituzten, izan ere, ikasleek sailkapen oso eskematikoak ekoizten zituzten bi hizkuntzetan. Horrez gain, ikasleek izen konkretuak abstraktuak baino gehiago erabili zituzten sailkapenak egiteko bi hizkuntzetan, nahiz eta beren lehen hizkuntzan (H1) erabilitako lexikoa anitzagoa izan. Arias-Hermoso et al.k (2024) euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz argudiaketa ikertu zuten, eta antzekotasun ugari aurkitu zituzten argudiaketa-elementuen presentzian, eta horiek ekoizteko iturrietako informazioa erabiltzeko estrategietan ikasleek erabilitako hiru hizkuntzetan.

FKDen ekoizpena hizkuntza batean baino gehiagotan ikertu duten lanak, hortaz, idazketa eleaniztunari buruzko teoriekin bat datoz (Rinnert eta Kobayashi 2016; Orcasitas-Vicandi 2021). Nahiz eta FKDen ikuspegitik hizkuntzen arteko transferentziak oraindik sakon aztertzeke dauden, oro har, aipaturiko ikerketek Cummins-en azpiko gaitasun komuna dute oinarri (1980, *Common Underlying Proficiency* edo CUP). CUP-en arabera norbanakoaren hizkuntza-errepertorioa gaitasun linguistiko beraren gainean eraikitzen da, eta horrenbestez, hizkuntzen artean transferentziak gertatzen dira (ikus Cenoz eta Gorter 2011, Larringan et al. 2015). Hainbat ikerlarik (Cenoz eta Gorter 2011; Rinnert eta Kobayashi 2016) transferentzia horiek hiztun baten hizkuntza guztien arteko gaitasunetan gertatzen direla defendatzen dute, bai H1etik H2ra edo H3ra, baita kontrako norabidean ere (H3→H1).

Autore horiek maila ezberdinetan hizkuntzen arteko transferentziak daudela proposatzen dute, adibidez, jariotasun eta zuzentasunean (Arias-Hermoso

eta Imaz Agirre 2024, Orcasitas-Vicandi 2021; Sagasta 2003), markatzailleen erabileran (Martín-Laguna eta Alcón-Soler 2018; Martín-Laguna 2020), edota puntuazio holistikoetan (Cenoz eta Gorter 2011). Hizkuntza gutxitu batean eskolatuta dauden ikasleekin egin diren ikerketen kasuan, hizkuntza gutxituan (euskaraz/katalanez) eta nagusian (gaztelaniaz) ekotzitako testuen arteko korrelazio indartsuak aurkitu dituzte aurreko ikerketek (Arias-Hermoso eta Imaz Agirre 2024; Martín-Laguna 2020; Orcasitas-Vicandi 2021; Sagasta 2003), batez ere atzerriko hizkuntzarekiko korrelazioekin konparatuz gero. Euskararen testuinguruan, hainbat ikerlanek azpimarratu dute hizkuntzen arteko transferentzien ideia idatzizkoan (ahozkoan ere, ikus Aldekoa *et al.* 2020). Pagolak (2010) DBH2n azalpen testuen lanketa euskaraz egin ostean, gaztelaniaz eta ingelesez ere hobekuntzak bazeudela aurkitu zuen, izan ere, «testuen egitura zuzen-zuzenean transferitzen da hizkuntza batetik bestera» (2010: 145). Sagastaren (2003) ikerketak gako bereziki interesgarri bat azpimarratu zuen: H1 euskara zuten ikasleek korrelazio handiagoak erakutsi zituzten euskara, gaztelania eta ingelesaren artean H1 gaztelania zutenek baino. Laburbilduz, hainbat ikerketek (hala nazioartekoek nola euskaldunek) azpimarratu dute hizkuntzen arteko transferentzien ideia, eta, nahiz eta edozein hizkuntzatik edozein hizkuntzara gertatu daitekeen, H1-H2ren artean indartsuagoa izan daitekeela nabarmendu dute (Arias-Hermoso eta Imaz Agirre 2024; Martín-Laguna 2020; Orcasitas-Vicandi 2021; Sagasta 2003).

### 2.3 Argudiaketa zientifikoa

Hainbat ikerketak (Polias 2016; Beacco *et al.* 2016) azaldu dute argudiaketa hezkuntzan duen garrantzia, pentsamendu kritikoarekin eta arrazoi-kearekin lotuta baitago. Hezkuntzan ez ezik, zientzien ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuetan argudiaketa duen garrantzia bereziki azpimarratu dute hainbat autorek (Martín-Gámez eta Erduran 2018; Polias 2016; Kuhn 1993). Argudiatzea *ebalutu* kategoria osatzen duten aditz operatiboetako bat da (ikus 1. taula), eta zientzietan, norbere ikuspuntua datu objektiboan, logikaren eta arrazoiaketaren bidez defendatzean datza (Dalton-Puffer 2013, 2016; Sandoval eta Millwood 2007). Nahiz eta gaitasun linguistiko eta kog-

nitibo konplexua izan (Meneses *et al.* 2023), argudiaketa zientifikoa irakas-teak onurak dakartzala defendatu dute aipatutako ikerketek, batez ere kon-zeptu zientifikoen ulermenerako eta zientzietako alfabetatzearen garapenerako (Li *et al.* 2022).

Toulminen eredia (1958) argudiaketa-elementuak aztertzeke gehien erabili den metodoetako bat da (Crossley *et al.* 2022), eta FKDein eginda-ko ikerketetan ere proposatu da argudiaketa-elementuak identifikatzeko (Garro Larrañaga *et al.* 2024; Hüttner eta Smit, 2017). Aipatu bezala, ere-duak argudiaketaren patroi diskurtsiboak jasotzen ditu: baieztapenak (*claim*), datuak (*data*), bermeak (*warrant*), kontraargudioak (*counterargu-ment*) eta ezeztatzeak (*rebuttal*). Elementuen definizioak eta adibideak ikus-teko, ikusi 1. taula. Qin eta Karabacken ustez (2010), argudiaketa-egitura bat gerta dadin ezinbestekoak dira gutxienez baieztapenak eta hori defen-datzeke datuak. Kontraargudioak, bermeak eta ezeztatzeak, aldiz, elementu konplexuagoak dira, eta horrenbestez, ekoizpen garatuagoetan agertu ohi dira (Crammond, 1998; Liu eta Stapleton 2014), konplexutasun horrek lanketaren beharra azpimarratzen du (Garro Larrañaga *et al.* 2024). Argu-diaketa eleaniztunari dagokionez, nahiz eta FKDen ikuspegitik ez den az-terketarik egin, ikasleen argudioen ekoizpena hizkuntza batean baino gehia-gotan aztertu da. Orokorrean hizkuntza ezberdinetako ekoizpenen arteko antzekotasunak aurkitu dituzten arren (Arias-Hermoso *et al.* 2024; Cheong *et al.* 2021; Van Weijen *et al.* 2019), ezberdintasun batzuk ere azaleratu dira. Adibidez, ikasleen H1 testuak osoagoak direla azpimarratu da, argudiake-ta-elementu gehiago eta esanguratsuagoak baitituzte bigarren hizkuntzare-kin (H2) alderatuta (Cheong *et al.* 2021). Hala, ikasleek H1ean aldeko eta kontrako argudioak sartzeko joera handiagoa erakutsi dute (Van Weijen *et al.* 2019).

### 3. Ikerketa-helburuak eta -galderak

FKDen konstruktua oraindik garatzen ari da, ondorioz, horiek ekoizteko beharrezkoak diren patroi diskurtsiboak eta BLak ikertzea beharrezkoa da (Gerns 2023). Horrez gain, FKDen arloan, guk dakigula, hiru hizkuntzen

arteko transferentziak edo antzekotasunak ez dira ikertu, eta horrek FKDen izaera eleaniztuna hobeto ezagutzen lagunduko luke. Horrenbestez, ikerketa honen helburu nagusia da Bigarren Hezkuntzako ikasleen argudio zientifikoak ekoizteko darabiltzaten patroik diskurtsibo eta lexiko-gramatikalak aztertzea hiru hizkuntzetan. Horrez gain, hiru hizkuntzetako ekoizpenetan patroik horietan egon daitezkeen antzekotasunak ere aztertu nahi dira. Horretarako, hiru ikerketa-galdera proposatzen dira:

- A) Zein argudiaketa-elementu ekoizten dituzte ikasleek argudio testu zientifiko bat idaztean euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez?
- B) Badago korrelatorik hiru hizkuntzetako testuetako argudiaketa-elementuen ekoizpenen artean?
- C) Zein baliabide lexiko-gramatikal erabiltzen dituzte ikasleek argudiaketa-elementuak ekoizteko euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez?

## 4. Metodologia

### 4.1 Lagina eta testuingurua

Ikerlan hau ikerketa proiektu zabalago baten parte da. Ikerketa proiektuaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) eremu soziolinguistiko desberdinetako eta H1 euskara, gaztelania edota biak dituzten ikasleen zientzia arloko alfabetatzearen garapen patroiak DBHn ikertzea, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Artikulu honetan aurkezten den ikerketa lana nagusiki eremu erdaldunean (euskararen erabilera % 3,4; Soziolinguistika Klusterra 2021) dagoen D ereduko eskola publiko batean egin da. D ereduko eskola denez, ikasleen eskolatzeko hizkuntza euskara da, eta gaztelania eta atzerriko hizkuntza (ingeleza) ikasgai moduan ikasten dituzte. Hori horrela, ikasleek 26 ordu jasotzen dituzte astean euskaraz (horietako 3 euskarako ikasgaiak), 3 ordu gaztelaniaz eta 3 ordu ingelesez. 34 parte-hartzaileetatik 33k beren H1 gaztelania zela adierazi zuten, ikasle batek adierazi zuen euskara eta gaztelania zituela H1. Oro har, ikasle guztien hizkuntza nagusia gaztelania zen. Uste dugu lagin hau bereziki interesgarria dela H2 euskara duten ikasleek hiru hizkuntzetan nola idazten duten ulertzeko.

Datuak 2022ko azaroan jaso ziren DBH 3ko bi gela paralelotan. Ikerketako lagina 34 ikaslek osatzen dute. Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuari dagokionez, bi gelen baldintzak antzekoak dira: irakasle-taldea berdina da, eta ez dago alderik bi taldeen ikasle-kopuruan eta emaitza akademikoetan. Artikulu honetan aurkezten diren emaitzak ikerketa-proiektu handiago baten parte dira. Ikerketa-proiektu nagusiaren helburuetako bat Iturrietan Oinarritutako Idazketan<sup>1</sup> (IOI hemendik aurrera) input moten arteko ezberdintasunak aztertzea da. Beraz, gela bakoitzak input mota bat jaso zuen idatzizko-ekoizpen ataza egiteko. Hortaz, taldeen arteko ezberdintasun nagusia jasotako inputa izan zen: taldeetako batek (BID\_T,  $n = 20$ ) bideo animatu bat jaso zuen iturri moduan, eta besteak (TXT\_T,  $n = 14$ ) idatzizko testu bat. Artikulu honen xedea ez da inputen arteko ezberdintasunak azaltzea, horretarako, ikusi Arias-Hermoso et al. (2024).

Taldeen hizkuntza-mailak neurtzeko, LexTale testak erabili ziren euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez (ikus Bruin et al. 2017; Izura et al. 2014; Lemhöfer eta Broersma 2012 prozeduraren azalpenerako). Testek bi taldeen artean ezberdintasunik ez zegoela erakutsi zuten ( $p$  guztiak  $> 0.22$ ), beraz, bi taldeen hizkuntza-mailan ez dagoela ezberdintasunik ondoriozta daiteke, eta artikulu honetan talde bakar bat moduan hartuko dira.

## 4.2 Datu-bilketarako tresnak

Ikerketa honetan IOI ataza bat erabili zen parte-hartzaile guztiak ataza betetzeko informazio nahikoa zutela ziurtatzeko (Read 1990). Hortaz, bi input mota ezberdinetan oinarritutako atazak diseinatu ziren hiru hizkun-

---

<sup>1</sup> Ingelesez, *source-based writing task* edo *integrated writing task* erabiltzen da. IOI atazek hizkuntza-gaitasun bat baino gehiago aktibatzen dute; izan ere, idazleari ulermen, ekoizpen eta integrazio prozesuak aktibatzen dio (Afflerbach et al. 2015). Laburbilduz, idazleari emandako iturri jakin bateko edo batzuetako (adibidez, idatzizko testuak, grafikoak, ikus-entzuneak...) informazioa ulertzea eta horretan oinarritutako idatzizko ekoizpenak sortzea eskatzen die (Plakans eta Gebriel 2013; Yang eta Plakans 2012; Cheong et al. 2021; Zhu et al. 2016). Ataza mota hauek hizkuntza-trebetasunak ikuspegi bateratuago edo integratuagoan erabiltzea eskatzen dute (Zubiaurre Otamendi 2022). Maila teorikoan informazio gehiagorako, ikusi Cheong et al. 2021 edo Arias-Hermoso et al. 2024.

tzetan: bideo animatu bat eta idatzizko testu bat. Bideoan eta testuan informazio bera eskaintzen zitzaien ikasleei, eta hizkuntzen arteko ezberdintasunik ez zegoen. Ikerketaren asmoa idazketa zientifikoa neurtzea zenez, kontsigna espezifikoak sortu zen EAEko Zientzietako curriculumari jarraituz. Hautatutako gaia nutrizioa izan zen, eta partaideek bi FKD ekoitzi behar zituzten iturrietan oinarrituta: *argudiatzea* eta *alderatzea*. Horretarako, partaideek gaiari lotutako bi elementu (txokolate esneduna eta oilaskoa) konparatu behar zituzten, eta horietako baten aldeko argudiaketa idatzi, galdera honi erantzunez: *Zein da bien artean osasuntsuena, oilaskoa ala txokolate esneduna? Argudiatu zure erantzuna beharrezko datuak emanex*. Galderarekin bat, eskolako blogerako 150 hitz inguruko argudiozko testu zientifikoak idazteko eskatu zitzaien euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez.

Elikagaien Zientzietako aditu batek inputetako informazioa begiratu eta ontzat jo zuen. Txokolateari eta oilaskoari buruzko informazio kopurua berdina zen, eta bakoitzaren aldeko eta kontrako datuak agertzen ziren bi inputetan. Iturriek ez zeukaten argudiaketa egiturarik ez baliabide lexiko-gramatikal espliziturik, hau da, *kausa*, *ondorio* edota *horregatik* moduko BLrik. IOI atazez gain, bi galdetegi ere erabili ziren: bat partaideen informazio soziolinguistikoa jasotzekoa, eta beste bat hizkuntza-maila neurtzeko (LexTale probak).

### 4.3 Datu-bilketarako prozedura

Datuen bilketarako, geletako bakoitzean ikerlari bat egon zen, eta aldi berean jaso ziren datuak. Hiru orduko tartea erabili zen hiru testuak eta bi galdetegiak betetzeko. Horretarako, hurrenkera hau jarraitu zen:

Lehenik eta behin, ikasleei IOI ataza bat egingo zutela azaldu zitzaien, hiru hizkuntzetan eta zientziei buruzkoa. Horretarako, azaldu zitzaien input bat (bideo edo testu bat) jasoko zutela, horri buruzko oharra hartzeko tarte bat izango zutela, eta hartutako informazioarekin testu bat eskuz idatzi beharko zutela. Azaldu zitzaien idazlana egin bitartean ez zituztela eskuragarri izango iturriak, baina hartutako apunteak erabili ahal izango zituztela. Jarraian, ataza egiten hasi aurretik, testuinguru soziolinguistikoa jasotzeko galdetegia bete zuten.



Galdetegia bete ostean, idazlan probak egin zituzten ikasleek. Idazlana egiten hasi aurretik, inputa jaso eta lau minutuko tartea izan zuten nahi zuten informazioa apuntatzeko. Lau minutuak pasata, iturriak kendu eta 25-30 minutuko tartea izan zuten 150 hitz inguruko idazlanak osatzeko. Hizkuntzen ordenaren eragina kontrolatzeko asmoz, testuen ordena erdi-*-*ausazkoa erabili zen: gela bakoitzeko ikasleak hiru azpi-taldetan banatu ziren, eta taldeetako bakoitzak ordena jakin bat jarraitu zuen idazlanak egiteko (EU>ES>EN, ES>EN>EU, EN>EU>ES). Horrela, errepikatze- eta praktika-efektuak kontrolatu ahal izan ziren. Testu bakoitza amaitutakoan, zegokion hizkuntzako LexTale proba egin zuten ikasleek (5 minutu inguru proba bakoitzeko).

#### 4.4 Datuen analisirako aztergaiak

Datuen analisia MAXQDA programarekin egin da. Aurretik aipatu moduan, FKDe bi maila izan ditzakete (diskurtsiboa eta lexiko-gramatikala). Ikasleen argudiaketa bi maila horietan ikertu da. Maila diskurtsiboan, argudiaketaren patro-*-*eskema diskurtsiboak identifikatu dira ikasleen hiru hizkuntzetako testuetan, horretarako, argudiaketa-elementuak identifikatu dira. Toulminen (1958) eredu moldatua erabili da, aurreko ikerketen proposamenetan oinarrituta (Qin eta Karaback 2010; Liu eta Stapleton 2014). Ereduak argumentazioaren bost elementu jasotzen ditu: baieztapenak (*claim*), datuak (*data*), bermeak (*warrant*), kontraargudioak (*counterargument*) eta ezeztatzeak (*rebuttal*). 1. taulak elementu bakoitzaren definizio eta corpuseko adibideak jasotzen ditu, parte-hartzaileek idatzi bezala. Anlisi estatistikoak (bide bakarreko ANOVA, neurri errepikatuetako ANOVA eta korrelazio-analisiak) Jamovi tresnarekin egin dira.

**1. taula.** Argudiaketa-elementuen definizio eta adibideak  
(Qin eta Karaback 2010)

Elementua	Definizioa	Adibidea
BAIEZTAPENAK	Gaiari buruzko idazlearen iritzia.	If we talk about nutritional values, <i>chicken is the healthies option.</i>
DATUAK	Iritzia defendatzeko idazleak erabilitako aldeko informazioa.	Nik uste dut oilaskoa hobea dela, lehenengo, <i>kaloria gutxiago dituelako, koipe gutxiago, ez du ia azukrerik, proteina asko ditu, kaltzio gutxi eta gatz kantitate normala.</i>
BERMEAK	Baieztapenaren eta datuen arteko lotura, hau da, datuen justifikazioa.	Oilaskoa dieta azkotan erabiltzen <i>da energia ematen duelako eta nerbio sistema digestio aparatuan eta bere funtzionamendua ondo joateko laguntzen duelako.</i>
KONTRAARGUDIOAK	Baieztapenaren kontrako informazio edota datuak.	Por otra parte, el chocolate <i>ayuda a controlar el colesterol, y es bueno para la memoria y para mejorar las conexiones del cerebro.</i> A día de hoy, hay investigaciones que afirman que el <i>chocolate blanco influye en el humor.</i>
EZEZTATZEAK	Mugimendu konplexua, zeinetan idazleak kontraargudio bat gutxiesten duen.	Milk chocolate may have more calcium than the chicken but its still the <i>worst worst option</i> respecting nutritional value.

Baliabide lexiko-gramatikalen analisia egiteko diskurtso-analisia egin zen MAXQDA tresna erabiliz. FKDen ikuspegitik, Evnitskayak eta Dalton-Pufferrek (2023) *sailkatzea* FKDa ekoizteko BLak identifikatu zituzten, eta horien funtzio komunikatiboaren arabera sailkatu zituzten. Metodologia antzekoan oinarrituta, gure ikerketan hiru kode sortu ziren *argudiatzea* FKDa ekoizteko erabilitako BLak sailkatzeko:

- Iritzia emateko BLak: baieztapenen ekoizpenarekin lotuta (adibidez, *nire ustez / he llegado a la conclusión de / I think*).
- Arrazoitze eta kausa-ondorioak adierazteko BLak: datuak eta bermeak ekoizteko erabilitako BLak (adibidez, *horregatik / por eso / because*).
- Ideiak kontrajartzeko eta kontraargudioak adierazteko BLak: kontraargudioak eta ezeztatzeak ekoizteko erabilitako BLak (adibidez, *baína / a pesar de eso / but*).

Aipatutako moduan, ikasleen hiru hizkuntzetako testuetan BLak identifikatu dira, eta hiru talde horietan banatu dira. BLak baliabide lexikoak (*arra-zoi, argudio*), sintaktikoak (*nahiz eta X-k onurak izan...*) edota testu-antolatzaileak (*ondorioz*) izan daitezke (ikus Evnitskaya eta Dalton-Puffer 2023), testu-antolatzaileak barne. Garrantzitsua da aipatzea ikerlan honen helburua ez dela BL moten hierarkia bat sortzea, baizik eta ikasleek erabili dituztenak deskribatzea. Horrenbestez, identifikazio prozesuan BL horiek zerrendatu ditugu, horien frekuentziak kontuan hartu gabe. Prozesuan 3x3 zerrenda egin da: hiru hizkuntzak eta hiru funtzio komunikatiboak. Zerrenda honek esplizituki markatutako BLak hartzen ditu kontuan (emaitzak ikusteko, 4. taula).

## 5. Emaitzak eta eztabaida

Atal honetan, ikergaldera bakoitzari lotutako emaitzak eta horien eztabaida azaltzen dira. Lehenik eta behin, argudiaketa-elementuak hiru hizkuntzetan deskribatzen ditugu, ekoizpenen arteko ezberdintasunetan arreta jarritz. Jarraian, korrelazio-analisen emaitzak aurkezten dira, hobeto ulertzeko hiru hizkuntzetako testuetako argudiaketa-elementuen ekoizpenen arteko antzekotasunak. Azkenik, BLen deskribapen eleaniztuna aurkezten da ikasleen adibideak oinarri hartuz. Emaitzak azaltzean, ikergaldera bakoitzari dagokion eztabaida ere aurkezten da.

### 5.1 Argudiaketa-elementuen ekoizpenaren deskribapena

Atal honetan ikasleen argumentazio-gaitasuna IOI ataza batean aztertuko da, argumentazio-elementuen ekoizpenaren presentzia eta kopuruak

kontuan hartuta. Lau ikaslek ez zuten baieztapenik sortu, hau da, ez zuten haien gaiarekiko iritzia adierazi idazlanetan. Zehazki, lau ikasle horiek hiru testuetako batean ere ez zuten baieztapenik ekoitzi. Ondorioz, 12 testu (testu guztien % 11,76) ondoko analisisetatik kendu ziren. Gainontzeko testuetan beste lau elementuak (datuak, bermeak, kontraargudioak eta ezeztatzek) identifikatu dira.

Baieztapena zuten testuen artean beste lau elementuak identifikatu dira. ANOVA batek elementuen arteko ezberdintasun nabariak erakutsi zituen ( $p$  guztiak  $< 0.001$ ), datuak elementurik erabiliena izanda, kontraargudioek eta bermeek jarraituta. Testu guztietan ageri ziren datuak (gutxienez, 3), aitzitik, beste elementuak ez ziren testu guztietan agertzen. Kontraargudioak euskarazko testuen % 93, gaztelaniazko % 87 eta ingelesezko % 97tan agertzen ziren; bermeak, aldiz, euskaraz eta gaztelaniazko testuen % 77tan agertzen ziren, eta ingelesezko testuen % 60tan. Ezeztatze kopurua askoz baxuagoa da; izan ere, euskarazko eta ingelesezko testuen % 17tan agertzen dira, eta gaztelaniazko testuen % 30etan. Argudiaketa-elementu bakoitzaren hizkuntzen arteko ezberdintasunak aztertzeko, neurri errepikatuetako ANOVA bat erabili zen. 2. taulan ikus daitekeenez, ezberdintasunik ez zegoela erakutsi zuen analisiak ( $p$  guztiak  $> 0,15$ ).

**2. taula.** Estatistika deskriptiboak eta hizkuntzen arteko ANOVAREN emaitzak

Argudiaketa- -elementuak	EU		ES		EN		ANOVA F (p)
	BB (SD)	Tartea	BB (SD)	Tartea	BB (SD)	Tartea	
DATUAK	7,76 (2,56)	4-12	7,33 (2,08)	4-11	6,96 (2,55)	3-12	1.07 ( $p = 0.35$ )
GARANTIAK	1,83 (1,70)	0-7	2,03 (2,51)	0-12	1,46 (1,96)	0-9	1.53 ( $p = 0.22$ )
KONTRAARG.	4,06 (2,06)	0-8	4,26 (2,65)	0-9	3,3 (1,98)	0-8	1.59 ( $p = 0.15$ )
EZEZTATZEAK	0,2 (0,48)	0-2	0,3 (0,46)	0-1	0,23 (0,62)	0-3	0.33 ( $p = 0.72$ )

Kopuruak ikusita, oro har esan daiteke ez dagoela ezberdintasun esanguratsurik hizkuntzen artean ikasleen argudiaketa-elementuen kopuruari dagokionez, nahiz eta, oro har, euskarazko eta gaztelaniazko testuetan elementu guztien kopurua zertxobait altuagoa izan. Ezberdintasun falta horrek argudiatzeko gaitasuna transferigarria izan daitekeela adieraz dezake, aurreko ikerketa batzuek ere proposatu duten ildotik (Arias-Hermoso *et al.* 2024; Cheong *et al.* 2021; Van Weijen *et al.* 2019).

Horrez gain, behin baieztapenik gabeko testuak corpusetik kenduta, testu guztietan datuak agertzeak ikasleek, gutxienez, oinarrizko argudiaketa maila badutela erakusten du. Izan ere, baieztapenak eta datuak behar-beharrezko elementuak dira argudioak ekoizteko (Crammond 1998; Toulmin 1958; Qin eta Karaback 2010), horiek agertu ezean, argudio-egiturarik ez da posible. Bestalde, kontraargudioak, bermeak eta ezeztatzeak argudiaketa mugimendu konplexuagoak dira (Crammond 1998; Liu eta Stapleton 2014; Garro Larrañaga *et al.* 2024), eta aurreko ikerketekin bat etorritik, horien ekoizpenen kopurua baxuagoa da. Kontraargudioak testu gehienetan agertzen dira, atazaren/kontsignaren eragina dela eta. Hau da, ikasleek bi elementuen arteko konparazioa egin behar zuten, beraz, bi elementuen aldeko (datuak eta garantiak) eta kontrako informazioa (kontraargudioak) ekoiztea espero zen. Hala ere, ikus daitekeen moduan, kontraargudioen kopurua baxuagoa da datuena baino. Bermeen eta ezeztatzeen kopuruak baxuak dira, izan ere, bermeak soilik testuen % 30,11tan agertzen dira, eta ezeztatzeak % 21,43tan.

## 5.2 Argudiaketa-gaitasun eleaniztuna: hiru hizkuntzen arteko korrelazioak

Argudiatzeko gaitasunean hizkuntzen arteko transferentziak ikusteko, aurreko ikerketei jarraituta (Arias-Hermoso eta Imaz Agirre 2024; Cenoz eta Gorter 2011; Cenoz 2013; Orcasitas-Vicandi 2021; Sagasta 2003), korrelazio-analisiak egin dira argudiaketa-elementu bakoitzarekin. Literaturan oinarrituta, hizkuntzen arteko korrelazioak positiboak izango direla da hipotesia, beraz, alde bakarreko Pearson korrelazio-analisia erabili da. 3. taulan elementu bakoitzaren hizkuntza-bikotekako korrelazioak ikus daitezke.

## 3. taula. Argudiaketa-elementu bakoitzaren hizkuntzen arteko korrelazioak

Argudiaketa- -elementuak	EU-ES		EU-EN		ES-EN	
	<i>r</i>	<i>p</i>	<i>r</i>	<i>p</i>	<i>r</i>	<i>p</i>
DATUAK	<b>0,330</b>	0,038	<b>0,309</b>	0,048	0,034	0,428
GARANTIAK	<b>0,573</b>	< 0,001	<b>0,540</b>	0,001	<b>0,802</b>	< 0,001
KONTRAARG.	0,078	0,340	0,096	0,307	<b>0,410</b>	0,012
EZEZTATZEAK	0,183	0,166	-0,045	1,000	<b>0,343</b>	0,032

3. taulan ikus daitekeenez, argudiaketa-elementuetako batzuek hizkuntzen arteko korrelazio esanguratsua erakutsi dute. Bermeen kopurua hiru hizkuntzen artean dago korrelazionatuta; korrelazio moderatu-altuak erakusten dituzte. Datuen erabilera euskararen eta beste bi hizkuntzen artean dago korrelazionatuta, eta kontraargudio eta ezeztatzen ekoizpena soilik gaztelaniaz eta ingelesez.

Oro har, korrelazio-emaitez idazketa eredu eleaniztunak proposatzen dituzten aurreko ikerketekin bat egiten dute (Rinnert eta Kobayashi 2016; Cenoz eta Gorter 2011; Orcasitas-Vicandi 2021) eta hiru hizkuntzetako ekoizpenen arteko antzekotasunak badirela erakusten da. Gauzak horrela, Cummins (1980) hizkuntzen arteko interdependentzia hipotesia betetzen da, baita azpiko gaitasun komunaren hipotesia ere (Granados *et al.* 2021, 2022). Egia da aurreko ikerketa batzuetako emaitzekin bat etorri neurri guztiek ez dutela korrelazio esanguratsua erakutsi hiru hizkuntzen artean. Adibidez, Etxague eta Van der Worpen ikerketan (2020), eskala analitiko-dimentsio batzuek soilik zeukaten korrelazio esanguratsua ikasleek irudi bat deskribatzen euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Arias-Hermosok eta Imaz Agirrek (2024) zientzietako argudio-testuetan jarrotasun eta zuzentasunean euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko ekoizpenen arteko erlazio esanguratsuak aurkitu zituzten aztertutako neurri guztietan, baina hizkuntza-komplexutasun neurrien kasuan, soilik neurrietako batzuek erakutsi zuten. Ondorioz, esan daiteke argudiaketa-elementu batzuk —hala nola garantiak edo datuak— beste batzuk baino errazago transferitzen direla hizkuntzen artean.

### 5.3 Argudiaketarako baliabide lexiko-gramatikalak

Metodologian aipatu moduan, ikasleen testuetan identifikatutako BLak helburu komunikatiboaren arabera eta hizkuntzaren arabera sailkatu dira, Evnitskaya eta Dalton-Pufferrek *kategorizatzea* FKDarekin egindako (2023) ereduari jarraituz. 4. taulan linguistikoki markatuak dauden BL motak jasotzen dira.

**4. taula.** Ikasleek erabilitako BL motak funtzio komunikatiboaren arabera, hizkuntzaka

Funtzio komunikatiboa	Euskaraz	Gaztelaniaz	Ingelesez
IRITZIA EMATEKO BLak	nire ustez/iritziz, uste dut (-ela), amaitzeko, konklusioan/z*, hobeia /osasuntsuagoa, datu /ezaugarri hauei esker jakin ahal dugu, datuak aztertu ondoren, gauza horrengandik* uste dut, esan daiteke/dezakegu	en mi opinión, (yo) creo /pienso, en conclusión, está claro que, por/con todas estas razones /motivos/toda esta información, después de /por todo esto, he llegado a la conclusión de que /mi conclusión es que, al final, es mejor/más saludable	in my opinion, I think, in conclusion, finally, as I have said before / as I said, is more healthy /healthier, the most healthy food is, x is bad /good, for end*, they are (very) good
ARRAZOITZEKO ETA KAUSA-ONDORIOAK ADIERAZTEKO BLak	(eta), ere* (bai), aditza + -lako, aditza/izena + -gatik, horregatik, izatez, abantailak. gauza /alde on, abantaila buruz hitz egin, adibidez, -ela (akatsa), zer*, zeren eta, lehenengo/bigarren (puntuak), batez ere (garantia), gauzarik onena da, honi buruz esan dezaket, hauek dira eragin batzuk	(y), por + izena, hay investigaciones que afirman / según expertos y varias investigaciones, aparte (de eso), principalmente, además (de todo eso), por ejemplo, porque/pues/ya que/así que (si), primero, segundo (en segundo lugar), también, destaca por X, estos son algunos impactos, una vez explicado X, voy a pasar a contar las ventajas /desventajas	(and), on the one hand, these are some impacts, too/also, for example, so, it can be good for, first /secondary*, after that, it also has some things healthy*

Funtzio komunikatiboa	Euskaraz	Gaztelaniaz	Ingelesez
IDEIAK KONTRAJARTZEKO ETA KONTRAARGUDIOAK ADIERAZTEKO BLak	baina, beste aldetik, berriz/ordez/aldiz (kontraargudio + konparazio), nahiz eta, egia da, horren ordez, hasieran... baina, Xen gauza txarra, hori txarra da, (ere alde txarrak ditu), abantaila txarrei* buruz hitz egin, gero*	pero, por otra parte/otro lado, lo malo es que..., pero también (tiene que), a pesar de eso	but, on the other hand, the bad thing is that, (they are not bad, but it is better to), in order*

*Oharra:* Izartxoak (\*) BLaren erabilera ezegokia adierazten du. BLen identifikaziorako, kontuan hartu da zein argudio-elementuaren baitan agertzen diren. Adibidez, «hobea» eta «gauzarik onena da» biak arrazoitzeko zein iritzia emateko erabili daitezke, gure corpusean «hobea» baieztapenak emateko agertu da, eta «gauzarik onena da», aldiz, datuak/garantiak adierazteko.

Goiko tauletan ikusi daitekeen moduan, ikasleek BL ugari erabiltzen dituzte hiru hizkuntzetan hiru funtzio komunikatiboak ekoizteko. Oro har, ikus daiteke BL mota ugari erabiltzen dituzten arren, ingelesez euskaraz eta gaztelaniaz baino BL mota gutxiago erabili dituztela. Joera antzekoa ikus daiteke gaztelaniazko testuetan erabilitako kontraargudioak eta ideiak kontrajartzeko BLak aintzat hartuta, hau da, euskaraz baino aniztasun gutxiago erabiltzen dute. Hala ere, taulan ikus daitekeenez, euskaraz eta ingelesez BLetan forma akastunak ageri dira, baina gaztelaniaz ez.

Gogoratu behar da, hala ere, goian jasotzen diren BLak linguistikoki markatuak direla. Izan ere, ikasleek beste estrategia batzuk ere erabiltzen dituzte argudiaketa-elementuak ekoizteko: alborakuntza edota elipsia (BLrik ez). Ikasleek maiz datuak komak edo puntuak erabiliz pilatzen dituzte, ideien arteko lotura argirik egin gabe. Horiez gain, beste puntuazio-marka batzuk ere erabili dituzte hiru hizkuntzetan, batez ere bermeak ekoizteko orduan. Horren adibide dira parentesi arteko informazioa, adibidez, kaloria kopurua zehazteko, «txokolateak kaloria asko ditu (531)», edota bi puntuen erabilera, «txokolateak gutxi kutsatzen du: 59 CO2 gramo». Beste alde batetik, elipsia ere erabili dute ikasleek, eta ez dute BL espliziturik erabili argudia-



keta-elementuak ekoizteko, adibidez, «eragina gorputzean. oilazkoa ez da ona jatea egun guztietan, [arrazoitzeko BLaren elipsia] gorputza jan behar-ko du beste elikagai asko».

Aipatzekoa da, halaber, beren iritzia emateko (baieztapenak ekoizteko) ia beti erabili dituztela BLak (horien aniztasuna dena dela ere), eta argudiatzeko eta kontraargudiatzeko orduan BL gutxiago erabili dituztela. Kasu batzuetan, ikasleek hiru hizkuntzetan konparazio-formen bitartez adierazi dute beren iritzia (*hobea, mejor, healthier*), inolako BLrik erabili gabe, hala nola «el pollo es mejor que el chocolate». Joera hori modalizazio faltarekin egon daiteke lotuta; izan ere, oso ikasle gutxik erabili dituzte aditz modalizatzaileak (*daiteke, podría, could*-ren parekoak). Ingelesez, batez ere, ia ez da modalizaziorik agertzen.

Azkenik, aipatzekoa da ingelesez BL mota gutxiago erabiltzeaz gain, horien kopurua ere urriagoa dela; izan ere, ingelesez ikasleak zuzenago doaz testuaren harira. Eraitza hauek ulergarriak izan daitezke, izan ere, EAEko hezkuntza-sistemak euskara eta gaztelanian elebitasun maila paretsua lortzeko helburua du, ingelesez, aldiz, maila baxuagoa du xede. Horrez gain, joera hau Cheong et al.k (2021) ere azpimarratu zuten idazketa elebidunetan, izan ere, H2ko testuak sintetikoagoak zirela azaldu zuten. Horrez gain, ikasleek darabiltzaten BLak eta horien asmo komunikatiboa beti ez datoz bat, hau da, akatsak daude BLen erabileran. Adibidez, ikasleek batzuetan *hala ere* aurkaritza lokailua erabili dute ideia bera defendatzeko, *horrez gain* edo pareko BL bat erabili ordez. Aurreko ikerketek ere aipatu dute fenomeno hau (Qin eta Karaback 2010; Liu eta Stapleton 2014), izan ere, askotan ikasleek ez dute BLrik erabiltzen, edo erabilitako BLak ez dira guztiz zuzenak, eta, horrenbestez, ikasleek esan nahi dutena interpretatu egin behar da. Bigarren hezkuntzan ikasleen kohesio eta koherentzia gaitasun diskurtsiboak oraindik garatzen ari dira (Granados et al. 2023), beraz, espero izatekoa da BLen erabilera guztiz egokia ez egitea.

Ikasle bakoitzaren hiru ekoizpenak aztertuta, ikus daiteke BLen erabilera antzekoa dela hiru hizkuntzetan (ikus 5. taulan jasotako adibideak corpusetik. 1. Eranskinak testu osoak jasotzen ditu). Joera hori bat dator beste ikerketa batzuen emaitzekin, izan ere, ikasle elebidun/elebitzunen testue-

tan ikasleek BL antzekoak identifikatu dituzte (Martín-Laguna eta Alcón-Soler 2018; Granados et al. 2023).

5. taula. BLak (azpimarratuta) ikasle beraren hiru testuetan

Euskaraz	Gaztelaniaz	Ingelesez
<p>Nik <u>uste dut</u> oilaskoa <u>hobeagoa dela</u>, <u>lehenengo</u>, kaloria gutxiago dituelako, koipe gutxiago, ez du ia azukrerik, proteina asko ditu, kaltzio gutxi eta gatz kantitate normala. [...]</p> <p><u>Konkluzioz</u>, <u>hobeago da</u> oiloa jatea <u>baina ez</u> pasatu naturari asko ez afektatzeko, <u>baina hori</u> ez du ezan nahi txarra denik txokolatea jatea, zuk nahi duzun gutzia jan ahal duzu.</p>	<p>Principalmente, los valores nutricionales del pollo <u>són mejores</u>, tiene menos kilo calorías que el chocolate, tiene muy pocas grasas y también poco azúcar, tiene muchas proteínas, el calcio mas bajo que el chocolate y pocas sales. [...]</p> <p><u>En conclusión</u>, es <u>mejor</u> comer pollo <u>pero</u> no debemos pasarnos por el bien de la naturaleza, <u>pero</u> eso no significa que no podamos comer chocolate, cada uno puede hacer lo que quiera.</p>	<p><u>On the one hand</u>, we have the nutritional values and it saw the chicken is <u>better because</u>, it has less calories, less total fat and less sugars, has much proteins, a little bit calcium and the necessary salt, <u>in order</u> chocolate have more calories, sugar and calcium. [...]</p> <p><u>In conclusion</u>, is <u>better</u> eat chicken <u>but don't</u> pass for help the nature, <u>and this don't</u> saw you <u>can't</u> eat chocolate, <u>but</u> you should have control in it.</p>

## 6. Ondorioak, ekarpenak eta mugak

Ikerketa honen helburu nagusia DBHko ikasleek euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez argudiozko testu zientifikoak aztertzea izan da, horretarako, IOI ataza bat erabili da hiru hizkuntzetan. Oro har, emaitzek erakusten dute testu gehienetan argudio-elementu nagusien agerpena (baieztapenak, datuak eta kontraargudioak) kontuan hartuz gero, ikasleek iturrietan oinarri-

tutako argudiozko testuak sortzeko gaitasuna izan badutela. Azpimarratu behar da DBHn argudiatzeko gaitasuna oraindik garatzen ari dela, eta, horren ondorioz, ziurrenik horregatik elementu konplexuagoak (bermeak eta ezeztatzeak) askoz ere urriagoak izan dira aztertutako corpusean, aurreko ikerketekin bat etorritik (Arias-Hermoso *et al.* 2024; Liu eta Stapleton 2014; Toulmin 1958; Qin eta Karaback 2010).

Horrez gain, emaitzek erakutsi dute argudiaketa gaitasuna oso antzekoa dela hiru hizkuntzetan, izan ere, argudiaketa-elementuei dagokienez, ANOVAk hizkuntzen arteko alderik eza baieztatu du, eta elementu guztiek hizkuntza konbinazioaren batean korrelazioak erakutsi dituzte. Horrek idazketa eleaniztuneko teoriekin bat egiten du (Rinnert eta Kobayashi 2016) eta aurreko ikerketen ildotik (Granados *et al.* 2021, 2022; Orcasitas-Vicandi 2021) Cummins (1980) azpiko gaitasun komuna eta interdependentziaren hipotesiak indartzen ditu. Testuetan ikasleek BL ugari erabili dituzte *argudiatzeak* eskatzen dituen asmo komunikatiboak ekoizteko, horrenbestez, diskurtso-mailan eta lexiko-gramatika mailan nolabaiteko kontrola erakusten dutela esan daiteke. Ingelesezt testuak askoz ere zuzenago doaz harira eta BL mota gutxiago erabiltzen dituzte, ziurrenik hizkuntza maila dela eta. Hiru hizkuntzetako testuen arteko paralelotasunak ere antzeman daitezke erabilitako BL motei eta erabilerari erreparatuz.

Ikerlan honek dituen mugak ere aipatu behar dira. Lehenik eta behin, parte-hartzaileen lagina txikia da, eta horrek analisi estatistikoetan eta adierazgarritasunean eragina dauka. Testu eta ikasle kopuru handiagoak izanez gero, BLen kopurua kuantifikatu ahalko litzateke. Bestalde, atazak bi FKD ekoizteko eskatzen zien ikasleei, eta horrek ziurrenik argudiaketa-elementuetan eragina izan du: kontraargudioen agerpena, adibidez, konparazioak eragindakoa izan daiteke. Horrez gain, partaideen etxeko hizkuntza eta hizkuntza gaitasunak oso homogeenak izatea ere muga izan daiteke, H1 edota hizkuntza maila ezberdinetako ikasleek ekoizpenak ezin baitira ikertu. Etorrituneko ikerketek hizkuntzen arteko transferentziak hizkuntza (H1, H2, H3...) ezberdinetako ikasleekin ikasle hainbat hizkuntzetako ekoizpenak kontuan hartu ahalko litzateke. Bestalde, ikerlan honetan ikasle bakaurrean jaso dira datuak, zehazki, DBH 3n, eta, beraz, komenigarria litzateke lagin handiagoez, eta, horrenbestez, profil ezberdinetako ikasleekin, ekoiz-

penak alderatzea. Arloko alfabetatzearen begiradatik, argudiaketa gaitasunaren garapena oraindik ez da asko ikertu, eta testuinguru naturaletan adinaren arabeko garapena aztertzeak ekarpena egingo lioke FKDei ezagutzari.

Hala ere, ikerketaren emaitzek ekarpen teoriko eta praktikoak badituzte. Alde batetik, FKDen markoa euskal testuingurura hurbiltzen du, aurreko ikerketa gehienak ingelesez argitaratu baitira, eta batez ere ingelesaren bidetako CLIL/EMI testuinguruetan. Kasu honetan, FKDen ekoizpena euskarazko D ereduan ikertu da. Horrek, besteak beste, hiru hizkuntzetan FKD patroiak aztertzea ahalbidetu du, horietako bat hizkuntza gutxitua. Horrez gain, Gernsek (2023) aipatu moduan, oso garrantzitsua da FKD kategorien eta horien aditz operatiboen deskribapena egitea, ikusteko zein elementu agertzen diren diskurtso mailan eta lexiko-gramatika mailan. Ikerketa honek DBHko ikasleek argudiatzeko darabiltzaten elementuen eta BLen deskribapena izan du helburu, hortaz, modu xumean bada ere *argudiatzea* FKDaren lehenengo deskribapen eleaniztuna egin da. Beste alde batetik, alderdi praktiko-pedagogikoan, BLen hiru hizkuntzatan zerrendatzeak hizkuntza eleaniztunari egiten dio ekarpena, Hizkuntzen Tratatua Bateria Bateria (Manterola *et al.* 2020; Aldekoa *et al.* 2020; Manterola 2024) edota *translanguaging* pedagogikorako (Cenoz eta Gorter 2022) baliabide moduan erabilgarria izan daitekeena. Argudiaketa eskoletan lantzeko aukera ematen du ikerketa honek, batez ere, kontuan hartuta hizkuntzen arteko transferentziak erdigunean jartzen dituzten proposamen pedagogikoak. Azkenik, ikerketa honek DBHko ikasleen zientzietako alfabetatzearen deskribapenean lehenengo urratsak ematen lagundu dezake.

## Bibliografia

AFFLERBACH, Peter, Y. CHO, Byeong eta KIM, Jong-Yun (2015). «Conceptualizing and Assessing Higher-Order Thinking in Reading», *Theory Into Practice* 54 (3) (2015): 203-212.

ALBA QUIÑONES, Virginia de, VÁZQUEZ, Graciela eta LORENZO, Francisco (2018). «El desarrollo del español académico en los programas para estudiantes universitarios internacionales: las funciones discursivas superiores», *Journal of Spanish Language Teaching* 5 (2) (2018): 115-124.

ALDEKOA, Ana, MANTEROLA, Ibon eta IDIAZABAL, Itziar (2020). «A trilingual teaching sequence for oral presentation skills in Basque, Spanish and English», *The Language Learning Journal* 48 (3) (2020): 259-271.

ARIAS-HERMOSO, Roberto eta IMAZ AGIRRE, Ainara (2024). «Exploring multilingual writers in secondary education: insights from a trilingual corpus», *European Journal of Applied Linguistics* 12 (2) (2024): 282-307.

—, IMAZ AGIRRE, Ainara eta GARRO LARRAÑAGA, Eneritz (2024). «A comparison between input modalities and languages in source-based multilingual argumentative writing», *Assessing Writing* 60 (2024): 100813.

BEACCO, Jean-Claude, FLEMING, Mike, GOULLER, Francis, THÜRMAN, Eike eta VOLLMER, Helmut (2016). *The Language Dimension in all Subjects. A Handbook for Curriculum Development and Teacher Training*. Estrasburgo: Europako Kontseilua.

BRUIN, Angela de, CARREIRAS, Manuel eta DUÑABEITIA, Jon Andoni (2017). «The BEST Dataset of Language Proficiency», *Frontiers in Psychology* 8 (2017): 1-7.

CENOZ, Jasone (2013). «The influence of bilingualism on third language acquisition: Focus on multilingualism», *Language Teaching* 46 (1) (2013): 71-86.

— (2023). «Plurilingual education in the Basque Autonomous Community», in *Profiling plurilingual education: A pilot study of four Spanish autonomous communities*, Josep M. Cots (ed.). Lleida: Edicions de la Universitat de Lleida: 33-53.

— eta GORTER, Durk (2011). «Focus on Multilingualism: A Study of Trilingual Writing», *The Modern Language Journal* 95 (3) (2011): 356-369.

— (2022). *Pedagogical Translanguaging*. Cambridge: Cambridge University Press.

CHEONG, Choo-Mui, ZHU, Xinhua eta XU, Wandong (2021). «Source-Based Argumentation as a Form of Sustainable Academic Skill: An Exploratory study comparing Secondary School Students' L1 and L2 Writing», *Sustainability* 132 (2021): 2869.

CUMMINS, Jim (1980). «The exit and entry fallacy in bilingual education», *NABE Journal* 4 (3) (1980): 25-60.

— (1984). *Bilingual Education and Special Education: Issues in Assessment and Pedagogy*. Clevedon: Multilingual Matters.

— (2021). *Rethinking the Education of Multilingual Learners: A Critical Analysis of Theoretical Concepts*. Clevedon: Multilingual Matters.

DALTON-PUFFER, Christiane (2013). «A construct of cognitive discourse functions for conceptualising content-language integration in CLIL and multilingual education», *European Journal of Applied Linguistics* 1 (2) (2013): 216-253.

— (2016). «Cognitive discourse functions: Specifying an integrative interdisciplinary construct», In *Conceptualising integration in CLIL and multilingual education*, Tarja Nikula, Emma Dafouz, Pat Moore eta Ute Smit (ed.). Bristol: Multilingual Matters: 29-54.

—, BAUER-MARSCHALLINGER, Silvia, BRÜCKL-MACKEY, Katharina, HOFMANN, Victoria, KRÖSS, Jennifer eta LECHNER, Lisa (2018). «Cognitive discourse functions in Austrian CLIL lessons: towards an empirical validation of the CDF Construct», *European Journal of Applied Linguistics* 6 (1) (2018): 5-29.

— eta BAUER-MARSCHALLINGER, Silvia (2019). «Cognitive Discourse Functions meet historical competences: Towards an integrated pedagogy in CLIL history education», *Journal of Immersion and Content-Based Language Education* 7 (1) (2019): 30-60.

—, HÜTTNER, Julia eta NIKULA, Tarja (2024). «The conceptualisation of disciplinary literacies in CLIL», in *Building disciplinary literacies in Content and Language Integrated Learning*, Julia Hüttner eta Christiane Dalton-Puffer (ed.). New York: Routledge: 1-26.

ERDURAN, Sibel (2007). «Methodological Foundations in the Study of Argumentation in Science Classrooms», in *Argumentation in Science Education*, Sibel Erduran eta María Pilar Jiménez-Aleixandre (ed.). New York: Springer: 47-69.

ETXAGUE GOIA, Itxaro eta VAN DER WORP, Karin (2020). «Hizkuntzen arteko elkarreragina: euskara, gaztelania eta ingelesezko ekoizpen idatziak», *Tantak* 32 (2) (2020): 95-126.

EVNITSKAYA, Natalia eta DALTON-PUFFER, Christiane (2023). «Cognitive discourse functions in CLIL classrooms: eliciting and analysing students' oral categorizations in science and history», *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism* 26 (3) (2023): 311-330.

GARRO LARRAÑAGA, Eneritz, ANTÓN, Eneko, ARIAS-HERMOSO, Roberto eta CARMONA, Unai (2024). «The effects of instruction on students' argumentative scientific writing in a Basque medium of instruction setting», *Journal of Immersion and Content-Based Language Education*. Online argitalpena (2024).

GERNS, Pilar (2023). «Qualitative insights and a first evaluation tool for teaching with cognitive discourse function: “comparing” in the CLIL science classroom», *Porta Linguarum* 40 (2023): 161-179.

GRANADOS, Adrián, LORENZO-ESPEJO, Antonio eta LORENZO, Francisco (2021). «Evidence for the interdependence hypothesis: a longitudinal study of biliteracy development in a CLIL/bilingual setting», *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism* 25 (8) (2023): 3005-3021.

— (2023). «A portrait of academic literacy in mid-adolescence: a computational longitudinal account of cognitive academic language proficiency during secondary school», *Language and Education* 37 (3) (2023): 288-307.

HÜTTNER, Julia eta SMIT, Ute (2017). «Negotiating Political Positions: Subject-Specific Oral Language Use in CLIL Classrooms», *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism* 21 (3) (2017): 287-302.

IZURA, Cristina, CUETOS, Fernando eta BRYLSBAERT, Marc (2014). «Lextale-Esp: a test to rapidly and efficiently assess the Spanish vocabulary size», *Psicológica* 3 (2014): 49-66.

LARRINGAN, Luis M., IDIAZABAL, Itziar eta GARCÍA-AZKOAGA, Inés (2015). «Cartas al director escritas en euskera y castellano por jóvenes bilingües: Transferencias y destrezas textuales y discursivas», in *Para una ingeniería didáctica de la educación plurilingüe*, Inés García-Azkoaga eta Itziar Idiazabal (ed.). Gasteiz: UPV/EHU: 147-171.

LEMHÖFER, Kristin eta BROERSMA, Mirjam (2012). «Introducing LexTALE: A quick and valid Lexical Test for Advanced Learners of English», *Behaviour Research Methods* 44 (2012): 325-343.

LERSUNDI, Amaia (2022). «Arloetako alfabetatzearen azterketa batxilergoko diziplinar-teko proiektu batean. Kasu azterketa». Doktorego-tesia, Mondragon Unibertsitatea.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.48764/ty1y-kj14>].

LI, Dongying (2022). «A review of academic literacy research development: From 2002 to 2019», *Asian-Pacific Journal of Second and Foreign Language Education* 7 (1) (2022): 1-22.

LIU, Fulan eta STAPLETON, Paul (2014). «Counterargumentation and the cultivation of critical thinking in argumentative writing: Investigating washback from a high-stakes test», *System* 45 (2014): 117-128.

LLINARES, Ana eta MORTON, Tom (2024). «Assessing CLIL students' expression of Explore across languages and school disciplines: An interdisciplinary approach», in *Building disciplinary literacies in content and language integrated learning*, Julia Hüttner eta Christiane Dalton-Puffer (ed.). New York: Routledge: 101-117.

—, MORTON, Tom eta WHITTAKER, Rachel (2012). *The Roles of Language in CLIL*. Cambridge: Cambridge University Press.

— eta NASHAAT-SOBHY, Nashwa (2021). «What is an ecosystem? Defining science in primary school CLIL contexts», *Language Teaching for Young Learners* 3 (2) (2021): 337-362.

LORENZO, Francisco (2017). «Historical literacy in bilingual settings: Cognitive academic language in CLIL history narratives», *Linguistics and Education* 37 (2017): 32-41.

MANTEROLA, Ibon (2024). «Hacia una revisión del estatus didáctico del castellano en los dispositivos plurilingües para la escolarización en euskera», in *El fomento del multilingüismo en contextos con lenguas minorizadas*, Ada Bier eta David Lasagabaster (ed.). Gasteiz: UPV/EHU: 85-106.

—, DÍAZ DE GEREÑU LASAGA, Leire eta ALMGREN, Margareta (2020). «Grammar and text production in Secondary Education teaching materials: Reflections on an integrated didactics of languages», *Didacticae* 8 (2020): 26-39.

MARTÍN-LAGUNA, Sofia (2020). *Tasks, Pragmatics and Multilingualism in the Classroom: A Portrait of Adolescent Writing in Multiple Languages*. Bristol: Multilingual Matters.



— eta ALCÓN-SOLER, Eva (2018). «Development of discourse-pragmatic markers in a multilingual classroom: A mixed method research approach», *System* 75 (2018): 68-80.

MOHAN, Bernard, LEUNG, Constant eta SLATER, Tammy (2010). «Assessing Language and Content: A Functional Perspective», in *Testing the Untestable in Language Education*, Amos Paran eta Lies Sercu (ed.). Clevedon: Multilingual Matters: 217-240.

MOJE, Elizabeth B. (2015). «Doing and teaching disciplinary literacy with adolescent learners: A social and cultural enterprise», *Harvard Educational Review* 85 (2) (2015): 254-278.

MORTON, Tom (2020). «Cognitive discourse functions: A bridge between content, literacy and language for teaching and assessment in CLIL», *CLIL: Journal of Innovation and Research in Plurilingual and Pluricultural Education* 3 (1) (2020): 7-17.

NASHAAT-SOBHY, Nashwa (2018). «Operationalizing “Defining” from a Cognitive Discourse Perspective for Learners’ Use», in *Knowledge Mobilization in TESOL: Connecting Research and Practice*, Sardar M. Anwaruddin (ed.). Leiden: Brill: 94-112.

ORCASITAS-VICANDI, María (2021). «Towards a multilingual approach in assessing writing: holistic, analytic and cross-linguistic perspectives», *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 25 (6) (2021): 1-22.

PLAKANS, Lia eta GEBRIL, Atta (2013). «Using multiple texts in an integrated writing assessment: Source text use as a predictor of score», *Journal of Second Language Writing* 22 (2013): 217-230.

POLIAS, John (2016). *Apprenticing students into science: doing, talking eta writing scientifically*. Melbourne: Lexis Education.

QIN, Jingjing eta KARABACK, Erkan (2010). «The analysis of Toulmin elements in Chinese EFL university argumentative writing», *System* 38 (3) (2010): 444-456.

RINNERT, Carol eta KOBAYASHI, Hiroe (2016). «Multicompetence and multilingual writing», in *Handbook of Second and Foreign Language Writing*, Rosa M. Manchón eta Paul Matsuda (ed.). Berlin, Boston: De Gruyter Mouton: 365-386.

ROCA DE LARIOS, Julio, COYLE, Yvette eta GARCÍA, Vanessa (2023). «The effects of using cognitive discourse functions to instruct 4th-year children on report writing».

ting in a CLIL science class», *Studies in Second Language Learning and Teaching* 12 (4) (2023): 597-622.

SAGASTA, M.<sup>a</sup> Pilar (2003). «Acquiring writing skills in a third language: The positive effects of bilingualism», *International Journal of Bilingualism* 7 (1) (2003): 27-42.

SAMPSON, Victor eta CLARK, Douglas B. (2008). «Assessment of the Ways Students Generate Arguments in Science Education: Current Perspectives and Recommendations for Future Directions», *Science Education* 92 (3) (2008): 447-472.

SHANAHAN, Timothy eta SHANAHAN, Cynthia (2008). «Teaching disciplinary literacy to adolescents: Rethinking content-area literacy», *Harvard Educational Review* 78 (1) (2008): 40-59.

— (2012). «What Is Disciplinary Literacy and Why Does It Matter?», *Topics in Language Disorders* 32 (1) (2012): 7-18.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2022). «Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria, 2021. Emaita nagusiak», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 125 (2022): 11-52.

TENBRINK, Thora (2020). *Cognitive Discourse Analysis: An Introduction*. Cambridge: Cambridge University Press.

TOULMIN, Stephen (1958). *The Uses of Argument*. Cambridge: Cambridge University Press.

VAN WEIJEN, Daphne, RIJLAARSDAM, Gert eta VAN DEN BERGH, Huub (2019). «Source use and argumentation behavior in L1 and L2 writing: a within-writer comparison», *Reading and Writing* 32 (2019): 1635-1655.

VYGOTSKY, Lev (1978). *Mind in society: The development of higher psychological processes*. Harvard: Harvard University Press.

WU, Yanming Amy eta LIN, Angel M.Y. (2022). «Thematic patterns, Cognitive Discourse Functions, and genres: Towards an Integrative Model for CLIL», *Journal of Immersion and Content-Based Language Education* 10 (2) (2022): 230-264.

YANG, Hui-Chun eta PLAKANS, Lia (2012). «Second Language Writers' Strategy Use and Performance on an Integrated Reading-Listening-Writing Task», *TESOL Quarterly* 46 (1) (2012): 80-103.

ZHU, Xinhua, LI, Xueyan, YU, Guoxing, CHEONG, Choo-Mui eta LIAO, Xian (2016). «Exploring the Relationships Between Independent Listening and Liste-

ning-Reading-Writing Tasks in Chinese Language Testing: Toward a Better Understanding of the Construct Underlying Integrated Writing Tasks», *Language Assessment Quarterly* 13 (3) (2016): 167-185.

ZUBIAURRE OTAMENDI, Maddi (2022). «Egiaztatze-proben analisi konparatiboa eta etorkizunerako proposamena: trebetasun bateratuak eta bitartekotza», *e-Hizpide* 100 (2022).

## Eranskina

**Informazioa osatze aldera**, 5. taulako ikasle beraren hiru testuak. Jatorrizko akatsak mantendu dira.

Euskaraz	Gaztelaniaz	Ingelesez
<p>Bi janai konparatu egin ditut, txokolatea eta oilaskoa, orain esango dut zein den hobeagoa.</p> <p>Nik uste dut oilaskoa hobeagoa dela, lehenengo, kaloria gutxiago dituelako, koipe gutxiago, ez du ia azukrerik, proteina asko ditu, kaltzio gutxi eta gatz kantitate normala.</p> <p>Bigarrenez, oilaskoa txokolatearen berdin dieta askotarikoetan ageri da, baina oilaskoa energia asko ematen du eta nerbio eta digestio sistemeta laguntzen du, txokolatea beste gauza desberdin, txokolatea kolesterola kontrolatzen laguntzen du, umorean eragina du eta memoria asko ematen digu. Gauza horrengandik uste dut oilaskoa hobeagoa dela gure gorputzarentzat.</p> <p>Baina ere ditu alde txarrak, oilaskoa edukitzeko oiloak hil behar dira eta horiek izaki bizidunak dira, horregatik, gende askok belarjaleak dira, dakitelako mina egiten diola gizartea eta naturari. Horren ordez txokolatea naturala da, kakaorekin egiten da eta espezie edo produktu askorekin ere eta hori ez dio gizarte edo naturari txarto egiten.</p> <p>Konkluzioz, hobeago da oiloa jatea baina ez pasatu naturari asko ez afektatzeko, baina hori ez du ezan nahi txarra denik txokolatea jatea, zuk nahi duzun gutzia jan ahal duzu.</p>	<p>Vamos a hablar sobre dos alimentos, el pollo y el chocolate, y miraremos cual el mejor de los dos.</p> <p>Principalmente, los valores nutricionales del pollo són mejores, tiene menos kilo calorías que el chocolate, tiene muy pocas grasas y también poco azúcar, tiene muchas proteínas, el calcio mas bajo que el chocolate y pocas sales.</p> <p>Segundo, nos afectan al cuerpo de forma diferente, los dos entran en muchos tipos de dietas, el pollo nos da energía, ayuda en el sistema nervioso y digestivo, encima es barato y nutritivo, sin embargo, el chocolate ayuda con el coresterol, influye en el humor y ayuda con la memoria y a memorizar cosas.</p> <p>Lo malo, es que para comer pollo hay que matar animales y para eso los maltratan, eso le hace efecto a la naturaleza y es malo, pero el chocolate es lo contrario, es natural, viene del cacao y muchos productos, asi que no hay que matar nada para conseguirlo, pero comer mucha cantidad puede traerte malas enfermedades para el futuro.</p> <p>En conclusión, es mejor comer pollo pero no debemos pasarnos por el bien de la naturaleza, pero eso no significa que no podamos comer chocolate, cada uno puede hacer lo que quiera.</p>	<p>Today, we go take about it is better eat chicken or chocolate for our body and nature.</p> <p>On the one hand, we have the nutritional values and it saw the chicken is better because, it has less calories, less total fat and less sugars, has much proteins, a little bit calcium and the necessary salt, in order chocolate have more calories, sugar and calcium.</p> <p>On the other hand, the impact on our bodies, chicken and chocolate are in more healthy diets, chicken help in the nervous system and in the digestive system too, give energi to our bodies and is very cheap and nutritious. Moreover, chocolate helps to control the cholesterol, affects in our state and give a good memory.</p> <p>For end, those two aliments have a impact on nature and society, chicken can cook in more different ways, but for get chicken we need kill animals and they aren't living in good conditions, this affect so much to nature, in order, chocolate come to the cacao, and it is natural, this don't affect nature and pollution, but eat much should cause diadetes because it has a lot of sugar.</p> <p>In conclusion, is better eat chicken but don't pass for help the nature, and this don't saw you can't eat chocolate, but you should have control in it.</p>

# Euskara eta kulturartekotasuna uztartzeko esperientzia berria udalerrri euskaldunetan

Conjugar euskera e interculturalidad: una experiencia novedosa en municipios vascohablantes

Combiner le basque et l'interculturalité: une expérience inédite dans les communes bascophones

Combining Basque and interculturality: a novel experience in Basque-speaking municipalities

BARQUÍN LÓPEZ, Amelia

Mondragon Unibertsitatea

ORCID: <https://orcid.org/0000-0003-2477-7167>

PÉREZ LIZARRALDE, Karmele

Mondragon Unibertsitatea

ORCID: <https://orcid.org/0000-0001-8349-7240>

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v1i70.298>

Jasotze-data: 2024/04/12

Behin-behineko onartze-data: 2024/07/09

Behin betiko onartze-data: 2024/09/09

Artikulu honek UEMAko (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) hainbat herri euskaldunetako hezkuntza-komunitateetan gauzatzen ari den proiektu bat azaldu eta aztertu du. Proiektu horrek euskara eta kulturartekotasuna sustatzea eta uztartzea du helburu, eta Hego Euskal Herriko hogeita hamabi udalerritan martxan jarrita dago, lerro hauek idazteko unera arte. Azken urteotan, herri euskaldunetako ikastetxeetara Espainiako Estatuaz kanpotik etorritako familien kopurua hazi egin da, eta horrek euskaraz bizitzen jarraitzeko eta aldi berean familia horiekiko komunikazioa eta harremana bermatzeko erronka areagotu du. Kezka eskola-eremutik abiatu bazen ere, gaur egun herriko hitzarmen gisa lantzen ari da, hots, gero eta zabalagoa da proiektuaren esku-hartze eremua. Testuan azaldu ditugu egitasmoaren oinarriak eta printzipio teorikoak, alderdi metodologikoak eta erronkei aurre egite-

ko sortutako estrategiak, bai eta hainbat praktikaren adibideak eta prozesuaren harira azpimarragarriak diren alderdiak ere.

**Gako-hitzak:** euskara, immigrazioa, kulturartekotasuna, elkarrekikotasuna, hiztun-komunitatea, hezkuntza-komunitatea.

El presente artículo explica y analiza un proyecto que se está llevando a cabo para impulsar y conjugar el euskera y la interculturalidad en las comunidades educativas de varios municipios de la Mancomunidad de Municipios Vascohablantes (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea, UEMA), concretamente en treinta y dos hasta el momento de escribir estas líneas. En los últimos años, ha crecido el número de familias que llegan de otros países a centros educativos de zonas vascófonas, lo que ha acrecentado el reto de seguir viviendo en euskera y al mismo tiempo garantizar la comunicación y la relación con las familias recién llegadas. Si bien la inquietud se originó en el ámbito escolar, en la actualidad se ha hecho extensible a diversos agentes del municipio, es decir, el área de intervención del proyecto es cada vez más amplia. El texto explica los fundamentos y principios teóricos del proyecto, los aspectos metodológicos y las estrategias creadas para afrontar los desafíos, y ofrece, asimismo, ejemplos de diversas prácticas y aspectos que conviene mencionar en relación con el proceso.

**Palabras clave:** euskera, inmigración, interculturalidad, reciprocidad, comunidad lingüística, comunidad educativa.

Cet article explique et analyse un projet qui est en cours de réalisation pour promouvoir et rendre compatible l'euskara et l'interculturalité dans les communautés éducatives de plusieurs localités bascophones de la Communauté des Communes Bascophones (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea, UEMA). (Dans trente-deux communes au moment de la rédaction de ces lignes). Ces dernières années, le nombre de familles arrivant d'autres pays dans les centres éducatifs des zones bascophones a augmenté, ce qui a accru le défi de vivre en basque tout en garantissant la communication et les relations avec les familles nouvellement arrivées. Bien que la préoccupation soit partie du milieu scolaire, le travail se déroule actuellement comme un pacte entre différents agents de la municipalité, c'est-à-dire que le domaine d'intervention du projet est de plus en plus large. Le texte expliquera les fondements et principes théoriques du projet, les aspects méthodologiques et les stratégies créées pour faire face aux défis, ainsi que des exemples de diverses pratiques et aspects qui devraient être mentionnés en relation avec le processus.

**Mots-clés :** basque, immigration, interculturalité, réciprocité, communauté linguistique, communauté éducative.

This article explains and analyzes a project that is being carried out to promote and make Basque and interculturality compatible in the educational communities of several Basque-speaking localities in the Association of Bascoophone Municipalities (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea, UEMA), specifically in thirty-two municipalities at the time of writing these lines. In recent years, the number of families arriving from other countries to educational centers in Basque-speaking areas has grown, which has increased the challenge of living in Basque and at the same time guaranteeing communication and relationships with newly arrived families. Although the concern started from the school environment, work is currently being done as a pact between various agents of the municipality, that is, the area of intervention of the project is increasingly broader. The text will explain the theoretical foundations and principles of the project, the methodological aspects and the strategies created to face the challenges, as well as examples of various practices and aspects that should be mentioned in relation to the process.

**Keywords:** Basque, immigration, interculturality, reciprocity, linguistic community, educational community.

BARQUÍN LÓPEZ, Amelia eta PÉREZ LIZARRALDE, Karmele (2025). «Combining Basque and interculturality: a novel experience in Basque-speaking municipalities», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 70 (1): 45-82.

1. Sarrera
2. Nondik eta zergatik abiatu den esperientzia berri hau
3. Egitasmoaren oinarriak: marko teorikoa
  - 3.1 Euskararen egoeraren eta erabileraren zenbait gako
  - 3.2 Familia guztiekin izan beharreko komunikazioaren garrantzia
  - 3.3 Euskararekiko jarreraren garrantzia
  - 3.4 Familia-hizkuntzen garrantzia
  - 3.5 Elkarrekikotasun-ariketa
  - 3.6 Identitate pluralaren aukera
  - 3.7 Prozesuaren izaera
  - 3.8 Prozesuaren estiloa
4. Alderdi metodologikoa: esku hartzeko estrategiak
  - 4.1 Prozesua
  - 4.2 Estrategiak edo formatuak
5. Esperientziatik ikasitakoa
  - 5.1 Praktika onak
  - 5.2 Azpimarratzeko oinarriak eta ikaskuntzak
6. Azken hitzak

#### Bibliografia



## 1. Sarrera

2021-2022 ikasturtean proiektu pilotu bat jarri zen abian Gipuzkoako herri batean, Zaldibian, «Euskara eta kulturartekotasuna gure hezkuntza-komunitatean» izenekoa. Proiektua eskolatik sustatu zen eta helburu bi-koitza zeukan: eskolan euskaraz bizitzen jarraitzea eta, aldi berean, euskaraz ez zekiten gurasoei (atzeritik etorritakoak gehienetan) informazioa eta parte-hartzea erraztea. Horren ondoren proiektua hainbat herritara hedatu zen eta bere eragina komunitatearen beste arlo batzuetara eraman zen, eskolaz harago. Nondik dator proiektuaren premia?

Euskal gizartean, oro har, eta udalerrri euskaldunetan zehazki, biztanle-rian aldaketa handiak gertatzen ari dira immigrazioarekin lotuta. Izan ere, mendearen hasieratik hainbat lagun heldu dira beste herrialde batzuetatik eta gertaera horrek hainbat arlotan eragina du, besteak beste, euskararen arloan. Zenbakiak adierazgarriak dira: Euskal Autonomia Erkidegoan, populazioaren % 14,1 zen atzerrian jaioa 2025ean (Ikuspegi 2025) eta jaiobe-rrien % 34,8k ama atzeritarra izan zuen 2024ko hirugarren hiruhilekoan (EUSTAT 2025). Nafarroan, populazioaren % 19,1 zen atzerrian jaioa (Ikuspegi 2025), eta 2023an jaiotakoen %27,8k ama atzeritarra zuen (Nas-tat 2024). Esan gabe doa, hezkuntza-sisteman atzeritar jatorriko haur eta nerabeen presentzia esanguratsua dela.

Udalerrri euskaldunetako ikastetxeek euskaraz garatu dute familiekin komu-nikazioa zein familien parte-hartzea gaurdaino; euskara izan da ikaskuntza- eta irakaskuntza-hizkuntza eta familien arteko harreman-hizkuntza. Aldi berean, azken urteotan atzeritik etorritako gurasoak ugaritzen ari dira, eta kasu gehie-netan euskaraz ez dakite. Egungo egoeran, beraz, hezkuntza-komunitate horietan erronka handia azaleratu da: nola eutsi euskararen erabilerari eta aldi berean euskaraz ez dakiten familiekin komunikazioa bermatu eta haien parte-hartzea sustatu? Edo beste modu batean esanda, nola eraiki kulturartekota-suna euskalduntasuna ardatz hartuta? Proiektuaren muina, beraz, Espainiako Estatuaz kanpotik etorritako bizilagunekiko kezka da; kopurua gero eta han-diagoa da eta horren eragina agerian geratzen ari da herri horietan. Bizilagun horiek euskaraz ez jakiteaz gain, harrera-gizartearen gako batzuk ez dituzte ondo ezagutzen eta autoktonoekiko distantzia sozial eta kulturala ere kontuan

izan behar da; egoerari heltzea garrantzitsua da. Ez da ahaztu behar, baina, herrietan euskal hiztunak ez diren beste bizilagun batzuk ere badaudela: beste erkidegoetatik etorriak, Euskal Herriko eremu ez horren euskaldunetatik iritsiak eta euskaraz ez dakiten hainbat autoktono. UEMAKo herrietan, orokorrean, profíl horietako herritarren kopurua oso altua izan ez arren, azaltzen ari garen proiektuan aintzat hartu dira lagun horiek eta, herri bakoitzeko populazioaren ezaugarrien arabera, diskurtsoak eta esku-hartzeak egokitu dira.

Zaldibiaren ereduari jarraiki, 2022-2023 ikasturtean beste bost herritara hedatu zen proiektua: Aizarnazabal, Ibarra, Leitza, Ondarroa eta Zestoara (kasu guztietan eskola bakarrarekin lanean). Hurrengo ikasturtean, 2023-2024an, alegia, hamalau herri sartu ziren proiektuan: Asteasu, Ereñozu, Bera, Arbizu, Legorreta, Mutriku, Oñati, Alegia, Lizartza, Itsasondo, Orio, Areatza, Markina-Xemein eta Azpeitia. Azken bi herriotan hezkuntza-ekosistema osoa inplikatu da: herri bakoitzean dauden ikastetxe guztiak eta baita herriko eragileak ere, hau da, udal teknikariak, euskaltegiko irakasleak, kirol taldeetako koordinatzaileak, liburutegiko langileak, errefuxiatu edota etorkinekin lan egiten duten elkartekideak eta abar. 2024-2025 ikasturtean, berriz, hamabi herri sartu dira ekimenean. Eta estreinakoz, UEMAKoa ez den herri batean ere inplementatu da, Eskoriatzan, artikulua honen egileon gidaritzapean<sup>1</sup>.

Orain arte prozesuan parte hartu izan duten herriak Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) partaideak izan dira, hots, udalerrri euskaldun edota arnasmunetzat jotzen diren herriak. Hartakotzat hartzeko, UEMAK euskararen ezagutza kontuan hartzen du eta % 70etik gorako euskaldun-kopurua jarrita dauka udalerrri euskalduntzat jotzeko muga gisa (UEMAko webgunea). Neurri hori euskararen indizean oinarritzen da, udalerrriko euskaldunen ehunekoa eta ia-euskaldunen erdia batuta ateratzen dena (Zalbide 2016). Horretan oinarri hartuta, beraz, Zalbidek esan zuen, udalerrri euskaldunak direla % 70eko balioa gainditzen duten udalerrriak, eta Iurrebasok zehaztu zuen, arnasmune direla % 80tik gorako euskaldun-indizea duten udalerrriak (Iurrebaso 2015). Zalbidek eta Iurrebasok beraiek eman diote buelta, baina, ikuspegi horri eta, ezagutza-dentsitatea ezinbes-

---

<sup>1</sup> Proiektu hauek gauzatu ahal izan dira erakunde hauen finantzazioari esker: Hizkuntza Politikako Sailburuordetza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Bizkaiko Foru Aldundia.

teko baldintza izanda ere, erabilera, eta bereziki etxeko erabilera, jotzen dute irizpide egokiagotzat udalerrri batean euskararen nagusitasuna laburbiltzeko (Iurrebaso 2023). Arnasguneen kontzeptua operatibo egiteko, «etxeko erabilera % 60tik gorakoak diren udalerrriak jotzen dira arnasmunetzat. Horien barruan, *arnasgune betetzat* jotzen dira erabilera hori %80tik gorakoa duten udalerrriak eta *arnasgune erasantzat* erabilera % 60-% 80 bitartekoa duten udalerrriak» (Iurrebaso 2023: 416). Lan honetan azalduko dugun egoerarekiko kezka gune euskaldun horietatik etorri da, eta UEMA izan da hasieratik ekimen honen partaidea eta bultzatzailea, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen (HUHEZI) lan-kidetza eta aholkularitza (artikulu honen bi egileona, alegia) duelarik.

Hala, artikulu honetan azalduko dugu nola eraiki den ekimena, zeintzuk diren oinarriak, zein tresna eratu diren helburuak lortzeko, tresna horiek nola jarri diren martxan, haien implementazioa nola baloratzen den, bidean zer ikasi dugun eta etorkizunerako asmoak zeintzuk diren.

## 2. Nondik eta zergatik abiatu den esperientzia berri hau

Gipuzkoako Zaldibia herrian sortu zen proiektuaren ernamuina. Zaldibia Goierri eskualdean dago eta 1.736 biztanle dauzka (Eustat 2024). Bertan ikastetxe bakarra dago, Lardizabal Herri Eskola, 130 bat ikasle dituena. Zaldibia UEMAren partaidea da sorreratik (ikus UEMAren webgunea) eta arnasmunea da: 2021eko datuen arabera, euskara-ezagutzaren indizea<sup>2</sup> % 86,1ekoa zen; etxeko erabilera euskarazkoa % 61,5ekoa zen, eta euskara eta gaztelaniazkoa, 11,4koa (UEMA 2022). Kaleko erabilerari dagokionez, 2021eko neurketan, hiztunen % 85,3 euskaraz berba egiten entzun ziren, % 9,4 gaztelaniaz eta % 5,3 beste hizkuntzaren batean (Zaldibiako Udala eta UEMA 2022). 2017ko datuekin alderatuta, euskararen erabilerak 3 puntu egin ditu behera, eta euskara edo gaztelania ez diren hizkuntzek ia 4 puntu egin dute gora.


---

<sup>2</sup> Euskararen indizea ateratzeko, udalerriko euskaldunen ehunekoa eta ia-euskaldunen erdia batu dira (Zalbide 2016).

2021ean, gazteek erabiltzen zuten euskara gehien (% 100) eta atzetik zeuden: haurrak (% 85,6), heldu gazteak (% 84,9) eta heldu nagusiak (% 85,4). 2017ko neurketatik 2021eko neurketara izan den bilakaeran, bereziki deigarria dugu haurren kasua: 10 puntu galdu ziren euskararen erabileran, gaztelaniazkoa % 1,9ra jaitsi zen, baina beste hizkuntza batean entzundako elkarrizketak % 1,8tik % 12,6ra igo ziren. Heldu gazteen kasuan, beste hizkuntza batean entzundakoek % 1,9tik % 9,1era gora egin zuten (Zaldibiako Udala eta UEMA 2022).

Nola ulertzen dugu egoera hori? Azken urteotan herriko paisaia humanoa dibertsoago egin da: hainbat bizilagun heldu dira beste herrialde batzuetatik —nagusiki errumaniarrak, marokoarrak eta pakistandarrak— inguruko enpresetan eta zerbitzuetan lan egitera. 2020ko datuen arabera, atzerrian jaiotako pertsonak % 13,6 ziren Zaldibian (EUSTAT 2023). 2024an, berriz, % 17 (EUSTAT 2024). Eskolako datuek ere erakusten dute populazioan aldaketa izan dela. 2020-2021 ikasturtean, proiektuaren abiapuntuan, honakoa zen argazkia Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan:

### 1. irudia. Zaldibiako ikasleen gurasoen jatorria



Iturria: Zaldibiako Lardizabal ikastetxea (UEMAk egina)

Zenbaki horiek argi erakusten dute eskola-komunitatearen osaera aldatzen ari zela. Haur Hezkuntzako kopuruek, zehazki, ikasleen % 38,8k atzeritar jatorriko familia zeukatela erakusten dute, eta horrek iragartzen zuen, halaber, etorkizuneko bilakaera eskolan eta herriak aurrean daukan erronka. Baina Zaldibiakoa ez da kasu berezia, proiektuan parte hartzen duten beste herrien egoerak antzekoak dira. Izan ere, Aierdik azaltzen duenez (2022), immigrazioa ez da soilik azken bi hamarkadotan gertatutako fenomeno koiuntural bat; hurrengo hamarkadetan areagotuko da eta kopuruek gora egingo dute.

Zaldibiaren kasuan, herrira etorritako guraso batzuek euskara apur bat edo dezente dakite, baina gehienak ez dira euskaraz moldatzen. Egitate hori bat dator Begirune Fundazioak egindako ikerketaren datuekin (Begirune Fundazioa 2023). Datuak Euskal Autonomia Erkidegokoak dira eta hautesman den errealitatea egiaztatu egiten dute: heldu atzeritarren euskararen ezagutza eta erabilera oso baxuak direla. Izan ere, ikerketaren arabera, euskararen ezagutza altua eta ertaina dutenak % 5,1 baino ez dira; % 95ek, berriz, oinarriko ezagutza dute, edo bat ere ez. Halaber, % 3k soilik hitz egiten dute euskaraz etxean, % 76,6k gaztelaniaz eta % 37,2k beste hizkuntza batean. Erraz ondoriozta daiteke, hartara, beste herrialde batetik etorritako pertsona helduek ez dutela beharrezkotzat jotzen euskara ikastea euskal gizartean bizi ahal izateko (Wright 2015; Saez Beloki 2017).

Zaldibiako hezkuntza-komunitatean egoera deserosoa zen, eta are gatazkatsua ere une batzuetan. Alde batetik, hiztun euskaldunek beren eskubideen kontzientzia argia zuten eta euskara erabiltzen jarraitu nahi zuten eskolako bileretan eta jardueretan, baina egonezina sortzen zien guraso askoren ulermenik eta parte-hartzerik ezak, eta baita guraso horien haserreak ere. Minduta zeuden, orobat, etorkin helduek ez zutelako euskara ikasten. Beste aldetik, atzeritar jatorriko guraso batzuk kexu ziren informazio eta komunikazio falta nabaritzen zutelako eta bazterturik sentitzen zirelako; parte hartzeko eskubidea aldarrikatzen zuten eta gaztelaniaren presentzia handiagoa izan zedin eskatzen zuten. Egonezinak eta bidegabekeria-sentimenduak zeuden, beraz, alde guztietatik. Eskolako zuzendariak eta beste hainbat eragilek argi ikusi zuten bideak bilatu beharra zegoela egoerari irtenbidea emateko.

Egoera horrelakoa zelarik, 2020-2021 ikasturtean eskolako eta herriko eragileak HUHEZIREkin harremanetan jarri ziren eta, gaiaren inguruan herrian hitzaldi bat egin ondoren, elkarrekin prozesu bat martxan jartzea erabaki zen. Proiektua UEMArekin adostuta gauzatu zen. Hurrengo urratsa talde eragilea osatzea izan zen: eskolako zuzendaria eta irakasle bat, lau guraso (autoktonoak zein atzerritar jatorrikoak, euskaldunak zein euskaraz ez zekitenak), UEMAko teknikaria, Etxekonekok elkarbizitzarako elkartearen ordezkari bat, herriko alkatea eta HUHEZIKO bi kideak.

HUHEZIKO kideok proposamen metodologikoa taxutu genuen: lehen-dabizi, ikastetxe bateko bizitzan familiek zein momentutan hartzen duten parte identifikatu genuen; bigarrenik, proposatu genuen momentu horietan zein kudeaketa linguistiko egin zitekeen bi helburuok uztartzeko: euskararen erabilerari eustea eta euskara ez dakitenen komunikazioa eta parte-hartzea erraztea. HUHEZIKO aholkulariok, beraz, egoera linguistiko bakoitzarentzat proposamen bat egin genuen eta proposamen zehatz bakoitzari «formatu» izena eman genion (beranduago azalduko ditugu formatuok).

Talde eragilea arduratu zen proposamen horiek egokitzeaz eta inplementazioa kudeatzeaz. 2021-2022 ikasturtean martxan jarri ziren aipatutako formatuak, eta 2022ko ekainean emaitzak ebaluatu ziren eta hurrengo urratsak erabaki. Ebaluazio zehatza egin ahal izan zen jarduera bakoitzean jasotako balorazio-orriek esker, non irakasleek eta familiek egindakoari buruzko iritzia ematen zuten. Ebaluazio orokorra oso positiboa izan zen eta erabaki zen egindako aldaketak eta proiektuan inplementatutako estrategiak mantentzea eta hurrengo ikasturtean harago eramatea.

Horrez gain, prozesua transferigarria zela ikusi genuen eta UEMAko hainbat herritara hedagarria, beti ere bakoitzaren testuingurura egokitu-ta. Ondorioz, 2022-2023 ikasturtean ekimena bost herritara eraman zen, 2023-2024an beste hamabitara eta 2024-2025ean beste hamalautara. Herri bakoitzak bere ezaugarrien eta aukeren arabera osatu zuen talde eragilea.

Eta bada alderdi bat azpimarragarri zaiguna, generoaren ikuspegiarena, hain zuzen, bai Zaldibiako kasuan, bai beste herrietan ere, talde eragile

gehienetan partaiderik gehienak emakumezkoak baitira. Familien kasuan, nagusiki, amak izan dira parte hartu dutenak, euskaldunak zein euskaldunak izan ez. Gertaera hori bat dator emakumeek umeen zaintzaren arloan eta eskolako parte-hartzean erakusten duten inplikazio handiagoarekin. Eta litekeena da, halaber, euskaldunen kasuan, «euskararen feminizazioa» ere tartean egotea, hots, emakumezkoek «euskararen zaintzan» ere inplikazio edo ardura handiagoa hartzea (Agirre Dorronsoro eta Eskisabel Larrañaga 2019).

### 3. Egitasmoaren oinarriak: marko teorikoa

Prozesuaren lehen urratsa da, hizkuntza-trataeraren markoa hezkuntza-komunitatearekin saio batean partekatzea. Aurrerago ikusiko dugun bezala, prozesuan sortu den formatuetako bat da, eta bertan jorratzen eta azaltzen dira gure proiektuaren oinarriak eta marko teorikoa. Hurrengo lerroetan azalduko dugu labur zeintzuk diren eduki eta kontzeptu nagusiak.

Hasteko, eduki horiek ez dira soilik hezkuntza-eremuan esperimentatu eta ikasitakoak, soziolinguistikatik ekarritakoak ere badira. Asmoa da, proiektuaren oinarri, helburu eta partaideei egokitzen zaizkien alderdi eta kontzeptu lagungarriak modu errazean partekatzea. Eta profil ezberdinei begira aukeratu dira edukiok, autoktonoei eta atzerritarrei begira, euskaldunei eta euskaldunak ez direnei begira. Denentzako mezuak eta azalpenak behar ditugu, denen arteko gogoeta partekatua sustatu nahi delako. Erabilutako diskurtsoaren abiapuntua eta azken xedea familia guztien seme-alabak dira: gurasoek euskaraz jakin zein jakin ez, ume guztiak euskaldunak dira, etxean edo eskolan euskara ikasten ari dira, euskal gizartean bizi dira, eta, beraz, euskararekin lotutako premia batzuk dituzte, familien, irakasleen eta herriaren aldetik ase egin behar direnak. Horretarako gurasoek eta irakasleek partekatu behar dute zeintzuk diren testuinguru linguistikoaren gakoak, zer dagoen jokoan eta zeintzuk izan daitezkeen garatzeko estrategiak familia guztien umeen hobe beharrez, eta, bide batez, euskararen eta herriaren hobe beharrez.

Jarraian azalduko ditugu, labur, markoan jorratzen diren gai nagusiak.

### 3.1 Euskararen egoeraren eta erabileraren zenbait gako

Euskaraz ez dakitenek ezagutu eta ulertu behar dituzte euskararen egoerarekin eta erabilerarekin tematzearen arrazoiak, inork azaldu ohi ez dizkienak (Zapata 2016, 2021).

Hasteko, egoera soziolinguistikoaren desoreka eta euskararen egoera minorizatua azaltzen zaie, eta baita euskararen estatusa zein den zonalde bakoitzean: euskara ofiziala dela EAEn gaztelaniarekin batera, Nafarroan lurraldea zonaldeka zatikatuta dagoela eta, horren arabera, herritarrei hizkuntza-eskubide ezberdinak aitortzen zaizkiela, eta Ipar Euskal Herrian euskarak ez duela inolako ofizialtasunik. Zehazten zaie, baina, EAEn euskara ofiziala izan arren, ez dagoela gaztelaniaren egoera berean, euskara jakitea ez baita derrigorrezkoa eta gaztelania jakitea, bai, ordea. Euskararen egoera minorizatuaren arrazoiak eta ondorioak jakinarazten zaizkie, baita euskara egoera ahul eta mehatxatuan dagoela ere. Euskararen zapalkuntzaren memoria jaso dute zenbait egilek (Torrealdai 1998; Izagirre 2010; Anaut 2013), baina ez da posible bere osotasunean garatzea markoa partekatzeke egiten den saio horretan; hala ere, beharrezkoa da zapalkuntza horren berri labur ematea edo, gutxienez, pasarte esanguratsu batzuk gogoraraztea, Frankismo garaikoak, kasu. Agerian jartzen da, halaber, hizkuntzaren egungo erronka nagusia, hots, ezagutza zein erabilera areagotu beharra. Ezagutza eta erabilera ez baitira baliokideak eta hizkuntza jakiteak ez du berez hiztunak erabiliko duela esan nahi (Soziolinguistika Klusterra 2022; Eusko Jaur-laritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila 2023; Iurrebaso 2023); erabileran dugu erronka handia gaur egun, horrexetan jokaten baita hizkuntzaren etorkizuna.

Markoaren barruan «arnasgune» kontzeptua azaltzen da, eta euskarak hegemonia duen espazio horien funtzioa eta garrantzia (Fishman 1991; Zal-bide 2016, 2019). Harira dator, baita ere, gogoraraztea, euskal hiztunek eskubidea dutela euskara erabiltzeko, euskaraz bizitzeko, eta euskara erabiltzen «tematzea» ez dela euskaraz ez dakiten pertsonetikiko adeitasun edo edukazio falta —maiz leporatu izan zaien karga, eta sentitzera ere iritsi direna— (Belmar 2024), justiziaren aldeko jokaera baizik, eta baita eskubide eta premia pertsonal eta soziala ere. Aipatzen zaizkie, gainera, familia atze-



rritarren umeei euskara ikasteak ekarri ahal dizkien onurak eta ez ikasteak, berriz, ekarri ahal dizkien desabantailak (Barquín 2008).

Orain arte zerrendatutako edukiak ezagunak dira euskaldunentzat (ez denak denentzat), baina, hein handi batean, ez dira ezagunak beste herrialde batzuetatik etorritakoentzat. Bide batez, euskaldun batzuen diskurtsoa garatzeko eta kontzientzia areagotzeko ere baliagarriak izaten dira, proiektuaren barruan egindako saioetan euskaldunek maiz esan izan duten bezala.

### 3.2 Familia guztiakin izan beharreko komunikazioaren garrantzia

Euskaraz —oraindik— jakin ez arren, komeni da ikastetxeko familia guztiak informazioa jasotzea eta parte hartzeko aukerak izatea. Are gehiago arlo sozioekonomikoan eta kulturalen desabantailan dauden familien kasuan. Eta ez soilik haien umeen mesederako eta haien umeen eskola-ibildidea errazteko, baizik eta denontzat beharrezkoa delako gizarte-kohesioa sustatzeko eta giro adeitsua eraikitzeko, horrexek ahalbidetuko baitu familiak komunitatearen partaide sentitzea eta komunitateko egitasmoetan parte hartzea (Quintas, Arratibel eta Barquín 2022). Komunikazioa bermatzeko modua ez da denok gaztelaniaz egitea, orain arte, hainbatean, pentsatu izan den bezala... Bide berriak urratu behar dira, beraz, komunikazio hori bermatzeko.

### 3.3 Euskararekiko jarreraren garrantzia

Guraso batzuek ez dakite euskaraz eta saioan animatu nahi dira ikastera. Badakigu haien artean asko ez direla ikasten ari (Begirune Fundazioa 2023). Baina aita-amek euskara jakin ala jakin ez, garrantzitsua da horiek kontziente izatea, behintzat, beren umeei euskararekiko jarrera positiboa transmititzea axola handiko kontua dela, euskara umeentzat eskolako ibilbidean ezinbesteko tresna den heinean, besteak beste. Horretarako estrategia errazak partekatzen dira familiarekin: etxean mezu positiboak ematea euskararen alde, umeek produktu kulturalak euskaraz kontsumi ditzaten bultzatzea edo aisialdia euskaraz egin dezaten animatzea. Mezu horri eutsi zaio familientzat

sortutako hainbat gida eta materialetan azken hamarkadetan (ikus, adibidez, Nafarroako Euskara Zerbitzua 2008, 2011; ERA eskola eta Barquín 2023). Horrekin guztiarekin familien hizkuntza politika planifikatzeko (Hollebeke, Struys eta Agirdag 2020) irizpide batzuk eskaintzea da asmoa.

### 3.4 Familia-hizkuntzen garrantzia

Alderdi hau oharkabe pasatzen da batzuetan eta arreta merezi du. Izan ere, hainbat ikerketak erakusten du, familia barruan erabiltzen den hizkuntzaren gaineko praktikak eta sinesmenak lotuta daudela haurren emaitza linguistiko, emozional eta kognitiboekin (Hollebeke, Struys eta Agirdag 2020). Eskolako eta herriko eragileek ulertu behar dute familien hizkuntzekiko estimua ere adierazi behar dutela, eta gure saio horretan nola jokatu aztertzen da, oinarriko elkarrekikotasunaren izenean. Horretarako, eskolan martxan jar daitezkeen estrategia txikiak partekatzen dira, eta familiei ere azpimarratzen zaie zein garrantzitsua den etxeko hizkuntza(k) seme-alabei transmititzea, horrek umeei eta komunitate osoari onurak ekarriko baitizkie (Coelho, Oller eta Serra 2013). Batetik, etxeko hizkuntza norbere identitatearen parte delako (Maalouf 1999), eta bestetik, familientzat zein komunitate osoarentzat baliabide garrantzitsua delako. Are gehiago, hizkuntza ofizialak eta etxeko hizkuntzak dakizkiten herritarrak harremanak eta elkarbitzita euntzeko erreminta baliotsua izan daitezke, egin dezaketen zubi-lanari esker.

Kontuan izan behar da, gainera, lehen hizkuntza funtsezkoa dela garapen kognitiborako, eta bereziki da nabarmena oso txikiak etorri ez diren ikasleen kasuan; izan ere, hizkuntza berria ikasi bitartean, pentsatzen, gogoeta egiten, beste alderdi batzuk ikasten... jarraitu behar dute, eta horretarako tresna osoa eta konplexua behar dute, hau da, ordura arte etxean garatu dutena. Beraz, lehen hizkuntza ondo ikastea eta erabiltzea abantailatzat jotzen dugu, eta gainera eskolako hizkuntzak ikasteko oinarri ere bada, hortixek egiten baitira lehen transferentziak beste hizkuntzak ikasten direnean (Cummins 2017).

Ahaztu gabe izan dezagun, bestalde, euskaldunak ez diren familien etxetan gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelania dela (jatorri hegoamerikarra dutelako, Espainiako Estatuko beste erkidego batzuetatik etorri direlako,

edo, noski, euskara ez dakiten autoktonoak direlako). Gure testuinguruan gaztelaniak, hegemonikoa den heinean, ez du babes berezirik behar, baina umeez beren etxeko hizkuntza ere estimatua den mezua jaso behar dute (Barquín 2008). Finean, etxeko hizkuntzen trataerak eragin behar du eskolaren zein familiaren hizkuntza-politikan.

### 3.5 Elkarrekikotasun-ariketa

Prozesuak hizkuntza ezberdineko hiztunen arteko konplizitatea ehundu nahi du. Amin Maaloufek (1998: 60), gakoa elkarrekikotasuna dela esan zuen. Beronen hitzak:

Bestearengana erabakitasunez joateko, besoak zabalik eta burua tente eduki behar dira, eta ezin dira besoak zabalik izan burua tente eraman-da baizik. Ematen den pauso bakoitzean, sentitzen bada beretarrei traizio egiten zaiela eta norbere buruari uko egiten zaiola, bestearengana hurbilketa biziata egongo da; ikasten ari naizen hizkuntzaren hiztunak nire hizkuntza errespetatzen ez badu, haren hizkuntza mintzatzeak irekitasun-keinu izateari utziko dio, eta mendekotasun- eta sumisio-ekintza bihurtuko da. (*Artikulu honen egileok itzulia*)

«Euskara-jendeak» (Xamar 2006) azken hori ondo ezagutzen duen sentimendua izanik, asmoa da konplizitateak, elkar ulermena, elkarren arteko kontzesioak eta hitzarmenak egiteko espazioak eta giroa sustatzea.

### 3.6 Identitate pluralaren aukera

Maaloufen gogoetatik abiatuta, identitate pluralaren kontzeptua jorrazten da gure markoaren barruan, identitate-mota hori erraztea baita gure proposamena komunitate osoarentzat. Horren arabera, atzeritar jatorriko familien umeak ere «bertakoak» dira —berdin dio non jaioak diren— eta aldi berean familiek transmititutako jatorriarekiko lotura ere sentitzea daukate. Hartara, ez dute zertan jaso nongotasun bakarra aukeratu behar dutelako mezurik, eta ez dute bestea traizionatzen ari direla zertan sentitu. Alderantziz, atxikimendua esperimenta dezakete gizarte, komunitate, kul-

tura edo lurralde bat baino gehiagorekikoa (Maalouf 1999). Hala ere, harriera-gizartean hedatuen dagoen ikuspegia da etorkinen seme-alabek familiaren jatorriarekin lotura baino ez daukatela, are gehiago ume eta gazte arrazializatuen kasuan (Urizar, Barquín eta Jiménez de Aberasturi 2023).

Eta hori linguistikoki ere islatzen da, adibidez, euskal hiztun bat guraso atzerritarrak dituen haur euskaldun bati gaztelaniaz mintzatzen zaionean. UEMAko kanpaina batek (2023ko azaroan abiatua) joera horren kontrako kontzientzia suspertu nahi izan zuen. Izan ere, ume eta gazte horiek harriera-gizartean hazten eta ikasten ari dira eta bertako erreferentziak berenak ere badira. Bestalde, ume eta gazteok bertakotasuna edo hemengotasuna sentitzea, euskara zerbait propiotzat hartzeko faktorea ere izan daiteke, eta ez soilik autoktonoen ondorengoan ondare gisa (Barquín 2009; Urizar, Barquín eta Jiménez de Aberasturi 2023). Identitate hori besteekin elkarrekin-tzan eraikitzen da, eta eraikuntza horretan garrantzitsua da irakasleen, senideen zein herriko bizilagunen begirada.

### 3.7 Prozesuaren izaera

Egitasmo honek prozesu bat proposatzen du, dinamikoa eta ziurgabea izango dena. Parte-hartzaileei hasieratik jakinarazten zaie prozesua ez dela «perfektua» izango, gora-beherak egongo direla; dinamikoa izango da eta testuinguru bakoitzera egokitu beharrekoa. Horrek esan nahi du ezin izango dela den-dena aurreikusi eta estrategia batzuk ez direla beti ederto aterako, edo parte-hartzaileok nahiko genukeen bezala, behintzat. «Hurrengoan hobeto» izan da behin baino gehiagotan erabilitako esaldi bat. Bestalde, argi adierazten da asmoa dela arlo batzuetan hobekuntzak egitea, ez den-dena azkar konpontzea; euskararen biziberritzearen bidea konplexua da, eta gure helburua erronkara erpin jakin batetik hurbiltzea da.

### 3.8 Prozesuaren estiloa

Proiektuaren markoan ez daude soilik edukiak, jokatzeko estilo bat ere badago. Izan ere, giro adeitsua bultzatzea ezinbesteko printzipioa da: begi-

runea, gertutasuna eta umore ona. Horrek ez du esan nahi, prozesuan zehar, kezkek, irainak eta minak agertzen ez direnik. Horretarako aukera ere egon behar da eta esperientziak eta ikuspegi desberdinak atera behar dira; baina, ondoren, aurrera jarraitu behar da, jarrera eraikitzailearekin. Solaskideei hasieratik jakinarazten zaie prozesua adeitasunez eta giro onean garatzen saiatuko garela, une jakin batzuetan kezkek eta haserreak azaleratuko badira ere. Proposamen horrek indar performatiboa izan du eta prozesuaren izaerari eragin dio: ohiko haserre- eta eraso-girotik alde egin da, elkarrekikotasun-ariketa abegikorra sustatu du. Honenbestez, eta Amonarrizen hitzak geure eginik, euskararen aldeko planteamendu honi oinarri etiko eta diskurtsibo sakona eta integratzailea ematen saiatzen ari garela esan dezakegu, gizarte hobea, berdinzaleago eta justuagoa eratzen laguntzeko, gizarte eleaniztun bat zinetan euskara hizkuntza nagusi izango den eta bestelako hiztunen hizkuntza-eskubideak errespetatuko diren (Amonarriz 2019).

## 4. Alderdi metodologikoa: esku hartzeko estrategiak

Orain arte azaldutako erronkei erantzuteko, prozesu bat eta estrategia batzuk diseinatu ziren.

### 4.1 Prozesua

Prozesuari dagokionez, hasieratik sei urrats definitu ziren, eta hezkuntza-komunitate bakoitzeko kronograma prozesu horren arabera erabakitzen da:

#### 2. irudia. Prozesuaren atalak



4.1.1 *Gaiaren problematizazioa*: lehen urrats honetan, herriko talde eragilea lehen aldiz biltzen da egoera aztertzeke, gakoak eta erronkak identifi-

katzeko eta helburuak finkatzeko. Hizkuntza-trataeraren markoa partekatzek lagundu egiten du horretan.

4.1.2 *Prozesua adostea eta formatuak aurkeztea*: hezkuntza-komunitatearekin egingo diren urratsak, jarduerak eta epeak adosten dira. Hizkuntza-trataera berezitua behar duten egoera komunikatiboak identifikatu, formatuak aztertu eta talde eragileko eragile bakoitzak horiek non eta nola aplikatu ditzakeen aztertzen da.

4.1.3 *Komunikazio-formatuak lantzea*: ikasturte hasieran ikastetxeko irakasle eta gurasoekin zein interesatuta dauden herri-eragileekin formatuak lantzen dira, erakunde bakoitzeko partaideek hizkuntza-trataeraren marko partekatua osa dezaten eta erabaki dezaten zeintzuk formatu diren lagungarri beren esku-hartze eremuetan.

4.1.4 *Komunikazio-formatuak inplementatzea*: ikasturtean zehar formatuak aplikatu egiten dira, alegia, erakundeak bere praktikan lagungarri zaizkion esku-hartze estrategiak inplementatu eta horien balorazio-orriak jasotzen ditu. Horretarako, garrantzitsua da erakunde bakoitzak ere bere talde eragile propioa izatea, ikasturtean zehar erakundeko ardura hartu eta bere esku-hartzea dinamizatuko duena.

4.1.5 *Inplementazioa aztertu eta sistematizatzea*: aholkulariek urtean zehar jasotako balorazio-orrien azterketa egin ondoren, talde eragileekin lehenengo, eta erakunde guztiekin zuzenean ondoren, egindako ekintzak eta formatuak aztertu eta ebaluatu egiten dira, eta hobetzeko edo egokitzeko irizpideak ere proposatzen dira.

4.1.6 *Hurrengo urratsak elkarrekin diseinatu eta adostea*: talde eragilearekin, urteko prozesua ebaluatzen da, formatuetan egiteko egokitzapenak adosten dira eta erabakitzen da zeintzuk izango diren hurrengo urratsak: zeintzuk formatu sistematizatuko diren eta zein izango den hurrengo ikasturteko dinamika, besteak beste.

Prozesu hori, herri guztietan, hezkuntza-komunitatea ordezkatzen duen talde eragilearekin batera adostu eta inplementatzen da.

## 4.2 Estrategiak edo formatuak

Prozesuaren inplementaziorako estrategia gisa, tresna edo formatu batzuk sortu dira. Tresna horiek diseinatzeko, hezkuntza-komunitatean helduen arteko bilkura eta komunikazio-egoerak identifikatu dira, familiek nolabait parte hartzen duten egoerak, adibidez, geletako bilerak ikasturte hasieran, familien elkarteko bilerak, geletako gurasoen arteko Whatsapp taldeak... Egoera komunikatibo horietan elkar ulertzeko eta elkarrekin aritzeko estrategia diseinatu dira, egoera horiek kudeatzeko hizkuntza-trataera eta familien arteko harremana sustatzeko. Eta hezkuntza-komunitateak estrategia-modu zehatz horiek elkarrekin aztertzeke eta egokitzeko, probatzeko eta ebaluatzeke prest egon dira.

Proiektuaren hasieran, Zaldibian, hainbat egoera komunikatibo identifikatu ziren, eta horietan jarduteko 6 formatu. Hiru ikasturteko inplementazioak eta ebaluazioak formatu horiei egokitzapenak eragin dizkie, baita egoerak eta tresnak fintzen lagundu ere. Gaur egun 15 dira guztira hezkuntza-komunitateetan lantzen ari diren formatuak. Horietako batzuk egoera komunikatibo zehatzei erantzuteko estrategia dira (ikasturte hasierako bilera nola egin, aldibereko itzulpena nola antolatu...); eta beste batzuk, berriz, erakundeetan gogoeta eta gaiarekin lerrokatutako ekintzak sustatzeko proposamenak dira (etxeko hizkuntzen trataera nolakoa den aztertu edo zenbatekoa eta nolakoa den atzerritar jatorriko pertsonen parte-hartzea...). Formatu guztiak egitura berberarekin aurkeztu ditugu: helburua, ezaugarriak, abantailak eta kontuan hartzeko alderdiak edo gomendio praktikoak. Hona hemen adibide bat:

### 3. irudia. Formatu-adibidea (marko linguistikoa partekatzeko azalpena)

**HIZKUNTZA TRATAERA HEZKUNTZA KOMUNITATE EUSKALDUN ETA KULTURANIZTUNEAN**

**1. FORMATUA - JARDUERA**  
**MARKO LINGUISTIKOA PARTEKATZECO AZALPENA**

**EZAUGARRIAK**

- o Egoera eta eskolaren hautu linguistikoa jasotzen duen azalpena da.
- o Eduki soziolinguistikoa oinarrikoak eta errazak izango dira.
- o Tonua zainduko da: positiboa, lagunkoia, ez ezer leporatzeko ez errudun sentiarazteko.
- o Ikasturte hasiera gutxietan egin beharko litzateke.
- o Bigarren urtetik aurrera, elkartu ahal dira saio berean guraso berriak, aurreko saioetan egon ez direnak eta irakasle berriak.

**ABANTAILAK**

- o Hartzaileak –guraso etorkinak zein euskaldunak eta irakasleak– elkarrekin izatea.
- o Itzulpen sistema erabiliz gero, guraso guztiak batera egon daitezke, eta elkarriketa konpartitu dezakete.

**HELBURUA**

- o Eskolako gurasoein eta irakasleekin eta herriko eragileekin euskararen trataeraz gogoeta egitea.
- o Gurasoei, irakasleei eta eragileei egoera ulertzeko datu eta irizpide batzuk ematea.
- o Euskararen alderdi hautua eta garrantzia azpimarratzea.
- o Eskolako hizkuntza guztiekin adeitasuna erakustea.

**KONTUAN HARTZEKOAK**

- o Eskolako kide batek eman dezake azalpen hau.
- o Gurasoak bilerara erakartzeko estrategiak erabiliko dira: zuzenean gonbidatu, umeen zaintza zerbitzua prestatu...
- o Parte-hartzaileen testigantzak, iritziak... jasotzeko aukera egongo da. Batzuk deserosoak izan daitezke eta elkarriketa kudeatu beharko da.
- o Komeni da denbora eskaintzea talde dinamika bat egiteko eta pertsonen ahotsak entzuteko, beraz, 2 orduko saioa komeni da.
- o Unea izango da eskolako hizkuntzaren garrantzia hitz egiteaz gain, etxeko hizkuntzen garrantzia azpimarratzeko.
- o Guraso euskaldun guztiak ume guztiekin euskaraz arituko direla landuko da.
- o Jarduera hau harrera planaren barruan egongo da, irakasleentzat zein gurasoentzat.

Formatuak honako hauek dira, modu laburrean azalduta:

a) **Marko linguistikoa partekatzeko azalpena.** Prozesuaren abiapuntua da, bai irakasleentzat, bai familientzat, bai herri-eragileentzat (udaleko zerbitzuak, kirol-taldeak, aisialdi taldeak...). Izan ere, proiektua eta prozesua bera ondo ulertzeko, oso garrantzitsua baita partaide guztion arteko marko partekatua izatea. Edukia eta estiloa azaldu ditugu aurreko epigrafeetan. Bigarren urtetik aurrera saio bakarria egiten da, guraso eta irakasle berriekin, denekin batera.

Saioarekin zera bilatzen da:

- Eduki garrantzitsu batzuk partekatzeko eta gogoeta bultzatzea: gehienak nozio soziolinguistikoak dira, oinarrikoak, ulerterrazak eta tes-tuinguruan kokatuak.
- Jarrerak hobetzea: euskararekiko, familien hizkuntzekiko, aniztasuna-rekiko... Bizikidetzaren erraztea da azken xedea.
- Proposatuko diren estrategiei edo formatuei begira oinarria jartzea: formatuak aurkeztu eta lanketarako urratsak proposatzen dira.



Saioaren nahia da mota guztietako hiztunak elkarrekin egotea; familien eta herri eragileen kasuetan, euskaraz dakiten eta ez dakiten pertsonak elkartzea, bertan jaiotakoak eta atzerritik etorritakoak batera egotea.

**b) Markoa laburtzeko diptikoa.** Proiektuaren eta marko linguistikoaren laburpena, paperean familiei eskura ematen zaie ikasturte hasieran. Horrek irakasleei, modu erraz eta laburrean, proiektuaren eta markoaren berri ematen laguntzen die, eta familiei, proiektuan kokatzen. Bi modutara egin dira diptikook orain arte: euskaraz idatzita gehi beste hizkuntza batzuetarako QR bidezko itzulpenak emanez, edo «euskara-gaztelania» testu elebiduna ezarriz.

**c) Bilera eta jardueretan aldibereko itzulpena.** Garrantzitsua da bileretan esaten dena denok ulertzea eta euskaraz dakitenak eta ez dakitenak elkarrekin egotea, bata besterekin harremana sustatu eta gogoeta partekatua egiteko. Horretarako, aldibereko itzulpena egitea bideratu da telefono mugikorra erabilita, Telegram aplikazioko ahozko kanalaren bidez. Itzulpena euskaratik gaztelaniara izaten da orokorrean, baina beste aukera batzuk ere egon daitezke, horretarako prest dauden pertsonak aurkituz gero: euskaratik arabierara, euskaratik errumanierara... Kasu horietan kanal bat irekiko litzateke hizkuntza bakoitzeko. Itzulpena ez da profesionala, komunitateko pertsonen egin da. Beraz, ez da perfektua eta euskaldunei zein euskara ez dakitenei ahalegina eskatzen die. Elkarrekikotasun-ariketa da.

**d) Familiekin ikasturte hasierako bilera.** Proiektuaren proposamena da bilera hori hiru alderditan eraldatzea: aldibereko itzulpena, bileraren egitura eta gurasoak erakartzeko motibazioa. Gelako tutoreak gurasoekin egiten duen ikasturte hasierako bilera testuinguru bikaina da familien arteko harremanean eragina izateko. Horretarako, bileraren forma eta egitura aldatu da. Batetik, bilerak euskaraz egiten dira aldibereko itzulpenarekin. Horrek irakasleei elkarlana eskatzen die bilerak prestatzeko. Bestetik, bilera bi fasetan egiten da, fase informatiboa lehendabizi, eta gurasoen arteko dinamika eta elkarrizketaren fasea ondoren. Bigarren fase horretan, gurasoak taldeka biltzen dira galdera edo gai baten inguruan hitz egiteko, eta horren ostean gelan partekatzen dituzte ondoriook. Galderak esanguratsuak izan behar dira, gurasoek benetako ekarpena egin ahal izateko. Dinamika horrek norabide bakarreko komunikazioa gainditzen laguntzen du; gainera, fami-

lien parte-hartzea, ekarpena eta partaide izatearen sentimendua sustatzen ditu, eta familien arteko harremana eta giro ona errazten ditu, une horretan eta aurrerantzean ere bai. Hemen azaldutako aldaketa erronka handia da irakasle askorentzat eta kezka eta beldur apur batekin aurre egiten diote. Baina eskarmentuz dakigu, dinamika hori burutu ondoren, irakasleek berek ere oso positiboki baloratzen dutela esperientzia berria.

e) **Ekaineko bilera familia berriekin.** Hurrengo ikasturteko familia berriekin (bi urteko gelako haurren familiekin) egiten den bilera baliatzen da hasieratik, eskolako informazioa partekatzeko ez ezik, baita proiektu honek ekarri dituen aldaketa batzuk aplikatzeko ere: ikastetxeko irizpide linguistikoekin berri eman eta aldibereko itzulpena erabili, markoaren zertzelada batzuk azaldu, gurasoen arteko dinamika txiki bat egin...

f) **Familiantzako idatzizko oharra.** Familiei informazioa nola bidaltzen zaien aztertzen da eta, euskarari lehentasuna emanda, familien ulermena bermatzeko irizpideak nola aplikatzen diren, nolako asetasun-maila dagoen edo komunikazio hori nola hobe daitekeen pentsatzeko aukera proposatzen da.

g) **Difusiodónde kanala Telegramen.** Ikastetxeko irakasleek edo zuzendaritzak familiei informazioa azkar eta eraginkor helarazteko balio du. Telegram aplikazioaren kanal bat erabiliz gero, euskara hutsean bidal litezke mezuak eta hartzaileak telefono mugikorrean aurrez ezarrita duen hizkuntzara berehala itzultzeko aukera izango du, bi klik eginez soilik, jasotako mezua kanpoko itzultzaile batera kopiatu gabe. Aplikazioko itzultzaileak ez du oraindik hizkuntza guztietara itzultzen, baina bai askotara. Herri-eragi-leentzat ere baliabide interesgarria izan daiteke.

h) **Familien elkarteko kudeatzaileen bilerak.** Proiektua martxan den herrietan bilerok euskaraz izan ohi dira, eta partaideak euskaldunak izan ohi dira. Bertan euskaldunak ez diren familiak ere egotea sustatu nahi da, gurasoen arteko harremana eta elkarlana bultzatzeko eta ikastetxearekiko familien inplikazioa garatzeko. Euskaraz izaten jarrai dezaten, aldibereko itzulpena proposatu da (xuxurlariaren bidez edo Telegram aplikazioaren bidez). Gauza bera guraso-elkarte osoa biltzen denerako ere.

i) **Gelako Whatsapp/Telegram taldeak.** Familien arteko komunikazio eta harremana gelako Whatsapp taldeen bidez egiten da askotan. Kasu batzuetan gela berean familiak bi taldetan banatuta ere egon daitezke, euskaldunak eta euskaldunak ez direnak, ulermena bermatzeko. Talde bakarra egon izan denean, gatazkak sortu izan dira maiz, euskaraz adierazten direnen eta euskaraz ulertzen ez dutenen artean. Telegram aplikazioa erabiliz, mezuak euskara hutsean izan daitezen proposatu da, familia guztiak talde berean egon daitezen, mezuen gainean bi klik eginez, mezuak norbere hizkuntzara itzultzeko aukera dagoelako. Horretarako, ahalegin berezia egin behar da, erabiltzaile batzuentzat batere erraza ez dena: mezuak euskara batuan eta zuzen idazten saiatzea, aplikazioaren itzultzaileak egoki itzuli ahal izateko.

j) **Etxeko hizkuntzen presentzia eta trataera.** Eragile bakoitzak aztertuko du bere erakundearen nolako presentzia edota trataera duten euskara ez diren familia-hizkuntzek, eta landuko du nola erakutsi estimua edota nola eman lekua hizkuntza horiei bere eremuan. Hau eskola-eremuan bereziki aintzat hartzen da.

k) **Atzerritar jatorriko pertsonen parte-hartzea gure esku-hartze eremuan.** Helburua zera da, atzerritar jatorriko pertsonen parte-hartzea, ekimena eta ekarpena areagotzea; aztertu beharko da, beraz, erakundearen zer presentzia eta trataera daukaten eta zer aukera egon daitekeen presentzia hori hobetzeko, aktibatzeke. Konplizitateak ehuntzeko eta euskaraz ez dakiten pertsonak euskarara erakartzeko, ezinbestekoa baita lehenengo lankidetzarako aukerak zabaltzea.

l) **Desabantailan dauden ikasleen presentzia eta parte-hartzea eskola-orduz kanpoko ikasleentzako jardueretan.** Ikastetxe bakoitzak aztertuko du, zein presentzia eta trataera daukaten familia atzerritarreko ikasleek eskolak eskaintzen dituen eskola-orduz kanpoko jardueretan, ikasle horien presentzia errazteko eta bultzatzeko asmoz. Herri-eragileekin ere aztertu behar da gai hori. Oztupoak aztertuko dira (ekonomikoak, kulturalak, informazio falta, ekintza horien abantailak ez ulertzea...) eta baita ere, trataera hobetzeko, egon daitezkeen aukerak eta egin beharreko urratsak.

**m) Kulturarteko festak eta jarduerak ikastetxean eta herrian.** Ekimen horietan testuinguruak eskainiko dira jatorri desberdineko pertsonen arteko harremanak errazteko giro atsegina batean. Kontuan hartuko da ekintzak etniko-folklorikoak edo estereotipoetan oinarrituak soilik ez izatea, baizik eta, nagusiki, harremanak sortzeko eta gauzak elkarrekin egiteko espazioak eta aukerak izatea.

**n) Prozesuaren inguruko informazioa zabaltzea.** Hezkuntza-komunitateari eta herriari prozesuaren inguruko informazioa helaraztea du xede. Informazioa zabaltzeko bidea hautatu behar da (eskolaren webgunea edo bloga, Udalaren webgunea, eskolako edo herriko aldizkaria...), proiektuaren gaineko informazioa partekatzeko aukera izateko eta eragileen artean diskurtso partekatua eratzen laguntzeko. Jardute horrek proiektuari ikusgarritasuna ematen dio.

**ñ) Sistematizazioa.** Formatu guztiak ez dira egokiak proiektuan parte hartzen duten eragile guztientzat, beraz, bakoitzaren esku-hartze eremuan erabilgarri direnak landuko dira ikastetxeekin, familiekin eta herri-eragileekin. Berei dagokie, ondoren, horien inplementazio-aukerak aztertzea, haien beharrei erantzuten dietenak gauzatzea, baloratzea eta egokitzea edo finkatzea. Esan gabe doa, ikastetxe eta erakunde guztiak ez direla leku berberera heldu, eta haietako batzuk harago iritsi direla beste batzuk baino; horretarako zenbait faktore daude, 5.2 atalean azalduko direnak.

## 5. Esperientziatik ikasitakoa

Hiru ikasturteko ibilbidean, hainbat izan dira ikaskuntzak eta praktika interesgarriak.

### 5.1 Praktika onak

Proiektuak sormenerako bideak zabaldu ditu eta aurreikusita ez zeuden praktika interesgarri ugari agertu dira. Proiektuak aplikaziotik haragoko inspirazioak sustatu ditu eta bai ikastetxeetan bai herrietan proiektuarekin

lerrokatutako ekintzak eta ideiak garatzen dira. Ekintza eta ideia horiek praktika onen bilduma batean jasotzen dira, formatuen aplikazioaren zein proiektuaren bizi-indar eta sormen-gaitasunaren adibide gisa, eta prozesuan zehar talde eragileekin partekatzen dira. Jarraian ikus daitezke adibide batzuk.

- i) Hizkuntza-trataeraren markoaren aurkezpenari lotuta, adibidez, aholkulariak izan dira lehen urtean markoa azaldu dutenak, baina proiektuaren hirugarren urtean, aholkularia bi gurasorekin batera aritu da herri batean lan hori egiten, guraso euskalduna bata, eta Marokotik etorritako gurasoa, bestea. Diskurtsoa eta proiektua bera bereganatu duten erakusgarri. Eta proiektua eta markoa modu laburrean azaltzeko, ikastetxe eta herri batzuetan irizpide nagusiak azaltzeko diptikoak egin dira, guraso-bileretan banatzeko, esaterako, hainbat hizkuntzatako itzulpenetara QR bidezko loturekin.
- ii) Telegram aplikazioa tresna eraginkorra suertatu da euskararen erabilerara errazteko. Ahozko kanalen bidez aldibereko itzulpena normalizatu egin da proiektuan ari diren ikastetxe guztietan, bai guraso-bileretan irakasleen bidez, bai ikastetxeetan antolatzen diren hitzaldietan ere, kanpotik datozen hizlarietara ere hori bera eskatu baitzaie, eta horrela beste batzuen akuilu eta biderkatzaile bihurtu da sistema. Ekin-tzetan itzulpena egongo dela iragartzeko logo edo irudiak ere sortu dira han eta hemen.
- iii) Ikasturte hasierako bilerari dagokionez, gurasoek, oro har, oso ondo baloratu dituzte aldaketak, eta herri bateko eskolan, kasu, urtean zehar bigarren bilera bat egiteko eskatu dute. Harrezkero, bigarren bilera horretan gela bakoitzaren beharren arabera gaiak jorratzen dira, eta ez da falta haiek eskatutako kaferik ez pastarik... Eta dinamika bera erabiltzen da guraso berriekin ekainean egiten den bileran ere. Berritasunak izan ditu baita gurasoak bilerara deitzeko moduak ere: gonbidapena ikasleek eginda (hitzez, irudiz edo bidez) edo umeen opari truke ikasgeletako paretak mezuz eta ikasleen edo gurasoen argazkiz osatutako horma-irudiz apainduta. Eta ikasleengan ere izan du eraginik bileren aldaketa horrek: ikasleek beren gurasoek

gelan zer egin duten jakin nahi dute, zer kontatu zaien, zertaz hitz egin duten...; eta irakasleek denaren jakitun ipintzen dituzte, umeek adi entzuten dute eta pozik amaitzen dituzte bezperan sobratutako pastak. Gurasoek gelako Telegram taldeetik esker oneko mezua eta bileraren argazkia jasotzen dituzte, eta horrekin amaitzen da bilera-ekintza.

- iv) Familia-hizkuntzen trataerari dagokionez, areagotu egin da euskara ez diren hizkuntzen presentzia, bai eskolan, eta bai herrian. Ikastetxe-ko sarreran ongi-etorri-mezuak jarri dira ikastetxeko hizkuntza guztietan. Gelaren batean elkarlanean aritu dira arabiera dakien irakaslea arabiera etxeko hizkuntza duen ikaslearekin. Gurasoak ipuinak kontatzen geletan egon dira, beren jatorrizko herriaz hitz egiten edo hainbat hizkuntzatan ipuina grabatzen. Euskararen egunean, hitz kuttunak proposatu dituzte, euskarazkoak eta etxeko hizkuntzakoak, edo eskolako hizkuntzetako hitzekin lore bat osatu dute. Eta eguberrietako postalak eskolako hizkuntza guztietan jaso du urte berrirako zorion-agurra. Ama-hizkuntzen nazioarteko eguna (Hik Hasi 2024) ere ospatu da Kulturarteko Batzordeak kudeatuta. Ikasleengana ere iristen ari da, beraz, gaiaren gaineko sentsibilizazioa eta lanketa.
- v) Herrian arabierako klaseak eskaini dira, Udalaren webgunean harre-rarako gida edo Korrikaren azalpena hainbat hizkuntzatan argitaratu da, eta QR bidezko itzulpenak ugaritu egin dira. Haur guztiek aisialdia euskaraz egin dezaten egitasmoak ere sortu dira: neguko asteburuetan filmak euskaraz, jatorri ezberdineko guraso boluntarioek antolatuta; eskola-orduz kanpo haur txikiek umeekin euskaraz jolasten ikasteko jolas-parkea; ipuin-kontaketa liburutegian Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako haurrak biltzeko; edo haurrekin etxeko lanak egiteko boluntarioek eskainitako tarteak astean zehar.
- vi) Azkenik, ugariak izan dira proiektuaren berri emateko eta ezagutza elkar banatzeko sortutako aukerak ere. Hementxe adibide batzuk: eskolaren webgunean gaiarekin lotuta dauden ekintza guztiak «euskara eta kulturartekotasuna» etiketarekin argitaratzea, proiektuarekin identifikazio argia egiteko; dokumental bat sortzea herriko aniztasunaren eta hizkuntza-trataeraren berri emateko, eta dokumental

horrekin bideoforumak egitea beste herri batean; herriko aldiakarietan proiektuaren berri ematea; proiektua herrian aurkezteko, prentsaurrekoak egitea; egunkari eta irratian, proiektuan lanean ari diren protagonistei elkarrizketak egitea; edo unibertsitatean jardunaldiak egitea, proiektuetan ari diren irakasle, guraso, teknikari edo aholkularien esperientziak eta ikasten ari garena partekatze<sup>3</sup> (Hik Hasi 2023; Urdalleta Lete 2024).

Tokian tokiko esperientziekin elkar elikatzen eta garatzen doan ekosistema sortu dela esan dezakegu.

## 5.2 Azpimarratzeko oinarriak eta ikaskuntzak

Badira ideia batzuk urte batetik bestera azpimarragarri gertatu direnak, esplizitatzen joan direnak, eta arian-arian ikusten eta ikasten joan garenak.

- **Prozesuaren garrantzia.** Hasieratik partaide guztiak proiektuaren izaera ondo ulertzea erabakigarria da, hau da, prozesu batez ari garela ulertzea, ez berehalako aldaketek. Prozesua egin egin behar da, beraz. Horrek esan nahi du, prozesuaren izaeraz, inplikazioez eta bakoitzaren rolaz eta erantzukizunez hasieratik hitz egin behar dela, bestela denona eta inorena ere ez izateko arriskua dago.
- **Hezkuntza-komunitateko helduak protagonista eta ekintzaile.** Prozesua, orain artean, batez ere eskolan eta familietan ardatzu da, eta herriko beste eragile batzuk ere parte hartzen ari dira. Oihartzuna umeenganaino helduko da, umeak baitira, hein handi batean, oinarrian dauden interes nagusi eta partekatuak. Hain zuzen ere, umeen erabilera da askotan azaleratzen den kezka nagusia hezkuntza-komu-

---

<sup>3</sup> Bi jardunaldi ireki antolatu dira HUIHEZIn, 2022ko abenduan lehena, «Euskara eta kulturartekotasuna udalerrri euskaldunetako hezkuntza-komunitateetan. Zaldibiako esperientzia» (<https://www.mondragon.edu/eu/-/abenduak-2-2022-jardunaldia>); eta 2023ko abenduan bigarrena: «Euskara eta kulturartekotasuna hezkuntza-komunitateetan II. Praktika onak eta ekarpen berriak» (<https://www.mondragon.edu/eu/-/euskara-eta-kulturartekotasuna-hezkuntza-komunitateetan-jardunaldia>).

nitatean. Gure proiektua kezka horretara hurbiltzen da, erpin jakin batetik: familien eta pertsona nagusien ekarpenaren aldetik.

- **Intentsitate baxua baina zorrotza.** Prozesuak ez du denbora eta ahalgin handirik eskatzen, baina exigentzia-maila badu, eta ikasturte osoan zehar zaindu behar da, behar duen sendotasunez aurrera jarraituko badu. Tentsio horri hilabeteetan zehar eustea erabakigarria da. Talde eragileak zaindu behar du.
- **Lan-une trinkoak.** Lan-unerik trinkoenak kurtso hasiera (iraila) eta kurtso bukaera (maiatza edo ekaina) dira. Eskolen kasuan, horietan dira garai txarrenak, zuzendaritzak eta klaustroak lanez gainezka baitaude. Hala ere, proiektuaren izaerak eta estrategiak behartzen dute bilera gehienak, halaber, une horietan egitera, eta horrelaxe ulertu beharra dago hasieratik.
- **Erresistentzien trataera.** Badira, prozesuaren hasieran, proiektua «lan-zama gehiago» dela esaten dutenak. Eta ikasturte hasierako bileraren aldaketek, adibidez, irakasle batzuen erresistentziak eta beldurak suspertzen dituzte sarri. Irakasleei azaltzen zaie prozesua xumea dela, baina aldaketa batzuk eskatzen dizkiela. Beldurrak eta erresistentziak adieraztea prozesuaren parte da eta arretaz entzun behar dira kezka horiek. Eta aurrera jarraitu. Mezu horiek bakarrik ez agertzen saiatzen gara denon artean, irakasle gehienak aldaketa horiek bere gain hartzeko prest baitaude, baina batzuetan ez dute haien ahotsa entzunarazten, eta gerta daiteke bi ekarpenek talde osoaren giroa erabat baldintzatzea. Beraz, garrantzitsua da prozesua gogotsu hartzeko, mezu positiboak igortzea eta beste herri batzuetan egindako aldaketen balorazio positiboaren berri ematea.
- **Ebaluazioaren garrantzia.** Saio bakoitzaren ondoren balorazioak egiteko galdetegiak jasotzea oso garrantzitsua da, beti forma berberarekin, ahal dela. Aldibereko itzulpenaren gainean ere galdetu behar da. Jasotako balorazioetan oinarritzen da ikasturte bukaeran egiten den ebaluazioa, eta ez parte-hartzaileen inpresioetan soilik. Ebaluazioak laguntzen du, gainera, zer eta nola finkatu eta egokitu erabakitzen. Prozesu ebaluatua da, beraz. Orokorrean eta une honetara arte, par-



taideen balorazioak oso positiboak izan dira kolektibo guztietan. Aurrera jarraitzeko gogoia adierazi da.

- **Sistematizazio beharra.** Ikasturte bukaeran sistematizazioari heldu behar zaio. Erabaki behar da zer mantendu hurrengo ikasturteari edo ikasturteei begira eta jarraipena nola bermatu. Izan ere, aurrerantzean tentsioari edo ahaleginari eustea eta inertzietara ez itzultzea berrikuntza-prozesuetan azaleratzen den erronka handia izan ohi da.
- **Eskuzabaltasuna.** Bilerak eta saioak pertsona askoren lan-ordutegitik kanpo egiten dira maiz, familien aukerak zein diren kontuan izanik. Proiektuak aktibismoa eskatzen du partaide guztien aldetik, bai aholkularien eta bai hezkuntza-komunitateetako partaideen eta herriko eragileen aldetik; beharizanen arabera erantzuteko konpromisoa hartzea eskatzen du. Eskuzabaltasun-ariketa da.
- **Erantzukizuna.** Arriskua dago hezkuntza-komunitatean eta herrian zera pentsatzekoa, aholkulariak direla prozesua inplementatuko dutenak eta aldaketa ekarriko dutenak, eta ez da, bada, hori horrela. Hezkuntza-komunitate bakoitzeko talde eragileak kudeatu eta dinamizatzen du prozesua, eta eskolak eta herriak eramaten dute prozesua aurrera, horrek denbora eta ahalegina eskatuko diela jakinik. Prozesuan parte hartzea borondatezkoa da, komunitateak eta talde eragileko partaideek erabakitzen dute, eta ekarriko dienaz kontziente izan behar dute.
- **Eskolako zuzendariaren/zuzendaritzaren inplikazioa eta lidergoa.** Faktore erabakigarria da hori. Bere babesa eta bermea argi esplizitatez, klaustroa animatzea eta bultzatzea, familiak erakartzea, elkarrekintzak erraztea eta zubi-lana egitea, ikastetxean jasotzen diren balorazio-orriak jasotzea eta aztertzea... eginkizun garrantzitsuak dira, eta, horiek gertatzen direnean, prozesuak eraginkorragoak dira eta harago doaz.
- **Konplizitateen ehundura.** Gerta daiteke komunitatean beste «lider» argi bat, edo batzuk, ere egotea (guraso bat, udaleko teknikari bat, alkatea bera...). Esperientzietan ikusten da konplizitate horien onura,

hots, herriko eragileak inplikatzaren diren heinean, harago eraman daiteke eraldaketa-prozesua.

- **Pertsonen garrantzia.** Talde eragilean ere lagun inplikatuak behar dira, proiektuarekin lerrokatzen direnak. Ekimen guztietan bezala, «persona-faktorea» azpimarratu behar da. Emaitzak faktore horrekin oso lotuta daude, alegia, pertsonen presentziarekin, komunikazioarekin eta dituzten harremanekin, antolaketarekin, malgutasunarekin, prozesuaren segimendua egitearekin, prozesuaren sena partekatu eta komunikatzearekin... Norberaren roler argi egon behar dute eta errepresentazio berbera partekatu behar dute talde eragileko pertsonen.
- **Familien parte-hartzearen garrantzia.** Talde eragilean guraso-elkarreko kide batek egon behar du gutxienez, eta atzerritar jatorriko guraso batek ere bai. Atzerritar jatorrikoaren edo euskalduna ez denaren presentzia ziurtatzea ez da beti erraza eta ez da beti lortu, baina ezinbestekoa da, gogoeta eta prozesu partekatua egingo bada. Askotan guraso horiexek dira zubi-lana egiten dutenak beste guraso atzerritar batzuekin, eta rol horrek duen zeregina nabarmendu egin behar da.
- **Giroaren zaintza.** Garrantzitsua da elkarren artekoak entzutea, jasotzea, negoziatzea... Lehenago azaldu dugu giro adeitsua eta umore ona prozesuaren ezaugarri garrantzitsua dela, eta horixe izan da nagusitu den giroa egindako prozesuetan.
- **Telegram aplikazioaren erabilgarritasuna.** Telegram aplikazioa, oro har, eta ahozko kanala, zehazki, oso tresna erabilgarritzat jo da, eta hainbat formatutan proposatu da baliabide moduan. Hain izan da eraginkorra, ezen, eskolatik atera eta beste espazio batzuetara ere zabaldutako (udaletara, beste erakunde batzuetara, beste herri batzuetako ikastetxeetara...). Ezin da ahaztu, baina, tresna dela, ez helburua. Aldibereko itzulpena estrategia bat da eta, une honetan, eta teknologiak beste baliabide batzuk ekarri arte, aipatutako kanalak estrategia hori erabiltzea errazten du.
- **Itzulpen-lanaren konpromisoa.** Tresna bezain garrantzitsua da itzulpena egiteko borondatea eta esfortzua, ez baita lan erraza itzulpen-

-lana, are gutxiago menderatzen ez den hizkuntza batera itzuli behar denean, eta hori da, oro har, udalerrri euskaldunetako parte-hartzaile askoren egoera gaztelaniara itzuli behar dutenean. Hori ere eskuzabal-tasun-ariketa garrantzitsua dugu.

- **Herri-ituna xede.** Ikastetxeetatik abiatu den proiektua izanik ere, partaide guztiek herriko egitasmotzat hartzen dute, euskararen eta kulturarteko harremanen garapena ez delako eskolaren erronka eta egitekoa soilik, eta derrigorrez herriko gainontzeko eragileen babes, konplizitatea, lankidetzeta eta koherentzia behar duelako.
- **Transferigarritasuna.** Ikusi da prozesua hein handi batean transferi-garria dela. Lehen azaldu bezala, une honetan hainbat herritara hedatu da eta haietan ere metodologia baliagarria izaten ari da. Bi herri handiagotan ere martxan jarri da, eta horietan hasierako planteamendua izan da herriko ikastetxe guztiekin lan egitea eta herriko eragileen esparrua esplizituki jorratzea, esan nahi baita, interesa eta aukera izan dezaketen ahalik eta eragilerik gehien erakarri direla prozesura, herri-ituna esplizitu eta ageriko egitera (Etxaniz 2023; Arantzamendi 2023). Horixe da etorkizunean jorratzen jarrai daitekeen bide bat.
- **Komunikazioa eta zabalkundea.** Praktika onen atalean aipatu den gisan, proiektua komunikatzeko eta ikasitakoak partekatzeko boka-zioz jaio da. Estrategia eta ekintza txikiak partekatuz, elkar elikatuz eta elkarren arteko solaskidetzan, biderkatzen eta handi egiten baitira egitasmoak. Eta solaskidetzeta horiek sortu eta mamitzeko antolatzen dira herrien arteko topaketak eta jardunaldi irekiak.

Idea horiek guztiak azaleratzen, garrantzia hartzen eta garatzen joan dira lau urteko esperientzia honen ibilbidean. Eta garatzen eta osatzen jarraituko dute aurrerantzean ere, proiektua hedatu ahala.

## 6. Azken hitzak

Azken 50 urteetan euskara berreskuratzeko egindako lanak eta lorpenak handiak izan dira, baina baita frustrazioak ere (Amonarriz 2019). Eta, aldi

berean, hamarkada hauetan zehar baldintzak eta testuinguruak aldatzen joan dira eta erronka berriak agertu. Une jakin honetan, erronka horien artean, zalantzarik gabe, Estaturik kanpoko immigrazioa dago, XXI. mende barruan hazten ikusi duguna. Lehen aipatu dugun bezala, etorri berrien kopurua ez da apalduko hurrengo urteetan; milaka lagun iritsiko dira beste herrialde batzuetatik eta aurreikuspena da horietatik % 13 baino ez dela pasatuko gure hezkuntza-sistematik, beraz, «Sisiforen gisa, euskarak gizar-te-erresaka pairatuko du, eta gero eta atzeragotik berriro ekin beharko dio, ezinbestez» (Aierdi 2022: 144). Beraz, tresnak eraiki behar dira halabeharrez, euskararen biziberritzeko aurrerapausoak egiten jarraitu ahal izateko. Bide hori urratzeko ekarpena egin nahi du proiektu honek, hiztun-komunitateko kideek elkarrekin hausnartzeko eta aldaketa txikiak elkarrekin pentsatzeko eta egiteko estrategien bidez. Gogoeta eta ekintza partekatutako eskolaren, familien eta herriko eragileen artean, komunitatean eta lankidetzan, beraz, hezkuntza-komunitatea sartzeko eta erantzukidetasunez aritzeko xedez (Hik Hasi 2023b).

Egindako prozesua ez da amaitu hemen azaldu dugun esperientziarekin. Hasitako proiektu batzuk beren lehenengo urtean daude eta haien segida zaindu behar da. UEMAko beste herri batzuk ere interesatuta daude antzeko bide bati heltzeko eta aurreikusi da hurrengo urteotan beste batzuk integratuko direla proiektuan. Bestalde, ekimena UEMAn ez dauden herrietara ere hedatzen hasi da, hau da, herri horietara non euskararen erabilera baxuagoa den eta euskara ez dakitenean artean, atzeritar jatorriko bizilagunenez gain, beste profil bateko pertsonen kopurua handiagoa den: beste erki-degoetatik etorriak, Euskal Herriko eremu ez horren euskaldunetatik iritsiak edo euskaraz ez dakiten autoktonoak (batzuetan euskararekiko jarrera ezkorra dutenak). Orain arte baliatutako hainbat estrategia testuinguru horietara ere transferigarriak dira eta lehenengo urratsak martxan jarrita daude jada.

Amaitzeko esan dezagun, immigrazioa euskararentzat erronka dela onartzen badugu ere, gure diskurtsoan euskara eta etorkinak ez direla kontrajartzen, antagonisten antzera (Barquín 2023). Euskarak ez ditu etorkinak etsai; alderantziz, etorkinak hartakotzat hartzea izan daiteke euskararen beraren kalterako, zeinda profezia batek berak bere hitzak

betetzea. Etorkinak konplize potentzialak izan daitezke, baldin eta horrela tratatzen badira. Eta beren seme-alabak oraingo eta etorkizuneko euskaldunak dira. Hori errazteko estrategia eta tresnak arakatzen eta esperimentatzen jarraitu beharko dugu, eta proiektu partekatuak taxutzen ere bai.

## Bibliografia

AGIRRE DORRONSORO, Lorea eta ESKISABEL LARRAÑAGA, Idurre (2019). *Trikua esnatu da. Euskaratik feminismora eta feminismitik euskarara*. Lisipe, 7. Zarautz: Susa.

AIERDI, Xabier (2022). «Euskararen erresaka etenezina eta Sisifo», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 125: 137-158.

AMONARRIZ, Kike (2019). *Euskararen bidegurutzetik*. Donostia: Elkar.

ANAUT, Dabid (2013). *Euskararen kate hautsiak. Hizkuntza zapalkuntzaren memoria*. Andoain: Euskal Memoria Fundazioa.

ARANTZAMENDI, Naia (2023). «Euskara eta kulturartekotasuna egitasmoa martxan jarri dute Markina-Xemeinen», *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza*, 2023ko urriak 16. Kontsultagai: [<https://lea-artibaietamutriku.hitza.eus/2023/10/06/euskara-eta-kulturartekotasuna-egitasmoa-martxan-jarri-dute-markina-xemeinen/>]. (2025/04/02 kontsultatua).

BARQUÍN, Amelia (2008). «Immigrazioa eta euskara: gogoetarako zenbait gai», *Jakin* 165: 75-97.

— (2009). «¿De dónde son los hijos de los inmigrantes? La construcción de la identidad y la escuela», *Educar* 44: 81-96. Kontsultagai: [<https://raco.cat/index.php/Educar/article/view/200834/268356>]. (2025/04/02 kontsultatua).

— (2015). «¿Qué debe hacer la escuela con las culturas familiares del alumnado inmigrante?», *Educar* 51 (2): 443-464. Kontsultagai: [<https://raco.cat/index.php/Educar/article/view/295243>]. (2025/04/02 kontsultatua).

— eta GOIKOETXEA, Nekane. (2022). «Euskara eta XXI. mendeko immigrazioa Euskal Herrian», *Linguistic Minorities in Europe Online*. Berlin, Boston: De Gruyter Mouton. Kontsultagai: [<https://doi.org/10.1515/lme.18120522>].

— (2023). «Etorkinen seme-alabak D ereduan egotea nahikoa izango al da?», *Berria* egunkaria, 2023ko irailak 19. Kontsultagai: [[https://www.berria.eus/iritzia/artikuluak/etorkinen-seme-alabak-d-ereduan-egotea-nahikoa-izango-al-da\\_1342038\\_102.html](https://www.berria.eus/iritzia/artikuluak/etorkinen-seme-alabak-d-ereduan-egotea-nahikoa-izango-al-da_1342038_102.html)]. (2025/04/02 kontsultatua).

BEGIRUNE FUNDAZIOA (2023). «Atzerritar jatorriko biztanleek euskararen aurrean dituzten jarrerari buruzko ikerketa», in «Euskara eta immigrazioa: ikerketa baten harira...» ikastaroa. Donostia (UPV/EHU), 2023ko azaroak 14.

BELMAR, Guillem (2024). «No és bona educació, és minorització: sostenibilitat lingüística en la diversitat», *Living Languages* 3 (1): 58-78.  
Kontsultagai: [<https://doi.org/10.7275/livinglanguages.19971>].

COELHO, Elizabeth, OLLER, Judith eta SERRA, Josep (2013). *Lenguaje y aprendizaje en el aula multilingüe*. Barcelona: Horsori.

CUMMINS, Jim (2017). «Teaching for Transfer in Multilingual School Contexts», in O. García, O., A. Lin eta S. May (arg.), *Bilingual and Multilingual Education. Encyclopedia of Language and Education*. Springer, Cham.  
Kontsultagai: [[https://doi.org/10.1007/978-3-319-02258-1\\_8](https://doi.org/10.1007/978-3-319-02258-1_8)].

ERA ESKOLA eta BARQUÍN, Amelia (2023). *Convivencia lingüística*. ERA Nafarroa.  
Kontsultagai: [[https://www.youtube.com/watch?v=f\\_GBDdyHnWA&t=3s](https://www.youtube.com/watch?v=f_GBDdyHnWA&t=3s)].  
(2025/04/02 kontsultatua).

ETXANIZ, Maialen (2023). «Euskara eta kulturartekotasuna sustatzeko erronka hartu du Azpeitiak», *Uztarria Azpeitiko Herri Aldizkaria*, 2023ko irailak 7.  
Kontsultagai: [<https://uztarria.eus/azpeitia/1694077209530-euskara-sustatzeko-eta-kulturartekotasuna-indartzeko-erronka-hartu-du-azpeitiak>].  
(2025/04/02 kontsultatua).

EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA (2023). VII. *Inketa Soziolinguistikoa 2021. Euskal Autonomia Erkidegoa. Laburpen-txostena*.  
Kontsultagai: [[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eas\\_ikerketak/eu\\_def/adjuntos/VII.-INKESTA-SOZIOLINGUISTIKOA\\_laburpena.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eas_ikerketak/eu_def/adjuntos/VII.-INKESTA-SOZIOLINGUISTIKOA_laburpena.pdf)].  
(2024/09/01 kontsultatua).

EUSTAT (2023). *EAEko biztanleria, lurralde eremuaren eta jaioterriaren arabera. 2001-2023*.  
Kontsultagai: [<https://www.eustat.eus/bankupx/sq/fe93cd0f-f086-418c-96da-4b2e-3dab1fea>]. (2025/04/02 kontsultatua).

— (2024). *Zaldibiako datuen laburpena*.  
Kontsultagai: [[https://eu.eustat.eus/municipal/datos\\_estadisticos/zaldibia.html](https://eu.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/zaldibia.html)].  
(2025/04/02 kontsultatua).

— (2025). *Jaiotzak % 7,7 jaitsi ziren 2024ko hirugarren hiruhilekoan EAEn*. (2025eko otsailaren 3ko prentsa-oharra).

Kontsultagai: [[https://eu.eustat.eus/estad/id\\_48/ti\\_jaiotzen-estatistika/azken-prentsa-oharra.html](https://eu.eustat.eus/estad/id_48/ti_jaiotzen-estatistika/azken-prentsa-oharra.html)]. (2025/04/02 kontsultatua).

FISHMAN, Joshua (1991). *Reversing Language Shift: Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Clevedon: Multilingual Matters.

HİK HASI (2023a). «Euskara ardatz, elkarbizitza helburu», *Hik Hasi Aldizkaria* 274: 20-23.

— (2023b). «Elkarlanerako kultura berria: erantzukidetasuna hezkuntzan», *Hik Hasi Aldizkaria* 280: 8-15.

— (2024). «Ama-hizkuntzen aitortza», *Hik Hasi Aldizkaria* 284: 50-52.

HOLLEBEKE, Ily, STRUYS, Esli eta AGIRDAG, Orham (2023). «Can family language policy predict linguistic, socio-emotional and cognitive child and family outcomes? A systematic review», *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 44:10, 1044-1075.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.1080/01434632.2020.1858302>].

IKUSPEGI IMMIGRAZIOAREN EUSKAL BEHATOKIA (2025). «Atzerritar jatorriko biztanleak EAEn 2025». 95. *Begirada*.

Kontsultagai: [<https://www.ikuspegi.eus/eu/argitalpenak/begiradak/ikus/95-begirada/206/>]. (2025/04/02 kontsultatua).

IURREBASO, Iñaki (2015). «Udalerri erdaldunak euskalduntzen eta euskaldunak erdalduntzen, arnasmuneak arriskuan. EAE, 1981-2011», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 95 (2): 71-101.

— (2023). *Gako berrien bila. Hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberritzea neurtzeko demolinguistikazko tresna metodologikoak garatzen. Euskal Herriko aplikazio praktikoa*. Iker 50-1. Bilbo: Euskaltzaindia. (Doktore-tesia).

IZAGIRRE, Koldo (2010). *Autopsiarako frogak*. Zarautz: Susa.

MAALOUF, Amin (1998). *Les identités meurtrières*. Paris: Editions Grasset et Fasquelle.

NAFARROAKO EUSKARA ZERBITZUAK (2008). *Duzun onena. 'Lo mejor de ti'*. Nafarroako Euskara Zerbitzuak.



— (2011). *Hizkuntzak, familia eta eskola: bakoitzari berea*. 'Idiomas, familia y euskera: a cada uno lo suyo'. Nafarroako Euskara Zerbitzuak.

NASTAT (2024). *Jaiotzak eta ugalkortasuna. Ugalkortasunaren eta jaiotza-tasaren estatistika*.

Kontsultagai: [<https://nastat.navarra.es/eu/operacion-estadistica/-/tag/estadistica-natalidad-fecundidad>]. (2025/04/02 kontsultatua).

ORTEGA, Ane, AMORRORTU, Estibaliz, GOIRIGOLZARRI, Jone eta URLA, Jacqueline (2016). *Euskal hiztun berriak. Esperientziak, jarrerak eta identitatea*. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia eta Deustuko Unibertsitatea.

QUINTAS, Marta, ARRATIBEL, Nekane eta BARQUÍN, Amelia (2022). «Participación familiar en escuelas con alta presencia de alumnado inmigrante y en desventaja socioeconómica», *REICE: Revista Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación* 20 (4): 89-105.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.15366/reice2022.20.4.005>].

SAEZ BELOKI, Patxi (2017). «Euskara: beharra da gako», in J. Goirigolzarri, X. Landabidea eta I. Manterola (arg.), *Euskararen biziberritzea. Marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*. Bilbo: UEU: 139-152.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA. (2022). *Hizkuntzen erabileraren kale neurketa. Udalerriak, 2021*.

Kontsultagai: [<https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/hizkuntzen-erabileraren-kale-neurketa-udalerriak-2021/>]. (2025/04/02).

TORREALDAI, Juan Mari (1998). *El libro negro del euskera*. Donostia: Tartalo.

UEMA (2022). *EAEko udalerrri euskaldunak. 1981-2021eko zentsuak*.

Kontsultagai: [<https://www.uema.eus/eu-ES/ikerketak-argitalpenak/ikerketak/ikerketak/04-eae-udalerrri-euskaldunak-2022.pdf>]. (2025/04/02).

— (2023). «Egin nirekin ere euskaraz!» kanpaina abiarazi du UEMAk, euskaldun arrazalizatuen inguruko aurreiritziak gainditzeko deia eginez».

Kontsultagai: [<https://www.uema.eus/eu-ES/Albisteak/Orriak/20231110-uma-egin-nirekin-ere-euskaraz.aspx>]. (2025/04/02 kontsultatua).

URDALLETA LETE, Irati (2024). «Eskolatik zubigintza», *Berria* egunkaria, 2024ko urtarrilak 2.

Kontsultagai: [[https://www.berria.eus/euskal-herria/eskolatik-zubigintzan\\_2118528\\_102.html?utm\\_source=T\\_witter&utm\\_medium=Sare\\_sozialak\\_CM](https://www.berria.eus/euskal-herria/eskolatik-zubigintzan_2118528_102.html?utm_source=T_witter&utm_medium=Sare_sozialak_CM)]. (2025/04/02 kontsultatua).

URIZAR, Ane, BARQUÍN, Amelia eta JIMÉNEZ DE ABERASTURI, Sara (2023). «“Gehiegitan galdetzen didate nongoa naizen”. Murgiltze programako ikasle etorri berriak eta identitatearen auzia», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 68 (2): 149-181. Kontsultagai: [<https://euskera-ikerketa.euskaltzaindia.eus/index.php/euskera/article/view/268/279>]. (2025/04/02 kontsultatua).

WRIGHT, S. (2015). «What is language? A response to Philippe van Parijs», *Critical Review of International Social and Political Philosophy*, 18:2, 113-130.

XAMAR (2006). *Euskara jendea*. Iruñea: Pamiela.

ZALBIDE, Mikel (2016). «Mintzajardunaren egoera eta azken urteotako bilakaera: aurrera begirako erronkak», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 100 (3): 11-190. Kontsultagai: [<https://bat.soziolinguistika.eus/eu/produktua/mintzajardunaren-egoera-eta-azken-urteotako-bilakaera-aurrera-begirako-erronkak/>]. (2025/04/02 kontsultatua).

— (2019). «Arnasguneak: etorkizuneko erronkak», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* (110): 11-78.

ZALDIBIAKO UDALA eta UEMA (2022). *Hizkuntzen kaleko erabileraren neurketa*. Zaldibia. Kontsultagai: [<https://zaldibia.eus/eu/orria/hizkuntzen-kale-erabileraren-neurketaren-emaizak>]. (2025/04/02 kontsultatua).

ZAPATA, Mario (2016). «Migratzaileen harrera, gutxiagotutako hizkuntzen testuinguruan: Administrazioz kanpoko harrera-eragileak eta hizkuntzen trataera, euskararen eremu geolinguistikoa», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 102: 11-34. Kontsultagai: [[https://soziolinguistika.eus/files/mario\\_zapata\\_bat102.pdf](https://soziolinguistika.eus/files/mario_zapata_bat102.pdf)]. (2025/04/02 kontsultatua).

— (2021). «Etorri berrien harrera integral baterako gako nagusiak, gutxiagotutako hizkuntzen testuinguruan», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 119: 127-147.

# Juan Kruz Igerabideren haur-poesia (1992-2005): poemen analisi tematiko, metriko eta estilistikoa

La poesía infantil de Juan Kruz Igerabide (1992-2005):  
análisis temático, métrico y estilístico de los poemas

La poésie enfantine de Juan Kruz Igerabide  
(1992-2005) : analyse thématique, métrique et  
stylistique des poèmes

The children's poetry of Juan Kruz Igerabide  
(1992-2005): thematic, metrical and stylistic analysis  
of the poems

CALVO, Oihane  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)  
oihanec31@gmail.com  
ORCID: <https://orcid.org/0009-0003-3501-447X>

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v1i70.294>

Jasotze-data: 2024/06/24

Behin-behineko onartze-data: 2024/10/28

Behin betiko onartze-data: 2024/12/01

Haur-poesiaren inguruan dagoen informazioz eza nabarmena da. Narratibari buruzko ikerketa eta lanak ugari daude, baina haur-poesiak hutsune handiak ditu kritikaren eta ikerketaren esparruan, eta are gehiago, euskal literaturan. Testuinguru honetan, artikuluko honek haur-poesiaren bultzatzaile nagusia izan den Juan Kruz Igerabide (Aduna, 1956) euskal idazlearen haur-poesiaren ezaugarriak aztertzen ditu, beronen poemen analisi literarioaren bidez. Halaber, Juan Kruz Igerabidek argitaratutako haur-poesia eta Espainiako haur-poesiaren ezaugarriak aurrez aurre jarri dira, azterketa konparatiboa eginez. Igerabideren poemen analisiaren emaitzek *haiku* konposizio motarako joera indartsua erakusten dute; izadiaren gaia, laburtasuna, irudi poetikoak eta semantikari eragiten dioten figura estilistikoak gailenduz. Bestalde, Espainiako lirikaren eta Juan Kruz Igerabideren haur-poesiaren

alderaketak azaldu digu, Espainiako haur-poesiaren ezaugarriak eta ikerketa honetan zehaztutako Igerabideren haur-poesiaren ezaugarriak elkarren oso antzekoak direla, nahiz eta zenbait alderditan hartatik bereizten den.

**Gako-hitzak:** haur-poesia, Juan Kruz Igerabide, analisi literarioa, azterketa estatistikoa.

La falta de información que existe sobre la poesía infantil es enorme. Mientras que en torno a la narrativa existen numerosos estudios, la poesía infantil presenta un vacío evidente en el ámbito de la crítica y la investigación, y más aún, en la literatura vasca. En este contexto, este artículo analiza las características de la poesía infantil de Juan Kruz Igerabide (Aduna, 1956), principal impulsor de la poesía infantil, a través del análisis literario de sus poemas. Asimismo, se ha realizado un análisis comparativo para examinar si la poesía infantil publicada por Juan Kruz Igerabide se enmarca dentro del marco de la poesía infantil española. Los resultados del análisis de los poemas de Igerabide muestran una fuerte tendencia hacia el *haiku*, prevaleciendo la temática de la naturaleza, la brevedad, las imágenes poéticas y las figuras estilísticas que afectan a la semántica. La comparación de la lírica española con la poesía infantil de Juan Kruz Igerabide revela que, aunque se distingue en algunos aspectos, las características de la poesía infantil española son en general muy similares a las de la poesía infantil de Igerabide detalladas en este estudio.

**Palabras clave:** poesía infantil, Juan Kruz Igerabide, análisis literario, análisis estadístico.

La poésie enfantine souffre d'un manque flagrant d'informations. Alors qu'il existe de nombreuses études sur la narration, la poésie enfantine présente un vide évident dans le domaine de la critique et de la recherche, et plus encore dans celui de la littérature basque. Dans ce contexte, cet article analyse les caractéristiques de la poésie enfantine de Juan Kruz Igerabide (Aduna, 1956), principal promoteur de la poésie enfantine, à travers l'analyse littéraire de ses poèmes. Une analyse comparative a également été réalisée afin de déterminer si la poésie enfantine publiée par Juan Kruz Igerabide s'inscrit dans le cadre de la poésie enfantine espagnole. Les résultats de l'analyse des poèmes d'Igerabide montrent une forte tendance au *haïku*, avec les thèmes dominants de la nature, de la brièveté, des images poétiques et des figures de style affectant la sémantique. La comparaison entre la poésie lyrique espagnole et la poésie enfantine de Juan Kruz Igerabide révèle que, bien qu'elles diffèrent par certains aspects, les caractéristiques de la poésie enfantine espagnole sont très proches de celles de la poésie enfantine d'Igerabide décrite dans cette étude.

**Mots-clés :** poésie enfantine, Juan Kruz Igerabide, analyse littéraire, analyse statistique.

There is an enormous lack of information on children's poetry. While there are numerous studies on narrative, children's poetry presents a clear void in the field of criticism and research, and even more so in Basque literature. In this context, this article analyses the characteristics of the children's poetry of Juan Kruz Igerabide (Aduna, 1956), the main promoter of children's poetry, through the literary analysis of his poems. A comparative analysis has also been carried out to examine whether the children's poetry published by Juan Kruz Igerabide falls within the framework of Spanish children's poetry. The results of the analysis of Igerabide's poems show a strong tendency towards haiku, with the prevailing themes of nature, brevity, poetic images and stylistic figures affecting semantics. The comparison of Spanish lyric poetry with the children's poetry of Juan Kruz Igerabide reveals that, although it differs in some aspects, the characteristics of Spanish children's poetry are very similar to those of Igerabide's children's poetry detailed in this study.

**Keywords:** children's poetry, Juan Kruz Igerabide, literary analysis, statistical analysis.

CALVO, Oihane (2025). «The children's poetry of Juan Kruz Igerabide (1992-2005): thematic, metrical and stylistic analysis of the poems», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 70 (1): 83-125.

1. Sarrera
2. Marko teorikoa
  - 2.1 Haur-poesiaren ezaugarri nagusiak eta joerak
  - 2.2 Euskal haur-poesia
  - 2.3 Juan Kruz Igerabide (Aduna, 1956)
3. Metodologia
  - 3.1 Helburuak
  - 3.2 Corpusaren aukeraketa
  - 3.3 Prozedura eta analisi-eredua
4. Emaitzak
  - 4.1 Juan Kruz Igerabideren haur-poesiaren (1992-2005) ezaugarritzea
    - 4.1.1 Tematika: gaiak
    - 4.1.2 Iruditeria
    - 4.1.3 Metrika
    - 4.1.4 Estilistika
  - 4.2 Espainiako haur-poesiaren (1981-2010) eta Juan Kruz Igerabideren haur-poesiaren (1992-2005) konparaketa
5. Ondorioak

Bibliografia

Eranskinak

## 1. Sarrera

Euskal Haur eta Gazte Literaturan poesia genero minoritarioa izan da beti, narratiba nagusi den sistema literarioan. Izan ere, XX. mende amaieran, Juan Kruz Igerabidek *Begi-niniaren poemak* (1992) liburua argitara eman zuenera arte, poesiaren generoak ez zuen euskal Haur eta Gazte Literatura modernoa ukitu (Etxaniz 1996). Dena den, azken urteotan haur-poesiak gero eta eskaintza zabalagoa du, eta nahiko egonkor eta emankor eusten dio merkatuari.

Hala ere, haur-poesiaren generoaren inguruan dagoen informaziorik eza nabarmena da. Narratibari buruzko ikerketa eta lanak ugari dira, baina haur-poesiak hutsune handiak ditu kritikaren eta ikerketaren esparruan. Espainian, badira haur-poesiak izandako bilakaeraren irudia osatzen duten ikerketa gutxi batzuk (Sotomayor 2002; Díaz Armas 2009; García Padrino 2018; Muñoz Navarro 2022), baina euskal literaturan, ordea, liburu zehatz batzuen iruzkinak baino ez dira.

Hartara, artikulu honen helburua, euskal haur-poesiaren inguruan dagoen hutsune akademiko hori betetzen eta hornitzen joateko ahalegina da. Horretarako, arestian aipatutako eta haur-poesiaren bultzatzaile nagusia dugun Juan Kruz Igerabideren obren aukeraketa egin dugu, eta lagin horren ezaugarriak aztertu. Azterketa hori gauzatzeko Olga Muñoz Navarro (2022) espainiar ikertzaileak proposatutako poemen analisi-eredua erabili dugu. Horrez gain, eta Muñoz Navarroren (2022) lana bera abiapuntutzat hartuta, Juan Kruz Igerabidek argitaratutako haur-poesia Espainiako haur-poesiaren ezaugarriekin «elkarrizketan» jarri da, bien arteko azterketa konparatiboa eginez.

## 2. Marko teorikoa

### 2.1 Haur-poesiaren ezaugarri nagusiak eta joerak

Poesia, hizkuntzak hartzen duen formarik biziena eta emozionalena da (López Valero *et al.* 2010). Era berean, Euskaltzaindiaren *Literatura Terminoen Hiz-*

tegia (LTH) (2008, 1. esanahia) gogora ekarriz gero, «mintzairaren antzea, zerbait adierazteko hitz neurtuen, erritmoaren eta hoskidetasunaren harmoniaz eta irudiez baliatzen dena» esanez definiturik datorrela poesia, irakurriko dugu.

Haur-poesiaren definizio bakar batera hurbiltzekotan, hainbat idazle edo autoreren aipuak kontuan hartu beharko lirateke... Guztiotan zehatzenetarikoa bat O. Muñoz Navarrena (2022) da; horren ustean, haur-poesia haurrentzat espresuki idatzitako poesia da; publiko jakin bati zuzenduta dagoena, zehazki, bere garapen-prozesuaren etapa jakin batean dagoen irakurle bati zuzenduta dagoena, alegia. Horrekin bat eginez, Miquel Desclotek (2003: 43) ere haur-poesia «haurrek erabiltzeko bertsozko literatura genero» gisa definitzen du. Bestetik, Juan Kruz Igerabidek objektibotasun kutsutik aldentzen den adiera sakonago baten alde egiten du, haur-poesia hitzaren jolasarekin alderatuz. Bere hitzetan:

... hitzaren jolasa da poesiaren atea. Jolasarekin batera, beste ezaugarri batzuk ere agertuko dira: sentimenduen adieraztea, bizitzaren misterioa bilatzea, munduaren ikuspegi bat era berezian azaltzea, hizkuntzari adierazpen ezohikoak eta ezkutuak ateraraztea, eta, hortik, objektu estetiko bat eraikitzea. Hitz gutxitan laburbiltzeko, haur poesia ibilbide bat da, hitzarekin jolas egitetik objektu estetikoak erai-ki eta gozatzea daraman ibilbidea. (2003a: 64)

Hala ere, haur-poesia haurren ezaugarriari egokitutako poesia izan arren, horrek ez du esan nahi, hizkuntza-mugekin adierazi behar denik, ezta testu inozo edo gatzgabeegiak erabiliz irakurleak gutxietsi behar direnik ere (Reis 2006; Muñoz Navarro 2022). Hau da, haur-poesiak ez du umekieretan erori behar, «hala hizkera melengaz erabiliz, nola edukietan tontakeriatatik hurbil dauden gauzak esanez» (Igerabide 2009b: 41). Horren harira, Pedro C. Cerrilloren aipamena gogoan izatekoa da:

Poesía infantil no es la poesía hecha con diminutivos, o la poesía que habla de animalitos, o la poesía escrita en un lenguaje ñoño o edulcorado, o la poesía insultantemente fácil y superficial, que hable de unos temas y evite hablar de otros. La poesía infantil es, sencillamente, poesía escrita para niños, es decir, para unos lectores que todavía no han terminado de crecer ni de desarrollarse, física e intelectualmente. (2004: 25)



Beraz, haur-poesiak poesia samur eta xumea izan behar du, baina era berean estetikoki sendoa. Izan ere, haurrak, adin txikikoa izanagatik, ez du kalitate txikiagoko literatura merezi. Aitzitik, haur-poesiak, beste edozein genero bezalakoa izanda, besteen duintasun eta zehaztasun artistiko bera-rekin, haurraren sentsibilitatea, hizkuntza, ulermena eta esperientziak aberasten lagundu behar du (Muñoz Navarro 2022).

Espainiako haur-poesiari erreparatuz gero, eleberriaren aldean, haurrentzako literatura poetiko gutxi dago, beste herrialde batzuetan ez bezala. Izan ere, «Europa iparraldeko poetek oso gauza naturalizat dute noizean behin hurrei zuzentzea» (Desclot 2003: 41). Espainian, aldiz, haurrentzako poemak idazten dituzten idazleen kopurua zein haur-poesiako obren kopurua, urriagoa da, eta haren bilakaera ikusita, 90eko hamarkadara arte ez zen haur-poesiaren gorakadarik izan.

90eko hamarkadan, eta bereziki 2000. urtetik aurrera, hots, XXI. mendearen hasieran, gertatu zen haur-poesiaren hazkunde nabarmenena, askoz obra eta bilduma gehiago agertu baitziren. Haur-poesiak indar handiagoa hartu zuen eta haurrentzako obra poetikoekiko arreta berritu egin zen; batez ere, katalanaren, euskararen eta galizieraren esparruetan. Gainera, haur-poesiaren gorakada horretan, genero hori babesteko orduan, Estatuko berriazko literatura sariak oso eragile garrantzitsuak izan ziren; hala nola Premio Internacional de Poesía para Niños Ciudad de Orihuela, Alacante-ko Udalaren eskutik, edo Premio de Poesía Infantil Verso en Nubes, Leon-ko Udalak Haur Literaturaren arloan deitua. Horrez gain, haur-poesiako liburu batzuk ospe handiko sarietan irabazle suertatu ziren; besteak beste, Miquel Descloten *¡Més música, Mestre!* (2001) liburua, 2002ko Espainiako Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionala eta urte horretako Haur Literaturako Lazarillo Saria ere irabazi zituena. Handik gaur egunera arte, haur-poesiako obra dezente argitaratu dira, generoa gutxinaka-gutxinaka bere lekua hartzen ari baita literaturaren sistema barruan, baina oraindik ere, narratibarekin alderatuz, ekoizpen oso urria du (Muñoz Navarro 2022).

Hortaz, nahiz eta eskasa izan, Espainian haur-poesia badela ikusita, ondorengo lerroetan horren ezaugarriak bildu ditugu, laburki (Bornemann 1980; Cervera 1992; Kortazar 2000; Cerrillo eta Sánchez 2006; Llamazares

2009; Cerrillo eta Luján 2010; López Valero *et al.* 2010; Sáiz Ripoll 2012; Muñoz Navarro 2022):

1. Haur-poesian jorratzen diren gai nagusiak izadia (animaliak, landareak, ibaiak...) eta eguneroko esperientziak dira.
2. Poema gehienek erritmo zein errima propioa eta erregularra dute —hau da, musikalitatea—, irakurmena eta memorizazioa errazteko bidean.
3. Poemetan memoriari lagungarri zaizkion ahozkotasanaren elementuak ageri dira; hala nola errepikapena, paralelismoa eta X/X/Y formula.
4. Baliabide estilistikoek erabilpena oso ohikoa da; batez ere, pertsonifikazioa, metafora, aliterazioa eta onomatopeia.
5. Erantzun emozionala bilatzen da bereziki.
6. Poemak laburrak eta sintetikoak izaten dira: konposizio motzak eta arte xeheko bertso-lerroak.
7. Errima arautuak erabiltzen dituzten egitura estrofikoak nabarmentzen dira: lauko txikia, biko errimatua, koplak, erromantzea, bosteko txikia...
8. Xede ludikoa duten poemak gailentzen dira: hitz-jokoak, *nonsense*, absurdoa eta umorea.

XX. eta XXI. mendeetan, Espainiako argitalpen-sistemaren barruan haurrei eskainitako poesiak duen presentziari dagokionez, badira zenbait ikerketa, baina ez asko. Berrikienak Victoria Sotomayor (2002), Jesús Díaz Armas (2009), Jaime García Padrino (2018) eta lehen aipatutako Olga Muñoz Navarro (2022) autoreenak dira. Horiexetan oinarri hartuta, Estatuko haur-poesiak azken urteotan izandako bilakaeraren xehetasunak bil ditzakegu.

## 2.2 Euskal haur-poesia

Espainian bezala, Euskal Herriko Haur eta Gazte Literaturan ere poesia genero minoritarioa dugu narratiba nagusi den sorkuntza-sistemaren bar-

nean. Honako egoera hau ez da berria; izan ere, HGLren historia laburrari begiratu bat eginez gero, behin eta berriro errepikatzen den joera dela konaturatuko gara.

XX. mendera arte haurrek eta gazteek ia-ia ez zuten poesia ezagutzen. Jules Moulier apaiza, *Oxobi* ezizenez ere ezaguna, izan daiteke haur-poesiaren aitzindarietako bat, *Haur-elhe haurrentzat* (1944) lanarekin. Hamazortzi poemaz osaturiko liburu horretan, haurrei irakaspenak emateko nahia argi eta garbi ikusten da, alegien ezaugarri asko partekatzen dituzten konposizio lirikoak ageri baitira, balio hezitzaile eta moralizatzaile nabarmendunak. Ondoren, beste bi lan etorri ziren: Marijane Minaberri idazle baxenabartarraren *Xoria kantari* (1965) haur-poesia bilduma, eta Gipuzkoako Nemesio Etxanizen *Lur berri billa* (1967) (Etxaniz 1996; López Gaseni eta Etxaniz 2009).

Geroztik, 70eko hamarkadan, argitalpen gutxi batzuk merkaturatu ziren, gehienak ikasleek eskoletan egindakoak. Hurrengo hamarkadan, 80koan, ez zen haur-poesiako libururik argitaratu, folkloreaken sustraietatik edaten zuten antologia gutxi batzuk izan ezik; esaterako, Xabier Etxanizen *Haur folkloreaken bilduma* (1986) eta Anjel Lertxundiren Maria Goikoa saila (1985-86) (López Gaseni eta Etxaniz 2009; Etxaniz 2011).

90eko hamarkadara iritsita, XX. mende amaieran, euskal haur-poesiak distira- eta berrikuntza-garaia bizi izan zuen, erabat indartuz, baita prestigioz jantziz ere (López Gaseni eta Etxaniz 2009; Olaziregi 2009). Horrela, poesia-liburuen hazkunde garrantzitsua gertatu zen, bai kuantitatiboki, bai kualitatiboki. Juan Kruz Igerabide izan zen aldaketa nabarmen horren eragile nagusia, Haur eta Gazte literaturan iraultza txiki bat gertarazi baitzuen *Begi-niniaren poemak* (1992) liburua argitara eman zuenean (Etxaniz 1996; Kortazar 2002; López Gaseni eta Etxaniz 2009; Olaziregi 2009; Billelabeitia 2011; Etxaniz 2011). Izan ere, Xabier Etxanizen hitzetan (1996: 429), huraxe izan zen «poesiak, euskal letretan tradizionik luzeena eta zabalena duen generoak, lehendabiziko aldiz ukitzen zuen euskal haur eta gazte literatura modernoak». Testuinguru horretan, *haiku* konposizio japoniarren ezaugarriak eta naturarekiko ikusmeneko sentsibilitatea bildu zituen Igerabideren poema-bilduma hori, erreferente bihurtu zen ondoren etorri ziren beste idazle askorentzat. Juan Kruz Igerabide berak ere euskal literaturari eginda-

ko ekarpen handiena haurrentzako poesia lirikoaren argitalpena izan dela aitortu du behin baino gehiagotan:

Nik uste dut literaturan ekarpen berezirik egin izan badut, haur poesian izan dela. Ipuingintza idazle askok landu izan du, baina haur poesia inork egiten ez zuen garaian hasi nintzen idazten. Inork ez zuen sinisten haur poesian garai hartan, nik ez nuen ahalegin berezirik jarri horretan; denetan aritu naiz ahalik eta ongien, baina agian hor tokatu zait nabarmentzea. (2002a: § 6)

Juan Kruz Igerabideren obra erreferentziagune izaki, XX. mende amaierako azken hamarkadan, beste hainbat idazle murgildu ziren haur-poesian; horien artean, Yolanda Arrieta, Lutxo Egia, Karlos Linazasoro, Antton Kazabon, Pello Añorga, Joxantonio Ormazabal eta Jabi Santa Cruz; eta milurteko berria ere, ugaritasun horretan, «aurreko joeren jarraipenaren lekuko izaten ari da» (López Gaseni; Etxaniz 2009: 27).

Hala, XXI. mendeko lehenengo hamarkadetan, Juan Kruz Igerabidek haur-poesia idazten jarraitzen du eta liburu-sorta polita argitaratua du: *Hosto gorri, hosto berde* (2002b), *Munduko ibaien poemak* (2004), *Gorputz osorako poemak* (2005), *Hirurogeita lau kanta eta olerki umeentzat* (2012), *Ur: euriaren liburua* (2014) eta 2018an, Espainiako Haur eta Gazte Literaturaren Sari Nazionala jaso duen *Abezedario titirijario (letren txotxongiloa)* (2017a), besteak beste.

Badira beste poeta batzuk ere beren lehen poesia-lanak argitaratu dituztenak: Jon Suarez eta *Ilbetea dilindan* (2002); Xabier Olaso eta *Pupuan trapua* (2004); Ana Urkiza eta *Nire hiriko poemak* (2006), Rubén Ruiz eta *Se-kretuak belarrira* (2007) eta Miren Agur Meabe eta *Mila magnolia lore* (2010) —prosa eta poesia konbinatzen ditu erdiz erdi, IBBYren 2012ko Ohorezko Zerrendan ageri da—. Bestalde, hiru antologia ere aipatzekoak dira. Alde batetik, hainbat egileren poema argitaratugabeak jasotzen dituen *Zaldiko-maldikoan* (2003) eta *Txori kantariak poeta hegalariaik* (2010), eta bestetik, Miren Billelabeitiak eta Jon Kortazarrek osatutako *Haurrentzako euskal poesiaren antologia* (2004), aurretik argitaratutako poeten lanak barne hartzen dituen (López Gaseni; Etxaniz 2009).

Azken urteotan, lehen aipatutako haur-poesiaren berpizte horrek bizirik dirauela esan daiteke; batez ere, idazleen eta ilustratzaileen arteko elkarlana

askoz oparoagoa delako. Horren isla da argia ikusitako obren kopurua; hala nola Leire Bilbao eta Maite Mutuberriaren (ilustr.) *Xomorropoemak eta beste piztia batzuk* (2016), *Piztipoemak eta beste xomorro batzuk* (2016) eta 2022an Euskadi Saria lortu zuen *Barruko hotsak eta beste soinu txiki batzuk* (2021) lana; Iñigo Astiz Martínez eta Maite Mutuberriaren (ilustr.) *Joemak eta polasak* (2019) eta Yolanda Arrieta eta Maite Rosenderen (ilustr.) *Kax-Kax!* (2022). Gauzak horrela, urteetan bazterrekoa eta gutxi argitaratua izan den generoak, aurreko hamarkadetakoko egoerarekin alderatuz gero, gero eta eskaintza zabalagoa du.

Euskal haur-poesiaren inguruko ikerketaren egoera ere ez da gaztelaniazkoa baino askoz hobea; alderantziz, euskal haur-lirika aztertzen duten ikerketak gaztelaniazkoak baino bakanagoak dira. *Behinola* aldizkariko artikulu batzuek (López Gaseni eta Etxaniz 2009; Igerabide 2009b) haur-poesiaren bilakaera laburraren gainbegirada egina dute, eta beste autore batzuek (Olaziregi 2009; Billelabeitia 2011; Kortazar Billelabeitia eta Kortazar 2021), hainbat poema-libururen iruzkinak egin dituzte. Dena den, euskal haur-poesia ez da zehatz eta oroz aztertu, hutsune handiak ditu ikerketaren esparruan.

### 2.3 Juan Kruz Igerabide (Aduna, 1956)

Juan Kruz Igerabide gipuzkoarra euskal literaturan gailendu den idazlerik entzutetsuen eta laudatuenetariko bat da, haur-poesia modernizatzen eta eguneratzen egindako ekarpen ukaezinak zor dizkiogulako (Olaziregi 2009). Helduentzako literaturan ere murgildu den arren, Haur eta Gazte Literaturan egin du Igerabidek lanik handiena, batez ere 90eko hamarkadatik aurrera. Gazteentzako nobelak (*Helena eta arrastiria*, 1999c; *Hamabi galdera pianoari*, 1999b; *Begi argi horiek*, 2000; *Hiru ahizpa*, 2003c; *Haizearen tunela*, 2009a; *Ez lemaio*. Arrasateren erreketak, 2017b; *Arrastoa*, 2020) eta nerabeentzako poesiak (*Kartapazioko poemak*, 1998b; *Maite poemak hasiberrientzat*, 2016) argitaratzeaz gain, hainbat literatura egokitzapen egin ditu gazteentzat; barbarako, Homeroren *Ulises* (2007), eta baita zenbait lanen itzulpenak ere, Hiner Saleemen *El fusil de mi padre* (*Nire aitaren fusila*, 2004) eta

Gustavo Marín Garzoren *Tres cuentos de hadas* (Maitagarrien hiru ipuin, 2005), besteak beste (Olaziregi 2009).

Haur txikiei zuzendutako literaturan ere maisutasuna erakutsi du. Narratibari dagokionez, nabarmentzekoa da hogeii ipuinetik gora idatzi dituela, tartean Grigor protagonista dutenak (*Gauetz zoo batean*, 1994; *Denboraldi bat ospitalean*, 1995; *Oporraldi bat baserrian*, 1996). 1999an Euskadi Haur eta Gazte Literatura Saria irabazi zuen *Jonas eta hozkailu beldurtia* (1998a) lanagatik, bertako pertsonaia ondoren argitaratutako ipuin askoren protagonista bihurtuz. Hala ere, Igerabideren ekarpenik handiena haur-poesiaren generoan egin du, ezbairik gabe, bera izan baitzen Haur eta Gazte Literaturari zuztarretik biralketa sendoa eman zion idazlea *Begi-niniaren poemak* (1992) liburua argitara eman zuenean, euskal Haur eta Gazte Literatura modernoan poesia txertatuz. Geroztik, beste hainbat poema-bilduma argitaratu eman ditu: *Egun osorako poemak eta beste* (1993b), *Botoi bat bezala* (1999a), *Hosto gorri, hosto berde* (2002b), *Munduko ibaien poemak* (2004), *Gorputz osorako poemak* (2005), *Hirurogeita lau kanta eta olerki umeentzat* (2012), etab. Testuinguru honetan, Igerabidek berak haur-poesiaz idatzitako saiakeraren aipamena egin beharra dago: *Bularretik mintzora: Haurra, ahozkotasuna eta literatura* (1993a); horretan aztarren eder argiak ematen baititu, egin nahi izan duen eta egin duen poesiaren arlo teorikoak ulertzeko (Kortazar Billelabeitia; Kortazar 2021).

### 3. Metodologia

#### 3.1 Helburuak

Haur-poesiak kritikaren eta ikerketaren esparruan hutsune handiak dituela ikusita, euskal haur-poesian sakontzeko premia hauteman da, Xabier Etxanizek (1996) aipatutako generoaren inguruko informazio eza gainditzeko. Euskal haur-poesia, bere txikian, oso zabala denez, poema-sorta muga-tzea erabaki dugu. Zehazki, haur-poesiaren bultzatzaile nagusia izan den Juan Kruz Igerabideren obrak soilik kontuan hartuko dira, horiek izan baitziren lehenak gure Haur eta Gazte Literatura modernoan.

Bestalde, haur-poesiaren hazkunde nabarmenena, bai Espainiako lirikan, bai euskal literaturan, 90eko hamarkadan gertatu zela ikusita, generoaren berpizte horretan gipuzkoarraren haur-poesiaren ezaugarriek Espainiakoaren ezaugarriekin bat egiten ote duten arakatu nahi dugu. Horretarako, arestian esanda bezala, Olga Muñoz Navarrok *Poesía infantil en España en las últimas décadas del siglo XX y comienzos del XXI: Análisis filológico y literario de la poesía infantil en España (1981-2010)* izeneko doktorego-tesia (2022) hartuko dugu abiapuntu gisa, non izenburuan mugatutako garaiko zenbait egileren hainbat haur-poema aztertu dituen, horien ezaugarri orokorrak definituz.

Modu honetan, ezarri ditugun helburuak hurrengo hauek dira:

1. Juan Kruz Igerabideren haur-poesiaren ezaugarriak zehaztea.
2. Juan Kruz Igerabideren haur-poesia Muñoz Navarrok (2022) deskribatutako Espainiako haur-poesiaren (1981-2010) marko eta ezaugarrien barruan sartzen ote den jakitea.

### 3.2 Corpusaren aukeraketa

Ikerketa honen analisi-corpusa osatzen duten haur-poesiako obren multzoa, jarraian zerrendatu ditugun irizpideei erreparatuz hornitu da:

- a) Autorea: aukeratutako lan guztien egilea Juan Kruz Igerabide da, euskal haur-poesiaren bultzatzaile eta aitzindari denez gero.
- b) Denbora mugaketa: 1981. urtetik 2010.era arteko obrak hautu dira, Juan Kruz Igerabideren haur-poesiaren ezaugarriak Muñoz Navarrok (2022) definitutakoekin alderatzea posible izan dadin.
- c) Hartzailearen adina: corpusa 6-12 urte bitarteko adin-tartera mugatu da; hau da, Lehen Hezkuntzako etapako ikasleen adinera.

Horrela, hautapen-irizpideak aplikatu ondoren, Haur eta Gazte Literaturako haur-poesiako 6 lan aurkitu dira, 1981etik 2010era bitarteko denbora-tartean —lehendabizikoa 1992koa eta azkena 2005ekoa— Juan Kruz Igerabide idazleak argitaratuak eta 6-12 urte bitarteko haurrei zuzenduak:

*Begi-niniaren poemak* (1992), *Egun osorako poemak eta beste* (1993b), *Botoi bat bezala* (1999a), *Hosto gorri, hosto berde* (2002b), *Munduko ibaien poemak* (2004) eta *Gorputz osorako poemak* (2005).

### 3.3 Prozedura eta analisi-eredua

Juan Kruz Igerabideren haur-poesiako 6 obra aztertu dira —guztira 392 poema— analisi literarioaren bitartez. Poemen azterketa egiteko, Olga Muñoz Navarrok (2022) proposatutako eta baliozkotutako ereduari jarraitu zaio. Eredu horrek bi atal nagusitan banandutako hurrengo eskema hau aurkezten du (ikus 1. irudia). Alde batetik, poemen gai ei erreparatzen die, eta, bestetik, haien forma arakutzen du. Bigarren atal horren barruan —forma— bi azpiatal bereizten ditu: metrika (lerroak, errima eta ahapaldiak) eta estilistika (figura erretorikoak: fonetikari eta morfologiari eragiten dietenak, sintaxiarekin zerikusia dutenak eta semantikan eragina dutenak).

#### 1. irudia. Muñoz Navarroken (2022) analisi-eredua

4.4. Análisis de los contenidos: el tema.....	59
4.5. Análisis de la forma.....	101
4.5.1. La métrica.....	102
a) Tipo de versos.....	105
b) La rima.....	130
c) La estrofa.....	153
4.5.2. Los recursos de estilo.....	168
a) Figuras que afectan al nivel fónico y morfológico.....	170
b) Figuras que afectan al nivel sintáctico.....	181
c) Figuras que afectan al nivel semántico.....	206

*Iturria:* O. Muñoz Navarroken *Poesía infantil en España en las últimas décadas del siglo XX y comienzos del XXI: Análisis filológico y literario de la poesía infantil en España (1981-2010)*, 2022.

Poema guztien datuak bilduta, Excel informatika-tresna erabiliz kontabilizatu eta zenbatu dira, ondoren emaitzen deskribapen estatistiko zehatza egiteko asmoz.




Ondoren, literaturaren ikuspegitik, metodologia konparatiboaz baliatu gara, Muñoz Navarrok (2022) definitutako Espainiako haur-poesiaren (1981-2010) ezaugarriak eta Juan Kruz Igerabideren haur-poesiaren (1992-2005) ezaugarriak alderatzeko.

## 4. Emaitzak

### 4.1 Juan Kruz Igerabideren haur-poesiaren (1992-2005) ezaugarritzea

#### 4.1.1 Tematika: gaiak



Izadiari buruzko poemak dira nagusi, aztertutako poema guztien erdiak baino gehiagok (% 58,9) baitu hizpide naturarekin edo haren elementuekin lotutako gairen bat: **animaliak, haizea, itsasoa, ura...** Izan ere, izadia da, hitzarekin batera, poema gehienek euskarria; izadiaren begiespena erabiltzen da errealitatea, egunerokotasuna, bizitza adierazteko eta islatzeko modu gisa. Hala ere, izadiaren gai orokorraren barnean, badago gailentzen den azpigai bat: **landareak**. Ikertu ditugun konposizio guztien bostena (% 22,96), gutxi gorabehera, landareez mintzo da. Zuhaitz, hosto zein lore mota askotarikoek hartzen dute protagonismoa hainbat poematan, horien bitartez bizitzako gauza txiki, simple, apal eta umilen garrantzia erakusteko.

Hona hemen adibide bat; hostoen erortzea aipatzen da, udazkenaren xarma eta eguraldi euritsua gogora ekarriz:

*Orbelarena*  
 Udazkenero bezala, hostoak  
 elkarren gainean,  
 euriak minik har ez dezan  
 lur bigunean.  
 (1992: 23)

**Gorputzak** ere, aurreko gaiarekin alderatuz presentzia askoz txikiagoa duen arren (% 11,7), bere lekua hartuta dauka poemek jorratzen dituzten gaien artean, ziurrenik aztertutako obretako bat, *Gorputz osorako poemak* (2005), alegia, giza gorputzeko atalei guztiz eskainia dagoelako. Horrela, hurrengo adibideetan ikusten den bezala, gorputzean bistan-bistan dauden atalak ez ezik, hezurrek eta muskuluek estalita dauden bestelakoak ere ageri dira Igerabideren konposizioetan:

*Bekainak*  
 Bi zubi ilun,  
 bi putzu argitsu.  
  
 Bi ortzadar beltz,  
 bi zelai alaitu.  
  
 Bi kopetilun,  
 bi zeru euritsu.  
 (2005: 16)

*Giltzurrunak*  
 Giltzurrunak baba dirudi,  
 baina izan liteke zaldia  
 edo bestela hipopotamoa  
 eta zergatik ez pinguinoa  
 edo itsas otso potoloa...  
 baina batik bat baba dirudi.  
 Edo beharbada sorgin bat da  
 edabeak egiten ari dena  
 eltze handietan, saltsa-maltsan,  
 nire gorputzeko labeetan.  
 (2005: 90)

Bestalde, gorputzaz aritzen diren poemen ia beste hainbeste dira **bizitzaren inguruko galderak eta hausnarketak** azaltzen dituzten poemak (% 10,2). Jaiotzatik hasi, haurtzaroaren koordinatuetatik pasatuz, ondoren existentziaz, bizi-zalantzaz, ziurgabetasunaz arituz, eta bukaeran, heriotzaz jardunez. Bestela esanda, bizitzaren joan etengabea eta bizitzaren iragankortasuna ageri da solasgai gisa askotan. Adibidez, haur baten jaiotza aipatzen

da lehenengo poeman, denboraren jario geldiezina bigarreanean zein hirugarrenean, eta heriotzaren ataria azkenengoan, bizitzari eutsi nahian.

<i>Botoi bat bezala</i>	<i>Aitonak</i>
Botoi-zulotik botoia bezala	Irratia piztu:
jaio nintzen negarrez:	Denboraren hotsa
Ilargia irribarrez.	itzali nahi du.
(1999a: 8)	(1999a: 68)
—	—
Badoaz orriak:	Hostoa larri
horiekin bizitza	ur-jauzian, ertzari
eta idatziak.	gogor heldurik.
(2002b: 68)	(2002b: 60)

Maiztasun baxuagoan bada ere (% 7,9), hautatutako poema-sortan, **sentipenak eta emozioak** adierazten dituzten poemak ere badira: babesak, bakardadea, beldurra, maitasuna, mina, tristura eta abar islatzen dituztenak.

Esaterako, jarraian ezarri ditugun honako hauek: ama baten maitasun absolutua ageri da lehenengoan, eta lagunik ez izateak sarritan dakarren bakardadea, bigarreanean:

<i>Arratsaldeko ordu bata</i>	<i>Larrosa bakartia</i>
Bi txori ttiki bazkaltzera:	Larrosa bakar bat ireki da:
bata da Pir; bestea, berriz, Por.	Lagunen arrastorik ez.
Por jartzen da hemen, eta Pir jartzen da hor:	(1992: 24)
ama bazkariarekin dator.	
Bi txori ttiki zopa jatera:	
batak pirpir, besteak porpor.	
Ama, biei begira, maitakor.	
(1993b: 21)	

Azkenik, badaude bestelako gai batzuk jorratzen dituzten poemak ere (% 11,3), baina askoz gutxiagotan azaltzen dira mintzagai moduan; hala nola gaua (% 1,28), lana (% 0,51), misterioa (% 0,26), sorginak (% 0,26) eta zarata (% 0,26).

#### 4.1.2 *Iruditeria*

Igerabideren haur-poesiaren ezaugarririk bereizgarriena irudi poetikoak dira. Irudiz josirik daude aztertutako poema gehienak. Ez dago sinbolorik, ez dago kontzepturik; irudiak irudien gainean daude. Irudiaren kontzeptualizazioari dagokionez, Euskaltzaindiaren *Literatura Terminoen Hiztegiari* (LTH) (2008) honela definitua da «irudia» (1. esangura):

Gizakiak irudien bitartez zentzumenei atxikiriko errealtatea bereganatzen du. Irudia egitate objektiboaren errepresentazio da, emozioz eta sentimenez beteriko egitatea, nahiz askotan emozioen zergatia eta iturria ongi ez ezagutu. Irudi batean, batetik, egitatearen antzekotasun objektiboa ematen da, eta, bestetik, imajinaren kate subjektiboa.

RAEk ere (Real Academia Española) irudiaren honako definizio hau dakar *Diccionario de la Lengua Españolan*: «Recreación de la realidad a través de elementos imaginarios fundados en una intuición o visión del artista que debe ser descifrada» (IMAGEN, 4. definizioa).

Beraz, arestian aurkeztutako bi definiziook kontuan hartuta, esan daiteke, irudi poetikoa ekintza baten bistaratzeak edo bisualizazioak, zerbait ikus-teak sorrazten duen iradokizunean oinarritzen dela. Hots, egileak errealtatearen deskribapena edo aipamena (objektiboa) egiten du eta aipamen horrek komunikatzen eta ezkututzen duen mezua, esanahia zein zentzua (subjektiboa) irakurri, deszifratu, argitu, interpretatu beharko du irakurleak. Horixe da, hain zuzen ere, Igerabidek poemetan etengabe egiten duena: berak bere errealtatea, bere ikuskizuna aurkezten du eta horrek irakurlearen imajinazioa martxan jartzen du, beronen esku utzita ikuskizun horren esanahia bereganatzea. Horrela, poemek irudiak, egoerak, sentipenak erakusten dituzte, eta horiek sententzioak esnarazten dituzte irakurlearen baitan. Hona hemen adibide argi-argi bat (lehenago ere gure idatzian erabilia):

*Botoi bat bezala*  
 Botoi-zulotik botoia bezala  
 jaio nintzen negarrez:  
 Ilargia irribarrez.  
 (1999a: 8)

Egileak bere ikuskizun bikoitza adierazi du: botoia botoi-zulotik bezala irteten da, eta ilargia irribarretsu dago, eta irakurleak ikuskizun hori berea egin behar du, esanahia eman behar dio; alegia, botoia botoi-zulotik irteten den bezala, haurra amaren sabeletik irten dela eta bizitza berri baten aurrean ilargia pozik dagoela ikusi behar du.

Bestalde, aipatu beharra dago, Carlos Bousoñok (1981) bi irudi mota bereizi dituela: irudi tradizionala eta irudi modernoa. Irudi tradizionalak arrazoimenak hautematen duen antzekotasun objektibo batean oinarri hartzen du. Irudi modernoa, aldiz, irudi askoz irrazionalagoa da, intrasubjektiboa, ez baitago antzekotasun logikorik, antzekotasun emozionala baizik. Zehatzago esanda, irudiak ezartzen duen antzekotasuna errealitateetik hurbilago agertzen da irudi tradizionallean, irudi modernoan baino. Irudi modernoan, jakina, errealitatearekiko antzekotasuna ere bada, baina maila askoz ezkutu, urrun eta subjektiboagoan.

Igerabideren haur-poesiak irudi modernoaren erabilpen garbia erakusten du, begien aurrean duen errealitateari buruz egiten dituen aipamenek ez baitute antzekotasun logikorik horien bidez komunikatu nahi dituen esanahiekin. Antzekotasun hori irrazionala da, emozionala, bereziki. Ikus, esaterako, hurrengo poema honen kasua:

*Gorostiarena*  
Gorostiaren pinportak, zein gorriak!  
Are gorriagoak, elurretan eroriak.  
(1992: 45)


Poema laburtxo hori irakurri ondoren, irakurlea elurraren inmentsitateaz jabetzen hasten da, pinporten txikitasunaz. Gogoan hartu baina, elurrak eta pinportek badutela barne-barnean antzekotasun emozionalik, nahiz eta logikoa ez izan, munduarekin eta norbanakoarekin. Norbanakoaren txikitasunaren aldean, munduaren inmentsitatea, mugagabetasuna, handitasuna helarazi nahi izan digu Igerabidek. Horrela, irudi modernoaren bitartez, irakurlearen sentipen-mundua ukitu eta biziartzten du, halako moldez, non, esaten ez denak, esaten denaren adinako garrantzia duen.

### 4.1.3 *Metrika*


Laburtasunak osatzen du, ezbairik gabe, Igerabidek egiten duen poesia-ren kontzeptua. Izan ere, aztertutako poema gehienak laburrak dira, ahapaldi bakarrekoak (% 84,44) eta 3 (% 60,71) edo 4 (% 17,35) lerrokoak, batez ere. Laburtasun hori eskuratzeko zein biziagotzeko bideari jarraikiz, arte xehea gailentzen da nagusiki (% 55,87), arte nagusiarekin alderatuz gero (% 7,65). Hala ere, batzuetan bi arte moten nahasketa erabilia da (% 36,48), arte xeheko lerroak eta arte nagusiko lerroak konbinatuz. Are gehiago, edozein arte motataren barnean ere, argi ikusten da, Igerabidek silaba-kopuru ezberdinez osatutako lerrodun poemak atontzeko duen joera, analizatutako poemen ia % 100ek (% 97,7) anisosilabismoaren metrika irregularra baitute ezaugarri gisa. Hona hemen, adibidetzat, arestian aipatutako ezaugarri nagusi guztiak bilduta dituen poema bat: ahapaldi bakarrekoa, 3 lerrokoa, arte xehean egina eta anisosilabikoa.

*Artista*  
 Ho/dei/ak/ pin/ta/tu/ di/tu 8-  
 nor/bai/tek/ e/rre/kan: 6a  
 Eu/ri/a/ da/tor/ hu/rre/an. 8a  
 (1992: 33)


**2. grafikoa.** Ahapaldi-kopurua




3. grafikoa. Lerro-kopurua



4. grafikoa. Arte mota



## 5. grafikoa. Silabismoa



Bestalde, errimari dagokionez, errima kontsonantea nagusi da (% 48,98), nahiz eta poemaren batek edo bestek, askoz ere maiztasun txikiagoz bada ere, errima asonantea ere (% 8,41) ageri duten. Aipatzekoa da, aztertutako poemen bi bosten, gutxi gorabehera, errimarik gabekoak direla (% 41,84), Igerabidek berak behin baino gehiagotan defendatu duen molde eta forma apurketaren kariaz. Izan ere, bere ustean, haur-literaturan agertu ohi den akatsetako bat erremediorik gabe errima erabili beharra omen da; bestela esanda, formaren alienazioa, hitzekin eginiko jolas neurrigabea; eta hori berori da, hain zuzen ere, poeta esan nahi ez duena esatera bultzatzen duena (Igerabide 2003b). Ikus, adibidez, honako bi poema hauek: lehenengoan, errima kontsonantearen erabilpena egin du; bigarrenak, aldiz, ez du errimarik.

*Errobi*


E/trro/bik/ Bai/o/nan      6a  
 A/tu/trri/re/kin/ bat/ e/gi/te/an    10A  
 be/re/ i/ze/na/ u/ler/tzen/ du.    9-  
 (2004: 103)

–

Hos/to/ mu/tu/a:      5-  
 de/na/ e/san/ nahi/ du/en    7-  
 min/gain/ lu/ze/a.      5-  
 (2002b: 87)



## 6. grafikoa. Errima mota



Azkenik, analizatutako poemarik gehienek egitura estrofiko itxia dute (% 62,5); horien artean, biko errimatua (% 1,02), hiruko handia (% 1,53) eta lauko txikia (% 2,04) ditugu. Dena den, gehien errepikatzen den egitura estrofikoa, besteekin konparatuz askoz ere presentzia handiagoa duelarik, *haikua* da (% 55,87), japoniar bertso molde txikia.

*Haikua*, zen filosofian jatorria duen errimatu gabeko konposizio liriko laburra da, tradizioz bost, zazpi eta bost silabako 3 bertso dituen (5-7-5), eta ahalik eta elementu gutxien erabiliz efekturik handiena lortu nahi duena. Horrela, *haikuak*, hitz gutxitan, poetarentzat aparteko garrantzia duen gertaera baten hautematea deskribatu eta erakusten du, askotan hutsala eta xumea. Edozein elementu, hala nola errekatxo bat, haize-bolada bat, lore bat... inspirazio-iturri bilakatzen da, poetak transmititu nahi duen ideiarekin jatorri zein iturburu (Hernández-Esquivel 2017).

Aurreko paragrafoan azaldutakoak eta *haikuen* ezaugarri bereizgarriak diren laburtasuna, sinpletasuna, zehaztasuna eta intentsitatea, nolakotasun nabarmenak dira Juan Kruz Igerabideren haur-poesian ere. Izan ere, aztertutako bere lirika horretan argi eta garbi sumatzen da ekialdeko tradizioarekiko eta filosofiarekiko erakusten dituen ikusmina eta zaletasuna, *haikua*-ren estetikara jotzen baitu elementu eta gauza txikien bitartez giza bizitzaren inguruko gogoetak egiteko. Adibidez, hurrengo bi poemok, non hosto txiki


eta single baten jabekuntza edo hautematea den gogoetaren eragile: lehenengoak, tabernako ate aurrean dagoen hostoaren bitartez, mozkorraren eguneroko «zalantza» aurkeztu du, tabernan sartu ez sartu, alegia; eta bigarrenak, berriz, haizeak mugitutako orriaren bistaratzea erakutsiz, erbestera-tzearen gaia ekartzen du gogora. Bi *haiku* horien, eta Igerabideren haur-poesiak orokorrean duen laburtasunak, aukera ematen du adierazitako irakurketa sakona egiteko, testu luzearen astuntasunean jausi gabe, edo baliabide ugarien pilaketa artean galdu barik.

—		—	
Ta/ber/na au/rre/an	5-	He/ga/ka/ do/a	5-
hos/to/a /gel/di/-gel/di	7-	o/rriz/ka/ ba/kar/ti/a	7-
sar/tu/, ez/ sar/tu.	5-	er/bes/te/ran/tza.	5-
(2002b: 52)		(2002b: 64)	

Hala ere, askotan Igerabidek ez dio *haiku*aren metrika zehatzari jarraitzen (5-7-5), eta konposizio batzuetan bere eskua aske sentitzen du Japoniako moldearen irudi-teknika labur, zehatz eta iradokitzaile horren barruan, erri-mak gehitzeko eta lerroen silaba-kopuruarekin jolasean aritzeko.

<i>Mattinsaltoak</i>		<i>Zoriona</i>	
Be/lar/ i/zu/tu/ak	6a	Hau/rra/ ba/rre/ka:	5a
di/ra	2-	Ha/ren/ a/ho/tik	5-
ma/ttin/sal/to/ak.	5a	txi/me/le/tak.	4a
(1992: 17)		(1999a: 44)	

7. grafikoa. Egitura estrofikoa



Bukatzeko, *haiku*aren formatik aldentzen diren poemak ere ageri dira aztertutako corpusean, poema asko egitura estrofikorik gabeak baitira (% 37,24). Horrelakoetan, tradizioa, ahozko literaturara jotzen du Igerabidek iturri bila, eta folklореko kantuetatik, jolasetatik eta hitz-jokoetatik gertu dauden poemak sortzen ditu, ahozkotasanaren elementu horiek agerikoak izanik: errima, erritmoa, errepikapenak... Hona hemen zenbait adibide:

*Goizeko ordubata*


Ki/ku/, ki/ku/, kai/ku/a,      7a  
 lo/tan/ da/go/ ka/tu/a.      7a  
 Ki/ku/, ki/ku/, la/pu/rra,      7b  
 lo/tan/ da/go/ txa/ku/rra.      7b  
 Ki/ku/, ki/ku/, i/lar/gi:      7c  
 lo/ dau/de/nen/ zain/da/ri.      7c  
 (1993b: 9)

*Gure sekretuak*

Gu/tu/nak/ e/gin/ di/tu/gu,      8-  
 gu/tu/nak/ e/gin/ e/ta      7a  
 ze/ru/ra/ bi/da/li,      6-  
 ze/ru/ra/ bi/da/li/ e/ta      8a  
 ho/dei/ bi/hur/tu/ di/ra,      7-  
 ho/dei/ bi/hur/tu/ e/ta      7a  
 i/lar/gi/ak/ lei/tu/ko/ di/tu.      9-  
 (1993b: 41)

4.1.4 *Estilistika*

8. grafikoa. Figura estilistikoak



\* Portzentajeok agertutako figura estilistikoen kopuruaren arabera, ez poema-kopuruaren arabera.

Semantikari eragiten dioten figura estilistikoak dira Igerabidek poesian gehien erabiltzen dituen baliabideak (% 63,2\*), baina bereziki metaforak dira, ezkutuko metaforak, hain zuzen, protagonismo handia hartzen dutenak (% 31,11\*). Hala bada, metafora-joko aberatsak baliatzen ditu irudi nahiz lotura fin eta sotilak adierazteko. Ikus, barbarako, hurrengo bi poema hauek:

*Botoi bat bezala*

Botoi-zulotik botoia bezala

jaio nintzen negarrez:

Ilargia irribarrez.

(1999a: 8)

*Bizitza*

Begiak ireki:

Bero eta gorri,

bi eguzki.

(1999a: 10)

Lehenengoan, botoi-zuloaren metafora ezkutua aditzera ematen da. Botoi-zuloa amaren edo emakumearen sexuaren irudia da, eta hortixek sortu da, eta irteten da, buru bat, haurraren burua, botoi bat bezala. Bigarreanean, berriz, emakumearen bularrak islatzen ditu bi eguzkien bidez osaturiko metaforak, haurrak, jaio bezain pronto, ikusten duen lehen gauza amaren titiak direlako.

Pertsonifikazioa ere askotan ageri da (% 23,15\*), elementu eta objektu bizigabeei giza ezaugarri edo trebetasunak esleituz. Batez ere, aztertutako *Hosto gorri, hosto berde* (2002b) obran da nabarmenen, poema guztien protagonista eta horien arteko haria den hostoa behin eta berriz pertsonifikatua baita, berezko ingurugirotik atera eta hirira bidaiaraziz. Modu horretan, kioskoetan egunkariak irakurtzen ari den hosto irakurlea, edo semaforoa berde noiz jarri zain dagoen hostoa, edo tabernako ate aurrean dudatan dagoen hosto mozkorra ikusiko ditugu.

—	—	—
Kioskoetan	Semaforoan	Taberna aurrean
egunkari aurrean	hosto bat gelditu da:	hostoa geldi-geldi
orbela adi.	haizeak bultza.	sartu, ez sartu.
(2002b: 39)	(2002b: 39)	(2002b: 52)

Maila semantikoari eragiten dioten beste figura estilistiko batzuk ere badaude presente Igerabideren haur-poesian, baina askoz ere agerpen ahulagoz; hala nola hitz-jokoak (% 2,41\*), konparazioak (% 2,22\*), kontrajarpenak (% 2,59\*), metonimia (% 1,11\*) eta sinestesia (% 0,55\*).

Azkenik, esana dugun bezala, Igerabide ahozko literaturara ere hurbiltzen da sarritan. Horregatik, bere poemetan ahozkotasunaren elementuak —hau da, memoriaren lagungarri diren oralitatearen elementuak— biltzen dituzten figura estilistikoak gailentzen dira. Alde batetik, sintaxian eragina duten figuren artean (% 30,9\*), errepikapena da alde handiarekin nabarmentzen dena (% 12,04\*), baina paralelismo (% 8,7\*) eta anaforak (% 5,37\*) ere ugari daude. Hona hemen hiru baliabideok barne hartzen dituen poematxo bat:

*Goizeko ordu biak*  
 Ametsetan, ilargiak ikusten du  
 Aralarko erregina.  
 Ametsetan, ilargiak bisitatzen du  
 Aralarko erregina.  
 Ametsetan, ilargiak apaintzen du  
 Aralarko erregina.  
 (1993b: 10)

Bestetik, fonetika eta morfologiarekin zerikusia duten figura estilistikoei dagokienez, askoz ere neurri txikiagoan ageri badira ere (% 5,9\*), gehien erabilitako baliabideak onomatopeiak (% 3,15\*) eta aliterazioak (% 2,04\*) dira, lehentxoago aipatutako poemen ahozkotasan-kutsu hori indartzera datozenak.

*Goizeko ordu bata*

**Kiku, kiku, kaikua,**

lotan dago katua.

**Kiku, kiku, lapurra,**

lotan dago txakurra.

**Kiku, kiku, ilargi:**

lo daudenen zaindari.

(1993b: 9)

*Gaueko bederatzia*

Fernando mandok ostikoz jo du

baloia ilunpetan:

**dunba!** entzuten da zelaietan,

**dunba!** entzuten da mendietan,

Fernando mandoren baloiak

gaua pasako du hodeietan.

(1993b: 29)

#### 4.2 Espainiako haur-poesiaren (1981-2010) eta Juan Kruz Igerabideren haur-poesiaren (1992-2005) konparaketa

Espainiako haur-poesiaren (1981-2010) eta Juan Kruz Igerabideren haur-poesiaren (1992-2005) arteko konparaketa egiteko, segidan duzuen taula taiutu dugu. Bertan, Olga Muñoz Navarrok (2022) bere lanean definitutako espainiar haur-poesiaren ezaugarriak (lehendabiziko zutabea) eta ikerketa lan honetan zehaztu diren Juan Kruz Igerabideren haur-poesiaren bereizgarriak (bigarren zutabea) parekatu dira, ezaugarriak laburki azalduz, beren arteko berdintasunak eta ezberdintasunak hautemateko helburuarekin.

**1. taula.** Espainiako haur-poesiaren eta Juan Kruz Igerabideren haur-poesiaren arteko konparaketa

<p>ESPAINIAKO HAUR-POESIA: 1981-2010 (Muñoz Navarro 2022)</p>	<p>J.K. IGERABIDEREN HAUR-POESIA: 1992-2005</p>
<p>A) Poemetan gehien nabarmentzen den gaia <b>izadia</b> da, fenomeno atmosferikoen aipamenak eta naturako elementuen (ilargia, eguzkia, izarrak, itsasoak, ibaiak...) erreferentziak ohikoak direla.</p> <p>Era berean, sarri aurkitzen dira aldar-teak, <b>sentimenduak</b> eta emozioak jorrratzen dituzten poemak, mota guztietako beldur, poz eta sentazioak azaltzen dituztenak.</p>	<p>A) <b>Izadiari</b> buruzko poemak dira nagusi. Natura edo haren elementuak (animaliak, haizea, itsasoa, ura...) dira hari zentrala poema gehienetan, baina badago gailentzen den azpigai bat: landareak (zuhaitzak, zuhaixkak, hostoak, loreak).</p> <p>Beste gai batzuk ere sarritan emanak dira. Alde batetik, <b>gorputzaz</b> aritzen diren poemak ohikoak dira, giza gorputzeko atalei buruzko poemak, hain zuzen ere. Bestetik, bizitzaren inguruko hausnarketak plazaratzen dituzten poemek ere presentzia handia dute, <b>bizitzaren joan etengabea eta bizitzaren iragankortasuna</b> jorrratzen dutela.</p> <p>Maiztasun baxuagoan bada ere, poema batzuk <b>sentipenen eta emozioen</b> adierazpena dute gai gisa.</p>

ESPAINIAKO HAUR-POESIA: 1981-2010 (Muñoz Navarro 2022)	J.K. IGERABIDEREN HAUR-POESIA: 1992-2005
<p>B) Metrikari dagokionez, arte xehea gailentzen da. Lerro <b>oktosilabikoak</b> dira erabilienak, baina baita hexasilabikoak eta heptasilabikoak ere.</p> <p>Poemek ez dute silabismo mota batekiko inolako lehentasunik erakusten, <b>isosilabismoa edo anisosilabismoa neurri paretsuan</b> erabiltzen dira eta.</p> <p><b>Errima asonantea eta errima kontsonantea</b> proportzio oso berdintsuan erabiltzen dira. Kasu batzuetan, errima asonantea kontsonante bihurtzen da, eta alderantziz, errima mota biak nahastuta.</p> <p>Poema gehienak egitura estrofiko tradizionalen bati jarraikiz idatzita daude; batez ere, <b>lauko txikia, erromantzea eta redondilla</b>, baina beste askok ez dute egitura estrofiko zehatzik. Bestalde, poema-kopuru handi batek egitura estrofiko moldatua du, lerroen silaba-neurriak, errima edota lerro-kopurua ere aldatzen dela.</p>	<p>B) Poema gehienek <b>laburtasuna</b> dute ezaugarri amankomun gisa, ahapaldi bakarrekoak eta 3-4 lerrokoak baitira. <b>Arte xehea</b> gailentzen da nagusiki, baina badira bi arte moten nahasketa erabiltzen duten poemak ere, arte xeheko lerroak eta arte nagusiko lerroak konbinatuz.</p> <p><b>Anisosilabismoaren metrika irregularr</b>a nabarmentzen da, isosilabismoarekin alderatuz gero. Izan ere, ia poema guztietan silaba-kopuru ezberdineko lerroak ageri dira.</p> <p><b>Errima kontsonantea</b> azaltzen da maiztasun askoz handiagoan. Hala ere, errima kontsonantea duten poemen ia beste hainbeste <b>errimarik gabekoak dira</b>.</p> <p>Poema gehienek egitura estrofiko itxia dute, gehien errepikatzen dena <b>haikua</b> izanik. Ekialdeko filosofian jatorria duen japoniar bertso molde txikia erabiliz eta elementu zein gauza txikien bitartez, giza bizitzaren inguruko gogoeak erakusten dira. Dena den, batzuetan ez da <b>haikuaren metrika</b> zehatza betetzen (5-7-5) eta, molde horren barruan, aldaketekin jolasten da, errimak gehituz eta lerroen silaba-kopurua moldatuz.</p> <p><b>Haikuaren formatik</b> aldentzen diren poemak ere ageri dira, <b>egitura estrofiko zehatzik ez</b> duten eta folkloreko kantuetatik, jolasetatik eta hitz-jokoetatik gertu dauden poemak, hain zuzen ere.</p>



<p>ESPAINIAKO HAUR-POESIA: 1981-2010 (Muñoz Navarro 2022)</p>	<p>J.K. IGERABIDEREN HAUR-POESIA: 1992-2005</p>
<p>C) <b>Semantikari eragiten dioten figura estilistikoak</b> dira nagusi; bereziki, <b>metafora eta pertsonifikazioa</b>.</p> <p>Hala ere, oso ugariak dira molde errepi-kakorreko figura estilistikoak eta baliabideak. Horien artean, protagonismo handia dute <b>errepikapenek, paralelismoek eta anaforek</b>.</p>	<p>C) Gehien erabilitako baliabideak <b>semantikari eragiten dioten figura estilistikoak</b> dira, baina batez ere gailentzen direnak <b>ezkutuko metaforak</b> dira. <b>Pertsonifikazioa ere askotan</b> agertzen da, bereziki naturako elementuei, hostoei zehazki, giza ezaugarri eta trebetasunak esleituz.</p> <p>Poemetan ahozkotasanaren elementuak biltzen dituzten figura estilistikoak ere nagusi dira. Izan ere, Igerabide ahozko literaturara hurbiltzen da sarritan, eta horregatik, bere poesian presente daude memoriaren lagungarri diren ahozkotasanaren elementuak: <b>errepikapenak, paralelismoak, anaforak, aliterazioak eta onomatopeiak</b>.</p>
<p>D) <b>Irudi poetikoak</b> sarri ageri dira poemetan, baina figura estilistikoak dira poemetan pisu gehien hartzen duten baliabideak.</p>	<p>D) <b>Irudi poetikoek</b> berebiziko garrantzia dute poemetan, Igerabideren haur-poesiaren ezaugarri bereizgarriena delarik. Gainera, poemetan gorde diren irudiak maila nahiko ezkutu, urrun eta subjektiboan aurkezten dira, ikusten den errealitateari buruz egiten diren aipamenek ez baitute antzekotasun logikorik horien bidez komunikatu nahi diren esanahiekin. Izan ere, azaltzen den <b>antzekotasun hori irrazionala da, emozionala</b>.</p>

## 5. Ondorioak

Artikulu honek 6 eta 12 urte bitarteko irakurleei zuzendutako Juan Kruz Igerabideren haur-poesia du aztergai: gure idazlearen ezaugarri literarioak

ezagutzea eta beronen poesiaren eta Espainiako haur-poesiaren artean dau den berdintasunak eta desberdintasunak hautematea dugu helburu. Horretarako, 1992-2005 bitartean argitaratutako lanen corpus literario bat hautatu da —Haur eta Gazte Literatura modernoko lehendabizikoak—, eta Olga Muñoz Navarro (2022) ikerlari entzutetsuak proposatutako eta baliozkotutako poemak aztertzeko metodoa aplikatu da.

Horrela, Juan Kruz Igerabideren poemen analisiaren emaitzek ekialdeko tradizioan jatorria duen *haiku* konposiziorako joera indartsua erakutsi dute. Japoniar bertso txikia erabiliz —3 lerroko ahapaldi bakarra—, eta izadia zein beronen elementuak motibo literario gisa hartuz, laburtasunaren alde egiten du Igerabidek, arte xeheaz, anisilabismoaz eta errima kontsonanteaz baliaturik gehienbat. Hari beretik, argi ageri da *haiku*aren indar iradokitzailea harexen poemetan, ezkutuko mailan azaltzen diren irudi poetikoek pisu eta garrantzi berezia hartzen baitute, eta, hortaz, semantikari eragiten dioten figura estilistikoak —metaforak eta pertsonifikazioak— dira nagusi, nahiz eta sarritan ahozkotasanaren elementuak biltzen dituzten figura estilistikoak ere —errepikapenak, paralelismoak eta abar— erabiliak diren.

Bestalde, Espainiako lirikaren eta Igerabideren haur-poesiaren arteko alderaketa egiteko, lehen aipatutako Muñoz Navarrok (2022) lana abiapuntu izan dugu. Juan Kruz Igerabidek 1992-2005. urteen artean argitaratutako haur-poesia, Muñoz Navarrok aztertutako 1981etik 2010era bitarteko Espainiako haur-poesiarekin parekatu da. Konparaketak erakutsi digu, Espainiako haur-poesiaren ezaugarriak eta ikerketa honetan zehaztutako Igerabideren haur-poesiaren ezaugarriak elkarren antzekoak direla, oso:

- a) Gehien nabarmentzen den gaia izadia edo natura da.
- b) Laburtasuna da ezaugarri nagusietako bat (ahapaldi bakarra eta arte xehea).
- c) Semantikari eragiten dioten figura estilistikoak (metaforak eta pertsonifikazioak, bereziki) gailentzen dira.
- d) Molde errepikakorreko ahozkotasanaren elementuak dituzten baliabideak maiz erabiliak dira.

Haatik, Igerabideren haur-poesia zenbait alderditan bereizten da Espainiako haur-poesiaren joera nagusietatik; hala nola irudi poetikoen erabilpean eta metrikaren alorrean; batez ere, silabismo motan, erriman eta egitura estrofikoan. Izan ere, idazle adunarraren poemagintzan, alde batetik, maila (nahiko) ezkutu, urrun eta subjektiboan aurkezten diren irudiek garrantzi askoz handiagoa hartzen dute. Bestetik, anisosilabismoa, errima kontsonantea eta *haiku*aren egitura estrofikoa dira ezaugarri ageri-agerikoak Igerabideren poemetan, Espainiako haur-poesiaren silabismo mota bat edo bestearen aldeko lehentasunik ezaren, errima asonante eta kontsonantearen arteko proportzio berdintsuko erabileraren, eta egitura estrofiko tradizionaleko (*redondilla*, erromantzea...) konposizioen aldean.

Oro har, Juan Kruz Igerabideren 6 eta 12 urte bitarteko irakurleei zuzendutako euskal haur-poesiaren ezaugarriak aztertzeak, baita horren eta Espainiako haur-poesiaren arteko alderaketa egiteak ere, gure Haur eta Gazte Literatura modernoko haur-poesiako lehendabiziko obra batzuk sakonki ezagutzea ahalbidetu du. Horrela, Xabier Etxanizek (1996) aipatutako generoaren inguruko informazio ezaren aurrean, orain arte ikerketaren esparruan baztertua izan den euskal haur-poesia hori ezaugarritzeko lehen pausoa eman dugu. Izan ere, gure ikerketa honen bidez, euskal haur-poesiaren ezagutza hein batean zabaldu eta sendotu da. Laburbilduz esan dezagun, Juan Kruz Igerabideren haur-poesiaren ezaugarritze-lanaren bidez, orain arte ezer gutxi ikertutako generoa hobeto ezagutzeko ahalegina egin nahi izan duela gure ikerketa honek, dagoen hutsune akademikoa betetzen joateko asmoarekin.

## Bibliografia

AÑORGA, Pello, ATXAGA, Bernardo, EGIA, Lutxo, IGERABIDE, Juan Kruz, KAZABON, Antton, LINAZASORO, Karlos, MEABE, Miren Agur, ORMAZABAL, Joxantonio, SANTISTEBAN, Karlos, SUAREZ, Jon, URKIZA, Ana eta ZUBIZARRETA, Patxi (2003). *Zaldiko-maldikoan*. Bilbo: Aizkorri.

AÑORGA, Pello, EGIA, Lutxo, IGERABIDE, Juan Kruz, IRIGOIEN, Joan Mari, IZAGIRRE, Koldo, JUARISTI, Felipe, KAZABON, Antton, LINAZASORO, Karlos, MEABE, Miren Agur, ORMAZABAL, Joxantonio eta SUAREZ, Jon (2010). *Txori kantariak poeta hegalaria*. Donostia: Elkar.

ARCO, Jorge (2019). «Entrevista a Juan Kruz Igerabide», *Lazarillo: Revista de la Asociación de Amigos del Libro Infantil y Juvenil* 40: 53-58.

ARRIETA, Yolanda eta ROSENDE, Maite (ilustr.) (2022). *Kax-Kax!*. Berriozar: Denonartean.

ASTIZ MARTÍNEZ, Iñigo eta MUTUBERRIA, Maite (ilustr.) (2019). *Joemak eta polasak*. Donostia: Elkar.

BILBAO, Leire eta MUTUBERRIA, Maite (ilustr.) (2016a). *Xomorropoemak eta beste piztia batzuk*. Arre: Pamiela.

— (2016b). *Piztipoemak eta beste xomorro batzuk*. Arre: Pamiela.

— (2021). *Barruko hotsak eta beste soinu txiki batzuk*. Arre: Pamiela.

BILLELABEITIA, Miren (2011). «“Hosto gorri, hosto berde” (2002)», in Jon Kortazar, Manu López Gaseni eta Xabier Etxaniz (ed.), *Egungo euskal haur eta gazte literaturaren historia*. Leioa: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua: 181-187.

— eta KORTAZAR, Jon (2004). *Haurrentzako euskal poesiaren antologia*. Madril: Alfaguara Zubia.

BORNEMANN, Elsa Isabel (1980). *Poesía infantil. Estudio y antología*. Buenos Aires: Editorial Latina.

BOUSOÑO, Carlos (1981). *El irracionalismo poético*. Bartzelona: Gredos.

CERRILLO, Pedro César (2004). *¿Dónde está el niño que yo fui? Poemas para leer en la escuela*. Madril: Ediciones Akal.

— eta LUJÁN, Ángel Luis (2010). *Poesía y educación poética*. Cuenca: Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.

— eta SÁNCHEZ, César (2006). «Literatura con mayúsculas», *Ocnos: Revista de Estudios sobre Lectura* 2: 7-21.

CERVERA, Juan (1992). *Teoría de la Literatura Infantil*. Bilbo: Mensajero.

DESCLOT, Miquel (2001). *iMés música, Mestre!* Bartzelona: La Galera.

— (2003). «Beharrezkoa al da haurrentzako poesia berriazko bat?», *Behinola* 8: 40-46.

DÍAZ ARMAS, Jesús (2009). «La poesía en el siglo XXI en el ámbito castellano», in Blanca Ana Roig Rechou, Isabel Soto López eta Marta Neira Rodríguez (ed.), *A poesía infantil no século XXI (2000-2008)*. Vigo: Edicións Xerais de Galicia: 35-55.

ETXANIZ, Nemesio (1967). *Lur berri billa*. Izarra: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa.

ETXANIZ, Xabier (1986). *Haur folkloreaken bilduma*. Iruñea: Pamiela.

— (1996). *Euskal Haur eta Gazte Literaturaren historia*. (Doktorego-tesia, UPV /EHU).

— (2011). «Sarrera», in Jon Kortazar, Manu López Gaseni eta Xabier Etxaniz (ed.), *Egungo euskal haur eta gazte literaturaren historia*. Leioa: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua: 13-96.

EUSKALTZAINDIA (2008). *Literatura Terminoen Hiztegia (LTH)*.

Kontsultagai: [[https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_xslt&lang=eu&layout=lth\\_list&search=1&view=frontpage%20&Itemid=474](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_xslt&lang=eu&layout=lth_list&search=1&view=frontpage%20&Itemid=474)].

GARCÍA PADRINO, Jaime (2018). *Historia crítica de la literatura infantil y juvenil en la España actual (1939-2015)*. Madril: Marcial Pons.

HERNÁNDEZ-ESQUIVEL, Christian Emmanuel (2017). «Haiku: tradición poética de Japón», *La Colmena* 73: 75-79.

IGERABIDE, Juan Kruz (1992). *Begi-niniaren poemak*. Donostia: Erein.

— (1993a). *Bularretik mintzora. Haurra, ahozkotasuna eta literatura*. Donostia: Erein.

— (1993b). *Egun osorako poemak eta beste*. Iruñea: Pamiela.

— (1994). *Gauetz zoo batean*. Irun: Alberdania.

— (1995). *Denboraldi bat ospitalean*. Irun: Alberdania.

- (1996). *Oporraldi bat baserrian*. Irun: Alberdania.
- (1998a). *Jonas eta hozkailu beldurtia*. Bilbo: Aizkorri.
- eta Linazasoro, Karlos (1998b). *Kartapazioko poemak*. Euba-Zornotza: Ibaizabal.
- (1999a). *Botoi bat bezala*. Bilbo: Anaya Haritza.
- (1999b). *Hamabi galdera pianoari*. Irun: Alberdania.
- (1999c). *Helena eta arrastiria*. Donostia: Elkarlanean.
- (2000). *Begi argi horiek*. Bilbo: Aizkorri.
- (2002a). «Juan Kruz Igerabide: “Platonen berebiziko gogoeta batek bezainbateko indarra du kafea hartzen ari den emakume xahar baten begirada galduak”», *Beterriko Liburua* 16.
- (2002b). *Hosto gorri, hosto berde*. Madril: Palas Atenea.
- (2003a). «Haur poesiaz gogoeta zenbait», *Behinola*, 8: 64-73.
- (2003b). «Haur poesia eta ahozko tradizioa», *Sancho el Sabio* 18: 39-50.
- (2003c). *Hiru ahizpa*. Donostia: Erein.
- (2004). *Munduko ibaien poemak*. Donostia: Elkar.
- (2005). *Gorputz osorako poemak*. Bilbo: Aizkorri.
- (2007). *Ulises: Homeroren Odisearen bertsioa*. Donostia: Erein.
- (2009a). *Haizearen tunela*. Bilbo: Giltza.
- (2009b). «Haur-poesiaren aitzindariak», *Behinola* 20: 37-42.
- (2012). *Hirurogeita lau kanta eta olerki umeentzat*. Madril: Susaeta.
- (2014). *Ur: euriaren liburua*. Berriozar: Denonartean.
- (2016). *Maite poemak hasiberrientzat*. Berriozar: Denonartean.
- (2017a). *Abezedario titirijario (letren txotxongiloa)*. Berriozar: Denonartean.
- (2017b). *Ez lemaio. Arrasateren erreketak*. Bilbo: Beta III Milenio.
- (2020). *Arrastoa*. Donostia: Alai.

KORTAZAR BILLELABEITIA, Jon eta KORTAZAR, Jon (2021). «Juan Kruz Igerabideren haur-poesia: “Botoi bat bezala” (1999). Irudia eta *haikua*», *Ikastorratza: e-Revista Didáctica* 27: 94-113.

KORTAZAR, Jon (2000). *Euskal literaturaren historia txikia*. Donostia: Erein.

— (2002). «Introducción», in Juan Kruz Igerabide (egil.), *Hosto gorri, hosto berde*. Madril: Palas Atenea: 7-17.

LERTXUNDI, Anjel (1985-86). *Maria Goikoarenak*. Donostia: Erein.

LLAMAZARES, Teresa (2009). «Acercamiento a la poesía infantil y juvenil», *Clarín: Revista de Literatura Infantil y Juvenil* 1: 35-39.

LÓPEZ GASENI, Manu eta ETXANIZ, Xabier (2009). «Euskal haur poesia milurte berrian», *Behinola* 20: 25-36.

LÓPEZ VALERO, Amando, JEREZ MARTÍNEZ, Isabel eta ENCABO FERNÁNDEZ, Eduardo (2010). *Aproximación a la poesía infantil*. Murtzia: Murtziako Unibertsitatea (Grupo de Investigación Didáctica de la Lengua y la Literatura).

MARÍN GARZO, Gustavo (2005). *Maitagarrien hiru ipuin*. Donostia: Elkar. (Itzul-tzailea: Juan Kruz Igerabide).

MEABE, Miren Agur (2010). *Mila magnolia lore*. Bilbo: Mensajero.

MINABERRI, Marijane (1965). *Xoria kantari*. Baiona: Ikas.

MOULIER, Jules, «Oxobi». (1944). *Haur-elhe haurrentzat*. Baiona: La Presse.

MUÑOZ NAVARRO, Olga (2022). *Poesía infantil en España en las últimas décadas del siglo XX y comienzos del XXI: Análisis filológico y literario de la poesía infantil en España (1981-2010)*. (Doktorego-tesia, Universidad de Castilla-La Mancha).

OLASO, Xabier (2004). *Pupuan trapua*. Iruñea: Pamiela.

OLAZIREGI, Mari Jose (2009). «Un canto a la vida: “Hosto gorri, hosto berde / Hoja roja, hoja verde” de Juan Kruz Igerabide», in Blanca Ana Roig Rechou, Isabel Soto López eta Marta Neira Rodríguez (ed.), *A poesía infantil no século XXI (2000-2008)*. Vigo: Edicións Xerais de Galicia: 339-349.

REAL ACADEMIA ESPAÑOLA (actualización 2024). *Diccionario de la lengua española (DLE)*.

Kontsultagai: [<https://dle.rae.es/>].

REIS, Daiane Assunção (2006). *Poesía para niños: ¿por qué? ¿qué? y ¿cómo?* Brasilia: Instituto Cervantes de Brasilia.

RUIZ, Rubén (2007). *Sekretuak belarrira*. Bilbo: Aizkorri.

SAIZ Ripoll, Anabel (2012). «Educar la sensibilidad: introducción a la poesía infantil», *Anuario de Investigación en Literatura Infantil y Juvenil (AILIJ)* 10: 207-221.

SALEEM, Hiner (2004). *Nire aitaren fusila*. Irun: Alberdania. (Itzultzailea: Juan Kruz Igerabide).

SOTOMAYOR, Victoria (2002). «Poesía infantil española en los últimos 20 años», *Lazarillo* 8: 8-23.

SUAREZ, Jon (2002). *Ilbetea dilindan*. Iruñea: Pamiela.

URKIZA, Ana (2006). *Nire hiriko poemak*. Iruñea: Pamiela.



## Eranskinak

Atal honetan ikerketari dagozkion datuak jaso ditugu, zenbakien bidez emanak.

**Taula I.** Gaiak

<b>Izadia</b>	Animaliak	18	% 4,59	231	% 58,9*
	Egurra	1	% 0,26		
	Eguzkia	1	% 0,26		
	Elurra	6	% 1,53		
	Haizea	9	% 2,30		
	Ilargia	12	% 3,06		
	Itsasoa	1	% 0,26		
	Landareak	90	% 22,96		
	Natura	2	% 0,51		
	Ura	91	% 23,21		
<b>Gorputza</b>	Gorputz-atalak	46	% 11,73	46	% 11,7*
<b>Bizitza</b>	Bizipoza	6	% 1,53	40	% 10,2*
	Bizitzaren iragankortasuna	13	% 3,32		
	Existentzia	1	% 0,26		
	Haurtzaroa	1	% 0,26		
	Heriotza	9	% 2,30		
	Jaiotza	5	% 1,28		
	Bizi-zalantza	3	% 0,77		
	Ziurgabetasuna	2	% 0,51		

<b>Emozioak edo sentimenduak</b>	Babesa	2	% 0,51	31	% 7,9*
	Bakardadea	10	% 2,55		
	Beldurra	2	% 0,51		
	Esperantza	1	% 0,26		
	Inozentzia	1	% 0,26		
	Laguntasuna	1	% 0,26		
	Maitasuna	5	% 1,28		
	Mina	2	% 0,51		
	Nekea	1	% 0,26		
	Tristura	6	% 1,53		
<b>Orotarikoak</b>	Edertasuna	2	% 0,51	44	% 11,3*
	Egunerokotasuna	1	% 0,26		
	Ez da identifikatu	13	% 3,32		
	Gaixotasuna	1	% 0,26		
	Gaua	5	% 1,28		
	Hotza	1	% 0,26		
	Indarkeria	1	% 0,26		
	Istoriaoa	11	% 2,81		
	Konpainia	1	% 0,26		
	Kontraesana	1	% 0,26		
	Lana	2	% 0,51		
	Misterioa	1	% 0,26		
	Negua	1	% 0,26		
	Sorginak	1	% 0,26		
	Zarata	1	% 0,26		
	Zubia	1	% 0,26		
<b>GUZTIRA</b>				<b>392</b>	<b>% 100</b>

\* Dezimal bakarrera biribilduta.

**Taula II.** Ahapaldi-kopurua

1	331	% 84,44
2	13	% 3,32
3	36	% 9,17
4	6	% 1,53
5	5	% 1,28
6	1	% 0,26
GUZTIRA	392	% 100

**Taula III.** Lerro-kopurua

2	24	% 6,12
3	238	% 60,71
4	68	% 17,35
5	11	% 2,8
6	21	% 5,36
7	3	% 0,77
8	4	% 1,02
9	3	% 0,77
10	1	% 0,26
11	1	% 0,26
13	2	% 0,5
14	1	% 0,26
15	1	% 0,26
16	2	% 0,5
<b>Nahastea</b>	12	% 3,06
GUZTIRA	392	% 100

Taula IV. Arte mota

<b>Arte nagusia</b>	30	% 7,65
<b>Arte xehea</b>	219	% 55,87
<b>Nahastea</b>	143	% 36,48
GUZTIRA	392	% 100

Taula VII. Egitura estrofikoa

<b>Egitura estrofikoa</b>	Biko errimatua	4	% 1,02	245	% 62,5
	<i>Haikua</i>	219	% 55,87		
	Hamarreko txikia	2	% 0,51		
	Hiruko txikia	1	% 0,26		
	Hiruko handia	6	% 1,53		
	Lauko txikia	8	% 2,04		
	<i>Redondilla</i>	2	% 0,51		
	<i>Sesteto</i>	2	% 0,51		
	<i>Sextilla</i>	1	% 0,26		
<b>Egitura ezberdinen konbinaketa</b>	1	% 0,26	1	% 0,26	
<b>Egitura estrofikorik gabe</b>	146	% 37,24	146	% 37,24	
GUZTIRA			392	% 100	

**Taula VIII.** Figura estilistikoak

<b>Fonetika eta morfologia</b>	Aliterazioa	11	% 2,04*	32	% 5,9*
	Antanaklasia	1	% 0,18*		
	Onomatopeia	17	% 3,15*		
	Paronomasia	3	% 0,55*		
<b>Sintaxia</b>	Anadiplosia	3	% 0,55*	167	% 30,9*
	Anafora	29	% 5,37*		
	Elipsia	1	% 0,18*		
	Epitetoa	4	% 0,74*		
	Errepikapena	65	% 12,04*		
	Galdera erretorikoa	12	% 2,22*		
	Hiperbatona	3	% 0,55*		
	Paralelismoa	47	% 8,7*		
	Perifrasia	2	% 0,37*		
	Polisindetona	1	% 0,18*		
<b>Semantika</b>	Hitz-jokoak	13	% 2,41*	341	% 63,2*
	Konparazioa	12	% 2,22*		
	Kontrajarpena	14	% 2,59*		
	Metafora	168	% 31,11*		
	Metonimia	6	% 1,11*		
	Pertsonifikazioa	125	% 23,15*		
	Sinestesia	3	% 0,55*		
<b>GUZTIRA</b>				<b>540</b>	<b>% 100*</b>

\* Portzentajeok agertutako figura estilistikoen kopuruaren arabera, ez poema-kopuruaren arabera.



# Gezurra dirudi: hizkuntza figuratiboa, zeharkako gezurrak eta hiztunaren konpromisoa<sup>1</sup>

Sobre la mentira: lenguaje figurativo, mentiras indirectas y el compromiso del hablante

Sur le mensonge : langage figuré, mensonges indirects et l'engagement du locuteur

On lying: figurative language, indirect lies and the speaker's commitment

GARMENDIA, Joana

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

joana.garmendia@ehu.eus

ORCID: <https://orcid.org/0000-0002-5743-6396>

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v1i70.292>

Jasotze-data: 2024/04/10

Behin-behineko onartze-data: 2024/07/16

Behin betiko onartze-data: 2024/09/23

Gezurra zer den, edo gezurra esatea zertan datzan, argitzea da lan honen helburua. Has-teko, pragmatikaren esparruan gezurraren definizioak sortu dituen eztabaidak azaldu ditut, hiru auzi ardatz hartuta: esatearen auzia, faltsutasunaren auzia eta engainatzeko asmoaren auzia. Ondoren, gezurrak definitzean inplikatura ez-zintzoek sortzen duten korapiloari jarri

---

<sup>1</sup> Eskerrak eman nahi dizkiet ILCLIko Language, Action and Thought ikerketa-taldeko lankideei, gai honi buruz izan ditugun eztabaidetan ekarpen handia egin didatelako. Bereziki eskertu nahi ditut Yolanda García-Lorenzo, Larraitz Zubeldia eta Irati Zubia, artikuluko lehen bertsioari egin zizkieten zuzenketa eta iruzkinengatik. Eskerrik asko, baita ere, Yolanda GL eta Ekaitz Sirventi, hizkuntza arrotzekin lagundu didatelako. Halaber eskertu nahi ditut aldizkariaren bi iruzkingile anonimoak, egindako ohar eta zuzenketengatik. Lan hau egiteko, Eusko Jaurlaritzaren (IT1612-22) eta Espainiako MICIU Ministerioaren (PID2023-151480NB-I00, MICIU/AEI/10.13039/501100011033 eta ERDF/EU) laguntzak baliatu ditut.

diot arreta: azaldu dut zergatik uste dudan inplikatura horiek gezurtzat hartu behar direla, eta bidenabar defendatu dut hiztunaren konpromisoaren ideian oinarrituta azaltzen direla ondoen gezurrak, oro har, eta inplikatura bidezko gezurrak, zehazki.

**Gako-hitzak:** gezurra, ironia, hiztunaren konpromisoa, metafora, inplikatura, ukagarritasuna.

El objetivo de este trabajo es aclarar qué es la mentira, o en qué consiste mentir. En primer lugar, explico el debate existente en torno a la definición pragmática de las mentiras, centrándome para ello en tres cuestiones: la cuestión de lo dicho, la cuestión de la falsedad, y la cuestión de la intención de engañar. En segundo lugar, abordo el problema que suponen las implicaturas insinceras a la hora de definir la mentira. En concreto, explico por qué considero que estas implicaturas han de considerarse mentiras y definiendo que basarnos en la idea del compromiso del hablante es la mejor manera de definir las mentiras en general, y las mentiras comunicadas mediante implicaturas en particular.

**Palabras clave:** mentira, ironía, compromiso del hablante, metáfora, implicatura, denegabilidad.

L'objectif de ce travail est de clarifier ce qu'est le mensonge, ou en quoi consiste le mensonge. Tout d'abord, j'explique le débat en cours sur la définition pragmatique du mensonge, en me focalisant sur trois questions : la question du dire, la question de la fausseté et la question de l'intention de tromper. Ensuite, j'aborde le problème posé par les implicatures non sincères dans la définition du mensonge. En particulier, j'explique pourquoi je crois qu'il faut considérer ces implicatures comme des mensonges, et je soutiens que s'appuyer sur l'idée de l'engagement du locuteur est la meilleure façon de définir les mensonges en général, et les mensonges communiqués par des implicatures en particulier.

**Mots-clés :** mensonge, ironie, engagement du locuteur, métaphore, implicature, denegation.

The aim of this paper is to clarify what lies are, or what lying consists in. First, I explain the existing debate on the pragmatic definition of lies, focusing on three issues: the issue of saying, the issue of falsity, and the issue of the intention to deceive. Second, I address the problem posed by insincere implicatures in defining lies. In particular, I explain why I consider that these implicatures are to be considered lies and argue that relying on the idea of speaker commitment is the best way to define lies in general, and lies communicated by implicatures in particular.

**Keywords:** lie, irony, speaker commitment, metaphor, implicature, deniability.

GARMENDIA, Joana (2025). «On lying: figurative language, indirect lies and the speaker's commitment», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 70 (1): 127-157.



1. Sarrera
  2. Gezuraren definizioa: eztabaidak
    - 2.1 Hiztunak  $p$  esan du
    - 2.2  $p$  faltsua da eta hiztunak uste du  $p$  faltsua dela
    - 2.3 Hiztunak entzulea engainatu nahi du
  3. Esaten ez diren gezurrak
    - 3.1 Konpromisoa eta erantzukizunak
    - 3.2 Implikaturekiko konpromisoa
    - 3.3 Gezurak, hizkuntza figuratiboa eta gezur figuratiboak
  4. Ondorioa
- Bibliografia

## 1. Sarrera

Gezurrak aspaldiko aztergaia dira filosofian; bereziki, etikaren alorrean aztertu izan dira. Esparru horretan, gezurraren alderdi sozialak edo moralak aztertu izan dira: zergatik den zerbait txarra edo zergatik den gaitzesgarria gezurra esatea, zein ondorio moral eta sozial dituen, zein zentzutan diren moraliki desberdinak gezurrak eta gainerako estrategia iruzurtiak eta abar. Bada alderdi horiek guztiak zeharkatzen dituen auzi funtsean filosofiko bat, gezurraren definizioari berari lotua: gezurra zer den argitzeak lagunduko digu, azken finean, gezurra esatearen ondorioak, implikazioak eta arriskuak ulertzen. Horixe da lan honen helburua: gezurra zer den, edo gezurra esatea zertan datzan, argitu nahi dut. Pragmatikaren esparrua baliatuko dut horretarako.

Autore asko saiatu dira, orain baino lehen, gezurraren definizio pragmatikoa josten. Proposamen asko eta askotarikoak egin dira eta, gaur-gaurkoz, eztabaida honetan datza: horietatik zeinek jasotzen dituen egokien hiztunen intuizioak, eta zeinek azaltzen dituen hobeto gezurren adibide askotarikoak. Izan ere, eman dezake, beharbada, auzia sinplea dela: badakigula gezurra zer den eta bat gentozkeela, oro har, adibide multzo batean gezurrak direnak besteetatik bereiztean. Eskarmentuak, ordea, kontrakoa dio: zaila da gezurra zer den zehatz azaltzea, eta askotan intuizio desberdinak ditugu halako adibidea gezurra den edo ez ebaztean. Desadostasun horien atzean zer dagoen argitzea da pragmatikan diharduten autoreen helburua.

Eztabaida, oro har, gezurraren definizio tradizionaltzat har daitekeen honen lau puntuen inguruan egituratzen da:

Hiztun batek gezurra esan du, baldin eta soilik baldin:

- 1) hiztunak  $p$  esan du;
- 2) hiztunak uste du  $p$  faltsua dela;
- 3)  $p$  faltsua da;
- 4) hiztunak entzulea engainatu nahi du.

Lau baldintza horiek (eta horien arteko konbinazio askotarikoak) proposatu dira gezurrak definitzeko. Laurek sortu dute eztabaida: eztabaida horiek argitu eta definizioa finkatzean datza orain gakoa.

Lan honetan, hasteko, gezurraren definizioaren gaineko debatea zertan den azalduko dut. Lehenengo atalean egingo dut hori. Gezurren pragmatikaren mapa orokor samarra marraztuko dut, goiko definizioaren lau baldintzak ardatz hartuta. Baldintza bakoitzari loturik irekita dauden auziak zein diren azalduko dut, eta auzi horien korapiloak eta korapilo horiek sortu dituzten eztabaidak ekarriko ditut mahaigainera. Nire helburua, lehen atal honetan, ez da korapiloak askatzen saiatzea edo eztabaidetan sakontzea. Mapa panoramikoa marraztu nahi dut, gero eztabaida teoriko oso zehatz bat hor kokatzeko, eta, horrela, eztabaidaren implikazioak hobeto ulertzeko. Bigarren atalean egingo dut hori: inplikatura ez-zintzoen auzian jarriko dut begia, eta defendatuko dut hiztunaren konpromisoetan oinarrituriko hurbilpenak erakusten duela inplikatura horiek gezurtzat jo beharko genituzkeela. Horrenbestez, gezurren definizioaren lehenengo baldintza —gezurrak esan egiten direla dioena— egokitu egin behar dela ondorioztatuko dut.

## 2. Gezurren definizioa: eztabaidak

Badirudi denok-edo dugula teoria-aurreko kontzepzio bat gezurrena. Gu-txi asko, honelako zerbait esango genuke gezurra esatea zer den galdetuko baligute: «Gezurra esatea faltsua den zerbait esatea da». Gehienok bat gentozke definizio-moduko horrekin, seguru asko, harik eta zerbait zehatzagoa galdetzen diguten arte, edo adibide jakin bat sailkatzeko eskatzen diguten arte. Izan ere, gezurtiak<sup>2</sup> faltsua den hori *esan* egin behar du, ala berdin dio beste nolabait komunikatzen badio entzuleari? Gezurtiak dioenak faltsua izan behar du, ala nahikoa da hark faltsua dela uste izatearekin? Faltsua den zerbait esaten dugunero ari al gara gezurretan, baita metafora erabiltzen dugunean edo txantxetan ari garenean ere?

Azterketa pragmatikoak galdera horiei erantzun nahi die, horrela gezurren definizio zehatz eta osoagoa lortzeko. Debatea gezurraren definizio tradizional esan diodan horren lau baldintzen gainean artikulatzen da.

---

<sup>2</sup> «Gezurti» esango diot gezurra esan (komunikatu) duen hiztunari. Egia da eguneroko hizketan gezurrak esan *ohi* dituenari deritzogula «gezurti», baina ez dut hitza adiera horrekin erabiliko nik.

## 2.1 Hiztunak *p* esan du

Hasteko, esatearen auzia dago; alegia, argitu behar da zer egiten duen hiztunak, zehazki, gezurra esaten duenean. Zenbait autoreren arabera (Horn 2017; Saul 2012), gezurtiak *p* esan (*say*) egiten du; beste batzuek diote gezurtiak baieztatu (*assert*) egiten duela *p* (Adler 1997; Chisholm eta Feehan 1977; Fried 1978; Stokke 2013); azkenik, autore batzuen ustez, hiztunak, gezurretan ari denean, baietsi (*state*) egiten du *p* (Carson 2006). Terminologia kontuetz harago, argitu behar dena da zer den gezurretan ari den hiztunak *p* horrekin egiten duena: zein den gezurtiaren hizketa-ekintza zehatza, alegia.

Eman dezake kontu terminologiko hutsala dela, baina ez da horrela; izan ere, lehenengo baldintza hau nola zehazten dugun, horrela geratuko zaizkigu zenbait adibide gure definizio barruan edo hortik kanpo. Azter ditzagun honako lau hauek:

Itzea dieta egiten ari da, eta egunero zer bazkaldu behar duen agintzen dion otordu-zerrenda zorrotza dauka. Erenek badaki hori. Gaur asteartea da. Zerrendaren arabera, Itzeak entsalada bazkaldu behar zuen gaur; pizza bazkaldu du, ordea.

Eren: Zer bazkaldu duzu gaur?

Itzea: (1) Entsalada bazkaldu dut.

IRONIA

Negua da Euskal Herri grisean. Hilabete osoa darama euritan, atertu gabe. Haizea dabil, eta hotz egiten du, eta ilun dago herria, goibel. Eros suitzarra da, eta eguraldi mediterraneoaren bila etorri zen Donostiara bizitzera. Hori badakite bere ikerketa-taldeko guztiek. Eraikinaren atarian daude, aterkiei ezin zabalik eutsi, haizearekin borrokan.

Eros: (2) Beste egun eder eta zoragarri bat Euskal Herriko negu epelean.

METAFORA

Ainhoa eta Aitzol bikote dira, eta asko maite dute elkar. Ainhoak Aitzoli:

Ainhoa: (3) Zu zara nire bihotzeko azukre-koxkorra.

## HIPERBOLEA

Zuharari izugarri gustatzen zaio musika. Gogoko dituen talde guztien kontzertuetara joaten da, disko guztiak erosten ditu, aldizkariak goitik behera irakurtzen ditu. Benetan aditua da gaian, eta nabari zaio. Eunatek, harrirtuta, galdetu dio: «Nola dakizu zuk horrenbeste musikari buruz?».

Zuhara: (4) Milioika kontzertutan izana naiz nire bizitzan.

Lau adibide horiek oso desberdinak dira eta, halere, badute gauza bat komuna: badirudi hiztunak lauretan esan duela faltsua den zerbait. Faltsua da Itzeak entsalada bazkaldu duela, faltsua da egun ederra dela gaurkoa, faltsua da Aitzol azukre puska bat dela, faltsua da Zuhara milioika kontzertutan izana dela. Halaber, lau hiztunek uste dute faltsuak diren lau gauza horiek faltsuak direla. Hala eta guztiz ere, badirudi erraz bereiziko genituzkeela lehenengo adibidea eta beste hirurak: lehenengoan, Itzeak sinetsarazi egin nahi dio Ereni entsalada jan duela; Erosek, ordea, ez digu sinetsarazi nahi edertzat duela gaurko eguna; Ainhoak ez dio Aitzoli sinetsarazi nahi azukre puska bat dela; eta Zuharak ez dio Eunateri sinetsarazi nahi benetan milioika kontzertutan izana denik. Hau da, Itzeak gezurra esan du, baina beste hirurek ez: ironikoki, metafora bidez edo hiperbole bidez hitz egin dute, eta hori zerbait desberdina da.

Hizkuntza figuratiboa erabiltzen dugunean, badirudi faltsua den zerbait «esaten» dugula, nahiz eta ez den hori benetan komunikatu nahi duguna. Gezurrak eta hizketa figuratiboa bereizteko modu bat da gezurren definizio-ko 1) baldintza zorrotz zehaztea. Adibidez, defendatzea gezurtiak baieztatu egiten duela *p*, eta hiztun figuratiboak, aldiz, ez. Esan, esango duela akaso, zentzu ahulgoren batean; baina baieztatu, ez (Viebahn 2017).

Grice ez zen gezurrei buruz pentsatzen ari hizketa figuratiboa argitzen saiatu zenean, baina haren hurbilpenean jada aurki dezakegu hiztun horiek esan, ez dutela esaten defendatzen duen ikuspegia. Griceren arabera, hiztun batek ironia, metafora edo hiperbolea baliatzen dituenean, ez du *p* esaten, baizik eta *esango balu bezala* egiten du (Grice 1967a/89: 34). Esango bagenu bezala eginez lortzen dugu faltsua den *p* bat «erabiltzea» eta horren bidez benetan komunikatu nahi duguna komunikatzea, gezurtizat joko gaituzten

beldurrik gabe. Hau da, Erosek esango balu bezala egin du egun ederra dela gaurkoa, eta hori ( $p$ ) baliatuz komunikatu du benetan komunikatu nahi zuena: egun arraioa gaurkoa, nor esan ote zidan niri nora eta Donostiara etortzeko bizitzera, hau Espainia dela esango dute oraindik batzuek gero, eta abar. Berdin beste bi adibideetan ere: Ainhoak esango balu bezala egin du Aitzol bere bihotzean duen azukre puska bat dela, eta horren bidez komunikatu du asko maite duela gizona; Zuharak esango balu bezala egin du milioika kontzertutan izana dela eta, horren bidez, kontzertu asko-askotan izana dela komunikatu du.

Zein den esatearen, baieztatzearen, esango balitz bezala egitearen eta baiestearen arteko aldea, ez da erraza zehazten. Gezurriak egiten duena zehazki zer den ere, ematen du ez garela ados jartzen erabakitzen. Argi samar dagoena da ez dela eztabaida hutsala eta baduela ondoriorik gezurren definizioan.

Eztabaiden artean gehien interesatzen zaidana honako hau da, esatearen auziari buruzkoa. Izan ere, iruditzen zait gainerako guztiak zeharkatzen dituela. Lan honen bigarren erdian helduko diot berriro honi, beste ertz batetik tirako badiot ere. Baina, aurrena, azal ditzadan gainerako baldintzei loturiko eztabaidak.

## 2.2 $P$ faltsua da eta hiztunak uste du $p$ faltsua dela

Bigarrenik,  $p$ -ren faltsutasunari buruzko auzia daukagu. Definizio tradizionalaren bigarren eta hirugarren baldintzei eragiten die auzi honek:

- 2) hiztunak uste du  $p$  faltsua dela,
- 3)  $p$  faltsua da.

Hala,  $p$ -ren faltsutasunari buruzkoak dira biak, baina eztabaida desberdinak sortu dituzte batak eta besteak. Batetik, 2) baldintzari lotuta, ezbaian jarri da hiztunak  $p$  faltsua dela uste behar duen, edo nahikoa den hiztunak uste izatea  $p$  gertuago dagoela faltsu izatetik egia izatetik baino (Carson 2006; Marsili 2014, 2018, 2019). Baldintza, arindu baino, zorrotzu ere egin zitekeen: zenbait autorek defendatu du hiztunak *jakin* egin behar duela

$p$  faltsua dela, eta ez dela nahikoa hori uste izatearekin (Caminada 2009; Turri 2016; Benton 2017; Holguín 2021). Gezurrak aztertzen diharduten autore gehienek zorrotzegizat jo dute jakitearen baldintza hori, ordea (Carson 2006; Whyte 2013; Marsili 2019; Krauss 2017).

Ezagutzaren filosofiako auzi oso oinarrizkoei eragiten die debate honek; izan ere, zenbaterainoko ziurtasuna behar du hiztun batek  $p$  badakiela esan dezagun? Edo, ziurtasuna ez bada, zer da uste izatea eta jakitea bereizten dituen? Ez da hau auzi horietan sakontzeko lekua, baina erakutsi nahi dut nola eragiten dioten, zehazki, gezurrei. Hona hemen adibide bat:

Ekainek ez daki atzo ireki zuten kaxan bonboirik geratzen ote den. Badaki atzo erdiak baino gehiago jan zituztela, badaki gero berak beste batzuk ere jan zituela ezkutuan, eta ikusi ditu ama eta arreba beste horrenbeste hartzen. Beraz, jakin, ez daki, baina susmoa du ez dela bonboirik batere geratzen. Esan dezagun Otik 1erako eskalan, 0.25ean uste duela bonboirik badela oraindik, alegia, uste duela *ziur-rrerik faltsua* dela bonboirik badela kaxan. Malen etorri da etxera eta bonboirik baduten galdetu die:

Ekain: (5) Bada bonboiren bat oraindik kaxan.

Marsilik dio Ekainek gezurra esan duela eta, intuizio hori ondo jasotzeko, 2) baldintza ordeztu egin behar dela honako beste honekin:

**Konparaziozko zintzotasunaren baldintza:**

(CIC) Hiztunak ziurtasun handiagoa du  $p$ -ren faltsutasunaz horren egiaz baino.

(Marsili 2019: 118)<sup>3</sup>

Aldaketa horrekin, Marsilik «erdizkako usteen» gezurrak azaldu nahi ditu. Eztabaida honek baditu, gainera, moralaren mailako ondorioak: Marsiliren formulazioaren arabera, hiztun batek 0.51ko ziurtasuna badu  $p$ -ren egiari buruz, orduan ez du gezurra esaten  $p$  esandakoan. Nolanahi

<sup>3</sup> Honelaxe dio jatorrizkoak:

**The comparative insincerity condition:** (CIC) The speaker takes herself to be more confident in the falsity of  $p$  than in its truth. (Marsili 2019: 118)

ere, entzuleek,  $p$  entzutean, sinets dezakete  $p$  100ean, alegia, sinets dezakete  $p$  gauza ziurra dela, zergatik eta hiztunak  $p$  esan duelako. Horrek erakutsiko luke, Kraussen (2017) arabera, Marsiliren hurbilpenak gaizki egiten duela kasu horiek gezurtzat ez hartuta, gezurrak bezain gaitzesgarri izan baitaitezke.

Ikus dezakegunez, hasieran sinplea eman zezakeen bigarren baldintza horren bueltan auzi oso korapilatsuak daude josiak: ezagutzari eta usteei buruzkoak, gezurra esatearen moralari buruzkoak, eta zer ez. Ez da nire asmoa hemen horietan sakontzea eta, beraz, hemendik aurrera ahalik eta zentzurik neutroenean erabiliko dut bigarren baldintza, eta ez nuke arazorik izango horren birformulazio zehatzagoa edo zabalagoa onartzeko, behar izanez gero.

Horraino bigarren baldintzari buruzkoak<sup>4</sup>. Halaber, bada eztabaidarik hirugarrenari buruz: autore gehienek arabera (Saul 2012, Meibauer 2005, Stokke 2013), esaldi bat gezurtzat jotzeko nahikoa da hiztunak  $p$  faltsua dela uste izatea; aitzitik, zenbait hurbilpenetatik defendatu da hori ez dela nahikoa eta  $p$ -k, gainera, faltsua *izan* behar duela. Gezurren definizioaren 3) baldintza behar dugun edo ez, hori da eztabaida horrek ebatzi nahi duena.

Gezurren ezaugarri bereizgarria da hizkuntzaren erabilera ez-zintzoak (*in-sincere*) direla: arrantzale batek esaten badu «Arrain handi-handia harrapatu dut!», gezurretan ari da baldin eta ez badu uste arrain handi-handia harrapatu duenik. Nolanahi ere, zenbaitek argudiatu du hiztunak esandakoak

---

<sup>4</sup> Gezurren definizioaren bigarren baldintzak gogorragoa edo ahulagoa izan behar duen eztabaidatu dugu hona arte. Auzitan jarri ez dudana zera da: bigarren baldintza hori behar ote dugun gezurra definitzeko. Eztabaida teorikoan ez da, nik dakidala, hori zalantzan jarri. Bestelakoa da egunerokotasunean gezurrei buruz hitz egitean dugun jarrera: inork faltsua den zerbait esaten badu, gezurra esan duela esaten dugu maiz, askotan inporta izan gabe hiztunak esan duena faltsua dela uste duen edo ez. Alegia, egia dela uste dugun zerbait esan badugu, baina erratu eta benetan faltsua den zerbait esan badugu, gezurra esan dugula entzun beharko dugu maiz. Are gehiago: zerbait faltsua dela esan beharrean, zerbait hori *gezurra* dela ere esan ohi dugu. Egunerokotasunean ez dugu faltsuaren eta gezurraren arteko bereizketa oso fin erabiltzen; horrek ez du esan nahi, ordea, maila teorikoan ondo bereiz ezin ditzakegunik. Horretantxe ari naiz saiatzen hemen. Eske-rak eman nahi dizkiot iruzkingile anonimo bati, kontu hau seinalatut didalako.



faltsua *izan* behar duela —alegia, ez dela nahikoa hiztunak hori faltsua dela uste izatearekin—. Ikuspegi gogorrago honen alde egin duten autoreen arabera (Coleman eta Kay 1981; Turri eta Turri 2015), faltsua dela uste dugun zerbait esaten badugu, baina oker bagaude eta esan duguna benetan egia bada, orduan ez dugu gezurrik esan. Hona hemen adibide bat:

Nire lagun Johnekin joan naiz arrantzara. Arrain bana harrapatu dugu, biok aldi berean. Ez gara ohartu, baina gure hariak gurutzatu egin dira. Nik oso arrain handia harrapatu dut, eta Johnek bat oso txikia, baina guk uste dugu nik harrapatu dudala txikia eta Johnek handia. Bi arrainak uretara bota ditugu gero. Arrain txikia harrapatu dudala pentsatuz joan naiz etxera. Iritsi naizenean, aitak, arrantzale porrokatua, zer moduz moldatu naizen galdetu dit. Nik esan diot arrain handi-handia harrapatu dudala eta gero uretara bota dudala, eta horrekin engainatu egin nahi izan dut harrapatu dudan arrainaren tamainaz. (Carson 2006: 285)

Gezurren ikuspegi objektiboaren<sup>5</sup> arabera, ez diot gezurrik esan aitari, egia baita arrain handia harrapatu dudala —nahiz eta nik ez dudan hala uste—. Ikuspegi subjektiboaren arabera, aldiz, gezurra esan diot, inporta duen gauza bakarra zera baita: nik uste dudala faltsua dela arrain handia harrapatu dudala. Auzi honi oso interesgarri irizten badiot ere, ez naiz eztabaida horretan sartuko hemen. Argudioaren mesedetan, emantzat joko dut gezurtiak uste duela esan duena faltsua dela; inork 3) baldintza gehitu nahi badio horri, gehi diezaiola —ez die horrek nire argudioei eragingo—.

### 2.3 Hiztunak entzulea engainatu nahi du

Azkenik, eztabaidagai da ea hiztunak, gezurra esateko, entzulea engainatzeko asmoa izan behar duen nahitaez. Zenbait autoreren arabera (Lackey 2013; Mahon 2007; Meibauer 2011, 2014; Dynel 2011; Chisholm eta Feehan 1977; Adler 1997), gezurren definizioan nahitaezkoa da hiztuna-

---

<sup>5</sup> Wiegmann eta Meibauerren (2019) terminologia erabiltzen ari naiz hemen.

ren asmo iruzurtiari erreferentzia egiten dion 4) baldintza; bestela, ezingo genituzke bereizi gezurrak eta iruzurrik ez dagoen beste zenbait hizketa-kasu. Autore horien arabera, engainatzeko asmoa da bereizten dituen, batetik, gezurrak eta, bestetik, fikzioa, hizkuntza figuratiboa eta txantxak (eta, akaso, hizkuntzaren beste zenbait erabilera berezi). Ikusi ditugu goian hizkuntza figuratiboaren hiru adibide; azter ditzagun orain beste bi hauek:

#### FIKZIOA

—Familia honetan ez dago sekreturik! —esan zuen Aitak.

Eskuan Martinaren koaderno astintzen zuen. Martinak egun batzuk lehenago ezkutuan erosi zuen sarrailadun koaderno hura, azal arrosak zituena, eta estanzazioan txoriak, konposizioan zuten tokiaren arabera hegalak zabalik edo itxita. (Mesa 2022: 9)<sup>6</sup>

#### TXANTXA

Ingeleseko eskola-orduan, mahaiez mahai dabil Adei, denei ere zerbait galdezka. Anerren mahaira iritsi da, eta galdetu dio:

—Zer esan nahi du «I don't know» horrek?

—Ez dakit.

—Ene, ez daki inork!

Lehenengo adibidean, Sara Mesa idazleak ez du uste egia denik Aitak «Familia honetan ez dago sekreturik!» esan duela, eskuan Martinaren koaderno, Martinak ezkutuan erosia, sarrailaduna eta txori-marrazkiduna. Bigarrenean, txistea kontaktzen ari denak ez du uste egia denik Adei mahaiez mahai ibili dela ingeleseko eskola-orduan, eta azkenean Anerregana iritsi eta galdetu diola zer esan nahi ote duen «I don't know» horrek, eta Anerrek

<sup>6</sup> Honelaxe dio jatorrizkoak:

—¡En esta familia no hay secretos! —dijo Padre.

Agitaba en la mano el cuaderno de Martina, un cuaderno con cerradura que ella había comprado a escondidas días atrás, con las cubiertas rosas y un estampado de pájaros con las alas abiertas o cerradas según su lugar en la composición.

(Mesa 2022: 9)

erantzun «Ez dakit», eta horrekin nahastuta Adei kexu dela inork ez dakielako zer esan nahi duen ingelesezko esapideak. Fikziozko lanetan eta txisteak kontatzean, beraz, faltsuak direla uste dugun gauzak esaten ditugu, gezurtiak nola. Aldea, engainatzeko asmoan datza: gezurtiak entzuleari sinetsarazi nahi dio egia dela  $p$ ; fikzioan edo txantxetan ari garenean, entzuleak ez digu sinetsarazi nahi  $p$  egia denik edo berak hala dela uste duenik. Hori da gezurren definizioan 4) baldintza, engainatzeko asmoarena, behar dugula defendatzen duten autoreen argudioa.

Ikuspegi horrek arazo bat baino gehiago du. Hasteko, fikziozko diskurtsoak egiarekin duen harremana auzi korapilatsua da, eta ez da horren erraz onartzekoa fikzioan esandakoak gauza faltsuak direnik. Eztabaidagarria da, behintzat. Txantxen kasuan ere, berdin. Ez naiz ni hemen putzu horietan sartuko; ikus, esaterako, Friend (2017) edo Kroon eta Voltolini (2019) pragmatikaren esparruan fikzioari lotuta aztertu diren auzietara gerturatzeko.

Bada beste arazo bat nabarmena. Onartuko bagenu gezurra esateko nahitaezkoa dela entzulea engainatzeko asmoa izatea, orduan ezingo genituzke gezur lotsagabe deritzenak (*bald-faced lies*) azaldu. Begira honako adibide honi:

Dekano batek beldur die ikasleen kexei, eta erabakia du ez duela inoiz ikasle bat plagio egiteaz salatuko, ez bada ikasleak berak onartzen duela plagio egin izana. Gaur irakasle batek ikasle bat dekanoa-renera bidali du, plagio egin baitu lan batean. Dekanoak aurrean du ikaslearen lana, eta nabarmena da plagioa, ez dago inolako zalantzarik. Ikasleak, ordea, badaki dekanook ez duela zigortuko ez badu onartzen plagio egin izana. Dekanoak galdetzen dio ea plagio egin duen, eta ikasleak erantzun:

(6) Ez dut plagio egin.

(Jatorrizko adibidea Carsonena [2006: 290] da, baina moldatu egin dut nik.)

Zenbait autoreen arabera (Carson 2006; Fallis 2009; Saul 2012; Sorensen 2007; Stokke 2013), gisa horretako adibideak gezurrak dira, gezur lotsagabeak, nahiz eta hitzunik ez duen entzulea engainatzeko asmorik. Adibide horiek darabiltzate argudiotzat erakusteko gezurren definizioak ez duela 4)

baldintza, engainatzeko asmoarena, behar. Izan ere, adibide horiek erakusten dutenez, badira entzulea engainatzeko asmorik ez duten gezurrak.

Gezur lotsagabeak nahiko kasu bereziak dira, eta horien adibideak ez dira, nire ustez, oso naturalak edo erraz onartzekoak askotan. Eztabaidari, argia baino, arrea ekarri diote maiz. Hala eta guztiz ere, bat nator azken autore horien ondorioekin: engainatzeko asmoa ez da nahitaezkoa gezurra definitzeko. Izan ere, 1) baldintza, esatearena, ondo eta zehatz definitzen badugu, horrekin nahikoa izango dugu gezurrak eta hizketa figuratiboa, fikzioa eta txantxak bereizteko. Ez dugu, beraz, aparteko laugarren baldintza hori behar.

Lau baldintza horien ingurukoak dira, bada, gezurren azterketan irekiak dauden eztabaida nagusiak. Bada auzi bat, ordea, eztabaida horiek emantzat jotzen dutena: gezurtiak  $p$  esan (edo baieztatu edo baietsi) egingen du. Alegia, gezurren definizioek, oro har, ez dute aintzat hartzen auresuposizio bidez edo inplikatura bidez komunikaturiko uste faltsurik. Autore bakan batzuek zalantzan jarri dute postura hori: Viebahnek (2020) defendatu du auresuposizio bidez komunikaturiko uste faltsuak gezurtzat jo beharko genituzkeela, eta Marsilik (2021) argudiatu du batzuetan baiezpenez bestelako hizketa-ekintzen bidez esaten dugula gezurra (promesa bidez, esaterako). Meibauerrek (2005, 2011, 2023) inplikatura bidezko gezurrik ere badela argudiatu du, eta horren alde egin dut nik ere duela gutxi (Garmendia 2023). Lan honen bigarren erdian, auzi hau zehazki zertan datzan azalduko dut: inplikatura ez-zintzoak zer diren eta zein korapilo sortzen duten gezurren azalpen pragmatikoaren mapan. Azalduko dut zergatik uste dudan inplikatura horiek gezurtzat hartu behar direla, eta bidenabar defendatuko dut hiztunaren konpromisoaren ideian oinarrituta azaltzen direla ondoen gezurrak, oro har, eta inplikatura bidezko gezurrak, zehazki.

### 3. Esaten ez diren gezurrak

Hiztunak, esaten duena baino gehiago komunikatu ohi du. Esaldi bat egitean, inplikaturak ere komunikatzen ditu hiztunak —baita auresuposio-

zioak ere, eta beste zerbait ere bai akaso; baina inplikaturetara mugatuko dut nire azterketa hemen—. Adibidez, hitzun batek, oso normal eta natural inplika dezake ohera doala «Nekatua nago» esanda. Testuinguruari lotu-lotuak daude inplikaturak: festa batean bagaude eta goizeko ordu txikiak badira, hitzunak inplika dezake etxera joan nahi duela «Nekatua nago» esanda; edo, zinemara joan nahi dudana galdetu badidazu, eta nik «Nekatua nago» erantzun, ziurrenik inplikaturako nizun ez dudala zinemara joan nahi. Une oro, naturalki, normal-normal, komunikatzen dizkiogu elkarri inplikaturak, esaten dugunetik harago.

Begien bistakoa da hitzun batek, esan duena faltsua dela uste izan dezakeen bezalaxe, uste izan dezakeela inplikatutako duena faltsua dela. Horraino denok geundeke ados. Ebatzi beharreko auzia honako hau da: faltsua dela uste duen zerbait inplikatutako duen hitzunak gezurra esan duen ala ez. Hona hemen inplikatura ez-zintzoen adibide bat:

John eta Mary duela gutxi hasi dira elkarrekin ateratzen. Valentino Maryren bikotekide ohia da. Gau batean, zera galdetu dio Johnek Maryri: «Egon al zara Valentinorekin aste honetan?»; eta Maryk erantzun: «Valentinok bi aste daramatza mononukleosiarekin gaitxo». Valentinok, egiaz, bi aste daramatza mononukleosiarekin gaitxo; baina egia da, halaber, Maryk hitzordua izan duela Valentinorekin bart gauean. Gezurra esan al du Maryk? (Coleman eta Kay 1981: 31)

Maryk egia dela uste duen zerbait esan du eta, horrekin, faltsua dela uste duen zerbait inplikatutako du. Hortaz, gezurra esan al dio Maryk Johni? Edo, akaso, engainatu du, baina gezurrik esan ez? Hori da argitu nahi duguna. Faltsua dela uste dugun zerbait inplikatzea gezurra esatea dela defendatzen duen ikuspegiak ez du jarraitzaile asko<sup>7</sup>. Meibauerrek (2005, 2011, 2023) ikuspegi horren alde egin du, eta halaxe egin dut neronek ere (Garmendia 2023); gezurren teoriarari gehienek, ordea, aurkako posizioa defendatu dute (Adler 1997; Chisholm eta Feehan 1977; Dynel 2011; Fallis 2009; Horn 2017; Saul 2012; Stokke 2013; Vincent eta Castelfranchi 1981).

<sup>7</sup> Elkarriketa-inplikatura partikularizatuei (*particularized conversational implicatures*, PCI) buruz ariko naiz soilik lan honetan, horiek baitira auzia ondoen erakusten dutenak —kasurik eztabai-dagarrienak—. Inplikatura konbentzional ez-zintzoei buruz, ikus Viebahn (2020), Stokke (2017).

Hiztun arrunten intuizioei erreparatzea lagungarri dateke auzi hau ebatzeko. Nolanahi ere, azterketa esperimentalek ez dute oraingoz emaitza erregularrik eman: badirudi hiztun arruntek gezurtzat jotzen dituztela zenbait inplikatura ez-zintzo, baina ez denak eta ez beti (ikus Weissman eta Terkou-rafi 2019; Wiegmann eta Willemsen 2017; Hardin 2010; Wiegmann eta Meibauer 2019).

Badirudi, beraz, hiztunen intuizioei erreparatzen badiegu ikusiko dugula ez daukagula oso argi, oro har, gezurren muga zein den. Esatearen teoriek, ordea, defendatzen dute argia eta zehatza dela muga hori: hiztunak esan (baieztatu, baietsi) egin badu faltsua dela uste duena, orduan gezurra esan du; gainerakoan, ez. Nekez azal dezakete teoria horiek badela zenbait inplikatura ez-zintzo hiztun arruntek gezurtzat joko luketena. Horixe da auzi honetan askatu nahi dugun korapilo nagusia.

Inplikatura ez-zintzoak ez direla gezurrak defendatzeko, hiztunaren konpromiso eta erantzukizunetara jotzen dute esatearen teoriariek. Honela dio Hornek:

Gezurra esaten badizut, egin dudan ekintza ilokutibo horren gaitzespena niretzat da osoki; intenzionalki engainatzen bazaitut, elkarrekin eraiki dugu iruzurra, eta erantzukizuna hiztunak eta entzuleak partekatzen dugu. (Horn 2017: 39-40)

Ildo berean ulertu ohi da MacIntyre-k Kanten ikuspegiak egiten duen irakurketa:

Kanten iritzi, beraz, nire eginbeharra egia dena soilik baieztatzea da, eta nik esandakotik edo nik egindakotik besteek atera ditzaketen inferentzia okerrak, kasu batzuetan behintzat, ez dira nire erantzukizuna, haiena baizik. (MacIntyre 1994: 337)

Esatearen teoriek dituzten mugak eta ezinak azaleratu eta gezurren ezau-garritze egokiagoa zertzeko, konpromisoaren ideian oinarrituriko teoriak proposatu dira azkenaldian, hain justu. Gezurak, esandakoan ez, eta hiztunaren konpromisoan oinarrituta ulertu behar direla defendatzen dute konpromisoaren teoriariek: alegia definizio tradizionalaren 1) baldintza ego-kitu egin behar dela, eta konpromisoaren terminotan eman. Bide horretatik

jo dut nik ere. Zehatzago esanda, defendatu dut (Garmendia 2023) hitzunaren konpromisoan oinarrituta azal dezakegula gezurrak zer diren, eta halaber azal dezakegula zergatik jo ohi ditugun zenbait inplikatura ez-zintzo (baina ez denak oro) gezurtzat.

Argitu dezadan zer den hitzunaren konpromisoa, zein diren haren erantzukizunak, eta zer erakusten diguten bi nozio horiek inplikatura bidezko gezurrei buruz.

### 3.1 Konpromisoa eta erantzukizunak

Esaldi bat egiten dugun bakoitzean, horren edukiren batekiko konpromisoa hartzen dugu. Eduki batekiko konpromisoa hartzeak esan nahi du eduki horren egiarekiko erantzukizuna hartzea, eta eduki baten egiarekiko erantzukizuna hartzeak esan nahi du hitzunak nahi duela entzulea konturatzea hitzunak nahi duela entzuleak uste izatea hitzunak uste duela eduki hori egia dela. Hori da, funtsean, ekintza komunikatibo ororen oinarrian dagoena: ez ditugu hitzak ebakitzen, zergatik eta gure ahotsa entzun nahi dugulako, edo ahots-kordak berotu nahi ditugulako —edo ez dira horiek, behintzat, hemen axola zaizkigun esaldiak—. Esaldi bat egitea beti da, guri dagokigun zentzuan, ekintza komunikatibo bat, konpromisoak hartzeko modu bat.

Datozenetan berebiziko garrantzia izango du hitzunen konpromisoak atzemateak; alegia, argitu beharko dugu halako hitzunen konpromisorik baduen eduki batekiko ala ez. Horretarako, test gisara, konpromisoen alderdi normatiboetan oinarrituriko ezaugarritzea erabiliko dut: eduki batekiko konpromisoa hartzeak esan nahi du hitzunari kargu har diezaiokegula eduki horri dagokionez, eta hitzunak erantzukizun diskurtsiboa duela eduki horri dagokionez<sup>8</sup>.

---

<sup>8</sup> Hurbilpen askotatik definitu dira hitzunaren konpromisoak (Alston 2000; Morency *et al.* 2008; ikus de Brabanter eta Dendale 2008). Horien artean, Marsilik (2021) defendatu duen ikuskera iruditzen zait zuzenena, eta haren terminologia baliatuko dut. Dena den, Marsiliren helburua eduki esplizituen bidez adierazten diren gezurrak aztertzea da —ez aurreuposizioz, ez inplikaturarik— eta, beraz, baieztapenen mailako konpromisoak aztertzen ditu. Nire helburua maila esplizitu

### Konpromisoaren alderdi normatiboak

KARGU HARTZEA (*accountability*): hiztun batek bere esaldiaren eduki batekiko konpromisoa hartzen duenean, eta eduki hori faltsua dela jakiten badugu, orduan, entzuleak hiztuna kritika/gaitzets/arbuia dezake —kargu har diezaioke—.

ERANTZUKIZUN DISKURTSIBOA (*discursive responsibility*): hiztun batek bere esaldiaren eduki batekiko konpromisoa hartzen duenean, espero da: a) ez duela bere burua kontraesango eta, b) hala eskatuz gero, konpromisoa duen eduki horren egia justifikatuko duela.

Bi alderdi horiek funtsezko zaizkio hiztunaren konpromisoari. Nolanahi ere, konpromiso mailak eta mailak daude: hiztun bat egon daiteke eduki batekiko gehiago edo gutxiago konprometitua. Pentsa, adibidez, honako adibide hauetan:

- (7) Emma mozkorra zegoen bart.
- (8) Zin dagit Emma mozkorra zegoela bart.
- (9) Dirudenez, Emma mozkorra zegoen bart.

Marsilirenak dira hiru adibide horiek (2021: 3262). Lehenengoan hiztunak baieztapen bat egin du eta, beraz, konpromisoa du esan duen horren egiarekiko: pentsa, adibidez, Emmak nola kargu hartuko liokeen hiztunari, baldin eta faltsua balitz mozkortu egin zela bart. Bigarren adibideak, (8)k, erakusten du hiztunaren konpromisoa indartu egin daitekeela zenbait aditz performatibo erabiliz gero: kasu honetan, hiztunak zin egin du, eta ez baieztatu, eta horrek eragin egiten dio bere konpromiso mailari. Kontrara ere gerta daiteke: hiztunak, indartu ez, eta ahuldu egin dezake esandakoarekiko duen konpromisoaren maila —zenbait modifikatzaile erabilita, adibidez, (9) n egin duen gisan—<sup>9</sup>.

---

zitutik harago joatea denez, eta inplikaturak ere kontuan hartu nahi ditudanez gezurrak definitzerakoan, konpromisoaren bi alderdi horien ezaugarritze apur bat orokorragoa erabiliko dut.

<sup>9</sup> Modifikatzaile ebidentzialak eta modal epistemikoak aipatzen ditu Marsilik (2021: 3262). Euskarazko partikula ebidentzialei buruz —*omen* eta *bide*, esaterako—, ikus Korta eta Zubeldia (2014, 2022).



Hiztunak, beraz, konpromisoa du, oro har, esaten duenarekiko, baina konpromiso hori graduala da eta hiztuna egon daiteke gehiago edo gutxiago konprometitua eduki batekiko. Oso gogoan izan behar dugu gradualtasun hori inplikaturak aztertzen ari garenean.

### 3.2 Inplikaturekiko konpromisoa

Hiztunak konpromisoa du esaten (edo baieztatzen, edo zin egiten) duenarekiko. Orain, guk jakin nahi duguna da ea inplikatzeko duenarekiko ere konpromisorik baduen hiztunak, eta horrek ez dirudi horren auzi argia, bai baitirudi ezin zaiola hiztunari inplikatu duenaz kargu hartu. Izan ere, inplikaturak ezabagarriak (*cancellable*) dira (Grice 1967a/1989: 39; Grice 1967b/1989: 44-46), eta, hortaz, baita ukagarriak (*deniable*) ere.

Ukagarritasunak zera esan nahi du: egia dela uste duen zerbait esan eta faltsua dela uste duen zerbait inplikatu duen hiztunak uka dezakeela gero, inork kargu hartzen badio, halako inplikatura komunikatzeko asmorik zuenik. Ekar dezadan gogora lan honen hasieran aipatu dudaren dietaren adibidea (1), eta gehi diezaiodan inplikatura bidezko aldaera bat (10), argi ikus dezagun ezin zaigula berdin kargu hartu esan dugunaz edo inplikatu dugunaz, eta halaber ulertzeko nola eragiten dion ukagarritasunak alde horri:

Itzea dieta egiten ari da, eta egunero zer bazkaldu behar duen agintzen dion otordu-zerrenda zorrotza dauka. Erenek badaki hori. Gaur asteartea da. Zerrendaren arabera, Itzeak entsalada bazkaldu behar zuen gaur; pizza bazkaldu du, ordea.

Eren: Zer bazkaldu duzu gaur?

Itzea: (1) Entsalada bazkaldu dut.

(10) Astearteetan entsalada tokatzen zait.

Zer gertatuko litzateke Erenek jakingo balu Itzeak, egiaz, pizza bazkaldu duela? Faltsua den zerbait esan digutela jakiten dugunean egin ohi duguna egingo luke, ziurrenik: kargu hartuko lioke Itzeari, eta galdetu ea zergatik esan dion entsalada jan duela.

Itzea saia daiteke bere burua zuritzen. Ez du hori berdin egin ahal izango, Ereni (1) edo (10) esan dion: astearteetan entsalada tokatzen zaiola esan badio (10), orain argudia dezake ez ziola horrekin adierazi nahi ez duenik gaur entsaladarik jan —alegia, saia daiteke bere inplikatura ukatzen—. Aitzitik, Itzeak Ereni esan badio entsalada bazkaldu duela (1), orain ezingo du, inolaz ere, hori adierazi nahi izan duela ukatu. Badirudi horrek erakusten duela esaten dugunaz kargu har diezaguketela, baina ez, ordea, inplikatzeko dugunaz, eta, hortaz, erakutsiko luke konpromisoa dugula esaten dugunarekiko, baina ez inplikatzeko dugunarekiko.

Ukagarritasunaren probak erakutsiko luke, orduan, hiztunek, oro har, ez dutela konpromisorik inplikaturekiko eta, beraz, ez direla gezurretan ari faltsutat duten zerbait inplikatzeko dutenean. Ikusi dugu, aitzitik, azterketa esperimentalek ez dutela hori erakusten: zenbait inplikatura ez-zintzo ez dira gezurtzat jotzen, baina beste batzuk bai. Alde horren zergatia azaltzea da erronka.

Auzi horri erantzuteko, inplikaturen beste ezaugarri funtsezko bat ekarri behar dugu gogora: ezabagarri izateaz gain, inplikaturak indeterminatuak dira (Grice 1967a/1989: 40), eta ahulago edo gogorrago komunika daitezke<sup>10</sup>. Horrek esan nahi du kasu batzuetan argi eta garbi ikusiko dugula zer den hiztun batek esaldi batekin inplikatua nahi izan duena eta, beste batzuetan, aldiz, zalantza egin dezakegula zer ote zen hiztunak benetan inplikatua nahi zuena, edo inplikatura jakin bat komunikatu nahi ote zuen edo ez. Beste hitz batzuekin esateko: kasu batzuetan, inplikatura bat beharrezkotzat jotzen dugu, elkarriketak kooperazioari eta errelebantziari eutsiko badio; beste kasu batzuetan, baliteke argi ez egotea inplikatura hori behar den edo ez. Inplikaturen gradualtasun horrek eragin egiten dio, hasteko, horien ukagarritasunari, eta, ondorioz, baita hiztunaren konpromisoari ere.

Inplikatura batzuk, ahulenak, erraz ukatzekoak dira; inplikatura gogorragoak, ordea, nekez uka ditzake hiztunak. Ukagarritasunaren gradualtasun hori zuzen-zuzenean lotzen zaio hiztunaren konpromisoen gradualtasunari: hiztunak konpromiso handiagoa du inplikatura gogorrekiko, inplikatura

<sup>10</sup> Ahul eta gogor, Errelebantziaren Teoriaren zentzuan (Carston 2002: 380).

ahulekiko baino. Horrenbestez, konpromisoa ez da beti bat-bera inplikaturetan, eta horrek azal dezake, dagoeneko nabarmena izango denez, azterketa esperimentaletan atzeman dugun irregulartasuna. Izan ere, inplikatura ez-zintzoak ez dira denak konpromiso maila berekoak izango eta, ondorioz, horien artean batzuek izango dute nahikoa konpromiso geurtzat jotzeko eta, beste batzuek, ordea, ez.

Inplikaturekiko dugun konpromisoa graduala da, eta gradualtasun horrek azaltzen du zergatik ez dugun iritzi beti-bera inplikatura ez-zintzoak sailkatzean. Balio dezake horrek gezurrak konpromisoan oinarrituta ulertzen direla ondoen defendatzen duen ikuspegiaren alde egiteko —gezurrak *esan* egiten direla dioten hurbilpenek ezin baitute irregulartasun hori azaldu—. Aitzitik, horrek ez du ezeztatzen inplikatura ez-zintzoak ez direla gezurrak defendatu dutenen ikuspegia: konpromisoak gradualak direla onartuta ere, eta hiztunek badutela nolabaiteko konpromisoa inplikatura batzuekiko, hala ere, defenda daiteke inplikaturekiko dugun konpromisoa ez dela inoiz esaten dugunarekiko dugun konpromisoaren maila berekoa (ikus, adibidez, Morency *et al.* 2008: 212).

Horren aurrean, eta ulertzeko inplikaturekiko dugun konpromisoa ez dela esaten dugunarekiko dugun konpromisoaz horren desberdina, hizketa figuratiboari begiratu besterik ez dugula defendatu dut (Garmendia 2023). Horretarako, baina, begirada jaso eta lan honen lehen atalean marraztu dudana mapari goraxeagotik begiratzea dagokigu.

### 3.3 Gezurrak, hizkuntza figuratiboa eta gezur figuratiboak

Lan honen lehen atalean, gezurren definizioaren bueltan irekiak dauden auzi nagusiak ekarri ditut. Hor ikusi dugu badela auzi bat baldintza bati baino gehiagori korapiloa egiten diona: desberdindu behar ditugu gezurrak eta hizketa figuratiboa, bi gauza direlako, bi eta desberdinak, eta gure definizioak bereizi behar ditu horrenbestez. Ikusi dugu, halaber, bereizketa hori egin nahi izan dela bi modutara behintzat bai: esatearen nozioa zorrotzuz —gezurretan *esan* egiten dugulako, hizketa figuratiboan ez— edo definizioari engainatzeko asmoaren baldintza gehituz —gezurriak engainatu egin nahi

gaituelako, hiztun figuratiboak ez—. Ikusi dugu bi bideek badutela korapiloric. Dena den, bada hirugarren bide bat, garbiagoa eta zuzenagoa: konpromisoak bereizten ditu gezurtia eta hiztun figuratiboa.

Beste bi bideei ekin dioten autoreen oinarrian datza, egia esan behar bada, konpromisoaren ideia. Irudipena badugu hiztun figuratiboak ez duela *p* esaten, edo iruditzen bazaigu ez duela engainatzeko asmorik, hori da, hain zuzen, hiztun horrek ez duelako konpromisorik hartzen *p*-rekiko. Konpromisoaren muinean zehaztu ditudan bi alderdiei erreparatzen badiegu, aise ikusiko dugu hori.

Konpromisoa hartu duen hiztunari, esan duena faltsua bada, kargu har diezaiokegu; halaber, konpromisoa duen hiztunak erantzukizun diskurtsiboa du esandakoarekiko. Hiztun figuratiboek ez dute ez bata ez bestea betetzen. Ainhoak Aitzoli esan dio (3) «Zu zara nire bihotzeko azukre-koxkorra»; Aitzolek, ordea, ez dio kargu hartuko, zergatik eta faltsua den zerbait esan diolako. Aitzolek, izan ere, ulertu du Ainhoa metaforikoki ari zaiola, eta, beraz, ez duela konpromisorik «esan» duenaren egiaiekiko. Berdin ironiarekin eta hiperbolearekin: ez diogu Erosi kargu hartuko faltsua delako egun zoragarria denik gaurkoa, eta Eunatek ez dio kargu hartuko Zuharari hura ez delako *milioika* kontzertutan izan. Hizkuntza figuratiboa erabiltzen dugunean ezin digute kargu hartu *p* faltsua delako, figuratiboki ari garela ulertu duenak ulertu baitu ez dugula *p* horrekiko konpromisorik.

Era berean, Erosek jarrai dezake bere erretolika purrustaka, hemengo eguraldiaz kokoteraino dagoela esanaz. Hori egin dezake, ez duelako erantzukizun diskurtsiborik bere esaldi ironikoaren eduki literalarekiko: (2) «Beste egun eder eta zoragarri bat Euskal Herriko negu epelean». Berdin beste bi hiztunen kasuan ere: Ainhoak ez du zertan bere diskurtsoan jarraitu Aitzol azukre puska bat balitz bezala, edo ez litzateke irrazionala edo ez-kooperatiboa Zuharak esatea (4) «Milioika kontzertutan izana naiz nire bizitzan; zehazki, 357tan izana naiz». Figuratiboki ari den hiztunak ez du erantzukizun diskurtsiborik *p*-rekiko, ez baitu horrekiko konpromisorik.

Auzi honi lehenengo bidetik heldu eta defendatzen zutenek hiztun figuratiboak ez duela *esaten*, arrazoi zuten, neurri batean: baina, ohar gaitezen, ez duela esaten, ez duelako konpromisorik hartzen. Esatea beti da konpro-

misoak hartzeko ekintza, eta horregatik diot nik ere, Griceri jarraituz, hiztun figuratiboak, esan ez, eta esango balu bezala egiten duela.

Ironia, metafora eta hiperbolea ez dira, ordea, konpromisorik batere ez duten hizketa-ekintzak. Hitztunak, figuratiboki ari denean, bere esaldiaren eduki literala (p) esango balu bezala egin eta beste zerbait komunikatzen du: inplikatura batzuk —eta horiekikoa da hitzunaren konpromiso erabatekoa—. Hizkuntza figuratiboa berezia da, ez konpromisorik gabea delako, baizik eta hitzunaren konpromisoa erabat inplikaturekikoa delako. Ezaugarri horrek egiten ditu berezi hitzun figuratiboak, eta ezaugarri horrek lagunduko digu argitu nahi dugun auzia ebazten.

Hemen utzi dugu inplikatura ez-zintzoen eztabaida: onartuta ere konpromisoak gradualak direla eta izan dezakegula konpromiso gehiago edo gutxiago gure inplikaturekiko, erakusteko dago inplikaturekiko konpromisoa izan ote daitekeen inoiz esaten dugunarekiko dugun konpromisoa adinakoa. Argudiatuko dut baietz, eta horrenbestez defendatuko dut inplikatura ez-zintzoak izan daitezkeela gezurrak.

Inplikaturekiko dugun konpromisoaren gradueltasuna islatzen da horien ukagarritasun maila aldakorrean. Esaten duguna ez da ukagarria, horregatik onartzen dugu denok hitzunak zalantzagabeko konpromisoa duela esaten duenarekiko. Badira, ordea, uka ezin daitezkeen inplikatura batzuk ere; ez dute, beraz, konpromiso hala-holakoa, ezpada esandakoarekiko dugun adinako konpromiso erabatekoa. Figuratiboki hitz egiten duten hitzunen konpromisoa aztertzeak erakutsiko digu hori. Har ditzagun hitzunak faltsua dela uste duen zerbait figuratiboki inplikatzeko duen adibide batzuk, eta azter dezagun ea baden inplikatura horiek ukatzeko aukera txikienik ere. Has gaitezen ironia kasu batekin: hitzunak, ironia baliatuz, faltsua dela uste duen zerbait komunikatuko dio entzuleari. Argitu nahi duguna da ea hitzunik baduen modurik ukatzeko inplikatura horiek komunikatzeko asmoa zuenik.

#### IRONIA

Xabi eta Maitane fisikako azterketa egitera doaz. Xabik ondo prestatu du azterketa, baina badaki hori onartzea ez litzatekeela batere

*guaita*. Maitanek galdetu dionean ea asko ikasi duen, begiak bildu eta esan du:

Xabi: (11) Ufa, bai! Einsteinek baino gehiago dakit honezkero fisikaz<sup>11</sup>.

Xabiren arrebarekin hizketan ari dela, Maitanek jakin du Xabik azterketarako asko ikasi zuela eta 10 atera duela. Xabik engainatu egin zuela sentitu du Maitanek, eta berehala hots egin dio, eta kargu hartu, ez ziolako egia esan. Xabik, bere burua zuritu nahi badu ere, ezin uka dezake Maitaneri uste izanarazi nahi izan zionik ez zuela ikasi. Zergatik ezin du hori ukatu? Bada, inplikatura hori ukatuko balu, halaber ukatuko lukeelako ironiko izateko asmoa zuela, eta, ez bazuen ironiko izateko asmorik, horrek esan nahiko luke *esan* egin zuela Einsteinek baino gehiago dakiela fisikaz, eta horrekiko konpromisoa hartu zuela —eta horrek ez du inolako zentzurik—.

Hiztun ironikoak gehiago edo gutxiago determinaturik dauden inplikaturen multzoa komunikatzen du, eta horien baturak osatzen du esaldiaren «eduki ironikoa». Garrantzitsua dena zera da: hiztunak nahitaez inplikatu behar duela beti *zerbait* ironia bidez; bestela, bere esaldia hutsala litzateke (Garmendia eta Korta 2007; Garmendia 2013, 2018). Horrela uler daiteke hobeto zergatik ezin dituen hiztunak, hala nahi izanda ere, inplikatura horiek (denak) ukatu. Horri lotuta, Kapogiannik (2018) aztertu du ea estrategia ironiko desberdinek eragiten ote duten komunikaturiko inplikaturen gogortasun mailan —eta, beraz, inplikatura horiek «ezabatze» zailtasunean—. Ez diot hari horri gehiago tirako hemen, ordea.

Metaforari eta hiperboleari erreparatu behar diegu orain. Adibide honetan, hiztunak faltsua dela uste duen *zerbait* metafora bidez komunikatu dio entzuleari:

#### METAFORA

Maddi eta Mikel senar-emazteak dira. Maddi aspaldi aspertu da Mikelez, jada ez du maite, eta banatzeko asmoa du. Ez du, ordea, Mike-

<sup>11</sup> Jatorrizkoa Viebahnena da (2017: 1368), baina moldatu eta egokitu egin dut.

lek bere asmoen berri izaterik nahi oraindik. Mikelek badu susmorik, eta maite al duen galdetu dio Maddiri, eta Maddik erantzun:

(12) Zu zara nire bihotzeko azukre-koxkorra.

Maddik Mikeli esan dio (12) «Zu zara nire bihotzeko azukre-koxkorra» eta, horrekin, inplikatu dio maite duela. Biharamunean, ordea, Mikelek jakin du Maddik banatzeko asmoa duela, eta kargu hartu dio, galdetu zionean asko maite zuela erantzun ziolako. Nekez ukatuko du Maddik hori komunikatu nahi izan zionik (12) esaldiarekin: zein zentzu luke, bestela, esaldi hori egiteak? Ezinezkoa da Maddiren asmoa esaldiaren eduki literala *esatea* izatea; ezinezkoa da Maddik esan nahi izatea Mikel, benetan, bihotzean duen azukre puska bat dela.

Eta berdin gertatzen da hiperbolearen kasuan ere. Hartu gogoan honako adibide hau:

#### HIPERBOLEA

Maite harroputz hutsa da, sasijakintsua. Lagun-taldean musikaz hitz egiten ari dira gaur, eta ezin hura isilik geratu, nahiz eta ez dakien deus musikari buruz —ez da sekula kontzertu batean izan—. Hai-zeak, gogaiturik, «Zer dakizu ba zuk musikaz?» galdetu dio, eta Maitek erantzun:

(13) Milioika kontzertutan izana naiz ni.

Haizeak, nik ez dakit nola, jakin du Maite ez dela sekula kontzertu batean izan, eta kargu hartu dio. Nola uka lezake Maitek (13) «Milioika kontzertutan izana naiz ni» esaldiarekin kontzertu askotan izana dela inplikatu nahi zuenik? Inplikatura hori erabat determinatua dator edo, nahi bada, oso gogorki komunikatu du hiztunak. Maitek ezingo du gero, bada, hori komunikatu nahi izan duenik ukatu.

Hiperbolea, metafora edo ironia baliatu dituen hiztunak ez du konpromisorik hartzen bere esaldiaren eduki literalarekiko eta, beraz, inplikaturek egiten dute esaldi hori errelebante edo kooperatibo. Ondorioz, hiztunek ezin dituzte inplikatura horiek ukatu, eta, hortaz, horiek esan egin balituzte bezainbesteko konpromisoa dute eduki horiekiko. Horregatik deritzot faltsua dela uste duen zerbait figuratiboki inplikatzeko duen hiztunak gezurra

esan duela, eta horrek erakusten duela badela *esan* ez eta inplikatu egiten den gezurrik.

#### 4. Ondorioa

Gezurren definizio pragmatiko gehienek defendatzen dute gezurtia dela, nor, eta faltsua dela uste duena *esan* duena. Ikuskera hori ezbaian jarri dute zenbait autorek, eta defendatu dute gezurrak hiztunaren konpromisoan oinarrituta azaltzen direla ondoen —eta ez esatearen ekintzan, orain arte egin den gisan—. Gezurtia da, beraz, esaldi bat egin, eta faltsua dela uste duen eduki batekiko konpromisoa hartzen duena. Hiztunak konpromisoa du esaten duenarekiko eta, hortaz, faltsu-ustekoa esan duen hiztuna gezurtia da. Horrenbestez, ikuspegi tradizionalak gezurtzat jotzen zituen kasu guztiak gezur dira, baita ere, konpromisoan oinarrituriko hurbilpenentzat. Aitzitik, konpromisoaren teoriak zabalagoak dira esatearen teoriak baino: onartzen badugu hiztunak konpromisoa duela, esan ez, baina beste nolabait komunikatu dituen eduki batzuekiko, orduan, esan ez diren gezurrak ere jasoko ditu gure teoriak.

Lan honen lehen zatian, gezurrak pragmatikatik aztertzen ditugunean sortzen zaizkigun korapiloak eta horiek sortu dituzten eztabaida nagusiak ekarri ditut mahaigainera. Bigarren zatian, azaldu dut hiztunaren konpromisoetan oinarrituta hobeto erantzun diezaiekegula eztabaida horiei, oro har, eta inplikatura ez-zintzoen korapiloari, zehazki.

Auzi batzuk argiago azaldu nahi nituelako, beste zenbait auzi kanpoan utzi ditut, edo ez diet duten garrantzia onartu, edo benetan direna baino sinpleagoak balira bezala aurkeztu ditut. Bada kontu bat aipatu ere egin ez dudana, eta akaso baten bati begian min egingo ziona: defendatu dut badi-rela esaten ez ditugun gezurrak, baina ez da erraza izan ikuspegi horren alde euskaraz egitea. Izan ere, euskaraz, ez daukagu ingelesezko *to lie* aditza bezain neutroa-edo den aditzik, eta daukaguna da «gezurra esan» aditz-lokuzioa. Horrenbestez, defendatzen ari nintzen, batzuetan, *esan* gabe *esaten* dugula gezurra. Saiatu naiz esan nahi nuena esateko beste bide batzuk egin eta arazoa ezkututzen, baina egingo nuen, seguru, errebuelta aldrebes sama-



rrik. Irakurleak asmatuko ahal zuen, halakoetan, hizkuntza arrunteko «gezurra esan» malgu eta orokorra eta pragmatikan terminotzat darabilgun «esan» zorrotz eta zehatzagoa bereizten, ni baino abilagoa izango da eta —hori, gezurrak bezala, esan gabe doa—.

## Bibliografia

ADLER, J.E. (1997). «Lying, deceiving, or falsely implicating», *The Journal of Philosophy* 94 (9): 435-452.

ALSTON, W.P. (2000). *Illocutionary Acts and Sentence Meaning*. Cornell University Press.

BENTON, M.A. (2017). «Lying, belief, and knowledge», in J. Meibauer (arg.), *The Oxford handbook of lying*. Oxford University Press: 120-133.

BRABANTER DE, P. eta DENDALE, P. (2008). «Commitment: the term and the notions», *Belgian Journal of Linguistics* 22 (1): 1-14.

CAMINADA, M. (2009). «Truth, Lies and Bullshit; Distinguishing Classes of Dishonesty», *Proceedings of the 2009 IJCAI Workshop on Social Simulation*.

CARSON, T.L. (2006). «The definition of lying», *Noûs* 40 (2): 284-306.

CARSTON, R. (2002). *Thoughts and Utterances*. Blackwell.

CHISHOLM, R.M. eta FEEHAN, T.D. (1977). «The intent to deceive», *The Journal of Philosophy* 74: 143-159.

COLEMAN, L. eta KAY, P. (1981). «Prototype semantics: the English word *lie*», *Language* 57 (1): 26-44.

DYNEL, M. (2011). «A web of deceit: a neo-Gricean view on types of verbal deception», *International Review of Pragmatics* 3: 139-167.

FALLIS, D. (2009). «What is lying?», *The Journal of Philosophy* 106: 29-56.

FRIED, C. (1978). *Right and Wrong*. Harvard University Press.

FRIEND, S. (2017). «The Real Foundation of Fictional Worlds», *Australasian Journal of Philosophy* 95 (1): 29-42.

GARMENDIA, J. eta KORTA, K. (2007). «The point of irony», in M. Aurnague, K. Korta eta J.M. Larrazabal (arg.), *Language, Representation and Reasoning*. University of the Basque Country Press: 189-200.

— (2013). «Ironically saying and implicating», in C. Penco eta F. Domaneschi (arg.), *What is Said and What is Not. The Semantics/Pragmatics Interface*: 225-241.

— (2018). *Irony. Key topics in Semantics and Pragmatics*. Cambridge University Press.

— (2023). «Lies we don't say: Figurative language, commitment, and deniability», *Journal of Pragmatics* 218: 183-194.

GRICE, H. P. (1967a). «Logic and conversation» (/1989), in P. Grice, *Studies in the Way of Words*. Harvard University Press: 22-40.

— (1967b). «Further notes on logic and conversation» (/1989), in P. Grice, *Studies in the Way of Words*. Harvard University Press: 41-57.

HARDIN, K.J. (2010). «The Spanish notion of lie: revisiting Coleman and Kay», *Journal of Pragmatics* 42: 3199-3213.

HOLGUÍN, B. (2021). «Lying and knowing», *Synthese* 198: 5351-5371.

HORN, L.R. (2017). «Telling it slant: toward a taxonomy of deception», in J. Giltrow eta D. Stein, (arg.), *The Pragmatic Turn in Law*. Walter de Gruyter: 23-56.

KAPOGIANNI, E. (2018). «Ironic implicature strength and the test of explicit cancellability», *Intercultural Pragmatics* 15 (1): 1-27.

KORTA, K. eta ZUBELDIA, L. (2014). «The contribution of evidentials to utterance content: Evidence from the Basque reportative particle *omen*», *Language* 90-2: 389-423.

— (2022). «Meaning and use of the Basque particle *bide*», in X. Artiagoitia, A. Elordieta eta S. Monforte (arg.), *Discourse Particles. Syntactic, semantic, pragmatic and historical aspects*. Linguistik Aktuell/Linguistics Today 276. John Benjamins: 209-227.

KRAUSS, S. F. (2017). «Lying, Risk and Accuracy», *Analysis* 77 (4): 726-734.

KROON, F. eta VOLTOLINI, A. (2019). «Fiction», *The Stanford Encyclopedia of Philosophy* (2019ko Négua), Edward N. Zalta (arg.).  
Kontsultagai: [<https://plato.stanford.edu/archives/win2019/entries/fiction/>].

LACKEY, J. (2013). «Lies and Deception: An Unhappy Divorce», *Analysis* 73 (2): 236-248.

MACINTYRE, A. (1994). «Truthfulness, lies, and moral philosophers: What can we learn from Mill and Kant?», *The Tanner Lectures*. Princeton University. (1994ko apirilak 6 eta 7).

MAHON, J.E. (2007). «A Definition of Deceiving», *International Journal of Applied Philosophy* 21 (2): 181-194.

MARSILI, N. (2014). «Lying as a Scalar Phenomenon», in S. Cantarini, W. Abraham, W. eta E. Leiss (arg.), *Certainty-Uncertainty and the Attitudinal Space in Between*. John Benjamins Publishing Company: 153-173.

— (2018). «Lying and Certainty», in J. Meibauer (arg.), *The Oxford Handbook of Lying*. Oxford University Press: 169-182.

— (2019). «Immoral lies and partial beliefs», *Inquiry* 65 (1): 117-127.

— (2021). «Lying, speech acts, and commitment», *Synthese* 199: 3245-3269.

MEIBAUER, J. (2005). «Lying and falsely implicating», *Journal of Pragmatics* 37: 1373-1399.

— (2011). «On lying: intentionality, implicature, and imprecision», *Intercultural Pragmatics* 8 (2): 277-292.

— (2014). «A truth that's told with bad intent: lying and implicit content», *Belgian Journal of Linguistics* 28: 97-118.

— (2023). «On commitment to untruthful implicatures», *Intercultural Pragmatics* 20 (1): 75-98.

MESA, S. (2022). *La familia*. Anagrama.

MORENCY, P., OSWALD, S. eta SAUSSURE DE, L. (2008). «Explicitness, implicitness and commitment attribution: a cognitive pragmatic approach», *Belgian Journal of Linguistics* 22: 197-219.

SAUL, J.M. (2012). *Lying, Misleading, & what is Said*. Oxford University Press.

SORENSEN, R. (2007). «Bald-Faced Lies! Lying Without The Intent To Deceive», *Pacific Philosophical Quarterly* 88: 251-264.

STOKKE, A. (2013). «Lying and asserting», *Journal of Philosophy* 110 (1): 33-60.

— (2017). «Conventional implicature, presupposition, and lying», *Aristotelian Soc. Supplementary* 91: 127-147.

TURRI, J. (2016). «Liar's knowledge», in J. Turri, *Knowledge and the norm of assertion*. Open Book Publishers: 34-40.

TURRI, A. eta TURRI, J. (2015). «The truth about lying», *Cognition* 138: 161-168.

VIEBAHN, E. (2017). «Non-literal lies», *Erkenntnis* 82: 1367-1380.

— (2020). «Lying with presuppositions», *Noûs* 54 (3): 731-751.

VINCENT, J.M. eta CASTELFRANCHI, C. (1981). «On the art of deception: how to lie while saying the truth», in H. Parret, M. Sbisa eta J. Verschueren (arg.), *Possibilities and Limitations of Pragmatics. Proceedings of the Conference on Pragmatics*. John Benjamins: 749-777.

WEISSMAN, B. eta TERKOURAFI, M. (2019). «Are false implicatures lies? An empirical investigation», *Mind & Language* 34: 221-246.

WHYTE, J. (2013). «Review of Lying, Misleading & What is Said», by J.M. Saul. *The Philosophical Quarterly* 64 (254): 209-210.

WIEGMANN, A. eta MEIBAUER, J. (2019). «The folk concept of lying», *Philosophical Compass* 14 (8): e12620.

WIEGMANN, A. eta WILLEMSSEN, P. (2017). «How the truth can make a great lie: an empirical investigation of the folk concept of lying by falsely implicating», in G. Gunzelmann, A. Howes, T. Tenbrink eta E.J. Davelaar (arg.), *Proceedings of the 39<sup>th</sup> Annual Conference of the Cognitive Science Society*. Cognitive Science Society: 3516-3621.



# **Maria SS.<sup>a</sup> Concepciocoaren Sermoia (1772an predikatua): Larramendiren beste sermoi baten kopia ote?<sup>1</sup>**

**Maria SS.<sup>a</sup> Concepciocoaren Sermoia (predicado en 1772): ¿copia de otro sermón de Larramendi?**

**Sermon de Maria SS.<sup>a</sup> Concepciocoa (prononcé en 1772) : s'agit-il de la copie d'un autre sermon de Larramendi ?**

**Maria SS.<sup>a</sup> Concepciocoaren Sermoia (preached in 1772): a copy of another sermon by Larramendi?**

LAKARRA, Joseba A.

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

joseba.lakarra@ehu.eus

ORCID: <https://orcid.org/0000-0003-2014-2025>

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v1i70.295>

Jasotze-data: 2024/07/19

Behin-behineko onartze-data: 2024/12/03

Behin betiko onartze-data: 2024/12/10

---

<sup>1</sup> Egitasmoak: Zientzia eta Berrikuntza Ministeritzaren «Monumenta Linguae Vasconum. VI. Avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca» (PID2020-118445GB-I00) eta EJRen «Hizkuntzalaritza Diakronikoa, Tipologia eta Euskararen Historia / Diachronic Linguistics, Typology and the History of Basque» [Eusko Jaurlaritza, IT1534-2] laguntza jaso du.

Laburdura eta sigla bereziak:

AJF = Antso Jakitunaren Fundazioa; AndS. = Agustin Leitzakoaren Omenezko *Andoaingo Sermoia* (1764); AS = *Asuntzioko Sermoia* (1740); AzkS. = *Azkoitiko Sermoia* (1737); b.l. = baino lehen; BurDot. = *Burgosko Dotrina* (1747); EKC = *Euskal Klasikoen Corpusa*; HH = *Hiztegi Hirukoitza* (1745); KS = *Kontzepzioko Sermoia*; L. = Larramendi; LEM = Lehen Euskara Modernoa; LitB. = Literatura bizkaieraz; LitG. = Literatura gipuzkeraz; MendSG. = *Mendibururi egin Sarre-  
ra Gutuna* (1747); OEH = *Orotariko Euskal Hiztegia*; SAgS. = *San Agustinen Sermoia* (~ 1750). OEHko laburdurak erabiliko dira lekukotasun aipatueneztat; gainerakoak osorik emango dira.

*Laburpena*

Arestiko lan batean (Lakarra 2023a) egile, data eta tokirik gabeko *Asuntzioko Sermoia* (aurrerantzean AS) Loiolan 1740ko abuztuaren 14an Manuel Larramendik emandakoaren kopia dela erakutsi genuen. Oraingoan argitaratzen dugun *Kontzepzioko Sermoia* (aurrerantzean KS) hau harekin batera gordetzen da Gasteizko Antso Jakitunaren Fundazioaren artxiboan. Honek 1772ko data darama, baina data hori ez benetako egilearen lanari, baizik kopiagile ezezagun batek nonbait (Goierri aldean, seguruenik) zuzeneko edo zeharkako kopia predikatu zueneko aldiari dagokio, ezta gorde den lekukotasuna ekoitzi zeneko urteari ere; nolana ere kopia hori(ek), originala baino zenbait urte —eta are hamarkada— modernoagoa(k) bide d(ir)a.

ASrekin gertatu ez bezala, KSrentzat peitu dugu testuaz beraz kanpoko berririk egiletasunaz edo jatorriaz eta, horrenbestez, testuaren beraren barneko analisisiaz baino ezin egin liteke oraingoz aitzina gai horien ikerketan. Era askotako arrazoi bateragarrietan funtsaturik, erakutsiko dugu KSren kopia hau (gutxienez) aurreko original baten zordun dela —beharbada tarteko kopia gehiagorena ere bai, halaber—. Orobat, hizkuntzaren analisiak, bereziki, bere lexiko hain markagarriaren azterketa xeheak, ia ezinbesteko egiten du Larramendiren eskutik atera zela ondorioztatzea. Nahiz haren AzkS., SAgS. eta (batez ere) AndS.aren mailako *omatusera* ez iritsi, sermoia ez da inolaz ere arrunta eta hain dira ugari KSren HHrekiko zorrak eta L.ren gainerako testuekiko kideetasunak, non gure azterketek ezin gindermatzaketan bestetara. Aipatu ezaugarri horiezaz landa, KSn ez dira falta era ezberdinetako (testu- eta hiztegi-) hapaxak edo ia hapaxak, 1800 arte bertakotu gabe ziren hitzak edota —HHn lekukotu ez arren— hor aurreikusitako erara L.ren beraren eta gainerako testuetan legez sortutako formak; ezin ahantz litezke, berariaz ohi baino oparoago erabiliaz haien ezagutza hedatzeko KS bezalako testu labur honetako forma errepikatuak ere.

Aurreko argudio multzo guztiaren indargarri, analisi bideetan ere berrikuntzarik ekarri nahi izan dugu; demagun, L.k sortu, «bataiatu» nahiz iturri ezberdinetarik jaso eta zabaldu zituen hitzen bidez —ez horrelako bakarraz baina hiruzpalauz— hornitutako hainbat esaldi aztertuaz; horien bidez, aurretiaz horietako bakoitzean eriden Larramendiren egiletasunaren aldeko frogak sendotzen eta are gainditzen dituzten sare lexikoak ikertu ditugu, beren froga-balioaren berebiziko garrantzia erakutsiaz.

**Gako-hitzak:** Larramendiren egiletasunaz; barneko analisisia; azterketa lexikoa; HHrekiko lotura; Larramendiren euskal testuak; sare larramenditarrak.

---

Eskerrak AJFko langileei eta zuzendaritzari emandako erraztasunengatik, Iñaki Caminori zenbait adizki eta bestelako formen inguruko laguntzagatik eta Josean Munitari ur-markekin eskainitakoagatik. Blanca Urgellek ohi bezalako testuaren irakurketa artatsua eta banan-bana aitortutakoan kedanetarik gorako iradokizun paregabeak oparitu dizkit, formaz nahiz edukinez hainbat hobetuaz aurreko idaztaldia. Azkenik, baina ez gutxienik, HIZBEAkoek ere asko lagundu didate testua txukuntzen. Gelditzen diren akats eta okerrak, neureak dira.



### Resumen

En un artículo precedente (Lakarra 2023a) mostramos que el *Sermón de La Asunción* (*Asuntzioko Sermoia*, en adelante AS) sin autor, fecha y lugar conocidos, es copia del predicado por Manuel Larramendi el 14 de agosto de 1740 en Loiola. El manuscrito del *Sermón de La Concepción* que publicamos aquí (*Kontzepzioko Sermoia*, en adelante KS), se conserva junto con el anterior en el archivo de la Fundación Sancho el Sabio de Vitoria-Gasteiz. Este trae fecha de 1772, y corresponde, con total seguridad, no al año de composición del original, escrito de mano del verdadero autor, sino al año de predicación (probablemente en Goierri) de la copia directa o indirecta realizada por otro autor desconocido; en cualquier caso, la copia o copias fueron presumiblemente realizadas años o décadas después del texto original.

Al contrario de lo ocurrido con AS, en KS carecemos de cualquier dato externo referente a su autoría y origen y, así, solo podemos avanzar en la investigación de ambas cuestiones, a partir del análisis interno del texto mismo. Basándonos en diversos razonamientos convergentes, evidenciaremos que esta copia del KS es (por lo menos) deudora de un original anterior —y quizás de más copias intermedias—. Por otra parte, el análisis lingüístico del texto, especialmente el de su marcado léxico larramendiano, hace casi inevitable concluir que efectivamente el sermón original fue compuesto por el propio Larramendi. Aunque su nivel de *ornatus* no llegue al del resto de las composiciones de AzkS., SAgS. y, sobre todo, de AndS., puede afirmarse que KS no es un sermón corriente para la época, ya que guarda numerosas reminiscencias del *Diccionario Trilingüe* y abundantes paralelismos con el resto de escritos de L., que, como decimos, nos conducen irremediablemente a reclamar la autoría del jesuíta. Además de las características citadas, no faltan en KS hapax o quasihapax (textuales y lexicográficos), voces no atestiguadas antes de 1800, o palabras que —aun no incluidas en el *Diccionario Trilingüe*—, resultan ser voces creadas a la manera del corpus allí recogido y empleadas del mismo modo que en los textos del propio L. y de sus seguidores; tampoco olvidemos aquellas otras formas utilizadas abundante y reiteradamente a lo largo del sermón, a pesar de la brevedad de este, y cuya finalidad es propagar el conocimiento y uso de tales voces.

Con el objeto de reforzar nuestro argumentario, también hemos querido aportar novedades metodológicas en el análisis lingüístico del texto; por ejemplo, se han examinado múltiples frases conformadas no solo por una palabra, sino por tres y cuatro voces, creadas, «bautizadas» (dadas por vascas) o tomadas por L. de diversas fuentes y difundidas por él. Esta nueva vía de análisis centrada en las redes léxicas viene a reforzar la hipótesis de la autoría de Larramendi, convirtiéndose en una prueba difícilmente refutable de ello.

**Palabras clave:** autoría de Larramendi; análisis interno; criterios léxicos; ligazón con DT; textos vascos de Larramendi; redes larramendianas.

*Résumé*

Dans un précédent article (Lakarra 2023a) nous montrions que le *Sermon de L'Assomption* (*Asuntzioko Sermoia*, ci-nommé AS) sans nom d'auteur, ni date, ni lieu connus, est une copie du sermon de Manuel Larramendi du 14 août 1740 à Loyola. Le *Sermon de La Conception* que nous publions ici (*Kontzeptzioko Sermoia*, ci-nommé KS) est conservé, comme le précédent, aux Archives de la Fondation Sanche le Sage de Vitoria-Gasteiz. Il est daté de 1772 et correspond, non pas à l'original de l'auteur véritable, mais au moment où le sermon fut prononcé (probablement dans le Goierri), la copie directe ou indirecte ayant été faite par un autre auteur inconnu, et en tous les cas à une époque beaucoup plus récente que l'original de l'auteur.

Contrairement à ce qui s'est passé pour l'AS, en ce qui concerne le KS nous manquons d'information extérieure concernant l'auteur et l'origine du document et nous ne pouvons donc avancer dans nos recherches sur ce document que par l'analyse du texte. En nous basant sur différents raisonnements convergents, nous montrerons que cette copie du KS doit beaucoup à un document original précédent (et peut-être aussi à des copies intermédiaires). Par ailleurs, l'analyse linguistique du texte, et surtout l'examen exhaustif de son lexique si particulier, font que nous ne pouvons que conclure que le sermon original est l'œuvre de Larramendi. Bien qu'il n'arrive pas au niveau de l'*ornatus* de AzkS., SAgS. et, surtout, de AndS. de L, on peut affirmer que ce sermon n'est pas courant pour l'époque, mais étant donné la quantité de choses que le KS doit au *Diccionario Trilingue* de L. et les ressemblances avec les autres textes de ce dernier, nos analyses ne pouvaient nous mener à une autre conclusion. En plus des caractéristiques citées, le texte du KS ne manque pas de hapax ou de presque hapax (textuels et lexicographiques), mots non attestés avant 1800 ou qui, n'ayant pas été trouvés dans le *Diccionario Trilingue*, sont des mots créés dans la forme prévue, qui sont utilisés dans les textes de L. ou d'autres auteurs. Nous ne pouvons pas non plus ignorer d'autres mots utilisés aussi abondamment dans un texte aussi court que le KS, afin d'en élargir la connaissance et l'usage.

Afin de renforcer l'argumentaire précédent, nous avons souhaité apporter des nouveautés supplémentaires dans le travail d'analyse, par exemple en examinant plusieurs phrases composées de mots larramendiens, non pas d'un mais de trois ou quatre mots dans chacune des phrases, créés ou «baptisés» (basquisés), issus de plusieurs sources et diffusés par L. Cet examen nous a permis d'analyser de multiples réseaux lexicaux et de montrer leur importance, car ils réaffirment et augmentent le nombre d'éléments apportées auparavant, prouvant que Larramendi était bien l'auteur du texte.

**Mots-clés:** création de Larramendi; analyse interne; critères lexicaux; lien avec DT; textes basques de Larramendi; réseaux de Larramendi.

### Summary

In a previous work (Lakarra 2023a), we demonstrated that an *Assumption Sermon* (*Asuntzioko Sermoia*, AS) without any date, place or author was in fact a copy of that given by M. Larramendi in Loiola on 14 August 1740. This by now published *Conception Sermon* (*Kontzeptzioko Sermoia*, KS) is stored, together with the preceding one, in the AJF Archive in Vitoria-Gasteiz. The 1772 date it bears does not correspond to the work of the real author, but to the period when an unknown copyist preached somewhere (probably in the Goierri region), nor does it adhere to the time when the preserved testimony was produced, which dates from several years later.

Unlike in the case of the AS, in regard to the KS we lack any information about extra-textual authorship or provenance and only an internal analysis of the text could be carried out in researching these precursors. Based on multiple reasons, we have shown that this copy of the KS is indebted to at least one earlier original (and perhaps also to more intermediate copies) and the analysis of its language (especially a detailed analysis of its remarkable lexicon) makes it almost inevitable that it came from Larramendi's hand. The KS is not ordinary in terms of *ornatus*, and its enormous debt to the *Diccionario Trilingüe* and affinities with other texts by Larramendi are so numerous that our studies cannot lead us to any others. Besides the mentioned features, there is no shortage of different types of (textual and vocabulary) hapaxes or quasi-hapaxes, words which were not normalised until 1800—although not present in the HH— even though the forms were created legitimately in texts by Larramendi himself and others in the manner foreseen there; one should not forget that they are repeated even in a short text like the KS, being used more profusely than usual to expand their understanding.

In support of the previous set of arguments, we have also invoked innovation our means of analysis, e.g. Larramendi's creation or «baptized» (basquised) by him, or by analysing the sentences he received from different sources and spread through words, providing not just one, but three or four of them; through them, we have examined the networks that strengthen and even surpass the evidence in favour of Larramendi's authorship in each case, demonstrating their importance and their value in corroborating Larramendi's authorship.

**Keywords:** Larramendi's authorship; internal analysis; lexical criteria; linkage with DT; Larramendi's Basque texts; Larramendi's networks.

LAKARRA, Joseba A. (2025). «Maria SS.<sup>a</sup> Concepciocoaren Sermoia (preached in 1772): a copy of another sermon by Larramendi?», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 70 (1): 159-305.

1. Sarrera
  - 1.1 Ez originala baina kopia
    - 1.1.1 Eskuizkribua
    - 1.1.2 Grafia
    - 1.1.3 Larramendiren testuetako usadioa<sup>2</sup>
2. Lehen susmo eta aztarnak
3. *Ornatusa Kontzepzioko Sermoiari*
4. *Kontzepzioko Sermoiaren hizkuntzaz zerbait*
5. Lexikoan sakonduaz
  - 5.1 Irizpideak finduaz
    - 5.1.1 P irizpideaz
  - 5.2 Aztertutako hitzak
6. Emaizta orokorrak
  - 6.1 Datuen sailkapena
  - 6.2 Argudioen pisua egiletasunaren hipotesian
7. Ondorio moduan
8. Eranskina Mendiburuz

#### Bibliografia

#### Eranskinak

- A) *Maria SS.<sup>a</sup> Concepciocoaren Sermoia*: testuaren transkripzioa
- B) *Maria SS.<sup>a</sup> Concepciocoaren Sermoia*: eskuizkribuaren facsimilea

---

<sup>2</sup> L-ren testuetarako Altuna eta Lakarra (1990) darabilgu baina SAgS.rako baita Kaltzakortaren edizio kritikoa ere (2018), hor ezarritako formak hurbilago baitira L-ren originalekoetatik edo haren kopiarik zaharrenetakoetarik. OEHTik eta EKCTik hartutako aipueta bertako grafiak errespetatu ditugu. Larramendiren hizkuntz eta kultur egitasmoaz mintzatu naiz lehenago ere (Lakarra 1985a, 1992b, 1993-2017 eta 2017); aurkezpen bikain eguneratu baterako, ikus Urgell 2018.

## 1. Sarrera

### 1.1 Ez originala baina kopia

*Maria Santissima Concepciocoaren Sermoia* deritzon Antso Jakitunaren Fundazioko 1670. eskuizkribura (sign. ZRV 4418) karanbolaz iritsi nintzen: aldameneko 1671.aren (Lakarra 2023a-n argitaratu *Asuntzioko Sermoiaren*) ikerketa aurreratuxea nuelarik, inguruan ziren gainerako laurei<sup>3</sup> ere begiratu bat ematea on zatekeela bururatu zitzaidan eta, orduan hartu nuen KS hau transkribatzeko eta astiro irakurtzeko erabakia. Aurreko AS bezala, hemen ere ez da ageri egile-izenik, ekoizpen-urterik eta ezta sermoia eman zeneko tokirik ere. Lehen orrialdearen gainaldean tituluaren (*Maria SS.<sup>a</sup> Concepciocoaren Sermoia*) jarraipen gisa eta haren letra eta tamaina berarekin «... predicatu nuen 1772.rren urtean» daramalarik, ez nuen itxaroten KS honek Asuntzioko kidearen pareko interes filologikorik izan zezakeenik. Data horrek berez burura dakartzan zailtasunez landa ere, zail baino gehiago ezinezko neritzon, zinez, bata bestearen ondoan Manuel Larramendiren bi idazki artean ezezagun aurkitzeko zoriari<sup>4</sup>. Ezin pozgarriago gertatzen zait —azterketa aski luze eta neketsuaren ondoren— itxuraz oker nembilela aitortzea eta are baieztatzea ene oraingo aburuz Larramendiren egiletasunarena dela, hain zuzen, aukera edo hipotesirik egokiena KS honen originalaren inguruan ere.

<sup>3</sup> Bosteko multzoan bat argiro XIX. mendeko letraz idatzia da (1669.a) eta gainerakoak, hurrenez hurren 1670.a (ZRV 4418) hemen argitaratzen dugun *Kontzepzioko Sermoia*, 1671.a (ZRV 4419) *Asuntzioko Sermoi* urte eta leku gabea (ikus Lakarra 2023a), 1672.a (ZRV 4420) San Migelena, Idiazabalen 1783an emana eta 1673.a (ZRV 4421) Seguran 1788an emana, guztiak anonimoak. ASk, halabeharrez, ez du ur markarik baina gainerakoek bai eta esanguratsu gerta litezke marka horiek beren jatorriaz argiren bat egiteko. Azterketa zehatzagoa gure helburu eta ahalmenetarik landa gelditzen den arren, «BIGORRE»ko marka dute KS honek eta baita enparauk ere eta XVIII. mendearen 80ko edo 90eko hamarkadakoak izan bide litezke.

<sup>4</sup> Artxioban ere ez dakite gauza handirik jatorriaz, hots, bai noiz eta nori erosi zitzaion baina ez hark nondik eskura zezakeen. K. Ulibarrik gogorazi didanez, AndSz landa (hau Madrilgo Historia Akademian da jesuiten paperen artean), gainerako sermoien apografoak (AzkS.: Zarauzko Frantziskotarren komentuan) nahiz kopiek (SAGS.: Azpeitiko apaizaren eskuetan, J.I. Aranaren garraian), AS (?), KS (apaiz edo fraile goierritar baten eskutan 1772 aldera) izan zuten hedadurarik Konpainia deseritutakotik landa. Ikus Ulibarri (2015) bera eta Urgell (2018) garaiko sermoigin-tzaren hainbat alderdiz.

### 1.1.1 *Eskuizkribua*

AJFko 1670. eskuizkribuan gordetzen da KS, hots, 1772ko edo, seguruenik, geroagoko haren kopia, urte horretan elizgizonen batek egindako ahozko emanaldia, lehenago elizgizon horrek berak edo beste norbaitek eskuratutako originaletik edo —egiantzekotasun handiagoz— originalaren kopia zaharrago batetik egin bide zen. Antso Jakitunaren artxiboan gordetako eskuizkribu hori kopia dela —eta derragun berriro, ez, agian, originalaren gainean egindako lehen kopia ere—, ez zirriborroa edo original burutu gabea, aski erraz antzematen da egituraren —orrialde bakoitzeko lerro-kopuruaren—, idazketaren (letrakera, tatxoi, ezabaketa, lerroarteko gehiketa eta lekualdaketa) aztarnen eta era ezberdinetako erraten —haplografien eta duplografien— arabera.

Kopiaketa-laneko akats eta aztarna hauek gehituaz doaz 5. orrialdetik aurrera, hainbat non, azkenengo 10.era iristen garenean, errazki ohar gaitezkeen sermoiaren lehen zatikoak halako bi direla era ezberdinetako tatxoiak, ezabaketak eta lerroarteko gehiketak. Agian, are nabarmenago dena, beheko ertzeraino idatziaz (eta lerroarte estuagoz azken herenean) ohiko 27-29 lerroak 32 bilakatu dira. Zalantzarik gabe, lana abiatzerakoan gaizki kalkulatu zen orrialdeko lerro-kopurua eta azken orduan ezohiko baina ezinbesteko erabaki horiek hartu behar izan ziren 12 orrialdetako koadernotxoan zuririk gera zitezen lehena eta azkena, sermoiaren estalkitzat.

### 1.1.2 *Grafia*

Grafian ere badakusagu kopiagilearen aldaketarik: 1772an literatur euskaran, bereziki Gipuzkoa aldekoan, dagoeneko atzerakoi zen (edo ez, bederen, guztiz aurrerakoi) <tc>-ren erabilera dugu /e/ eta /i/ bokalen aurretik: *arquicen*, *sortcetic*, *beartcen*, *etcirala*, baina *ditzagun*, *gucientzat*, *itzgaia*, *etzuan*, *gorputz* eta abar, *a-*, *o-* eta *u-* bokalarekin. Ia mende erdi lehenago agertu *El Imposible Vencidon* (1729) Larramendik <ts> eta <tz>-ren erabilera sistematikoa proposatu zuen bokal guztientzat:

Finalmente, dos pronunciaciones se harán difíciles a algunos y son las que traen *tz*, *ts* y, sin embargo, son muy suaves y dulces, v.g. *otzá* frío, *gatzá*, sal, *hitzá* palabra y *otsá* ruido, *lotsá* vergüenza, *otsoá* lobo, *atsoá* mujer vieja, *utsá* vano. Acertaráse con su pronunciación si se hieren ambas consonantes juntas, como partes de la sylaba siguiente. (1729: 339)

Hala, <tz>-ren hiru adibideetan, halabeharrez, *tza* da baina Arteko aurreko ataletan badira: (37) *bátzuec*, *bátzuen*, *bátzuei*...; (38-39) *bederatzi*, *amazortzi*, *hemeretzi*; (53) *ecarritzea*, *icusitzea*, *eseritzea* (...) «esta dicción *tzea* (...) *artzea*, *uquitzea*, *aguintzea* (...)» (54); «(...) añadiendo *tzen*, *aditutzen*, *arritutzen*, *egositzen* (...)», (55) *ateratzerat*, (159) *nintzen*, (319) *loacartzen*, *esnatzean*...<sup>5</sup>

Usadio horixe da halaber *Hiztegi Hirukoitzekoa* ere: *lotzurra* ('taba'), *bel-tzuntza*, *eultzarra* ('tábano'), *iltze*, *ultze* ('tabaques'), *dilidontzia* ('tembladera'), *dauzcatitzu* ('yo los tengo', etc), *totzic* ('tómalos, al muchacho'), *dacartiz* (x *-tzi*), *espartzua* ('trenza'), *iurtzuria* ('trueno'). Ez dugu <tzo>-rik aurkitu T- letrako sarrerak ikuskatuaz, halabeharrez, baina, berariaz bilatuz geroz, arrunt dira enparauetan: *atzo* ('ayer'), *hitzontzia* ('hablador'), *mintzoa* ('habla'), etab.

### 1.1.3 Larramendiren testuetako usadioa

Orain arte ezagutu Larramendiren euskarazko sermoi eta gainerako testu labor autografoetan dozenaka eta are ehundaka dira <tz>-ak, erregulartasun osoz bost bokalen aurrean. Ez dugu salbuespenik aurkitu eta <tze> eta

<sup>5</sup> Are markagarriago gertatzen da liburuaren akaburantz euskarazko poesiaren adibidetzat eman Joanes Etxeberriren *Noelak* eta *Manual Debotioezkoatik* gehi Haranbururenetik zati guztiak <tz>-rekin jasoak izatea, edozein dela ondoko bokala. *Noelak*: *bihotzera*, *batzuc*, *citzaisten*, *aitzineria*; MD: *bihotzez*, *gaitzetsi*, *baitatzaquec*; Har.: *laudatzen*, *jauntzat*, *defendatzen*... Urgellek (2005) markatu legez, aldaketa bera Ax., EZ, Harizmendi eta Beriainen testuetan ere egin zuen.

Orobat Larramendiren beraren horko «Euskara» bertsoan eta gainerako haren ekoizpenetan: (383) *guertatzen*, *cebiltzan*; (391) *ausartzi*, *etzeran*, *etzan*... Halaber, *Hiztegi Hirukoitzaren* hitzau-rean: *aditzen*, *batzuec*, *gaitzic*, *hitzontziac*, *isiltzeco*, *daquitzan*, *edertzen*, *utzi* (22 kasutatik).

<tzi>-ren adibideetarik eskutada ematera mugatuko gara *Kontzepzioko Sermoiko* usadioarekiko erkaketa errazteko:

- A. Azkoitiko Sermoia (AzkS.): *argitzen, cecartzien, hitzic, etzigon, etziran, malmetitzen, etzeuala*<sup>6</sup>.
- B. San Agustinen Doanditza (SAgS.)<sup>7</sup>: *ondratzen, daramatzien, biotzetic, utzitzen, etzion, itzatzu, camporatzen, iritzian, etzera*.
- C. Andoaingo Sermoia (AndS.): *biotzez, etzinde, dauzcatzienac, hiltzez-coa, etzituzten, esnetzallea, hitzontziqueria, eragotzi, garbitzera*<sup>8</sup>.

Ez da esan beharrik KS(ren kopia)ko usadioa ez datorrela bat L.ren tes-tuekin, ez Arteko dotrinarekin edo HHko usadioarekin (salbu eta, KS legez, inoren kopian gordetako ASrenarekin; cf. Lakarra 2023a). Ezin saihestuzko iruditzen zaigu, dagoeneko aurreratu bezala, gaurko honetan arestian aztertu ASren kasuan legez, ez Larramendiren originalaren baina ondoko norbaitek egindako kopia (edo kopiaren kopia)<sup>9</sup> batekin dihardugula ondorioztatzea.

Ordea, ez da harritzeko L.ren originaleko —originaletako, bai honen eta baita ASren— <tz>-rik ez gorde izana. Erregelari lotu zitzaizkien Larramendiren jarraitzaile ortodoxoenak (Ubillos, Lariz...) baina ez segizioko guztiak Kardaberatzen *Berri Onacetik* bertatik ezagun den bezala (cf. Lakarra 1985a eta 2023a): <tz> arauzkotzat eman arren, egile horren beraren usadioak ez du horrela bermatzen, jakina denez.

<sup>6</sup> AzkS.ko eta *Korografiako* usadioa markatuak zituen Koro Seguroiak (2004: 251).

<sup>7</sup> Aranak eta ondokoek <tz> dakarte edozein bokalen aurrean baina ez da fidagarri suertatzen, beste hainbat puntutan ere modernotu egiten baitu L.ren sermoi horretako usadioa, Kaltzakortak bildu Aranaren gainerako kenketa eta aldaketez landa. Ikus Arkotxa eta Lakarra (2019), L.k frikari/afrikatu bereizkuntzan Leiz.rekin duen zorraz.

<sup>8</sup> Orobat *Korografian* (*izcuntza, hitzoncia, etzeatiet, oroitzar*, 17 kasutatik —salbuespen bakarrak: *guertazen, lotsacen*; akatsak ote?), eta bat ere ez *Sobre los Fuerosen*: *zaiquitzu, biotzaren, batzuec, garbitzen, etzidin, ateratzeco*, 30etatik); orobat Mendibururi eginiko Sarrera Gutunean *arguitaratzeco, utzi, ayenatzen...* (34tatik), <tc> bat ere gabe.

<sup>9</sup> Gogora San Agustinen Sermoiarekin gertatua (cf. Kaltzakorta 2018); Kaltzakortak, noski, bere edizioa kopiarik zaharren(ar)en gainean eratu du.



## 2. Lehen susmo eta aztarnak

*Asuntzioko Sermoia* ikustean legez, *Kontzepzioko Sermoiarekin* ere fite ohartu ginen ez zela Lehen Euskara Modernoa deritzogun garaiko (cf. Urgell 2018) sermoi arrunt ugarietarik, gauza aipagarriak ez ezik harrigarriak ere azaldu baitzitzaizkigun bertan begiak jarri eta berehalakoan: 2. orrialdeko *aldecoja edo circunstancia*-ren ondoren, 5.ean *aldecoi edo circunstancietan* dator, hemen hautagai ez diren *Birjinia*-k, Egiategik, Añibarrok eta Iztuetak nahiz are berankorragoren batek soilik inoiz darabilen hitza<sup>10</sup>; KS honek, aldiz, hirutan darabil espazio aski laburrean. Ondoren, 4. orrialdean *erabacde edo decretoan* dugu eta 6.ean *erabacde edo decretoac*: OEHren arabera, HHn sortu eta Harrieten hiztegian ehorzten da hitz hau eta testuei dago-kienez, soilik 1903ko Kortazar idazle ilun eta oso berantiarraren lekukotasun bakanean aurkitzen dugu<sup>11</sup>. Hots, HHz geroz ia 160 urtean *erabakde* inork ere ez darabil KSz landa, are gutxiago eskuartean dugun auzian erabakior gertatzen den XVIII.aren bigarren zatian.

Aurreraxeago, sermoiaren 7. orrialdea amaitu aurretxoan, «nolaco izan oi ezta zuen oztasuna *ezequinera* edo *inaccioa* urte osoan becatuan egoteco?» esaldiarekin topo egiten dugu eta OEHn *ezequinera* hori begiratzean ez dirudi euskararen historia osoan beste inon ageri denik, testu nahiz hiztegi; horregatik OEHn hitz horrek sarrerarik ez izana (erants bedi ez datorrela EKCn ere). Alabaina, HHn «inacción» begiratuaz, «*ceguiqueta, ecequinera*. Lat. Actionis omissio» biltzen dira bertan, eta honakoan bai, 1.koan sarrera labor bat eskaintzen zaio OEHn, nahiz ezin murriztagoa izan: «*zegiketa*: Inacción, Lar», gainerako inoren testu ez hiztegitako batere erreferentziarik gabe.

Orain arte ikuskatutako hitz mordoxkak gaztigatzen digunez, ez gara nolalahiko testuaren aitzinean, hots, ez —holako edo halako xehetasun dialektalez landa— hainbat dozena eta are ehundaka sermoi arrunt ugarieta-

<sup>10</sup> Antiak ere bai EKCren arabera, baina ez Cb.ek, ez Ub.ek, ez Mb.k, ez AAK, ez Gco.k, ez Lard.ek.

<sup>11</sup> Eta EKCK ere Antiaren (1901) bi adibide gehitu ahal ditu bakarrik, *San Frantzisko Asiskoren bizitzako* 11. eta 19. «berezieretatik» bana, hain zuzen ere.

riko baten aurrean<sup>12</sup>. Lehen irakurketako ondorio pizgarri honen berrespena 6.-7. orrialdeetan genuen, lehen soan oharkabean itzuri zitzaizkigun hiru esaldiotara berriro itzuli eta astiroago miatuaz aurkitzen duguna:

6. Nolaerebait aztuaz bere providenciac ipinitaco legue *jaquin eta gucienzacoaz* eta esateco moduan guedeituaz edo anulatuaz bere erabacde edo decretoac.

Ib. Icusico ere eztan guertaera bacan batequin igarotcen da *beticoa eta guciequicoa* dirudien legue baten gañ.

7. Onetara arquitcen det bere *guciequico* Providenciac ipini cituen leguen gaña igarotcen dala.

OEHN *guziekiko* (*guziakiko/guztiakiko*) «universal, general» eta «bueno con todos, amable con todos» adieretan dator, bietan ere Larramendiren HHko «público, común» eta «universal»etik atereak. Are gehiago, OEHk —Ub., Mg., Izt., Lard., Legaz, Loidi baino lehen— L.ren SAgS. eta BurDot.ko adibideak ematen ditu (hots, ugari eta are sistematikoki haren testu llabur bezain garrantzitsuetakoak), baina ez Cb., Mb. edo Gco.renetarik. Zehatzago, OEHko sarrerako 7 autoreren 13 adibide aipatuetarik 6 *guziekiko* dira egile bakar batenak, Larramendiren 2 testu ezberdinetakoak, alegia. Areago dena: testu horietan adibide gehiago OEHN sartu gabe gelditu da eta, halaber, bere ohiko irizpideei loturik<sup>13</sup>, Andoaingo Agustin Leitzakoaren ohoretan egindako sermoia eta AzkS. ez dira kontuan izan eta hauetan ere bada kasu haboro bilaketa arin batek erakusten digunez (ikus behean § 6.2ko *guziekiko* sarreran)<sup>14</sup>.

<sup>12</sup> Sermoigintzak ikus Ulibarri 2015 eta Urgell 2018. Halaber, aipagarri bilakatzen da *ezdiña edo indigna* (3) HH 'indigno', *ezdiña* ondoren soilik *Birjina*-ren bi esalditan aurkitzea KS honetatik landa —aztergai honen egiletzako ezinezko hautagai diren Uriarteren eta K. Otaegiren bana gehitzen du EKCK—, bidenabar *bil-leku*-rekin gertatzen den bezala-bezalaxe. Ez da ahanztekoa *dina*-z Larramendik zioena HHn hitza «bataiatu» asmoz (ikus lan honetan aurrerago, § 6.2ko dagokion sarrerako iruzkina).

<sup>13</sup> Blanca Urgellek gogoratu didanez, OEHren irizpide orokorra egile bakoitzeko (ez testu bakoitzeko) adibide bakarra ematea baita, arrazoi berezirik ez egotera; horrenbestez, L.ren 3 testutarik 6 adibide emanik haren corpusaren ohi baino lagin zabalagoa eskaintzen du, nahiz ez iritsi filologoak beharrezko duen osotasunera.

<sup>14</sup> EKCN *guziekiko* Lizardi (6), Larramendi (5), Mendiburu (2) (biak *Mendibunuren idazlan argitaragabeak* obran [eta bi-biak *guzi*-ren erabilera arruntak dira]) Mirandek beste 2 eta Pouvreauk 1

OEH eta EKCKo corpora zabaldiaz, KSKo *guziekiko*-ren hiru agerraldi berriekin ia bi dozena adibide genituzke, zortzi egile ezberdinetarik bilduak; baina aztergaitzat soilik 1772 arte lekukotuak hartzen baditugu, KSren originalari legokiokeen legez, dozenatsu bat kasu genituzke, itxuraz bi egilerengandikoak: hiru KStikoak —egilearenak, ez segurki, kopiagilearenak— eta gainerakoak guzti-guztiak L.ren lau testu ezagunetakoak: AzkS., SAgS., BurDot. eta AndS.koak, alegia, HHkoaz gainera. Hau guztia, jakina, baldin eta adibideak oro (baita KSKoak ere), L.renak ez badira, hots, L. bera ez balitz KSren originalaren egilea, gure aburuz hipotesirik merkeena den bezala<sup>15</sup>.

*Guziekiko* gehi horren aldaerak (*guzienzako*, adib.) oso larramenditarrak badira, zer esan *jatorri*-z! (cf. Lakarra 2022, 2023a, 2024). Izan ere, «Bada, Maria garbia ederra eta osasungarria dator *jatorri* ustel eta becatari arrazatic» irakurtzen da KSren 5. orrialdea amaitu baino lehen. *Jatorri*-ren erabilerak (hots, enparauko lekukotasunetan usuenik aldean eraman ohi duen *edo*-rik gabe, gainera)<sup>16</sup>, 1850 b.l. duen ondorio ia erabatekoarekin aski genukeen arren —KSren originala L.rekin lotzeko segurtasun aukeraz ari gara, noski— esaldi bereko *osasungarri* «apalagoak» ere merezi du hitz erdi: OEHren arabera SPren testu bateko agerraldi bakarra dugu soilik HH baino lehen, eta hiztegi honetan *osasungarri*<sup>17</sup>, *senderagarri*, *sensera*, *senseragarri* eta —badaezpada-*edo*— *osasungarriro*, *senseragarriro*, *senserequi*, *senserqui*, *senseragarriqui* ere biltzen dira (s.u. «saludable», «saludablemente»)..., nahiz guztietarik batek ere inongo atarramendurik ez izan ondoko testu-tradizio osoan, OEHk dioskunez. Soil-soilik, *osasungarri*-k berak du segizio-ren bat eta honek ere ez luzeegia, nahiz aski adierazgarri gertatu guretzat,

---

dakar. Bestalde, horko L.ren guztiak SAgS.koak ditugu eta 5ak *guziekiko eta guzierako* formulari dagozkio.

<sup>15</sup> 1772 arte, ez da Cb., ez Mb.ren adibiderik bildu (ikus § 6.2ko sarrera, ezta modernoagoen artean AA edo Gco.renik ere; ez da esan beharrik zeinen esanguratsu den KSKo usadio hau bere 10 orrialde laburrak eta L.ren 100 eskaxak eta aipatu gainerakoon ehundaka eta are milaka luze-zabalekin erkatzean.

<sup>16</sup> Eranskin hori gabeko salbuespen bakarra edo ia bakarra XVIII. mendean Larramendiz landara Gandara genuela genioen Lakarra 2022n.

<sup>17</sup> EKCK: Tx. Agirre 38, Zabala 11, Larreko 6, Lizarraga 5, Iztueta 4, Arrue 3, Erkiaga 2, Azkue, eta 20 bat 1-2rekin, baina ez Mendiburu eta XVIII. mendekorik.

halere: Iztuetak eta Arruek dakarte, hain zuzen, gure KSren kopia baino 75 edo ia 100 urte geroago, hurrenez hurren, —eta are 100 eta 125 urte HHre-kiko horrenbestez—, literatur gipuzkera eta literatur bizkaiera zabaletako aldi luze eta aberatsean enparauko kiderik ageri ez dutelarik<sup>18</sup>. Ez dirudite apartekotasun txikiak KSren *guziekiko*, *jatorri* eta *osasungarri*-k zeinek bere aldetik agertzen dituzten hauek, eta are markagarriago hiruren konbinaketak KSren testuari eta bere egiletasunaren auziari dakarzkioten guztiek, jakina.

Harridurekin jarraitzeko, 6. orrialdeko *guedeitu* (*edo anulatuaz*) ere ez dator OEHn baina bai HHn: «anular, abrogar, *guedeitzatú*, *indarbagnetu*, *indarcaiztú*. Lat. Irritum facere, abrogare. Véase “revocar”» (partizipioan soilik «anulado, abrogado, *guedeitzatua*, *indarbagnetua*) eta «revocar, anular, *guedeitu*, *guedeitzatu*». Era berean, *gedei* «revocable» bada OEHn, baina HHn «revocable, *guedei*, *guedeitza*»ri «Lar → H» soila erantsiaz, eta hitz bataz zein besteaz testu-iturririk aipatzeke aurkitu ez dutelako, noski, beren corpusean<sup>19</sup>; EKCK bakarra eransten dio, Cb.en *Ejercicioaken* (1765): «*Sentenzia sekulan gedeituko edo errebokatuko extana*».

Lana ia hasi berritan bistaratutako bitxitasun harrigarriak amaituaz joateko, hara azkenik, [< 3 > Baña ò Maria, nere gurte edo culto eta confianza bigun eta osoaren jomuga dina, ezagutcen det nere alabanza bearric eztezula]: esaldi hau miatuaz, ez da ia hitz bakar bat ere KSren eta bere garaiko lexikoaren azterketa zehatzagoa abiatzera behartzen ez gaituenik. *Jomuga*-k erakarri zuen nire arreta lehenik, LEz landa, soilik Izt.k eta ondoko gutxi batzuek baitarabilte «blanco a donde se tira»ren ordain gisa —*zurria*, *cozca* eta *jobeni*-rekin batera— HHn agertu eta gero; horrenbestez, KS hau L. eta Izt. bitarteko inork beretzat erreklamatzeko aukera garbirik ez duela iradokitzen digu. Aipatu dugun pasarte horretara itzuliaz, *gurte* ere HHn sortzen da («culto, adoración»)en eta Ubillos (1785) dugu horren lehen erabiltzailea baina, markagarriro, gainerako LitB. eta LitG.ko kide orok hitz hori biltzeari muzin egiten diote: AA, Mogeldarrak, fB., Izt., Lard.,

<sup>18</sup> Lehen *guziakiko*-rekin egindako iruzkinean bezala, 1772 artekoak begiratuaz, inor ez, L.z landara arrarotasunon jabe izan litekeenik.

<sup>19</sup> Antzera gertatzen da 9.-10. orrialdeetan datorren *klaruro*-rekin; ikus beheerago § 6.2ko sarrera horretako iruzkina.

Gco. falta ditu erabiltzaileen zerrendan<sup>20</sup>. Orobat, aztertzen ari garen pasarteko *diña* ere hitz larramenditar maiteenetarik dugu (cf. § 6.2ko dagokion sarrerako iruzkina); eta zer esan *alabanza* famatuari<sup>21</sup> buruz?

Esaldiko lau hitz markagarriokin —*gurte, jomuga, diña, alabanza*— lehen soa amaitzean ezin ukatu Larramendi bera dugula (HHko zein euskal tesuetako L. berbera, alegia) aukerarik hoberena, ez kopia honen, noski, baik KSren originalaren egiletzat..., goragoko paragrafoetako *aldeko*, *erabakde*, *ezeGINera*, *ezdiña*, *guziekiko*, *gedeitu*, *klaruro*, *osasungarri* eta *jatorri*-ren iruzkinak eta ondoko analisiko beste hainbat eta hainbatena iragartzen eta berresten diguten bezala<sup>22</sup>.

### 3. *Ornatua Kontzepzioko Sermoian*

ASri buruzko aurreko lanean (Lakarra 2023a) gogoratu nituen, L.k garaiko sermoigintzaren akatsez egindako kritika eta adierazpen gogorrak, are sermoi kaxkar horien egileak «pulpitora entzuleei barre egitera» igoak ote ziren galdetzeraz ere iritsia zela; ezagun denez, juzgu gogor horretatik salbuesitako bakarrak Zarauzko frantziskotarrak ziren.

Beharbada, San Agustinen Sermoiaren edo Andoaingo Agustin Leitzaokoaren ingurukoaren landutasunera eta dizdirara iritsi ez arren, Kontzepziokoan ere entzulearen arreta erakartzeko lanabes eraginkor eta ugariak aurkitu ditugu, garaiko sermoigintzan ohiko izan zitekeen batezbestekoa baino gehiago eta jasoagoak:

- BOKATIBOAK: nere enzuleac (5, 6), Ona nere enzule maiteac (6), arre-ta edo atencio pisca bat nere enzuleac (6); nere Jangoicoa (9), bai becatariac, zuec... (9).

<sup>20</sup> Iztuetaren eta Etxagaraireren *gurte*- ere bestelakoren analisi okerrak dira EKCn.

<sup>21</sup> Cf. HHn, s.u. «*Alabanza*, es voz Bascongada...», § 6.2ko sarreran aipamen osoa eta iruzkina: hor markatzen denez, HHren ondoren hitza Hegoaldean normaltasun osoz erabiltzen da eta, alde askotatik esanguratsua dena, L.k bere idazkietan ere ez zion iskin egin, Gandararentzako gutu-nean, AndS. edo S. Tomasen otoitzean baitarabil, esaterako.

<sup>22</sup> Ikus bereziki § 7.2n bildu «3»ko (larramenditartasun hierarkia goreneko) dozenaka hitz.

- GALDERA ERRETORIKOAK: Baña cer becatu motatic izan zan gordea? Gucioc berarequin sortcen gueraden becatu etorqui edo originaletic (1), Cergatic... ceren... (8).
- GALDERA-KATEAK: Certatic bada gordetcen du? Ote da beartasun edo pobrezatic? Guraso bear edo pobre[en]gandic... Ote da humiltasunetic? Ez bada... Ote da bidegabe eta naigabetatic?; Ezagutcen dezue...? Ezagutcen dezue...? Ezagutcen dezue...? (8).
- ESKLAMAZIOAK: Oh eta cein gauza andiac (1); Baña ah! (5); Ona nere enzule maiteac, O! (6), O! Ah! (8).
- KONTRAJARPEN edo KONTRAESANAK: Zorioneco egoera / galduco zutela beren zorion gucia... beti zorionecoac izango cirala / zorigaiztoco guertaera... (2); amaren gloria bezala / amaren deshonra... (3).
- ADARREZTATZE HIRUKOITZAK edo ugariagoak: Certatic bada gordetcen du? Ote da beartasun edo pobrezatic? Guraso bear edo pobre[en]gandic...? Ote da humiltasunetic? ... Ote da bidegabe eta naigabetatic? (6); eduquiaz... emanaz... eguiñaz... emanaz... (8).
- EZEZTAPEN-ZERRENDAK: eztu gordetcen... ez... ez..., ez eta... (7).
- EPITETOAK: Gucia daguiquen Jangoicoac (1).
- KONPARAKETAK eta AREAGOTZEAK: Baldin... arrazoi gueiagorequin... (1), ez bacarric... baita ere... (8).
- «PROGRESIOAK»: Maria izan zan gracian sortua, graciaz indartua... Maria izan zan gracian sortua esan nai det..., Maria izan zan graciaz indartua edo sendotua: esan nai det... (1).
- ETIMOLOGIAK: ama izateco ezdiña edo indigna.
- EDO EGITURAK: becatu etorqui edo original (*hainbat aldiz*); iguitasuna edo gorrotoa (3); bacarra edo particularra (5); oarmen ansidunac edo importanteac (6); eragozqueta edo impedimentu (6); arreta edo atencio (6); ecarrai edo efectoa (8).
- HITZ ERREPIKATUAK: sortze (12), naigabe (10), bekatu etorki (9), mende (7), mirari (7), ondasun (5), miragarri (5), negargarri (4), laguntasun (4), humiltasun (4), amatasun (3), atsegintasun (3), guziekiko (3), zorioneko (3).

Eta gehitu egin behar oraindik erlatibo adjektiboen zerrendak eta nonahi dakusagun hitz eta esamolde-aberastasuna... Bada, gainera, Larramendiren

euskarazko testuekin (AzkS., AS, SAgS., AndS., MendSG., liburuetakoz zati laburrak) zuzenean lotzen den lexiko aski espezifikoa ere: *arreta, batasun, bukaera, diña, eriozko, guzia dezakeen (ASn guztia dagikean), guziekiko, iduripenezko, jatorri, kutsatu, lenen, mende, mirari, mugarri, ondasun, zorion eta zorioneko...*<sup>23</sup>

Azkenik, baina ez gutxienik, KS honetan HH eta Axularrekin ere lotzen duen pasarte zehatz bat ere bada: «*Azalduco dizuet bide batez mandatu bi eguiten ditudala*» (1-2. or.); cf. Ax. 284 (V 189): «*Presuna haserretuen artean [...] edireiten da ongi demonio gaixtoa, han bide batez egiteintu bi mandatu*», *apud* OEHN, s.u. eta, hor bertan aipatua, HHn, s.u. «(De una) vía, dos mandados, *bide batez, mandatu bi*». Gogora bedi bere beste testu bateko «*Badu itsasoak bere xedea, bere marra, bere mugarria eta zedarri iakina, zein baita kosta*» (Ax. 113; V 75) eta «*Beste itxaso orri, paratu zionean Jainkoak ondarrean bere marra eta esia*» (L. SAgS., 10); eta baita haren ikasle Añibarroren «*Neurri, marra ta mugarik ez daben ontasuna*» (Añ. Lora-sorta espirituala, 130 e.h.), *apud* OEHN, s.u. (ikus Lakarra 1985b).

Salbuespenak salbuespen, gutxi dira LEM osoan maila honetara hurbil zitezkeen saioak, artean ezagutzen genituen Larramendirenak landa, jakina, eta iruditzen zaigu arrazoi aski badela KSren egile-izen, toki eta urte gabeko kopia honen jatorrizko originala ere L.ren eskutik atera zirenen multzora hurbiltzeko<sup>24</sup>; behin betikoz han sartu eta kokatzeko izango bide da oraindik beste bide batzuetarik datorren laguntza osagarri eta are sendagorik?

<sup>23</sup> Ikus § 7ko emaitzen analisisian B eta C sailetan KS eta HHn landa L.ren beste testu batean edo bitan bederen ageri diren hitzen zerrenda. Abian da L.ren euskal testu ezagunetako lexikoi hain beharrezkoa.

<sup>24</sup> Cf. Mitxelena Agustin Leitzakoaren omenezko sermoia ezagutzean zioena:

«Larramendik, hori ere esan da, ez omen zuen erdaraz baizik idatzi (...). Euskal idazle eta sermolarien artean irabazi zuen izena eta omena ez zuen erdarazkoen bitartez irabazi soil-soilik. Bere garaikoek eta ondotik etorri zirenek bazekiten, orain ahaztuxe badaukagu ere, gai zela Larramendi beste edozein bezain ongi, erderaz ez ezik, euskaraz mintzatzeko, bai hitzez eta bai izkribuz. Ez zuten itsu-itsuan gidarizat hautatu» (Mitxelena [2017] *apud* Kaltzakorta 2018: 41-42).

#### 4. Kontzepzioko Sermoiaren hizkuntzaz zerbait

On eta are behar-beharrezko litzateke ikerketa luze sakona L.ren hizkeraz, haren bidez KSrena ASrenarekin eta gainerakoenarekin erkatzeko eta osatzeko. Alabaina, ez dugu oraingoz horrelakorik eta ez da egiteko errax-erraxa ere, ñabardura eta alde markagarriak baitira haren testu batetik bestera: esaterako, zentzu askotan «bereagotzat» jo litekeen Agustin Leitza-koaren ohorez Andoainen 1763an egindako sermoiaren hizkeran \*ezan da iragankor irrealiseko laguntzaile bakarra (ez da *egin*-ik, alegia), 7 aditz nagusi partizipiorik gabe dira indikatiboaz kanpora (baina *-tu* 1, eta 4 *-i*), indikatibo bitransitiboetako pluraletan, 13 *-zki*, 8 *-ioz-* eta, beharbada, hor espero ez genituzkeen 2 *-i(r)aux-*.<sup>25</sup> ere bai. Horrekin batera, *duen/zuen* 3. p. sing., *zuten* 3. p. pl. *-ana/-ala izan-en*, *idugu* eta *izandu* partizipio berri gutxi batzuk eta baita futurozko 3 *-en* ere (*izanen*, *eguiñen*, *esain*), nahiz *-ko* marka izan orokorra funtzio horretan.

KSren testu honi, egilearen gainerakoei legez, berehalakoan antzematen zaion literatura hizkuntza garatzeko borondatea dela eta, ia ezinezko gertatzen da sermoiaren hizkuntz ezaugarri larrienak hizkera edo bailara jakin batekin lotzea, bestelako corpus gehienekin ohituak garenaren aurka. Izan ere, testuaren laburrean, ezaugarrien artean antzeman litezkeen zenbait «kontraesanek» —estilo-borondate argiz eraturako konbinaketek, hobe— erakusten du hau hobekienik, delako bailara estu honen edo haren mugak gaintu eta eremu zabalagora (gramatika Probintzia osora eta lexikoa baita Euskal Herri gehienera ere) iritsi nahia, alegia.

Hots, betiere Bonapartez geroz (cf. baita Bähr 1925 klasikoa ere) gipuzkeratzat hartu ohi den eremuaren barruan, esan genezake KS hau (bere originala, ez gorde den kopia, alegia) ez zela hego-mendebaldekoa, Urola edo Goierrikoa eta, beraz, jatorriren bat markatzekotan Beterrikoztat edo, oro har, Probintziaren ipar-ekialdekotzat jo beharko genukeela: esaterako

<sup>25</sup> Cf. *Jaincoari zor ciozcatenen alde eguitemo* (76), *escári ta mesedé guciac eguitemo ciozcala* (81), *argui errañu guciac nai diozcala itziñgüi* (82), *escátzen diozcadán mesédeac* (83), *Jaincozco gáuazac maizágo gogoráco ciauzcüla* (77), *Jaincoác emáten diañzcum arguiz* (82), etab. L.k berak azken hauek HHn Urola aldekotzat markatu zituen.



\**edun*-i dagokionez, ez da ageri Goierri-Urolako *deu/deba-*, *debe-*, *zeba-/zebe-* egiturakorik<sup>26</sup>, baizik eta iparralderagoko *du*, *du(t)e*, *zuan/zuala*, (hark) *zuen-cituen*, *zuten*. Ezagun denez, XVIII. mendearen akaburako literatur gipuzkeran hartutako forma hauek Gipuzkoako hego-mendebaldeko testuetan ere zabaldu ziren, aurreraxeago aipatu bertako «jatorragoak» ahozkoa baztertuaz bakoitzean era sistematikoagoan. Alabaina, hemen gertakari horren aurreko mende erdi edo herenean ari garenez, beren lehenagoko distribuziotik —eta ahozko euskaran are egungotik— hurbilago aurkitzen ditugu eta hori da gogoan izan behar genukeena.

Adizkietan *-a*- lotura da nagusi (*duala*, *dituana*, *cituan*, *dala*...) atzizkiaren aurrean, baina *zuen* eta *dituen*, *cituen* *du*, aldiz, *zuan-cituan*-ez landa, eta *zuten*, *zutela*; alabaina, orobat *due/dute* eta *dituzuen*, *dauzcatzuen*, *daucazue*, *dezue*, baina *cerate*, *dezutenac* eta *dituzutenac* ere bai.

SAGS. bezalatsu, \**ezan* laguntzaile iragankor irrealisa darabil ia soilik: 4. *nizaque*, 4. *cezaquean* (2), 6. *dezagun* (3), 7. *nezaque*, 9. *dezaquet*, *dezaquean*, 10. *dezaquezun*; *egin*-en adibide bakarrak (NORK-NORI-ZER bi eta NORK-ZER bat) kopiagilearenak izatea litekeena da, nahiz ez halabeharrezko: 4. *eutci ceiquion*, 10. *iritzi eguiguzu*, 10. *ciquindu deiquean*<sup>27</sup>.

NORK-NORI-ZER paradigmako indikatiboko datiboan singularreko *-i-* forma ugari ditu (*dien*<sup>28</sup>, *digu-*, *dizuet*, *digue*, *dizuen*, *cien*, *dion*, *cion*, *cioten*..., espero bezala); pluralean kasu askoz gutxiago dugu eta ez da dagoeneko aipatu Azkoitiko L.ren 1737ko sermoiko *-i(r)au-* ugaririk eta ezta ipar-ekialderagoko (edo modernoago) *-izki-dunik* ere<sup>29</sup>, soilik 1 *diozcan* eta 10 *diozcatzun*; ez da ahaztekoa Larramendiren *Arteak* eta literatur gipuzkeraren hedadurak *dioz-/zioz-* formen zabaleran izandako zerikusia, Leturiagak ere

<sup>26</sup> Aspaldi aztertu nuen (Lakarra 1985b) L.ren 1737ko AzkS.ak bertako hizkeratik hurbilago ziratekeen *deu/deban/deben*, *zeban/zeben* eta *-i(r)au-* datibo pluralak zekartzan (*zki* gabe), *egin* eta \**ezan* irrealisetan, eta funtsean ditransitiboak lehenarentzat, besteak beste.

<sup>27</sup> Orobat, SAGS.ak bezalatsu KSk, *duan-/duen-* orrialde berean, *etzala*, *zan*, *bizitu*, *egondu*, *zutela*, *ziozcatela* eta *ziozcan*, baina SAGS.ak *-tu* gabe aditz nagusia irrealisetan eta *-tu/-du-*rekin KSk (gorde-tako kopiak bederen). *Egin* eta \**ezan*-ez gipuzkera zahar eta berrian, ikus Leturiaga 2022a eta 2022b.

<sup>28</sup> Zehatzago, bi *dien*, bata arrunta eta bestea pluraleko komunztadura falta duena.

<sup>29</sup> Honetan bat dator ASrekin eta SAGS.arekin.

(2019 [2021]: 159) holako formak eriden baititu Lariz, Ubillos, Agirre As-teasuko, Lardizabal eta Otaegirengan; ikus, orobat, Leturiaga 2020.

## 5. Lexikoan sakonduaz

Aurreko paragrafoetan zirriborratutako hizkuntz erabilera ñabar honek ezin liezagukeen erabateko laguntzarik eman, ez ASren eta ez KSren kasuan —ezta, beharbada, gainerako testuetan ere, bestelako xehetasun eta ezau-garriengatik ez balitz— horietarik bakoitza L.rena den edo ez den erabaki-tzeko orduan. Horrenbestez, xede horixe delarik gure KSren inguruko az-terketaren egiteko nagusia, ertz horretatik eskax zen argitasunaren orde-z beste alderdi batzuetan sakondu behar izan dugu oraingo honetan laguntza seguruagoaren bila<sup>30</sup>.

Ikusi dugunez, —hizkuntza hutsean nahiz *ornatusean*— *Kontzepzioko Ser-moiaren* testu honetan gutxi da halabeharrez gertatzen dena, egileak ongi hautatu eta pisatu ondoren osagai bakoitza bere tokian ezarriaz osatua bai-zik. Edukiari adina garrantzia formari eman zaio eta hizkuntz osagai bakoitza tentuz hautatu eta kokatu izan da; horregatik beragatik, osagai horieta-rik lexikozko markagarrienak OEH eta EKC erabiliaz iruzkinduko ditugu, gehienetan sermoiaren jatorri eta egiletasun zehatzaz zertzelada aski garbi eta errotuak atereaz (aurreratu da, orobat, susmo eta aztarna mordoxka aitzineko ataletan). Halaber, saio honetan OEHko zenbait baieztapen, aur-kezpen eta laburpeni ohar jakingarriak gehitu ahalko dizkiogu usu, sarrerak finduaz eta aberastuaz, gure ustez.

Alegia, egiletasunaren froga-bide sendoenak lexikoaren azterketatik da-toz eta horiei lotu gatzaiakie: 1737ko Azkoitiko Sermoi egilegabearekin ika-si genuen legez (cf. Lakarra 1985b), ASko hitzen historia eta erabilerari buruzko zertzelada nagusiak miatu genituen 2023a-ko lanean eta halaber

---

<sup>30</sup> Haatik, «ñabardura» eta «kontraesan» errepikatuak esanguratsuak izanik izaera eta kopuruan, hortik ere L.ren egiletasunaren aldeko froga edo aieru aipagarriarik eskuratzen ahal dugu, eta ez bide dira mesprexatzekoak nahiz, beharbada, seguruagoak izan lexikoaren hustiaketatik jaso di-tzakegunak.

KSrenak egin gogo ditugu oraingoan. Egin ere, sakontasun eta segurtasun are handiagoz egin ahal izan dugu azken bi hauetan beste aspaldiko hartan baino, bai gainditu beharreko zailtasunen larritasuna, baina baita ikertzai-leak eskura dituen lanabesak ere, duela 40 urte eskura zituen edozer baino askoz erabilgarri eta bikainago direlako garbiri. Horiezaz baliatuaz berehalakoan antzeman eta lan poxi batez froga litekeenez, testu hauek (AS eta KS) —zehazki beren originalak— ez LEMko edo «Larramendiren garaiko» egile huts bat(zu)enak (cf. Murugarren 1984, adibidez), baizik eta Larramendiren beraren testu artean ezezagunei zor zaizkiola erakutsi nahi izan dugu, ziurtasun osoz ez bada bai fidagarritasun handiz bederen, gure aburuz<sup>31</sup>.

### 5.1 Irizpideak finduaz

Emaitzen analisisan sakontzeko eta usteak eta argudioak ahal den neurrian fintzen eta pisatzen saiatzeko (ikus § 7), sarrera bakoitzaren akabuan emandako datuen eta argudioen lehen sintesi eta sailkapena eratu dugu atal honetan, gure gogoetak eta argudioak zenbait azalpen lerrotarantz hurbilduaz. Hara antolamendu horretan KSk hitzak ezaugarritzatzeko garatu ditugun irizpide-sailak:

- A) Hegoaldeko lehen agerraldiak;
  - A1) Erabateko (Hego eta Ipar) lehen agerraldiak;
  - A2) Hegoaldeko 2. agerraldia (L.ren beste baten ondotik)<sup>32</sup>;
- B) KSn eta HHn bietan lekukotuak;
  - B1) KSn, HHn eta L.ren beste testu batean gutxienez lekukotuak;
- C) KSn eta L.ren gainerako testuren batean lekukotuak;
  - C+) KSn, eta L.ren beste testu bitan gutxienez lekukotuak;

<sup>31</sup> Fidagarritasun handiagoz ASren kasuan aurreratu dugunez, sermoiaren testu hutsaz landako aztarna garrantzitsuak baikenituen horretarako, *Loiolako Kolegioaren Historiak*o liburuaren lekukotasuna eta AS eta HHren arteko paralelismo esanguratsuak, esaterako.

<sup>32</sup> Usuenik KS aurretiko L.ren beste lehen lekukotasun horiek HHn bilduak dira, baina bada AzkS., AS eta are Artekoren zenbait ere, dagokien sarreretan markatu bezala; esan gabe doa hauetan KS eta L.ren testuen arteko lotura oso aipagarria egiten dela.

- D) Iparraldeko testuetarik L.k Hegoaldean bertakotutako hitzak<sup>33</sup>;
- E) L.k asmatuak edo «bataiatuak» (maileguak ondare zaharrekotzat emanak);
- F) Hegoaldeko testuetan 1800.ean edo are beranduago bertakotutako hitzak;
- G) Ez L.ren testuetan eta ez beste inon aurkitzen ez diren hitz eta egitura lexikoak;
  - G1) 1900 arte bertakotu gabeko hitz oso esporadikoak;
- H) HHn B letratik aurrera eratorriekin egindako lan ez-exhaustiboagatik (cf. Urgell 2002a) hiztegi horretan ez baina KSn edo L.ren gainerako idazlanetan agertzen direnak;
- J) Hizkuntza geografiaren arabera, Urolako edo aldirietako hitz esanguratsuak;
- K) Sermoi honetan ugari (= 5 aldiz edo gehiago) erabilitako hitzak.

Sarrera bakoitzaren bukaeran parentesi batean adieraziak joango dira irizpide-sail bakoitzari dagozkion letrak eta, hurrenez hurren, ondoko zenbakietako bat ere erantsiko zaie:

- «(1)» datu edo argudio bateragarriak L.ren egiletasunarekin baina ez esanguratsuak,
- «(2)» L.ren egiletasunaren aldeko datu eta argudio markagarriak edo,
- «(3)» huts-hutsean harturik, L.ren egiletasunaren aldeko datu eta argudio erabakigarriak<sup>34</sup>.

<sup>33</sup> Hara Hiztegiko pasarte ezin adierazgarriagoa: «Estas diferencias y las que están en el Arte, hacen principalmente este dialecto [lapurtera] y no digo nada de los nombres y verbos porque estos deben hacerse comunes a todos los dialectos, como lo procuro en el Diccionario» (HH, xxviii).

<sup>34</sup> Hasieran 2. multzoan sailkatu genituen dozena-erdi bat hitz 3.era eraman ditugu, 3 argumentu edo irizpide ezberdin edo gehiago biltzera iristen zirenak, batez ere A multzokoetan (lehen lekukotasunak), B-koetan (KS eta HHren arteko loturak) eta C-koetan (L.ren testu ezberdinen arte-

Sail guztiak emankorrek eta garrantzitsuak dira azken helbururako, hots, *Kontzepzioko Sermoia* Larramendiren testu berri artean ezezaguna dugula erakusteko, baina, beharbada, E sailekoak (HHn asmatu eta «bataiatutako» hitzak), G-ko ia hapaxak eta, bereziki, B eta C-ko azpisail ezberdinetakoak (KSk L.ren gainerako lekukotasunekin partekatu hitzak) lirateke argudio pisutsuenak eskaintzen dizkigutenak. Orobat, oso pisuzkoak lirateke A-koak (lehen eta bigarren agerraldi sail ezberdinetakoak), D-koak (Iparraldetik bertakotuak) eta K sailean bildu usu erabiliak ere, bereziki batzuek eta besteak B eta C-koekin (Larramendiren lekukotasun ezagunetakoekin) konbinaturik datozkigunean. Azkenik, maila apalagoan, beren ekarpena egin dezakete J-ko Urola aldekoek ere.

### 5.1.1 *P irizpideaz*

Bistakoa da, hitz bakoitzak (eta argudio mota bakoitzak) zeinek bere aldetik izan lezakeen froga indarra —dela L.k asmatua, dela Iparraldetik Hegoaldera birlandatua, izan L.ren testu artean argitaragabeetan erabilia, izan hapax edo 1800 baino lehen erabili gabe..., kasuan kasukoa— erruz biderkatzen dela hitz esanguratsuen pilaketa eta ezaugarri edo argudiabide horien gurutzaketa edo metaketa gertatzen denean.

Larramendiren eskutik sortu edo igarotako hitzak zein bere aldetik azalduz ere testu batean, —erlazio estuaren adierazle direnean bereziki, esaterako «(3)» multzoko gehien-gehienak— edota ugari erabili direnean, froga-balio pisutsua hartzen dute, nabarmen. Gainera, hitz horietarik mordoxka lekukotzen bada testu labur batean —KSn, demagun, 105etik 60 bai, 10 orrialde txiki soiletan— lotura hori are arrunt garbiagoa dateke, demagun, delako hitz horiek Cb.en, Mb.ren, AAren edo Gco.ren ehundaka orrialdetako bildumetan behin lekukotuko balira baino.

AS aztertzean ikusia dugu (Lakarra 2023a) zenbait hitz-bikote edo sintagma (*miraldizko berritasun*, esaterako) 3 edo 4 bider errepikatzen

---

ko paraleloak) aldi berean zituztenak. Aldiz, dozenatik gora dirateke «3»tik «2»ra jaitsiak, —bakterean, besteren laguntzarik gabe— egile ezezagunaren aukera guztiz ezabatzen ez zutelakoan.

direla inoiz 30 edo 40 lerrotan, eta baita *eta/edo* batez sinonimoren batekin loturik ere (*ditxa eta zorion*) 15-16 aldiz 250 lerro soiletan. Gertakari horiek ezin argiroago erakusten dute egileak zuen grina hitz horiek hedatzeko eta, artean ez bezala, ezagun egiteko: hori litzateke KSn *men-de*, *mirari*, *naigabe* edo *sortze*-ren kasua (ikus dagozkien sarreretako iruzkinak).

Orain, aurreko lanekotik zerbaixka aldendu edo aitzinatu arren, garatzen ari garen irizpide berriak badu eiterik, ordea: gure iritzian garrantzi berezia eman behar bide zaio artean gutxi landutako P irizpidea (= «perpaukide irizpidea») deituko dugun<sup>35</sup> lexikoaren azterketaren alderdi bati: hainbat hitz (7 dozenatik gora, horietarik 6, gainera, «2» eta, bereziki, «3» sailetakoak) sintagma edo, usuago, esaldi ez luzeegietan mordoka konbinaturik aurkitzen ditugu<sup>36</sup>, hots, KS honen azterketarako hautatu bi —eta sarritan are hiru edo lau— hitz markagarri ere («larramenditar susmo argiko») estekatuaz.

Har dezagun berriro aurreko § 3n dagoeneko aipatu dugun pasartea: [Baña ò Maria, nere *gurte* edo culto eta confianza bigun eta osoaren *jomuga dina*]. Nahiz *gurte* nahiz *jomuga* nahiz *dina* HHtik atereak<sup>37</sup> dira eta, zalan-tzarik gabe, haren ezagule eta zordun larri batek edo HHren egileak berak baino ezin osa zezakeen horrelako esaldirik. Esan bezala, KSn dozenaka sintagma edo esaldi dira zeinetan P irizpidea gure ikerketarako aztergai hau-

<sup>35</sup> Aurreko ASri buruzko lanaren akaburantz honelako zerbait garatzen hasi beharra aipatzen genuen bere sendotasun eta garrantzia ordurako garbiro agertzen baitzen; harako hartan «irizpide sintagmatikoa» deitu nuen baina nahiago izan dut «perpaukidetasuna» markatu irizpidearen izenean, gehienetan ez baitira sintagmetan baina perpausetan gertatzen, usuenik kolokazioek ez bezala, beren arteko lotura gramatikalik ez dutelarik. Elkarren arteko askatasunak eta, halere, era honetako hurbileko metaketak ematen dio garrantzirik larriena, gure ustez, irizpide honen pisuari.

<sup>36</sup> Inoiz edo behin esaldia motxegia zelako edo beste arrazoiren batengatik, aurreko edo ondoko esaldiaren hurbilenean leerroan zirenak aipatu izan ditugu nahiz benetako premiarik ez izan.

<sup>37</sup> «Atereak» horrek ez du ezinbestean «sortuak» esan nahi, L. bidez dialekto batetik besteetarako egindako zubilana ere berdintsu bailitzateke larramenditartasuna erakusteko. Gure hemengo erabilerrako, behintzat, hain larramenditar dira batzuk zein besteak, izan ere beren historia (idatzizko euskaran, bederen) ez baita ulergarri L.ren lana kontuan hartu gabe.

tatu 105 hitzetarik 85ekin betetzen dutenak<sup>38</sup> —horien inguruan edo horietarik zenbait konbinatuaz antolatuak, alegia— eta, gainera, baita hainbat hitz HHn ez ezik L.ren testuetan ere errepikatzen direlarik... Horrenbestez, KS eta L.ren arteko metaketa-kate hau —behetik gorantz goazela, lehen-dabizi esaldi mailan, gero paragrafoetan eta azkenik orrialdeetan eta testu osoan— ezin trinkoago bilakatzen da eta, horrekin batera, sendoago bihurtzen L.ren alde KSren egiletasunaren hipotesia.

## 5.2 Aztertutako hitzak<sup>39</sup>

- 1) *Alabanxa* ∷ [ $\langle 3 \rangle$  Baña ò Maria, nere gurte edo culto eta confianza bigun eta osoaren jomuga dina, ezagutzen det nere *alabanxa* bearric etzezula, ni naiz zure laguntasunaren bearrean arquitcen naicena].

«Ia soilik Hegoaldekoa, Iparraldean bakarrik EZk eta Bordelek dabilte», dio OEhk. Hegoaldean ere 1745 b.l. ez dira ugari hitz honen lekukotasunak (Beriainen bi liburuetan eta gipuzkerazko *Misereren*). Gauzak gero aldatzen dira errotik eta baduke horretan zerikusirik HHko sarrerak:

*Alabanxa*, es voz Bascongada: sin añadir ni quitar letra, significa semejanza de hija, y como es natural hablar con cariño y estimación de una hija, así a las expresiones de aprecio y estimación en favor de alguno se dio el nombre de *alabanxa*<sup>40</sup>.

HHren ondoren hitza Hegoaldean normaltasun osoz erabiltzen da (Cb., Mb., Mg., AA, Añ., Gco., Zabala, Izt., Azkue aita eta TxAg. tarteko); halaber, L.k bere idazkietan ez zion iskin egin, OEhk ai-

<sup>38</sup> Hitz ezberdin bakoitzeko kasu bana zenbatzen dugu hemen, baina arruntena horietarik gehienak hainbat sare ezberdinetan kausitzea dugu eta, beraz, beren arteko, HHrekiko eta L.rekiko loturak are gehiago (200etik gora) sendotzen dira.

<sup>39</sup> Ikertutako hitz bakoitzaren sarrera-buruaren aldamenen kaxak artean hitz horren KSko agerrialdi guztiak bildu ditugu, P irizpidea are nabarmenago egin dadin.

<sup>40</sup> Bere garrantziaz oharturik OEhk ere aipua osorik ematen du, s.u.

patzen duen Gandararentzako gutunaz landa, AndS. edo S. Tomas-en otoitzean baitarabil, esaterako.

L.ren euskarazko testu laburretan (hirutan gainera) hainbat erabili izanak argi adierazten du egilea saiatu zela hitz hau, ez soilik teoriarik, baina praktikan ere bertakotzen edo, hobe, bertakotua zena euskarazko jatortzat ematen<sup>41</sup>.

KS L.ren eragina izan zuten askotariko beste bat baino gehiago izan zela adierazten du emandako lekukotasunari P irizpidea ezartzeak: esaldi berean *gurte*, *jomuga*, *dina* eta *laguntasun* hitz esanguratsuekin konbinatuaz (ikus dagozkien sarrerak), KSk *alabantza*-ren atzean L. bera dela eta ez beste diosku.

(B / C+ / E) → [3-P].

- 2) *Aldekoi* ∴ [ $< 2 >$  Zorigaitzoco guertaera onen *aldecoi* edo circunstancia guciac;  $< 5 >$  Andia *aldecoi* edo circunstancietan eta batez ere bacantasun eta bacartasunean;  $< 5 >$  Andia da bere *aldecoi* edo circunstancietan. Baldin Jangoicoac oiezbecelaco bideren batez Maria mundura ecarri balu].

Ez da Hegoaldeko ez Iparraldeko agerraldirik 1745 b.l.; HHn «(En las) circunstancias presentes, *oraingo aldekoietan*».

Lekukotasun (positibo eta negatibo) oso markagarriak OEHren arabera: bai *Birjinia*-k, Egiategik, Añ.k (*Misionari Euscalduna*), Izt.k, EEk (Antia gehitzen du EKCK); ez Cb.ek, ez Ub.ek, ez Mb.k, ez AAK, ez Gco.k, ez Lard.ek.

<sup>41</sup> KSn bertan erabilitako L.ren beste «bataio» baterako, cf.  $< 4 >$ : «bere amatzat atera zuala etsaien menpeco eta gu becela bere aserre gucién *diñaco doncella* bat?» eta HH s.u. *doncel*: «(...) Viene de el Basquence *doain el, doañez el*, que significa llegarse lleno y adornado de prendas (...)». Aldamenean daraman *diñaco* hain larramenditarraz, ikus testuan beheheragoko sarreran. *Alabantza* bezala, *dontzeila* ere HH ondotik arrunki darabilte (Cb., Mb., Ub., *Birjinia*, AA, Mg., Añ., fB...), lehenagoko Lazar., Cap., OA, Bar. eta enparauez gainera. Urgellek (2018: 576) dioenez, «euskal hitz petoak bailiran aurkeztuak dira hamaika mailegu», *alabanza*-z landa, *aberia*, *alanbre*, *alboroto*, *alegere*, *arroganzia*, *arroz*, *arte* eta *azaña* ere ematen ditu pareko adibide gisa A letratik atera gabe.



L. eta KSren arteko erlazio nabarmena dugu Iztuetaz landako gipuzkerazko hutsune larria kontuan hartuaz.

P irizpidearen arabera erantsi bekizkio esaldi bateko *zorigaiztoko* eta *gertaera*, besteko *bakantasun* eta *bakartasun* eta enparauko *oiezbezelako*-ren iruzkinek *aldekoi*-renari gehitu indarra (ikus zein bere sarreran iruzkinetarako).

(A2 / B / E / F) → [3-P].

- 3) *Alderandu* ∷ [< 4 > beste jaquinsu ascoren iritcian Mariaren bicitza guztitic *alderantzeco* asco añacoac dirade; < 8 > becatu etorqui onec aimbesteraño isusquitu eta Jangoicoag[and]ic [*alderanduco*]<sup>42</sup> urrutiratuco zuen Maria nun eta Jangoicoac secular bere amatzat autuco etzuan eta ona becatuaren ecarrai edo efectoa].

«Apartar, apartarse. (V-gip, G-goi)» (OEH). Hitz honen orain arteko lehen lekukotasuna 1890eko *Patxiko Txerren* izanik (ez dugu besterik aurkitzen EKCn ere) ezin izan liteke erabakiorra, baina hitzaren hedadura modernoak ez du zailtasunik suposatzen KS L. rena izan daitekeela aldarrikatzeko.

P irizpidearen arabera erantsi bekio lehen esaldiko *jakinsu*, nahiz hau ere ez izan froga sendoenetarik eta, batez ere, bigarreneko *bekatu etorki*, *itsuskitu*, *autu* eta *ekarrai* (ikus bakoitzaren iruzkina dagokion sarreran). Guztien artean ezin argiago egiten dute, batetik, *alderanduco* KSren aurreko geruzakoa zela —originalekoa segurtasun osoz— eta ez azken kopiagilearena; bestetik, L.ren KSrekiko egiletasunaren aldeko froga. Ikus 100. hitza: *urrutiratu*.

(A1 / F / J) → [2-P].

- 4) *Amatasun* ∷ [< 3 > Jangoycoaren *amat[a]sunagatic* batasun miragarri bat dauca; < 3 > Mariac Jangoicoaren *amatasunagatic* dauzcala; < 6 > eragozqueta edo impedimentu andi bat Jangoicoaren *amat[a]asunari*].

<sup>42</sup> Eskuizkribuan tatxatua; testuko oharrean esaten den bezala, aurrekoa eta are originalekoa behar du berarekin konbinatzen diren hitz larramenditarrak kontuan izanik.

Ez da Hegoaldeko agerraldirik 1745 b.l. OEHk Pouv. «maternité, *amatasun*» ematen du baina ez HHren «maternidad, *amatasun, amaizatea*» (nahiz «Lar» badakarren); *-tasun* atzizkia se-guruenik iturrian jaso zuen eta ez berak erantsia. Lekukotasun horrek, noski, azaltzen du Materra, EZ eta Argainaratzek ekarri ondoren —L.ren iturri-gai dira lehen biak— Mb.k<sup>43</sup>, Gco.k, LEk eta Añ.k (nahiz Dv.ek) ere ekartzea, HHren zordun ezagun diren bezala. AA, Astarloa, Gasteluzar, Mihura, Harizmendi ere gehitzen ditu EKCK, nahiz horrek gure ondorioetarako eragin urria izan.

L eta KSren arteko erlazio egiantzekoa nahiz ez erabatekoa.

P irizpidearen arabera erantsi bekizkio *miragarri* eta *eragozketa* garrantzitsuak (ikus beren iruzkinak dagozkien sarreretan).

(A2 / B / D) → [2-P].

5) *Andinaizko* ∴ [ $< 10 >$  *andinaizco* becatu bacar bategatic].

Ez da oinarriaren (*handinahi*) Hegoaldeko adibiderik 1745 b.l.; Iparraldean EZ, Ax. eta SPren *Philotea*. HHk «ambición, *antusia, andinaya, omenaya, andigura, irrítsá*» eta «ambicioso, *antusiduna, andinaia, omenaya, andigura, irrítsaria*».

Badakar Cb.ek baina gero TxAg. eta Manezaundiganainoko jauzi erraldoia dugu. EKCK ez du lekukotasunik.

*Andinaizko*-ri zuzenean helduaz, bada SPren adibideren bat baina ez da hautagai egokia L.rentzat eta ez da Hegoaldekorik, ez OEHN eta ezta EKCN. *Irudipenezko* eta *usteltasunezko* bezala, KSn Arteko ereduaren arabera eratu dugu, HHn bertan kanpoan utzi den arren:

El Romance tiene unos casos que parecen del genitivo de posesión, y son en Latín, o del ablativo o son adjetivos (...) y estas locuciones en Bascuence no son del genitivo sino del adjetivo,

<sup>43</sup> Soilik bi agerraldi, bat argitaragabea 1982 arte (= Altuna [arg.] 1982).

vg. *Urrezc6 buruá, cillarrezc6 escuá, zurezc6 guizoná (...)* Y la razón es porque los sustantivos que significan la materia de que se compone algo, forman adjetivos en *ezc6*, como en Latín en eus, *urré, cillár, zur*, aurum argentum, lignum, *urrezc6, cillarrezc6, zurezc6*, aureus, argenteus, ligneus. (Larramendi 1729: 26)<sup>44</sup>

Datuon aurrean L. eta KSren arteko lotura markagarria, *Gramatikara*, HHra eta L.ren testuetara ere hedatzen dena, hitz-eraketari dagokionez, bederen.

(A1 / G1 / H) → [3].

6) *Anditasun* ∷ [anditasun guciac].

Oso hedatua Hego nahiz Ipar 1745 b.l.: Kap., OA, Irazusta; Mat., EZ Man., Ax. eta Ht.en VocGr. HHn «Grandeza, *anditasuna*, *aunditasuna*», «Magnitud, *anditasuna*, *andigoa*», «grandor, *anditasuna*».

Ondotik, Cb., Mg.en *Konfesio ta Komunioco...* eta *Konfesino Ona*, AA, Gco., Astarloa, Izt., etab. (EKck Mb. ere gehitzen du).

Atzizki honen bidez eratu gehienak ezin izan litezke froga sendoegia ezertarako, (cf. 16. sarrerako *beartasun* hitza, *-tasun*-en iruzkinerako) baina bai datu txiki bat gehiago L. eta KSren arteko loturaren alde eta baita seguruenik *-tasun* dagoeneko HHren iturrian zela susmatzeko zio ere (honetarako aukera bat baino gehiago du dakusagunez Iparraldean). Litekeena litzateke, noski, egile ezezagun batek hitza Cb. edo Mb.n ikasia izatea ere.

(A2 / B / D) → [1].

7) *Ansitudun* ∷ [ansitudunac edo importanteac].

«*Ansitudun* (-ns- Lar). «Importante» Lar (Dv, H, A), *ansitudun* (V, G ap. A). A *ArdiGaldua*» (OEH).

<sup>44</sup> Lakarra 2023a-n ere aipamen bera egin genuen, ASn ere baitira beste zenbait atzizki horixe erabiliaz sortuak (eta HHn kanpoan utziak).

Bakarrik hiztegi hitza —EKCK ez dakar ezer Azkueren *Ardi Galdua* hain bereziaz landara—, eta hor ere esanahi ezberdinarekin: «cuidadoso, solícito».

Gainera, testuko *ansidun* bakarra *oarmen*-ekin konbinaturik (ikus bere sarrerako iruzkina); ondorioa, KSKo sintagma honen arrarotasuna, are nabarmenago bilakatzen da.

KSren L.rekiko lotura estuaren eta L.ren egiletasunaren froga sendoa.

(A2 / B / E / F) → [3-P].

- 8) *Apainduri* ∷ [ $\langle 8 \rangle$  Munduco *apainduri*, janci eta beste vanidade-tan].

«Atestiguado por primera vez en textos meridionales de principios del s. XIX. [CatElg., Mg.en *Confesio ta Comunioco...* eta *Confesino Ona*, AA, fB. aipatuaz]. Es algo más frecuente en la tradición vizcaína. En textos guipuzcoanos su empleo va aumentando desde mediados del s. XIX, alternando con *apaindura*, a menudo en un mismo autor» eta «V-gip» dakar OEHK, Etxeberriaren Eibarko eta Elexpururen Bergarako hiztegien lekukotasunarekin<sup>45</sup>.

L.k ez du biltzen HHn ez DVCn, baina ikusitako hitzaren hedaduraren arabera, Loiolatik asko urrundu gabe errazki ezagut zezakeen hitza dirudi.

(A1 / J) → [1].

- 9) *Arreta* ∷ [ $\langle 6 \rangle$  nola itzaldia eguin bear degun onen gañ: *arreta* edo atencio pisca bat, nere enzuleac].

«Propio de la tradición meridional; se documenta desde mediados del s. XVIII», dio OEHK; hots, HHko «advertencia», «aplicación», «atención», «tiento, miramiento» sarreretan lehendabizikoz agertu

<sup>45</sup> EKCN Mb.ren 19 agerraldi eta Cb.en 14 gehi Añ. eta Zabalaren beste batzuk datoz, itxuraz, baina banaka xeheki begiratuaz guztiak dira *apaindu*-ren flexioak, *apaindurik(o)*, batez ere.

(-eta bidez eratu edo moldatua)<sup>46</sup> eta L. ondotik Hegoaldean [Cb., Ub., Mg., AA, Gco.] hedatua. EKCK Mb., Izt. eta Uriarte ere gehitzen ditu.

KS ere gutxienez aurreko paragrafokoak bezain zordun HHrekiko, harritzeko ez dena, baina marka bedi L.ren testuetako 4 *arreta* (2 AndS., 1 SAgS., 1 MendSG.) ezagutzen ditugula; horrenbestez KSk *arreta* ere L.ren hitz honen aldeko isuriaren eta beraz, L.ren egiletasunaren aldeko aztarna dugu.

Gehi bekio *itzaldi* P irizpidearen arabera (ikus dagokion sarrera).

(A2 / B / C+ / E) → [3-P].

- 10) *Atsegingarri* ∴ [*< 5 >* cembat negargarriago dan pozoi eriozcoaz cutsatua egotea, ambat *atseguingarriagoa* dala sugue madaricatua oñazpiratcea].

OEHK izen bezala SPren *Imit.* eta *Phil.* ematen ditu eta hortik Añ. eta Zabalarengana jauzi egiten; adjektibo gisa «lo hallamos desde mediados del s. XVIII; es algo más frecuente al Sur» diosku, Mb. (4 agerraldi, 2 idazlan argitaragabeetarik), Ub., Mg. eta Gco. direlarik lehen lekukotasunak. Gero Izt., Dv., Antia, Zabala eta Uriarte (EKC).

Ez da HHn agertzen, baina bai «placer, *atseguña*, *gozaldia*, *placera*. Lat. Voluptas, gaudium»; halere, -*garri* bidez eraturako hainbat dira KS honetan (ikus 70 *konsolagarri*, 79 *miragarri*, 81 *mugarri*, 83 *negargarri*, 90 *osasangarri*, 95 *protxugarri* ere). Nahiz SPrengandik hartua izan litekeela dirudien, egile hori ez da L.ren iturrien zerrendan eta *atsegingarri* ere KSn (L.ren beste testuetan bezala) -*garri*-ren bidez eraturako hainbat eratorriekin bildu behar bide genuke.

<sup>46</sup> Lehen agerraldiak HHko «advertencia, *oarra*, *oarquera*, *oarpidea*, *arreta*, *arta*, *sená*, *contua*», «aplicación, cuidado, atención, *arreta*, *oarquera*, *artha*», «atención, *arreta*, *oarra*, *oarcuna*, *oarrera*», «tiento, miramiento, *arreta*, *arta*» dira; guztietan edo gehienetan *ohar*-en gainean egindako eratorri berriekin eta iparraldekoen *arta* kide zaharragoarekin. Halere, Blanca Urgellek diostanez, -*eta* bidezko eraketak urriak dira HHn, -*keta*/-*geta*-ren bidezkoekin erkatuaz; ik. Urgell 2000 eta 2003.

Aurreko argudioez landa, goiko esaldian aurkitzen ditugu hainbat hitz —*negargarri*, *pozo*, *eriozko*, *kutsatu* eta *oñazpiratu*— KS eta L. lotuaz, zalantzarik gabe. L.k berak eratua dirudien *oñazpiratu* salbu, gainerako guztiak Iparraldeko literaturatik hartu zituen (ikus zein bere sarreran).

HHrekiko egiantzeko lotura adierazten dute datu eta argudiook, egiletasunarekin bateragarri, eta P irizpideak azken ondorio hau ia ezinbesteko bilakatzen du.

(A / H) → [2-P].

- 11) *Atsegintasun* ∴ [ $< 1 >$  *atseguintasun* gucien billecua; Ona gucia da-guiquen Jangoicoac gaur (...);  $< 8 >$  *atseguintasun* lizunetan;  $< 7 >$  iduripenezco honrac, *atseguintasunac* eta *ondasunac* galdu].

Oso gutxi lekukotua Iparraldean (baina adibide mordoxka Ax.engan) eta soilik Ub.engan Hegoaldean 1800 arte (OEH); ordea, Cb. eta Mg. eta baita gero Añ. ere badira EKcN.

Ez dator HHn; jakinik (cf. Mitxelena 1981a, 1981b) Ubillosek ere Axular erabili zuela, hau bide da haren eta sermoi honen egilearen iturria.

Añibarrok badakar («deleite sensual»), HHko «deleite, *gozendea*, *gozaroa*, *pozmada*» ordezkatuaz; nahiz Ax.etik hartu nahiz L.ren *atsegin*-etik (s.u. «placer») era zezakeen eratorri hau.

Arestian lekukotu denez (Lakarra 2023a), ASkoa (1740) dugu hitz honen lehen agerraldia Hegoaldean eta froga erantsia testu hori L.rena dela segurtatzeko nahiz bide batez, baita L.k egin Iparraldeko tradizioarekiko zubi-lan ezagunarena ere<sup>47</sup>.

Orain KSk ere *atsegintasun* dakarrelarik (eta hainbat aldiz ekarri ere) aurreko analisisa sendotu eta KS ere L.rena dela suma bide dezakegu.

<sup>47</sup> Izatez, Ubillosek bazuen hitza asmatzerik Axularri hartu gabe ere, baina testuan emandakoak dirudi hipotesi merkeena.

P irizpidearen arabera hitz honi lotutako *ondasun*, *billeku*, *irudipenezko* eta, bereziki, *guziadagiken*-en iruzkinak ere L.ren egiletasunaren alde doaz.

(A2 / C / H) → [3-P].

- 12) *Autu* ∷ [< 4 > Etsaiaren mendean egon zala bere amatzat eta onen mendean bicitceco *autu* zuana; < 8 > bere amatzat *autuco* etzuan eta ona becatuaren ecarrai edo efectoa; < 3 > Jangoicoaren amatzat *aututaco* Maria gracion sortua eta becatu etorquitic gordea].

Lakarra 2023a-n ikusi dugunez, «Aditz gisa soilik Hegoaldeko tradizioan lekukotua. Partizipio-adjektibo gisa badarabilte Iparraldeko idazleek ere; izen-erabilera Iparraldekoena da soilik», dakar OEHK, s.u. RSkO adibide baten ondoren Ubillos eta Mg.enak, orobat EKCK Cb.<sup>48</sup>, Mb. (4 agerraldi), AA, Añ., Zabala, Lard., Uriarte ere bai.

HHk, aldiz, ez du: «elegir, eligir, *autetsi*, *autatu*, *bereistu*, *iracurri*. Lat. Eligere».

ASko erretorika eta errepikapenek asko laguntzen dute hitzaren zertzelada formal eta semantikoak fintzen eta, orobat, ASren egiletasuna L.ren alde iradokitzen, (nahiz *gainezkatu*, *zorion* eta beste batzuk are gehiago erabili, ikus Lakarra 2023a):

(4r) parteric onena daqui aututcen. Badaqui Maria Santissimac erreinu artan daudena escu-aldeti justicia eta misericordian eta escogitcen du bertati misericordia beretzat. (*Ib.*) Autu zuen ama piadosa onec misericordia, mundutarrai (4v) piedadez eta erruquiz veguiratceco, autu zuan misericordia Aita Eternoaren justicia palagatceco eta misericordiaren ama izateco, mater misericordiae, autu zuen, aizquenic, misericordia, betico guri cerua aseguratceco bere eriotzaren vitez.

KSn ere aski ageri da, hitza L.k Bizkaia aldetik hartua izan liteke 1740 b.l. eta gero bi sermoietan erabilia, nahiz HHn ez sartu.

Honaino L.ren bi testuren arteko erlazio markagarria, ez erabatekoa, halere; P irizpidean oinarriturik erlazio hori areagotzen da egi-

<sup>48</sup> Lekukotasun ahulak, 1882ko Aranaren edizioakoak gehienak eta besteren bat data gabe.

letasunera edo hurbilera ere iritsiaz aipatu hiru esaldietan *ekarrai*, *mende* eta *bekatu etorki*-rekin konbinatua aurkitzen baitugu *autu* (ikus horien iruzkinak beren sarreretan).

(A2 / C) → [2-P].

- 13) *Bakantasun* ∴ [< 5 > *bacantasun* eta *bacartasunean*; < 5 > *bacantasan* eta *ba[ca]rtasunean*; < 5 > *bacana* edo *particularra*].

Ez da agerraldirik 1745 b.l. ez Ipar ez Hego.

HHn «raridad, extrañeza, *artzia*, *bacantasuna*» dugu lehen lekukotasuna eta gero ere hiztegi-hitza da funtsean: Hiribarren, Harriet, Azkueren *Diccionario de bolsillo*; baditu, halere, Baratziart eta LE-ren lekukotasun batzuk 1800 baino lehen, eta EKCK guretzat esangura gutxiko diren Lauaxeta, Orixe eta Labaien ere gehitzen ditu.

Beraz, oso markagarria KSren larramenditar hitz honen erabilera (hots, berandu arteko usadio falta) eta, horrenbestez, testua bera ere L.rena izatea oso egiantzeko.

Ikus hurrengo sarreran *bakartasun*-ez.

(A2 / B / E) → [3-P].

- 14) *Bakartasun* ∴ [< 5 > *bacantasun* eta *bacartasunean*; < 5 > *bacantasan* eta *ba[ca]rtasunean*].

Mikoleta eta Urkizu Hegoaldean nahiz Harizmendi Iparraldean ez dira iturri egokiegiak L.rentzat, bai Baionako 1733ko dotrina, eta hobe, segurki, Ht.en *VocGr.*, 425: «solitude, *bakhartassuna*»; alabaina EKCN OA: «*Konbeni izango zaio kristaubari bere bakartasunera retiraturik orazio egitea*» (5. kap.).

HHk «soledad tiene origen Bascongado, *soledadea*, *soiltasuna*, *ba-cardadea*, *bacartasuna*, *lagunguea*, Lat. *Solitudo*» dakar. Ondoren Cb., Mb., Añ. baina ez AA, Mg., Gco. eta beste hainbat.

Atzizkiagatik frogatzen erabatekoa ezin izan baliteke ere, egiletasunaren aldeko datu erantsia bai. Bada, gainera, axolazko xehetasun bat: hitz hau eta aurrekoa bitan agertzen dira sermoian eta bi ka-



suetan esapide bakarra eginaz bildurik —ez da beste horrelakorik OEHn—, horrenbestez testuaren berezitasunaren gehi L.ren aldeko egiletasunaren argudio sendoagoa bilakatuaz.

Hitz hau, noski, ezin da bere aldetik ikertu, KSn agertzen den bikoitearen barruan baizik (ikus *bakantasan*-en iruzkina aurreko sarreran).

(B / D) → [3-P].

- 15) *Batasun* ∷ [ $< 3 >$  arguiarequin illuntasun eta saintutasunarequin becatuaren arteko *batasuna* edo unioa;  $< 3 >$  Jangoicoaren amatasunagatic *batasun* miragarri bat dauca].

«Documentado desde Leizarraga, es más frecuente al Norte» (OEH); zehatzago, Hegoaldean lekukorik ez HH b.l. eta hainbat Iparraldean, nahiz eta ez Ax. (bai Etxeberri biak, SPren bi liburu, Gasteluzar, Xurio, etab.).

Badirudi L.k Ht.en VocGr.tik har zezakeela, 415: «reconciliation, *batassuna*, *bakhea*»; eta 438: «union, *batassuna*». HHk bakarrik bigarrena hartu bide dio: «Unidad, *batasuna*, *batagoa*» («reconciación de enemigos, *ongundea*, *comundioa*, *adisquidetzea*», «para comulgar, *erreconciatzea*»); Ht.en hiztegiez, ikus Lakarra 1991, 1994 eta Urgell 2009.

Ondoren SAgS., BurDot., *Korografian*, eta Ub., Egiategi, AA eta Añ., baina ez Mb. edo Gco.; EKCn Mg. eransten da 1800 b.l. eta gero Dv.en 298 agerraldi.

SAgS., BurDot., *Korografian* eta KSn erabili izanak hitz honekiko L.ren isuria agerian uzten du eta haren egiletasunaren aldeko hipotesia irmotzen; are gehiago P irizpidearen arabera bi esaldietan *illuntasun*-ekin eta *miragarri*-rekin (gehi *saintutasun*<sup>49</sup> eta *amatasun*-ekin) bikote egitean (ikus gehiago sarrera horietan).

(A2 / C+ / D) → [3-P].

<sup>49</sup> Ikertutako hitzen zerrendan sartu ez arren, aipatu beharreko iruditzen zaigu euskal corpus osoan hapaxa dugun hau; *saintu* bat badu AAK, errata ez bada. *Saintu* honek *fruta* gogoratzen du formagatik (baina *fruta*-k hainbat agerraldi ditu KSn bertan); ikus sarrera horretan.

- 16) *Bear, beartasun* ∷ [ $< 6 >$  guraso *bear* edo pobre[a]gandic;  $< 6 >$  *beartasun* edo pobrezatic;  $< 7 >$  *beartasun* edo pobrezatic ez humiltasunetic].

«Documentado desde el s. XVIII en autores guipuzcoanos y vizcaínos; tbn. se encuentra en Duvoisin<sup>50</sup> y en un capítulo de *Atheka* en dialecto bajo-navarro» (OEH)<sup>51</sup>.

Abiapuntua HHn, «indigencia, *bearra, baguea*»; «necesidad, *bearra, premia*», dugu, eta orobat, «pobreza, *pobreza, bearra, premia, peitutasuna, escagaya*». Gogoan izan horko *peitutasuna*-tik *-tasun* gainerako guztietara ere heda zitekeela Lakarra 2023a-n markatu zenez, ASn eta L.ren gainerako testuetan errazki aurki bailitezke HHn faltan diren hainbat *-tasun*. Espero bezala, hori gertatzen da Añ.rengan: s.u. «miseria, desgracia, penuria» eta, seguruenik, antzera ondoko erabiltzaile gehienetan.

Lekukotua Mb., Ub., Añ.rengan, baina ez Mg., AA edo Gco.gan. EKck Cb. eta Izt. gehitzen ditu, besteak beste.

P irizpidearen arabera markatzekoa da goiko *humiltasun*, xehetasun larriegia ez bada ere.

(A / H) → [2-P].

- 17) *Bekatu etorki*. Ikus *etorki*.
- 18) *Bidegabe* ∷ [ $< 4 >$  gualdun eta jaquiundeari *bidegabe* andi bat eguin;  $< 6 >$  Ote da *bidegabe* eta naigabetatic? Ez bada bere sortcean *naigabeac* ezpacituan etorrigo zaio].

OEHk: «Documentado desde Dechepare, no lo hallamos en textos suletinos [baina bai Leiz., Mat., Ax., Etxeberri biak, SP edo Baionako 1733ko dotrina nahiz Ht.en *VocGr.* ere]». Ez da Hegoaldean 1745 b.l.

<sup>50</sup> Dv.ek XVIII-XIX. mendeko Hegoaldeko egileekin duen lotura HH bidez dagoeneko markatu izan da (cf. Urgell 2018: 634); azterketa berezia merezi luke XVI-XVII. mendeko Iparraldekoekin bide beretik izan lezakeen erlazioak.

<sup>51</sup> *Athekaren* sorreraz dakigunak ez du dialektoarekiko lekukotasun sendoegizat ematen.

HHn «agravio, injuria, *irainá, bidegabé, bidebagueá*. Lat. Injuria, ae. Hartos agravios me ha hecho, *irainic asco eguin dit, bidegabe asco ecarri dit*». Gero L.ren *Fuero*seko euskarazko zati batean eta garaiko eta ondoko hainbat idazleren lanetan: Mb., Cb., Ub, Mg... zein AA, Uriarte, Lardiz., Larregi, Duhalde, Hareneder, Xurio, Zabala, Monho edo LEn (EKC).

Nahiz beste egiletasun baten aierua zilegia den, datuok bateragarriak dira L.ren aldeko hipotesiarekin, are gehiago, sermoiko bi agerraldietarik batean *guzialdun* eta bestean *naigabe*-rekin eta *sortze* garrantzitsuekin uztarturik baitator (ikus sarrerok).

(A2 / B / B1 / D) → [2-P].

- 19) *Bil-leku* ∷ [< 1 > Jangoicoaren atseguintasun gucien *billecua*].

«Lugar de reunión» (OEH), *Birjina*-ren lekukotasun soilarekin (EKCK ere ez dakar besterik). HHn «lugar, quando viene con otro nombre, como lugar de páxaros, &c. entonces se postpone *lecua, toquia* (...) o se postpone el nombre postpositivo *teguia*...», eta hortik «exedra, *biltoquia*» baina potentzialki (cf. *-tasun, -garri*...) baita *bil-leku* ere, eratortzeko zilegitasuna markatuaz.

*Birjina*-rekin partekatzen duelarik L.ren forma potentzial hau KSko hitz honek HHrekiko lotura ezin hurbilagoa salatzen du (*Birjina*-rena bezainbat, gutxienez); halere, ezin uka liteke egile ezezagun baten aukera besterik gabe.

*Atsegintasun* lerro-kideaz ikus gorago haren sarreran eta bi beherago *bizileku*-z.

(A1 / G1 / H) → [2-P].

- 20) *Biotz gogordun* ∷ [< 9 > Escriturac esaten digun *biotz gogordunac*].

*Bihotz gogor* SP, L., Añ., Hb., Maurice H. hiztegietan eta Lazar., EZ, Ax. eta Tartasengan lekukotua. Cb.ek, Mb.k eta AAK *biotz gogordun* bana dakarte eta gero aleren batzuek dira Lard.engan ere.

Datuok ez dute lotura berezirik adierazten L. eta KSren artean, baina bateragarriak dira egiletasunaren hipotesiarekin; halere, gau-

zak are interesgarriago bilaka litezke AzkS.aren 50eko «Larga eguiozue biotz gaitzbaguedun orri: billa itzazue burnizco biotzac, gaitzez beteric daudenac» kontuan izanik.

(A1 / G / H) → [1].

- 21) *Bizileku* ∴ [< 4 > Jangoicoac eutci ceiquion etsaiari ciquintasunic chiquienarequin ere ciquintcen bere *bicilecu* izan bear zuen toqui au?].

«Documentado en autores meridionales a partir de finales del s. XVIII y en Goyetche» (OEH).

Abiapuntua HHn «vivienda, *bicitza*, *bicitegui*, *soillerua*» eta «morada, estancia, *egontza*, *egoitza*, *viciteguia*» [eta are «morador, *lecontaria*, *viciteguilea*»], baina gogora aurreko 19. sarrerako *bil-leku*-n aipatu «lugar quando viene con otro nombre», *-leku* ere aurrekusiaz; seguruenik hortik Añ.ren hiztegiko *bizileku*. Baliteke horrela izatea LE, Mg., Gco. eta ondoko enparauetan ere. (Orain dakusagunez, Pomierren hiztegiak ere franko darabil hitz-eraketa bide hau; ikus Gómez eta Zulaika 2020 eta Lakarra 2024).

Gainera, lehen testu-agerraldia AS izan zen, HH bera baino lehenago: «*Sortu zuen Adan, gure lendavicico gurasoa eta eman cion paradisu edo baratza au bicilecutzat*» (2v). HHko osaera oharrak eta ASkoa lehen agerraldi absolutua gogoan, AS eta KS bi sermoiak L. renak direla baieztatzeak oso egiantzeko dirudi.

P irizpidea betetzen du *zikintasun*-ek (ikus sarrera horretako iruzkina).

(A2 / C / H) → [3-P].

- 22) *Bukaera* ∴ [< 10 > *Bucaera*, (titulu gisa)].

«Gipuzkera tradiziokoa gehi Xalbador» (OEH). HHn «acabamiento, fin, *acabantzá*, *acaballá*, *bucaera*, *amanda*. Lat. Finis»; «conclusión, fin, *acabera*, *bucaera*, *atzendea*. Lat. Conclusio, exitus»; «fencimiento, *bucaera*. Lat. Finis».

BurDot.ren lehen bi agerraldiak; gero KSn baina ez Ub.ek eta bai Mb.k, 1800 arte. Ondoren arrunt gehitzen da: Gco., AA,

Izt.; EKCK Cb., LE, Lard. ere badakartza. Soilik modernoetan bertsolarien artean; -era atzizkiaren L. ondoko garapenaren erakusgarri bat<sup>52</sup>.

Nabarmenki, L.k asmatu eta BurDot.ren gehi KSn erabilia eta HHren bitartez zabaldutako hitza; alabaina, 1745 ondoko erabilera hain ugariak ez du berez L.ren egiletasuna guztiz ixten.

(A2 / B / B1 / E) → [2].

- 23) *Dina* ∴ [< 1 > Jangoicoaren aserrearen *diña* diran becela; < 3 > jomuga *dina*; < 3 > *exdiña* edo indigna; < 4 > aserre gucien *diñaco* doncella bat; < 5 > arritceco *dinaco* miraria; < 7 > criatura guciac baño beraren *diñago*].

Ez da agerraldirik 1745 b.l., salbu L.ren AzkS. markagarria: «*hura jasotzeko diña pisurik*»; ondoren, HHn «competente, suficiente, *asco, asqui dana, bere diñacoa*. Lat. Congruens».

Ezin adierazgarriago da HHko *digno* sarrera, hitz horren mailegaketa premia ukatuaz eta horren lekua euskarazko *dina*-rentzat esleituaz:

... esta voz la tomó el castellano, y el latín de el bascuence *diña*, que significa igual, adecuado, proporcionado a otra cosa a que se compara y es una significación propriísima al que es digno de algo (...) con todo eso por inadvertencia dexan los bascongados su *diña*, y usan de el *dignoa*, sin inteligencia alguna. Se debe usar y decir *alabanza gucien diña da*, es digno de todas las alabanzas, *Jauna ez naiz ni diña nere echean sar zaitecen*, Señor, no soy digno de que entres en mi casa. Todo bascongado legítimo entiendo esto y no así el *dignoa*.

Oso hitz larramenditarra, beraz. Gero oraindik L.ren beraren testuetako lekukotasun gehiago —MendSG., BurDot., SAGS.— eta Cb., Ub., Mb., Añ., AA, LE, Mg., Izt., Zabala (EK)C<sup>53</sup>. KS gehi-

<sup>52</sup> Lakarra 2023a-n markatzen denez, L.rekin ugaltzen dira atzizki horren bitartez eraturako formak Hegoaldean. Ikus 26 *egoera*, 30 *eranzuera*, 37 *ezaguera*, 39 *ezeginera* eta 45 *gertaera* ere.

<sup>53</sup> Leiz., Lazar. eta Oih.engandik biltzen dituen *dina*- guztiak *dinat* eta *dinagu* adizkiak dira.

tzean, HH eta L.ren testu ugarien arteko lotura are markagarriago dugu eta sermoi berri honen egiletasunaren aldekoago.

Oso ohargarriak, orobat, goiko esaldietako *jomuga*, *mirari* eta *ezdiña* hain larramenditarrekiko konbinaketak; ikus sarrera horiek iruzkitarako.

(A2 / B / C+ / E / K) → [3-P].

- 24) *Eginbear* ∷ [ $< 7 >$  Gure *eginbear* gucien erregla].

SPren *Imit.* dugu lehen agerraldia; gero «además de en Pouvreau, en autores meridionales desde mediados del s. XVIII», OEHren arabera. Zehatzago, HHn «deber, juntándose al infinitivo de otro verbo, *bear*, interpuesto al verbo y terminación» eta haren zordun Mb., Mg., AA (baina ez Cb. eta Gco.). EKCK Lard. eta Uriarte gehitzen ditu, besteak beste.

Alabaina, ezin pentsa liteke L.k Iparraldetik Hegoaldean berlandatutako hitzetarik dela, SPren *Imit.* ez baitzen argitaratu Satrustegik 1979an egin zuen arte. L.k berak eraturakoa dirudi HHko dotrinaren arabera.

Lotura egiantzekoa baina ez erabatekoa KS eta HHren artean.

(A / E) → [2].

- 25) *Egiztatu* ∷ [ $< 3 >$  siniste au *egiztatcen* due Elizaco gurasoac].

OEhk: «Documentado en autores meridionales desde mediados del s. XIX (aunque no encontramos ejs. vizcaínos hasta aprox. 1930); tbn. lo utilizan J. Etchepare, Mirande y Xalbador».

Baina batez ere, hiztegi-hitza izan da berandu arte: HHn *egiztatu*: «verificación, *eguiztatzea*, *eguiastatzea*. Lat. Verificatio, comprobatio»; «verificar, *eguiztatu*, *eguiastatu*. Lat. Verificare, comprobare»; «verificado, *eguiztatua*, &c. Lat. Verificatus»; «verificativo, *eguiztagarria*. Lat. Verificativus»; «contar, referir *contatu*, *erausquidatu*, *eguiztatu*. Lat. Referre, narrare»; «contado, *contatua*, *erausquidatua*, *eguiztatua*. Lat. Relatus, narratus, -a, -um»; «relatar, *eguiztatu*, *con-*

*tatu, eguiztu, condatu*. Lat. Referre, narrare», «relatado, *eguiztua*,  
 &c. Lat. Relatus»etik abiatu eta Añ., Dv., Hiribarren, Harriet gero.

HHk ESTik har zezakeen; cf. 102: *Ezen zilhegi bada erraitea gezurtatzea, zergatik ezta erranen egiztatzea? Eta handiztatzea? (apud OEHN, s.u.)*.

Hegoaldeko lehen testu lekukotasunak Mg.en PAb., Añ., Izt., Lard. eta are berankorragoak dira eta, beraz, L.ren eta KSren lotura eta oso egiantzeko bilakatzen du ia 60 urteko «zulo» horretan KS izanik lekuko bakarra.

(A2 / B / E / F) → [2-P].

- 26) *Egoera* ∷ [< 2 > zorioneco *egoera* onetan; < 6 > *egoera* berri bat; < 8 > *egoera* negargarria; < 10 > *egoera* negargarri onetatic].

«Propio de la tradición meridional, se encuentra desde mediados del s. XVIII; su uso conoce un apreciable aumento desde aprox. 1950» (OEH).

Abiapuntua HHn: «posición, situación, postura, *egoera*, *egoitza*. Lat. Positio». Ondoren Mb., Cb., Ub., Mg., Añ., Astarloa (baina ez Gco.). AA, Lard., Astarloa, Zabala eta Izt. gehitzen ditu EKCK.

KSn aski maiz erabilitako hitza *-era* bidezko L.ren neologismo hau (ikus gorago 22. sarrera *bukaera* gainerakoentzat) eta —nahiz orain artekoa ez izan aski L.ren egiletasuna besterik gabe frogatutzat emateko—, gehi bekio birritan *negargarri*-rekin eta behin *zorioneco* hain larramenditarrarekin bildua agertzea; ikus horiei egokitu sarrerak guztien pisuaz jabetzeko. KSren inguruko L.ren egiletasunaren aldeko datu eta froga esanguratsua.

(A2 / B / E) → [2-P].

- 27) *Ekarrai* ∷ [< 8 > becatuaren *ecarra* edo efectoa, esan nai det Profetarequin batera becatuac Jaungoicoarequin gure arteco mugarritzat].

Ez da adibiderik 1745 b.l., ez Ipar ez Hego. HHn «inclinación, propensión, *grña*, *jarquia*, *lisna*, *ecarraia*. Lat. Propensio, inclinatio».

Lehen testu lekukotasuna ondoren L.k berak Mb.ri egin Sarrera-gutunean; gero Mb., Ub., Egiat., *Birjinia*, Arrue eta Beobide, baina ez Cb., Mg., Añ., AA, Izt., Lard....

L.k asmatu eta berak bere testuetan —MendSG.ean— eta ondoren soilik zenbait jarraitzailek —sutsuenek— erabilitako hitza. L.ren egiletasunaren aldeko aztarna aipagarria; orobat, esaldi berean den *mugarri* ere (ikus bere sarreran).

(A2 / B / B1 / E) → [2-P].

- 28) *Erabakde* ∷ [< 4 > becatu etorquiaz itz egiten dan *erabacde* edo decretoan; < 6 > esateco moduan guedeituaz edo anulatuaz *erabacde* edo decretoac].

«Lar → H» laburtzen da *erabakde*-ren historia OEHN. Zehaztasun gehiagorako, HHn «Decisión, *debedea, erabacdea*», «decreto, *naidarrá, betezarrá, erabacdea*» [«decretal, *naidarcorra, bitezartia, erabacduna*], «provisión, despacho, *naicdarra, erabacdea*», «sentencia, *sentencia, erabaquia, erabaqueta, erabacdea*» dugu eta orain arteko testu-lekukotasun bakarrak Kortazar berankorraren (1903) *Serm.*, 368: «*Naikua izan gabe bera gelditzeko Aita Santu Erromakoak botatzten zituzten eskumikuak, ez erabakdeak*» (OEH); eta Antiaren adibide pareia (EKC).

KSren lekukotasun berri bikoitz hauekin lehen testu-data ia mende eta erdi aurreratu dugu eta, zalantza gutxirekin, testu horrek L.ren egiletasunaren aldeko froga larria biltzen du, nahiz ezinezko den egile ezezagun baten aukera erabat itxi, aukera horrek ere ez luke ezer positiborik bere alde.

P irizpidearen arabera erants bekizkio, gainera, *bekatu etorki* eta *gedeitu*-ren iruzkin garrantzitsu eta erabakiorrak (ikus beren sarre-rak).

(A2 / B / E / G1) → [3-P].

- 29) *Eragozketa* ∷ [< 6 > *eragozqueta* edo impedimentu andi bat Jangoi-coaren amatasunari].



Ez da agerraldirik 1745 b.l.; OEHk HH, Añ., Maurice H. hiztegiak dakartza eta lehenean «Impedimento, impediante, *eragozqueta*, *eragozlea*»; «obstáculo, *eragozqueta*. Lat. *Obstaculum*».

OEHren arabera, testuetan *Birjinia*, Etxeberria, eta TxAg. (*Auñamendiko Lorea* eta *Garoa*) eta Illarramendiren lekukotasun soilak (EKCK Añ.ren *Geroko Geroko* bat eta Uriarteren 17 gehitzen ditu). Erabilera urria LitG. eta LitB.koa; gertakari honek nabarmenago egiten du HH eta KSren arteko lotura eta egiantzekoago L.ren alde makurtzea egiletasun erabakia ere.

P irizpidearen arabera erants bekio *amatasun*-en iruzkina, nahiz hitz hori ere ez den erabakiorra (ikus sarrera horretan).

(A2 / B / E / F) → [2-P].

- 30) *Eranzuera* ∶ [ $< 1 >$  sortcetic artu izan dituanac esanaz, cordegabetric eta mesede oei dagoquien *eranzuera* batequin].

«Documentado en autores meridionales desde la primera mitad del s. XVIII; su uso parece disminuir en la segunda mitad del XX» (OEH).

Zehatzago, lehen testu-lekukotasuna (bakarra 1745 b.l.) AzkS. da eta gero dator HHn «respuesta, *eranzuera*, *ihardesera*, *eranzuquia*, *ihardesquia*». Ondoren, KS honezaz landa Cb., *Gabon Sariak*, Mg., Añ., Gco.... EKCK Mb. eta Itur. gehitzen ditu.

L.k asmatu eta gero (HH baino lehen eta ondoren) erabili zuen hitza (cf. 22. sarrerako *bukaera* hitza, *-era* gehiagotarako).

Bistako frogak L.rekiko zorraren alde, nahiz ez horren egiletasunaren froga erabatekoa.

P irizpidearen arabera erants bekizkio *kordegabetu* eta, batez ere, *sortze*, testu honetan L.ren egiletasunak alde izan lezakeen euskarririk garrantzitsuenetarikoa.

(A2 / B / B1 / E) → [2-P].

31) *Eratu* ∷ [ $< 5 >$  *eratu* edo *formatu*]<sup>54</sup>.

«Documentado (salvo un ej. de Larramendi) a partir de mediados del s. XIX, sólo en autores meridionales» (OEH); SAgS.an bada *eratu* «moldatu» esanahian [«*Aren argien eginkizunera eratu zan, ez geiago*» (15)] baina «formatu» esanahian Ht.en VocGr.tik hartua dirudi: «trace, *guisa, era*»; «tracer, *guisatcea, eratcea*». (HHn «formar, formalizar, *eraztu*» eta «componer, *compondu, parquidatu, antolatu*»). Dirudienez, L.k Ht. erabiltzen jarraitu zuen HH osatu eta gero ere, KSko adibide bakarti markagarri honek adierazi bezala. Zehaztasunak ilunak dira baina datu positibo guztiek L.ren alde egiten dute.

(A1 / C / D / F) → [3].

32) *Eriozko* ∷ [ $< 5 >$  cembat negargarriago dan pozoi *erioxcoaz* cutsatua egotea, ambat atseguingarriago dala sugue madaricatu oñazpica-tcea].

Soilik EZ (*Manual Debotioñezkoa* eta *Noelak*) eta AzkS. HH aurretik, Ipar nahiz Hego.

HHn «mortal, que causa muerte, *erioxcoa, erioxsua*. Lat. *Letalis mortalis*». Gero BurDot., Cb., LE, Añ. eta Arrue. EKCK Ub., Mg., AA eta Uriarte gehitzen ditu, besteak beste.

Egiantzeko L.k 1737 b.l. Iparraldetik (EZ) hartu izana eta orduantzu HHn ezarri izana, gero ere (BurDot., AndS.) erabiltzen jarraitu zuelarik. Gainera, P irizpidearen arabera, esaldi berean agertzen dira *pozoi, negargarri, atsegingarri, oñazpiratu* eta *kutsatu* (ikus iruzkinak beren sarreretan). KS eta L.ren arteko loturaren adibide argia, eta pasarte hau bilakatzen da L.ren egiletasunaren aldeko argienetarik.

(A2 / B1 / C+ / D) → [3-P].

<sup>54</sup> Aurreko esaldia «Baldin oiezbecelaco...» hasten da; ikus gorago bigarrenari dagokion sarrerako iruzkina.

- 33) *Eritasun* ∷ [< 7 > mundu onetaco *eritasun*, gose-egarri eta beste naigabe guciac].

OEhk: «Gral. en todos los dialectos excepto el vizcaíno (sólo hemos encontrado un ej. de D. Aguirre)». Alabaina, ez dugu Hegoaldeko bakar bat ere 1745 b.l.; Iparraldean, aldiz, Leiz., EspioiGut., Materra, EZ, Ax (83 adibide EKCre arabera), Ht.en VocGr., etab.

HHn «enfermedad, *eria*, *eritasuna*, *gaitzaldia*, *gaitzotasuna*, *erartzuna*». Gero Cb., Mb. (186 adibide EKCre), Mg., AA, eta ez da harritzekoa TxAg.ren lekukotasuna, ezaguna baita haren L.rekiko zorra, ohikoago litzatekeen arren *Auñamendiko Lorean* edo lehenagoko idazkiren batean *Kresalan*<sup>55</sup> baino. EKCK LE, Larregi, Uriarte, Izt. eta Duhalde ere badakartza.

KS eta L.ren arteko loturaren adibide bat gehiago, nahiz ez garrantzitsuenetarik. Alabaina, P irizpidearen arabera, gogoan izan bitez aztertutako hitzetik hurbil diren *gose-egarri* eta *naigabe* (ikus dagozkien sarreretako iruzkinak).

(A2 / B / D) → [2-P].

- 34) *Errukitsu* ∷ [< 10 > ama *erruquitsu* eta gure miserien berri daquizuna].

OEhren arabera, Lazar. eta RSz geroz (bietan *erruki izan*), eta usukoa bizkaieraz (sic). Giputzen artean XVIII.ean, Cb. eta Peñafloreak (*GavS.*) baina ez Ub.ek eta Mb.k, eta XIX.aren lehen zatian Gco.k, usukoagoa 1850etik aurrera eta, bereziki, XX.aren hasieratik; garai honetan zabaldu omen zen zenbait testu goi-nafarretara.

HHn «compassion, *cupida*, *gupida*, *erruquia*, *gupidesquia*, *urriquia*, *pairaquida*. Lat. *Compassio*, *miseratio*» eta baita «compassivo, *cupidacorra*, &c. Lat. *Misericors*», non *-kor* ulertu behar den gainerako oinarriekin ere (*erruki* → *errukior*); cf. 16. sarrerako *beartasun* hitza, *-tasun*-en bidez eratuentzat.

<sup>55</sup> Bidenabar, hau liburu bezala 1906an atera zen arren, aurretiaz atalka emana zen *Euskal-Errian* 1901-04 bitartean, Azkueren hiztegia baino lehen, horrenbestez.

Baina HHko «misericioso, *misericiatsua, erruquitsua, cupidatia*» genuke KSKoaren abiapuntua; horren ondotik, gure testuaz landara, *CatOiq.*, Añ.ren *Esku-liburua*, Mg.en *Konfesino Ona*, Gco., etab.

Hitz eta testu honen eta L.ren arteko lotura pisatzeko, ez da ahazteko L.ren HH aitzineko lekukotasuna: «*Badira gizon ta emakume asko, ez errukirik ez damurik ez miñik ez gitxien dan sentimendurik deueenak*» (AzkS., 55). Arestian (Lakarra 2023a) ASkoa hori indartzera dator (*piedadez eta erruquiz*, 4v) eta baita orain KSKo *errukitsu* ere; bien artean, L.ren egiletasuna laguntzen dute, noski.

(A2 / B / C+) → [3].

- 35) *Eskualdi* ∴ [ $< 2 >$  fruta gucietatic jateco *escualdia*, esanaz jatea debecatu cien fruta artatic jaten zuten instantetic ilgo cirala eta galduco zutela beren zorion gucia].

«(V, G ap. A; Lar, Añ, H)», OEHrentzat. Ez da ez Iparraldeko ez 1745 baino lehenagoko Hegoaldeko adibiderik. 1745 ondoren Cb., Mb. eta LEren adibide bana, Gco., Añ., Zab., Lard., etab.

L.ren beraren *eskualde* «eskubide, ahalmen»ekin errazki nahasi ahal bada ere, HHn badira «mano, vez, vuelta, *escualdia*» zein «probar la mano, *escualdi bat eguin, escualdi bat daguigun*, provemos la mano. Lat. *Experiri*».

Esaldi berean doan *zorion*-ek ere Larramendiren aldeko hautua laguntzen du, nahiz ez ixten, eta baita *fruta* forma markagarriaren adibide pareak ere (ikus sarrerok), egiletasunaren aukerak areagotuaz.

(A2 / B / E) → [2-P].

- 36) *Etorki* ∴ [ $< 4 >$  lendabico sortcean izan zala santa eta becatu *etorquitic* gordea;  $< 8 >$  becatu *etorquitic*;  $< 8 >$  becatu *etorqui* onec;  $< 4 >$  becatu *etorquiaz* itz eguiten dan erabacde edo decretoaz;  $< 8 >$  becatu *etorqui* edo original onec aimbesteraño isusquitu;  $< 1, 3 >$  becatu *etorqui* edo originaletic;  $< 3 >$  Jangoicoaren amatzat aututaco Maria gracian sortua eta becatu *etorquitic* gordea

izan zala sinisterazotcen digu arrazoiac, siniste au eguiztatcen due (...); < 1, 2 > becatu *etorquia* edo originala; < 2 > justicia *etorqui* edo originala].

«Propio sobre todo de la tradición septentrional no suletina (Ax., Mat., SP, EZko eta ESkoak); desde finales del s. XVIII se encuentra tbn. al Sur, siendo empleado sobre todo en el s. XX, en autores de cierto nivel», diosku OEHk *etorki*-z, eta kontuan hartu beharrekoa dugu, usuenik antzeko kasuetan L.ren lana izan ohi baita atzean.

*Bekatu etorki* bikotea bera bost aldiz eta *Bekatu etorki edo original* sintagma lautan erabiltzen da KSn eta behin, halaber, *justizia etorki edo originala* ere. Nahiz HHn «original, *jatorrico*, *jatorrizcoa*» eta «origen, *jatorria*, *jayotza*, *asiera*» ditugun (*etorki* gabe), bada «descender, de linaje, provenir, *sorgautsi*, *etorri*, con los irregulares *nator*, &c. Lat. Genus ducere» eta «descendiente, *sorgautsia*, *ondocoa*, *etorquicoa*, *onelaco edo alaco leiñucoa*. Lat. Genus ducens» ere, zeinetarik atera zitekeen esamolde errepikatu hau.

OEHri lotuaz, beste aukera bat —baina egiantz urrikoa, segurki— Mb.ren «*Bekatu etorki-orijinala*»tik (*Mendibururen idazlan argitaragabeak* I, 272; ~1760) hartua izatea litzateke; halere, pasarte (eta liburu) hori argitaragabe zen 1982 arte eta nekez izan zitekeen gure iturria, ezta, seguruenik, OEHk Ubillosengan (193) markatzen duen egitura beraren erabilera ere<sup>56</sup>.

OEHk oraingoan erabili ez arren, B. Urgellek diostanez, bada *Mendibururen idazlan argitaragabeakekoa* baino testu interesgarriagorik *bekatu etorki*-ri dagokionez, Mb.ren ugarien artean: *Otoitz gaiak*, alegia, non EKCren laguntzaz 30 agerraldi aurkitu ditugun eta beste 2 egile beraren *Euskaldun onaren bizieran*: «Beraz Mendiburuk ahalegin handia egin zuen *bekatu etorki* hedarazteko» ondorioztatu zuen B. Urgellek arrazoi osoz, «(zeinak ez duen kentzen lehenago L.ren sermoiren batean entzun liezaiokeela, jakina)» gehituaz.

<sup>56</sup> 193. orrialdean bertan OEHk aipatzen ez duen *becatu original edo jatorrizcoaren bidez* ere bada-  
kar Ubillosek eta geroago baita AAK ere (I 45).

Kopuru absolutuek baino gehiago erlatiboek (9 agerraldi 10 orrialdetan KSk, 32 ehundakatan Mb.k) hitz egiten dute KS Mb.ren ekoizpentzat hartzearen aurka (cf. *extabaida* eta *oarmen*-en iruzkinak ere) eta hipotesi bigunagoak ere —alegia, KSren kopiagileak edo kopiagileek Mb.rengan ikasitako *bekatu etorki* erantsi ziotela horrelakorik ez zuen originalari— baztergarri dirudi: izan ere, bikote honek bere 9 agerraldiekin sermoiaren geruzarik zaharrenekoa behar du izan *sortze* (13 erabilera) KSn bertan edo ASn *ditxa* eta *xorion* (15) bezala.

Halaber, P irizpidearen arabera kontuan hartzekoak dira esaldi ezberdinetan biltzen diren aipatu berri ditugun *sortze*, *autu*<sup>57</sup>, *egiztatu*, *itsuskitu* eta *erabakde* hitz markagarriak (ikus beren sarrerak iruzkin xeheagoetarako), larramenditarrak guztiak arrazoi askogatik eta, bidenabar, ez dutenak arrastorik utzi Mb.ren obra erraldoian EKC-ren arabera.

Aurreko argudio eta datuek *bekatu etorki* L.k sortua dela ondorioztatzeri garamatzate eta, horrenbestez, baita KS bera ere; haren zordun litzateke entzundako edo irakurritakoaren bitartez bikote hau inork baino ugariago erabili duen Mb., B. Urgellek iradoki bezala (ikus gorago).

(A / B / D / K) → [3-P].

- 37) *Ezaguera* ∷ [< 9 > *ezaguera* onetara 1, naiez eta *ezaguera* osoarequin; < 10 > izandu ditugun oneguiñen *eza*[ga][gueraz].

«Documentado desde la primera mitad del s. XVII en textos occidentales» (OEH) [Fabri de Peyrasc, OA, Irazusta].

HHn «conocimiento, *ezaguerea*, *ezagundea*, *ezagutza*» baino lehen AzkS.aren 10 «*etsai gogor ezaguera baguecoac*» eta ondoren Arakistain, CrIC., Mg., Gco., AA, fB., Etxeberria (OEH), eta baita Mb., Uriarte, Cb., Añ., Izt., Etxagarai, Zabala... (EKC).

<sup>57</sup> Mb.ren 3 *autuste*-ek *autu*-rekin zerikusirik ez duten *antuste* oso ugariaren erratak dira, eta *Autum* toponimo bat da, noski.

Bestetik, *-era* atzizkiak Hegoaldean L. ondoren gorakada handia du, ezagun denez (cf. Lakarra 2023a); hemen eta L.ren testuetako adibide gehiagotarako ikus 22. sarrera, *bukaera*.

Berez L.ren aldeko egiletasuna ez ebatzi arren, KS eta L.ren (HH eta are haren aurretiko testu baten) arteko loturaren adibide egiantzeko bat gehiago, batez ere *onegin* izen larramenditarrarekin duen konbinaketa kontuan harturik.

(B) → [2-P].

- 38) *Ezdiña* ∷ [ $< 3 >$  ama izateco *ezdiña* edo indigna].

OEHren arabera HHn «Indigno, *ezdiña*» eta *Birjinia*, 120: «Behar *tugu geure buruak iduki* [dohain] *heien osoki extintzat*»; 180 «*Osoki horren extin izan naiz*» ziren hitzaren lekukotasun historiko guztiak, EKCn Uriarteren eta K. Otaegiren bana erantsiagatik.

Bistakoa da, horrenbestez, HH eta KSren arteko lotura, hiztegian asmatu eta hau delarik lehen testu-lekukotasuna, bakarra Hegoaldean XVIII.ean eta oso urria geroztik ere. Horrenbestez, L.ren egiletasunaren aldeko oso froga garrantzitsua.

(A2 / B / E / G) → [3].

- 39) *Ezeginera* ∷ [ $< 7 >$  nolaco izan oi ezta zuen oztasuna, *ezequinera* edo *inaccioa*].

Ez dago OEHn eta ez dirudi inork erabili duenik, inongo testu ez hiztegitan, nahiz HHn «inacción, *ceguiqueta*, *eceguiñera*» izan. OEHk badakar bikoteko lehena —«*zegiketa* “inacción” (Lar)» soilarekin [Iztuetaren pare bat adibide EKCn]—, baina ez bigarrena, eta ez batak ez besteak ez du gure KSz enparauko testu-lekukotasunik.

Nahiz bere alde froga positiborik ez lukeen, egile ezezagunaren aukerari bidea ezin zaion erabat itxi, ez da esan beharrik gertakari hauek L.ren egiletasunaren alde erakusten duten indarra, are gehiago aldameneko *oztasuna*-rekin uztartua doalarik.

(A2 / B / E / G) → [3-P].

- 40) *Eztabaida* ∴ [< 4 > *estabaida* batean ere beragatic esatea usteltasunezco oretic; < 4 > *eztabaida* batean ere etsaiaren mendean egon zala; < 5 > cembat negargarriago dan *eztabaida* batean ere Jangoicoaren gorrotoan egotea, ambat consolagarriagoa dala; < 8 > becatu etorki edo original *eztabaida* bateco becatu bacar].

«Momento, instante» adieran OEHN ez da ez Ipar ez Hegoko besterik ez bada Mendibururen bi adibide: «*Eztabaida batean bildu zuten zen guzia, tant-erdirik ere utzi gabe*» (Mb. *Otoitz gaiak* III, 134). «*Eskopet batean sarzen den polbor piskak sua arzen duen eztabaidan aienatzen du egontegia kenzen dion bala*» (Mb. *Mendibururen idazlan argitaragabeak* I, 255). EKCK, aldiz, baditu Mb.ren beste bat eta orobat, Cb., Mg., Zabala eta Lard.en bina eta Uriarteren bat.

Mb.rengandik hartutako hitza balitz 1759-60tik aurrerakoa behar luke izan KSk. Testuan izan litekeen beste iturri bereko kasu batzuetarako, ikus (*bekatu*) *etorki, gose-egarri, oarmen*; baliteke, halere, zabaldua egotea hitza<sup>58</sup> eta ohar bekio, azkenik, baina ez halabeharrez, sermoi labur batean 1800 arteko testu erraldoi guztiek adinako erabilera-kopurua dugula eta honek ez ote duen sermoiaren egilea hartzekodun bihurtzen zordun baino gehiago.

P irizpidearen arabera gehi bekizkio *bekatu etorki, usteltasunezko, mende, negargarri, konsolagarri* (ikus beren sarreretako iruzkinak) gehiago hurbiltzen dutelarik L.rengana.

(A1 / G1) → [1-P].

- 41) *Fedegabe* ∴ [< 8 > *fedegaveac* neque ascoren buruan Jesuchristori emanetz].

«Documentado en textos de todos los dialectos literarios» (OEH). Alabaina, ez da agerraldirik Hegoaldean 1745 b.l. eta soilik SPren

<sup>58</sup> Denborazko kutsurik gabe eta Azkuerengandik harturik, bada beste adiera bat OEHko 5.a): «*Eztabaida bat, un poco; litm.: un no es, sí es (V-ger)*” A EY III 324. “*Neu baiño eztabaida bat da zartxoago, es una cosa insignificante más viejo que yo (V-m)*” Ib. 305. “*Eztabaidea, algo, cosa insignificante. Neu barriz eztabaidea zartxoagoa (V-m)*” A Apend».



*Imit.* (I, 22), 4 FPrS. eta Belapeire Iparraldean; ondoren Konbentzioko Gerlako eta Frantziako Iraultzari buruzko bertsoetan eta Añ.ren *Lore-sorta espirituala* obran agertzen dira. EKCK Haranederren bat, Cb.en 2, baina ez Mb.

Tartean HH —«Infiel, sin fe, *fedebaguea, fedebagueduna, fedaguea, fedagueduna*»; «gentil, el idólatra, *fedaguea, federic vaguea, fedebagueduna*»; «perfidia, *fedecabea, desleyaltasuna*» eta «*pérfido, fedecabea, desleyalá*»— eta KS dira lekukotasun soilak (Ub.en bat eta Cb.en pareta [EKCK]) 1800 arte; gero Mg., Añ., AA eta, beraz, L. eta KSren arteko lotura ertaina baino estuagoa bermatua dugu.

(A2 / B / F) → [2].

- 42) *Fruita* ∷ [< 2 > beste *fruta* gucietatic jateco escualdia, esanaz jatea debecatu cien *fruta* artatic jaten zuten instantetic; < 2 > tentatu cituen esanaz debecatutaco *fruitatic* janagatic illco etcirala; < 2 > asco da zuei gogoracitcea nola Adam eta Evac *fruta* artatic jan zuten; < 5 > Arr[i]tceco dinaco miraria da iturri usteletic ur fresco, garbi, ederra irtetea eta sustrai edo arbola pozoituac *fruta* osasungarria ematea].

HHn «fruta, *fruta, frutea, alorta*» eta «hallamos *fruta* en textos alto-navarros» (OEHn, s.u.). Pentsatzekoa litzateke, agian, jatorri horretako kopiagilearen forma dela baina hori ez da bateragarri suposatzen dugun haren goierritar izaerarekin<sup>59</sup>; nolana ere OEHN ez da Mb.ren lekukotasunik ere, nahiz izan —«BN-arb» markaz landa— *SermAN.* (1729 [argitaragabea 1980an Ondarrak atera arte]), LE eta Arakistainen Eranskinekorik<sup>60</sup>. Orobat, EKCK LEren 28 agerraldi eta Jean Etxepare Landerretxe (*Mendekoste gereziak*), Dv., eta Goihenetxeren (*Marixalen liburua*) bana dakar, baina bat ere ez Mb.renik.

<sup>59</sup> Alderantziz, egile nafar batek gainerako ezaugarri lexiko eta morfologiko ia guztiak lituzke kontrara.

<sup>60</sup> Mendibururen lekukotasun falta gehiagotarako ikus lan honen 8. atala: «Eranskina Mendiburuz».

Ez bide da ezinezkoa forma hori L.k berak ikasi —zuzenean edo Arakistainen lanetik— eta testu honetan erabili izana; orobat, benetan aintzat hartzekoa da hitz hau KSn bezalako testu labur batean bost aldiz (bostetik lau 2. orrialdean) erabili izana eta bostotan gipuzkeraz lekukotzen ez den aldaera bakarrean, gainera.

Aurreko argudioekin bat letorke P irizpidea hertsia-hertsian ezarririk ere, kasu egiten badiegu azken esaldiko *eskualdi*, *mirari*, *pozoitu*, *osa-sungarri* eta, batez ere, *dinako*-ri (ikus dagozkien sarrerak).

(A1 / K) → [2-P].

- 43) *Gaitzgabea* ∷ [< 5 > Cer gloria Mariarenzat, *gaitzgabea*, garbia eta ederra sortcea].

«Empleado por autores meridionales desde la primera mitad del s. XVIII; no hemos encontrado ejs. posteriores a 1930» (OEH). EKCK Cb., Mg., Uriarte, Arrue eta Intxauspe ematen ditu.

Zehatzago litzateke esatea L.ren AzkS.koa dugula lehen lekukotasuna («*Birjiñaren negar inozenteakin, gaitzbageakin, nere negar pekartariak nastutzeko*») eta HHn «Innocente, *gaitzicbague, oguengabea, bilartezcoa*»; «Innocentemente, *gaitzicbague, gaitzicbague, bilartez*» bigarrena. Gero Cb. (baina soilik J.I. Aranak zaindutako 1882ko edizioan), Ub., Izt., Lard., baina ez Mb., AA, Mg. edo Gco.

L.k sortu eta zabaldutako hitza eta, beraz, erlazio bereziki estua AzkS., HH eta KSren artean; are estuagoa AzkS. 50eko «*Larga eguiozue biotz gaitzbagedun orri: billa itzazue burnizco biotzac, gaitzhez beteric daudenac*» gogoan, KSk *biotz gogordun*-ekin ere lotzen badugu (ikus sarrera horretan).

(A2 / B / B1 / C / E) → [3].

- 44) *Gedeitu* ∷ [< 6 > esateco moduan *guedeituaz* edo anulatuaz bere erabacde edo decretoac].

Ez dator OEHn baina bai HHn: «anular, abrogar, *guedeitzatú, indarbaguetú, indarcaiztú*. Lat. Irritum facere, abrogare. Véase revocar); «anulado, *guedeitzatua, indarbaguetua*. Lat. Irritus, abrogatus, -a,

-um», eta «revocar, anular, *guedeitu*, *guedeitzatu*. Lat. Revocare, abrogare». EKCn, Cb.en *Ejertzizioak* IVko bat ez besterik: «*Sententia sekulan gedeituko edo errebokatuko extana*».

Aldiz, OEHn «*gedei* revocable» dator, nahiz «(Lar → H)» soil-soilarekin<sup>61</sup>, eta ez dakar HHn horrekin batera den «*guedeitza* revocable, anulación, *guedeitza*, *guedeya*. Lat. Revocatio, abrogatio». Ohar bedi L.k ezin izan duela Cb. erabili HHn eta, gainera, hemen familia berak osatua dela.

HHren eta KSren arteko lotura oso aipagarria, KSren L.ren egiletasunaren aldeko froga erabatekoa ez bada ere.

P irizpidean oinarrituaz, ohar bekio esaldi bereko *erabakde* markagarriari ere (ikus sarrera).

(A2 / B / E) → [2-P].

- 45) *Gertaera* ∴ [< 6 > *guertaera* bacan batequin igarotcen da beticoa eta guciequicoa; < 2 > zorigaistoco *guertaera* onen aldecoi edo circunstancia].

OEHren arabera, soilik 1800 ondoko testu-lekukotasunak (Mg.en *Konfesio ta Komunioco...*, Añ.ren EL, Gco., Itur., Izt....), baina Cb. ren bat (EKC).

HHn «acaecimiento, *suertaera*, *guertaera*, *jaso*, *jazoera*, *acertaera*, *suertapena*, *guertapena*, &c.»<sup>62</sup>, eta «caso, sucesso, *suertaera*, *guertaera*, *jazoera*, *estropua*» ondoren.

Interesgarri deritzogu *zorigaistoko gertaera* sintagma ere hona ekartzeari, HHkoaren ondotik, *zorigastoco*-ren lehen agerraldia HHko baita halaber (ikus behean), nahiz gero Cb., Olaetxea, Mb.,

<sup>61</sup> EKCko *gedei* bakarra goiko *guedeitu* bera da, beraz, hor ez da benetako *gedei*-rik.

<sup>62</sup> Ohar bekio «&c.» horri gainerako oinarrietan ere atzizkia heda litekeela adieraziaz; horrelako hainbat da HHn, batez ere B letratik aurrera. Horren ondorioz ez da harritzekoa L.ren ondoko egileenetan ez ezik, bere testuetan ere HHn lekukotu gabeko baina hor aurreikusitako dozenaka eratorri izatea.

Gco.k... darabilten, KSz landara. Bi hitzak batera hartuaz lehen agerraldi absolutua HHn eta lehen testu-agerraldia KSn izatea lekarke orain arte ikusitakoak, eta horrek froga garrantzitsua emango luke hitz bakoitzaren, egituraren eta are testuaren egiletasun-hipotesiak L.rengana bideratzearen alde.

P irizpideari jarraituaz, gehi bitez halaber *guziekiko* hain larramenditarra eta *aldeko*, HHren zordun argia, halaber.

(A2 / B / E / F) → [3-P].

- 46) *Gogorkiro* ∴ [ $\langle 6 \rangle$  minezco ezpata zorrotzac *gogorquiro* anima zulatuco].

Hitz honen lehen agerraldiak ugari HHn, Beriainengandik ikasi (cf. Urgell 2000 eta 2018) *-kiro* atzizkiaren bidezko beste askorenak bezala: «acerbamente, *lazquiró*, *garrazquiró*, *gogorquiró*. Item *lazqui*»; «agriamente, ásperamente, *lazqui*, *lazquiró*, *garrazquiró*, *garrazqui*, *gogorquiro*, *gogogorqui*»; «crudamente, *gordinquiro*, *gogorquiro*».

Gero Ub., *Oñatiko eskuizkribua*, Lard., MEIG, baina ez Mb., Mg., Añ... EKCK gehitzen du Cb. [*gogorkiroago*]<sup>63</sup> eta AA bana eta Izt. ren 12, baina Mb. ren bat ere ez.

(A2 / B / E / F) → [3].

- 47) *Gorrotatu* ∴ [ $\langle 10 \rangle$  claroro adieraci digue zuc cenbat iguitcen eta guc *gorrototu* (sic) bear degun becatua].

«Documentado en la tradición meridional desde principios del s. XIX (v. *gorroto izan*). Al Norte lo encontramos en un ej. de Axular» (OEH).

Horri gehitu behar zaio, noski, HHko «aborrecer [...] Me aborreces, te aborrezco, *gorrotatzen nazu*, *gorrotatzen zaitut*». (Gogora bedi —cf. Urgell 1991, 2000, 2018— L. ren Ax. ekiko zor zabalaz eta orain KS hau).

<sup>63</sup> Baina berriro ere 1882ko *Ama beneragarri Josefaren bizitzatik* (!).

1800 arte adibide gehiago ez izateak —ez ditugu aurkitu EKCn ere— areagotu egiten du L.ren aldeko KSren egiletasuna eta mende erdi aurreratzen data Hegoaldean (ez Cb., ez Ub., ez Mb.; gero bai AA, Uriarte, Lard., Mg., Añ. eta Otaegi). Aurreko guztiak aski seguru egiten du L.ren originalean *gorrotatu* irakurriko zela eta *-otu* aldaera kopiagilearena dugula.

Zuzenbide berean, erants bitez *klaruro* eta *iguitu*-ren iruzkinak (ikus beren sarrerak) P irizpidearen arabera.

(A2 / B / D / F) → [3-P].

- 48) *Gose egarri* ∷ [ $< 7 >$  mundu onetaco eritasun, *gose-egarri* eta beste naigabe guciac sufritu eta munduac ematen dituen iduripenezco honrac, atseguintasunac eta ondasunac galdu].

Mb.ren *Mendibururen idazlan argitaragabe*keko (I, 221 [1760]) *gose-egarri* dakar OEhk lehen agerraldi bezala. EKck ez du ezer berririk gehitzen. Gero (osorik) Duhalde, Gco., Azkue. Litekeena da —nahiz poligenetikoa izatea den egiantzekoena, cf. OEhn bertan Azkueren ahozko paraleloak— Mb.rengandik hartu eta moldatua izatea, ez aurreko pasartetik baina *Otoitz gai*akeko «*gose-egarritik*», «*gose-egarri diranak*», «*zure gose-egarri onak*» eta enparauetatik<sup>64</sup>. Alabaina (cf. *extabaida* eta *oarmen* sarrerak) KS eta Mb.ren arteko erabateko paralelo faltak ez du hipotesi horren alde egiten eta bai egiantzeko bilakatzen adibidearen izaera poligenetikoa.

Bestalde, agerraldi bakarrean *eritasun*, *naigabe*, *iduripenezko*, *atsegintasun* eta *ondasun* horiek azaldurik (cf. dagozkien sarrerak), «P irizpidea» deitu dugunaren bidez pasartearen egiletasuna L.ren alde makurtzen dela ondorioztatuta beharra dugu.

(A1 / F) → [1-P].

- 49) *Guraso* ∷ [ $< 2 >$  Lenen *guraso* Adam eta Evagandic;  $< 5 >$  gaitz-gabea, garbi eta ederra sortcea eta jaiotcea *guraso* becatarietatic;

<sup>64</sup> Blanca Urgelli zor diodan oharra.

< 6 > *guraso* bear edo pobre[a]gandic; < 6 > *guraso* illunetatic;  
 < 3 > Elizaco *gurasoac* edo Padreac; < 3 > Elizaco *gurasoac* eta  
 beste theologoac].

Testuan eta egilearen HHn bi adieretan<sup>65</sup>: «padres y abuelos, *gurasoac*, *burasoac*», «Padres de la Iglesia, *Eleizaco aitac*, *gurasoac*». Bi-garren erabilera honetan ondoren, HHz eta 1800. urteaz geroz, AA, fB. edo Lard, eta baita Cb., Mb., Ub., EKCrene datuen aurrean. Ohar bekio erabilera ugariari.

Orain artekoa KS eta HHren arteko lotura ertainaren erakusgarri litzateke; alabaina, P irizpideari jarraituaz, *lenen* eta *gaitz-gabe* garrantzitsuen ondorioak erantsiaz (ikus beren sarrerak) pasarte eta testu honen L.ren egiletasunaren aldeko argudio ohargarria litzateke.

(A2 / B / E / K) → [2-P].

- 50) *Gurte* ∴ [< 3 > Baña ò Maria, nere *gurte* edo culto eta confianza bigun eta osoaren jomuga dina].

OEhk «Lar. Culto, adoración. v. *gurtza*» dakar baina markatzekoa da L.k berezi egiten dituela: «culto, reverencia, *beguirunea*» eta «culto divino, la adoración que debemos a Dios, *gurte Jaincozcoo* o culto divino, todo lo que sirve a él, *gurte Jaincozcoari dagocana*», eta «culto religioso que se da a la Virgen y a los Santos, *beguirune donea* o culto supersticioso, *gurte donezá*, *beguirune donezá*».

HH ondoko agerraldiak ez dira asko KSz landara, ez XVIII.ean, ez XIX-XX.ean: Ub., LE, Etxagarai, Iturzaeta eta Kortazar (EKCK Intxauspe, Izt. eta TxAg. gehitzen ditu) baina LitB. eta LitG.ko partaide gehien-gehienak falta direlarik (Mb., Añ., Mogeldarrak, fB., Lard., Gco...).

Horrenbestez, KSn erabili izanak testu honen egiletasuna L.rengana asko hurbiltzen dutenetakoa da, are gehiago *jomuga* eta *diña* zeharo larramenditarrekin lerro berean konbinaturik.

(A2 / B / E / F) → [3-P].

<sup>65</sup> Oraindik hirugarren bat: «*lenen* (Elizako) *guraso*(ak), primeros padre(s) (de la Iglesia)»; cf. testua eta HHn s.u. «primero en orden... *lenen*».

- 51) *Gutizia* ∷ [ $< 8 >$  sartcen ditu *guticia*, embidia, gorrotoa...].

OEHk «Empleado especialmente en los dialectos centrales» dioen arren, Iparraldean oso erabilia dugu 1745 baino lehen, —Leizarragak eta Pouvreauk *-th*-rekin, *-h-* gabe Materra, Ax., Hareneder, Xurio, Etxeberri Sarako eta are Ht.engan (VocGr.: «desir, *hantoca*, *guticia*»)——<sup>66</sup> baina ez da horrelakorik gertatzen L. aurreko gipuzkeraz.

HHn «antojo, *guraria*, *zalea*, *guticia*, *naicundea*. Lat. Cupiditas, *-tis*»; «antoadizo, *guticiaduna*, *gurariduna*, *naicundaduna*» eta «antoadjarsele a uno, *guticiatu*, *guraritu*, *naicundetutu*, *cerbaiten zaleac*, *gurariac*, *guticiac*, *naicundeac artu*» dator eta soilik ondoren L.ren SAgs. eta BurDot. gehi Cb., Ub., Gco., TxAg...

Hitz oso zabaldua (nahiz ez Mb.rengan, demagun) baina bateragarria KS eta HHren arteko loturarekin eta oso markagarria horrezaz landara honekin L.ren hiru testutan agertzea.

(A2 / B / C+ / D) → [3].

- 52) *Guzialdun / guziadagiken* ∷ [ $< 3 >$  *gucia daguiqueanac*;  $< 1 >$  atseguintasunen bil-lectua: Ona *gucia daguiquen* Jangoicoac;  $< 4 >$  escu *gucialdumac* ecin gorde cezaquean Maria becatuaren mendetic?;  $< 4 >$  *esan gucialdumac*;  $< 4 >$  *gucialdun* eta jaquiundeari bidegabe andi bat eguin eztabaida batean].

ASn, hots, HH aurreko L.ren testu batean, *guzia dezakeana*: 3v. *Au da gure jabe indarsua gucia dezaqueana*. Gero HHk «omnipotencia, *cinálá*, *gucialá*, *guciahala*. Lat. Omnipotentia»; «Omnipotente, *cinalduna*, *gucialduna*, *gucialtuna*. Lat. Omnipotens» dakar; cf., orobat, «poderoso, todopoderoso, *gucialduna*».

«ASren egilea L[oiolako] K[olegioko] H[historia]tik ezagutuko ez bagenu ez genukeen honekin bakarrik loturaren erabateko froga baina bai egiantzekotasun handikoa; hori jakinik ondorioen indar-

<sup>66</sup> OEHko gipuzkerazkoak 1745 ondokoak dira eta bizkaierazko gehienak ere bai (BBizk. salbu), baina hemen ez bedi ahantz kopiagile giputz baten eskua dela (cf. Lakarra 1984-86).

garri dugu» genioen Lakarra 2023a-n, are gehiago kontuan izanik AndS-ren hondar-paragrafoan: «Biz alá, Jainco *algucietacoa*, alá izán dedillá (...)».

Orain are markagarriago KSkgo goian emandako agerraldi guztiekin. *Gucialduna*-ren ondoko lekukotasunak ere (Ub., Gco., AA, TxAg., Campi3n, Orixe...) L-ren HHren zordun ezagunak dira eta are L-ren KSrekiko egiletasunaren aldeko froga gehiago eman dezakete, bere testu laburrek ere —bereziki ASk— ematen dutena areagotuz<sup>67</sup>.

Oraindik horren beharrik balitz, erants bekio P irizpidea: esaldi batean *guzialdun* eta *mende* hain larramenditarrak agertzen dira, *bil-leku*, *atsegintasun*, *bidegabe* eta *eztabaida* ere *guziadagiken*-ekin batera enparauetan.

(A2 / B1 / E / K) → [3-P].

- 53) *Guziekiko* ∴ [*< 8 >* gaitz *guciequicoen* artean; *< 6 >* guertaera bakan batequin igarotcen da beticoa edo *guciequicoa* dirudien legue baten gañ; *< 7 >* bere *guciequico* Providenciatic; *< 6 >* legue jaquin; *gucienzacoaz* eta esateco moduan guedeituz].

OEhk bi adiera ematen ditu: a) «(Detrás del sust.) “Universal, general”», eta b) «Bueno con todos, amable con todos». KSkgo adibide guztien oinarrian HHn: «universal, *guciaquicoa*, *guciaquidea*, *gucieracoa*» (eta «universalidad», «universalmente»ko eratorriak), «público, común *guciaquicoa*», «catholico, quiere decir universal, *gucieracoa*», «Iglesia Catholica, *Eleiza gucieracoa*: *argatic deitzen da Catholica*, *cerren Christori zerraizcan guci guciac*, *biltzen dituen eta beregantzen ta ala da Eleiza gucieracoa*»<sup>68</sup>.

Oso hitz larramenditarra: OEhn aipatzen diren SAgS. eta BurDot. ko ugariez landa, hainbat erabilera dira AzkS.an eta AndS.an ere:

<sup>67</sup> B. Urgellek diostanez, EKcn Mb., LE, AA, Mg. eta enparauen *guzia dezaken* eta Mb. nahiz Ub.en *guzia dagiken*-en adibideak aurki litezke, maisuarekiko atxikimenduaren lekuko.

<sup>68</sup> Orobat *legue jaquin* eta *gucienzacoaz* (6) erlazonaturik dugu HH «público, *otsandegua*, *ochandiquia*, *aguerria*, *aguiria*, *jaquiña*, *orozca*»rekin.



AzkS.an: *guciaquicoac ta mundu guciaren choragarri* (47); *gazteric lirañena, doañic andienecoa, cintzo, yaquintsu, zur, gozo, guciaquicoa, ta gucien miraria* (47);

SAGS.an: *Lembizico argia bezela, guziekicoa eta guzieracoa* (61); *Lembizico munduaren argia izandu zan guziakicoa, beste guzien gaya eta jayotza, zeñegandic egin diraden zeruan argi guziac. Eta gure Aita San Agustiñ izandu da argi bat guziakicoa, Eleizaco argi guzietan argitzen dana, guzien gaya eta iturria* (65); *Nola bada guziakicoa izan diteke San Agustiñen argia escola orientzat?* (66); *Eta zer da au guzia ez-bada San Agustiñ izatea guziakico argi eder bat...* (66); *beraz, San Agustiñ da argi guziekicoa eta guzieracoa* (68); *Arc badu argi bat guziekicoa eta guzieracoa* (72);

AndS.an: *Guciaquicoa izanagatic ona guelditzen zala eta batí edo birí eguiñá baño andiágo ta preciatúago. Guciáquico oná ta ondásuna gucien icendagárria, gucien honragarria da, Jaincoá ta munduá, ta ingurú guciáquico alabánzaric andienac dacartziena* (80);

BurDot.n: *Eliza Catholica edo guciaquicoa* (90).

Gero, soilik Ub. XVIII. mendean eta EKCn Cb. eta Mg., Izt., Lard. eta Legaz, AA, Gco.... XIX.ean<sup>69</sup>.

KSko erabilera aski ugaria (ugariegia testua L.rena ez izateko) ongi dator, halaber, aipatu L.ren gainerako obretakoekin eta bere egiletasunaren froga nabarietarik dugu. Bidenabar, B. Urgellek markatu didanez, *guzienzako* nolabait are *guziekiko* baino «larramenditarrago» litzateke, KSren egileak erakusten baitigu ez dituela hitzak HHn itsuka hartzen eta erabiltzen baizik eta berak bere aldetik sortzen edo moldatzen ere badakiela, L.k inork baino hobeki egin bezala (cf. Urgell 2001, 2004, 2018).

Erants bekizkio P irizpidearen arabera gertaera, *aldeko* eta *gedeitu*, azken biak batez ere (ikus iruzkinak dagozkien sarreretan).

(A2 / B / C+ / E) → [3-P].

<sup>69</sup> Badira bi *guziekiko* Mb.renak —1982 arte argitaragabe ziren, ordea (cf. Altuna [arg.])— baina ez dute egitura honekin loturarik: *beste santu guziekiko* eta *fededun guziekiko*.

- 53b) *Guzienzako*; ikus *guziekiko*.
- 54) *Humiltasun* ∷ [ $< 10 >$  zurearen aneco *humiltasun* bat gure naiga-betaraco paciencia andi bat;  $< 10 >$  *Humiltasunez*, errespetoz, amodioz eta zeure bitartez Jangoico[aga]ndic artu izandu ditugun oneguiñen ezagueraz beteric;  $< 6 >$  et[a] bere bici gucia igaroco du asco gauzaren bearrean. Ote da *humiltasunetic?*;  $< 7 >$  eztu gordetcen beartasun edo pobrezatic ez *humiltasunetic*].

«Bien documentado tanto al Norte como al Sur desde principios del s. XVII y principios del s. XVIII respectivamente» dio OEHk. Zehatzago, Mat., EZ, Ax., SP, Xurio da Iparraldean eta soilik OA Hegoaldean 1745 b.l.

HHn «humildad, *humiltasun*» eta 3 *humiltasun* BurDot.ren, eta gero jauzi bat Astarloa eta Lard. arte (falta dira Cb., Mb., Ub.... OEHn baina Mb., Xurio, Mg., Larregi, LE, Añ., Uriarte, Cb.... EKCn, Hegoaldeko batzuk, aldiz *h*-arekin, aldiz *h* gabe.

Bestetik, *-tasun* atzizkiaren bidez hitz berri asko esplizitoki asmatze-ra emana ez izan arren, L.ren beraren testuetan *-tasun* eratorri ugari bil liteke (cf. Lakarra 2023a ASz) eta KS honetan ere horrelatsu: cf. 16. sarrerako *beartasun*-eko oharrak. Horrenbestez, ekonomikoago eta egiantzekoago ere bada Ax. edo beste Iparraldekoen batengandik ikasitzat jotzea, HHko *-tasun* gehiagoren kasuetan legez, nahiz orain artekoak ez duen egiletasunaren auzia ixten.

Bai, segurki, P irizpidearen arabera *naigabe*, *onegiñ*, *ezaguera* eta *beartasun*-en iruzkinak gehitzean (ikus dagozkien sarrerak).

(B / B1 / F) → [2-P].

- 55) *Iduripenezko* ∷ [ $< 7 >$  munduac ematen dituen *iduripenezco* honrrac atseguintasunac eta ondasunac].

Harender, Iztueta eta Orixek badakarte hitz hau —eta *irudipeneko* Gco.k eta *irudipenezko* Akesolok eta Mitxelenak, *iduripenezko* bat Ubillosek— baina seguruenik poligenetikotzat har liteke; bestalde,

badakigu (cf. Lakarra 2023a) L.k *-zko*-ren bidez osatutako eratorriak ez zituela sistematikoki bildu HHn.

Beraz, KSko formara iristeko *iduripen* soiletik abiatzea dirudi egokienik. Horrenbestez, Iparraldean EZ eta SPren *Philotea* ditugu 1745 b.l. eta, aldiz, ez da lekukotasunik garai bereko Hegoaldean.

HHn «representación, figura, imagen, *iduripena*, *irudipena*, *beguitacinoa*. Lat. Species, imago». Ondoren, Cb., AA, Etxeberría eta Izt.k dakarte baina horiek guztiek baino lehen baita L.ren SAgS.ak, AndS.ak (bitan) ere, L. eta KSren arteko aipagarria bistaratuz.

*Irudipenezko*-ri berari lotzen bagatzaizkio, *andinaizko* eta *usteltasunezko* bezala KSn eta L.ren gainerako testuetan haren Artearen arabera sortu eratorrietarik dugu (ikus 1.ean bildutako aipua). Horrenbestez, nabarmena da KS, L.ren *Gramatika* eta haren testuen arteko lotura, hitz eraketari dagokionez. Erabileraren alde tik, soilik Haraneder, Izt. eta Orixe dakartza OEHk (ez da besterik EKCn).

Gehi bitez oraindik *atsegintasun* eta *ondasun*-en iruzkinak (ikus sarrera horiek) P irizpidearen arabera.

(A1 / H) → [3-P].

- 56) *Iguitu* / *iguitasun* ∴ [ $< 6 >$  becatua ezagutzen, *iguitcen*;  $< 10 >$  claroro adieraci digue zuc cembat *iguitcen*;  $< 7 >$  becatua *iguitcea*;  $< 3 >$  *iguitasuna* edo gorrotoa eta au izango da nere gaurco itz-gaia;  $< 9 >$  begui oequin claroro ecusico dezue cembat *igui* duan].

Lehen *iguitasun* Gco.n lekukotua da (ez hori ez beste ez dakar EKCK) baina errazki azal liteke HHn hori osorik ez izatea (cf. 16. sarrerako *beartasun* hitza, *-tasun* faltaz). HHn «hastío, *nazca*, *naga*, *iguya*» eta «desgana, es voz Bascongada, véase *gana*; *desgana*, *ganagaea*, *gogaguea*, *iguya*. Lat. Ciui taedium».

Gero Gco.k *igui* (eta Lazar.k EKCn) eta Mg.ek eta Lard.ek *iguin*. *Iguituri* dagokionez, *higuindu* (Iparraldeko forma) du L.k «desagra-

dar» eta «disgustar»en baina *iguitu*, *iguindu*, s.u. «tediar». Ondoren Gco.k eta Lard.ek ere *iguitzeko* dute.

Datu guztiak bateragarri dira L.ren aldeko KSren egiletasunarekin, nahiz ez markagarrienak izan.

P irizpidearen arabera, gehi bitez *klaruro* (bitan) eta *itzgai*-ren iruzkinak (ikus dagozkien sarrerak), L.ren egiletasunaren alde erabakia gehiago makurtuaz.

(A1 / H) → [2-P].

- 57) *Illuntasun* ∴ [ $< 6 >$  *illuntasun* onetan ote da bidegabe ta naigabetric?;  $< 3 >$  arguiarequin *illuntasun* eta saintutasunarequin<sup>70</sup> beca-tuaren arteko batasuna eta unioa].

«Iparraldean lekukotua XVII eta XVIII.ean, eta baita gero Dv.engan ere. Hegoan XVIII. mendearen erdialdetik aurrera» (OEH). Modu aski bitxia Hegoaldeko erabileraren abiapuntu eta ugalketan L.k duen erabateko garrantzia isiltzeko. Iparraldean Materra, EZ, ES eta Xurio ditugu baina ez Ax.; ordea, bai Ht.en *VocGr.*, 304: «*illuntassuna*, obscurité, f., noirceur, m.».

Hegoaldean soilik Urkizu *ilundasun* dator 1745 b.l. eta ez dirudi L.k testu hori ezagutu zuenik. HHn «tenebrosidad, *illuntasuna*, *airguea*. Lat. Tenebrosus» eta «Tinieblas, *illumina*, *illuntasuna*, *airguea*, Lat. Tenebrae, -arum».

HH ondoren L.ren SAgS. eta KSz landa, Mb., Cb., Ub., Mg., Gco., AA, etab.

Froga bat gehiago KS, HH eta L.ren testuen arteko loturaren alde nahiz ez larriena.

Erants bekizkio L.ren egiletasuna sendotuaz P irizpidearen arabera-ko *bidegabe*, *naigabe* eta *batasun*-en iruzkinak (ikus sarrera horiek).

(B / B1 / D) → [2-P].

<sup>70</sup> *Saintutasun*-ez ikus *batasun* peko oharra.

- 58) *Iraupen* ∷ [< 10 > amodio bigun eta *iraupen* luceco bat].

Iparraldean Etxeberri biek, Axularrek eta Pouvreaux darabilte, L.k aukera ezin hobea duelarik hitza bere HHn sartzeko; Hegoaldean ez da adibiderik 1745 b.l.

HHn «dura, duración, *irautea, iraupena*. Lat. Duratio, Diurnitas» eta «perseverancia, *irauntza, irautea, iraundera, iraupena*. Lat. Perseverantia».

Ondoren, aldiz, *CatOiq.*, LE eta Gco. Hegoaldean 1850 b.l., baina ez Mb., Ub., fB.... EKCK Cb., AA eta Mg. eransten ditu.

Erlazio aipagarria, horrenbestez, L. eta KSren artean, nahiz besterik gabe KSren egiletasuna erabakitzeke lain ez.

(A2 / B / D) → [2].

- 59) *Irinsierazo* ∷ [< 10 > Yri edo ciudade desonesten gañ bota zuana: asco becatari gogor lurrari irinsierazo diona].

«Gipuzkerazko testuetan *irentsi*: XIX.ean Mg (CC 228), *irintsi*-rekin batean, B. Mogel, Gco. eta Arruegan, eta ia orokor XX. mendean; orobat, *irintsi* AA (I 459, III 477), Apaolaza (112) eta XX. mendeko gipuzkerazko testu herrikoietan; *irintxi* Iturriagak (*Fab* 259), Beobidek (*AsL* 69), Aran-Bagok (*ManMed* 226), *Mendaro Txirristakak* eta Manzisorrek (*GPatroi* 141)» (OEH).

Gero, *-erazo* gehiagotarako ikus 68. sarrerako *kiskalerazo* hitza eta < 4-5 >eko *dríst erazo* iluna. Bateragarria KS eta L. arteko erlazioarekin baina ez esanguratsuegia.

(A) → [1].

- 60) *Itsuskitu* ∷ [< 8 > ceren becatu etorqui onec aimbesteraño *isusquitu* eta Jangoicoareng(and)ic urrutiratuco].

HHn «afear, *itsusitu, itsuquitu, ezaindu, narriatu*»; «desfigurar, *era-gaiztu, desguisatu, itsusquitu, desichuratu*. Lat. Deformare». DVC hiztegian, «*ichusitu, afear, ichusquitu*». Orobat HHn, ccxiv: «...

*daude guciac aiñ gueldi, aiñ isill, escuac tolesturic, naiz beztú, ta ichüz-  
quitu dezátela, naiz darabiltela óñen azpián».*

Ondoren ezer gutxi: «deshonrar, desflorar. [Uri] onen atepak porra-  
katuak, sazerdoteak negarrez, birjiñak itxuskituak ta bera beterik samina-  
tasunez (FrantzesB I 167)». EKCn J.B. Bilbao Batziren 1914-16ko  
adibide bat: «Jagi zan Triperre ohetik eta han ebilen katiluak garbitu,  
eskaratza itsuskitu eta abar egiten» (EKC).

Lotura ezin argiagoa HH, DVC eta HHren hitzaurrea eta KSren  
artean, eta enparauko paralelorik gabe Añ.ren G sailaz landa (L.  
ren menpeko ezagunaz, alegia); L.ren egiletasunarekin bateragarri  
ez eze azalpenik egiantzekoena.

Argudioa are sendoago bilakatzen da P irizpidearen arabera esaldi-  
diko *bekatu etorki* eta *urrutiratu* (ikus sarrerak) kontuan izanik.

(A2 / B / B1 / G) → [3-P].

- 61) *Itzaldi* ∷ [ $< 6 >$  nola *itzaldia* eguin bear degun onen gañ: arreta edo  
atencio pisca bat].

«Documentado en autores guipuzcoanos desde el s. XVIII; a partir  
de principios del XX se encuentra tbn. en escritores vizcaínos y sep-  
tentrionales» (OEH). Hots, L.k sortu eta lehenik Gipuzkoara eta  
gero ia noranahi hedatutako hitza.

HHn «oración, razonamiento, *hitzaldia*. Lat. Oratio». Gero, Cb.,  
AA, Lard., TxAg., Azkueren *Ardi Galdua*..., OEHren arabera eta  
baita Mb. eta Izt. ere (EKC). Datuak bateragarriak dira L. eta  
KSren arteko erlazioarentzat nahiz ez erabatekoa haren egiletasu-  
narentzat.

P irizpidearen arabera gogoan izan bedi *arreta*-ren iruzkina ere (ikus  
sarrera horretan).

(A2 / B / E) → [2-P].

- 62) *Itzgai* ∷ [ $< 3 >$  Eta au izango da nere gaurco *itzgai*. Baña ò Maria,  
nere gurte edo culto eta confianza bigun eta osoaren jomuga diña].

Ez da lekukotasunik ez Ipar ez Hegoaldean 1745 b.l.; HHn «asunto, gaya, hizgaya, jolasgaya, chedea. Lat. Argumentum, propositum, thema» dugu lehena.

Gero, soilik LE, Izt., Arrue eta Arbelbide XIX. mendean (batere ez XVIII. mendean, salbu EKCK dakarren Mg.en adibide bat).

Lotura oso argia HH eta KSren artean.

P irizpidea ezin aplika liteke zehazki (esaldi berean) baina markagarria da oso hurrengo esaldiko hirukotea (*gurte, jomuga eta diña*); ikus dagozkien sarrerak.

(A2 / B / E / F) → [3-P].

- 63) *Jakindun* ∴ [ $< 2 >$  onaren eta gaitzaren *jaquindun*. Gehiegi litzate zorigaiztoco guertaera onen aldecoi edo circunstancia].

OEhk 1745 aurretik RS, Lazar., Kap., Urkizu (soilik Hegoaldean); Xuriok ere badakar EKCK dioskunez.

HHn «resabido, *jaquindun irudin naya*»; «esciente, *jaquinduna*, Lat. Sciens»; «sabidor, *jaquinlea, jaquinduna*. Lat. Conscius, gnarus, sciens, sapiens, peritus». Ondoren, badira zenbait bizkaitar (Olaetxea, Mg., fB.) eta gipuzkoar, azken hauek soilik Lard. geroztik. EKCN, ordea, Mb. (bitan), Añ. eta Izt. bana gehitzen dira.

Honenbestez, KS eta L.ren arteko lotura egiantzekoa da eta baita L. KSren egile izatea ere.

Aurreko sarreran bezala, P irizpideak ez digu bere esaldi laburrarentzat balio, baina oso esanguratsu bilakatzen dira hurrengo esaldiko *zorigaiztoko, gertaera eta aldeko* (ikus sarrera horietako iruzkinak).

(B / F) → [2-P].

- 64) *Jakinsu* ∴ [ $< 4 >$  santo Thomasen eta beste *jaquinsu* ascoren iritcian Mariaren bicitza guzti[ti]c becatua alderantceco].

«De uso general en todas las épocas y dialectos, salvo en vizcaíno, donde es poco frecuente» (OEH). Alabaina, ez da hori zehazki

1745 b.l.ko Hegoaldeko testuetan aurkitzen duguna; hara hiztegi horretan bertan *sabio*-z eskaintzen dena:

Sabio. «Sabiamente, *sabioa legez*» Lcc. *Narbaez gizon sabioak / oita egun dau agindu*. Lazarraga 1153v. *Begiak buruan sabioak eta eroak oñetan*. RIs 16. *Iaun bat guztiz sabioa, ona, daukana poderio guztia*. Cap 27. *Artzain ignorantea ninzan, biurtu naiz sabio*. Acto 329. *Guziak sabio, guziak poderoso, guziak miserikordioso*. SermAN 1r. *Iaun bat infinitoki on, poderoso, sabio, justo, prinsipio eta fin gauza guziena*. CatSal 23. (v. tbn. en contexto similar Zubia 147, El 29, Iraz 15, Arz 30, LE Ong 32r, CatLlo 17, CatAe 22, CatR 23, CatUlz 15, Ag Kr 7).

Ordea, orain badugu 1740ko L.ren ASko agerraldi bat (*Eliz gura-soac eta jaquinsuac losacen dira* [1r]) eta are AS aurreko lehenagoko beste adibide bat, hau ere L.ren testu ezagunekoa, AzkS.koa (1737), hain zuzen: 47. «*Munduko jakinsu andienak mututurik uzteko*».

L.rekin jarraituaz, HHn «sabio, *jaquiña, jaquintsua, jaquinduna*. Lat. Sapiens» dugu. Hegoaldean gerotik oso arrunt bilakatu den arren (Mb., Zusaeta, Ub., Gco., LE, AA...), egiantzekoa litzateke L.k Iparraldetik hartua izatea, han Leiz. gerotik (Mat., SP, EZ, ES eta Ax., Ht.en *VocGr.* barne), ugarria baita *jakintsun* aldaeran.

KS eta L.ren HH nahiz gainerako testuen arteko lotura sendoa. Atzikiari buruz, cf. ASko *amodiotsu* eta *indarsu* ere.

Gehi bekio *alderandu*-ren iruzkina P irizpidearen arabera (ikus sarrera horretan).

(A2 / B / C+ / D) → [3-P].

- 65) *Jakiunde* ∷ [ $< 4 >$  ecin gorde cezaquean Maria becatuaren mendetic? bere *jaquiundeac* etzuan beartcen;  $< 4 >$  Jangoicoaren gucialdun eta *jaquiundeari* bidegabe andi bat].

1745 b.l. soilik *Antzuolako Dotrina*, OA eta L.ren AzkS.aren eta HHren hitzaurrean dugu. HHn «*sabiduría, jaquindea, jaquiunde, jaquinera, jaquintasuna*. Lat. Sapiencia, eruditio».



SAGS. (bitan), Mb., Ub., AA, Arana eta K. Mitxelena dira ondo-koak OEHren arabera; EKcN, BurDot., Cb., Izt., Lard. ere bai. Zalantzarik gabe, L.ren zordun haren ondoko guztiak, eta oso egiantzekoa, beraz, KSren L.rekiko lotura ere; ezin ahaztukoa L.ren hiru testutan agertu izana, horietarik bat are HH aitzinekoa.

P irizpidearen arabera, gehi bekizkio *mende* eta *guzialdun*-en iruzkinak (ikus bi sarrerak).

(B / C+) → [2-P].

- 66) *Jatorri* ∷ [ $< 5 >$  Ederra eta osasungarria dator *jatorri* ustel eta becartari arrazatic].

OEHk *jatorri* «XVIII. mendearen erdialdetik aurrera bizkaieran eta gipuzkeran» lekukotzen dela dioen arren, XIX. mendean ondo sartutako testuetarik heldu dira bildu lekukotasunak oro, L.ren HHZ hainbat hamarkada beranduago. Izan ere, OEHren sintesia ez dagokio *jatorri* forma zehatzari: *jatorriz* eta *jatorrizko* (*bekatu*) azpissarreretan dira Ub. eta Mg.en *jatorriz* bana, Cb.ren (*bere*) *jatorriz* bat gehi BurDot.ko<sup>71</sup> *jatorrizko* *pekatua* edo *orijinala* eta Cb., Ub. eta Añ.ren nafar-dotrinako *jatorrizko* *bekatua/pekatua*.

Aurreko datuok nabarmen egiten dute *jatorri*-ren lehen lekukotasunen L.rekiko zorra, eredu eta iturri jakin horiei lotu baitzitzaizkien guztiak 1800 bitartean bederen eta, aldiz, HHtik 60-70 bat urte geroago hasi ziren agertzen AA edo Gco.rekin gainerako adiera eta eratorriak. Data berankor horietan ere proportzioak oso adierazgarri dira: *Konfesioko* eta *Komunioko sacramentuen gañean erakusaldia*ken (1803, 1823), Klasikoen Gordailuaren arabera, *jatorri* bakar baten aurrean 7 *jatorrizko*, *jatorrizko* *bekatu* edo *originala* nahiz *Adanen* *bekatu* edo *jatorrizkoa*; ez urrun, beraz, Ub. 1785ean aurki-

<sup>71</sup> Zeinetan, ezagun denez, L.k ere parte nabarmena zuen, Mendibururen originala sakon eta zabal zuzenduaz: ikus Altuna (1982) eta Lakarra (1986, 1987). Erants bedi OEHren arabera ez dela ez *jatorri*(z) ez *jatorrizko* gehiago Mb.ren gainerako lanetan; EKcK askoz testu gehiago aztertutik bi ematen ditu: baina bi-biak *jatorrizko*, bat ere ez *jatorri*.

tutakotik: 10 *jatorri*- (8 *jatorrizko*, 2 *jatorriz*); aldiz, *jatorri* bakar bat ere ez.

*Jatorrizko* eta *jatorri*-ren modernotasunaren froga erantsi garbia dugu, oso berandu arte L. ondoko idazleek hitz ezohiko eta ezezagun horiek *edo* juntagailuaz —inoiz *eta* nahiz formula baliokideren batez— sartzea: *jatorrizko* ia 1850 arte eta *jatorri* haren atzeranzko eraketa 1900 igaro ondoren (Lakarra 2022: §§ 23-24)<sup>72</sup>. «Gure *jatorrizko edo* jaiotzako izkera» eta «Grazia guzien *jatorrizko* iturria» dakartza Kardaberatzek XVIII.eko zerrenda osatuaz. Hitzen bertakotzea ikertzeko «*edo* teknikaren» garrantziaz oharturik<sup>73</sup>, ondoko lekukotasunak aurkitzen dira Corpus Arakatzaillea baliatuaz: goiko Cb.en horrezaz gainera, Ub.ek, AAk, JJ. Mg.ek eta Lard.ek ere, bederen, badituzte *edo* salatzaileok; horrenbestez, susma genezake HHtik ia 90 bat urte geroago *jatorrizko* erabat bertakotu gabe zela bizkaieraz eta gipuzkeraz —hori idatzian, ahozkoan askoz geroago ere bai— (horrela zerraiten oraintsu arte Iparraldean)<sup>74</sup>, eta pentsatzekoa da *jatorri* berantiarragoa are arrotzago zatekeela.

*Jatorrizko*-rekin egindako saio bera *jatorri*-rekin errepikatzean dakusagunez, *edo* du AAK («*mota edo jatorri*»), baita *jatorri edo castaz* ere —Cb.en *jaiotzaz edo bere jatorriz* gogoratzen du—; garai bertsean, *Oñatiko eskuizkribuak* («*Jatorri edo ondorengo belaun baga-*

<sup>72</sup> Gandara larramenditar sutsua bide dugu salbuespen bakanetarik: OEHN bildua ez den arren —soilik L.ri egindako gutuna hustu dela dirudi—, dagoeneko aspaldi Lekuonak eta Telletxeak argitaratu 1764ko *Gabon Kantaken*: «*Judan bat huria da Belen. Ona etorria zan Virgen, assentetaco, cerren zalaco Jose yatorria Daviden*». Orain Gandaraz ikus San Roman (2024).

<sup>73</sup> Ikus Urgellen (2018: 632 e.h.) hainbat adibide eta iruzkin argi; hark erakutsi legez (cf. lehenago Urgell 2008), nahiz maileguen ordezko hitz berri asmatuak nahiz beste dialektoetako hitzak aurkezteko erabiltzen da, baina baita hiztegi ugaritasun eta zehaztasuna bilatzeko estilema gisa ere. Pentsatzekoa da, hitz berriekin egingo zela gehienik, horiek baitziratekeen ezezagunen eta ikas-irakatsi beharrezkoenak ere. Cf. Lakarra 2022 eta Aristizabal 2023.

<sup>74</sup> Sarasolaren 1982ko Maiztasun Hiztegitik harturik, zera diosku OEHK, hurrenez hurren, *jatorri* eta *jator-i* buruz: «En DFrec hay 64 ejs. de *jatorri* y 52 de *jatorrizko*, todos ellos meridionales»; eta: «En DFrec hay 154 ejs. de *jator* y 4 de *yator*, todos ellos meridionales». *Jatorri* dator *Vocabulario Pomier* delakoan; horren eta hainbat larramenditar hitzen haren erabileraren garrantziaz, ikus Lakarra 2024.

rik»), eta gero Lard.ek («Zireneko seme edo jatorri bat») eta are oraindik *Auñamendiko loreak* ia XX.ean («jatorri edo sustraya»), *Kresalan bertan*, 1906an, («jatorri onekoa edo odol garbikoa»), 1921.31.8ko *Egutegi tolosarrak*: «Oitura onak galdu ezkerro, azkar galduko da gure jatorri edo abenda», eder askoa; garai berri batean sartuak ginela dioskute *abenda* horrek eta ondokoak.

Funtzionalki antzeko juntagailua bilatuaz, Lard.ek («Entzun zute-nean ango odolekoa eta jatorria zala...») eta Euskararen [Gipuzkoako] Aldundiko Zirkularretan (1928): «erosi berrien abenda ta jatorria», hau da, aurreko ahapaldiko egitura bera, alderantzizko ordenan. Horiezaz kanpora bada oraindik Iztuetaren «beragandik datorrena edo jatorri artakoa» bezalakorik edo *jatorri/jaioterri*-rekin egindako jokoak, baina aski da honainokoa *jatorri*-ren bertakotze berantiarra erakusteko.

ASko *jatorri*-ren erabilera bikoitzak («pagatu zuela gure naturalezaren zorra (...) honratu zuan guztiz gure naturaleza eta jatorria» [1v] eta «Jaungoicoa autic det nic nere jatorria» [Ib.]) dakar Larramendi baino lehen inoiz lekukotu gabeko berba L.rekin duen erlazio zuzena, hots, haren lumatik aterea dela frogatzeko ohar bedi 1800etik aurrera baino ez dugula enparauko inoren adibiderik aurkitzen (goian aipatu Gandara, garai hartan argitaragabeaz landara) edo HHko «emanar, emanacion» eta «origen, originalmente» sarrere-tan dugun *jatorri(a)* eredua: behar adina miatu ohi ez den liburu horren hitzaurrean bertan, «XXVI. De las voces facultativas y de la licencia que me tomo en la formación de algunos vocablos» hain esanguratsuan dugu orain arteko lehen lekukotasuna: «*edocein guizon ez tala icengullea, espada araco gaucen jatorria azaltzeco ta aguertzeco bereisquiro gai dan icenari dagocana*» (HH, I or. [1742]; cf. atalaren iruzkin egoki baterako Urgell 2018: 576-580).

ASkoek bai hitzaurrekoa eta baita HHren gorputzekoa bizpahiru urte bederen aurreratzen digute asmaketa datari dagokionez. Alabaina, lehendik ere data hori gutxienez 1737ra aurreratu beharra genuen, AzkS.ra, alegia: «*Baña Virgñac zor cion bere semeari izan eta*

*ceuan gucia: zor cion beñicbeñ munduan zan humeric eder gozoena izatea; are zor cion jatorriz degun pecatu bague sortzea, gracia guztiz vetea, aingueruac baño gorago jaso, ceruarequin lurraren aguintaria» (48).*

Egia da adibide hau adberbio erabileran dugula eta atal honen hasieran emandakoak biak izenak («nere jatorria», «naturaleza eta jatorria») eta oso berandu arte L. da izen gisa dakarren bakarra. Lekukotasun hauek guztiak gehi kronologiaren zehaztasunek oro ez dute zirrikitu eta ihesbiderik uzten: ASren egilea Larramendi dugun bezala, halatsu esan liteke KS honetaz bertoko «Bada Maria garbia, ederra eta osasungarria dator jatorri ustel eta becatari arrazatic» (5) ikusiaz beste gabe, nahiz dagoeneko abondo izan froga erantsi sendoak ondorio hori bera bermatzeko.

P irizpidearen arabera gehi bitez *osasungarri*, *bakantasan* eta *bakartasan*-en lekukotasunak (ikus dagozkien sarreretako iruzkinak).

(A2 / B / C+ / E / F) → [3-P].

- 67) *Jomuga* ∴ [ $< 3 >$  Baña ò Maria, nere gurte edo culto eta confianza bigun eta osoaren *jomuga* dina].

«Documentado desde Lizarraga de Elcano, aparece en textos meridionales y en algún septentrional moderno» (OEH).

HHn «blanco a donde se tira, *zuria*, *cozà*, *jobenia*, *jomugá*. Lat. Scopus, -i» eta «terrero, a que se tira, *jomuga*» ditugu LE eta gainerakoan iturritzat. Bestalde, oso urriak dira lekukotasunak (LEz kanpo, fisik ez XVIII.ean eta soilik Izt., GMant., Arrue eta Orixe 1936 arte; Uriarte eransten du EKCK) eta datu horiek are estuago egiten dute KS eta HHren arteko lotura.

Ohar bedi, gainera, lerro bakarreko esaldian biltzen zaizkiola *jomuga*-ri bera bezain larramenditartzat jo behar ditugun goian iruzkindu *gurte* eta *dina*, hiruren analisi bateratuak L.rekiko lotura ezin saihestuzkoa egiten duelarik; honekin guztiarekin L.ren aldeko KSren egiletasuna ere sendoago bilakatzen da.

(A2 / B / E / G1) → [3-P].

- 68) *Kiskalerazo* ∴ [leice onetara bota eta emen beti *quiscalerazoco* dituen Jangoicoa].

«*Kiskali*. Orokorra Hegoaldean XVIII.aren erdialdetik, nahiz baden dagoeneko [ia 1900 arte argitaragabeko] Mikoletarengan» (OEH); «Iparraldean —Zuberoatik kanpoko— idazle gutxi batzuek darabilte, EZz geroz. (...) *kiskali*, *-du* / *kixkali*, *-du* dira erabilienak Hegoaldean» (OEH). Horrezaz landa, (t)x- eta z- aldaerak EZ, Haranb., Dv. eta Cb.ek<sup>75</sup>.

HHn «achicharrar, *quiscaldu*, *gueiegui erre*, *chigortu*»; «quemar demasiado, *quiscaldu*, *chiscaldu*. Item *chispildu*»; «tostar demasiado, requemar, *quiscaldu*, *chiscaldu*»; id «assar demasiado»; aurretik AzkS. «*Batzuek surtan erre kiskalduak*».

KSko forma bateragarri da L.ren HH zein beste sermoikoekin; *erazo*-rentzat ikus KSn bertan < 4-5 >eko *drist erazo*, 59. sarrerako *irinsierazo* edo 96.eko *sinisterazo*.

(A1 / H) → [1].

- 69) *Klaruro* ∴ [< 9 > begui oequin *claroro* (sic) icusico dezue cembat igui dedan; < 10 > eta oec *claroro* (sic) adierazoco digue zuc cembat iguitcen eta guc gorrototu].

OEHk L.ren HHko «claramente [*arguiró*, *claruró*, *clarqui*, *ocenqui*, *ocenquiró*]» eta «clarísimamente [*chit arguiró*, *claruró*, *clarquiró*]»ra bidaltzen gaitu.

Hemengo bi adibideon aurka, ez da ez mende horretako enparauko testu lekukotasunik, ez zahar ez modernoagorik (ezta EKCn ere).

Lotura argia KS eta HH bitartean; orobat, L.ren aldeko KSren egiletasunaren froga sendoa baldin eta onartzen badugu (bistakoa dirudien legez) sermoiarenean kopiaketa-lanean aldatu zela \**claruro* > *claroro*.

<sup>75</sup> «La forma *kiskildu* se encuentra en Mendiburu (OtGai I, 69)», gehitzen du OEHk.

P irizpidearen arabera gehi bedi *iguitu* (ikus sarrera hori).

(A2 / B / E / G) → [3-P].

- 70) *Konsolagarri* ∴ [< 5 > cembat negargarriagoa dan eztabaida batean ere Jangoicoaren gorrotoan egotea, aibat *consolagarriagoa* dala beraz beti maitatua izatea eta bera maitatzea].

OEHren arabera, 1745 b.l., Iparraldean Haranburu, Ax. —ez OEHn baina bai EKCn— SP eta Xurio, baina ez Etxeberri biengan edo Ht.en VocGr.n. Garai berean Hegoaldean bat ere ez, AzkS. salbu: «Ez konsuelorik nai zeuan ez konsolagarririk; Espiritu konsolagarria, arren zeuk ere ez, eztezu [...] esposea konsolatzen?».

HHn «Paracleto, paráclito, lo mismo que defensor y por eso mismo consolador, *escudataria, arautecoa, consolagarria*. Lat. Paracletus». Gero berriro L. (Otoitz biren itzulpenean: «Zu zera anima erorien *altxagarri ta konsolagarri*»), soilik Añ., Etxagarai, Gco. eta Pello Errota Hegoaldean (OEH), baina baita Cb., Mikelestorena, LE, Larregi, Izt., Maizter EKCn (ez Mb.rengan, ordea).

Ia LitB. eta LitG. osoen lekukotasunak falta direlarik (baina gogorra AzkS.), lotura markagarria gertatzen da KS eta L.ren artean.

P irizpidearen arabera *negargarri* eta *eztabaida*-ren iruzkinak gehitzeko dira (ikus sarrera horietan).

(A2 / B / C+ / D / F) → [3-P].

- 71) *Kordegabetu* ∴ [< 1 > Jaungoicoari adieraci bear dio bere lendabico sortcetic artu izan dituanacgatic esanaz, *cordegabeturic* ta mesede oei dagoquien eranzuera batequin].

«(G ap. A; BeraLzM), *kordebagetu* (Lar, Añ (G), H), *kordebagatu* (V ap. A)» OEHren arabera. Hor bertan esaten zaigunez: «Desmayarse, perder el sentido»; “privar de sentido” Lar y Añ. “Arrebatarse, enajenarse los sentidos”; “arrobarse en éxtasis”; “caerse de su estado” Lar. “(Quedarse, ponerse) absorto, *sorra gelditzea, arritzea, kordebagetzea bezala*, y esto último significa quedar como sin sentido” Ib. “Pasmarse, *arritu*, [...] *kordebagetu*” Ib. “Absortar,

pasmar y admirar a uno [...] *kordebagetu bezala*” Ib. [Orobat] “Adormecerse brazo, pierna, &c. [...] *kordebagetu*” Lar, Añ» (OEH).

Ondoko testu-erabilerarik ez dugu Izt., Uriarte eta Arrue arte (OEH); EKCK Cb.en 9 agerraldi<sup>76</sup> eta gero Arzak eta Antiaren bana dakar.

Horrenbestez, KSKo adibideak, egiantzeko egiten du sermoia hur-biltzea HHra eta L. sortzailearengana<sup>77</sup>. Ondorio hau asko sendotzen dute esaldian agertzen diren *eranzuera* eta, batez ere, *sortze* larramenditarrek (ikus sarrera horietako iruzkinak).

(A2 / B / E) → [2-P].

- 72) *Kutsatu* ∶ [ $< 5 >$  cembat negargarriago dan pozoi eriozcoaz *cutsatua* egotea, ambat atseguingarriagoa dala sugue madaricatua oñazpiratcea].

«La forma *kutsatu*, propia de la tradición labortana, compite entre los guipuzcoanos con *kutsutu* (hay un sólo ej. septentrional de esta última, en Arbelbide», diosku OEHk<sup>78</sup>.

Iparraldeko lekukotasunetan, *kutsatu* Materra, EZren *Manual Debotioezkoan*, Ax., 1745 b.l. Segurtasun handiz hortik iritsi zen HHra: «“Inficionar, *cutsatu*, *queruztatu*. Lat. Inficere” Lar y Añ. “Babosear la comida o bebida, tocándola con los labios, aunque sin babas [*cutsatu*]” Lar (id.)».

Hegoaldeko lehen testu-lekukotasuna data gabeko L.ren «*Etzinduen suge zarrak ez kutsatu ez erakarri*» (San Tomasi zuzendutako otoitza, 2) dugu, OEHren arabera, eta baita beste bi haren AndS.

<sup>76</sup> Baina guztiak Aranaren 1882ko edizioakoak.

<sup>77</sup> *Korde*-ri buruz, OEHk dioskunez, egile giputzek darabilte, OAZ geroztik.

<sup>78</sup> Orobat: «*K(h)otsatu*, empleado ya por Leizarraga, se documenta en textos de autores bajo-navarros. Los suletinos usan *k(h)ozatü* (Inchauspe tbn. *khozütü*). Hay además *kutzutu* en la Marcha de S. Ignacio (RIEV 1931, 352) y *kosatu* en un ej. septentrional moderno».

an. KS honetakoaz landa, XVIII.ean Mb. (*Mendibururen idazlan argitaragabeak*, ordea) eta LE (EKCn), eta gero Duhalde, Gco., Itur. eta Lard. eta Dv. (115 agerraldi).

Aurreko datuetarik L.ren Iparraldekoekiko zorra zein HH eta L.ren gainerako testuen eta KSren arteko lotura oso markagarriak gertatzen dira<sup>79</sup>.

Are lotura nabarmenagoa *kutsatu*-ren agerraldi bakarra biltzen duen esaldian hitz horri *negargarriago*, *pozoi*, *eriozko*, *atsegingarriago* eta *oñazpiratu* eranstean.

(A2 / B / C+ / D) → [3-P].

- 73) *Laguntasun* ∴ [*< 3 >* ni naiz zure *laguntasunaren* bearrean; *< 4 >* nic merci eztedan zure *laguntasuna*; *< 10 >* zure *laguntasunarequin* batean egoera negargarri onetatic irteteco; *< 10 >* confesio on bat eguitemo *laguntasuna*].

Lazar.rena lehen agerraldia baina bakarra da 200 bat urtez —eta ezezagun itzalpean baitzen 2004 arte, noski— eta Mg., Añ., Gco., Astarloa eta Izt.renganako jauzia dute lekukotasunek (Iparralde osoaz landa<sup>80</sup> falta dira Mb., Ub., AA).

HHn ez da *laguntasun*-ik eta bai «compañía, *lagunquida*, *elcargoa*, *alcargoa*, *soinquidea*», hain justu aurreko «compañero, *laguna*, *elcarguna*, *alcarguna*, *soinquidea*»tik.

Alabaina, Añ.ren «compañía, *laguntasun*»ek erakusten duenez, hitz hau «dohainik» zen L.rentzat, *-tasun* atzizkiaren merkeak hala bilakatzen duelarik eta, horrenbestez, ez da harritzekoa baina bai markatzekoa, L.ren testuetan bere HHn ez diren *-tasun* formak ugari aurkitzea: cf. Lakarra 2023a-n, ASz. Horrela 16. sarrerako *beartasun*-en bildu KSkon gainerakoetan ere.

<sup>79</sup> Ohartzekoa da otoitz horretan L.k Iparraldetik hartutako hitz gehiago ere badela, *ohore*, adibidez.

<sup>80</sup> Horregatik egiten da hain markagarri «“(L; *Eskual*), compagnie, société, syndicat” Lh», eta XX. mendeko adiera horren erabilera bakanen bat.



Ohar bekio, bestalde, hitzaren erabilera aski berantiarrari: Mb.ren corpus erraldoian ez da adibide bakar bat ere EKCrean arabera eta bakarra Cb. osoan [eta bera, gainera, 1882ko Aranaren ediziokoa], halaber.

P irizpidearen arabera, *negargarri* eta, batez ere *egoera* esanguratsua-rekin konbinaturik aurkitzen dugu; ikus sarrera horietako iruzkinak.

(F / H) → [2-P].

- 74) *Leialtasun* ∴ [ $\langle 2 \rangle$  *Leialtasunarequin* aguinte ura gordetcen bazuen berac eta beren ondorengo guciac beti zorionecoac].

OEHren arabera, Hegoan soilik OA 1745 b.l. Iparraldean, Voltoirren zalantzazko kasu baten ondotik, Gasteluzar, ES eta Baionako 1733ko dotrinan lekukotua; baita Xurion ere (EKC).

HHn «Lealtad, *leyaltasuna*. Fidelitas». Gero ere arrunta Iparrean eta —hiztegi horrez geroz— baita Hegoan ere: Ub., Egiat., Mg.en *Peru Abarkan*, Añ., AA..., nahiz ez Gco. (EKCn Cb. eta Mb. ere bai, baina bigarren horren laurak argitaragabeak ziren 1982 arte).

L.k iturri-hautagai asko ditu bere hiztegirako eta dagoeneko atzizkiaz ikusitakoaren ondoren hainbat kasutan, arrunta bere erabilerak KSn.

Erants bekio P irizpidearen arabera, *zorioneko*-ren erabilerari dago-kion iruzkin esanguratsua.

(B / D) → [2-P].

- 75) *Lenen* ∴ [ $\langle 2 \rangle$  heredaturic gure *lenen* guraso Adam eta Evagandic].

«Documentado en la tradición meridional» (OEH), Isastiren erre-frauak eta OA direlarik 1745 b.l. Gero, HHn «Primer, primero; primero, principal». «(Lar & Añ)» dakar OEHk eta baita «Lenen, ori bera esan nai deu Principe[k], nola Latinez badiogu, “*Principe locum tenere*, lenengo lekua edo leku lenena idukitzea” Lar *Gram* 391» (*apud* OEH, s.u.). Ondoren BurDot., Cb., Añ., Mg., Mb, Izt., Ub., etab.

L.k erabilia HH baino lehen eta gero eta, horrenbestez, KS eta L. ren arteko erlazioarekin bateragarri, agian erabateko ere.

Erants bekio P irizpidearen arabera *guraso*-ren erabilera (ikus sarre-  
ra hori).

(A2 / B / C+) → [2-P].

- 76) *Mandatu* ∴ [ $< 1 >$  Cer da becatu etorkia edo originala? Azalduco dizuet bide batez *mandatu* bi eguiten ditudala].

Milia Lastur, Beriain eta Kapanaga Hegoaldean, EZ, Ax., Hariz-  
mendi eta Gasteluzar Iparraldean 1700 arte. Ondoren ere hitz za-  
baldua: Mb., Cb., LE, AA, Izt., Mg., Arrue, Añ., Dv., Bilintx,  
Ag... OEHk eta EKCK adierazten dutenez.

HHn «mandado, *mandatua*, véase mensage. Lat. Mandatum»;  
«mensage, antiguamente mensageria, lo mismo que mandado, re-  
cado, *mandatu*, *godadia*, *joairitza*. Lat. Mandatus, nuntius»; «(De  
una) vía, dos mandados, *bide batez*, *mandatu bi*». Azken esamoldea  
—bai HHkoa eta bai KSKoa— Axularri hartua dugu: «*Presuna ha-  
serretuen artean [...] edireiten da ongi demonio gaixtoa, han bide batez  
egiteintu bi mandatu* (Ax. 284)». Datu esanguratsuak KS eta HHren  
arteko erlazioan (eta bien Ax.ekikoaz) eta beste horrenbeste L. ren  
testu honen egiletasunaren alde ere.

P irizpidearen arabera, aipagarria *bekatu etorki*-ren erabilera.

(B / D) → [3-P].

- 77) *Mende* ∴ [ $< 2 >$  ibai miragarri onequin arrazoiaren *mendean* ceuz-  
quen;  $< 2 >$  bere *mendean* cegoen zorioneco egoera onetan;  $< 4 >$   
etsaiaren *mendean* egon zala bere amatzat eta onen *mendean* bici-  
tceco autu zuana. Cer bada Jangoicoaren escu guciaidunac ecin  
gorde cezaquean Maria becatuaren *mendetit*?;  $< 5 >$  etsaiaren  
*mendean* egotea;  $< 5 >$  aren *mendean* egon ciran;  $< 5 >$  etsayen  
*mendean* egon etceradena;  $< 9 >$  eseriric bere gende eta *mendecoe*-

*tatic* homenageac artcen cituen demboran eta<sup>81</sup> bere ordenac, bere *mende[c]oei* icara eraguiten ciotenean].

OEHren arabera «(Precedido de gen.). (Estar, vivir, caer...) bajo el poder de, bajo la autoridad de, bajo el dominio de, a cargo de, en manos de; a disposición de (...). Documentado en autores occidentales (tbn. en Goñi, Inza e Iraizoz) desde mediados del s. XVIII».

HHn «poder, dominio, *menea, mendea, boterea, podorea*»; «poderío, *almena*. Lat. *Vires potentia*» eta DVC hiztegian, «*mendea, menea*, poderío, dominio, jurisdicción». Baita *mendeko*-rentzat, «Siervo de Dios, *Jaincotia, Jaincotarra, Jaincoaren servitzaria, menpecoa, mende-coa*» ere.

Ondoren —Ub., Cb., Gco. eta gainerakoak baino lehen—, L.ren bi testu ezagun: SAgS. eta BurDot.

KSko adibide mordoa ere testu honen eta L.ren (hiztegiaren eta testuen) arteko lotura eta bere KSren egiletasuna bermatzera dator; adibide horietan, azkenik, *autu, guzialdun / guziadagikeana, miragarri, zorioneko* eta *egoera* guztiz markagarriekin batera dugu.

(A2 / B / C+ / D / K) → [3-P].

- 78) *Mespreza* ÷ [ < 9 > begui oequin claroro icusico dezue cembat igui duan Jangoicoac, cembat jaiquierazten duan Jangoicoaren becatua[ga]naco *mespreza*, aserrea eta gorrotoa].

OEHren arabera, hiru hiztegitan (HH, Añ. (G), Maurice H.) baina testuetan bat ere ez XVIII.ean eta soilik Astarloa (1818) eta Kortazar (1903) XIX-XX. mendeetan. EKCK ez du ezer interesgarririk gehitzen ehundaka *mezpreza(tu)* izan arren.

HHn «despreciable, *urruingarria, mezprezagarria, utsasgarria, auquezgarria*. Lat. *Contemptibilis*»; «despreciador, *urruñaria, mezpreziaria, mezprezatzailea, utsastaria, auqueztaria*. Lat. *Despector*»; «desprecio, *urruña, mezpreza, utsasa, auqueza*. Lat. *Contemptus, despectus*»;

<sup>81</sup> Tatxaturik *demboran eta* eta gero berrito *eta* ezarririk.

«despreciar, *urruindu*, *mezprezatu*, *utsastu*, *auqueztu*. Lat. Spernere, contemnere», eta baita «menospreciador, menospreciar, menosprecio; véase “despreciador”, “despreciar”, “desprecio”» ere.

Erabat markagarria eta esanguratsua KSkoko lekukotasuna, HHrenarekin batera: bakarra 1800 b.l., hainbat hamarkada aurreratuz OEHko data.

P irizpidearen arabera, ohartzekoak dira konbinaketa ezberdinetako *klaruro* eta *igui*-rekin egindakoak (ikus dagozkien sarrerak).

(A2 / B / G1 /→ [3-P]).

- 79) *Miragarri* ∶ [ < 2 > ibai miragarri onequin arrazoiaren mende; < 3 > gordetze miragarri onequin; < 3 > batasun miragarri bat dauca; < 4 > providenci miragarria eta beti izandu dion amodioa; < 5 > ipiñitaco leguen ordena miragarriac].

OEHk «de uso general en todas las épocas y dialectos» jotzen du, baina hutsune aipagarria da horren erabileran Hegoaldean HH baino lehen (OA da lekuko bakarra). L. aurreko Iparraldean Leiz., EZ, ES nahiz Ax.engan ditugu eta zalantza gutxi da L.k horietariko batetik (Ax.engandik seguruenik) hartu zuela.

HHn *arrigarri* eta *miragarri* agertzen dira, s.u. «estupendo», «maravilloso», «pasmoso» eta «portento», OEHk dioenez; azkenengoan *miraria* eta *izucaria* gehitzen zaizkio *miragarri*-ri eta ondoko «portentoso»n *mirariquiña*, *izucaria* eta *miragarria*.

1745. urteaz geroz BurDot., AndS. eta *Korografian* ere bada, egilearen hitz honekiko atxikimenduaren lekuko, baita beheraxeago *mirari* sarrera ere; ondoren AA, LE, Cb., Añ., Mg., Itur., etab.

Horrenbestez, ez da mespretxatzekoa L. eta haren testuen inguruan eratutako katea eta KSkoko goiko bost *miragarri*-ak ere froga erantsiak bide ditugu L.ren egiletasunaren alde (batean, gainera, *bata-sun miragarri* bikotea eta beste batean *arrazoiaren mende* kide aipagarriak ere ditugarrik).

(A2 / B / B1 / C / C+ / D / K) → [3-P].

- 80) *Mirari* ∴ [ $< 1 >$  Mariagan eguiten dituen *mirari* andiac;  $< 1 >$  azaldu ditzagun *mirari* oec zuenzat prochugarriac izan ditezqueen moduan;  $< 4 >$  Maria bere lendabico sortcean izan zala santa eta becatu etorquico gordea eta au da Jangoicoaren *mirari* andien arteco Mariaganaco bere providencia miragarria;  $< 4-5 >$  beti izandudion amodioa drist erazotcen duan *mirari* guztiz andi bat;  $< 5 >$  Arr[i]tceco dinaco *miraria* da iturri usteletic ur fresco, garbi, ederra irtetea eta sustrai edo arbola pozoituac fruita osasungarria ematea;  $< 5 >$  Onelacoa da, bada, gaur arrituric icusten degun *miraria*;  $< 6 >$  Eceri barcatu gabe, *mirariac* erraz eguiñaz].

Hegoaldeko lekukotasunetan soilik «XVIII. mendearen erdialdetik» diosku OEHK, eta Iparralderako Harizmendiren «adibide ilun» bat eta Xalbador eransten ditu. Hegoaldean gero, Mg., Añ. eta LEren aldaerak aipatzen dira eta XIX. mendea baino lehen Peñaforida, Cb., Zuzeta eta Ub. ere lekukotzen dira.

Alabaina, OEHTik bertatik atera gabe, 1750 baino lehenago lekukotasunak hitzaren historiaren ulerpen zuzenerako ezinbestekoak dira: hasteko, 1745eko HHn «admiración», «maravilla», «milagro» eta «portento» sarreretan agertzen da; gainera: Urqz. 79: «*Isabel zeure lenkusinia / dago mirariz beterik eta urte bereko*»; AzkS. ko 47: «*Gazterik lirañena [...], zintzo, yakintsu, zur, gozo guziakikoa, ta zeru guzien miraria*». L.ren hitz honekiko isuria erakusten dute, orobat SAgS. 12ko «*esan zuen ona zala [argi ura] eta ez beterik. Au miraria! Ona baizik ez?*»ek eta BurDot.ko «*Jainkoa zitze-kala mirariz*»ek<sup>82</sup>.

Labur: hitza gutxi edo asko zabaldua zen HH aurreko Harizmendi, Urkizu eta AzkS.ak erakusten duten bezala eta baita Hiztegian hitzak duen kokapenak sarrera ezberdinetan. Halere, 1745 ondorengo hitzaren hedaduraren zati handi bat —handiena zalantza gabe— L.ren eraginari zor bide zaio.

<sup>82</sup> Markagarri eta esanguratsu iruditzen zait Cb.ek 149 agerraldi ekartzea, Ub.ek 11 eta Mb.k bakarra (eta bera 1982 arte argitaragabe izan zen dotrina batean); ikus 8. atala: «Eranskina Mendibuz».

KSko erabilera datuek ere (7 agerraldi 10 orrialdetan) azalpen horren alde egiten dute eta are sendotasun gehiago ematen dio P irizpideak, *protxugarri*, *bekatu etorkiko*, *miragarri*, *dinako*, *pozoitu* eta *osasangarri*-rekin konbinaturik ikusten baitugu esaldi ezberdinetan.

(B / C+ / K) → [3-P].

- 81) *Mugarri* ∷ [*< 8 >* becatuaren ecarrai edo efectoa, esan nai det Profetarequin batera becatuac Jangoicoarequin gure arteco *mugarritzat* pareta andi bat ipinten duala].

Hegoaldean beharrezko da OEHko definizio orokorretan ez gelditzea —«Bien documentado al Norte (excepto en suletino) hasta finales del s. XIX. Al Sur se encuentra desde mediados del s. XVIII, siendo frecuente sobre todo en el s. XX»— eta zehaztasunetan sartzea. Iparraldean, besteak beste, Leiz., Etxeberri biak eta Ax. zituelarik, zalan-tza gutxi da handik hartu zuela L.k eta hain ugari islatu HHn: «“Lindero, linde”; “aledaño”; “hito que divide los términos, *muga, mugarria*” Lar. “Acirates, las lindes de las heredades entre sí, *lurren, soroen, landen mugak, mugarriak*”, Ib. “Desacotar, [...] *mugarriak kendu*”, Ib. “Acotar montes, prados, poner cotos, [...] *mugarriak ifini*”, Ib. “Término, mojón”; “aprear tierras, *lurrak mugatu, [...] mugarriak ifini*”».

Ondoko lekukotasunak ere ezin esanguratsuagoak dira L. eta KS-ren erlazioaren alde: Mg., Añ., AA eta Izt.z landa, LitG. eta LitB. ko testu ugari-erraldoiek kanpo uzten dute, L.ren SAgS.aren (10. «*San Agustiniñen argi-itxasoari etzion Jainkoak ipiñi muga-arririk, ez ta ubaztarrik ere*») eta KS honen salbuespenekin.

Nabarmena L.ren funtzioa Ipar-Hegoaldearen arteko zubigintzan eta baita haren lotura bi testuekin, SAgS. eta KSrekin. L.ren egile-tasunaren alde dator, halaber, testuingurua: cf. esaldi bereko *ekarrai* (ikus iruzkina sarrera horretan).

(A2 / B / B1 / D / F) → [3-P].

- 82) *Naigabe* ∷ [*< 3 >* beste neque eta *naigabe* guciac; *< 6 >* Ote da bidegabe eta *naigabetatic?* Ez bada, bere sortcean *naigabeac* ezpaci-

tuan; < 7 > mundu onetaco *naigabe* as[c]otatic; < 7 > gose-egarri eta beste *naigabe* guciac; < 7 > ez mundu onetaco *naigabetatic*, baicican becatutic; < 9 > calteac, *naigabeac* eta animan eguiten dituen *soilmenac*; < 9 > sufrierazotcen cion asco pena eta *naigabe*; < 10 > neque ta *naigabe* eta eriotzara condenatu dituen; < 10 > Zurearen antceco humiltasun bat gure *naigabetaraco* paciencia andi bat].

«Lehen agerraldiak XVIII. mendearen lehen erdialdean Ipar nahiz Hego» (OEH), Ht. (1741) eta HH (1745) barne. Ez dirudi, halere, L.k Ht.en *VocGr*.tik ezagutu zuenik, lehenago AzkS.an (1737) erabilia baitzuen («*Ceñac Virgiñari ematen diauzten naibagueric andienac*», 52)<sup>83</sup>; ez da eragozpenik, aldiz, Iparraldeko garaiko testu-*lekukotasun* bakarrarekin: «*Gambia detzaket bozkariorat zure nahi gabeak*» (Xurio III 30, 5)<sup>84</sup>.

HHk «tribulación, *ansia, naigabea*. Lat. Tribulatio»; «molestia, *acai-tsa, atsecabea, naibaguea*. Lat. Molestia»; «sentimiento, pena, dolor, *sentimentua, atsecabea, naibaguea*. Lat. Dolor».

HH ondotik ia edozeinek darabil (Cb., Mb., Ub., Gco., Mg., AA, Añ., LE...); OEHk dakarren «G-azp» hori Iñaki Segurola zenari zor bide zaio.

Azkenik, markagarria da KSn zenbat aldiz agertzen den hitz hau, 10etan guztira, ia orrialdeko behin eta, gainera, agerraldi horietako bitan L.k berak asmatu *soilmen* eta *sortze*-rekin konbinatuaz, *gose-egarri, bidegabe* eta *humiltasun*-ekin enparauetan.

(A2 / B1 / D / J / K) → [2-P].

<sup>83</sup> Gainera, esanahiak pixka bat ezberdinak baitira: «Affront, déplaisir, persécutions» (Ht.en *VocGr*.); «Tribulación, molestia, sentimiento, pena» (HH); Ht.ez ikus, Lakarra 1991 eta 1994, eta Urgell 2009.

<sup>84</sup> Litekeena da Xuriorengandik *zorion* ezagunaz landa (cf. Lakarra 2023b, 2023c) gehiago ere hartu izana; horrela, esaterako, —eta soilik HHko A letrako sarreretan— Blanca Urgellek gogoratu dizkidan *arraizia, art(h)agabe* eta *deskustu* eta *higuintza* pareta (Xurioren testuan elkarrekin agertzen direnak), *erorka, esker-emaile, eskuko* eta *faltiar* (cf. Urgell 2000: 976), tartean Xurio eta HH are gehiago lotzen dituen akats bateratzailearen bat.

- 83) *Negargarri* ∷ [< 5 > cembat *negargarriago* dan pozoi eriozcoaz cusatua egotea; < 5 > cembat *negargarriago* dan eztabaida batean ere; < 8 > O, egoera *negargarria!* Ah! Eta onelacotzat daucazue becatuaren mendean; < 10 > egoera *negargarri* onetatic].

«Lekukotua Hegoan XVIII.etik eta Iparraldean Pouvreau, XIX.eko behe-nafarrerazko testu batean eta Lafittengan; *negargarri* Hegoaldeko testuetan eta *nigargarri* Iparraldean, Orixek biak darabiltza» (OEH). Zehatz liteke XVIII. mendean 1745 b.l. Urkizu durangarrak dakarrela baina zalantza egin genezake hori ote den ondokoen iturri (ez da L.ren HHko liburu erabilien zerrendan), baita poligenetikoa denik ere.

HHk «Fúnebre, *negargarria*»; «Luctuoso, *lantugarria*, *negargarria*» dakartza eta ondoren Añ.k, AAk, fB.k... dakarte 1800 ondoren, soilik Cb., Mb.ren bi adibide eta Mg. XVIII.ean (EKC).

Nahiz —Blanca Urgellek aipatu didan bezala— ez den ezinezko hitz herrikoia izatea —berak markatzen duen legez ‘negar eragiten duena’ usadio zaharrekoa da, ez berrikoa (‘zertu daitekeena’)—, ondoko datuek erakusten bide digute KSren egileak eta L.k isuri handia zutela hitz honetaz eta *-garri-z* eratutakoez: hasteko KS honetan 9 *atsegingarri*, 70 *konsolagarri*, 79 *miragarri* (5 aldiz), 80 *mugarri*, 82 *negargarri* (4 aldiz), 89 *osasungarri* (bitan) eta 95 *protxugarri* darabiltza, kopuru aski aipagarrian hain testu laburrerako.

Bestalde, horiek baino lehen L.ren AndS.k ere bazekarren *negargarri* birritan eta arestian (Lakarra 2023a) ikusi dugunez, baita ASk ere (1740)<sup>85</sup> eta horrenbestez KSk hauek areagotzen dute L. eta testuon arteko lotura.

Halaber, gehitzekoa da (P irizpidea) KSk erabileretarik bitan L.k sortu *egoera*-rekin datorkigula eta *kutsatu*, *pozoi eriozko* eta *eztabaida*-rekin gainerakoetan; ikus sarrera horietan.

(B / C+ / F) → [3-P].

<sup>85</sup> Lakarra 2023a, s.u. *admiragarri* dagoeneko aipatu genuenez, Urgellen zenbakien arabera (2000: 596) L.k HHko A lettran 15 ditu atzizki honekin eratorriak, lehendik lekukotu 4 soilen aurka. Ikusi dugunez, gainerako testuetan ere ugari dira *-garri*-dunak.



- 84) *Oarmen* ∷ [ $< 6 >$  *oarmen* ansidunac edo importanteac emango diguen iru zatitan].

OEhk soilik Mb.ren aipuak dakartza hitz honi buruz (EKren arabera 4 agerraldi dira) eta litekeena da L.k harengandik hartua izana (cf. *etorki*, *extabaida*, *gose-egarri*; ikus 40. eta 48. sarrerak), Mb.ren eta L.ren arteko harremanak ezaguturik kontrakoa izan arren egiantzekoena<sup>86</sup>. Alabaina, nahiz HHk ez dakarren *oarmen*, oso markagarria da ez zuela alternatiba jakin eta argirik 1745ean: «atención, *arreta*, *oarra*, *oarcuna*, *oarrera*»; «observación, *oarra*, *oarrera*, *oarquera*, *arreta*». Badirudi, gainera, *-men* atzizkiarekiko zaletasuna gehitu zitzaiola HH ondoren, haren idazkietarik antze-man litekeen bezala (*aitormen*, *gertamen*, *gezurtamen*, *gozamen*, *itxedemen*, *prestamen*, *urrikalmen*, etab.). Testu honetan bertan ere badugu *soilmen*, HHn asmatu hitza, testu honetako eta EEko hiztegiez landako aipuekin.

Bestalde, KSn ez da *oarmen* kasu bakar bat baino eta kontuan hartzekoa da bertan berarekin dakarren *ansidun* hain esanguratsua (ikus dagokion sarreran), HHz landara inork ere ez baitarabil testuetan Azkueren *Ardi galdua* baino lehen (soilik Dv.en, Maurice H.en eta Azkueren hiztegiek); gero, Mb.ren ondotik —baina oso berandu gure auziarekiko— Lizardik, Lauaxetak, Gazteluk, Mirandek, Erkiagak eta Larrekok.

Ez dirudi, horrenbestez, *oarmen ansidun* sintagma inork erabili duenik euskararen historian eta ezta, beraz, KSn L. ez den beste inork erabil bide zezakeenik eta, hortaz, testu honen originala hark sortua genuke.

(A1 / E / H) → [3-P].

- 85) *Oiezbezelako* ∷ [ $< 5 >$  Andia da bere aldecoi edo circunstancietan: Jangoicoac *oiezbecelaco* bideren batez;  $< 7 >$  Arquitcen det bere

<sup>86</sup> Beste aukera bat tarteko kopiagileren batek hartzea litzateke, jakina, baina egokiago deritzogu testuko azalpenari.

guciequico Providenciac ipini cituen leguen gaña igarotcen dala eta baliatcen dala *oiezbecelaco* bidez].

Zalantza gutxi behar luke L.ren iturriaz: «Une chose bien extraordinaire, *gauza bat ohiezbezalakoa*» Ht.en VocGr., 358. Hortik HH: «Extraordinario, *oiez beزالakoa, oiezlakoa*» (mendebalerako moldaketa eta guzti); eta geroago Dv.: «*Ohiezbeزالako, inusité, inaccoutumé, extraordinaire, étrange*», eta Maurice H.: «*Ohi ez beزالako aroa, egitate, iaunztura, barazkaria, [...]; oiez lakoa (V), [...]* qui n'est pas habituel».

Testuetan Izt., Lard., Arrue, TxAg., T. Agirre eta Orixe soilik 1936 arte (ez Cb., Mb., Mg., Añ., AA, Gco., etab.) OEHN; ez dugu aurkitzen gehiago EKCn ere.

Horrenbestez, HH eta KSren arteko erlazioa ezin estuagoa adierazten du eta, beraz, baita L.ren egiletasuna ere bistakoago egiten.

Are gehiago, P irizpidearen arabera *aldeko* eta *guziekiko* larramenditar garbiak aurkitzen ditugarik konbinaketa ezberdinetan (ikus beren sarrerak iruzkinetarako).

(A2 / B / D / F) → [3-P].

- 86) *Ondasun* ∷ [ $< 7 >$  iduripenezco honrac, atsegintasanac eta *ondasunac* galdu;  $< 7 >$  galdu bear dituzue zuen *ondasunac*;  $< 7 >$  zuen *ondasunac* galtcera;  $< 8 >$  *ondasun* guciac pobreak emanaz;  $< 10 >$  Ontasun utsa dan zuer maite zaituzten, zuei izatea, bicia, osasuna, *ondasunac* eta beste gracia asco eman dizuen Jangoicoaren etsaiac cerate].

OEHrentzat soilik Hegoaldekoa, 1745 aurretik RS, Lazar. eta Cap. rengan lekukotua. HHn hainbat sarrera eta zertzeladatan: «“Acaudalar, hacer caudales, *ondasunak biltzea*” Lar. “Medios, caudal, rentas, *ondasunak*” Ib. “Bienes libres, burgemáticos, [...] *ondasun eskuakoak*” Ib. “B. concejiles, *iri-ondasunak*” Ib. “B. eclesiásticos, *ondasun eleizakiak*” Ib. “B. gananciales, *ondasun erabazkiak*” Ib. “B. mostrencos, *ondasun jaberik bageak*” Ib.».

Poligenetikoa seguruenik (L.k RS Eranskinean darabil soilik [cf. Lakarra 1996a, 1997b; Urgell 2002b], Lazar. ez baitzuen ezagutzen, eta Kap. ere ez da bere iturri seguruenena...), beharbada mendebaleko ahozko euskaratik jaso.

Erants bedi 1745 ondotik —Cb., Ub., Mb., LE, AA, Mg., Añ., As-tarloa eta beste askoren aurretik— BurDot.koa dela lehen testu-lekukotasuna eta badakar AndS.an, SAgS.an eta San Kasimiroren otoitzean ere. Halaber, arestian ASk (1740) dakarrela aurkitu dugu, urte batzuk aurreratzen duelarik L.ren lehen lekukotasuna eta sendotzen haren egiletasuna. Orain are gehiago KSn izanik eta hiru orrialdetan bost aldiz erabilia, gainera.

Azkenik, ohar bedi aztertutako hitza L.k asmatu *atsegintasun* eta *ontasun*, *izate* eta *irudipenezko*-rekin (ikus dagozkien sarrerak) konbinatua dela esaldi ezberdinetan.

(B / C+ / K) → [3-P].

- 87) *Oñazpiratu* ∶ [ $< 5 >$  ambat atseguingarriagoa dala sugue madaricatu *oñazpiratcea* eta berari burua ausitcea: cembat negargarriago dan eztabaida batean].

Ez da hitzaren agerraldirik ez Ipar ez Hego 1745 b.l.

HHn «*pisar, calcatu, zapatu, oindicatu, aurizquitu, oñeztatu*» eta «*pisador, calcaria, oñeztatzailea, aurizquizalea*» eta «*pisado, calcatua &c.*» gehi «*pisotear, véase pisar*».

Hurbilago, «*supeditar, sujetar oñazpitu*. Lat *suppeditare*»; «*supeditación, oñazpitcea*. Lat. *Suppeditatio*»; «*supeditado, oñazpitua*. Lat. *Suppeditatus*»<sup>87</sup>, dakar eta gero Añ.k, *Esku-liburua* eta *Misionari Euscaldunan*, fB.k eta Otaegik darabilte; *oñazpiratu*, aldiz, Beobide, Iturzaeta eta ondokoek (Antia gehitzen du EKck).

Halabeharra dirudi baina hurbilegi testukotik L.ren egiletasunarekin bateragarri izan ez dadin. Azkenik, hara esaldi berean datozen

<sup>87</sup> Blanca Urgellek markatu didanez, «itzulpen etimologiko» garbia dirudi L.k egindakoak; ikus Urgell 2004.

*atsegingarri, negargarri, pozoï, eriozko eta kutsatu* esanguratsuak (ikus dagozkien sarrerak).

(A1 / E / F) → [3-P].

- 88) *Onegiñ* ∴ [ $< 10 >$  artu izandu ditugun *oneguiñen* ezagueraz beteric zugana gatoz zure mendean sartceco].

L.ren hitza HHn, «beneficio, *oñeguiña, onequindea*. Lat. Beneficium»<sup>88</sup> eta orobat «*Ceruco oneguiñac artu bear dira esquerric ascorequin*», s.u. «acción de gracias». Baina are lehenagotik dugu L.ren beraren AzkS. 49: «*Pagu au merezi zeuen zeure onegiñak?*», Hegoaldeko lehen lekukotasuna.

L. ondoren Cb. (soilik 2 adibide), Añ., Gco., Izt. eta Lard. (OEH), baita Mg., Zabala, LE (EKC)<sup>89</sup>.

Orain KS ere eransten delarik lekukotasunen zerrendara (eta kasu aldamenen daramatzen jatorri bereko *mende* eta *ezaguera*-ri, ikus iruzkina s.u.) argi da KS eta L.ren arteko lotura eta L.ren egiletasuna.

(A2 / B / B1 / E) → [3-P].

- 89) *Ontasun* ∴ [ $< 10 >$  Bai becatariac, *ontasun* utsa dan zuec maite zaituzten, zuei izatea, vicia, osasuna, ondasunac eta beste gracia asco eman dizuen Jangoicoaren etsaiac cerate].

Iparraldean 1745 b.l. hainbat lekukotasun, Leiz., Materra, EZ, Ax. eta Ht. 1741 barne. Hegoaldean HHn «bien, el bien, *oná, ontasuna, onguiá*»; «bondad, *ontasuna, ongundea*», eta 1745 ondoren Cb., Mb., Añ., etab.

Baina Hegoaldeko lehen testu-agerraldia 1737an genuen, Axularrengandik seguruenik, L.ren AzkS. 52: «*Ainbeste egin diauztan ontasunez*».

<sup>88</sup> Hemen ere itzulpen etimologikoa dugu HHkoa.

<sup>89</sup> Kapanagaren *onegino* ere gainerakoekin lekukotu da baina ez da pareagarri, jakina.

Oraintsu ezagutu ASk ere (1740) badakarrelarik, egilearen lehen lekukotasuna ez du aurreratzen baina bai areagotzen egiletasunarekiko ziurtasuna. Zalantza-izpirik bazen L.rekiko zorraz, hara orain KS honetako lekukotasuna.

Itxuraz poligenetikoa dirudien arren (Ipar eta are Hego, HH aurretik) ez da horrela, bai AzkS. eta bai ASren egiletasunagatik —hots, L.renak direlako Hegoaldeko HH aurreko bi lekukotasunak— eta, halaber, L.k batez ere inorengandik (Iparraldetik) hartuak diren hitzetan gorde ohi duelako bereziki HHn *-tasun* eta oso gutxitan eransten, aldiz, bere aldetik.

Azkenik, P irizpidearen arabera, aipagarri dira esaldi berean agertzen diren *osasun* eta *ondasun* ere (ikus sarrerak).

(A2 / B / C+ / D) → [3-P].

- 90) *Osasungarri* ∴ [< 5 > Arritceco dinaco miraria da iturri usteletic ur fresco garbi ederra irtetea eta arbola pozoituac fruta *osasungarria* ematea; < 5 > ederra eta *osasungarria* dator jatorri ustel eta becatari arrazatic].

«Documentado en Pouvreau [*Philotea*] y en textos meridionales de los ss. XIX y XX» (OEHn, s.u.). HHren ondotik Izt. eta Arrue (OEH), LE, Zabala, Añ. (EKC), etab., baina ez Cb. eta Mb.

Markagarria da HHn «saludable, *osasungarria*, *senderagarria*, *sensera*, *senseragarria*» eta «saludablemente, *osasungarriro*, *senseragarriro*, *senserqui*, *senserquiro*, *senseragarriro*» eratu zituela baina aipatu berri dugun *osasungarri*-ren segizio laburraz landa, ezer gutxi lortu zuelarik gainerako bi sarreretako eratorriekin.

Datu hauen guztien aurrean, ez dirudi L.k SPrekiko zorrik duenik (ez da bere iturrien zerrendan dagoeneko markatu denez) eta egiantzekoago dirudi berak eratutako hitza dela, HHko eta bere testuetako hainbat bezala (cf. *alderandu*, *ansidun*, etab. § 7.1eko F sailean bilduak).

Esanguratsua da KS izatea Iztueta arteko testu bakarra. P irizpidea-ri dagokionez guztiz aipagarriak dira *osangarri*-k zalantza gutxiko *dinako* eta *jatorri*-rekin eta baita *fruta*, *mirari* eta *pozoitu* esanguratsuekin dituen konbinaketak; ikus dagozkien sarreretan.

(A2 / B / F) → [2-P].

- 91) *Oztasun* ∷ [ $< 7 >$  nolacoa izan oi ezta zuen *oztasun*, ezeguinera edo inaccioa urte osoetan becatuan egoteco].

Mattera, SP eta Tartasen testuetako lekukotasunak badira, L.k ohikoago iturri duen Ax.ez landara, baina agian egiantzekoago dugu: «Froideur en fait d'amitié, *hoztassuna*» (Ht.en VocGr., 365).

Gainera, HHn «frialdad, *otza*, *oztasuna*» segurtasun handiz Iparraldeko eredu batetik hartua dugu (gogora *-tasun*-ez: 16. sarrerako *beartasun* edo beheraxeago 93. sarrerako *pisutasun*). Gero Cb., Mb., Gco., Añ., Mg., Astarloa, Zabala, Itur., etab.

KSrena ez da ohiko HHrekiko zorraren edo gutxieneko loturaren beste adibide bat baino; alabaina, pasartearen eta, ondorioz, sermoiaren egiletasunaz ezin ahantz, aztergaiak aldamenen dakarren HHko *ezeginera*, erabateko testu-hapaxa, OEHn bertan ere (eta EKCn orobat) falta dena, horrek demaion frogatzen du (ikus iruzkina dagokion sarreran).

(A2 / B / D) → [2-P].

- 92) *Paregabeko* ∷ [ $< 1 >$  lendabico sortcean berari bakar bacarric eguin diozcan mesede *paregabecoac*].

Iparrean *paregabe* aski lekukotua (ez Leiz., baina bai Mattera, Ax. eta EZren *Noelak*) 1745 b.l.; Hegoan soilik Lazarraga eta Barrutia, orduan argitaragabeak. HHk «(Sin) par, *parebaguea*». Atzikiaren forma gorabehera, Ax.engandik hartua izan liteke (nahiz litekeena den poligenetikoa izatea, Lazar. eta Bar. gogoan) eta hortik dagoeneko 1740ko L.ren ASn. L. ondoren Cb., AA, Izt., Lard....

*Paregabeko*-rentzat, aldiz, OEHk Iparraldean «*Bozten baitute arima paregabeko extitasun batez* (SP Phil. 527)» eta «*Zure bizitasunaren*

*indarra eta edertasuna paregabekoak direla* (ES 87)» dakartza; fisik ez Hegoaldean.

L.ren AndS.ak ere *amodio paregabeco* du; gero Cb., Oe. eta Zusaeta ditugu (ez Mb.) 1800 b.l. eta Añ. eta Gco. ere bai (Izt.k 4 *parebageko* EKCre arabera) baina LitB. eta LitG.ko askok faltan dutelarik.

Poligenetikoan izan litekeelarik, KSren egiletasunaren alde ezin erabili erabateko frogak gisa, genioen Lakarra 2023a-n oinarriaz, baina eratorria bera kontuan izanik indartsuago bilakatzen da orain L.ren aldeko hautua KS honetan eta lehen baino garrantzi gehiago eman beharko, agian, ESren lekukotasunari.

P irizpidearen arabera oso markagarria da esaldi berean *sortze* agertzeara.

(A1 / C / D / H) → [3-P].

- 93) *Pisutasun* ∴ [*< 3 >* macurtcen gaitu gaitcera, ematen digu oneraco *pisutasuna* eta ecarri digu illbearra eta beste neque eta naigabe guciac].

Materra, Ax., SP, ESKo, Aranbillaga eta Xurio (EKCn 5 agerraldi) HH aurretik (inor ez Hegoaldean). HHren arabera: «Gravedad, peso, *pisua*, *pisutasuna*, *astuna*, *astundea*»; «pesadez, *pisua*, *astuna*, *pisutasuna*, *astundea*»; «Cargazón de cabeza, *buruco becardea*, *pisua*, *pisutasuna*»; «Pelmacería, pelmacitud, *astundea*, *pisutasuna*, *zabarqueria*, *enaseria*». Zalantza gutxikin (cf. *-tasun* atzizkiak dagoeneko ikusiak) Iparraldeko testuren batetik, seguruenik Ax.rengandik, hartutako hitza.

HH ondotik soilik Gco., LE, Oteiza, Jauregi OEHren arabera, baina baita Cb. eta Mb. —nahiz soilik agerraldi bana— eta Baratzart ere (EKC).

HH eta KSren arteko lotura ez du *pisutasun*-ek ez ezinbesteko eta ezta aipagarritasunik gabeko ere bilakatzen; haatik, lotura hori eta L.ren egiletasunaren aldeko frogak sendotu egiten dira esaldiko *ilbearra* eta *naigabe* ere (ikus iruzkina s.u.) kontuan hartuaz.

(A2 / B / D) → [2-P].

- 94) *Pozoi* / *pozoitu* ∷ [ $< 5 >$  cembat negargarriago dan *pozo*i eriozcoaz cutsatua egotea, ambat atseguingarriagoa;  $< 5 >$  sustrai eta arbola *pozoituac* fruita osasungarria ematea?].

Lehena «Documentado en todas las épocas y dialectos» OEHren arabera, baina soilik Mikoleta (orduan argitaragabea) L. aurreko Hegoalde osoan; garai berean, aldiz, Iparraldean Leiz., EZ, Ax., Tartas, ES nahiz SPren *Imit*.

HH ondoren, Hegoaldean, AndS. (bitan), Cb., LE, Gco., AA, Lard., Mb. —1982an argitaratu testua, ordea—, Mg., Haraneder, Uriarte, etab.

Baliteke L.k Iparretik Hegora ekarri eta bertakotu izana; KSrena HHren zordun bat gehiago litzateke edo, zehatzago testuaren L.rekiko zorraren lekukotasun erantsia; are gehiago kontuan izanik, bere esaldi-kide *eriozko* eta *kutsatu*-rekin hori bera ikusi dugula (cf. sarrera horietan).

*Pozoitu*-ri dagokionez, HHn «emponzoñar, tiene raíz Bascongada, *pozoitu*, *pozoindu*»; «emponzoñado, *pozoitua* &c.» eta «envenenar, *pozoitu*, *pozoindu*»; «envenenado, *pozoitua*». Bestalde, HH ondoren *pozoitu* berriro xx. mendean agertzen da Hegoaldean (tartean Gco. *pozoatu*); puntu hau gehi aipatu dugun HHko «bataio» hori liriateke KS eta L.ren arteko loturarik larrienak.

Gehi bitez esaldi bateko *negargarri*, *eriozko*, *kutsatu* eta *atsegingarri* eta besteko *osasungarri* (P irizpidea); horien bidez nabarmen areagotzen da L. eta KSren arteko erlazio berezia eta are KSren pasarte hau eta testua bera ere L.ren eskutikoak izan litezkeela baieztatzerara garamatza.

(A2 / B / B1 / D) → [3-P].

- 95) *Protxugarri* ∷ [ $< 1 >$  Azaldu ditzagun mirari oec zuenzat *prochugarriac* izan ditezquen moduan].

Lakarra 2023a-n, «*Probetxuzko*. HHn “provecho, viene de el Basquence *prochua*, *progoisoa* que significa lo mismo, *etontza*. Lat. Utitas,



commodum» ikusi genuen. Ez dirudi Aranbillagaren *progotxuzko* L. ren iturri izan zenik eta are gutxiago 1745 ondoko Haraneder. Errazago da pentsatzea Hegoaldean zabaldua zela hor euskarazkotzat «bataiatzen» den *protxu* (eta, noski, Cb., Gco. eta gainerako *probetxu*).

ASren Lrekiko loturarako, kontuan hartzeko dira testu hartako *negarrezko* eta *soseguzko* ere; bestalde, lehen agerraldi absolutua dugu eta HHko «bataioak» L. ren ASren lekukotasunaren alde egingen du.

*Protxugarri*-ri zuzenean dagokionez, SPren hiztegiko eta *Philoteako* lekukotasunak dira 1745 b.l. Iparraldean, bat ere ez Hegoan.

HHn «provechoso, *onicaya*, *etontsua*, *prochugarria*. Lat. *Proficiuus*, *utilis*».

Gero LE, Gco. eta Etxeberriarenak dira, baina ez gipuzkerazko ez bizkaierazko 1800 arteko inorenik ere. Horrenbestez HH eta KSren arteko lotura asko areagotzen da eta baita L. ren egiletasuna oso egiantzeko bilakatzen ere.

P irizpidearen arabera aipatzekoa esaldi berean ageri den *mirari* (ikus sarrera iruzkinerako).

(A2 / B / F) → [3].

- 96) *Sinisterazo* ∴ [ $< 3 >$  Jangoicoaren amatzat aututaco Maria gracion sortua eta becatu etorquitic gordea izan zala *sinisterazotcen* digu arrazoiac, siniste au eguiztatcen due Elizaco gurasoac;  $< 3 >$  Bai arrazoiac *sinisterazotcen* digu].

OEhk *sinitserazi* sarreran formazko hainbat aldaera ematen ditu (-*ñh*-, *sinetserazi* [+ *-nh*-], *sinistarazi*, *sinisterazi*, *sinetserazo*, *sinitserazi* [+ *-erazi*, *-erazo*], *sinestarazi*, *sinisterazo*, *siniserazi*, *sinista-erazi*, *sinista-arazo*, *sinistu erazo*, *siniztu erazi*, *sini(t)serazo*, *sinetsierazi*, *sine-tsazi*, *zinetzarazi*, *ziñestu erazo*, *txinistarazi*, *ziñestarazi*).

Iparraldeko agerraldi ugari da 1745 b.l. (Leiz., Ax., EZ, Tartas, Oih., ES, SP) baina bakar bat ez Hegoaldekorik. HHn «persuadir a otro, haziendole creer, *sinisterazo*, *sinisteraci*» datoz.

Hegoaldeko lehen testu-lekutasuna HHren hitzaurreko bat dugu: «“Gezurtxo batekin hori sinisterazo nai izandu digu” Lar DT cciv»; gero OEhk Lg., Ub., Mg. (-erazo), etab. dakartza baina ez Cb. eta bai Mb., nahiz soilik argitaragabeetarik: «“Egia dela sinisterazi naiez ezarzen dut nere firma” IArg I 225 (345 siñisterazi)». EKCK Cb.ren *sinesterazo* bi dakartza (bata 1882ko edizio ezagunekoa) eta Añ., Izt., Lard. hurrengo mendean, gehi Kirikiño eta Erkiaga XX.ean. EKCN bertan *sinisterazi* Cb.ren beste bi (baina hauek ere delako 1882ko ediziokoak), Mb.ren beste bi (baina 1982an argitaratuak), eta Ub.en bakarra XVIII. mendeari dagokionez.

L.ren testuetakoei dagokienez, gorago aipatu HHren hitzaurrekoaz landa EKCK badakar MendSG.ko *Ordea*, *zer da ansi*, *enzule geyenak erausi hura aditzen expadute? Sinisterazo nai digute*, *aditzen dala gaztelania*, *are ikasi ez dutenen artean*.

KSk bi *sinisterazo*-ek sermoia L.rengana hurbiltzen dute argiro, bai HHra baina batez ere haren testu laburretara. Gainera, ikusi ditugun xehetasun filologikoengatik eta Ub.en datagatik hau, Mb. eta Cb. ez bide lirateke iturri edo eredu hitz honetan KSrentzat.

Bestalde, P irizpideak ere L.ren egiletasuna lagunduko luke (*autu*, *bekatu etorki*, *egiztatu*, *Elizako guraso*), ikus iruzkinak beren sarretan.

(A2 / B / B1 / C+ / D / E) → [3-P].

- 97) *Soilmen* ∴ [< 9 > ezaguera osoarequin eguiten dituzuen becatuac daczten calteac, naigabeac eta animan eguiten dituen *soilmenac* edo desolacioac; < 9 > esan dezaquet *soilmenez* gañez eguiten duala].

L.k asmatutako hitza, Izt. eta Maurice H. hiztegiileen eta EEko testu-lekukotasun bakarrarekin: OEhk «“Desolación” Lar. “Asolamiento, *soillamena*, *lurreratzea*” Ib.» Baina «desolación, *soilmena*, *galmendea*. Lat. Desolatio» hurbilago dugu, -a-ren falta horrengatik.

Ia mende eta erdi geroago, «“*Guzia da negarra, naspilla, ikara, soilmena eta lutoa*”. EE 1882c, 414» da OEhk dakarren testu-lekuko-

tasun bakarra, eta EKCK ez du ez *soilmen* ez *soilamen*-entzat ezer eransten; Izt.ren hiztegian badator, ordea, eta Maurice H.ek *soilmen* du moldatua<sup>90</sup>.

KS honek, aldiz, birritan dakar orrialde bakarrean. Beraz, KSren L.rekiko lotura garbi gelditzen da (pareko aukera gutxi da euskal corpus osoan) eta baita L.ren aldeko testu honen egiletasuna ere.

Erantsi bekio esaldi bereko *naigabe* eta *ezaguera* (iruzkinerako ikus bi sarrerak) eta atzizkiarentzat gogora *oarmen* (*ansidum*) ere (id.); nahiz Urgellek (2000) HHn *-men* gutxi erabiltzen dela markatu, badirudi hiztegiaren ondoren gehiago zaletu zela, bere testuek erakusten edo susmarazten digutenez; ikus 84 *oarmen*-en bildutako adibideak.

(A2 / B / E / G1) → [3-P].

- 98) *Sortze* ∴ [< 1 > bere lendabico *sortcetic* artu izan dituanacgatic esanaz, cordegabeturic ta mesede oei dagoquien eranzuera; < 1 > bere lendabico *sortcean* berari bacar bacarric, Jangoicoac eguin diozcan mesede paregabecoac; < 1 > bere lendabico *sortcean* becatutic gordea izan zala; < 3 > bere lendabico *sortcean* indartua izan zala; < 3 > Mariac bere *sortcea* ezquero becaturic eguin etzuela probatzeco; < 4 > becatua alderantzeco asco añacoac dirade, quentceco bere lendabico *sortcetic*; < 4 > bere *sortcearen* onrraraco ipini izandu du; < 4 > Maria bere lendabico *sortcean* izan zala santa; < 5 > gaitz gabea, garbia, eta ederra *sortcea* eta jaiotcea; < 6 > bere *sortcean* naigabeac ezpacituan; < 10 > zure amari bere *sortcean* eguiten diozcatzun mesedeac; < 10 > zure *sortce* guttiz garbia beti aleguinean honrratceco itza; < 10 > Eta zure *sortce* garbi orregatic].

«Documentado en todas las épocas y dialectos, aunque es relativamente más empleado al Norte» (OEH), eta zuzen dirudi esaldiaren

<sup>90</sup> Ez da ahaztekoa, «assolar, viene de el Bascuence *soillá*, como si dixera assoillar y después assollar; y *soilá* significa estéril, sin nada, despojado, y assolar se dize también de muchas cosas, que no se echan por el suelo».

bigarren zatiaz, baina ez garai eta alderdi guztietako lekukoei dago-kienez: ez da horrelako bakar bat Hegoaldean 1745 b.l. eta bai, aldiz, Leiz., EZ, Tartas, Gasteluzar, SP, Urte, ES, Haraneder eta Xurio, gutxienez, garai bereko Iparraldean.

Handik hartua izan zitekeen hitza, baina hiztegi horretan emanda-ko familia osoari kasu egiten badiogu, L.ren beraren sorkuntza dela jabetuko gara: «concebir, *sortú*, *asidoró*. Lat. *Concipere*»; «conce-bido, *sortuá*, *asidoroá*. Lat. *Conceptus*» eta «concepción, *sortzea*, *asidorea*. Lat. *Conceptio*» eta baita «Etymologia, *hitzen jayotza*, *sort-zea*» ere.

Ondoren ere OEHren arabera AA eta Izt. bakarrik dira Hegoan 1900 arte (EKCK Cb. gehitzen du) Iparraldeko hainbat testu eta hiztegiren aurrean.

Ez da harrizkoa L.k KSn egiten duen hitz honen erabilera eta hitz joko ugaritasuna gogoan izanik sermoiaren gaiaz, *kontzepzioaz*, hots, *sortzeaz* jardun izana bertan eta hitz berezi horren euskarazko era-bilera finkatu nahi izana (cf. *ditxa eta zorion* ASn 15 aldiz).

Lotura garbia KS eta L.ren artean eta froga erantsia L.ren egileta-sunaren alde.

Gehiagoren beharrik balitz, hara P irizpidearen arabera esaldi ez-berdinetan *sortze*-rekin batean ageri diren *kordegabetu*, *eranzuera*, *paregabeko*, *alderandu*, *gaitzgabe* eta *naigabe*-ren iruzkinak; horiek oro zalantza gutxi uzten dute pasarteok (eta testua bere osotasu-nean) L.ren egiletasunaren alde makurtzeko.

(B / D / E / K) → [3-P].

- 99) *Ugolde* ∷ [*< 10 >* naigabe eta eriotzara condenatu dituen Jangoi-coa: *ugoldea* mundura bidaldu zuana].

Iparraldean *uholde* da L. aurretik lekukotu bakarra (Hegoaldean ez dator ezer OEHn). HHn «diluvio, *ujola*, *ubeldea*, *ugoldea*, *idola*. Lat. *Diluvium*».

L. ondoren *ujol* eta *urol* dira forma bakarrak testuetan gutxienez 1900 arte baina ez dirudi oso lotura argirik denik HH, KS eta distribuzio modernoaren artean. Bai, aldiz, eta sendoa gainera, L.k HHn asmatu eta KSn —eta hainbat hamarkadatan soilik hor— erabilitako Testamentu Zaharrak aipatu *uholde* ezagun eta jakinaren artean.

Gogora, halaber, esaldi hasierako *naigabe* (ikus iruzkina dagokion sarreran).

(A2 / B / E / F) → [2-P].

- 100) *Urrutiratu* ∶ [ < 8 > becatu etorqui onec aimbesteraño isusquitu eta Jangoicoag[and]ic [alderanduco]<sup>91</sup> *urrutiratuco* zuen Maria nun eta Jangoicoac secular bere amatzat autuco etzuan eta ona becatuaren ecarrai edo efectoa].

Ipar nahiz Hego, lehen lekukotasunak HHkoak: «alejar, *urrutiratu*, *urrundu*, *aztandu*, *urruti*, *urrutira bialdu*, *urrun*, *urrunera bidaldu*, *egorri*. Lat. Elongare»; «alejarse, *urrutiratu*, *urrundu*, *aztandu*, con las terminaciones de el neutro, *urrutira*, *urrun joan*. Lat. Elongari»; «alejado, *urrutiratua*, *urrundua*, *aztandua*. Lat. Elongatus, -a, -um».

Halaber, ondokoak Hegoaldean, Arrue (*Mayetzeco ill edo...* 1888) eta *Euskal Esnalea* 1918koa, (1772ko?) kopia honetatik arrunt geroago, noski, LitB. eta LitG. osoan paralelorik gabe; EKCK Cb.ren [*Ama beneragarri Josefaren bizitza*, 176?, 1882] 3 agerraldi gehitzen ditu<sup>92</sup>.

Orain arteko datuetarik L. eta KSren arteko lotura ezin argiagoa eta L.ren egiletasuna oso egiantzekoa, guttiz segurua ez bada ere.

<sup>91</sup> Testuan tatxatua baina originalekoa, segurki; ikus *alderandu* sarrera.

<sup>92</sup> Lekukotasun honen pisuaz ohartzeko (pisu faltaz jabetzeko, hobe), marka bedi Vinsonek eta Urkixok diotenez (Vinson 562. zb.) J.I. Aranak argitaratua izan zela, lehenbizi *Euskal-Erria* aldizkarian eta gero liburu gisa. Lehen edizio ezezagunaren eta 1882koaren arteko konparaketa baten faltan, testuko datuek *urrutiratu* horiek azken edizioan erantsi izana egiantzeko bihurtzen dute.

Azkenik, P irizpidearen arabera, markatzekoak dira esaldi bereko *bekatu etorki*, *itsuskitu*, *autu* eta *ekarrai* (ikus bakoitzaren iruzkina dagokion sarreran); guztien artean ezin argiago egiten dute L.ren KSrekiko egiletasunaren aldeko froga. Ikus 3. sarrerako *alderandu*.

(A2 / B / E / F) → [3-P].

- 101) *Usteltasun(ezko)* ∴ [< 4 > Certan Jangoicoac naico zuan estabaida batean beragatic esatea *usteltasunezko* oretic bere amatzat atera zuala etsaien menpeco eta gu becela aserre gucien diñaco doncella bat].

Lakarra 2023a-n, «*usteltasun*. Ax. eta Gasteluzar (honek *busteltasun*) soilik 1745 b.l.» eta «Podredumbre, *usteldura*, *usteldasuna*, *ustela*, *bohadura*, *marriadura* HHk» markatu dugu OEHren laguntzaz. Orobat, «Putrefacción» Añ. eta geroztik Mb., Mg., Gco., AA, Zabal, Uriarteren... lekukotasunekin.

Gainera, AS dugu *usteltasun*-en lehen agerraldia Hegoan eta bertan dugu HHkoa egilearen Ipar → Hego zubi-lanaren froga erantsia; azken gertakari hau L.ren AS eta KSren egiletasunaren alde mintzo da, usuenik HHz landako *-tasun*-en eratorrien balio eskaxa gorabehera; seguruenik iturrian (Axularrengan) ikasia.

Aurreko datuek L. eta bi sermoien (AS eta KS) arteko lotura hertsia erakusten dute, are gehiago OEHn *usteltasune(z)ko* jaso ez delarik, lekukotasun askiren faltaz, itxuraz; EKCK ere ez dakar *usteltasunezko*-ren alerik eta soilik Uriarteren 3 *usteltasuneko*. Datu hauek L.ren egiletasuna aldeztzen dute.

Bestalde, *-zko* atzizkiaren bidezko eraketei dagokienez ikus KS honetan *irudiñenezko* eta, batez ere *andinaizko*, non biltzen den *Arteko* aipua atzizki honen bidez euskaraz era litezkeen eratorriez.

Ikus bitez, orobat, esaldian *usteltasunezko*-rekin konbinaturik doazen *estabaida* eta, batez ere, *diñako*-ren iruzkinetan ondorio hauei emandako laguntza markagarria.

(A2 / C / G / H) → [3-P].

- 102) *Zikintasun* ∷ [< 4 > Cer, Jangoicoac eutci ceiquion etsaiari *ciquin-tasunic* chiquienarequin ere ciquintcen bere bicilecu izan bear zuen toqui au?].

Ez da agerraldirik ez Hego ez Ipar 1745 b.l., ez bada Ht.en VocGr., 393: «ordures, *zi]n[kintasunak*». HHk ez dakar *zikintasun* baina bai «porquería, *liquisqueria, ciquinqueria, urdaqueria, cherriqueria, loique-ria, basiqueria, bagasqueria, asqueria*, item *liquistasuna &c.*». Ondoren Añ. «*zikintasun* “porquería, suciedad”» eta Gco., Dv., Iturzaeta (OEH) nahiz LE, Cb. eta Mb. (EKC) 1800 b.l.

Kasu «item *liquistasuna &c.*» horri —hots, uler bedi *-tasun* bidez sortutako gainerako oinarrien eratorriak ere (*zikintasun* tartean) zerrendan gehitu behar direla, berak labur beharrez bildu ez arren— eta gogora antzeko kasuak ASn (Lakarra 2023a-n bilduak) eta KSn bertan ere (ikus 16. sarrerako *beartasun* hitza).

Ohar bekio aipuko *bizileku* horri ere (ikus goian)<sup>93</sup>, HH eta KSren arteko lotura eta L.ren egiletasuna laguntzera baitator.

(A / B1 / D / H) → [2-P].

- 103) *Zorigaiztoko* ∷ [< 2 > Gueiegui litzate *zorigaiztoco* guertaera onen aldecoi edo circunstancia guciac bat banaca esatea].

HHn da *zorigaistoco*-ren Ipar nahiz Hegoko lehen agerraldia: «desventurado, *doacabea, zorigaiztia, zorigaistocoa*, Lat. Infortunatus»; «infeliz, *zorigaistocoa, doacabea, doatsueza*. Lat. Infelix»; «desafortunado, *fortuna-guea, zorionbaguea, zorigaiztocoa*. Lat. Infortunatus, infelix»; gero, Hegoaldean Cb., Oe., Mb. (baina soilik adibide bat), Gco.... Beraz, egiantzekoa bai baina ez da erabat ziurra KS eta L.ren arteko lotura eta bigarrenaren egiletasuna, soilik orain artekoa gogoan.

Alabaina, P irizpidearen ezarpenari helduaz, esaldi berean biltzen zaizkionen artean, *gertaera*-ri dagokionez ere HH da lehen agerral-

<sup>93</sup> Ohar bedi nahiz HHn («... lugar de páxaros, &c. entonces se postpone *lecu*, *toquia* [...] o se postpone el nombre postpositivo *teguia*...») nahiz KSn («*bicilecu izan bear zuen toqui au*»), *leku* eta *toki* ia bata bestearen ondoan eta elkarren osagarri doazela.

dia («sucesso, acontecimiento, *guertaera, suertaera, acertaera, jazoe-  
ra*. Lat. Casus, eventus»); gero EKCK: Mg., Añ., Gco., Izt. (OEH)  
eta baita Cb.<sup>94</sup>, Lard., Itur., Arrue, Bilintx... (ez Mb.). Haatik, bada  
oraindik zuzenbide berean doan laguntzarik aipuko *aldecoi edo cir-  
cunstancia* hain larramenditar horretan (ikus dagokion sarrera).

Hirurak batzean L.ren egiletasunaren aldeko froga nabarmenak  
ditugu KSKo *zorigaiztoko*-ren analisitik atera gabe.

(A2 / B / E) → [3-P].

104-105) *Zorion-zorioneko* ∷ [ $< 2 >$  bere mendean cegoen. *Zorioneco*  
egoera onetan Jangoicoac eman cien aen obediencia probatceco  
mandamentu erraz bat;  $< 2 >$  ilgo cirala eta galduco zutela beren  
*zorion* gucia;  $< 2 >$  berac eta beren ondorengo guciac beti *zorione-  
coac* izango cirala;  $< 4 >$  Maria guztiz garbi eta *zorionecoa* sartu nai  
eztuala eta bere sortcearen onrraraco].

Lakarra 2023b-n eta 2023c-n genionez, OEHk *zorion* Etxeparez eta  
Lazarragaz geroztik lekukotutzat badu ere, merezi du franko xeheta-  
sun, batez ere horiek bezala inesiboan doazen formez. Iparraldean ez  
Leiz. ez Ax.ek ez dakarte eta ‘une, momentu on’ dirudi Oih. eta  
gainerako gehienetan edo guztietan: «*Hartarakotz, laun puxanta, zuk  
iguzu sartzea, / traba guztiak khendurik zori onex bethea*» (EZ *Manual  
Debotionezkoa*, II 139) eta «*Zer zori-on desira dezaket handiagorik?*».  
Lan horretan genionez, Xurioren *Imitazionekoak* dira lexikalizazio  
berria argiro erakusten duten formak eta Larramendik horiek erabili  
zituen iturritzat, Baionan 1731-34 bitartean eskuratu ondoren haren  
liburua (cf. orain Urgell 2023 eta Irure 2024 Xurioren testuaz).

HH baino lehenagoko lekukotasun bakarra Hegoaldean L.ren be-  
raren *Gramatikako* poesiakoa dugu. *El Imposible Vencido* 393: «*Jau-  
na, egin eder orrez / zori on zezenari*». «Dió a la fiera mil fortunas»  
baina hor oraindik adiera zaharra (‘zorte on’) dugu egileak berariaz  
argitzen duelarik *etxe on* eta gisa horretako [iz. + adj.] sintagmekin

<sup>94</sup> Baina 1882ko *Ama beneragarri Josefaren bizitza* delakoaren agerraldi bakarra.



berdinduaz eta, bidebatez, euskaldun zenbaitek hori ulertzeko duten ezagutza urria salatuaz.

HHn dagoeneko bietarik dugu, zaharra (*zori on*) eta berria (*zorion*): «Bienandanza, *zori ona*, *patu ona*, *doatsuera*. Lat. Felicitas»; «bienaventuranza, *felicidad*, *doatsuera*, *zoriona*. Lat. Felicitas»; «felicidad, *doatsundea*, *zoriondea*, *zori ona*. Lat. Felicitas»; «prosperidad, *doatsuera*, *doatsutasuna*, *patu ona*, *zori ona*. Lat. Prosperitas»; «dicha, felicidad, *dicha*, *dichea*, *doaya*, *doaiña*, *zoriona*, *doatsundea*. Lat. Felicitas»; «Bienandante, *zorioneco*, *patuoneco*, *doatsua*. Lat. Felix, fortunatus». Ondoren Hegoaldean Cb., Mb., Ub., AA, Añ., Lard... eta Dv. L.ren zordun handiak, askoren artean<sup>95</sup>.

Lakarra 2023a-n ikusi genuen, L.k ASko idaztean 1740an eta ondorengo lanetan —HH barne, jakina— ahalegin handiak egin zituela *zorion* ‘ditxa’ aldarrikatzen, zalantzarik gabe ez hori eta ez horren familia ez baitziren oraindik ezagun, gutxienez bere inguruan —izan ere Hegoalde osoan ez zuten lekukorik artean (ikus, adibidez, Pomierren hiztegi giputza; cf. Lakarra 2024)—, hark eta bere ondorengoek harraskadetan beste hainbat hitzekin egin zuten bezala; ikus dagokion sarreran *jatorri* eta *jatorriz(ko)*-ren azterketak edo, —bakoitzak maila aipagarrian baina ezin nabarmenago ooren artean— *autu*, *eskualde*, *mundutar*, *seguranza* eta *triunfo*-k (ASn, Lakarra 2023a) eta *diña*, *etorki*, *guraso*, *guziadagikean*, *mende*, *miragarri*, *mirari*, *naigabe*, *ondasun* eta *sortze*-k KS honetan (ikus dagozkien sarrerak) erakutsi bezala.

Aurreko lan horretan markatu legez, ASn 16 aldiz ageri da *zorion*, horietarik 15 *dicha eta zorion* eta, soilik behin, *zorion* bakarrik (3v)<sup>96</sup>.

<sup>95</sup> Larramendiren enparauko testuetan ez *zorion* baina horren eratorri *zorioneko* da formarik ugariena; bestalde, hitz hori HHko sarreran *zorion*-en sinonimo gisa ageri den *dohai*-ren eratorriarekin (*doatsu*) konbinatzen da: San Kasimiroren datagabea: «Esazu begi doatsu, Virgiña *zorionecoa*» (non *doatsu* = *zorionecoa*); AndS.an (1763): «ceruán duén doatsutásuna eta beti *zorionecó* izátea» (*doatsutásuna* = *zorionecoa*), eta hor bertan: «cerren séculaco doatsú eguín dezutén, ta *zorionecó* sántuen lagún» (*doatsu* = *zorionecoa*); BurDot.ren ere (1747) *zorioneko* ugari da (aukera den orotan), lehendabizikoz aurreko dotrinetako *bienabenturatu*-ren ordez.

<sup>96</sup> Horrezaz landa bada beste behin *dicha eta honra* (2v) ere.

*Dicha eta zorion* bikote hori ez da, noski, HHko ondoko sarreratik urruti: «dicha, felicidad, *dicha*, *dichea*, *doaya*, *doaña*, *zoriona*, *doatsundea*. Lat. Foelicitas»<sup>97</sup> eta hurbil dira ere «dichosamente, *dichos-qui-ro*, *doairo*, *doainqui-ro*, *zorionean*» —guztiak salbu azkena egileak berak sortuak—, eta baita «dichoso, *dichosoa*, *doatsua*, *doaintia*, *zorionecoa*», non den-denak ez bide diren zahar-zaharrak eta ezta segida luzerik izan dutenak ere.

Lakarra 2023b eta Lakarra 2023c artikuluetan erakutsi bezala, lehen *zorioneko* ziurra ez da Harizmendiren 1658koa —OEHK dioen legez—, L.ren HHkoa baino; gero, hemendik hurrengo mendean zabaltzen da erruz Gipuzkoako, Bizkaiko eta are (hein batean) Iparraldeko euskara idatzian (nahiz ez iritsi literatura euskaratik kanpora gelditu ziren aldaeretara; cf. Sarasola 1986).

KSko emaitzak ere ez dira urriak ez garrantzirik gabeak (*zorion* bakarra, hiru *zorioneko*) eta aurretiaz esandakoa bermatzera datoz; kasu, orobat, esaldi ezberdinetako testuinguru laburretan diren *mende*, *egoera* eta *sortze* larramenditarrei (ikus iruzkinak dagozkien sarreretan)<sup>98</sup>.

Ondorioz, bistako lotura dator L., HH eta L.ren hainbat testutako (*Arteko* poesiak, AS, AndS., San Kasimiro, BurDot.) erabileraren artean eta baita froga argiak KSren egiletasunari buruz ere.

(A2 / B / B1 / C+ / D / E / F) → [3-P].

<sup>97</sup> Urgellek erakutsi duenez (cf. 2002a: 639-48, batez ere 647) HHko sarreretako euskal zatiaren osagaien antolamendu eta hurrenkera ez da aldakor edo halabeharrezkoa, beti berbera edo oso antzekoa baizik (G. + B. + L. + liburuetarik + asmatua). Honek esanguratsu egiten du *zorion*-en kokapena, L.k berak asmatu *doatsundea*-ren aurretik: nahiz L.k berak asmatua nahiz hark liburuetan irakurria izan liteke, baina inolaz ere ez arrunta edo are ezaguna Gipuzkoa aldean). Ondorio bera da testuan beherago gogoratzen den erabilerari: hain testu laburrean 15 aldiz *ditxa*-ri lotua eta soilik behin *zorion* bera bakarrik.

<sup>98</sup> Hiru horiei gehitu ahal zaie oraindik KSko *ondorengo* ere, OEHren arabera lehenik HHn eta gero hortik Cb., Mb., Mg., AA eta gainerakoetan lekukotua.

## 6. Emaidza orokorrak

### 6.1 Datuen sailkapena

- A) Hegoaldeko lehen agerraldiak (8): *atsegingarri, beartasun, eginbear, eratu, etorki, irinsierazo, paregabeko, zikintasun.*
- A1) Erabateko (Hego eta Ipar) lehen agerraldiak (13): *alderandu, andinaizko, apainduri, bil-leku, biotzgogordun, gose-egarri, iduripe-nezko, igüitu / iguitasun, kiskalerazo, oarmen, oñazpiratu, paregabeko, usteltasunezko.*
- A2) Hegoaldeko 2. agerraldia L.ren beste baten ondotik (68): *alde-koi, amatasun, anditasun, ansidun, arreta, atsegintasun, autu, bakantasan, batasun, bidegabe, bizileku, bukaera, dina, egiztatu, egoera, ekarrai, erabakde, eragozketa, eranzuera, eriozko, eritasun, errukitsu, eskualdi, ezdiña, ezeginera, fedegabe, gaitzgabea, gedeitu, gertaera, gogorkiro, gorrotatu, guraso, gurte, gutizia, guziadagikena, guziekiko, iraupen, itsuskitu, itzaldi, itzgai, jakinsu, jatorri, jomuga, klaruro, konsolagarri, kordegabetu, kutsatu, lenen, mende, mespreza, miragarri, mugarri, naigabe, oiezbezelako, onegiñ, ontasun, osasungarri, oztasun, pisutasun, pozoi(tu), protxugarri, sinisterazo, soilmen, ugolde, urrutiratu, zorigaiztoko, zorion, zorioneko.*
- B) KSn eta HHn bietan lekukotuak (77)<sup>99</sup>: *alabanza, aldeko, amatasun, anditasun, ansidun, arreta, bakantasan, bakartasan, bidegabe, bukaera, dina, egiztatu, egoera, ekarrai, erabakde, eragozketa, eranzuera, eriozko, eritasun, errukitsu, eskualdi, ezaguera, ezdiña, ezeginera, fedegabe, gaitzgabea, gedeitu, gertaera, gogorkiro, gorrotatu, guraso, gurte, gutizia, guziakiko, humiltasun, iguitu, illuntasun, iraupen, itsuskitu, itzaldi, itzgai, jakindun, jakinsu, jakiunde, jatorri, jomuga, klaruro, konsolagarri, kordegabetu, kutsatu, leialtasun, lenen, mandatu, mende, mespreza, miragarri, mirari, mugarri, naigabe, negargarri, oiezbezelako, ondasun, onegiñ, on-*

<sup>99</sup> Testuko hainbat sarreratan azaldu arrazoiengatik, sail honetakoen osagarri dira H sailekoak (hots, HHn aurreikusitako baina lekukotu ez eta KSn gauzatutako eratorriak).

*tasun, osasungarri, oztasun, pisutasun, pozoitu), protxugarri, sinisterazo, soilmen, sortze, ugolde, urrutiratu, zorigaiztoko, zorion, zorioneko.*

- B1) KSn, HHn eta L.ren beste testu batean lekukotuak (19): *bidegabe, bukaera, ekarrai, eranzuera, eriozko, gaitzgabea, guziadagiken, humiltasun, illuntasun, itsuskitu, miragarri, mugarri, naigabe, onegiñ, pozoitu), sinisterazo, zikintasun, zorion, zorioneko.*
- C) KSn eta L.ren gainerako testuren batean lekukotuak (9): *atsegintasun, autu, bidegabe, bizileku, eranzuera, eratu, guzia dezakean, miragarri, paregabeko.*
- C+) KSn, eta L.ren beste bi testutan gutxienez lekukotuak (20): *alabanza, arreta, batasun, dina, eriozko, gutizia, guziekiko, jakinsu, jakiunde, jatorri, konsolagarri, kutsatu, lenen, mende, miragarri, mirari, negargarri, ondasun, ontasun, sinisterazo.*
- D) Iparraldeko testuetarik L.k Hegoaldean bertakotuak (31): *amatasun, anditasun, bakartasun, batasun, bidegabe, eratu, eriozko, eritasun, etorki, gorrototu, gutizia, illuntasun, iraupen, jakinsu, konsolagarri, kutsatu, leialtasun, mandatu, mende, miragarri, mugarri, naigabe, oiezbezelako, ontasun, oztasun, paregabeko, pisutasun, pozoitu), sinisterazo, sortze, zorion.*
- E) L.k asmatuak edo «bataiatuak», maileguak ondare zaharrekotzat emanak (40): *alabanza, aldeko, ansidun, arreta, bakantasun, bukaera, dina, eginbear, egiztatu, egoera, ekarrai, erabakde, eragozketa, eranzuera, eskualdi, ezdiña, ezeginera, gaitzgabe, gedeytu, gertaera, gogorkiro, gurte, guziadagikean, guziekiko, itzaldi, itzgai, jatorri, jomuga, klaruro, kordegabetu, oñazpiratu, onegiñ, osasungarri, sinisterazo, soilmen, sortze, ugolde, urrutiratu, zorigaiztoko, zorioneko.*
- F) 1800. urtean edo are beranduago bertakotutako hitzak (26): *aldeko, alderandu, ansidun, egiztatu, eragozketa, eratu, fedegabe, gertaera, gogorkiro, gorrotatu, gurte, humiltasun, itzgai, jakindun, jatorri, konsolagarri, laguntasun, mugarri, negargarri, oiezbezelako, oñazpiratu, osasungarri, protxugarri, sortze, ugolde, urrutiratu.*

- G) Ez L.ren testuetan eta ez beste inon aurkitzen ez diren hitz edo egitura lexikoak (5): *biotzagogordun, bakantasun eta bakartasun, ezeginera, klaruro, usteltasunezko*;
- G1) 1900. urte arte bertakotu gabeak edo oso esporadikoak (10): *andinaizko, bil-leku, erabakde, ezdiña, eztabaida, fruta, itsuskitu, jomuga, mespreza, soilmen*.
- H) HHn B letratik aurrera eratorriekin egindako lan ez-exhaustiboagatik (cf. Urgell 2002a) han bertan gauzatu ez eta KSn edo L.ren gainerako idazlanetan lekukotzen direnak (15): *andinaizko, atsegingarri, atsegintasun, beartasun, bil-leku, biotzagogordun, bizileku, iduripenezko, iguitasun, kiskalerazo, laguntasun, oarmen, paregabeko, usteltasunezko, zikintasun*.
- J) Hizkuntza-geografiaren arabera Urolako edo aldirietako hitz esanguratsuak (3); *alderandu, apainduri, naigabe*.
- K) Sermoian ugari [= 5 aldiz edo gehiago] erabilitako hitzak (10): *diña, etorki, guraso, guziadagikean, mende, miragarri, mirari, naigabe, ondasun, sortze*.
- P) Sintagma/esaldi berean beste hitz larramenditar bat edo gehiagorekin konbinatzen direnak (82): *aldeko, alderandu, amatasun, ansidun, arreta, atsegingarri, atsegintasun, autu, bakantasun, bakartasun, batasun, bekatu etorki, bidegabe, bil-leku, dina, egiztatu, egoera, ekarrai, erabakde, eragozketa, eranzuera, eriozko, eritasun, errukitsu, etorki, ezaguera, ezeginera, eztabaida, gedeitu, gertaera, gorrotatu, gose-egarri, guraso, gurte, guziadegabean, guziekiko, humiltasun, iduripenezko, iguitu-iguitasun, illuntasun, itsuskitu, itzaldi, itzgai, jakindun, jakinsu, jakimunde, jatorri, jomuga, klaroro, konsolagarri, kordegabetu, kutsatu, laguntasun, leialtasun, lenen, mandatu, mende, mespreza, miragarri, mirari, mugarri, naigabe, negargarri, oarmen, oiezbezelako, ondasun, oñazpiratu, onegiñ (iz.), ontasun, osasungarri, oztasun, paregabeko, pisutasun, pozoitu, soilmen, sortze, ugolde, urrutiratu, usteltasunezko, zikintasun, zorigaiztoko, zorion, zorioneko*.

Aurreratu dugunez, sail horietako asko gurutzatuak ditugu eta, esaterako, Hegoaldeko lehen agerraldi batzuk Iparraldetik hartutako hitzak dira,

KSko hitzen artean hainbat ditugu HHn edo Larramendiren gainerako sermoi eta testuetan ere lekukotuak, KSko hitz mordoxka L.k asmatuak edo «bataiatuak» dira, lehen agerraldi absolutuak eta L.k «bataiatu» edo asmatuak ere bai, baita KS eta L.ren gainerako testuetakoak gehi HHkoak ere, dela agerraldi asko edo gutxirekin.... Bistan denez, zenbat eta sail gehiagotan edo garrantzitsuagotan kokaturik agertu hitz bat, orduan eta bere laguntza testuaren egiletasuna antzemateko (kasu honetan L.ren alde finkatzeko) garrantzitsuago dugu.

Alabaina, gurutzatu baino lehen argumentuen pisua (absolutua edo erlatiboa) ezarri behar genuela neritzon.

## 6.2 Argudioen pisua egiletasunaren hipotesian

«Gure ustez, aurreko gogoeten arabera ondoko hainbat hitz, (lehen sailleko [3] daramaten guztiak edo gehienak bederen) zein bere aldetik —ez soilik guztiak batera edo, esaterako, dozena-erdiko multzoetan harturik— gai lirateke aipatu egiteko honetarako, zorroztasunik handiena eskaturik ere» genioen Lakarra 2023a-n, orduan aztertu *Asuntzioko Sermoiko* hitzen sintesia egiterakoan<sup>100</sup>. Ondoko 22ak aipatu genituen zehazki: *aditzalle, andizkatu, anparatzalle, atsegintasun, aukera, berritasun, bidegaldu, desegindu, edertasun, erdiratu, erribera, erruki, eskergabetasun, eskualde, gañezkatu, guzia-dezakeana, jakinsu, mundutar, ontasun, sarrera, triunfo, zorion*.

Oraingoan halako hirutik gora bildu ditugu, aztertutako hitzak baino proportzio arrunt handiagoan eta «2»n ere 38 dira lehengo 19en aurrean; horrenbestez, L.ren egiletasunaren alde argudio esanguratsuak edo erabate-

<sup>100</sup> Orain ere gogoragarri eta are baliagarri iruditzen zaigu hemen egin KSren analisiari dagokionez orduan erantsi oharra testukoa zehazteko edo mugatzeko:

Esan gabe doa emaitza hauek analisiko baldintza zehatzak beteaz onar litezkeela; *triunfo*, demagun ez bide litzateke esanguratsu mende eta dialekto guztietako lekukotasunak kon-tuan izanik edo *erruki* Bko testu baten aurrean bagina edo *sarrera* egungo euskara corpustzat harturik... Besterik da 1740an Loiolan egindako sermoi zehatz hau aztertzean zertzelada guztiek batera soilik egile batengana garamatzatela markatzea, Larramendirengana, alegia (2023a: 176, 82. oh.).

koak ematen dituzten aztertutako hitzak, hurrenez hurren, ikertutakoetarik 39/46tik dira ASn eta 98/105etik KSn, bi saioetan ere % 90etik gertuko emaitza aberatsak, baina are larrixeago KSkoa.

«3»n (beraiek bakarrik KSren egiletasuna L.ren alde erabakitzen dutenak) eta are «2»n (L.ren aldeko argudio markagarriak) sarrera batean baino gehiagotan aitortu den bezala, ezin ukatuzkoa da zenbait hitz banaka harturik egile ezezagun baten bidez azal litezkeela, beharbada. Itxuraz, hala gerta liteke hainbesterekin baina ez guztiekin edo gehienekin, eta azalpen sakon edo egokiak baino gehiago kasu jakin horiekin soilik bateragarri direla erakustea lortu ahalko genuke.

Ordea, aukera hutsekin geratu beharrean —funtsean edozeinek lor zezakeen hainbeste HH eta Mb.ren *Otoitz gaiak* eskuan— argudio positiboak behar ditugu ahalik eta sendo eta ugariena. Horregatik litekeen aukera hori (egile ezezagunarena) beti gogoan, saiatu gara gure iragazkiak eta metodoak fintzen eta are berriak sortzen ere, zirrikitua guztiz edo ahal bezain hertsiki estaltzeko.

Edozeinen alde ekar litezkeenez landa, datu erantsien artean oso bestelakoak dira: a) L.ren testuetako hitz usukoen erabilerak KS L.ren testu ezagunetara hurbiltzen du, garaian gehienak argitaragabe baitziren eta inor gutxiren eskura L. beraz landara; b) bestetik, KSn bertan kopuru ertain batetik gora (5ean jarri dugu muga) erabiltzen diren hitzak ezin izan litezke kopiagileenak baina geruza zaharreneko egilearenak, eta larramenditarrak badira aukera gehiago dute haren alde makurtzeko egiletasuna eta ez egile ezezagun zehaztugabearenera.

Alabaina, hirugarren multzokoak bide dira eraginkorrenak: c) KSk aztertutako hitz interesgarri askok —larramenditarrek— duten beren arteko (konbinaketa-) erlazioa. Edozeinek uler lezakeenez, horrelakoak hitz solte gisa balira lerro, paragrafo eta orrialdeetan, gertakari horiek halabehartzat edo monta gutxikotzat joko genituzke, ez inolaz ere egiletasunik edo iturri izaerarik aitortzeko modukotzat. Alderantziz, lerroak, paragrafoak eta usu orrialdeak ere larramenditar hitzez josirik aurkitzen baldin baditugu, orduan ezinbesteko izango da, ez soilik KSk larramenditar hitz asko dituela aitortzea, —dela horiek eskukadaka HHtik hartuaz, dela Larramendi ondoko

idazleatarik jasoaz—, baizik eta konbinaketa hain tapitua gauzatzen delarik testua bera bilakatzen dela larramenditar edo L.ren hizkeran idatzia. Hori da, gure ustez, KSrekin gertatu dena.

Ondoko taulan aurreko ataleko analisisian KSren originala L.k osatua izan zela frogatzeko hitz bakoitzean aurkitu argumentu pisu arina (1), esanguratsua (2) edo erabatekoa (3) gurutzatu ditugu P irizpidearekin (hots, delako hitza aztertutako beste bat edo gehiagorekin esaldi berean agertzearekin):

#### EMAITZEN TAULA

- (1) [7: 2P/5] anditasun, apainduri, biotzogordun, eztabaida (P), gose-egarri (P), irinsierazo, kiskalerazo.
- (2) [38: 32P/6] alderandu (P), amatasun (P), atsegingarri (P), autu (P), beartasun, bekatu etorki (P), bidegabe (P), bil-leku (P), bukaera, eginbear, egiztatu (P), egoera (P), ekarrai (P), eragozketa (P), eran-zuera (P), eritasun, eskualdi (P), ezaguera (P), fedegabe, fruita (P), gedeitu (P), guraso (P), humiltasun (P), igui / iguitasun, (P), illuntasun (P), iraupen, itzaldi (P), jakindun (P), jakiunde (P), kordegabetu (P), laguntasun (P), leialtasun (P), naigabe (P), osangarri (P), oz-tasun (P), pisutasun (P), ugolde (P), zikintasun (P).
- (3) [60: 52P/8] alabanza (P), aldeko (P), andinaizko, ansidun (P), arreta (P), atsegintasun (P), bakantasun (P), bakartasun (P), batasun (P), bizileku (P), dina (P), erabakde (P), eratu, eriozko (P), errukitsu (P), ezdiña, ezeginera (P), gaitzgabea, gertaera (P), gogorkiro, gorrotatu (P), gurte (P), gutizia, guzialdun / guziadagikean (P), guziekiko (P), iduripenezko (P), itsuskitu (P), itzgai (P), jakinsu (P), jatorri (P), jomuga (P), klaruro (P), konsolagarri (P), kutsatu (P), lenen (P), mandatu (P), mende (P), mespreza (P), miragarri (P), mirari (P), mugarri (P), negargarri (P), oarmen (P), oiezbezelako (P), oñazpiratu (P), ondasun (P), onegiñ (P), ontasun (P), paregabeko (P), pozoitu (P), protxugarri, sinisterazo (P), soilmen (P), sortze (P), urrutiratu (P), usteltasunezko, zorigaiztoko (P), zorion (P), zorioneko (P).



Hortaz, KSkoei P irizpidea ezarri zaielarik ikus genezake «2» —lotura esanguratsua— eta «3» —lotura erabakiorra— multzoetako 98etarik (38 + 60) 84k (32 + 52) irizpide hori betetzen dutela eta, beraz, «larramenditartasunean» goren direnak —hots, bere testuetan lekukotuak edo HHn asma-tuak, moldatuak edo edozein testu edo lurraldetan bilduak— usu beste hitz larramenditar batzuekin konbinatzen direla sarri: 200etik gora dira horrela eratutako esaldiak, hainbat aldiz hitz esanguratsuetarik hiruzpalau ere bil-tzen direlarik sare berean. Nabarmena da horiek guztiak paragrafo eta orrialde osoak estaltzeko lain direla eta, horrenbestez, L.ren eskutik ateratako hitzez egindakoak eta testua beraren egiletasuna ere segurtasun handiz erabakitzeko modukoak, nekez sinets baitaiteke erraztasun eta ugaritasun horrekin erabil zitzakeela KSren egileak HHko eta, batez ere L.ren testue-tako hitzak, salbu eta egile hori Larramendi bera bezala-bezalaxe arituko balitz, alderik eta hutsik egin gabe edo —sinesgarriago dena— KSren egilea Larramendi bera balitz.

## 7. Ondorio moduan

J. Kaltzakortak markatu zuen legez (2018: 41), Larramendiren euskal testuak berandu iritsi dira ezagunak izatera, 1747an argitaratu Mendiburu-ri egindako Sarrera Gutuna<sup>101</sup> eta J.I. Aranaren 1885eko edizio aski kaska-rrean argitaratu San Agustinen sermoiaz landara, bederen. Halere —gai eta garai zaharrenei eskaini arreta merezitakotik urrutiegi ibili arren usuenik—, badoaz euskal literaturaren historietan sartuaz, gehienbat J.I. Telletxearen lanari eskerrak (laburragoez landa, gogora Gandarari egindako gutuna eta AndS., hots Agustín Leitzakoaren omenez egindako hil ondoko sermoia).

KS hau baino lehen L.ren beste bi sermoi ezezagun plazaratuak geni-tuen, AzkS. 1737 (Lakarra 1985b) eta AS 1740 (Lakarra 2023a); alabai-na, bi horietan orain ez ditugun laguntza edo erraztasunak genituen jato-

<sup>101</sup> Lehendik susmoak zenbait euskaltzaleren artean izan arren, 1747ko *Burgosko Dotrinan* ere L.k parte hartu zuela soilik 1986an ebatzi ahal izan zen, Altunak (1982) argitaratu Mendibururen dotrina eskuizkribatuak zituen inoren —Larramendiren— aldaketa markagarriak Bonaparteren *unicumaren* testuarekin erkatzean (ikus Lakarra 1986, 1987).

rriak ikertzeko orduan: AzkS.an ornatusaz eta hizkuntzaz atera genezakeenaz landa, Telletxeak berak guk Zarautzen aurkitutako testua Larramendiren autografo segurutzat zuela adierazi zigun Mitxelenaren aurrean eta *Asuntzioko Sermoiaren* jatorria ikertzeko barneko nagusiez gainera kanpoko argudio osagarriak genituen; hauen artean, J.I. Aranak *Loiolako Kolegioaren Historia-liburutik* Larramendik han emandako sermoiez bildu zituen ohar garrantzitsuak: «La víspera de Nuestra Señora [1740/VIII/14, alegia] platicó el P. Manuel de Larramendi y el día de Nuestra Señora se dieron dos extraordinarios y truchas»<sup>102</sup>. Horrekin batera —barneko eta kanpoko, bietariko izaera zuten— 1740ko ASko horren hitz familien eta garaitsu berean egilea amaitzen ari zen HHrekiko erkaketaren emaitzetarik zetozen zio eta paralelismo ez mespretxagarriagoak (cf. Lakarra 2023a; ikus orain Urgell 2025 HHren amaiera dataz).

Haatik, Kontzepzioko honetan ikerketa-bide bertsua ibiltzeko ez dugu horrelako laguntzarik izan, ezta gutxiagorik ere, testuaren barneko azterketez landara, izatekotan, zantzu edo aieru benetan ahul bakarra: hots, *Asuntzioko Sermoiak* eta *Kontzepzioko Sermoiak*, biek amaitu dutela —ezagutzen ez ditugun bideetarik— bata bestearen ondoan, testu-multzo berean Antso Jakitunaren Fundazioaren artxiboan. Horrezaz gainera, eta testu bataren zein bestearen azterketarekin sartu orduko errazki antzeman litekeen bezala, kopiak dira biak, —are nabarmenago KS honen kasuan, beharbada kopia-katea luzeagoa izan zelako— eta bietan Gipuzkoa iparraldeko hizkerako originaletatik Gipuzkoa hegoalderagoko norbaitek edo zenbaitek hein batean ukituak eta aldatuak (§ 2)<sup>103</sup>.

<sup>102</sup> Lan horretan (2023a: 133-134) aipatu *Loiolako Kolegioaren Historia-liburuan* zerrendatzen diren bertan edo inguruetan emandako sermoiez aritu ginen —3-4 badira baina ez AzkS.— eta baita handik landara eman bide zituen enparaukoetz; segurutzat jo genezakeen bakarra oraintsu arte argitaratu hirurak (AzkS., SAgS., AndS.) eta arestian agertutako AS baino hainbat gehiago izan bide ziren, nahiz Urola aldean nahiz handik landara (Oiartzun, Tolosa eta Donostian, bederen) *Autobiografian* han-hemen dioskunez.

<sup>103</sup> Kopien kronologiaz, mendearen 70eko edo 80ko hamarkadan-edo egindakoa dirudi gorde den KSrenak (litekeena da originala eta kopia horren bitartean gehiago izatea), bai daraman 1772ko erreferentziagatik eta baita ur-markagatik; honetaz ikus 1. oh. Aldiz, izan litekeen originalaren *post quem* baterako, ikus 108. eta 110. oh.

Lan honen hasieran KSren testuari egokitu diogun lehen soak susmo eta aztarna larramenditar esanguratsu ezin saihestuzkoak jaulki zituelarik (§ 3), azterketa sakon eta zehatzagoa beharrezko zela erabaki genuen. Barruko argudiotzat har ditzakegunak funtsean zuzenean ezagutzen ez ditugun originaletakoa *ornatusetik* eta hizkuntzatik datozkigunak lirateke. Lehenari loturik, KSk erretorika-doaia eta -teknika egokiak erakusten ditu, hiztegiko ugaritasuna, figura aberastasuna eta Larramendirenekin bateragarri gerta litezkeen gainerako ezaugarriak, —tartean KSk Axularren pasarteren baten erabilera argia—, lehendik ezagun genituen AzkS.koan edo SAgS.koan edo AndS.ko enparauetan ikasitakoaren antzera (§ 4).

Gure saioaren arabera (§ 5) bi sermoi berriotako (KSk eta ASko, baina hein batean L.ren gainerako gehienetako) hizkeraren azterketak ez dira erabakior gertatzen jatorri geografiko bat zehazteko —edota, alderantziz, L.ren polimorfismoa bera gertatzen da arrunt esanguratsu egiletasunaren gaian—, alde bateko edo besteko usadioei hertsiki ez lotzeko berariazko borondatea zalu antzematen baita, alegia. Hortik batez ere aditzean kausitzen ditugun bikoiztasunak: *zuan/zuen*, *dute/du* eta *egin/\*ezan*, etab., baina soilik *-ioz-* (ez *-i(r)aux-* ez *-zki-*, aldiz, datibo pluraletan), nolahi ere Gipuzkoa iparraldeari lotuago hegoaldeari baino.

ASren aldiaren legez, halaber orain KSrenean, lexikoaren azterketa sakon, luze eta ahalik eta zehatzenak —aurrekoa halako biko iragazki zerrendan oinarrituaz— eman ahal zigun berebiziko laguntza eta honi eskaini zaio saioaren zatirik handiena ere (§ 6). Aurrekoan bezala, ezin baztertzeko da KS eta AS nahiz L.ren gainerako euskarazko testuen laburra XVIII. eta XIX. mendeetako hainbat egileren obra erraldoiekin erkatzean, baina bi haien berezitasunak oso markagarri bilakatzen dira, halere, euskararen garai horretarako eta, halaber, egiletasuna Larramendiren alde erabakitzeke orduan.

KSn bildutako gertakari edo ezaugarri esanguratsuon artean genituzke ondokoak:

- I. Lehen edo bigarren agerraldi franko hain testu laburrerako (8 + 13 + 68), hots, askorekin zatirik handiena (89/105) ikertutako hitzen artean.

- II. Soilik 1800. urteaz (1.a) eta inoiz 1900.az geroz (2.a) bertakotu hitzak, KS markagarri bihurtzen delarik horien lekukotasunak dataz aurreratzean, usu hamarkadak —inoiz are mende bat eta mende eta erdi ere. Horrezaz gainera, KSn sarri (5 aldiz edo gehiago) erabilitako hitzek (3.a) erakusten dute egilearen lexiko-pedagogia eta -hedakuntzarako borondatea, L.ren teoria eta praktikarekin modu guztiz bateragarrian (26 + 10 + 10).
- III. L.ren testu laburretan lekukotua da KSkok hitz markagarri mordoia (19 + 9 + 20 [48])<sup>104</sup>; erants bekio honi «I»eko 68 «A2»etarik (hots, L. ondoko Hegoaldeko 2. agerraldietarik) gehienak (52) HHkoak izan arren, 15 L.ren beste testuren baten (*Arte*, AzkS., AS, HHren hitzaurrea) ondokoak direla eta, horrenbestez, are garrantzitsuago egiten dela KS eta L.ren gainerako testuen arteko erlazioa.
- IV. Hainbat hitz HHn bilduak (77)<sup>105</sup> eta horietarik franko bertan eratuak, asmatuak eta «bataiatuak» —mailegu bertakotuak ondare zaharrekotzat emanak, alegia (cf. s.u. *alabanza*)— (40) edo Larramendik Iparraldetik Hegoaldera aldatuak (31) ditugu, gertakari hauek KSren lexikoari ukitu berezia ematen diotelarik Hegoaldeko testu gehienen aurrean eta, hein batean, L.ren enparauko euskal testuetara hurbiltzen.
- V. Goiko (§ 7.1) A-K argumentu-sailetako datuak eraikitako hierarkian konbinatuaz, hitz gutxi batzuk L.ren egiletasunarekin bateragarri dira soilik (7) eta, hainbat gehiagok (38), L. eta KSren arteko loturaren zantzuak dituzte, zein bere aldetik L.ren egiletasunaren frogara argi izatera iritsi ez arren. Haatik, arrunt haboro ditugu (60)

<sup>104</sup> Beherago eranskinean konpara daitezke Mb.k lekukotzen dituen urriak; esan gabe doa, bere corpus erraldoia kontuan izanik urritasun absolutuak are baztergarriago bilakatzen direla zifra erlatiboetan eta beste horrenbeste gertatzen dela, noski, KSren egiletasunarekin zerikusirik izateko aukerarekin.

<sup>105</sup> Itxuraz, argudio hau litzateke ahulena, ~1745 eta ~1905 artean edozein idazlek baitzuen eskura HH; alabaina KSkok usadioan erabilerari hori batezbestekoa baino askoz ugari eta sistemati-koagoa da, ez noizbehinkako zalantza bakanetara mugatuaz, baina multzo eta sare osoak oparo eraikiaz.

—ikertutako erdiak baino gehiago—, L. eta KSren arteko zalantza gutxiko erlazioa darakustenak eta L.ren egiletasunaren aldeko froga sendo erantsiak dakartzatenak, zein bere aldetik hartuaz ere.

## VI. etab.

Aukeran, III.a —L.ren euskal testu artean ezagunetan ere lekukotutako hitzena— iruditzen zaigu argudiaketa bide garrantzitsuena, L.ren eta sermoi berriaren arteko aparteko lotura erakutsiko lukeena; kontuan har bedi L.ren testuak —HHrekin gertatzen zenaren aurka— ez zirela argitaratuak eta, beraz, L.z landako gutxiren esku<sup>106</sup>. Hots, haietako ezaugarriak KSkoe-kin bat etortzeak L.rengana hurbiltzen du aztertzen ari garen sermoi berria.

Hara KSn eta L.ren testu labur horietako batean edo gehiagotan lekukot-  
tuak (hots, goiko B1, C, C+ sailletakoak, baina errepikapenak ezabatuaz):

*alabanza, arreta, atsegintasun, autu, batasun, bidegabe, bizileku, bukaera, dina, ekarrai, eranzuera, eratu, eriozko, gaitzgabea, gutizia, guzieldun / guziadagikean, guziekiko, humiltasun, illuntasun, itsuskitu, jakinsu, jakunde, jatorri, konsolagarri, kutsatu, lenen, mende, miragarri, mirari, mugarri, naigabe, negargarri, ondasun, onegiñ, ontasun, paregabeko, po-  
zoi(tu), sinisterazo, zikintasun, zorion, zorioneko* (41)<sup>107</sup>.

41 kasu (hainbat behin baino sarriago errepikatuak) KS eta L.ren testu laburretan lekukotuak asko dira eta ez dira gutxiago halaber KSn gauzatu HHko beste 77 hitz (hauek ere usu behin baino sarriago) edo KSren 1.-2. agerraldiak) haren 10 orrialde laburretarako eta gertakari hori ez bide da egiantzeko Larramendi bera KSren egilea izanik baizik.

<sup>106</sup> Ez, bederen, *Arte* edo *Hiztegia* ziren heinean; egia da AzkS. eta AndS. autografoan gorde arren, AS, SAgS. eta honako KS kopietan gorde izan direla —bakarrean, dakigularik AS eta KS, hainbatetan SAgS., Kaltzakortak (2018) deskribatu bezala. Alabaina, ez dakigu kopiak (zaharrenak bederen) L. bera bizi zelarik zabaldukoak ziren ala geroztikoak. Nolanahi ere, eskuizkribuen bidez izan zezakeen eragina (orain arte ikertu ez bada ere) urruti geratzen bide da inprimatuen bitartez izandakotik, are azken hauen izaera eta helburuak ere kontuan izan gabe.

<sup>107</sup> Horietarik ondokoak L.ren HH aurreko testuetan ere lekukotuak: *atsegintasun, autu, bizileku, dina, gaitzgabe, guzia dagikeana, guziekiko, jakinsu, jatorri, konsolagarri, lenen, naigabe, onegiñ, ontasun, zorion*.

Aurreko guztiei, aski den adina diruditen arren, oraingo azterketa-saioan berariaz landutako «P irizpidea» deitu duguna erantsi nahi izan diegu (§ 7.2): ikerketa horren bidez dakusagunez, zeinek bere aldetik, berariazko azterketaren ondoren, L.rekin erlazio arrunta baino estuagoa agertua duten bizpahiru hitz edo gehiago esaldi berean —orotara gure saioan ikertutako ehunetik 90etik gora—, sarri konbinatzen dira hainbat sare ezberdinetan, 200 bat esaldi-edo hornituaz. Horrenbestez, KSn larramenditar hitzez jositako hainbat lerro, paragrafo eta are orrialde tapitu eratzten direla erakutsi ahal izan dugu; sare hauek guztiak nekez jo litezke hala-behar soiltzat eta, argiro, aurretik ikusitako gainerako L.ren egiletasunaren aldeko frogen zantzu eta indarra bermatzera eta areagotzera datoz. Hots, larramenditar hitzez betetako, «larramendieraz» idatzitako, sermoia genuen KSren originala.

Amaitzeko, Kontzepzioko sermoi anonimo eta urte- eta toki-gabeko honen jatorriaz egun eman genezakeen hipotesirik egiantzekoena zera bide da, gaur Antso Jakitunaren Fundazioko artxiboan, 1670. eskuizkribuan —data ezezaguneko originaletik<sup>108</sup> sortu eta gero ondoko kopiaketa zenbaiten ondoren (azkena edo azkenetarikoa goierritar batena, tartean)— Larramendiren sermoi bat gordetzen dela. Esan gabe doa, hainbat lan eta aurkikuntza berri gehi zorte-puxka beharrezko datekeela Larramendi egilearen buru eta eskutik oraingo egoerara nola iritsi den noizbait zeharo azaltzeko ahaleginean.

## 8. Eranskina Mendiburuz

Dozena-erdi hitzetara ez dira iristen (*bekatu-etorki*, *extabaida*, *gose-egarri*, *oarmen*) OEHren datuetan oinarriturik Mendibururekin erlazio bereziren bat izan zezaketelakoan aipatu ditudanak § 6ko 105 sarreraren artean; poligenetikoak ez badira horien azterketan argudiatu dugun bezala, litekeena da kopiagileren batek 1760 ondoren KSren bertsio berri batean txertatu

---

<sup>108</sup> Beharbada, KSren originala ez dateke 1745 baino askoz beranduagokoa hitz asmatu kopurua (E) eta hapaxak edo ondoko lekukotasun urriko hitzak kontuan izanik; ikus bi ohar beheerago ere.

izana<sup>109</sup>. Halere, bada hitzen bat (*fruita*) —nahiz itxuraz (baina formari kasu) mailegu izanik beragan oinarririk urrutiegi ezin jo—<sup>110</sup> Mb.ren laguntzaz ere konponduko ez genukeena, «GN»kotzat izan arren OEhk, ez hiztegi horretan ez EKCn forma hori ez baita bildu oiartzuarraren lanetan. Orobat gertatzen da *oarmen* (*antsidun*) bikotearekin ere, bigarren hitza ez baitu inoiz hark erabili eta, alderantziz, *oarmen* (*antsidun*) L.k erabili izana egiantzekoa baita (ikus sarrerako iruzkina).

Baina, batez ere, Mendibururen jatorrikotzat —berak edo bere zordun batek sortutzat— sermoi hau ez hartzeko, Mb.k bere ehundaka orrialdeetan inoiz erabili ez zituen Larramendiren eskutiko —HHko eta, batez ere, L.ren euskarazko testuetatiko— hitz ugariak ditugu esanguratsuen. Ondoren ematen ditugu bi zerrenda KSkoetarik guk § 6ko sarreretan aztertu eta hark dakartzan eta ez dakartzan hitzekin. Datua esanguratsua izan litekeelarik, HHn agertzen diren ala ez markatu dugu parentesi artean.

#### MENDIBURUK DAKARTZANAK:

amatasun (HH), anditasun (HH), apainduri, arreta (HH), atsegin-garri, autu, bakartasun (HH), beartasun, bekatu etorki (HH), bidegabe (HH), bukaera (HH), dina (HH), eginbear (HH), egoera (HH), ekarrai (HH), eranzuera (HH), eritasun (HH), ezaguera (HH), eztabaida, gertaera (HH), gose-egarri, guraso (HH), guziekiko (HH), humiltasun (HH), iduripenezko (HH), illuntasun (HH), itzaldi (HH), jakindun (HH), jakinsu (HH), jakiunde (HH), kutsatu (HH), leialtasun (HH), lenen (HH), mandatu (HH), mende (HH), miragarri (HH), mirari (HH), naigabe (HH), oarmen, ondasun (HH), ontasun (HH), oztasun (HH), pareta (HH), pisutasun (HH), pozoi-tu (HH), sortze (HH), usteltasun (HH), zorigaiztoko (HH), zikintasun (HH), zorion (HH) (43/48).

<sup>109</sup> Ez dakit zeharo ezaba litekeen egile ezezagunaren aukera (*possibilia non negabo*) baina hipotesi garestiena begitantzen zaigu eta bere aldeko argudio esanguratsurik ez zaigu ezagun ez bistako eta, aldiz, ugariak eta sendoak L.ren aldekoak.

<sup>110</sup> Dagoeneko dagokion sarreran gogoratu bezala, *fruita* ageri da L.k Arakistainengandik jaso zituen eranskinetan eta haietarik ere ikas zezakeen; hala balitz KSren originala 1746 ondotik idatzia litzateke (agian ez data horretatik urrutiegi). Ikus bi ohar gogo ere.

## MENDIBURUK EZ DAKARTZANAK:

aldeko (HH), alderandu, andinaizko, ansidun (HH), atsegintasun, bakantasun (HH), batasun (HH), bil-leku (HH), biotzgorodun, bizileku (HH), egiztatu (HH), erabakde (HH), eragozketa (HH), eratu, eriozko (HH), errukitsu (HH), ezdina (HH), ezeğiñera (HH), fedegabe (HH), fruita, gaitzgabe (HH), gedeitu (HH), gogorkiro (HH), gorrotatu (HH), gurte (HH), gutizia (HH), guzia dagikean / guzialdun (HH), iduripenezko, iguitasun, iraupen (HH), itzgai (HH), jatorri (HH), jomuga (HH), klaroro (HH), konsolagarri (HH), kordegabetu (HH), laguntasun, mespreza (HH), mugarri (HH), negargarri (HH), oiezbezelako (HH), oñazpiratu (HH), onegiñ (HH), osasungarri (HH), paregabeko (HH), protxugarri (HH), soilmen (HH), ugolde (HH), urrutiratu (HH) (40/49).

Tamainari kasu eginaz, dozenaka eta are ehundaka aldiz handiago delarik Mendibururen corpora KS hau baino, garrantzia apartekoa hartzen dute bat ez etortzeak bat-etortzeen gainetik eta are gehiago, talde batean zein bestean HHrekiko zorra ezin nabarmenago delarik. Ia atzizkidun hitz guztiak L.ren hiztegian bilduak ditugu eta beste asko *-tasun-*en bidez eratuak bereziki, bertan aurreikusiak dira sarrera jakin bateko ordain guztiak aztertzen baditugu, ez soilik atzizkia agerriki markatua daramatenak.

Hitz markatuen artean markagarrienak lirateke ez Mendiburuk ez 1800. urte arteko —inoiz ia gaur arteko— enparauko egile edo testuk ez darabil-tzan baina KSk daramatzen HHTikoak:

*ansidun, erabakde, eragozketa, ezdiña, ezeğiñera, gedeitu, klaruro, oiezbezelako, soilmen.*

Horiei gehitu beharko genizkieke 1800. urte edo harago arte bertakotu gabeak:

*aldeko (HH), alderandu, egiztatu (HH), eratu, fedegabe (HH), gertaera, gogorkiro (HH), gorrotatu (HH), gurte (HH), humiltasun, itzgai (HH), jakindun, jatorri (HH), konsolagarri (HH), laguntasun, mugarri (HH), negargarri (HH), oñazpiratu (HH), osasungarri (HH), protxugarri (HH), sortze, ugolde (HH), urrutiratu (HH), zikintasun.*



Azkenik, hainbat dira Mb.ren corpusean lekukotzen ez diren baina L.ren testu laburretan agertzen direnak:

*atsegintasun, batasun, bizileku, eratu, eriozko, gaitzgabea, gutizia, guzialdun, itsuskitu, jakinsu, jakiunde, jatorri, konsolagarri, mugarri, onegiñ, negargarri, paregabeko, zorioneko* (18).

Nolanahi ere, HHko hitzen portzentajea KSn markagarria da, Mendibururekin nahiz besterekin erkatu<sup>111</sup> eta are argiago bilakatzen du, testuan argudiatu bezala, KS Larramendiren *hiztegitik eta testuetarik* dela hurbilago —baita L.k duen lan egiteko modutik ere— beste edozein egilerengandik baino. Izan ere, L.ren beraren eskutik ateratako original baten kopiaren aurrean bide gara, hainbat argudio eta datuk erakusten digutenez.

---

<sup>111</sup> Ez luzatzeagatik, ez dugu hemen eman Gerrikorekin egindako antzeko erkaketa-saioa: Gerri-  
kok Mendiburuk baino KSn lekukotutako hitz gutxiago dakartza; gehitu bekio honi ez dakartzan  
horien artean HHko portzentaje larria dela —dakartzanetan ere ez da txikia eta are nabarmenago  
litzateke HHko eratorpen potentzialena (*atsegingarri, irudipeneko, laguntasun, usteltasunezko, zikin-  
tasun*)— eta, horrenbestez, Gerrikoren urruntasuna KSrekikoa are Mendibururena baino handia-  
goa dela.

## Bibliografia

AIESTARAN, U. (2023). *Añibarroren Christau Doctriña eta nafarrera idatziaren bilakabideaz*. (Gradu Amaierako Lana, UPV/EHU, Gasteiz).

ALTUNA, P. (arg.) (1967). «Larramendi'ren iztegi berria», *Euskera* (2. aldia) 12: 139-300.

— (arg.) (1982). *Mendibururen idazlan argitaragabeak*. 2 lib. Bilbo: Euskaltzaindia eta Ediciones Mensajero.

— eta LAKARRA, J.A. (1990). *Manuel Larramendi. Euskal testuak*. Donostia: Andoaingo Udala et al.

— (arg.) (2000). *Aita Aranaren Egunaria*. Iker 12. Bilbo: Euskaltzaindia.

ARKOTXA-SCARCIA, A. eta LAKARRA, J.A. (2019). «Aspectos de la gramatización antigua de la lengua vasca: humanismo, reformismo e imprenta (1545-1596)», *Lengas* 86.

BÄHR, G. (1925). «Flexiones verbales de uso actual en Legazpia (Goyerri)», *Euskera* 3: 73-114.

BILBAO, G. (prestatzen). [Lubieta], *Diccionario en castellano y basquense que sirve para la enseñanza de la lengua vascongada*. Sociedad Vascongada (Bilboko) eskuizkribua.

GÓMEZ, R. eta ZULAIKA, J. (2020). *El Vocabulario Pomier. Edición y estudio de un diccionario manuscrito anónimo euskera-español*. Bilbo: UPV/EHU.

IRURE, L. (2024). «Corpusaren egoera hobetzen: Xurioren *Imitacionearen* aleak XVIII. mendean», *ASJU* 58 (1): 139-174.

IRURETAGOIENA, H. (2022). «Izenak sortzeko atzizkiak Pomier hiztegian, Lubietaren hiztegian eta Ubillosen dotrinan» (Gradu Amaierako Lana, UPV/EHU, Gasteiz), *ASJU* 56 (2): 193-218.

KALTZAKORTA, J. (2018). «San Agustin Eguneako Sermoiaren edizio kritikoa», *Sancho el Sabio*, Extra 2: 39-72.

LAKARRA, J.A. (1983). «Oharrak zenbait arkaismoz», *ASJU* 17: 41-68.

— (1984). «Bertso bizkaitarrak (1688)», *ASJU* 18 (2): 89-184.

— (1985a). «Larramendiren hiztegegintzaren inguruan», *ASJU* 19: 9-50.

- (1985b). «Literatur gipuzkerarantz: Larramendiren Azkoitiko sermoia (1737)», ASJU 19: 235-281.
- (1986). «Burgosko Dotrina (1747): I. Testua eta oharrak», ASJU 20: 533-594.
- (1987). «Burgosko Dotrina (1747): II. Faksimilea eta hiztegia, ASJU 21: 277-317.
- (1991). «Testukritika eta hiztegiak: Harriet eta Larramendi», in J.A. Lakarra eta I. Ruiz Arzalluz (arg.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*. ASJUren Gehigarriak, 14. Donostia: GFA: 217-258.
- (arg.) (1992a). *Manuel de Larramendi. Hirugarren mendeurrena (1690-1990)*. Andoain: Andoaingo Udala, Euskaltzaindia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila.
- (1992b). «Larramendirekin aurreko hiztegegintzaren historiaz: aztergai eta gogoeta», in J.A. Lakarra (arg.), 1992a: 279-312.
- (1993-2017). *XVIII. mendeko hiztegegintzaren etorkiez*. UPV/EHUko doktorego-tesi argitaragabea. (UEUren argitalpen facsimilea).
- (1994). *Harrieten Gramatikako hiztegiak (1741)*. ASJUren Gehigarriak, 18. Donostia: GFA.
- (1996a). *Refranes y Sentencias (1596). Ikerketak eta edizioa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- (1996b). «Lexiko berrikuntza euskal hiztegi zaharretan: zenbait ikergai», *Uztaro* 19: 3-40.
- (1997a). «Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri», ASJU 31: 447-535.
- (1997b). «Rsekiko ikerketak», *Enseiucarrean* 13: 23-76.
- (2008 [2010]). «*Vida con/y libertad*: sobre una coordinación arcaica y la autenticidad de “Urthubiako Alhaba”», ASJU 42: 83-100.
- (2017). «18. mendeko hiztegegintzaren etorkiez, 25 urte geroago», in 2017 [1993], i-xvi.
- (2018). «Euskararen historiaurrea», in J. Gorrotxategi, I. Igartua eta J.A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza: 23-229.

— (2022). «*Jatorr(i), aitor(tu), ilor(tu), bihor(tu)*: filologia ala hil», in I. Igartua eta J.A. Cid (arg.), *Tu voz en muchas voces. Escritos en homenaje a Jon Juaristi*. Leioa: UPV/EHU: 401-460.

— (2023a). «Asuntzioko Sermoi egile-, toki- eta urtegabea: Larramendiren testu berri ezezaguna (Loiola 14.08.1740)», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 68 (1): 111-220.

— (2023b). «*Zorioneko y zorion*: lo que la historia de la lengua vasca nos dice sobre ellos», *FLV* 136: 597-615.

— (2023c). «*Zorioneko, zorion* eta Larramendi. Filologia ala hil, II». *ASJU* 57 (1-2): 583-611.

— (2024). “Aspectos de la formación del *Vocabulario Pomier* y su relación con el *Diccionario Trilingüe*: hápax, supuestas voces septentrionales y segundas documentaciones”, *FLV* 138: 443-562.

LETURIAGA, O. (2019) [2021]. «Gipuzkoako osagarri pluraldun adizki tripertsonalen erroez», *ASJU* 53 (1-2): 127-162.

— (2020). «Gipuzkoa erdialdeko pluralgileen azterketa», in I. Camino, X. Artia-goitia, I. Epelde eta K. Ulibarri (arg.), *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena. Koldo Zuazori gorazarre*. Bilbo: UPV/EHU: 367-402.

— (2022a). «Nor-nori-nork irrealisak Gipuzkoan: *eginen* hedadura eta \**ezan* adizkien zenbait berrikuntza», *FLV* 134: 375-413.

— (2022b). «Nor-nork saileko *eginen* hedadura geografikoa Gipuzkoan: ondorio batzuk testu zaharren azterketatik», *ASJU* 56 (1): 1-42.

MITXELENA, K. (1959). «La obra del P. Manuel de Larramendi (1690-1766)», *Cuadernos de la Cátedra Feijoo*, 6. Oviedo: Universidad de Oviedo: 5-27. (Berrargitaratua: OC XI: 427-443).

— (1960). *Historia de la literatura vasca*. Madril: Minotauro. (2. arg.: Donostia, 1988).

— (1970) [1965]. *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*. Bilbo: Publicaciones del Centro de Estudios Históricos de Vizcaya.

— (1978). «Para una historia de la ortografía vasca», in *Miscelanea Filológica Vasca II*. *FLV* 30: 393-397.

— (1981a). «Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak», *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea: 259-278.

— (1981b). «Euskal literaturaren kondairarako oinarriak», *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea: 279-292.

— (1982). «Mendibururen hizkeraz hitz bi», in P. Altuna (arg.), *Mendibururen Idazlan Argitaragabeak*, I. Bilbo: Euskaltzaindia: LXXIX-LXXXII. (Berrargitaratua: OC XI: 473-478).

— (1983). «Mendiburu eta Larramendi», *Euskera* 28: 19-23. (Berrargitaratua: SHLV II: 912-915).

— (2011-2012). *Luis Michelena. Obras Completas*. J.A. Lakarra eta I. Ruiz Arzalluz (arg.), ASJUren Gehigarriak, 54-68 (15 lib.). Bilbo: UPV/EHU.

— eta SARASOLA, I. (1987-2005). *Orotariko Euskal Hiztegia – Diccionario General Vasco*. Bilbo: Euskaltzaindia eta Desclée de Brower.

Kontsultagai: [[https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_oehberria&task=bilaketa&Itemid=1694&lang=eu](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_oehberria&task=bilaketa&Itemid=1694&lang=eu)].

MURUGARREN, L. (1984). «Una plática del Goyerri», *ASJU* 18 (2): 185-197.

PADILLA, M. (2012). «La influencia de Larramendi en Vasconia Norte: consideraciones sobre la difusión ultrapirenaica de obras vascas del Sur en el siglo XVIII partiendo de un manuscrito labortano», *De Re Bibliographica* 7-8: 33-41.

PÉREZ GAZTELU, E. (2018). «Manuel Larramendiren irakurle hautatuak: testu eleaniztunen norentzakoak eta hartzaileak», *Sancho el Sabio*, Extra 2: 11-38.

SAN ROMAN, I. (2024). *Sebastian Antonio de la Gandara: lexikoaren azterketatik edizio kritikorantz*. (Gradu Amaierako Lana, UPV/EHU, Gasteiz).

SANTAZILIA, E. (2022). «Senekaren izpiritua euskaraz: Larramendiren eraginaren eta itzulpengintza apologetikoaren adibide bat XVIII. mendeko Zuberoan», *Uztaro* 120: 95-122.

SARASOLA, I. (1976). *Historia social de la literatura vasca*. Madril: Akal. (Berrargitaratua: Madril, 1982).

— (1986). «Larramendiren eraginaz eta», *ASJU* 20 (1): 203-215.

— (1997). «Euskal hitz altxorraz», *ASJU* 31 (2): 617-642.

SEGUROLA, K. (2004). «XVIII. mendeko autore ezezagun bat», *Lapurdum* 9: 243-282.

— (2011) [2007]. «XVIII. mendeko garbizaletasuna: Larramendiren *Hiztegi Hirukoitza* eta eskuizkribuak», in J. Gorrotxategi, J.A. Lakarra eta B. Urgell (arg.), *2<sup>nd</sup> Conference of the Luis Michelena Chair - Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra - II. Congreso de la Cátedra Luis Michelena*. Gasteiz: UPV/EHU: 217-245.

TELLETXEA IDIGORAS, J.I. (1966). «El jesuita Manuel de Larramendi», *BAP* 22: 307-360.

— (1968). «Larramendi y Cardaveraz: censura y réplica inéditas sobre un libro de piedad», *ASJU* 2: 3-31.

— (1969). *Manuel de Larramendi. Corografía de Guipúzcoa*. Obras del P. Larramendi, 1. Donostia: SGEP.

— (1973). *Manuel de Larramendi. Escritos breves*. Obras del P. Larramendi, 2. Donostia: SGEP.

— (1975). «Dos textos eusquéricos inéditos del P. Larramendi», *ASJU* 9: 179-184.

— (1983). *Manuel de Larramendi. Sobre los Fueros de Guipúzcoa*. Obras del P. Larramendi, 3. Donostia: SGEP.

— (1990). *Manuel de Larramendi. Autobiografía y otros escritos*. Obras del P. Larramendi, 4. Donostia: SGEP.

ULIBARRI, K. (2015). *Dotrinazko Sermoitegia*. Tesi argitaragabea, UPV/EHU (Gasteiz).

URGELL, B. (1991). «Axular eta Larramendi», *ASJU* 25: 901-928. (Berrargitaratua: in J.A. Lakarra (arg.) 1992a: 221-246).

— (1992). «Martin Harriet Añibarroengan», *ASJU* 26: 221-258.

— (1996). «Larramendi o el despertar de la literatura vasca peninsular», in G. Aulestia (arg.), *Los escritores. Hitos de la literatura clásica euskérica*. Gasteiz: Fundación Sancho el Sabio: 263-288.

— (1997). «Estudios en torno a la historia de la lexicografía vasca», *ASJU* 31: 643-685.

— (2000). *Larramendiren Hiztegi Hirukoitzaren osagaiez*. Tesi argitaragabea, UPV/EHU (Gasteiz).

— (2001). «Euskal formen aurkezpena Larramendiren hiztegian», *ASJU* 35: 107-183.

— (2002a). «*Hiztegi Hirukoitzaren* kanpoko eta barruko historiaz», in X. Artia-goitia, P. Goenaga eta J.A. Lakarra (arg.), *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*. ASJUren Gehigarriak, 44. Bilbo: UPV/EHU: 629-649.

— (2002b). *Larramendiren Hiztegi Hirukoitzaren Eranskina: Saio bat hiztegin-tzaren testukritikaz*, Monumenta Linguae Vasconum. Studia et Instrumenta 1. ASJUren Gehigarriak, 47. Bilbo: UPV/EHU.

— (2003). «Eratorpena Larramendiren hiztegian (I): eratorbideen analisia», *ASJU* 37 (1): 203-260.

— (2004). «Etimologia eta neologia Larramendiren *Hiztegi Hirukoitzean* (1745)», *Lapurdum* 9: 299-310.

— (2005). «Larramendiren euskal liburuak 1745 arte: testu bibliografiaranzko hurbilketa bat», *Lapurdum* 19: 1-39.

— (2008). «Maileguak Larramendiren hiztegian», *FLV* 108 (1): 5-44.

— (2009). «Martin Harrieten hiztegiak: eraketari buruzko zenbait berri», in R. Etxepare, R. Gómez eta J.A. Lakarra (arg.), *Beñat Oihartzabali gorazarre – Festschrift for Bernard Oyharçabal* (= *ASJU* 43, 1-2). Bilbo: UPV/EHU: 873-890.

— (2018). «Lehen Euskara Modernoa», in J. Gorrotxategi, I. Igartua eta J.A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*. Gasteiz: Eusko Jaurilaritza: 543-657.

— (2023). «1720ko *Imitacionearen* iturriak: lehen hurbilketa», *ASJU* 57 (1-2): 907-950.

— (2025). «Larramendiren apologiaren XVIII. mendeko bizitza, edo zergatik ez den bibliografia lana ahaztu behar» (*ASJU*urako inprimategian).

ZULOAGA, E. (2015). «Diego Lorenzo Urkizuren 1740ko zortzikoak», *ASJU* 49: 179-202.

— (2020). *Mendebaleko euskararen azterketa dialektologiko-diakronikorantz*. Dok-torego-tesia, UPV/EHU.

— (2022). «Mendebaleko euskara zaharra: ezaugarriak, kronologia eta geogra-fia», *Iker* 47. Bilbo: Euskaltzaindia eta UPV/EHU.

## Eranskinak

### A) Maria SS.<sup>a</sup> Concepciocoaren Sermoia: testuaren transkripzioa

#### Maria SS.<sup>a</sup> Concepciocoaren Sermoia:

predicatu nuen 1772.rren urtean.

*Fecit mihi magna qui potens est.* Luc. cap 1<sup>o</sup>

Baldin lurreco guizon eta emacume guciac Jangoicoari<sup>112</sup> esquerrac<sup>113</sup> orduro ema[n] bearrean arquitcen badira eguin dien<sup>114</sup> mese[de]acgatic, arrazoi<sup>115</sup> gueiagorequin Mariac esquer on au Jangoicoari adieraci bear dio bere lendabico sortcetic artu izan dituanacgatic, esanaz cordegabeturic<sup>116</sup> ta mesede oei dagoquien eranzuera<sup>117</sup> batequin: «O eta cein gauza andiac eguin dituen nere alde, gucia daguiquen Jangoicoac!» *Fecit mihi magna qui potens est.* Ezaguera onetara Maria beartcen dutenac eztira bere aurrecoen icen, victoria, fama eta honrra andiac, baicican bere lendabico sortcean berari bacar bacarric Jangoicoac eguin diozcan mesede paregabecoac. Maria izan zan gracian sortua, graciaz indartua eta onela, —Mariac camporaco Adanen hume guciac, Jangoicoaren aserrearen diña diran becela—, Maria izan zan Jangoicoaren atseguintasun gucien billecua<sup>118</sup>. Ona gucia daguiquen Jangoicoac gaur<sup>119</sup> Mariagatic eta Mariagan eguiten dituen mirari andiac eta ona eguiatz maite izan duen Jangoicoaganaco amodioa iracequi zuana: *Fecit mihi magna qui potens est.* Azaldu ditzagun mirari oec<sup>120</sup> zuenzat prochugarriac izan ditezquen moduan<sup>121</sup>. Maria gracian sortua izan zan;

<sup>112</sup> r gainetik berreginaz.

<sup>113</sup> Aurretik hitz bat tatxatua (*eguin?*) eta ondolik lerro artean *orduro*.

<sup>114</sup> OBJPLEko komuntadura falta; ikus gehiago 155. oh.

<sup>115</sup> Aurretik tatxatua *cembat*.

<sup>116</sup> Lerro artean kokaturik.

<sup>117</sup> Aurretik zerbait (*cordegabeco?*) tatxatua.

<sup>118</sup> Aurretik letra bat tatxatua.

<sup>119</sup> Lerro artean gainjarririk.

<sup>120</sup> Bi hitzok lerro artean gainjarririk.

<sup>121</sup> Atzetik hitz bat tatxatua (*mirari oec?*).



esan nai det bere lendabico sortcean becatutic gordea izan zala. Maria izan zan graciaz indartua edo sendotua; esan nai det bere lendabico sortcean indartua izan zala becauaren contra. Baña cer becatu motatic izan zan gordea? Gucioc berarequin sortcen gueraden becatu etorqui edo originaletic. Eta cer da becatu etorquia edo originala? Azalduco dizuet bide batez mandatu bi eguiten < 2 > ditudala<sup>122</sup>: au da doctrina eguiteco daucagun obligacioaren cumplitcea<sup>123</sup> eta becatu au cer dan adieraztea. Becatu etorquia edo originala da becatu ura ceñarequin jaiotcen gueraden heredaturic gure lenen guraso<sup>124</sup> Adam eta Evagandic. Jangoicoac utsetic atera cituen Adam eta Eva eta eguin cituan bere antcera, emen bera maitatceco, servitceco eta beste munduan betico gloria eduquitceco. Bertatic eman cien bere gracia eguiñaz bere adisquide eta ceruco heredero; gracia onequin batera justicia etorqui edo originala, eta ibai miragarri<sup>125</sup> onequin arrazoiaren mendean ceuzquen beren apetitu guztiac, espirituarequin araguiaren<sup>126</sup> artean, guerraric sentitcen etzan eran. Arrazoiac aguintcen cien cenzu guciei eta, arrazoiac Jangoicoagana zucenduric, bere mendean cegoen. Zorioneco egoera onetan Jangoicoac eman cien aen obediencia probatceco mandamentu erraz bat: ipini cituen atseguin guciac beregan ceuzcan Paradisu batean, eman cien Paradisuaren erdian cegoen arbola batetic ez, beste fruita gucietatic jateco escualdia<sup>127</sup>, esanaz jatea<sup>128</sup> debecatu cien fruita artatic jaten zuten instantetic ilgo cirala eta galduco zutela beren zorion gucia, berenzat eta beste beren ondorengo guci gucientzat. Baña leialtasunarequin aguinte ura gordetcen bazuen berac eta beren ondorengo guciac beti zorionecoac izango cirala, beinere illco etcirala eta betico ceruco gloriara era-

<sup>122</sup> Esapide hau L.ren HHn eta lehenago Ax.engan; ikus § 4, *omatusaz*.

<sup>123</sup> Objektu zuzena genitiboan, bakarria testuan. Badira, ordea, adibide zenbait bizkaierazko eta gipuzkerazko testu zaharretan (ikus Lakarra 1983).

<sup>124</sup> Cf. HHn «Padres de la Iglesia, *Eleizaco aitac, gurasoac*», hau da, «Primeros Padres de la Iglesia».

<sup>125</sup> Azken bi letrak tatxaturik.

<sup>126</sup> Xekin Y egitura (= X eta Y): *espirituarequin araguiaren artean* = *espirituaren eta araguiaren artean*. Ikus Lakarra 2008 eta 2018, iruzkinerako eta lekukotasun gehiagotarako. Agerraldi gehiagotestuan, bat harrigarria edo zeharo ezohikoa 3. orrialdean: bi «Xekin Y», eta batez loturik.

<sup>127</sup> «orden, disposición» OEH, s.u. 5, nahiz HHrentzat *eskualdi* gehiago den «mano, vez, vuelta».

<sup>128</sup> Lerro artean gainjarririk.

mango cituela. Etsaiac ecin icusiric era onetan Adam eta Eva tentatu cituen esanaz debeatutaco<sup>129</sup> fruitatic janagatic illco etcirala: beguiac iriquico citzatela<sup>130</sup>, Jangoicoa becela izango cirala<sup>131</sup>, eta onaren eta gaitzaren jaquindun. Gueiegui luzatcea litzate<sup>132</sup> zorigaiztoco guertaera<sup>133</sup> onen aldecoi edo circunstancia<sup>134</sup> guciac bat banaca<sup>135</sup> esatea; asco da zuei gogoracitcea nola Adam eta Evac fruita artatic jan zuten, au janaz aserratu zutela Jangoicoa eta aen ondorengoac becela, becatu < 3 > artan sorturic, Jangoicoaren aserrean eta bere etsai eguinic guci-gucioc<sup>136</sup> gatocela<sup>137</sup> mundura. Becatu onec macurtcen gaitu gaitcera, ematen digu oneraco pisutasuna eta ecarri digu<sup>138</sup> illbearra eta beste neque eta naigabe guciac. Maria bacarric izan zan becatu onetatic gordea, eta gordetce miragarri onequin, Jangoicoac adieraci nai digu becatu[a]ri eduqui bear diogun iguitasuna edo gorrotoa. Eta au izango da gaurco nere itzgaia. Baña ò Maria, nere gurte edo culto eta confianza bigun eta osoaren jomuga dina, ezagutcen det nere alabanza bearric eztezula, ni naiz zure laguntasunaren bearrean arquitcen naicena: indazun, arren, nic mercei eztedan<sup>139</sup> zure laguntasuna eta<sup>140</sup>, au gucioc escatcen dizugu Añgueruarequin diosala eguiten dizugula. Ave Maria.

*Fecit mihi magna qui potens est* Luc. 1.

Gucia daguiqueanac eguin ditu nere alde gauza andiac.

<sup>129</sup> Tartekatua.

<sup>130</sup> 'zitzaizkiela'; cf. *jate* 'jake, zaie' Kapanagarengan.

<sup>131</sup> *-de-* tatxatua (\**ciradela*).

<sup>132</sup> Ondotik tatxatua *que?*, *-a?*

<sup>133</sup> Bai *zorigaiztoco* eta bai *gertaera*-ren lehen agerraldiak HHn dira; KSn beraz, bikotearen lehen agerraldi segurua eta ez jakin inork berriro erabili duen. Nolanahi ere L.ren egiletasunaren aldeko froga.

<sup>134</sup> Beherago < 5 > *bere aldecoi edo circunstancietan*.

<sup>135</sup> *Bat banaca* lerro artean tartekaturik.

<sup>136</sup> *Guci*-ren aurretik tatxatua *gu-/xx*.

<sup>137</sup> Lerro artean kokaturik.

<sup>138</sup> Tartekatua; singularrean nahiz *guciac* duen OBJ; cf. 1. or., 3. oh., *eguin dien mese[de]agatic*; orobat, 155. oh.

<sup>139</sup> Tartekatua.

<sup>140</sup> Tartekatua.

Jangoicoaren amatzat aututaco Maria gracian sortua eta becatu etorquitic gordea izan zala sinisterazotcen digu arrazoiac, siniste au eguiztatcen due<sup>141</sup> Elizaco gurasoac edo Padreac eta Elizac berac ere onzat ematen du iritci au.

Bai, arrazoiac sinisterazotcen digu. Bada, eguiaz Mariac bere sortcea ezquero becatuic eguin etzuela probatceco, elizaco gurasoac<sup>142</sup> eta beste theologoac dacazten<sup>143</sup> arrazoiac ecer probatcen eztue, edo berebat probatcen due Maria gordea izan zala becatu etorqui edo originaletic. Becatuac —dio Santo Thomasec— eguingo zuan Maria Jangoicoaren ama izateco ezdiña edo indigna, ceren amaren gloria becela, amaren deshonrra erorico zan semearen gañ<sup>144</sup>. Mariac, —dio santu onec beronec— Jangoicoaren amat[a]-sunagatic batasun miragarri bat dauca Jangoicoarequin. Baña nolacoa izango litzaque, arguiarequin illuntasun eta saintutasunarequin<sup>145</sup> becatuaren arteco<sup>146</sup> batasuna edo unioa? Aitortu<sup>147</sup> bear degu, bada, Mariac Jangoicoaren<sup>148</sup> amatasunagatic < 4 > dauzcala becatuarequin<sup>149</sup> iñolaere ondo ecin etorri ditezquean privilegioac<sup>150</sup>. Baldin arrazoi<sup>151</sup> oec guciac indarsuac bada, santo<sup>152</sup> Thomasen eta beste jaquinsu ascoren iritcian Mariaren bicitza guz[ti]tic<sup>153</sup> becatua alderantceco asco añacoac dirade, quentceco bere len-

<sup>141</sup> Testuan *dueu*, mantxa baten gainean. Cf. < 8 > *munduac ezagutcen eta sinisten ote due egui andi au?*

<sup>142</sup> Gorago *lenen gurasoac*.

<sup>143</sup> 'dakartzaten'; cf. < 9 > *iragarri dacacena*.

<sup>144</sup> Ikus antzekoak (gen. + *gain*): < 4 >, < 6 > eta < 8 > *onen gañ*, < 6 > *baten gañ*, < 7 > *leguen gaña*, < 10 > *desonesten gañ*.

<sup>145</sup> *-na-* lerro artean, gainean.

<sup>146</sup> Ohar bekio *eta*-koordinazioa eta *-kin*-koordinazio bikoitzaren konbinaketari (guztiz ezohikoa are *-kin*-koordinazioa dakarten lekukotasunetan); arruntagoetarako, ikus 126. oh.

<sup>147</sup> Aurretik tatxatua *bada*.

<sup>148</sup> *-ren* gainetik sendotua.

<sup>149</sup> *-c-* gainetik berregina.

<sup>150</sup> Bigarren *i* eta *o* errepasatuak.

<sup>151</sup> Or. *arrozoi*.

<sup>152</sup> Zerbaiten gainean idatzia.

<sup>153</sup> *-c* originalean.

dabico sortcetic. Eta egui onen cembat testigu leial ecarri<sup>154</sup> nizaque? Baña ez luzatceagatic itzac eutciric esango dizuet batzuen iritciac<sup>155</sup>: oen iritciac batera, bada<sup>156</sup>, iñola ere ecin esan diteque —Jangoicoaren gucialdun eta jaquiundeari bidegabe andi bat<sup>157</sup> eguin gabe— eztabaida batean ere etsaiaren mendean egon zala bere amatzat eta onen mendean bicitceco autu zuana. Cer, bada, Jangoicoaren escu gucialdunac ecin gorde cezaquean Maria becatuaren mendetic? Eta bere jaquiundeac etzuan beartcen onetan<sup>158</sup> eguin al cezaquean gucia nai izatera? Cer, Jangoicoac eutci ceiquion etsaiari ciquintasunic chiquienarequin ere ciquintcen bere bicilecu izan bear zuen toqui au? Certan Jangoicoac naico<sup>159</sup> zuan, eztabaida<sup>160</sup> batean ere, beragatic esatea usteltasunezco oretic bere amatzat atera zuala etsaien<sup>161</sup> menpeco eta gu becela bere aserre gucien diñaco doncella bat? Ezin diteque, dio Agustinec. Baña cergatic? Jangoicoari eta bere semeari zor zaion honrra eta errespetoagatic dio santuac: *proter honorem Domini*. Onelaco Doctore andi baten esana asco litzaque eta Elizac oraindano onen gañ erabaqui ezpadu ere, nola obeto onzat eman dezaque ama semeai ain ondo dagoquien iritci au? Onen<sup>162</sup> contraco gauzaric predicatcea eta aguerian eracustea debecatceaz baño?<sup>163</sup> Trentoco concil[i]oaren<sup>164</sup> bitartez esaten digu becatu etorkiaz itz eguiten dan erabacde edo decretoan, Maria guztiz garbi eta zori onecoa sartu nai eztuala eta bere sortcearen onrraraco<sup>165</sup> ipini izandu du, gaur gucioc eta batez ere erri Noble onec Mariari eguiten dion festa au, eta

<sup>154</sup> -c- gainetik errepasatua.

<sup>155</sup> *Dizuet...* iritciac. Beste OBJ ZUZeko komuntzadura falta bat; cf. 3. or., 138. oh.

<sup>156</sup> Tartekatua.

<sup>157</sup> b-, g- baten gainean.

<sup>158</sup> Tartekaturik lerro artean.

<sup>159</sup> Hitz bat aurretik tatxatua.

<sup>160</sup> Testuan es-.

<sup>161</sup> i eta e-ren artean letra bat tatxatua.

<sup>162</sup> Aurretik *Bada berac eragozten digu* tatxatua.

<sup>163</sup> Bi hitzok lerro artean.

<sup>164</sup> Orri-ertzean: «Conc. Triden. Sesión 5<sup>a</sup>».

<sup>165</sup> -n eta -raco behin eta berriro errepasatuak eta lodiago.

emendic cer<sup>166</sup> atera bear degu? Maria bere lendabico sortcean izan zala santa eta becatu etorquitic gordea eta au da Jangoicoaren mirari andien arteco Mariaganaco bere providenci miragarria eta beti izandu dion amodioa drist erazotcen<sup>167</sup> < 5 > duan mirari guztiz andi bat: *Fecit mihi magna qui potens est*. Privilegio au, nere enzuleac, dudagabe guztiz andia da: andia da berez, andia aldecoi edo circustancietan eta batez ere bacantasun eta bacartasunean. Andia da berez, bada, contraco gauzac, cembat contracoagoac diran obeto<sup>168</sup>, ezagutcen badira<sup>169</sup>; esan<sup>170</sup> bear det cembat lotsagarriago dan etsaiaren mendean egotea, ambat gloriotsuagoa dala beragandic libre egotea, cembat negargarriagoa dan pozoio eriozcoaz cutsatua egotea, ambat atseguingarriagoa dala sugue madaricatua oñazpiratcea eta berari burua ausitcea: cembat negargarriagoa dan eztabaida batean ere<sup>171</sup> Jangoicoaren gorrotoan egotea, ambat consolagarriagoa dala beraz beti maitatua izatea eta bera maitatcea.

Andia da bere aldecoi edo circustancietan. Baldin Jangoicoac<sup>172</sup> oiezbelcelaco bideren batez Maria mundura ecarri balu, baldin Jangoicoac berac eratu edo formatu balio gorputz bat, Adanena ecer ecetic eguin zuan becela, etzquenduan<sup>173</sup> certzat arritu, eguzquia bera baño garbiagoa eta ederrago eguin balu ere. Baña ah! Cer gloria Mariarenzat, gaitzgabea, garbia, eta ederra sortcea eta jaiotcea, guraso<sup>174</sup> becatarietatic! Arr[i]tceco dinaco<sup>175</sup> miraria da iturri usteletic ur fresco, garbi, ederra irtetea eta sustrai edo arbola pozoituac fruita osasungarria ematea! Onelacoa da, bada, gaur arrituric

<sup>166</sup> Tartekaturik lerro artean.

<sup>167</sup> Testuan erazocitcen. Cf. AS, 2r: «Arritu bedi, bada, San Bernardo eta autor beza leguez eta videdz ceruco edertasunac gueiigo eta gueiigo distreatcen duela Maria Santissimaren sarrearequin».

<sup>168</sup> Azpian obea?

<sup>169</sup> *i*, a baten gainean.

<sup>170</sup> Aurretik hitz labur bat (*edo?*) tatxatua.

<sup>171</sup> Lerro gainean tartekatua.

<sup>172</sup> Ondoren bi hitz tatxaturik, *oiezbelcelaco Mundura* itxuraz.

<sup>173</sup> *Enduan* lerro artean.

<sup>174</sup> Aurretik ezabatua *becatua*.

<sup>175</sup> Lerro gainean tartekaturik; lerroan bertan 3-4 letra zirriboraturik.

icusten degun miraria. Bada, Maria garbia, ederra eta osasungarria dator jatorri ustel eta becatari arrazatic.

Andia da bacantasunean eta ba[ca]rtasunean. Privilegio eta gloria au Mariari bacar bacarric eman izan zaio eta da bacana edo particularra. Badaquigu santurem batzuec beren amen sabeletan santu eguin cirala eta oen artean San Juan Bautista eta Jeremias Profeta dira sortu eta laster etsaiyen<sup>176</sup> mend[et]ic irten zutenac, baña dembora guichian<sup>177</sup> bazan ere, aren mendean egon ciran. Virgiña guztiz santa! Zu bacarric cera eztabaida batean ere etsaiyen mendean egon etceradena eta gucia daguiquen Jangoicoaren escua zure alde eduqui dezuna: eta beste gucioc < 6 > Jangoicoaren aserre eta gorrotoan gatocen becela, amodioz<sup>178</sup> eta graciaz betea mu[n]dura zatocena<sup>179</sup>: *fecit mihi magna qui potens est*.

Berriro artu dezagun au gucia: bildu dezagun batera eta zatitu dezagun oarmen ansidunac edo importanteac emango diguen iru zatitan<sup>180</sup>. Lendabicoa, bada, certatic<sup>181</sup> gordetcen du Jangoicoac gaur Maria? 2.a, nola gordetcen du? Eta, 3.a, cergatic gordetcen du? Certatic bada gordetcen du? Ote<sup>182</sup> da beartasun edo pobrezatic? Ez, bada<sup>183</sup>, jaiotzen<sup>184</sup> da guraso bear edo pobre[en]gandic, et[a] bere bici gucia igaroco du<sup>185</sup> asco gauzaren bearrean. Ote da humiltasunetic? Ez, bada, jaio izan da —nobleac badira<sup>186</sup>

<sup>176</sup> -ye- beltz indartsuagoz zerbaiten gainean.

<sup>177</sup> OEHren arabera, bizkaieraz landa baita XIX. mendera arteko zenbait giputzetan ere; cf. Lardizabal, adibidez.

<sup>178</sup> Aurretik tatxaturik 3 hitz: zu M<sup>d</sup> zatoz?

<sup>179</sup> Hitz hau eta aurrekoa lerro tartean gaineraturik.

<sup>180</sup> Or. s-.

<sup>181</sup> Azken 3 letrak mantxa batez ezabaturik.

<sup>182</sup> o-, e baten gainean.

<sup>183</sup> Bada lerro artean tartekatua.

<sup>184</sup> -en, -an-en gainean.

<sup>185</sup> Gucia igaroco du lerro artean; azpian ezabaturik izan zan.

<sup>186</sup> -n tatxatua, baciran-en gainean idatzia.

ere—, guraso illunetatic, eta bere bici gucia igaroco<sup>187</sup> du illuntasun onetan. Ote da bidegabe eta naigabetatic? Ez, bada, bere sortcean naigabeac ezpacituan<sup>188</sup> etorrico zaio beste gucioi<sup>189</sup> becela izango dituen hordua eta evangelioac dion bezala<sup>190</sup> minezco ezpata zorrotzac<sup>191</sup> gogorquiro anima zulatuco dion dembora. Certatic gordetcen du bada? Becatutic. Eta nola gordetcen du? Eceri barcatu gabe, mirariac erraz eguiñaz. Nolaerebait aztuaz bere providenciac ipinitaco legue jaquin eta guciencoaz, eta esateco moduan gue-deituaz edo anulatuaz<sup>192</sup> bere erabacde edo decretoac: ema]n[ten die egoe-ra berri bat eta oraindaño icusi eztan eta ecusico ere eztan guertaera<sup>193</sup> bacan batequin igarotcen da beticoa eta guciequicoa dirudien legue baten gañ<sup>194</sup>.

Cergatic gordetcen du? Ceren berac jaio nai duan birgina onengandic eta becatuari berez dion gorrotoac eragozten dion ciquintasunic chiquiena eta onen iduria bera ere bere amagan icustea<sup>195</sup>, bada, becatuic chiquienac ipinico cion eragozqueta edo impedimentu andi bat Jangoicoaren amat[a]-sunari. Eta emendic cer atera bear degu? Ona nere enzule maiteac, O! Eta nor ezarri lezaquean zuen biotcetan ecerc ere ecin deseguin lezaquean eran? Emendic icasi bear degu, bada<sup>196</sup>, becatua ezagutcen, iguitcen eta berari dagoquion gorrot[o]a artcen; ara, bada<sup>197</sup>, nola itzaldia eguin bear degun onen gañ<sup>198</sup>: arreta edo atencio pisca bat, nere enzuleac.

---

<sup>187</sup> *Codu* letra lodiagoan, zerbaiten gainean.

<sup>188</sup> *Naigabeac izan*-en gainean eta *ezpacituan*, *-adi*-ren gainean.

<sup>189</sup> Testuan *gucioc*.

<sup>190</sup> *-on* eta *-zala* erdi borratuik.

<sup>191</sup> Testuan *-at*.

<sup>192</sup> Ondoren 3-4 letra (*dira?*) ezabaturik.

<sup>193</sup> *-era* lerro artean eta *onelaco* aurretik tatxaturik.

<sup>194</sup> *gan*, *n* gaineko azentu lodi batekin.

<sup>195</sup> Azpian tatxaturik ulertzen ez den hitza.

<sup>196</sup> Lerro artean gainjarria.

<sup>197</sup> *ara*-ren aurretik zena ezabatu eta ondotik ezarria.

<sup>198</sup> *gan*, *n* gaineko azentu lodi batekin.

< 7 > Jangoicoac bere Ama Maria alchatu<sup>199</sup>, distinguitu eta munduco beste<sup>200</sup> criatura guciac baño beraren diñago eguin [n]ai duanean eztu<sup>201</sup> gordetcen beartasun<sup>202</sup> edo pobrezatic ez humiltasunetic, ez eguraldien goraberatatic, ez eta<sup>203</sup> mundu onetaco naigabe as[c]otatic, baña<sup>204</sup> gordetcen du becatutic eta becatutic ba[ca]r bacarric. Eta emendic ateratcen da, Jangoicoaren iritcian ceña dan iritci gucien artean lendabicicoa eta gure eguinbear gucien erregla, becatua dala mundu onetaco beste gaitz guciac baño ascozaz andiagoo. Onengatic beste gaitz gucien baño becatuaren bildurrago izan bear degu. Eta naiago izan bear degu mundu onetaco eritasun, gose, egarri eta beste naigabe guciac sufritu eta munduac ematen dituen iduripenezco honrrac, atseguintasunac eta ondasunac galdu, ce ez becatu eguiñaz Jangoicoa aserratu. Baña cergatic?<sup>205</sup> Esan dizuet eta<sup>206</sup>, esan guciac gatic ere<sup>207</sup>, gueiegui berriro ecin<sup>208</sup> esan<sup>209</sup> nezaque, ceren Jangoicoac bere ama Maria gordetcearequin, ez mundu onetaco naigabetatic, baicican becatutic eta becatutic bacarric eracusten didan becatua dala gaitz gucien artean andiena, eta onen aldean beste gaitz guciac utsac diradela. Nere enzuleac, orain icusten dezuen becela, oraindiano beguiratu diozue becatuari?<sup>210</sup> Lenago galdu bear dituzue zuen ondasunac ce ez becatu eguin<sup>211</sup>. Eta becatu ez eguiteagatic prest arquitcen cerate zuen ondasunac galtcera? Lenago galdu bear dezue zuen honrra ce ez becatu eguin. Eta, alaric ere, cembat aleguin oquer eguin oi dira

<sup>199</sup> 2-3 letra (*aut-*?) aurretik tatxaturik.

<sup>200</sup> *munduco*-ren aurretik zena ezabatu eta ondoren ezarria.

<sup>201</sup> Lerro artean gainjarria.

<sup>202</sup> *bear*- mantxa baten gainean.

<sup>203</sup> *ez*-en ezker zena ezabatu eta eskuin ezarria.

<sup>204</sup> Or. *bana*.

<sup>205</sup> Ondoren *cergatic?* ezabatua.

<sup>206</sup> Lerro artean gainjarria eta, *baña*-ren orde.

<sup>207</sup> Lerro artean gainjarria.

<sup>208</sup> *gueiegui*-ren aurretik ezabatu eta hemen jarria.

<sup>209</sup> Or. *esna*.

<sup>210</sup> *-ar-* mantxa baten gainean.

<sup>211</sup> Hitz hau tintaz ia osorik estalirik.



honrra au gordetceagatic, biurteagatic eta acitceagatic? Contrara eguin<sup>212</sup> ondoan, nolaco izan oi ezta zuen oztasuna<sup>213</sup>, ezeguinera edo inaccioa, urte osoetan becatuan egoteco? Nere enzuleac, au da becatua igitcea? Onetan guelditu gabe, icusi dezagun nola Jangoicoac gordetcen duan gaur Maria becatutic. Onetara<sup>214</sup> arquitcen det bere<sup>215</sup> guciequico Providenciac ipini ci-tuen leguen gaña<sup>216</sup> igarotcen dala eta baliatcen dala oiezbecelaco bideaz eta emendic ateratcen da < 8 > becatua ez bacarric dala gaitz gucien artean andiena, baita ere gaitz onec Jangoicoa ascozaz gueiago deshonoratcen duala, berac ipiñitaco leguen ordena miragarriac, onrratuco zuen baño<sup>217</sup>, edo —apostoluaren esanaz baliatcen naicela—<sup>218</sup> becatu batequin Jangoicoa ascozaz gueiago deshonoratcen dala virtuteric andienac eduquiaz, ondasun guciac pobrei emanaz, penitenciaric gogorrenac eguiñaz eta fedegaveac neque ascoren bur[u]an Jesuchistori emanaz honrratcen dan baño. Baña, nere Jangoicoa, munduac ezagutcen eta sinisten ote due egui andi au? Eta animaric justu eta garbienac ere, bear becela ezagutcen ote due?

Azquenic, galdetcen det, cergatic Jangoicoac gordetcen du Maria becatu etorquitic? Ceren becatu etorqui onec aimbesteraño isusquitu eta Jangoicoag[and]ic alderanduco<sup>219</sup>, urrutiratuco zuen Maria nun eta<sup>220</sup> Jangoicoac seculan<sup>221</sup> bere amatzat autuco etzuan<sup>222</sup> eta ona becatuaren ecarrai edo

---

<sup>212</sup> Aurretik zerbait tatxatua, *becatu* seguruenik.

<sup>213</sup> *izan oi ezta zuen* goian lerro artean.

<sup>214</sup> Hitz hau lerro artean tartekaturik eta lerro hasieran sartzeko markatua; benetan *onetaro* edo *onet+ro* irakurtzen da, *-t-* ondoko letra tintaz guztiz estalirik.

<sup>215</sup> Aurretik 5-6 letrako hitza ezabaturik: *mesede?*

<sup>216</sup> *-a* tintaz ia osorik estalirik baina ongi irakurtzeko moduan.

<sup>217</sup> Or. *bano*.

<sup>218</sup> *Edo... naicela* lerro artean eta aurretik bi hitz ezabaturik.

<sup>219</sup> Testuan tatxatua; *cf.*, aldiz, < 4 > *becatua alderantceco asco añaocoac dirade*. Edizio aurreko azterketako sarreran argudiatu den bezala (ikus han) originalekoa behar du eta horregatik berrezarri dugu.

<sup>220</sup> Lerro artean.

<sup>221</sup> Lerro artean gainjarririk.

<sup>222</sup> *-a-* gainetik loditua.

efectoa<sup>223</sup>, —esan nai det Profetarequin batera becatuac Jangoicoarequin gure arteco<sup>224</sup> mugarriztat—, pareta andi bat ipinten duala Jangoicoaren biotcetic ateratcen gaituela eta bera gure biotcetic quencen digula: aren etsai eta bera gure eguiten gaituela. O, egoera negargarria! Ah! Eta onelacotzat daucazue becatuaren mend[e]an zaudeten becatari gogorrac?<sup>225</sup> Ezagutcen dezue nolaco dan becatua, zuen eguilleaz azturic, munduco atseguintasun<sup>226</sup> lizunetan, zuen lendabico urteac igarotcen dituzuen gazte<sup>227</sup> zoroac? Ezagutcen dezue mundua servitcean eta munduco apainduri, janci eta beste vanidadetan zuen gogo gucia ipinten dezutenac? Ezagutcen dezue becatuac gañezca dauzcatzuen<sup>228</sup> edo obeto esateco becatu utsa baicic<sup>229</sup> etceraten becatariac? Eta onec, bada<sup>230</sup>, zuen biotcetan betico sartcen ditu guticia, embidia, gorrotoa, amodio lizuna eta beste gaitz guci guciac. Eta onen gañ<sup>231</sup> eguin ezazue consideracio sendor<sup>232</sup> au. Jangoicoac cer becatutatic gordetcen du gaur Maria? Becatu etorqui edo original, eztabaida bateco becatu bacar eta Adanen borondatean gureac ceudelaco beste gabez guri dagoquigun eta gure[a] dan becatu batetic.

< 9 > Oram, bada, gure esaeran, guc culparic eztegun becatutic aditu dituzuten aibeste gaitz<sup>233</sup> etorri bazacu, nolacoac izango ote dira, zuec zuen naiez eta ezaguera osoarequin eguiten dituzuen becatuac dacazten calteac, naigabeac eta animan eguiten dituen soilmenac edo desolacioac? Baña nere Jangoicoa, Profetac aiña arrazoiequin esan dezaquet munduac soilme-

<sup>223</sup> Lehen 3 letrak tintaz ia estalirik.

<sup>224</sup> «Xekin Y = X eta Y» egituraren beste adibide bat; cf. 126. oh. eta abar.

<sup>225</sup> Aurretik hiru letra (*neg ?*) ezabaturik.

<sup>226</sup> Aurretik tatxaturik *munduco*.

<sup>227</sup> Lehen bi kontsonanteak gainetik loditurik.

<sup>228</sup> Ondoren ezabatua *becatuac*.

<sup>229</sup> Tintaz estalia.

<sup>230</sup> Lerro artean; azpian ezabaturik *eta*.

<sup>231</sup> *-gan*, *n* azentuarekin.

<sup>232</sup> Kopiagilearen forma (HHn *sendar*); ikus, orobat 10. orrialdearen akaburantz.

<sup>233</sup> *-z* gainetik berriz pasatua.

nez, gañez, eguiten duala egui andi oec consideratu<sup>234</sup> gabez: *desolatione desolata est terra, quia non est xxxxxxxxxxxxxx*<sup>235</sup>. Becatuarenzat gorrotoa eman dezaquean<sup>236</sup> aldetic, becatuari beguiratu ordean escriturac esaten digun biotz gogordunac beguiratu cioten aldetic beguiratu oi zaca eta<sup>237</sup> munduac eta munduocac becatuari beguiratu oi diobe, iritsi nai dituzten gauzac iris-teco escalera eta bideric errazenari becela.

Nere enzuleac, beguira eguiozue becatu[a]ri fedearen beguiaquin eta oraindaño ez becela arquituco<sup>238</sup> dezue: begui oequin claroro icusico dezue cembat igui duan Jangoicoac, cembat jaiquierazten duan Jangoicoaren becatua[ga]naco, mespreza, aserrea eta gorrotoa eta becatu dala mundu onetara aimbeste castigu iragarri dacacena<sup>239</sup> eta beste munduan betico condenacioa. Onela beguiratcen cion David erregueac bere tronuan eseriric bere gende eta mendecoetatic homenageac artcen cituen demboran eta<sup>240</sup> bere ordenac bere mende[c]oi icara eraguiten cietenean. Icara cegoen<sup>241</sup> eta, alaric ere<sup>242</sup>, beti bere beguien aurrean ceucan becatuac aguitz izutcen zuan, urratcen cion biotza, lotsaz betet[cen] zuan eta sufrierazotcen cion asco pena eta nai-gabe. Onela<sup>243</sup> beguiratcen cioben Josef<sup>244</sup> Susanac, Eleazarrec, Antiococ eta Moisesec: eta onec damuz eta dolerez beteric deadarrez esan oi zuan. Ah!

<sup>234</sup> Azken lau letrak borroraturik.

<sup>235</sup> Zenbait hitz tatxaturik; Jerem XXII, 11,3ko pasarteari legokiokeela dirudi: «Desolatione desolata est omnis terra: quia nullus est qui recogitet corde». Cf. «Chahutzer a eman dute, eta nigarrez dago ene minez; desmasiaren desmasian da lur guzia, zeren nihork ez duen gogoeta on bat egiten» (Dv.).

<sup>236</sup> Hasierako *e*-ren gainean puntutxo bat eta ia akabuan tinta-gehiketaz «errepasaturik» *-a-*, azpian *-g*-ren beheko partea (*-gun?*) oraindik ikus litekeelarik.

<sup>237</sup> Pasarte iluna; hasiera batean *zacacela* irakurri genuen baina saio askoren ondoren bai idazkera, bai zentzua forma honetan egokiagoa duela deritzogu.

<sup>238</sup> Lerro artean; azpian tatxaturik *aurrera onegañ pensatuco*.

<sup>239</sup> «Iragarri ohi dituen a» edo «Iragarririk dituen a», *eroan/eraman* adlag. zaharraren pareko.

<sup>240</sup> Tatxaturik *demboran eta* eta gero berriro *eta* ezarririk.

<sup>241</sup> Tatxaturik.

<sup>242</sup> Lerro artean erantsirik.

<sup>243</sup> *on-* lodiago eta zerbait estalirik.

<sup>244</sup> Azken letra ia ezabaturik.

Aserre dago nere contra nere Jauna: *iratus est mihi Dominus*. Bai becatariac, zuec<sup>245</sup> ere aserraturic daucazue zuen contra zuen Jangoicoa: zuen etsai<sup>246</sup> eguifñic daucazue Jangoicoa, baña Jangoico andi, beste anditasun guciac bere aldean utsac diradena: Ynfernuac < 10 > eguin dituen eta andinaizco becatu bacar bategatic, Aingueru desobedienteac leice<sup>247</sup> onetara bota eta emen beti quiscalerazoco dituen Jangoicoa; desobedienciazco becatuagatic Adanen ondorengo guciac neque ta<sup>248</sup> naigabe eta eriotzara condenatu dituen Jangoicoa, ugoldea mundura bidaldu zuana, sua edurra<sup>249</sup> becela Yri edo ciudade desonesten gañ bota zuana, asco<sup>250</sup> becatari gogor<sup>251</sup> lurrari irinsierazo diona, eta azquenic eztabaida batean ere<sup>252</sup> bere amagan ere becatu bacar bat ecin icusi izan zuan Jangoicoa. Bai becatariac, ontasun utsa dan, zuec maite zaituzten, zuei<sup>253</sup> izatea, bicia, osasuna, ondasunac eta beste gracia asco eman dizuen Jangoicoaren etsaiac cerate: *iratus est mihi Dominus*.

*Bucaera*<sup>254</sup>.

O! Nere Jauna eta Jangoicoa, andiac eta nic esan al baño ascoz andiagoac dira gaur zure amari bere sortcean eguiten diozcatzun mesedeac: *Fecit mihi magna qui potens est*. Eta oec<sup>255</sup> claroro adierazo<sup>256</sup> digue zuc cembat iguitcen eta guc gorrototu<sup>257</sup> bear degun becatua. Berandu bada ere, orain icusten degu cer dan becatua eta bere mendean egotea. Bertatic, bada<sup>258</sup>, Jauna

<sup>245</sup> Aurretik *as* ezabaturik.

<sup>246</sup> Ondotik *zuen* tatxaturik.

<sup>247</sup> *-ce* lerro eta hitz artean.

<sup>248</sup> Mantxa baten azpian.

<sup>249</sup> Or. *eduia*.

<sup>250</sup> Aurretik tatxatua *lurrari*.

<sup>251</sup> Lerro artean.

<sup>252</sup> Hiru hitzok ezabaturik.

<sup>253</sup> Mantxa baten gainean.

<sup>254</sup> Ezkerretara, ertzean, mantxatik kanpora espazioa aurrezteko.

<sup>255</sup> Tartekatua.

<sup>256</sup> *a-* mantxa baten gainean.

<sup>257</sup> Originalean segurki *-atu*, kopiagileak ezarri bide zuen *-o-*.

<sup>258</sup> Lerro artean gainjarririk.

gogoz artu nai ditugu zure laguntasunarequin batean<sup>259</sup> egoera negargarri onetatic betico irteteco neurriac eta ala bear bada prest gaude gucioc gure zañetaco odola ematera. O Virgiña beti guztiz<sup>260</sup> garbi eta zugana eguiaz biurtu nai duten becatarien ama gozoa! Zugana gatoz, bada, ama erruquitsu eta<sup>261</sup> gure miserien berri daquizuna<sup>262</sup>. Zu cera Jesuchistoren urreneco gure esperanza eta uste edo zuganaco gure confianza au onzat artu gabe ecin eutci dezaquezun<sup>263</sup> ama biguña. Humiltasunez, errespetoz, amodioz eta zure bitartez Jangoico[ag]andic artu izandu ditugun oneguiñen ezagueraz<sup>264</sup> beteric zugana gatoz<sup>265</sup>, zure mendean sartceco<sup>266</sup> eta onela zure seme Jesucristo maitatceco. Ea, vada, señora, iritsi eguiguzu zure seme orregandic gure becatuac ezagutceco bear degun arguia, confesio on bat eguiteco laguntasuna, fede bici bat, esperanza sendor<sup>267</sup> bat eta<sup>268</sup> Jangoicoaganaco amodio bigun eta iraupen luceco bat. Ber[ta]tic, señora, ematen dizut festa au zuri eguiten dizun erri noble onen eta gañeraco nere enzule gucién ice-nean, zure sortce guztiz garbia beti aleguinean honrratceco itza. Eta zure sortce garbi orregatic guri ere iritsi eguiguzu ecerc<sup>269</sup> ere ecin ciquindu deiquean biotz garbi bat, zurearen anceco humiltasun bat, gure naigabetaraco paciencia andi bat, birtutean irauteco indarra eta, azquenic, eriotza on bat eta onen bitartez betico gloria. Amen.

---

<sup>259</sup> Hiru hitzok lerro artean erantsirik; azkena *-na*.

<sup>260</sup> Lerro artean erantsia.

<sup>261</sup> Hiru hitz hauek ezabaturik.

<sup>262</sup> *-a* tatxaturik eta goiko aldean *ama erruquisua* erantsirik.

<sup>263</sup> *-a* ezabaturik eta ondokoa lerro artean erantsirik.

<sup>264</sup> Eskuizkribuan *ezagueraz*.


<sup>265</sup> Bi hitzok lerro artean kokaturik.

<sup>266</sup> Ondoren hitz bat estalia: *digu?*

<sup>267</sup> Beste *sendor* bat 8. orrialdearen akaburantz (*consideracio sendor au*); biak ere kopiagilearen hizkeratik sortuak itxuraz.


<sup>268</sup> *eta edo*-ren gainean?

<sup>269</sup> Aurretik *bat* tatxaturik. Ondoren *ere* lerro artean erantsirik.

B) *Maria SS.<sup>a</sup> Concepciocoaren Sermoia*: eskuizkribuaren facsimilea

*Maria SS.<sup>a</sup> Concepciocoaren Sermoia*, Antso Jakitunaren Fundazioa, 1670 eskuiz. (sign. ZRV 4418)

[Azala-1]



*Maria SS.<sup>a</sup> Concepciocoaren Sermoia*, Antso Jakitunaren Fundazioa, 1670 eskuz. (sign. ZRV 4418)  
[Azala-2]

+

H. 45  
1670

N. 236725

**Maria SS.<sup>a</sup> Concepciocoaren Sermoia: predica-  
tunuen 1772 uen urtean.**

**Fecit mihi magna qui potens est. Luc. c. 10**

Baldin buruco guizon, eta emacume guciac, Tangicoazi ~~guz~~  
esquearac, emabearrean arguitcen badira, gundien mesteacacac: ~~em~~  
~~arrazoi~~ <sup>orduro</sup> ~~que~~ ~~agorequin~~. Mariac esquen onau, Tangicoazi adieraci be-  
ardio, bere lendabicio sortzeric ~~ar~~ <sup>tole</sup> ~~zandiruanacacac~~ <sup>tole</sup> ~~eranaz~~ <sup>tole</sup> ~~zamer~~  
de oei dagoquen ~~eranziera~~ <sup>gauza</sup> batequin, O eta cern andiac egun  
dituen nere alde, gucia saguquen Tangicoac. Fecit mihi magna qui  
potens est. Ezaguera onetana Maria becarten dutenac, ezira bere  
aunecoen ~~icen~~ <sup>ic</sup> ~~u~~ ~~er~~ ~~ona~~ <sup>ta</sup> ~~ma~~, eta honra andiac, baiican bere lenda-  
bicio sortean, berari bacar bacaric, Tangicoac egundiozcan me-  
vede baregabecoac. <sup>Ma</sup> izan zan grauan sortia, graiaz indarua,  
eta onela, Mariaz camporaco, <sup>Ma</sup> nen hume guciac, Tangicoaren es-  
reixaren dina ~~urabecela~~ <sup>Ma</sup> izan zan Tangicoaren ~~ar~~ <sup>gauza</sup> ~~er~~ ~~ona~~ <sup>ta</sup> ~~ma~~  
ien ~~hileua~~. ona gucia saguquen Tangicoac, <sup>Ma</sup> riagaciz eta <sup>Ma</sup>  
riagan ~~g~~ ~~u~~ ~~ir~~ ~~u~~ ~~nd~~ ~~ir~~ ~~en~~ ~~ur~~ ~~ari~~ ~~and~~ ~~iac~~: eta ona eguar marre izanduen  
Tangicoaganaco amodioa iracquetuana. Fecit mihi magna qui  
potens est. Azaldu ~~dir~~ ~~agun~~ <sup>miral ope</sup> ~~zuentar~~ ~~prochugaruac~~ izan ~~dir~~ ~~agun~~  
moduan ~~er~~ ~~ona~~. <sup>Ma</sup> gracia sortua izan zan: esan naider be-  
re lendabicio sortean, becarturic gondea izan zala. Maria izan  
zan graiaz indarua, ~~ed~~ ~~end~~ ~~ona~~. esan naider bere lendabicio  
sortean indarua izan zala becarturen contra. <sup>Ma</sup> ria ~~er~~ ~~be~~ ~~ca~~ ~~tu~~  
tu moturic izan zangordea? <sup>Ma</sup> rioc ~~ber~~ ~~ar~~ ~~agun~~ ~~sort~~ ~~en~~ ~~gu~~ ~~er~~ ~~ad~~ ~~en~~  
becartu ~~er~~ ~~o~~ ~~ng~~ ~~u~~ ~~i~~, ~~ed~~ ~~o~~ ~~ri~~ ~~g~~ ~~in~~ ~~al~~ ~~er~~ ~~ic~~. eta corda becartu ~~er~~ ~~o~~ ~~ng~~ ~~u~~  
ed ~~o~~ ~~ri~~ ~~g~~ ~~in~~ ~~al~~ ~~er~~ ~~ic~~? <sup>Ma</sup> rioc ~~dir~~ ~~u~~ ~~er~~ ~~ic~~, bide batez mandatu bi ~~er~~ ~~o~~ ~~ng~~ ~~u~~

Maria SS.<sup>a</sup> Concepciocoaren Sermoia, Antso Jakitunaren Fundazioa, 1670 eskuz. (sign. ZRV 4418)

[1]



ditindala: auda doctina eantico clauagun obligacionen cumplita  
 ceq; eta becatu au ceidan aduertea. Decatu eozquia, edo originala  
 da becatu ura ceñarequin, jatorren gura den heredoatunio gura lene  
 guraso Adam, eta eoyambio; Tangocoac uterico atea utuen Adam eta  
 Eva, eta egun utuan bere antera, emen bere matateco, seruitico,  
 eta berre munduan berico gloria edugitico; becatie emanien bere  
 gracia, equinas bere adugide, eta Ceruco heredo; gracia onegun  
 batena iusticia eozqui edo originala: eta obai miragun onegun  
 arazoiaren mendean ceuzque beren apertu gurtiaz, Espinonare-  
 quin araguiaren artean, guerratit ventatzen etzan erari: arazo-  
 iae aruntzen aen ceñu guaei, eta arazoiari Tangocoagana zu  
 ceñdunio, bere mendean ceoem. Axi oneco, eozia onetan Tangoi-  
 coac emanien, aen obediencia probateco, mandamentu erraz-  
 bat: ibinicionen atrequin guaiac beregan ceuzcan Paradisu batean:  
 emanien Paradiuaren erdian ceoem arbolabateco ez, beste hui  
 ta guetatie jateco esualdia, esanaz <sup>jateca</sup> debeatunien hura anterie  
 jaten zuten inuanteico, ilgo cirala, eta galdueo zutela beren zozion  
 guaiac, berentat, eta beste beren ondrenge guai guaitzat: baina lea  
 ialtraunarequin agunde ura gorteten bazuen, berac, eta beren gud-  
 rengo guaiac berri zozion ceoac izangocirala, behera illocecirala,  
 eta berico Ceruco gloria eramanio cirala. Etzate ean icusio  
 era onetan Adam, eta Eva, tentatunien, esanaz, <sup>debeatunio</sup> iusticie janguarie  
 illocecirala: beguaiac iniquico utzateca, Tangocoabecela izango cirala,  
 eta onaren, eta gurtaren jgundun. Euziqui luzateca utzateca  
 zongaitzico guerracia onen aldiz <sup>debatunio</sup> ceñdunio guaiac, esateca: ar-  
 coda zuei gogoratu ea nola Adam, eta Eva, hura anterie jan zuten:  
 au, esanaz, aemanio zutela Tangocoac eta aen ondrengeac, decela, beca

Maria SS.<sup>a</sup> Concepciocoaren Sermioia, Antso Jakitunaren Fundazioa, 1670 eskuz. (sign. ZRV 4418)

[2]

du antan seruan, Tanso coaren adrean, eta bere eta equinico ga-  
<sup>gato cola</sup>  
 gues guioe mundura. Beatu onic mauxte engainu gaittera, eta  
<sup>eta eogainu digu,</sup>  
 ematen digu onerato punitasuna, ilbeaxia, eta beste neque, eta naiga  
 be guciae. <sup>Ma</sup> bacarme izan zan beatu oneratic gordea. eta go-  
 dette miragarri onegian, Tangoitoac adieraci naidugu beatuari edo  
 quibeardiarum iguatasuna, edo gonnotoa. Eta auzango da gauco  
 nere iz gaur <sup>Ma</sup> Ma, nere guate edo culto, eta conpianza bigun  
 eta oronem formaga dina, ezaguetendet nere alabanza bearme etre  
 zula, ni nazi zure laguntzomaren bearmean arguizen naicena:  
<sup>me maite etre an</sup>  
 indazun arren zure laguntzuna, <sup>eta</sup> au guioe el catten dizugu, <sup>Ma</sup> Tanguen  
<sup>adpe</sup> <sup>Ma</sup> Ma diorala equiten dizuguba. <sup>Ma</sup> Ma.

Fecit mihi magna qui potens est. Luc. 1.  
 Guicia dauqueatas, equinditu nere alde, gauza andiaa.  
 Tanguitoaren amazar curitaco <sup>Ma</sup> Ma, gencian sorua, eta beatu  
 zanguite gordea izanzala <sup>Ma</sup> Ma, mitorazotendigu amaziaco, vimate au  
 guntzaten duen <sup>Ma</sup> Ma, <sup>Ma</sup> Ma, eta Elizaberac ere  
 onzar ematen du iriti au.

<sup>Ma</sup> Ma, mitorazotendigu. Bada egiaz, <sup>Ma</sup> Ma, bere urteca  
 ezgero beatuare <sup>Ma</sup> Ma, probateca, <sup>Ma</sup> Ma, eta bere  
<sup>Ma</sup> Ma, vacaren amaziaco, ecor probaten etre, ad beibat pro  
 baten due, <sup>Ma</sup> Ma, gorda izan zala beatu ongu, edo aigina <sup>Ma</sup> Ma.  
 Beatuac, dio Santo Thomasec, <sup>Ma</sup> Ma, zuan <sup>Ma</sup> Ma, Tanguicoaren  
 ama izatec ezdina edo indigna, ceren Amaren gloria becela, amaren  
 deshonra eronicozan <sup>Ma</sup> Ma. <sup>Ma</sup> Ma, dio Santu onec beronec,  
 Tanguicoaren amatzunagare, <sup>Ma</sup> Ma, miragarri bat dauca Tangui-  
 coarequin. <sup>Ma</sup> Ma, nolacoa izango litzaque, arguarequin illuntzun  
 eta <sup>Ma</sup> Ma, beatuaren artec bacatunac, edo unioa?  
<sup>Ma</sup> Ma, <sup>Ma</sup> Ma, <sup>Ma</sup> Ma, Tanguicoaren amatzunagare

Maria SS.<sup>a</sup> Concepciocoaren Sermoia, Antso Jakitunaren Fundazioa, 1670 eskuz. (sign. ZRV 4418)

[3]



Orate ad eaduan mirari <sup>guztiz</sup> andibat: Teit mihi magna qui potens est.  
 Privilegio au, nere enzuleae, duagabe guzuz andia da: andiara  
 berez, andia aldeoi edo circustanciean, etabereze bacantzun, eta  
 bacantzunean. India da berez, bada conrao gauze, combat conra  
 coagoac dian, obea ezagutzen bada, ~~beranbeader~~, combat lo  
 rayamagoda emanen mendean egotea, ambat gloriozua goa da  
 la, beragandue libere egotea, combat negargamagoa dan poza erioz  
 coaz uterria egotea, ambat adingamagoa dalavigne madari  
 caria onazoratzea, eta beran burua auzitea: combat negargaria  
 goa dan ezimbaitabatean, <sup>San</sup> Jangocoaren gorostan egotea, ambat  
 consolarimagoa dalaberaz <sup>beti</sup> maiztauzateca, eta bera maizateca.  
 India da bere aldeoi edo circustanciean. Baldin Jangocoac, <sup>antzeko</sup>  
 oiezberlaco bidelan batz Maria Mundura ecarri balu baldin Jangu  
 cioac berac oratu edo formatu balo gupuz bat, Franenac ex eceio equin  
 zuanbecela, <sup>enduan</sup> ~~ez~~ certiar aratu, guzquia bera baino garbiagoa, eta edera  
 go equinbaluere. Maria M<sup>h</sup>: ce gloria Marianenzat, gait gabea, garbia,  
 eta edera voratea, eta jaittea, ~~bera~~ glorioa beccarietatec: ~~eta mi~~  
 ranapituni ustelaguz preso, garri, edera nerea, eta vistan edo arbo  
 la pozoituae fuita oraingarria emateat Onelacoa da bada gauz  
 arutone suten degun miraria. Bada Maria garbia, edera, eta or  
 ain garria datur jatorri ustel, eta beccari anazaric.  
 India da bacantzunean, eta bartasunean. Privilegio eta gloria au Mariani  
 bazar bacarue emanizantzia, eta da bacana edo particulara. Bada  
 gungu santuzembatuzuec beren amen vabeteran santu eguniarala, eta  
 oen artean San Juan Baup<sup>ta</sup>, eta Ieronim<sup>o</sup> pozoa dira dora, eta laster  
 etatean mendue izen zuenac, baina demona guchian bazan ere  
 aren mendean egoniaran. Maria guzuz santa! zu bacarue ceta ezta  
 bada beccanere etatean mendean egon ezetadana, eta gucia daquigua  
 Jangocoaren esera zure alde edugui rezunaz, eta d'este juicio

Maria SS.<sup>a</sup> Concepciocoaren Sermoia, Antso Jakitunaren Fundazioa, 1670 eskuz. (sign. ZRV 4418)

[5]















# **Erredingo Luiseneko euskal predikuak (XVIII.-XIX. m.): aurkezpena, katalogazioa eta ikerketaren lehen emaitzak<sup>1</sup>**

**Los sermones en euskera de la casa Luisena de Redín  
(ss. XVIII-XIX): presentación, catalogación y primeros  
resultados de la investigación**

**Les sermons en basque de la maison Luisena de Redin  
(XVIII<sup>ème</sup>-XIX<sup>ème</sup> s.): présentation, catalogage et premiers  
résultats de recherche**

**Basque sermons from Luisena in Redin (18<sup>th</sup>-19<sup>th</sup> c.):  
presentation, catalogation and first research results**

SANTAZILIA, Ekaitz  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA/NUP)  
ekaitz.santazilia@unavarra.es  
ORCID: <https://orcid.org/0000-0003-1158-821X>  
DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v1i70.293>

Jasotze-data: 2024/06/26  
Behin-behineko onartze-data: 2024/10/04  
Behin betiko onartze-data: 2024/10/28

Lan honetan, Lizoainibarren (Nafarroa) agertutako euskal sermoi zaharren sorta bat aurkeztu dut. Oraingoz, hango euskararen azterna dokumental luze bakarra da. Aurkikuntza nola gertatu zen azaldu dut, eta corpora deskribatu, datatu eta katalogatu dut. Egileak identifikatuta, datu biografikoak ere bildu ditut. Gainera, hizkuntz ezaugarri zenbait deskribatu,

---

<sup>1</sup> Eskerrik asko Gorka Lekaroz, Patxi Salaberri Zaratiegiri eta ageriko izenik gabeko beste bi adituei lan honen ganean egindako iruzkin zorrotzengatik. Ikerketa hau Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak diruz hornitutako «Monumenta Linguae Vasconum 6: avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca» proiektuaren barnean dago (PID2020-118445GB-I00).

iturriak dokumentatu eta itzulpen ohiturez aritu naiz, eta, orobat, euskara predikaziorako herrian bazter gelditzen ari zela ondorioztatu dut.

**Gako-hitzak:** sermoigintza, itzulpengintza, euskararen historia, euskal testu zaharrak, Nafarroa, filologia.

En este trabajo presento una colección de sermones antiguos en euskera, hallados en el valle de Lizoain (Navarra). Es, por ahora, el único testimonio documental extenso del euskera de la zona. Explico cómo se hizo el hallazgo, describo, dato y catalogo el corpus, y, tras identificar a los autores, indago en sus biografías. Además, describo algunos rasgos lingüísticos, documento las fuentes y trato sobre los hábitos de traducción. Concluyo que el uso del vasco en la predicación empezaba ya a decaer allí.

**Palabras clave:** sermones, traducción, historia del euskera, textos vascos antiguos, Navarra, filología.

Dans ce travail je présente une collection de vieux sermons en basque, retrouvés à la vallée de Lizoain (Navarre). Il s'agit pour l'instant de l'unique long témoignage documentaire du basque de cet endroit. J'explique les circonstances dans lesquelles la découverte a été réalisée, je décris, date et catalogue le corpus, et, après avoir identifié les auteurs, je collecte des faits biographiques. Puis, je décris quelques traits linguistiques, je documente les sources et je traite des habitudes de traduction. J'en conclus le début du déclin de la pratique de la langue basque dans la prédication.

**Mots-clés :** sermons, traduction, histoire du basque, textes basques anciens, Navarre, philologie.

In this work I present a collection of old sermons in Basque discovered in Lizoain valley (Navarre). It is so far the sole extensive documentary testimony in the Basque language of that area. I explain how the discovery was made, I describe, date and catalogue the corpus and, after identifying the authors, I collect biographic data. Then, I describe some linguistic features, document the sources and talk about translation habits. I conclude that the use of Basque for predication was starting to decline in the area.

**Keywords:** sermons, translation, history of Basque, old Basque texts, Navarre, philology.

SANTAZILIA, Ekaitz (2025). «Basque sermons from Luisena in Redin (18<sup>th</sup>-19<sup>th</sup> c.): presentation, catalogation and first research results», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 70 (1): 307-359.

1. Sarrera
2. Euskal corpusaren deskribapena eta katalogazioa
3. Egiletza
  - 2.1 Kaligrafia
  - 2.2 Egileen biografia
    - 3.2.1 Joan Migel Aldunate
    - 3.2.2 Fermin Josef Aldunate
    - 3.2.3 Frantzisko Elizalde
4. Datatzea
5. Ikergaiak
  - 5.1 Hizkera eta barne-bariazioa
    - 5.1.1 Fonetika eta fonologia
    - 5.1.2 Izena
    - 5.1.3 Aditza
    - 5.1.4 Sintaxia
    - 5.1.5 Hiztegia eta aldaerak
  - 5.2 Elebitasuna eta soziolinguistika historikoa
  - 5.3 Iturriak
  - 5.4 Itzulpen-ohiturak
6. Ondorioak

Bibliografia

Eranskinak

## 1. Sarrera

Gorka Lekarozek, Nafarroako Pirinioaurreko euskarari buruz berriki kaleratutako lan mardulean, arrazoi osoz dio aztergai duen eremuko ibar asko, Lizoainibar barne, «zeharo umezurtzak» direla; «inolako izkribu luzerik ga-beak» eta, egoera horretan, deus gutxi jakin dezakegula han egiten zen euskararen nolakotasunaz (Lekaroz 2023: 25).

Haatik, 2018an, Nafarroako Unibertsitateko TesUN ikerketa-taldeko Maite Iraceburuk, Concepción Martínezek eta Cristina Tabernerok artikulatu bat argitaratu zuten, eta bertan testu zaharren ediziorako ikerketa-proiektu baten berri eman (Iraceburu; Martínez; Taberner 2018). Lan horretan diotenez, 2012tik aurrera, Erredingo (Lizoainibar, Nafarroa) Luisena etxeko dokumentu-bilduma pribatu bat izan dute langai<sup>2</sup>. Corpusaz mintzo, honela diote:

El grupo TesUN pudo dar inicio a su andadura gracias al encuentro de la documentación del Archivo de Casa Lujena, en la localidad navarra de Redfín, donde se encontró una ingente documentación privada que abarcaba un arco temporal comprendido entre los siglos XVII [sic. Badaude XVI. mendekoak ere] y XIX. Todos estos documentos procedían de archivos conservados en casas particulares de Navarra. De esta manera, el corpus establecido se caracteriza por la heterogeneidad de su tipología textual, que abarca desde documentos notariales, como traslados, testamentos o contratos matrimoniales, hasta escritos de carácter privado, como cartas, recibos, billetes o esquelas; además, por tratarse de una antigua casa parroquial -la casa del *abad-*, sermones y exégesis bíblicas. (Iraceburu; Martínez; Taberner 2018: 324)

Artean, notariotza-dokumentuak eta gutunak transkribatu, editatu eta sareratu dituzte, 1550. eta 1840. urteen artekoak denak (Iraceburu; Martí-

---

<sup>2</sup> Gaur egun *Lujena* deritzo etxeari, baina dokumentazio zaharrean *Luisena* dator maizenik, eta are *Luisenea* eta *Luiseneko*a ere inoiz. Segur aski, *Luisena* → \**Luixena* > \**Luxena* > *Lujena* bilakabidea dugu horren gibelean. Lehen urratseko palatalizazioa, goiko bokalak eragindakoa baino gehiago, adierazkorra delakoan nago; hots, iruditzen zait bilakabidea ez dela fonologikoa.

nez; Tabernero 2018: 324)<sup>3</sup>. Corpus hori, gainera, bestelako lanen oinarri ere izan da (cf. Martínez eta Tabernero 2013; Tabernero 2013; Iraceburu 2016; Martínez 2019).

Ezagutzera eman dituzten testuak gaztelaniaz idatziak dira denak, baina:

... [I]a mayoría de los documentos están redactados en español, si bien es cierto que *se han compendiado textos en euskera*, ya que estos proceden de la parte de Navarra en la que ambas lenguas estaban en contacto, aspecto que otorga a estos escritos un especial interés sociolingüístico y dialectológico. (Iraceburu; Martínez; Tabernero 2018: 325). (*Letrakera etzana nirea*)

### 1. irudia. Erredingo Luisena 2024an. (Argazkia: Ekaitz Santazilia)



<sup>3</sup> Kontsultagai daude taldearen webgunean:

<https://www.unav.edu/web/facultad-de-filosofia-y-letras/documentos-privados-antiguos>.

Bada, beraz, euskal testurik Luiseneko paperen artean eta, ikusiko dugunez, Lekarozek Pirinioaurre gehienerako irudikatu duen egoera, egiazko agor dokumentalarena, bestelakoa da Lizoainibarren, funts honi esker.

Baina corpus hori aztertu gabe dago eta, une honetan, ezezaguna zaie euskarara ikertzen dihardutenei<sup>4</sup>. Premiazkoa da, beraz, Luiseneko euskal testuei heltzea. Horien berri jakin nahiz, Cristina Tabernerorengana jo nuen<sup>5</sup>, haren eskutan baitira Luiseneko dokumentuak. Adeitsu eta eskuzabal utzi zizkidan.

Lan honetan, hartara, Luiseneko euskal testu-corpusaren deskribapena egin dut, eta katalogatze-lanen nondik norakoak azaldu (§ 2). Egiletzari buruzko ikerketak eta datu biografikoak 3. atalean bildu ditut, eta testuen datatzeaz aritu naiz 4. atalean. Corpus honek euskararen historiarako egin ditzakeen ekarpenak eta zabal ditzakeen ikergaiak zulatu ditut gero: hizkera, egoera soziolinguistikoa, iturriak eta itzulpen-ohiturak (§ 5). Hondarean heldu dira ondorioak (§ 6), «Bibliografia» eta «Eranskina» atalak.

## 2. Euskal corpusaren deskribapena eta katalogazioa

Gaztelaniazko dokumentuen artean testu administratiboak eta gutunak ere badira (Iraceburu; Martínez; Taberner 2018: 324), baina ez dugu halakorik euskarazkoen artean. Euskal testuak erlijiosoak dira denak —predikuak gehien-gehienak—, eta, aurrerago azalduko dudanez, XVIII. mendearen azken herenetik XIX. mendearen lehen bi hamarkadetara bitartekoak (ikus adibide bat 2. irudian).


Katalogatze-lanetan, erlijio-testu guztiak antolatu ditut, euskarazkoak zein gaztelaniazkoak, inoizka bereizirik eta lekuz kanpo zeuden atalak batera bilduz. Gainerakoan, jaso nituenean zekarten ordenari eutsi diot. Ondoren, zenbatze- eta izendatze-saioa egin dut.

<sup>4</sup> Orain arte, oharkabean pasatu da Iraceburu, Martínez eta Taberneroren lana (2018) euskalarien artean. Ez ote gabiltzan maizegi nor bere gisara, elkarren berri jakin gaberik...

<sup>5</sup> Berezi eskertu nahi diet Itziar Diez de Ultzurruni eta Concha Martínez Pasamarri artekaritza lana.



2. irudia. Luiseneko euskal prediketako baten lehen orrialdea (FJ\_ALD-EUS-010). (Argazkia: Ekaitz Santazilia)



Testuak osorik daude gehienak, eta zatika bakar batzuk. Dokumentu guztiek formatu berbera dute: 210 x 150 mm-ko orrialdez osatutako liburuxkak dira, josiak batzuetan eta aske besteetan. Euskarazkoak 44 dokumentu dira (336 orrialde<sup>6</sup>, eta gaztelaniazkoak 138. Dokumentuei signatura emateko, izkiriatazileen arabera sailkapena egin dut lehenik (ikus egileez § 3), eta, horren arabera, funtsa hiru zatitan banatu (ez, haatik, ber izariko hiru zatitan): FJ\_ALD, JM\_ALD eta F\_ELI. Ondoren, dokumentuaren hizkuntzari dagokion EUS edo CAS laburdura heldu da. Buruenik, dokumentu bakoitzari zenbaketa korrelatiboa eman diot (adibidez, FJ\_ALD-EUS-001, FJ\_ALD-EUS-002, eta abar). Jatorrizko dokumentuetan ere idatzi dut signatura, dokumentuak digitalizatu baino lehen.

Hona hemen euskarazko dokumentuei buruzko xehetasunak:

- FJ\_ALD-EUS: 38 dokumentu (238 orrialde). Fermin Josef Aldunatek euskaraz idatzitako testuak. FJ\_ALD-EUS-003 signaturak bi dokumentu ditu (FJ\_ALD-EUS-003-1 eta FJ\_ALD-EUS-003-2), prediku baten barnean beste bat dagoelako. 17 dokumentutan predikazio-urteak heldu dira (ez, ezinbestean, testua idatzi zirenekoak). Dokumentu batek 1778ko urtea darama, bostek 1799koa, hiruk 1801ekoa, beste hiruk 1810ekoa, eta lauk 1811koa. Horrezaz gain, hiru sermoik bigarren predikazio-urtea ere badute: 1798ko prediku batek 1812ko urtea du, 1801eko batek 1811ko urtea ere badu, eta 1801eko beste batek 1813koa. FJ\_ALD-EUS-036 predikua berezia da: ohi baino luzeagoa izateaz gain, nork, noiz eta norako idatzia den dakar: «Sermon de rogacion p[ar]a el dia de S[a]n Marcos. Compuesto y predicado por D[o]n Fermin Josef de Aldunate Abad de Leyun, y año 1810. En Beortegui». FJ\_ALD-EUS-037 orri bakarreko dokumentua da: prediku zati bat, binperrean lumaz egindako marrazki aberatsak dituena.
- JM\_ALD-EUS: 5 dokumentu (89 orrialde). Joan Migel Aldunatek euskaraz idatzitako testuak. Hiruk predikazio-urtea dute: 1779, 1793 eta 1796, hain zuzen. 1779koan (JM\_ALD-EUS-001), testua Joan Migel Aldunatek berak atondu zuela esaten zaigu, eta aipatu urte horretan

<sup>6</sup> Zenbaketatik kanpo utzi ditut izenburua edo oharren bat baino ez duten orrialdeak.

predikatu. Azken bien kasuan, predikazio-urteek geroago idatziak dirudite, eta ez baitezpada Joan Migel Aldunatek berak. JM\_ALD-EUS-005 dokumentuak kontriziozko aktoa dirudi, eta ez predikua.

- F\_ELI-EUS: 1 dokumentu (11 orrialde). Aita Frantzisko Elizalde izenpetutako dokumentua, apezei zuzendua. «Apechauney» izenburua du. Ez du datarik, baina, letrakeragatik, aurrekoen garaikidea da: XVIII. mendearen hondarrekoa, segur aski. Izenburuak dioen bezala, apezei zuzendutako testua da, apezin izaeraz eta betebharrez ari baita.

Gaztelaniazko 138 erlijio-testuak Fermin Josef Aldunateren prediku edo prediku-zatiak dira<sup>7</sup>.

### 3. Egiletza

#### 3.1 Kaligrafia

Gutxitan ageri da testuetan egilearen izenik. Alabaina, aldi bakan horiek aski dira, kaligrafiari begiratuta, testu anonimoen atzean zein esku dauden jakiteko.

F\_ELI sortako testu bakarrak izenpea du, eta Frantzisko Elizalde delakoa da sinatzailea. JM\_ALD kodeaz izendatu ditudan bost dokumentuak Joan Migel Aldunateren eskukoak dira: JM\_ALD-EUS-001 dokumentuan zuzenean aitortzen da egiletza, eta gainerakoek tankera eta letrakera bera dute. FJ\_ALD kodea esleitu diet Fermin Josef Aldunateren lumari egotzi dizkiodan testuei. Izena duen bakarra Beortegin predikatutakoa da (FJ\_ALD-EUS-036), baina sortako gainerakoak esku berak idatziak direlakoan nago. Gogoan har Luiseneko funtsean, Fermin Josef Aldunatek idatzitako erdarazko predikuekin batera, berak sinatutako gutunak eta bestelako agiriak ere badirela, kaligrafian euskal testuekin bat egiten dutenak.

---

<sup>7</sup> Gainera, gaztelaniazko beste bederatzi dokumentu daude, *Varia* (VAR) kategorian sartu ditundanak. Erlijio-testuak dira horiek ere, baina, edo ez dut garbi alduatetarrek idatziak diren, edo, nabarmen, bestelako letrakera dute, eta zaharragoak dira.

Aldunatetarrak Luiseneko semeak zirela eta Erredingo erretoreak izan zirela bazekiten gaur egun etxe hartan bizi diren ondorengoek. Erredingo parrokia-liburueta jo, eta berehala agertu zaizkigu bi aldunatetarrek eskuz erregistratutako eta sinatutako bataio, ezkontza, ehorzketa eta bestelako sakramentuen agiriak, XVIII. eta XIX. mendeetan.

Parrokia-liburueta batek eta bestek darabilten idazkera eta predikuetan ageri dena bakarra dela argi dago<sup>8</sup>. Dakartzadan hona konparagai batzuk, horren erakusgarri.

Joan Migel Aldunateren letrakerari erreparatuko diogu lehenik. 3. irudian haren prediku-zati bat ikus daiteke. 4. irudiak, ordea, Erredingo parrokia-liburueta batean eskuz jasotako eta sinatutako pasartea dakar. Begi-bistakoa da letrakera bera dela. Edonola ere, 1. taulan karaktere edo karaktere-sekuentzia zenbait alderatu ditut, baieztapena sendotzeko.

---

<sup>8</sup> Egileen kaligrafia ez da beti berbera: erabilitako lumak, urteen joan etorriak eta bestek eragina dute horretan. Predikuak idatzi eta erabili ziren garaietako letrakerek bat egiten dute, edonola ere, urte horietan bertan parrokia-liburueta ageri direnekin.

3. irudia. Joan Migel Aldunateren prediku-zati bat (JM\_ALD-EUS-001).  
(Argazkia: Ekaitz Santazilia)

ga onoroio eta Diquingantatic, eta Lu  
 liarazizuen lenagoco Etado, emono, eta  
 gazvigantara = Guaiago len basimba  
 ziduen Dazpi mila aadi, ordorean eman  
 ziguijon Jaun Amorosogonec lausetan  
 egun mila = Len basimbazituen Lau  
 mila Camello, guao eman ziguijon  
 Seimila = Len basimbazituen bozzien  
 egun 20ipare, eta berce aimbexcarto  
 ondozean eman ziguijon mila 20ipa  
 re, eta mila arto = Len eman baziz =  
 Jaun Amorosogonec Dazpi seme, eta  
 Zena alaba, guero eman ziguijon berce  
 aimbexcarto















4. irudia. Joan Migel Aldunateren letrakera Erredingo parrokia-liburuetan  
(IEA, Erredingo bataioak, 523-1, 380. or.)

50

Joseph de Quazu, y Maria Josephia  
de Lizuiz Becinos de este Lugar =  
fue Padrino Juan Joseph Martinez  
quien le puso por nombre Joseph ma-  
rtin; fue dicho Padrino advertido  
del Parentesco espiritual, que contra  
y de mas obligaciones. Le advierte  
que dicho difunto tuvo por hijos  
paternos a Juan Martin de Quazu  
y Maria de Villanueva La difunta  
Becinos, que fueron de este Lugar, y  
maternos a Mig. de Lizuiz y Cha-  
talina de Martinez; Para que con  
hice este auto en el sobe dicho dia,  
mes, y año etc y firme.

D. J. Mig. de Aldunate  
Luz de Nedin Abad de  
leate en lo borrado Nedin

1. taula. Joan Migel Aldunateren zenbait grafemaren (edo sekuentziaren) alderaketa. (Egilea: Ekaitz Santazilia)

Euskal predikua	Grafema (-sekuentzia)	Parrokia-liburua
	<Z>	
	<Y>	
	<di>	
	<f>	
	<Jo>	
	<p>	
	<qu>	

Fermin Josef Aldunateren idazkerari gagozkiola, 5. irudian berak idatzitako prediku bat dugu, eta 6.ean, berriz, Leiungo parrokia-liburutik ateratako zatia. Kaligrafia bera dugu bietan. Lehen bezala, grafema eta grafema-sekuentzia zenbait alderatu ditut 2. taulan.

5. irudia. Fermin Josef Aldunateren prediku-zati bat (FJ\_ALD-EUS-005).  
(Argazkia: Ekaitz Santazilia)

Ex Epist. ad Hebræos Cap. O.  
Egu allegacenda Tangoycoaren suagertade Siirna deytin loioz hu-  
manaxen ataxietan memoria Saludable golpe meritable e-  
xierecaren aiegri. Egu, Anima aduleza, uatur zue zoure  
Esporo uerdadeno Teru Chrintori Falamo zoure uxondatocoy,  
admititu duzu antan Demonia, zoure Enemigoa, eta Tan-  
goycoarena. Egu allegacenda anen paciencia deycara, ezbe-  
zaguen uacala) uere indignacico Espata uerembaynatuare-  
qui cartigacico zure traycico: bayic ueroac edeguiac  
baracico, ainsatur peligo, eta xuyra, amonazacen di-  
xutenac larece zoure mortalidadeco oyec, ceytan uiciza-  
renec. Egu uocataria, uicizarina, acenduric tranc forzoro  
hexiacocoro, ala nola allegatu bean uuen uacala, edo espe-  
racen uicuzun uacala; Egu eldura uere medior Oroytas  
tera Tangoycoaren piedadec, zoure ontaruntaco, Sineu-  
cenduric, eta deguizuna, aurgue inuotogui adenen du-  
zuna. Onqui sineuacenduric (Cualitac) eci atentogui con-



6. irudia. Fermin Josef Aldunateren letrakera Leiungo parrokia-liburutetan (IEA, Leiungo bataioak, 627-1, 11v)

Año 1800.

El día once de Septiembre del año de mil y ochocientos  
 D. LXX. dos de la mañana nació una Niña de  
 legitimo matrimonio de Miguel Josef de Egüer,  
 y Maria Andueza de Nurdain, siendo ambos na-  
 turales del lugar de Medin, y habitantes en el de  
 Segun; y el día doce del mismo se bautizó solem-  
 nemente por el Abad infra-escrito, siendo padrino  
 Miguel Antonio de Nurdain, natural del Señorio de  
 Sabra, y habitante en dho. Segun, a quien adocen-  
 ia.) el parentesco Espiritual, y demás que previene  
 el Ritual Romano: Abuelos paternos Joaquin  
 de Egüer, y Maria Micháela de Abaurrea, ja

2. taula. Fermin Josef Aldunateren zenbait grafemaren (edo sekuentziaren) alderaketa. (Egilea: Ekaitz Santazilia)

Euskal predikua	Grafema(-sekuentzia)	Parrokia-liburua
	<Egu>	
	<J>	
	<p>	
	<ñ>	
	<R>	
	<La>	

## 3.2 Egileen biografia

### 3.2.1 Joan Migel Aldunate

Joan Migel Aldunate Ardanatz Luisenean sortu zen eta 1725eko otsailaren 21ean bataiatu zuten Erredingo San Andres parrokian<sup>9</sup>. Herriko abadea, Joan Migel Beratsain, izan zuen lekuko, amaren aldetik osaba baitzuen, eta, horregatik, Beortegiko parrokoak, Joan Migel Redinek, egin zuen bataioa. Aita Luiseneko Pedro Josef Aldunate zuen<sup>10</sup>, Angelena etxearen jabea ere bazena<sup>11</sup>, eta aitaren aldeko aitona-amonak, Luiseneko Migel Aldunate eta Josefa Beratsain. Ama, ordea, Angeleneko Katalina Rosa Ardanatz, Erredinen bataiatu zuten 1690eko abuztuaren 30ean (1758ko abuztuaren 11n hila)<sup>12</sup>, eta Migel Ardanatz eta Maria Martina Arberatz zituen guraso.

Joan Migelen gurasoak Erredinen ezkondu ziren 1707ko otsailaren 27an<sup>13</sup>, eta hamahiru seme-alaba bederen izan zituzten<sup>14</sup>: Maria Josefa Angela (1711), Maria Angela (1712), Martina (1715 – 1724), Joakina (1717 – 1724), Manuela (1719 – 1745), Migel Antonio (1721 – 1723), Joan Frantzisko (1723), Joan Migel (1725), Bernarda (1727), Maria Frantziska (1729), Joakin (1731), Diego Fermin (1733 – 1773) eta Anastasia (1735).

Ez jakinki zergatik, baina konfirmazioa Atarrabian egin zuen Joan Migelek. Gainerako anai-arrebek, ordea, Erredinen berean<sup>15</sup>.

---

<sup>9</sup> Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboa (IEA), Erredingo bataioak, 523-1.

<sup>10</sup> Ez dut haren bataio-agiria ediren. Bai, ordea, haren anai-arrebenak, Luisenekoak denak (IEA, Erredingo bataioak, 523-1). 1759ko apirilaren lehenean hil zen, 70 urte inguru zituela (IEA, Erredingo heriotzak, 523-1).

<sup>11</sup> Nafarroako Errege Artxibo Nagusia (NEAN), Auzibideak, 315966.

<sup>12</sup> IEA, Erredingo heriotzak, 523-1.

<sup>13</sup> IEA, Erredingo ezkontzak, 523-1.

<sup>14</sup> IEA, Erredingo bataioak eta heriotzak, 523-1.

<sup>15</sup> IEA, Erredingo konfirmazioak, 523-1.

1750ean libre gelditu zen Erredingo parroko kargua, orduko apeza, Frantzisko Labiano, Lizoaingora joan baitzen<sup>16</sup>. Joan Migel Aldunatek, batetik, eta Itoizko abade Pedro Fernandezek, bestetik, aurkeztu zituzten beren buruak kargurako. Gauzak horrela, otsail eta martxo artean, honako etxeek bozkatu zuten Aldunateren alde: Aroztegik<sup>17</sup>, Martiketenak, «del Herreiro»k<sup>18</sup>, Zalbak eta Gendulaingo kondeek, Erredingo palazioko jaun-andereak ziren aldetik. Esan gabe doa Luisenak ere alde bozkatu zuela, gurasoak izaki etxeko jaun-andreak! Angelenekoek ere alde bozkatu zuten, hurrengo atalean sakonago azalduko dudanez (§ 3.3.2), etxe horren jabea Joan Frantzisko Aldunate anaia baitzen sasoi hartan. Fernandezen alde agertu ziren Arberatz, Zabaldika eta Ferrandorena etxeak, baina, hautagai horrek bere burua erretiratu zuenean, hiru etxe horiek ere Aldunateren aldeko boza eman zuten<sup>19</sup>. Abuztuaren 5ean azterketa gaindituta, hil horren 9an hasi zen Aldunate Erredingo elizan parroko, artean ordena txikiko elizgizona zela (ikus 7. irudia)<sup>20</sup>.

1809an eritzen hasi bide zen Joan Migel, Erredingo bataio-liburuari begira pentsa daitekeenez<sup>21</sup>. Urte hartako martxoko eta ekaineko bataio bana iloba zuen Fermin Josef Aldunatek, Leiungo erretoreak, egin behar izan zuen, eta hala jaso zuen Joan Migelek berak parrokia-liburuan. 1810eko urtarrilean, zuzenean Fermin Josefek eman zituen sakramentuak Erredinen, baita liburuetan jaso ere, Joan Migelek ahal bezala sinatuta. Otsailean Lizoaingo kapilau batek egin zituen bataioak, eta Fermin Josefek idatziz jaso, honako testua lagun: «Por allarse dicho abad [Joan Migel] encamado por la muy abanzada edad, e indispuesto gravemente y no poder firmar, a sus ruegos, y como coadjutor suyo, firme yo el infra escrito abad D[o]n Fermin Josef aldunate, abad de Leyun».

<sup>16</sup> IEA, Auzibideak, 1625. kaxa, 23. zk.

<sup>17</sup> Beti apikariarekin ageri dena, bidenabar: *Arostegui*.

<sup>18</sup> XIX. mendeko dokumentazioan *Herrerorena* ere ageri da.

<sup>19</sup> NEAN, Urrozko notariotza, Frantzisko Lakarra notarioa, 1750.

<sup>20</sup> IEA, Auzibideak, 2851. kaxa, 12. zk.

<sup>21</sup> IEA, Erredingo bataioak, 523-1.

**7. irudia.** Erredingo San Andres eliza. (Argazkia: Ekaitz Santazilia)

Joan Migel Aldunate 1810eko martxoaren 24an zendu zen<sup>22</sup>, eta martxoaren 27an ehortzi zuten Erredingo elizan, abadeentzako hilobian. Jorge Matias Zalba Janarizko abadeak hartu zuen behin-behinean Erredingo parrokia. Joan Migelek 1808ko otsailaren 4an egin zuen azken testamentua<sup>23</sup>. Horretan argi dio bere sortetxea Luisena dela, eta Fermin Josef Aldunate iloba izendatu zuen jaraunse unibertsal; horrek huts eginez gero, Luiseneko jaun-andreak. Apezetxean zeuden ardo-kupelak ere bereak zirela argi utzita, hurrengo abade titularra bere iloba Fermin Josef izatekotan, ardo hori harentzat geldi zedin agindu zuen. Ikusiko dugunez, Joan Migelek espero bezala agitu zen dena.

### 3.2.2 *Fermin Josef Aldunate*

Fermin Josef Aldunate Murillo aurrekoaren iloba dugu, esan bezala. 1767ko irailaren 3an jaio zen Erredinen, eta osabak berak bataiatu zuen,

<sup>22</sup> IEA, Erredingo heriotzak, 523-1.

<sup>23</sup> NEAN, Urrozko notariotza, Nikolas Buelta notarioa, 1801, 129. zk.

biharamunean<sup>24</sup>. Aita Luiseneko Joan Frantzisko Aldunate Ardanatz zuen, 1723ko maiatzaren 22an Erredinen bataiatua, eta ama, aldiz, Josefa Murillo Iribarren domeñuarra, Murillo etxekoa (1790eko irailaren 14an hila)<sup>25</sup>. Aitaren aldeko aitona-amonak ezagunak zaizkigu, aurreko atalean aipatu Joan Migelen gurasoak baitziren. Amaren aldekoak, ordea, Pedro Murillo eta Teresa Iribarren ditugu, Domeñuko biztanleak biak.

Joan Frantzisko Aldunatek eta Josefa Murillok 1751ko ekainaren 8a izan zuten eztei-eguna Erredinen, eta une hartan berean Luisena sortetxea jarauntsi zuten, Joan Frantzisko seme nagusia ez bazen ere. Lau urte lehenago Erredingo Angelena ere eman zioten gurasoek, familiaren jabetzapekoa baitzen etxe hura, aurreko belaunalditik bederen<sup>26</sup>.

Ezkonduta, domeñuarra bederatzi umez erditu zen: Teresa Angela (1752 – 1814), Joan Frantzisko (1753), Abran (1755 – 1800), Maria Josefa (1758), Maria Manuela (1760 – 1761), Josefa (1761 – 1762), Fermina (1764), Agustin (1765 – 1765) eta, gazteena, Fermin Josef (1767) bera.

Konfirmazioa 1772ko ekainaren 25ean eman zion Irigoien eta Dutari apezpikuak, Erredingo parrokiari<sup>27</sup>.

Halakoetan ohi bezala, Aldunate-Murillo senar-emazteen alaba zaharrena, Teresa Angelak, jarauntsi zuen Luisena, baita Angelena ere, gainerako ondasunekin batera, Jakue etxeko Joan Martin Fernandez Lerruz ozkariztarrekin ezkondu bezain sarri. 1783ko azaroaren 10ean, hain zuzen, egin zuten ezkontza eta kontratua<sup>28</sup>. Hitzarmen horretan jasoa dago 15 urte lehenago hila zela aita, Joan Frantzisko Aldunate, eta usufruktuan bizi zela Luisenean Josefa Murillo ama<sup>29</sup>. Gutxi ezagutu zuen aita, beraz, Fermin Josefek<sup>30</sup>.

<sup>24</sup> IEA, Erredingo bataioak, 523-1.

<sup>25</sup> IEA, Erredingo heriotzak, 523-1.

<sup>26</sup> NEAN, Urrozko notariotza, Frantzisko Lakarra notarioa, 1751.

<sup>27</sup> IEA, Erredingo konfirmazioak, 523-1.

<sup>28</sup> NEAN, Urrozko notariotza, Nikolas Buelta notarioa, 1783.

<sup>29</sup> NEAN, Auzibideak, 338859.

<sup>30</sup> Euskara, beraz, gainerako senideekin eta erredindarrekin ikasiko zuen Fermin Josefek. Ama, Erromantzatuko Domeñukoa izanik ere, euskalduna zatekeela pentsatzea ere ez da erokeria

**8. irudia.** Leiungo San Martin eliza. (Argazkia: Ekaitz Santazilia)

Badirudi Fermin Josef Aldunate Elorzko kapilautza bat eskuratzeko lehia-tu zela 1790. urtean<sup>31</sup>, ordu hartan filosofia ikasle zebilela<sup>32</sup>. Kapilautza hori Txarlesenekoen edo Elortzenekoen patroitzapekoa ote zen ebatzi behar izan zuten epaileek. Aldunatek zioen lehentasuna Elortzenekoen zutela, eta hark etxe horretantxe zuela etorkia. Hura frogatzerik izan ez baitzuen, auzia galdu eta kapilautzarik gabe gelditu zen.

Urte hartan berean, Leiungo abadetza libre gelditu zen, ordura arteko apezka, Josef Iholdi, Galdurotza aldatu zenean<sup>33</sup>. Etxalarko Felix Agustin

---

(cf. Lekaroz 2023).

<sup>31</sup> IEA, Auzibideak, 2607. kutxa, 10. zk.

<sup>32</sup> Ordena txikiak hartu ahal izateko ditu-iturriren bat eskatu ohi zitzaizen ikasleei: kapilautza bat, benefizio bat...

<sup>33</sup> IEA, Auzibideak, 2396. kutxa, 13. zk.

Elizalde hautatu zuten leiundarrek, baina gero ez zituen latin eta moral azterketak gainditu. Lau hilabete pasatuta, 1792ko urtarrilean, berriz egin zioten azterketa Elizalderi, eta berriz huts egin. Luzapena eman zioten beste behin, baina aitzakiak aitzaki eta osasun arazoak tarteko, uztailean ere ez zuen azterketa gainditu. Deus esan gabe, soldado joan omen zen Elizalde, eta, hura jakitean, 1793ko azaroan, Fermin Josef Aldunatek bere burua aurkeztu zuen, alde zuzenetik leiundar etxejabeen bozkak bilduta. Fiskalak, ordea, salaketa jarri zuen, plaza hura hutsik zegoela behar bezala iragarri ez zela eta. Azkenean, Aldunatek 1795eko martxoaren 23an azterketa gainditu, eta hil horren 28an abade kargua eskuratu zuen Leiungo San Martin parrokian (ikus 8. irudia)<sup>34</sup>. Artean diakonoa zen, 1795eko abenduaren 19an erdietsi baitzuen presbitero gradua<sup>35</sup>.

Leiungo abadetza erdiesteko tenorean, Fermin Josef ez zen hutsetik abiatu. Luisena etxe kaparea zen, eta halakoek aski zuten herri batean jabetzaren bat izatea biztanle-eskubideak lortzeko, herrian bizi gabe ere. Zegozkien zergak ordainduta, sori zitzairen, besteak beste, herri lurak ustiatzea eta apeza hautatzeko orduan proposamena luzatzea eta bozka ematea, herriko gainerako biztanleei bezal-bezala<sup>36</sup>. Hori, jakina, ez zen herrian benetan bizi ziren biztanleen gustukoa, ondasunak gehiagoren artean banatu behar ziren eta. Luisenekoak, Erredinen bizi arren, Leiungo eta Ozkarizko biztanle «kanpotarrak» (*forano* deituak) ziren, eskubidedunak, XVII. mendetik bederen<sup>37</sup>. Bazuten, beraz, Leiungo abadetzarako hautagaia aurkezteko eta bozkatzeko aukera, eta Fermin Josefi, etxeoari, eman zioten lanpostua, aukera suertatu zenean. Egoeraren erakusgarri, Leiunen, 1800. urtean, zortzi

<sup>34</sup> IEA, Auzibideak, 2851. kutxa, 14. zk.

<sup>35</sup> IEA, matrikula-liburua, 1281-2, 8. or.

<sup>36</sup> Maizterrei, jabetzarik ez zutenei, ez zegozkien halakorik, herrian bizi arren.

<sup>37</sup> NEAN, Auzibideak, 337198. Auzitan ibili ziren Luisenekoak Leiunen, ez baitzituzten biztanle kanpotartzat nahi. Josefa Murillok, Fermin Josefen ama domeñuarrak, epaiketa izan zuen 1778. urtean Leiungo Oiarkua izeneko aurkintzan arbolak mozteagatik, eta haren alabak eta suiak, hots, Luiseneko hurrengo etxeko jaun-andreek, kaparetasuna frogatu behar izan zuten 1799an, leiundarrek onar zitzaizkion (NEAN, Auzibideak, 337198). Auzibide honi esker dakigu, esaterako, Luisenera ezkondu zen Joan Martin Fernandez ozkariztarra Jakue etxekoa zela, kaparea hura ere Erredingo Fernandorenetik heldu zelako, eta Janarizko biztanle kanpotarra, gainera.



biztanletatik sei kanpotarrak ziren, eta zazpigarrena apeza. Biztanle egoiliar bakarra zegoen<sup>38</sup>.

Badakigu, orobat, Lerruzko parroko kargua libre gelditu zenean, 1797. urtean, Ihelzko abadea aurkeztu zutela biztanleek, baina uko egin ziola karguari. Ondoren, artean Leiunen zen Fermin Josef Aldunate proposatu zuten Lerrutza joateko, urte hartako maiatzean biztanleen aldeko bozkak bilduta. Uztailaren 28an kargua onartu bazuen ere, ez jakinki zergatik, abuztuaren 14an utzi egin zuen<sup>39</sup>.

Hona Aldunateren eta leiundarren euskalduntasunaren erakusgarri bat. 1798ko irailaren 16an Leiungo fabrika-liburuan jaso zenez<sup>40</sup>, Fermin Josefek diozesiko bisitariaren manuak euskaraz —«en lengua bulgar del pais»— aditzera eman zizkien eliztarrei. Sasoi hartan berean, Erredinen, osaba Joan Migelek ez zuen erabilitako hizkuntzari buruzko xehetasunik eman<sup>41</sup>.

Leiungo abadetza ez zen, segur aski, ondasunen aldetik oso aberatsa. Gauzak horrela, soldata osatzeko, 1799. urtean Atarrabiako parrokiako kapilautza bat ere lortu zuen Fermin Josefek, patroiek kargu hartarako hautatuta<sup>42</sup>.

Erredindarra Leiungo abade aritu zen osaba, sorterriko apeza, 1810ean hil arte. Orduan, Erredingo abadetza hartzeko hautatu zuten Martiket, Zalbarrena, Ferrandorena, Aroztegi, Zabaldikarena, «la del Herrero», Angelena eta Luisena etxeetakoek<sup>43</sup>. 1810eko uztailaren 3an gainditu zuen hautagaiak azterketa. Uztailaren 25ean Leiungo abadetzari uko egin zion, eta egun hartan berean, arratsaldeko lauretan, Erredingo abadetzaren kargua hartu, he-

---

<sup>38</sup> NEAN, Auzibideak, 094158.

<sup>39</sup> IEA, Auzibideak, 2592. kutxa, 16. zk.

<sup>40</sup> IEA, Leiungo fabrika-liburua, 627-4.

<sup>41</sup> IEA, Erredingo fabrika-liburua, 522-5.

<sup>42</sup> IEA, Auzibideak, 2880. kutxa, 11. zk.

<sup>43</sup> IEA, Auzibideak, 2851. kutxa, 16. zk.; NEAN, Urrozko notariotza, Nikolas Buelta notarioa, 1810, 27-34. zk.

rriko elizan<sup>44</sup>. Nolanahi ere den, Leiunen ere behin-behinean jarraitu zuen, azaroa bitarte: orduan izendatu zuten Leiungo hurrengo parrokoa<sup>45</sup>.

1719an sortutako kapilautza bat ere bazegoen Erredingo elizan. Araudiak zioenez, kapilau titularrak ardura hartu ezean, herriko abadeari zegokion kapilautza horren urteko 120 mezak ematea. Fermin Josefek berak 1810eko irailean mustutako kontu-liburuari esker<sup>46</sup>, badakigu urte hartatik hasita eta hil arte urtero egin zituela 120 mezak, gerraren ondorioz kobratzeko aukerarik izan ez zuenetan salbu. Aurreko abadeek, osabak barne, ardura hori ere izan zuten.

Erredingo parroko izateari utzi gabe, hil arte egon baitzen karguan, inguruko herrietako behin-behineko abade ere aritu zen falta izan zuten sasoietan. Hala, Leiuna itzuli zen urte luzez, behin-behinean. Leiungo parrokoa-liburuan bera da sinatzailea 1814ko irailaren 23tik 1833ko ekainaren 19ra bitarte<sup>47</sup>, eta hurrengo sinadura, abade berriarena, 1834ko apirilekoa da.

Bestalde, Laboako parrokia txikia baitzen, badirudi Leiungo abadeak hartzen ohi zuela horren ardura behin-behinekoa. Gorde den Laboako parrokia-liburu bakarrak 1789ko abuztuaren 30ekoa du lehen sarrera, eta Fermin Josefek berak egin zuen, Leiungo abade titularra eta Laboako behin-behinekoa zela<sup>48</sup>. 1810. urtera arte ageri da sinatzaile. Erredina joateko Leiungo abadetza utzi zuenean, Laboakoa ere utziko zuen naski.

Erredingo abade titular izan zen denboran, Ozkaritzen ere aritu zen behin-behinean. Herri hartako bataio-liburuan, 1833ko urriaren 9an dugu azken aldiz Loperena abadearen sinadura. 1834ko azaroaren 7an Fermin Josef Aldunaterena dugu, 1838ko martxoaren 3a bitarte<sup>49</sup>.

---

<sup>44</sup> IEA, Auzibideak, 2851. kutxa, 14. zk.

<sup>45</sup> IEA, Leiungo bataioak, 627-1.

<sup>46</sup> IEA, Erredingo kapilautza, 445-7.

<sup>47</sup> IEA, Leiungo heriotzak, 627-1.

<sup>48</sup> IEA, Laboako parrokia-liburua, 626-7.

<sup>49</sup> IEA, Ozkarizko bataioak, 530-1.

Fermin Josef Aldunate 1840ko otsailaren lehenean zendu zen<sup>50</sup>, eta testamentuan agertutako borondatea bete bazuten<sup>51</sup>, Erredingo elizako parrokoen hilobian ehortzi zuten, osaba bezala. Testamentuan, beste ilobak ahaztu gabe, ondasun gehienak Joan Josef Fernandez Aldunateri utzi zizkion, ordurako haren eskutan baitzen Luisena, Fermin Josefen sortetxea.

### 3.2.3 *Frantzisko Elizalde*

Deus gutxi jakin ahal izan dut egile honetaz, eta erabat iluna zait zergatik dagoen berak izenpetutako dokumentu hori Luiseneko paperen artean.

Testuak berak ematen dizkigun heldulekuak ere ez dira erabakigarriak suertatu. Sinadurak («Aita Frantzisko Elizalde») eta sinaduraren gainean dagoen «IHS» monogramak egilea jesulaguna izan zitekeela pentsatzera naramate. Darabilen ortografia aski modernoa eta sistematikoa da, eta hizkera ere zehatza eta aberatsa. Egile jantzia eta euskaraz idazten trebatua dela ikusten da: alduetatarrak baino gehiago, bederen (ikus 9. irudia). Hori ere bateragarria da orduan jesuita batzuek euskararentzat abiatu zuten proiektu linguistikoarekin (Urgell 2018).

Baina Loiolako jesulagunen artxiboan esan zidatenez, konpainiako ki-deen erroldan Frantzisko Elizalde bakarra ageri zaie: 1735ean *Apezendaco doctrina christiana uscaras* ezaguna argitaratu zuen muzkiarra, hain zuzen. Elizalde liburua argitaratu baino bi urte lehenago hil zen, ordea, eta, gainera, gazte-gazterik utzi zuen Nafarroa (Ursúa 1994). Gure eskuizkribuak, aitzitik, modernoagoa dirudi: kaligrafiak aiseago garamatza XVIII. mende bukaerara eta, ikerketa sakonagoen faltan, aipatu dudana ortografia sistematikoa ere hurbilago dakusat Lehen Euskara Modernotik (Urgell 2018) beste ezertatik baino. Frantzisko Elizalde hau eta muzkiarra bi direla pentsatzeko azken argudioa, ezin utzizkoa, hizkuntzari doakio: bata eta besteak darabilten euskararen aldeak daude.

---

<sup>50</sup> IEA, Erredingo heriotzak, 523-2.

<sup>51</sup> NEAN, Urrozko notariotza, Javier Buelta notarioa, 1840, 28. zk.

9. irudia. Frantzisko Elizalderen testuaren azken orrialdea.  
(Argazkia: Ekaitz Santazilia)


Nende guti suatenbada dotinaxen aitzera, edo icastera,  
 alaxe eta utzi beax. Lenbicoa: cexgati exi Chiquietan ezi  
 doazque aritz, cexgati etrian; baia orduan Jangoicoac dau,  
 guti dirala, Apechaunaxen borondatea, edo deieion andia ba-  
 da ere. Eta Jangoicoac borondate ona pagatendu obra be-  
 cala. Bigaxena dioti, gauza guciac lenbicoan lartzac,  
 eta difficultosoac badiduxitene, porpatzen badugu bein, eta  
 beixi, eta arexe beixi, eta aritz aldi cyten badugu, az-  
 querecore atraco gaxa naidugun gucia icastera equi, edo  
 cytara equi. Nondi aldixen batzui, Nende guti, edo bate-  
 rez suatenbadaxe dotinara, eta argati utzi beax; cexga-  
 ti andago Jangoicoa, eta Jangoicoac egonco diu aritz be-  
 ze aldirateco. Bertze aldi: ardi guti guerdatzen duen  
 artxaia, bocic, eta cuidado gutiagorequi dagon becala, da-  
 goque Apechaunare; eta ardi guti dituen artxaiaxi con-  
 tu gutiago escatuco, edo artuco dioren becala; alabex tri-  
 men artxaiaxi ere contu gutiago escatuco diote. Nondi  
 atraco, edo icarico dute Apechaunec, etrutela utzi beax do-  
 tinaxen eracuttea, Nende choill guti suaten badaxe; cexgati  
 futiaiee Jangoicoaxen auxxean choill aritz izaindiran. Cex-  
 gati aritzey eracutti naiduenaxen borondatea, Jangoicoac  
 estimatzen, eta pagatzen ere du, aritzey eracutti balioten  
 becala. Baia obligacioxie capalutere, eracutti beaxluquere,  
 cexgati Christomen officia den, eta indulgenaria andiac ere  
 ixabarten diexan, guero exraindugun becala bertze lecutean.  
 Apechaun Jaunen Zexbitzaxi escu-  
 ctan apatzen diotedara milla amos:  
 Tho  
 Aita Frantzisko Elizalde.

#### 4. Datatzea

Elizalderen testuak ez du datarik. Joan Migel Aldunateren bost testuetatik hiruk, ordea, predikazio-urtea daramate: 1779, 1793, eta 1796, hain zuzen. Orduan Erredingo abadea zen, 1750. urtetik. Fermin Josef Aldunateren prediku gehienek ere ez dute datarik, baina, tarteka, predikazio-urteak ageri dira horietan ere<sup>52</sup>; batzuetan, bat baino gehiago (ikus 10. irudia), testuak behin baino gehiagotan erabili zirelako edo.

3. taulan ageri denez, Fermin Josef en euskarazko prediku urtedun zaharrena 1798koa da. 1799, 1801, 1810. eta 1811. urteetan prediku bati baino gehiagori paratu zien predikazio-urtea. 1813koa da urterik berriena, baina bigarrena da: lehenagoko urtea ere badarama. Predikazio-urte bakarra duen dokumentu berriena, beraz, 1812koa da. Bi garai bereiz daitezkeela dirudi: 1798 – 1801, eta 1810 – 1812. Lehendabiziko garaian Leiungo eta Laboako abadea zen Fermin Josef; bigarreanean, alabaina, Erredingoa baino ez.

10. irudia. Predikazio-urteak, prediku batean (FL\_ALD-EUS-010).  
(Argazkia: Ekaitz Santazilia)



<sup>52</sup> Batzuetan garbi dago, letrakeragatik eta tinta desberdina delako, eskuizkribua eta dakarren predikazio-urtea ez direla idatzaldi berean egin. Halakoetan, beraz, baliteke testua lehenago idatzi eta erabili izana.

**3. taula.** Euskarazko sermoietako predikazio-urteak. (Egilea: Ekaitz Santazilia)

Predikazio-urtea	Prediku-kopurua (1. urtea)	Prediku-kopurua (2. urtea)
1798	1	
1799	5	
1801	3	
1802	1	
1803	1	
1810	4	
1811	4	1
1812	1	1
1813		1

Gaztelaniazko predikuen artean ere bada urtedunik. 4. taulan predikazio-urteak zenbat aldiz ageri diren eman dut, kontuan izan gabe bestelako urteekin batera ageri diren ala ez. Ikusten denez, bai Leiungo eta Laboako aldian (1795 – 1810), bai Erredingoan (1810 – 1840), gaztelaniazko predikuak darabilta Fermin Josef Aldunatek. Urterik zaharrena, 1789koa, lapsusa izan daiteke (*pro* 1798); izan ere, urte hartan apezgoari ekin gabe zegoen Aldunate eta, gainera, predikuaren kaligrafia eta estiloa bat dator 1798ko urtea dutenekin.

**4. taula.** Gaztelaniazko sermoietako predikazio-urteak. (Egilea: Ekaitz Santazilia)

Predikazio-urtea	Prediku-kopurua
1789	1
1791	1
1792	2
1797	6
1798	11

Predikazio-urtea	Prediku-kopurua
1799	4
1800	3
1801	7
1802	5
1803	5
1804	3
1805	7
1806	9
1807	7
1808	9
1809	5
1810	1
1812	2
1814	4
1817	3
1818	3
1819	2
1820	1
1821	1
1822	3
1823	2
1824	4

Ondorio garbiak atera ahal izateko, urterik ez dakarten predikuak —gehienak— noizkoak diren jakitea ezinbestekoa da. Alderaketa papirologiko, estilistiko eta kaligrafikoa egin behar da horretarako. Edonola ere, urtedunei baino erreparatzen ez badiegu, nabarmena da gaztelaniazkoak askoz gehiago direla, batera erabili zituela gaztelaniazko eta euskarazko pre-

dikuak Leiunen ziharduela, eta Erredinen, sorlekuan, hasieran bietarik badugu ere, garai berrienetan gaztelaniak erabateko lekua hartu ziola euskarazko predikazioari.

## 5. Ikergaiak

Corpus honek euskararen historiaren ezagutzan egin ditzakeen ekarpenak bildu nahi izan ditut atal honetara. Bistan denez, ibarreko hizkeraren (§ 5.1) eta egoera soziolinguistikoaren (§ 5.2) berri izateko bide ematen digute testuok. Horretaz landa, predikuak itzultzeko orduan egindako hau-tu linguistiko-estilistikoak (§ 5.3) eta erabilitako iturriak (§ 5.4) ere ezin saihestuzko ikergaiak dira euskararen historiaren ezagutzan aitzinatzeko.

### 5.1 Hizkera eta barne-bariazioa

Luiseneko paperen bidez, Lizoainibarko predikariek XVIII.-XX. mendeetan zerabilten hizkera —orain arte dokumentatu gabea— ikertzeko abagunea dugu. Hartara, aldunetarren testuetan jauzika ibili naiz, ezaugarri linguistiko adierazgarrienak hona ekarri nahiz<sup>53</sup>. Ez da, inondik ere, saio sistematikoa izan. Egitekoen artean dago, hortaz, hizkeraren ikerketa sakona, testu guztiak zehatz-mehatz hustuko dituen, ezaugarrien sistematikotasuna, maiztasuna eta aldagarritasuna kontuan hartuko dituen eta bestelako testuei ere begiratuena, ezaugarrien hedadura geografiko, estilistiko eta historikoa ongi ezagutzeko.

Hona bildu ditudan ezaugarriak, kontrakorik esan ezean<sup>54</sup>, bi aldunetarren testuetan ageri dira; ez, baitezpada, salbuespenik gabe, edo maiztasun eta adibide berberetan. Zer esanik ez, etorkizunean funtsezkoa deritzot au-

<sup>53</sup> Kanpoan utzi dut Frantzisko Elizalderen testua, ez baitakit xeheki nongo mintzoa duen. Edonola ere, desadan (gaingiroki eta arinkeriaz, apika) ez dirudiela urrungoa, aldunetarren hizkerarekin alderatuta.

<sup>54</sup> Bereizi nahi izan dudanean, JMA laburtzapena erabili dut Joan Migel Aldunate izendatzeko, eta FJA Fermin Josefendako.



tore bakoitzaren testuetan ageri den barne bariazioa ikertzeari eta osabaren eta ilobaren mintzoak elkarrengandik aldentzen dituzten ezaugarriak (bakanak, lehen begi kolpean) identifikatzeari, aldagarritasun horren atzean daudekeen arrazoi soziolinguistiko-dialektologikoak zulatzeke.

### 5.1.1 Fonetika eta fonologia

Hitz hasieran *j-* du beti FJAk: *jarriric, jaquin, jan, jarduqui, jayo*. Behin baino ez dut ediren irudiz txistukari palatala dena: *sanorduco*. JMAk, aldiz, ia sistematikoki ditu forma palatalak, <ss> digrafoaren bidez adieraziak: *ssaquin, ssinste, ssauceco, ssaberi, ssuntatu, ssardoqui, ssaten, ssaio, ssosi, ssunto*.

Bada salbuespenik JMArean, ordea: *juaten, jendeac, juntacen*. Bestalde, JMAk *juaten* du, baina *fan* JFAk.

Bi aldunatarrek <g> kontsonante antihiatikoak darabiltzate: *ago, eguizara* ‘ehizara’, *eguizari / eguizari* ‘ehiztari’, *verregun, iraguten, ligua* ‘lihoa’.

Ez dago Riu araurik: *miser cordia, andia*.

Herskari aurreko txistukari apikaria lepokari ageri da, <t> aurretik batik bat: *emendarasteco, estire, dituste, escasquicie*. Gainerakoan, <p> aurretik <z> izan ohi da: *expaitu, zazpi*.

Sinkopaturik ditugu hitz batzuk: *orgatic, obrena, icusco, abrasec, verla, atra, maindreco*. JFAren testuetan *atera* ere kausi daiteke.

Hitz bukaeran, <c> *pro* <t> dugu adibide batzuetan: *baizaistec, ticiiec, nic estaquic, duc* ‘dut’, *dizuc* ‘dizut’, *bac* ‘bat’. Bi aldunatarrek halakoak dituzten arren, Joan Migelen testuan askoz ugariagoa da fenomenoak: Zaila da horren atzean zer dagoen jakitea. Kontu grafiko hutsa dirudi, eta, kasu batzuetan, azken hizkiari <t> grafemaren marratxo gehitu ez izanaren ondorio.

Maiz, *-r-* falta da bokalen artean FJAren testuetan, *-larik* menderagailuan (*ciolaic*), ablatiboan (*amenacetaic*) eta partitiboan (*honrayc*), baita, batzuetan, *ari* aditzean ere (*ayzaigula*). Ez da hala, ordea, moduzkoetan (*sepultaturic*). JMAk ez ohi du halakorik.

Bokalen artean *-d-* > *-r-* bilakabidea dugu: *zaracie*, *daquirala*, *dizquirate*, *diratela*, *zarazu*, *dira* ‘dit’.

\**Edun* aditzaren orainaldian, objektua plurala denean, *di-* galdu egiten da, aspektu burutugabearen markaren ondotik: *padecicentugu*, *escacentucie*.

Halakoekin batera, forma metatesidun bakanak ere badituzte bi aldunatetarrek: *confiaceunt*, *eguiteintu*. Partizipio prospektiboarekin, ordea, *d-* baino ez da galtzen bi aldunatetarren lanetan: *padecitucoytugu*, *gastatucoytuzu*, *pagatucoitugun*. Objektu singularrarekin ere *d-*ren galeraren kasu bat bederen ediren dut FJAren testuetan: *desconfiatuout*.

### 5.1.2 *Izena*

Plural hurbila ageri da: *manhoc*, *gucioc*, *espaldoc*.

Artikulu hurbilak daudela ere ematen du (*corpuzoy*, *animoy*), jabetza ize-nordain (indartu) baten bidez adierazten denean batik bat: *zoure buruori*, *zure animori*, *zoure amori* ‘zeure amaori’.

Erakusleetan forma *g-*dunak eta gabeak ditugu (*gonequi*, *gau*, *gortan*, *garrren*, *gartan*, *gartatic*, *gura*, *goy* ~ *au*, *ura*, *artatic*, *ayena*, *ortatic*, *oyec*, *oyequin*, *oni*, *ori*, *or*, *arrec*, *onec*, *orrequi*, *ontan*, *ontara*, *ontaraco*, *ayetan*, *ayen*, *orgatic*, *arara*, *arrequi*). JMAren testuetan askozaz ere ohikoagoak dira forma *g-*dunak, baina salbuespenak ere baditu. Sakonago ikertzeko dago, nolahi ere, zeren arabera erabiltzen dituzten forma herskaridunak ala gabeak.

Erakusle pluralak *avec* / *guevec*, *evetan*, *eben* tankerakoak dira.

Izenordain indartuetan *eu* > *au* > *ou* bilakaera dugu: *zoure*, *noure*, *gouren*, *zourorrec*, *gouroc*. *Egon* aditzaren iraganean ere *-ou-* du JMAk, behin bederen: *baizoude* ‘baitzeuden’. Forma indartu gabea *nere* da JFAren testuetan, baina *ene* darabil JMAk (*nere* ere bai, inoizka). Izenordain zehaztuga-beetan *nior* bezalakoak daude.

Kasu-marken eta postposizioen alorrean, *-ek* dugu ergatibo plurala: *arrecvec*, *Fariseoec*, *vigarrenec*. Datibo plurala *-eri* da maizenik bi aldunatetarren testuetan, baina *-ey* (*duteney*) eta *-ay* (*animay*) bakanen bat ere bada. Geni-

tiboan *-ren* dugu, baina *-in* bilakaturik ere ageri da inoizka: *Lazaroin*, *noyña / noña* ‘norena’, *demborayqui*. Komitatiboa *-reki* da ia beti (*arraciorequi*), baina hala FJAK nola JMAK badute *-rekin*-ekiko adibide bakanik ere. Ablatiboan *-tik* dago bai singularrean bai pluralean, baina JFAri *amenacetaic* plurala ere ikusi diot. Forma biziduna *-ganik* da bi aldunatetarren lanetan (*nere ganic*). Adlatiboak ez du sekula herskaririk hondarrean (*penitenciarra*). Instrumentala sistematikoki *-s* da (*comprenditus*). Prolatiboan *-tako* dago (*intercesorataco*), eta destinatiboan *-rendako* (*guizonarendaco*).

Eratorpen atzizkiek gazteleratiko bilakaera hau darakuste: *-cion* > *-zio* (*maldicio*), *-zon* > *-zio* (*arracio*), *-ion* > *-ione* (*unione*), *-al* > *-ale*: *penitenciale*. Moduzkoetan *-kiro* dago (*finalqui*).

Zenbakietan egitura lokatiboduna dugu hala hogeikoetan nola ehunekoetan: *lauretan egun eta lauretan oguey*, *vorzetan egun*.

### 5.1.3 Aditza

Aditzoina dago *irrealisean*, are *-i* partizipioa duten formetan ere: *yzulgaycen* ‘itzul gaitezen’, *intercedidezaten*, *icasdezan*. JMAri *etorri bedi* ere aurkitu diot behin. *Irrealisetik* kanpo ere, *-i* partizipiorik gabeko formak daude: *ecarciote* ‘ekarri zioten’, *etorziren*.

*Izandu* partizipio pleonastikoa oso bakan ageri da forma arruntaren aldean, baina bi aldunatetarrek darabilte.

Partizipio prospektiboan *-ko / -en* sistema dugu. Bigarren forma ageri da *-n* amaierako aditzekin, baita *-l*-koekin ere: *hilen*. FJAK, gainera, *emayn* ‘emanen’ du, forma osoekin batera.

Aditz laguntzaileei gagozkiela, ez dugu *\*eradun* sailekorik: *\*nin* baino ez dago (*ciote*).

Ahalera ez da *ahal*-dun perifrasiaren bidez eratzen (alegia, [partizipioa / burutugabea + *ahal* + *izan / \*edun*]). Forma *-ke*-dunak ditugu: *vici guindeizque*. *Ahal* bera ageri denean ere aditz laguntzailea *irrealisekoa* da (eta, beraz, *-keduna*), JMAren adibide honetan ikus daitekeenez: *aldezaqueten dilijencia guziarequi*.

Izan aditzak ere *-ke-dun* formak har ditzake: *nola dateque gau?*

*Irrealisean*, ahalaria eratzeko, \**ezan* ageri da orainaldian, baina \**edun* iraganean: *dezaquegun*, *desvaneci dezquique* ~ *erosi zuquelaic* ‘eros zezakeelarik’, *bazuquete goratu* ‘gora zezaketen’, *ezuquete resuzitatu*. Ezin partikularekin batera ere erabiltzen du \**edun* JMAk: *ezin logratu zuquetala*.

Izan aditzaren 3pl orainaldian *dire* da, eta *zarate* dago 2. pertsona pluralen.

Iraganeko adizkiak *-n* gabekoak dira maizenik, baina badira *-n-dunak* ere, bi aldunatetarren testuetan: *erraten zue*, *ceude*, *sartuce*, *eman cio*, *nindego* ~ *acabatu ciren*, *naizuten*.

NORK 2pl. denean, *-zie / -ze* txandaketa dago: *ayzacie*, *estucie* ~ *dizquiocenac*, *dicen*, *emaizquioce*, *biartuzela*.

NORI 1sg. denean, *-da* (> *-ra* FJAK) ageri da: *dira* ‘dit’, *dizquida*.

NORI 3pl. denean, *-ote* dago: *zaicote* ‘zaie’, *diogute* ‘diegu’, *diote* ‘die’, *baizquiotegu* ‘baitizkiegu’.

NORK 1sg. denean, *-da-* → *-te-* gertatu da, hitz barnean ere: *dizquizutene-tan* ‘dizkizudanetan’, *nautena* ‘nahi dudana’, *biarduten* ‘behar dudana’.

NOR edo NORK 2. pertsona denean, iraganean, *-a* dugu, eta gainerakoan *-e*: *hizancina*, *cinduxa* ‘zintuen eta zenituen’, *ezinaten* ‘ez zineten’ ~ *hizance*.

Ozen ondoko herskaria ahostuna da: *guindaycen* ‘gintezten’, *baguindex* ‘bagintez’, *cinduste(n)* ‘zintuzten’, *guinduzan* ‘gintuen’.

Iraganeko *realisean* eta *irrealis* bipertsonal eta tripertsonaletan, NORK 2. pertsona denean, *-ind-* ageri da: *cindue* ‘zenuen’, *cindio* ‘zenion’, *cindezaque* ‘zenezake’, *bacindex* ‘bazeneza’. Orobat gertatzen da *egon* aditzaren forma trinko monopertsonalean: *nindego* ‘nengoen’.

Adizki monopertsonal *irrealisetan* ez dago *-te-* duen formarik baldintzan eta subjuntiboan: *baleyz* ‘balitez’, *daicen* ‘daitezen’, *zeizen* ‘zitezen’. Ahalera, ordea, *-kek* ordezkatu du *-te* zaharra: *ceizque* ‘zitezkeen’, *cindeyzque* ‘zintezke’, *ezpaytayzque* ‘ezbaitaitezke’, *daiquen* ‘daitekeen’, *lizaque*, *ezeiquela* ‘ez zitekeen la’. FJAren testuetan, eta bakan, *-teke* pleonastikoa ere badago (*dayteque*).

NOR NORI *realisean*, datiboa 3. pertsona denean, *-ko* marka ageri da: *zaico* ‘zaio’, *zaicote* ‘zaie’. Edonola ere, FJAri *etzeioten* ‘ez zitzaien’ ere ikusi diot behin.

NOR NORI sailean, iraganeko *izan* aditzaren formak *\*edinek* ordezkatu ditu: *cequiote* ‘zitzaien’, *cequiola* ‘zitzaiola’, *cequizquio* ‘zitzaizkion’, *cequigu* ‘zitzaigun’. Bi aldunatarrek hala jokutzen dute; haatik, JMAk *ceioten* ‘zitzaien’ ere badakar.

Adizki tripertsonaletan objektua plurala denean *-zki-* ageri da, eta ez, Nafarroako beste leku batzuetan ohi bezala, *-it-* (cf. *zition*): *dizquida*, *eman-dizquizun*, *zizquion*.

Orobat, *-zki-* dago *irrealiseko* bipertsonal iragankorrean, objektua plurala denean: *zezquien* ‘zitzaiz’, *garbizquizu* ‘garbi itzazu’, *escazquicie* ‘eska itzazue’, *dezquique* ‘ditzake’, *dezquiten* ‘ditzaten’. Ez daude mendebalderago ageri diren forma palatalak (cf. *detxala* ‘ditzala’).

*Irrealiseko* adizki tripertsonaletan, NORI 3. pertsona denean (-)zo- (<\*za-o) bilakabidea ageri da, eta *-za-* lehena edo bigarrena denean: *cezoten* ‘ziezaien’, *zocie* ‘iezaiozue’, *dezoqueten* ‘diezaioketen’, *zoqueguten* ‘iezaguketen’ ~ *ezpalezagu* ‘ez baliezagu’, *lezazquiraque* ‘iezazkidake’, *dezazuten* ‘diezazuten’.

*\*Edin* aditzaren 3. pertsonako forma monopertsonalak *doa-* du orainaldian gehienetan, FJAren testuetan: *doayen* ‘dadin’ (*dayen* dugu JMARENetan, eta bada *daienik* ere FJArenetan). *Eraman* aditzaren forma trinkoak ere hori bera du: *doamaten* ‘daramaten’. *Joan* aditzaren adizki trinkoekiko forma analogikoak dirudite, hiperzuzenketaz sortuak, kontuan izanik *doa-* > *da* gertatu dela horietan: *daci* ‘doaz’. Nolanahi ere den, FJAK *doayen* ‘doan’ du *joan* aditzean.

*Nahi* duten perifrasietan aditza sinkopaturik ageri da: *naut erran* ‘nahi dut erran’.

*Eduki* aditzaren forma trinkoetan *-ki-* dago: *dauzquizularic*, *zeuzquiten*.

#### 5.1.4 Sintaxia

Perpau osagarrietan *e(t)zi* menderagailua maiz ageri da: *etci becatariac ucacendiola*. Forma afrikatua darabil JFAk, eta frikaria osabak.

Baldintzarako [aditzoina + \**edin* / \**ezan*] tankerakoak ditugu: *encontra baguindeyz, confesa bazindezqui zoure culpac, eguin bacindez penitencia eta expacindeiz eguin sor, expaley detenitu, considera baley, sinesta balez.*

FJAK batez ere, sintagma genitibodunak buruaren ondotik paratzen ditu: *nombre mutuarena* (cf. honetaz § 5.4).

Objektua genitiboan ageri da aditz jokatugabeekin, baina ez sistematiko-ki. Halakoak maizago ditu JMAk JFAk baino: *cego Jesus lanzacen demonio baten aumentaceco bere caudalen, bularraren emateco.*

Genitiboa eskuinetara duten egitura apositiboetan, buruarekin komunizatzen duen izenordaina gehitzen du FJAK batzuetan: [*Luciferri*]<sub>i</sub>, *enemigo Jangoicoaren* [*arri*]<sub>i</sub>. Burua postposiziorik gabe ere ager daiteke (cf. honetaz § 5.4): [*memoria Saludable*]<sub>i</sub>, *golpe inevitable erioceco arren* [*arequi*]<sub>i</sub>.

### 5.1.5 Hiztegia eta aldaerak

Jarraian aldatutarak darabiltzaten hitz eta aldaera zenbait zerrendatu ditut. Lemak maiuskula txikian eta hurrenkera alfabetikoan heldu dira, eta adibideak etzanetan, geziaren ondotik. Adierak kakotx bakunen artean eman ditut, beharrezko iritzi diodanean. Lemen arteko deiak cf. laburduren ondotik eman ditut, maiuskula txikietan. Zehaztapenik eman ez bada, bi aldatutarak dokumentatutako hitzak edo aldaerak ditugu; zehaztu behar izan denean, FJA edo JMA laburdurak erabili ditut<sup>55</sup>.

AGITU ‘gertatu’. → *agitu*

ALTZINA. → *alcina*

ANIMA (FJA). → *anima*. Cf. ARIMA

ANITZ (FJA). → *aniz*. Cf. AUNITZ

ARIMA (JMA). → *arima*. Cf. ANIMA

ARROITU ‘zarata’. → *arroitua*

<sup>55</sup> Komeni da berriz gogora ekartzea hau ez dela inondik ere saio sistematikoa. Ez dut lexiko osoa bildu, eta baliteke, azterketa sakona eginda, autore bakar bati egotzitakoa bestearen lanetan ere kausitzea.

- ARTEO (JMA). → *arteo*. Cf. ARTIO  
 ARTIO (FJA). → *artio*. Cf. ARTEO  
 ASKO 'aski'. → *asco*  
 ARKITU. → *arquicen*. Cf. AURKITU  
 ATZENDU 'ahaztu'. → *acenduric*  
 AUNITZ (JMA). → *auniz*. Cf. ANITZ  
 AURKITU. → *arquicen*. Cf. ARKITU  
 BAGE. → *bage*  
 BAKOITX (JMA). → *bacoichac*. Cf. BAKOTX  
 BAKOTX (FJA). → *bacochari*. Cf. BAKOITX  
 BARIN 'baldin'. → *barin*  
 BEKALA 'bezala'. → *vecala*  
 BERTZALA (FJA) 'bestela'. → *verzala*  
 BERTZE. → *verce*  
 BIDA (FJA) 'bi'. → *vida*  
 BILO (JMA) 'ile'. → *biloa*  
 BULLUSKORRIAN (JMA) 'biluzgorrian'. → *bulluscorrian*. Cf. BULUSIRIK  
 BULUSIRIK 'biluzirik'. → *bulusiric*. Cf. BULLUSKORRIAN  
 DEUS (FJA). → *deus*. Cf. DOUS  
 DOUS 'deus'. → *dous*. Cf. DEUS  
 EDEKI (FJA) 'ireki'. → *edequi*  
 EGU 'gaur'. → *egu*  
 EILE 'artile'. → *elle*  
 EILEGATU. → *ellegatu*  
 EMASTEKI (FJA). → *emastequi*  
 ENTENDATU. → *entendacera*  
 ERDETXI 'erdietsi'. → *erdechi*  
 EREMAN (FJA). → *ereman*  
 ERRAN. → *erran*  
 ERTEAN 'artean'. → *ertean*  
 ESTRABILEA (JMA) 'ukuilu'. → *estrabilea*  
 ETXEKI (FJA) 'piztu'. → *echequi*  
 EZAGUNDU. → *exauncera*  
 GEHIAGO. → *gueyago*. Cf. IAGO  
 GUTI BAT (FJA) 'pixka bat'. → *gutibat*

- GUTI (FJA). → *guti*  
 GUZI. → *guciac*  
 HIRUR. → *yrur*  
 IAGO (JMA). → *yago*. Cf. GEHIAGO  
 IDUKI. → *iduquicea*  
 IGAN 'igo'. → *igan*  
 IGUZKI (FJA). → *yguzquia*. Cf. IRUZKI  
 IMINI (JMA) 'ipini'. → *yminzen*  
 IRUZKI (JMA). → *iruzqui*. Cf. IGUZKI  
 ITZE (FJA) 'iltze'. → *hitce*  
 KARRIKA (FJA). → *carrica*  
 KRISTIO. → *Christioa*  
 LAUR (JMA). → *laur*  
 LAZKI (FJA) 'arras'. → *lazqui*  
 MEREJI. → *meregi*  
 MERTXEDE. → *merchede*  
 MINTZO 'ahots'. → *minzua*  
 NESAKO (FJA) 'neskato'. → *nesaco*  
 OHATZE. → *goace*  
 OIHAN 'mendi'. → *oyan*  
 ONETSI 'maitatu'. → *onesicen*  
 ORAI. → *oray*  
 ORAINIK (FJA). → *orañic*. Cf. ORAINO, ORAI  
 ORAINO (JMA). → *oraño*. Cf. ORAINIK, ORAI  
 ORTEGI 'jaurtiki'. → *ortegui, ordeico*. Cf. ORTEKI  
 ORTEKI 'jaurtiki'. → *ortequicen*. Cf. ORTEGI  
 ORTZI 'ehortzi'. → *orci*  
 PODORE. → *podore*  
 SOR (FJA) 'gor'. → *sor*  
 TXIKI (FJA). *chiqui*  
 TXINURRI (FJA). → *chinurriari*  
 TXOIL 'zeharo'. → *choil*  
 XAHUTU (JMA) 'garbitu'. → *ssauceco*  
 XARDUGI (JMA). → *ssarduico*. Cf. XARDUKI  
 XARDUKI (JMA). → *ssarduqui*. Cf. XARDUGI



ZALUI (FJA) ‘zalu’. → *zalu*  
 ZILATU (FJA). → *cilatu*. Cf. ZULO  
 ZIRIKU (FJA). → *ciricua*  
 ZULO (JMA) *zuloa*. Cf. ZILATU

## 5.2 Elebitasuna eta soziolinguistika historikoa

Predikua Lizoainibarko euskararen egoera soziolinguistikoaren berri ere ematen dute.

Ezaguna da 1778an auzia izan zela Iruñeko elizbarrutian, ordura arte legez apez euskalduna zuten herri zenbaitetan erdaldunak ere sartu ahal izateko (Irigaray 1935). Euskaldunak ez ziren apezek zuten horretan interesa, jakina, auzia irabaziz gero, balizko lanpostuak biderkatuko zitzaizkielakoan. Zerabilten aldeko argudioa zera zen: herri horietan, eliztar gehienak gaztelania ere ulertzeko gai zirela. Eta auzitan izan zen, orduan, Lizoainibarko balizko elebitasuna ere. Erredinen, Lizoainen, Beortegin, Janaritzen, Lerrutzen, Mendiorotzen, Iheltzen, Urritzelkin, Galdurotzen, Zuntzarrenen, Leiunen, Olaberrin, Zalban, Ozkaritzen eta Ilotzen sarbidea nahi zuten euskararik gabeko apezek (Irigaray 1935: 613).

XIX. mendearen lehen herenean, eta predikarien hizkuntz eskakizunez mintzo, hain zuzen, Añibarrok euskaldun hustzat jo zituen Beortegi, Janaritz, Laboa, Leiun, Lerrutz, Lizoain, Mendiorotz, Ozkaritz, Erredin, Urotz eta Iheltz (Villasante 1956: 445), eta orobat jokatu zuen Beauharnais enbaxadoreak ere 1807an, mapa arras zehatza ez izanik ere (Oyharçabal 1992: 360).

Lizoainibarren euskara bizirik zegoen 1863an, Bonapartek mapa argitaratu zuenean (Bonaparte 1863), eta printzeak oso bizirik zekusan Leiunen, Laboan eta Beortegin —ez horrenbeste Erredinen—. Geroxeago, 1875ean, Brocak elebidun irudikatu zuen ibar osoa (Broca 1875), eta Lekarozek (2023: 108 eta hh.) bildu datuek ere argi darakuste XVIII. eta XIX. mende jauzi horretan euskaldun elebakarrak —eta erdaraz kiskun-kaskun ari zirenak— zeudela Ozkaritzen, Mendiorotzen, Lizoainen, Lerrutzen, Leiunen, Laboan eta Beortegin, are gazteen artean ere, eta aski euskaldunak zirela oraindik XIX. mendearen erditsutik aurrera Leiun, Laboa eta Beortegi.

Herritarren elebitasun maila zenbaterainokoa zen jakitea zaila da, baina agerikoa da alduetatarrak euskara eta gaztelania, biak zekizkitela, eta Fermin Josefek predikaziorako bi hizkuntzak zerabiltzala XVIII. mende hondarrean eta XIX. mende hasieran Leiunen, baita Erredinen abadetza lortu eta hurrengo urteetan ere. Baina, prediku kopuruari so, gaztelania da nagusi, baita hizkuntza bakarra izan ere, 1813. urtetik aurrerako urtea duten predikuetan (ikus § 4). Horrek ez dakar baitezpada apez horrek ez zuela ordutik aurrera euskarazko predikurik sekula egin, dela Erredinen, dela Leiunen, Laboan eta Ozkaritzen, behin-behineko abadetzan izan zenean ere; ezin jakin dezakegu, prediku askok ez dutelako urterik, eta ez baitakigu zenbat aldiz erabili ziren eta noiz, baina predikazioan gaztelaniarako jaidura nabarmena da.

Ez dakigu, halaber, urteen joan-etorrian euskarazko testurik galdu ote den. Baina euskaldun hauen idatzizko jarduna, predikaziotik landara, erdara hutsezkoa da. Luiseneko funtseko dokumentu pribatu, gutun eta bes-telakoak, are gertuko senideen artean trukaturakoak ere, gaztelaniazkoak dira denak, espero zitekeen bezala<sup>56</sup>. Eta hala izan ohi ziren, orobat, euskaldunen arteko harreman idatziak ere. Horren erakusgarria Luiseneko funtsean berean dugu: Joakin Lizarraga Elkanoko apezak, euskara eder bezain landu, jaso eta aberatsean ehundaka testu utzi zizkigun horrek berak, Fermin Josef Aldunateri igorritako gutuna, bortxaketa bat mintzagai duena, gaztelaniaz idatzi zion<sup>57</sup>. Adibide polita dugu, bestalde, Maiorak 1760. urtean jasotakoa. Artaxoarrak dakarrenez (Maiora 2024: 253), Erredinen eta inguruetan, nekazariak herriko bihitegiko garia behar zutenean, hartutako kopuruaren agiria egiten zien Erredingo parrokoak. Agiriarekin notarioarengana jotzen zuten laborariak, eskritura egin zezan. Agiri horie-

<sup>56</sup> Lan hau begiratu duen aditu anonimoetako batek gaztigatu didanez, ez daiteke maila berean jar predikuetan erabilitako hizkuntza eta gainerako jardunean erabilitakoa. Idazle euskaldun jantziek gaztelaniaria jo izan dute ia salbuespenik gabe, beren arteko gutun bidezko harremanetan. Predikazioan edo maila apalagoko hartzaileei zuzendutako testuetan, haatik, euskararen erabilera franko nabarmenagoa izan da.

<sup>57</sup> Luiseneko funtsa katalogatu gabe dago, eta ezin eman dezaket gutunaren erreferentzia zehatza, baina transkripzioa eta argazkia TesUN taldearen webgunearen ikus daiteke, esteka honetan: [https://www.unav.edu/documents/29062/18789983/1828\\_08\\_24\\_Elcano.pdf](https://www.unav.edu/documents/29062/18789983/1828_08_24_Elcano.pdf)

tako zortzitan bederen, euskaraz egin zion agurra apezak notarioari. Hona adibide bat: «Señor Severino<sup>58</sup>, los portadores, que son pretendientes de cuarenta robos de trigo, son vecinos del lugar de Beortegui, de cuya cantidad levantará vmd. escritura. *Agur, jauna*. Redín y octubre 3 de 60» (NEAN, Notarioritza-protokoloak, C-13405 *apud* Maiora 2024: 253. Etzanak eta puntuazioa gaurkotzea, neureak).

Hartara, prediku apur horietan baizik ez zaigu euskara ageri aldunatetaren jardunean. Eliztarrak euskaraz artatzea ezinbestekoa zitzaientean, hain zuzen<sup>59</sup>. Itzulpenetan ere ez da ikusten euskara aberatsa, jaso eta landua erabiltzeko nahikunderik, eta erdal testuarekiko morrontza handia da (ikus § 5.4). Edonola ere, ez naiz gai, une honetan, predikaziorako hizkuntza bat edo beste hautatzearen atzean dagoen irizpidea zein den esateko. Joan Migelék utzi dizkigun prediku bakanak euskaraz daude, baina Leiungo aldian bi hizkuntzak zerabiltzan Fermin Josefek, eta Erredinen ere biak, XIX. mende hasieran bederen. Hori, betiere, predikuok bere parrokiatarako idatzi zituela onartzen badugu. Eta euskarazkoak (gutxiago baitira) Leiundik eta —batez ere— Erredindik kanpo erabiltzeko baziren? Hori ezin jakin dezakegu ziur, baina badakigu beren gobernupeko parrokietatik kanpo ere predikari aritzea ohiko lana zutela. Fermin Josef, esaterako, 1810eko San Markos egunean Beortegin predikatzeran eraman zuten, eta euskaraz ondutako predikua egin zuela badakigu, dokumentua bera gorde baita (FJ\_ALD-EUS-036)<sup>60</sup>.

Laburbilduz, eta datuok ikusita, ematen du Fermin Josef Aldunate predikazioan erdara sartzearen alde agertu zela, eliztar zenbait gaztelania ulertzeko gauza ez ziren garaian ere (Leiunen batez ere); hots, hurrengo hamarkadetan orokortu zen elebitasunari bide eman ziola.

---

<sup>58</sup> Severino Bueta Urrozko notarioa izan zen 1758. eta 1786. urteen artean.

<sup>59</sup> Gogoan izan 1798ko irailaren 16an Fermin Josefek diozesiko bisitariaren manuak euskaraz aditzera eman zizkiela Leiungo eliztarrei (IEA, Leiungo fabrika-liburua, 627-4).

<sup>60</sup> Dirudienez, betidaniko ohitura zen San Markos egunean Lizoainibarko herrietako parrokoek Beortegin predikua ematea, baina 1818an eten bide zen tradizioa. Hala darakus Luiseneko dokumentuen artean dagoen 1821eko sententzia batek, ohitura berreskuratzeko agindua ematen duena. Transkripzioa eta argakia ikusgai dago TesUNen webgunean: [https://www.unav.edu/documents/29062/18789983/1821\\_03\\_31\\_Pamplona.pdf](https://www.unav.edu/documents/29062/18789983/1821_03_31_Pamplona.pdf)

### 5.3 Iturriak

Euskal predikuak erdaratiko itzulpenak edo moldaketak izan ohi dira maiz. Luisenekoak ez dira horretan salbuespen, eta gehienentz iturria aurkitu dudala uste dut (ikus «Eranskina» atala). Fermin Josef Aldunateren predikuen iturri nagusia Josef Barcia Zambrana XVII. mendeko teologo eta Cadizko apezpiku izandakoa dugu. Fermin Josefen 37 predikuetatik 29 bederen Barciaren *Despertador Christiano* eta *Quaresma de Sermones* lanetatik itzuliak dira, osorik edo zatika. Beste hiruk, aldiz, Joan Martinez de la Parra XVII. mendeko jesulagun mexikarraren *Luz de Verdades Católicas* dute iturri. Joan Migel Aldunateren testu baten zati baten gibelean ere de la Parraren lana dago (JM\_ALD-EUS-002).

Edonola ere, bada oraindik zer ikertu. Iturri ezaguna dutenen kasuan, edizio zehatza identifikatu behar da<sup>61</sup>, eta testuak patxadaz alderatu, pasarte guztien iturria bat eta bakarra den ala ez ikusteko. Bestalde, prediku batzuen iturria aurkitzeko dago oraindik. Horien atzean ere Barcia eta de la Parra egon daitezke, edo beste predikariren bat.

Beste testu batzuk, ordea, aldunatetarek berek onduak dirudite. Beortegin predikatuak, esaterako, «*Compuesto y predicado por D[o]n Fermin Josef de Aldunate*» dakar (FJ\_ALD-EUS-036. Letrakera etzana, nirea). Orobat, Joan Migel Aldunateren prediku batean bederen, «*Compuesto y predicado año de 1779 por D[o]n Juan Mig[ue]l de Aldunate*» dago izkiriaturik (JM\_ALD-EUS-001. Letrakera etzana, nirea). Horrek ez du esan nahi, hitzez hitzeko kopia ez izanik ere, lan horretan bestelako iturriak baliatu ez zituztenik, jakina. Azkenik, ez dut jakiterik izan Elizalderen testua inondik hartua den ala itzulpena den.

Horrekin guztiarekin batera, ezin ahantz dezakegu Fermin Josef Aldunateren gaztelaniazko prediku andana. Iturri berak erabili zituen ala gaztelaniazkoetan bestelakoak hobetsi zituen jakitea ere on da. Erdal prediku

---

<sup>61</sup> Halakoetan laguntza handia izaten da, predikuekin batera, egileek zerabilten biblioteka ere gorde izana. Zoritxarrez, Luiseneko oraingo jabeek gogoan dute etxeko liburu zaharrak inoiz inork eraman zituela.

batzuetan iturri horiek zein diren berariaz esaten zaigu, laburduren bidez. Zehatz-mehatz begiratzeko dago, baina laburdura horiek zein autoreri doazkien aurkitu dudalakoan nago. *Lan.* delakoaren gibelean Geronimo Bautista de Lanuza XVI.-XVII. mendeetako apezpiku domingotarraren homiliai daudela dirudi, eta *Osor.* delakoa XVI. mendeko Joan Osorio jesulagunaren *Concionum* delakoei dagokie. Baliteke, hortaz, Fermin Josef Aldunatek latinetik erdarara itzultzeko lanak ere egin izana. *Egil.* laburduraren gibelean Joakin Antonio Egiletaren predikuak daudela garbi dut. Bada erdarazko predikuetan *Sen.* eta *Sener.* laburdurarik ere, Pablo Señeri (edo Paolo Segneri) XVII. mendeko jesulagun italiarraren *Quaresma* lanari dagokiona, hain zuzen. Labur esanda, egin dudan behako arinean, ez dirudi euskal eta erdal predikuetan iturri berak erabili diren, salbuespenak salbuespen.

Gai edo pasarte beraren gaineko predikuak alderatuta, ikusten da euskarazkoak eta gartzelaniazkoak ez direla sekula bata bestearen itzulpen. Behin baino ez dugu halakorik: 1799an predikatutako FJ\_ALD-EUS-008 eta 1803ko FJ\_ALD-CAS-037 testu bera dira, hizkuntza banatan. Gainerakoan, irudi du gartzelaniazko eta euskarazko corpusak elkarri bizkar emanez sortu zirela, iturrirei doakienez behinik behin.

#### 5.4 Itzulpen-ohiturak

Esan dut euskal testu gehienek gibelean erdal iturria dagoela eta, maizenik, badakidala iturri hori zein den. Euskal eta erdal testuak alderatu eta egileen itzulpen-ohiturak ezagutzetik atera daiteke onbiderik euskal itzulpengintzaren historiarako. Erdal testuetako prosa barrokoa —esaldi luze eta bihurriez betea—, hiztegi aberatsa, errepikapenak eta bestelako baliabide estilistikoak euskarara nola ekarri diren jakitea ere lagungarria da hizkera horretan erregistro zainduak zein bide izan duen argitzeko.

Hona hemen saio txiki bat. Fermin Josef Aldunateren prediku bat ausaz hautatu, hasiera transkribatu eta erdal iturriarekin alderatu dut. Kasu honetan, Barciaren *Despertador Christiano de sermones doctrinales* laneko 16.

predikua du oinarri euskarazkoak (Barcia 1700: 278)<sup>62</sup>. Eraitza 5. taula honetan ikus daiteke.

**5. taula.** Euskarazko itzulpenaren eta gaztelaniazko jatorrizkoaren arteko erkaketa. (Egilea: Ekaitz Santazilia)

<p>Egu ellegacenda Jangoycoaren Magestade Divinoa deytus Vioz humanoaren atarietan memoria Saludable golpe inevitable erioceco arren arequi. egu, Anima adultera, ucatus zuc zoure Esposo verdadero Jesu Christori Talamo zoure vorondatecoy, admititu duzu artan Demonioa, zoure enemigoa, eta Jangoycoarena. Egu ellegacenda arren paciencia deycera, ez (dezaquen vecala) vere indignacioco ezpata desembaynatuarequi castigaceco zure traycioac: baycic vesoac edequiric barcaceco, avisatus peligro, eta ruyna, amenazacen dizutenac Parete zoure mortalidadeco oyec, ceyntan vicizarenec.</p>	<p><i>Oy llega la Divina Misericordia, llamando à las puertas del coraçon humano, con la memoria saludable de aquel inevitable golpe de la muerte. oy, alma adultera, que negandole à tu Esposo verdadero Jesu Christo el talamo de tu voluntad, admitiste en èl al demonio, su enemigo, y tuyo. Oy llega su paciencia à llamarte, no (como pudiera) con la espada desnuda de su indignacion, para castigar tus trayciones; sino con los braços abiertos para perdonarte, avisandote del peligro, y ruina que amenaza essa pared de tu mortalidad en que vives.</i></p>
---	---

Axaletiko soakoan, hainbat gauza dira deigarriak. Lexikoaren aldetik, erdal iturriarekiko morrontza handia da (*humanoaren, inevitable, Esposo* eta *abar*), eta ez dirudi euskal autore jantzien eredu terminologiko garbizalea- goei lotu zaien. Sintaxian ere, erlatiboak eskuinera lerratzeko joera nabar- mena da, erdarazko ereduan bezala, baita aditza aurreratzekoa ere: *avisatus peligro, eta ruyna, amenazacen dizutenac Parete zoure mortalidadeco oyec, ceyn- tan vicizarenec*. Leku genitibozko sintagmak ere izenaren ondotik ageri dira (*Parete zoure mortalidadeco; golpe inevitable erioceco*), baina ez da kontrakorik falta (*indignacioco ezpata*). Erdarazko prosa barrokoaren hitz-ordenari eta mendeko perpausen ugaritasunari eutsi nahiz, egiturak ere bortxatzen ditu

<sup>62</sup> Nik 1700. urteko edizioa hartu dut oinarri, baina ikertzeko dago zein izan zen Aldunatek esku- tan erabili zuena.

tarteka. (1)-eko adibidean, genitibozko [*de aquel inevitable golpe de la muerte*] buru duen izenaren ([*memoria saludable*]) ondotik dugu euskaraz ere. Egitura horri eusteko, gaztelaniaz *con* preposizioa dena egitura osoaren amaierara eraman behar izan du euskaratzaileak, izenordain baten bidez (*arequi*), dagokion [*memoria saludable*] sintagmatik urrunduta.

- (1) a. *con la memoria saludable [de aquel inevitable golpe de la muerte]*<sub>GEN</sub>  
 b. *memoria Saludable [golpe inevitable erioceco arren]*<sub>GEN</sub> *arequi*

Erdarazko egitura sintaktiko konplexuak soiltzeko joera ere nabari da pasarte honetan. Hala, erlatibozko perpaus baten barnean moduzkoa dago (2)-n. Euskaraz, ordea, erlatibozkoa saihestu da.

- (2) a. *alma adultera, que [negandole à tu Esposo verdadero Jesu Christo el talamo de tu voluntad,] admitiste en èl al demonio*  
 b. *Anima adultera, [ucatus zuc zoure Esposo verdadero Jesu Christori Talamo zoure vorondatecoy], admititu duzu artan Demonioa*

Bada bi hizkuntzen arteko bestelako alde interesgarriak ere. *Deitu* aditzak, esaterako, osagarria inesiboan du euskaraz, eta adlatiboan, aldiz, gaztelaniazko *llamar* aditzak. Adjektiboak, euskaraz, izenaren ondotik ematen ditu (eus. *golpe inevitable* ~ gaz. *inevitable golpe*). Batzuetan, bestelako ordainak ere ematen ditu, jatorrizkotik urrunduz (eus. *Jangoycoaren Magestade Divinoa* ~ gaz. *Divina Misericordia; xpata desembaynatuarequi* ~ *con la espada desnuda*). Gaztelaniaz singularra dena plurala da euskaraz batzuetan (*peligro, y ruina que amenaza essa pared de tu mortalidad* ~ *amenazacen dizutenac Parete zoure mortalidadeco oyec*).

## 6. Ondorioak

Lan honetan Erredingo etxe bateko euskarazko prediku-bilduma aurkeztu dut, erdarazko beste testu frankoren artean agertua. Corpus dokumental hori Nafarroako Unibertsitateko hiru irakaslek landu badute ere, erdarazko testuei soilik begiratu diete, eta euskarazko sorta, axaetik baino ez aipatua, ezezaguna zen euskalarientzat. Orain arte ez genuen, hortaz, Lizoainibarko euskararen aztarna dokumental luzerik eskura. Gaugerero, aurkikuntza horri

esker, argi esan daiteke XVIII. eta XIX. mendeetan euskaraz predikatzen zela oraindik ibar horretan, eta euskaldunak —elebidunak— zirela prediku horien egile erredindarrak.

Baina horrekin batera agertutako erdarazko prediku-sorta zabalak gaztelaniazko predikazioa ere sartua zegoela iradokitzen digu, eta, segur aski, euskarazkoari gaina hartzen ari zitzaiola. Ez dut jakiterik izan zeren arabera, zergatik edo noiz erabiltzen zuten hizkuntza bata edo bestea, baina honakoak Leiunen eta Erredinen erabilitako testuak badira, predikazioa gaztelania zabaltzeko lanabesa izan zela pentsa daiteke. Bestalde, predikuen itzulpenetan erdal ereduarekiko morrontza ikusten da. Aldunatetarrak euskaraz ongi aritu arren, idazkietan ez da antzematen euskara goratzeko edo jasotzeko nahikunderik, garaikide eta ia auzokide zuten Lizarraga Elkanokoaren parekorik (cf. Ondarra 1972; Apecechea 1978; Iriarte 2022). Bestela da Frantzisko Elizalde apezpei zuzendutako dokumentua, bestelako maila duena, nire ustez.

Egileen biografian murgilduta, erakutsi dut predikugileak Erredingo Luiseneko semeak zirela biak, osaba eta iloba, eta herrian berean edo inguruan egon zirela apez, tenore hartan etxe handietako semeek ohi zuten bezala. Frantzisko Elizaldez, ordea, ez dut deus edireterik izan.

Aitzinatu dudanez, corpus honi esker, lehenekoz jakin dezakegu Lizoainibarko predikugintzak zein euskara-mota zerabilen. Erregistroari doakionez, esan dut aldunatetarren itzulpenetan erdal prosarekiko mendekotasuna sumatzen dela. Alderdi dialektologikotik, espero bezala, hizkerak lotura du garai hartako testuen bidez ezagutzen dugun Eguesibarko eta Iruñerriko (ekialdeko) euskararekin, eta zenbait ezaugarritan bat egiten du Aezkoarekin, Erroibarrekin eta Zaraitzurekin, baita Erdialde eta Ekialde Zabalarekin ere (cf. Camino 2003; Reguero 2019). Labur esanda, lehen begiratuan, ez dakusat arazorik uste izateko hizkera hura zela lizoainibartarrek elizan aditzen zutena, eta testuak harako prestatu zirela. Alabaina, hizkuntz ezaugarri horiek denboran, espazioan eta generoan duten lekua sakon aztertzeko dago.

Ikuspegi soziolinguistiko zabalago batetik, eta aurreko lan zenbaitetan iradoki dudanez (Santazilia 2022, 2023), uste dut XVIII. eta XIX. mendeetan Nafarroan garatu zen euskal predikugintza idatzi oparoa ez daitekeela izan



beregainki eta elkarri bizkar emanez jardun ziren autoreen emaitza hutsa. Elkarren arteko loturak, zerabiltzaten motibazio, eredu eta iturri partekatuak zein izan ziren ikertu behar da, baita horrek denak Nafarroako euskara idatzi eta jasoan gerora utzi zuen kuntzea ere. Eta orain, Erredinek ere badu horretan guztian zer esan.

## Bibliografia

APECECHEA, Juan (1978). *Joaquín de Lizarraga (1748-1835). Un escritor navarro en euskara*. Iruñea: Nafarroako Foru Diputazioa.

BARCIA, Josef (1700). *Despertador Christiano de sermones doctrinales sobre particulares asuntos...* (1. lbk.). Madril: Herederos de Gabriel de León.

BONAPARTE, Louis-Lucien (1863). *Carte des sept provinces basques, montrant la délimitation actuelle de l'euscara...* Londres: Stanford's Geographical Establishment.

BROCA, Paul (1875). *Sur l'origine et la répartition de la langue basque. Basques français et basques espagnols*. Paris: Ernest Leroux.

CAMINO, Iñaki (2003). *Hego nafarrera*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.

IRACEBURU, Maite (2016). «Metáforas y contexto social en sermones del siglo XVIII», *Príncipe de Viana* 265 (2016): 733-756.

—, MARTÍNEZ, Concepción eta TABERNEO, Cristina (2018). «Presentación del proyecto de investigación del grupo TesUN (Universidad de Navarra)», *Chimera: Revista de Corpus de Lenguas Romances y Estudios Lingüísticos* 5 (2) (2018): 321-327. Kontsultagai: [<https://doi.org/10.15366/chimera2018.5.2.011>].

IRIARTE, Ibai (2022). *Joakin Lizarragaren lexikoaren azterketa* (Mendaur 12). Iruñea eta Bilbo: Nafarroako Gobernu eta Euskaltzaindia.

IRIGARAY, Ángel (1935). «Documentos para la geografía lingüística de Navarra», *RIEV* 26 (4) (1935): 601-623.

LEKAROZ, Gorka (2023). *Ai, ene onetsia! Nafarroako Pirinioaurre ingurua eta euskara (XVI.-XX. m.)*. Itzagaondoa: Itzagaondoa Ibarra Elkarte.

MAIORA, Fernando (2024). *Reino de Navarra. Lingua navarrorum vel lingua vasconum*. Argitaratze-lekurik gabea: Egilearen edizioa.

MARTÍNEZ, Concepción (2019). «Ea, pues, alerta. Manifestaciones de oralidad y dialoguicidad fingida en un sermón de entresiglos (XVIII-XIX)», in L. Alburquerque, J.L. García, A. Garrido eta A. Suárez (koord.), *Vir bonus dicendi peritus. Homenaje al profesor Miguel Ángel Garrido Gallardo*. Madril: CSIC: 606-619.

— eta TABERNEO, Cristina (2013): «Ortografía y alfabetización a partir de la edición de fuentes escritas del siglo XIX», *Cilengua: Cuadernos del Instituto de Historia de la Lengua* 6-8 (2013): 199-227.

ONDARRA, Francisco (1972). «Producción literaria de Joaquín Lizarraga (1748-1835)», *FLV* 11 (1972): 265-282.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.35462/flv11.10>].

OYHARÇABAL, Beñat (1992). «Euskararen mugez egin lehen mapak (1806-1807)», in *Euskaltzaindia* (arg.), *Luis Villasanteri omenaldia* (Iker 6). Bilbo: Euskaltzaindia: 349-366.

REGUERO, Urtzi (2019). *Filologiatik dialektologiara Nafarroako euskarazko testu zaharretan barrena (1416-1750)*. Bilbo: UPV/EHU.

SANTAZILIA, Ekaitz (2022). «Zildoeko Perutxeneko euskal predikuak (xix. m.)», *ASJU* 56 (2) (2022): 219-243.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.1387/asju.23959>].

— (2023). «Datu berriak Araba-Nafarroetako euskararen historiako: Eulateko dotrina (xviii.-xix. m.)», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 68 (1) (2023): 221-318.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.59866/eia.v1i68.256>].

TABERNERO, Cristina (2013) «Documentos navarros. Cartas privadas», in C. Isasi eta J.L. Ramírez (arg.), *Una muestra documental del castellano norteño en el siglo XIX*. Lugo: Axac: 177-211.

URGELL, Blanca (2018). «Lehen Euskara Modernoa», in J. Gorrotxategi, I. Igartua eta J.A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza: 543-657.

URSÚA, Isidoro (1994). «El Padre Francisco Martínez de Elizalde. Notas para una biografía», *FLV* 65 (1994): 67-75.

Kontsultagai: [<https://doi.org/10.35462/flv65.3>].

VILLASANTE, Luis (1956). «Una lista de pueblos vascongados de Vizcaya, Guipúzcoa y Navarra, de principios del siglo XIX», *BRSBAP* 12 (4) (1956): 433-446.

## Eranskinak

Hona hemen Luiseneko euskal testuen katalogoa. Lehenik, dokumentu bakoitzari esleitu diodan signatura heldu da, eta dokumentuak duen izenburuaren transkripzio paleografikoa gero. Testu horren —edo pasarteren baten— iturria identifikatu dudak kasuetan, hura eman dut azken zutabean<sup>63</sup>.

Signatura	Izenburua	Iturria
FJ_ALD-EUS-001	Erat Jesus ejciem dæmonium &a.	QS, 19. pred.
FJ_ALD-EUS-002	Liberati à peccato servi autem facti Deo, habetis fructum vestrum in sanctificationem finem, vero vitam æternam	DC, 3. pred.
FJ_ALD-EUS-003-1	Ecce nunc tempus acceptabile	DC, 6. pred.
FJ_ALD-EUS-003-2	Ecce nunc tempus acceptabile &c.	DC, 6. pred.
FJ_ALD-EUS-004	Ne tardes converti ad Dominum, et ne differas de die in diem etc.	DC, 7. pred.
FJ_ALD-EUS-005	Statutum est hominibus semel mori	DC, 16. pred.
FJ_ALD-EUS-006	Scito, et vide quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum et non esse timorem Dei apud te et vide	DC, 5. pred.
FJ_ALD-EUS-007	Effunde sicut aquam cor tuum ante conspectum Domini	DC, 56. pred.
FJ_ALD-EUS-008	Abijt Jesus trans mare Galilææ, quod est Tyberiadis &c.	QS, 24. pred.
FJ_ALD-EUS-009	Platica. 1. <sup>a</sup> De las partes de la Confesion en comun y daños en general de las malas confesiones	LV, 4. platika
FJ_ALD-EUS-010	Arguet te malitia tua et aversio tua increpabit te	DC, 24. pred.

<sup>63</sup> Egileendako honako laburtzapenak erabili ditut: QS = José de Barcia y Zambranaren *Quaresma de sermones*; DC = José de Barcia y Zambranaren *Despertador Christiano*; LV = Joan Martínez de la Parraren *Luz de verdades catholicas*.

Signatura	Izenburua	Iturria
FJ_ALD-EUS-011	Assumpsit Jesus Petrum, et Jacobum, et Joannem fratrem ejus &c.	
FJ_ALD-EUS-012	Multiplicatæ sunt infirmitates eorum, postea acceleraverunt. Non congregabo conventicula eorum de sanguinibus, nec memor ero nominum eorum per labia mea	DC, 9. pred.
FJ_ALD-EUS-013	Si mutare potest Ætiops pellem suam, et Pardus varietates suas, et vos poteritis bene facere cum didiceritis malum	DC, 12. pred.
FJ_ALD-EUS-014	Assumpsit Jesus Petrum, & Jacobum, et Joannem & <sup>a</sup>	DC, 29. pred.
FJ_ALD-EUS-015	Bonum est confiteri Domino, & <sup>a</sup> Psallere domini tuo, Altissime, in dechachordo Psalterio cum cantico in Cithara.	DC, 43. pred.
FJ_ALD-EUS-016	Numquid non dixi vobis: nolite peccare in puerum	DC, 77. pred.
FJ_ALD-EUS-017	Liber generationis Jesu-Christi filij David & <sup>a</sup>	DC, 10. pred.
FJ_ALD-EUS-018	Fili, in mansuetudine serva animam tuam, et da illi honorem secundum meritum suum.	DC, 2. pred.
FJ_ALD-EUS-019	Memor esto judicij mei, sic enim erit, et tuum mihi heri, et tibi hodie	DC, 17. pred.
FJ_ALD-EUS-020	Erunt signa in Sole, et Luna, & <sup>a</sup>	DC, «Aplicacion de los sermones de todo el despertador...» ataleko 1. pred.
FJ_ALD-EUS-021	Quis ex vobis arguet me de peccato?	QS, 32. pred.
FJ_ALD-EUS-022	Quis ex vobis arguet me de peccato?	QS, 31. pred.
FJ_ALD-EUS-023	Erat Jesus eijciens dæmonium, et illud erat mutum	DC, 46. pred.
FJ_ALD-EUS-024	Erat Jesus eijciens dæmonium, et illud erat mutum	DC, 45. pred.

Signatura	Izenburua	Iturria
FJ_ALD-EUS-025	Abijt Jesus trans mare Galilææ, quod est Tyberiadis &c.	
FJ_ALD-EUS-026	Erunt signa in Sole, et Luna, et stellis, et in terris præsuræ Gentium	
FJ_ALD-EUS-027	Vsque modo non petistis quidquam; petite, et accipietis	
FJ_ALD-EUS-028	Assumpsit Jesus Petrum, et Jacobum, et Joannem fratrem ejus &c. <sup>a</sup>	QS, 13. pred.
FJ_ALD-EUS-029	Videns Jesus turbas, ascendit in montem &c.	DC, 23. pred.
FJ_ALD-EUS-030	Nisi abundaverit justitia vestra plusquam Scribarum et Phariseorum, non intravitis in Regnum Cælorum	
FJ_ALD-EUS-031	Ductus est Jesus à Espiritu in desertum ut tentaretur à Diabolo	DC, 11. pred.
FJ_ALD-EUS-032	Dela nesidad (sic) del examen dela Conc. <sup>a</sup> y con q.ta ligencia debe hacerse	LV, 5. platika.
FJ_ALD-EUS-033	Ductus est Jesus in desertum, ut tentaretur à Diabolo	QS, 6. pred.
FJ_ALD-EUS-034	Memento homo quia pulvis es et in pulverem & / Tu autem cum ieiunas caput tuum, et faciem tuam laba	DC, 6. pred.
FJ_ALD-EUS-035	Dixi, confitebor adversum me injustitiam meam Domino: et tu remisisti impietatem peccati mei	DC, 55. pred.
FJ_ALD-EUS-036	Sermon de rogacion p. <sup>a</sup> el día de S.n Marcos. Compuesto y predicado por D.n Fermin Josef de Aldunate Abad de Leyun, y año 1810. En Beortegui / Petite, et accipietis; querite, et invenieris: Pulsate, et aperietur vobis	
FJ_ALD-EUS-037	[Izenbururik gabea]	
JM_ALD-EUS-001	Sermon sobre la paciencia y santa conformidad de Job compuesto y predicado año de 1779 por Dn. Juan Mig.l de Aldunate	

Signatura	Izenburua	Iturria
JM_ALD-EUS-002	Filii honora Patren tuun, et matren tuan, ut sic longevus super terram	LV, 30. platika
JM_ALD-EUS-003	[Izenbururik gabea]	
JM_ALD-EUS-004	Sermon para el quarto Domingo de Adviento = y que igualmente sirva para el nacimiento del niño Dios = predicado año 1796	
JM_ALD-EUS-005	[Izenbururik gabea]	
F_ELI-EUS-001	Apechauney	





# Fragmentarismoa testu postmodernoan: errealitatea kontatzeko ezintasuna Harkaitz Canoren *Kandelikaran*

El fragmentarismo en el texto posmoderno: la  
imposibilidad de narrar la realidad en la obra *Kandelikara*  
de Harkaitz Cano

Fragmentarisme dans le texte postmoderne: l'impossibilité  
de raconter la réalité dans *Kandelikara* de Harkaitz Cano

Fragmentarism in the postmodern text: the impossibility  
of narrating reality in the work *Kandelikara* by Harkaitz  
Cano

SOLANA, Paula  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)  
psolana001@ikasle.ehu.eus

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v1i70.299>

Jasotze-data: 2024/04/28

Behin-behineko onartze-data: 2024/11/05

Behin betiko onartze-data: 2025/02/19

Harkaitz Canok 2021ean argitaratutako *Kandelikara*. Buñueli buruzko film baterako *apunteak* liburuaren azterketak narrazio postmodernoaren gakoak eta ideia nagusiak ulertzeko aukera eskaintzen du. Generoari dagokionez sailkaezina den testu honek, kontakizun fragmentario batetik eta Luis Buñuel zinema-zuzendari espainiarraren bizipenetatik abiatuta, XX. mendeko abangoardien eta postmodernitatearen arteko elkarrizketa metaliterarioa gauzatzen du. Bide horretatik joanda, zinemaren eta literaturaren arteko harremanari buruz hausnartzen du eta ikuspegi desberdinetatik hautematen ditu hainbat egoera, bizipen eta gogoe-ta, zenbait ahotsen bidez narrazio polifonikoa sortuz. Horrekin batera, testuaren *collage* erako egiturak fikzioa eta errealitatearen arteko mugak aztertzea ahalbidetzen du, baita kontakizun ororen —historiarena barne— osotasunaren ideiarri aurka egin ere.

**Gako-hitzak:** zinema, postmodernitatea, abangoardiak, Buñuel, *collage*.

El análisis de la obra de Harkaitz Cano *Kandelikara. Buñueli buruzko film baterako apunteak*, publicada en 2021, ofrece la posibilidad de comprender las principales claves e ideas de la narración posmoderna. El texto —inclasificable en términos de género— establece, a partir de una mirada fragmentaria y las vivencias del director de cine español Luis Buñuel, un diálogo metaliterario entre las vanguardias del siglo XX y la posmodernidad. En ese transitar, reflexiona desde diversas perspectivas, vivencias y reflexiones, sobre la relación entre cine y literatura y crea una narrativa polifónica a través de diferentes voces. Además, la estructura *collage* del texto permite analizar los límites entre ficción y realidad y afrontar la idea de totalidad de cada relato, incluido el de la historia.

**Palabras clave:** cine, posmodernidad, vanguardia, Buñuel, *collage*.

L'analyse du récit *Kandelikara. Buñueli buruzko film baterako apunteak*, publiée par Harkaitz Cano en 2021, ouvre la possibilité de comprendre les clés et idées centrales du récit postmoderne. Le texte — inclassable en termes génériques — demeure stable, basé sur un point de vue fragmentaire et la vie du réalisateur espagnol Luis Buñuel, un dialogue méta-littéraire entre l'avant-garde du XX<sup>e</sup> siècle et le postmodernisme. En chemin, nous réfléchissons à divers points de vue, expériences et considérations, sur la relation entre cinéma et littérature et créons un récit polyphonique. Désormais, la structure en collage du texte permet d'analyser les limites entre fiction et réalité et de confronter l'idée de la totalité de chaque histoire, y compris l'Histoire.

**Mots-clés :** cinéma, postmodernisme, avant-garde, Buñuel, collage.

The analysis of the book *Kandelikara. Buñueli buruzko film baterako apunteak*, published by Harkaitz Cano in 2021, offers the possibility of understanding the main keys and ideas of postmodern narration. The text —unclassifiable in terms of genre— establishes from a fragmentary view and the experiences of Spanish film director Luis Buñuel a metaliterary dialogue between the avant-garde of the twentieth century and postmodernity. Along the way, it reflects from various perspectives, experiences and reflections, on the relationship between cinema and literature and creates a polyphonic narrative through different voices. Along with this, the *collage* structure of the text allows analyzing the limits between fiction and reality and facing the idea of the totality of every story, including that of History.

**Keywords:** cinema, postmodernity, avant-garde, Buñuel, *collage*.

SOLANA, Paula (2025). «Fragmentarism in the postmodern text: the impossibility of narrating reality in the work *Kandelikara* by Harkaitz Cano», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 70 (1): 361-379.

1. Fragmentarismoa eta postmodernitatea *Kandelikaran*: kokapena
  - 1.1 Aurrekariak: Uriberen Bar Puerto proiektua
  - 1.2 Harkaitz Cano: zinema eta abangoardia
2. *Kandelikara*, testu fragmentarioa: analisia
  - 2.1 Paratestua: asmo-adierazpena
  - 2.2 *Collage* teknika eta berridazketa: *le cadvre exquis*
  - 2.3 Generoen arteko mugak urtzea
  - 2.4 Narratzailearen perspektiba anbigua: nor ari da hitz egiten?
3. Ondorioak: fikzio hutsa

#### Bibliografia

«Ezerk ezin du amaitu gabe geratu den artelan baten indarra gainditu».

*Belarraren ahoa* (Harkaitz Cano)

## 1. Fragmentarismoa eta postmodernitatea *Kandelikaran*: kokapena

Errealitatea ulertzea eta irudikatzea pentsamendu eta hausnarketa filosofikoaren erdigunean agertu da maiz historian zehar. Zenbait planteamendutatik abiatu izan dira, esate baterako: mundu materialaren azterketa arrazionalista egiteko aukera; ideiak eta subjektibitateak aditzera emateko beharra materia aztertzerakoan; edo errealitatea ezagutzeari uko egiten dion erlatibismoak, haren existentzia zalantzan jartzeraino. XX. mendeko pentsamendu arrazionalaren krisiak ekarri zuen errealitatearen izate objektiboarekiko mesfidantza:

El universo a partir del s. XX es un mundo que se distancia de la concepción de estabilidad y de la idea de ser captado en su totalidad. Esa misma inestabilidad afecta a los géneros, que dejan de ser categorías cerradas según el canon de Boileau. [...] La ciencia ya no podía explicar el mundo y el hombre ya no podía abarcar todo el saber. Y con ello se rompía la idea de totalidad y de coherencia.

(Veres Cortés 2010: 3)

Arteak eta literaturak errealitatea osoki irudikatzeari uko egiten diote, hau da, zatien bidezko irudikapena nagusitu egiten da, errealitate subjektibo bat azaltzeko modu bakartzat ulertuta, eta abangoardia artistikoen tesuinguruan garatzen da ideia postmodernoen aitzindaritzat hartzen den pentsamendu hori. Abangoardiak azpimarratzen duenez, sistema artistikoek bitartekotzat jarduten dute errealitatea ezagutzeko orduan. Helburua ez da errealitatea kanonikoki antolatzea, baizik eta errealitate inplizituak sortzea (Bürger eta Piñón 1987). Postmodernitateak «osotasuna» edo «absolututasuna» ezagutzeko eta irudikatzeo ezintasuna igartzen du, eta narrazioek errealitatean esku hartzeko duten indarra aldarrikatu.

Zentzu horretan, paradigmatikotzat har daiteke Harkaitz Canok 2021. urtean argitaratutako *Kandelikara. Buñueli buruzko film baterako apunteak*. Bere burua «omenaldi bihurri» gisa aurkezten duen testu horrek, abangoardiarekin elkarrizketan jardutea ekarriko du, eta horrexetan gauzatzen dira hausnarketa autokontzientea eta joko metaliterarioa. Era fragmentarioan egituratuta, Luis Buñuel espainiar zinema-zuzendari ospetsuaren bizipen eta sorkuntzak fikziozko narratzaileekin eta asmakuntza hutsekin nahasten dira. Hortaz, genero artistikoen arteko mugak ere elkarren aurkan jartzen dira, eta zinemak eta literaturak bat egiten dute, testuak filmetzat hartzen baitu bere burua. Aldi berean, Buñuelen biografia gisa ulertzen badugu, agerian geratzen da, linealtasuna haustea ezinbestekoa dela linealak ez diren bizitzak edo historia kontatzeko, eta hori pusken bidez bakarrik egin daitekeela. Hortik abiatuta, egileak fragmentarismorako joera eta diskurtso metaliterarioa aldarrikatzen ditu, baita genero estankoen desagertzea ere. Halaber, fikzioaren eta errealitatearen arteko mugak aztertzen ditu Canok, postmodernitatearen proposamen teorikoa era jostagarrian aurkezten duen testu batekin.

### 1.1 Aurrekariak: Uriberen Bar Puerto proiektua

Euskal arte eta kulturaren testuinguruan aipatzekoa da artelan paradigmatico eta aurrekari dugun Bar Puerto: Bazterreko Ahotsak proiektu intermediala, Kirmen Uribek sortutakoa. Mikel Urdangarin eta Bingen Mendizabalen musikarekin batera, 2000. urtean zehar zenbait herritako plazetan aurkeztu eta eszenifikatu zen; eta 2010ean Elkarrek argitaraturiko ikuskizunaren testu- eta poema-liburuan aditzera eman zuen Uribek proiektuaren egitasmoa:

Irudiokin taula gaineko ikuskizun bat egin, ahozko historia, literatura, bideo-lana eta musika bere baitan hartuko zituen. [...] Irudietan ahozko testigantzak jasoko ziren, benetako pertsonen bizitzak. [...] Mikrokosmos batean kokatutako kontakizun urbanoa da Bar Puerto. Hari nagusia izenik gabeko zinegile baten egunerokoa da. Testigantzak bene-benetakoak diren arren, egunerokoa asmakizuna da.

(Uribe 2010)

Hortaz, poesia, musika eta zinema bateratzen dituen sormen intermedia-  
la identifikatzen da; halaber, errealitatea —testigantza— eta fikzioa nahas-  
ten dira, eta zatien bidez adierazten da ideia edo istorio oso bat. Horixe da  
preseski, Otaegiren hitzetan, Bar Puertok ekarritako berrikuntza, hau da,  
*ni* poetikoaren ahotsak eta lekukoaren esperientziak sortutako dialektika:  
«... protagonista hautsi horrek [pertsoneaia autofikzioanalak] bere burua  
berreraikitzeke [...] norbere hautuen espazio fisiko eta kolektibo bat bila-  
tzen du, [...] testigantzekin batera sorturiko komunikazio irlatik [...]»  
(Otaegi 2020: 171).

Honela, narrazioa lekukoarekin sortutako elkarrizketa barruan osatzen  
da eta zatien bidez soilik uler liteke *ni*aren esperientzia. Izan ere, nabarmen-  
tzekoa da, Annette Wieviorkak argitaratutako *L'ère du témoin* (1998) libu-  
ruaren testuinguruan garatzen dela proiektua. Lekukoaren garaian azaltzen  
denez, narrazio lineala edo bakarra —historiografikoa, alegia— ez da *egia*  
kontatzeko gai, eta lekukoaren beharra aldarrikatzen du, hots, egiaren kon-  
tzeptualizazio positibistari uko egiten dio eta, Beverleyren hitzetan, konta-  
kizunaren eraikuntzan agertzen diren egia-forma ezberdinak igartzen dira  
(Beverley 1992: 12). Hortaz, narratzaile fikzionalaren eta lekukoaren egiazko  
testigantzen arteko elkarrizketak fragmentarismoaren alde egiten du *egia*  
kontatzeko eta,aldi berean, testua intertestualitateaz baliatzen da aban-  
goardiak eta zatiak edo egia ez-osoak aldarrikatzean.

Batetik, Raymond Carver poeta eta ipuinlari estatubatuarraren aipua-  
kin dakar Uribe era batean ez-osotasunaren ideia. Carverren literaturaren  
estilo zatikatutak, denbora eta espazioarekiko jarrera berritzaileak, eta, ba-  
tez ere, informazioa aurkezteko —eta ezkutatzeko— modu fragmentarioak  
proiektuan sortzen duten efektu edo ondorioa agerian utzi nahi du idazle  
ondarroarrak. Bestetik, Luis Buñuel zuzendari espainiarraren eta zinemaren  
inguruko kontuak hausnartzen ditu narratzaileak bere egunerokoan.  
Buñuelen *Ahaztuak* (1950) filmetik abiatuta, testigantzen eta polifoniaren  
garrantzia azpimarratzen du, Bar Puertoko eguneroko istorioen kontakizu-  
naren bidez historiaren osotasuna kontatzeko era bakarra ere zalantzan jar-  
tzen den bezalaxe, izan ere, «kostaldeko herri guztietan dago Bar Puerto  
deritzon taberna bat» (Uribe 2010: 12).

## 1.2 Harkaitz Cano: zinema eta abangoardia

«Nola idatzi arau hauslea den norbaiti buruzko liburu bat arauak hautsi gabe? [...] Ezin da» (Imaz 2021: § 3). Gogoeta horretatik abiatzen du Harkaitz Canok *Kandelikara*. Baina Buñueli buruzko gidoi sailkaezin eta jostagarria idatzi aurretik ere, jada konbentzioak apurtutako idazlea zen Cano, hala nola beronen ipuinek linealtasuna hausten baitute, teknika metanarratiboak baliatzen baitituzte eta perspektibaren garrantzia azpimarratzen baitute, besteak beste —akaso Carver, Cortázar, Hemingway eta hainbat ipuinlari berri-tzaileren eraginpean, eta haiekiko solas intertestualean jardutearen ondorioz—. Aldi berean, haren literaturak zinemarekiko —eta alderantziz, gidoilaria ere bada-eta— duen atxikimenduak berorren testu askoren oinarri bilakatzen du intermedialitatea, esan nahi baita, zinemaren eta literaturaren arteko mugak ezabatzearen inguruko hausnarketa oso presente dagoela haren lanean. Horren adibideak ditugu *Zinea eta literatura. Begiaren ajeak* (2008) saiakera eta *Belarraren ahoa* (2004), *nouvelle* edo ipuin luzea.

Literaturaren eta zinemaren arteko harremanak aztertu zituen *Begiaren ajeak* (2008) liburuan, baita bere poetikaren oinarriak ezarri ere. Bertan, hainbat ekarpen egiten ditu intermedialitatearen beharrianari buruzkoak eta argazkilaritzaren, komikiaren eta telebistaren inguruan ere aritzen da. Intertestualitatea eta sortzaile berritzaile eta esperimentatzaileen aipamena nabarmen-nabarmenak dira Canoren obra osoan, eta halaxe da bere saiakeran ere. Zentzu horretan, zinema berridazketa gisa ulertzen da, espresionismo alemaniarrak edota *nouvelle vague*ko zuzendariak ulertzen zuten eran:

Jean-Luc Godardek [...] azpimarratu bezala, [...] *zine kritikak idaztea* zen pelikulak egiteko beraien era. Pelikulak *berridatzi* egiten zituzten. Espresionismo alemaniarrak, eleberri gotikoa eta beldurrezko ipuina hartu, eta bere kasa aldatu eta moldatzen du zeluloidean; zineko melodrama XIX. mendeko folletinen jarraipen bat da [...].

(Cano 2008: 61)

Premisa horri helduta, generoen sailkapen estankoari aurre egiten dio, eta beste ikuspuntu batzuetatik arakutzen ditu zinea eta literatura —eta beste arte mota batzuk—, hala nola irudi konpartitu bat oinarri hartuta,

esaterako, Michelangelok, *Frankenstein* klasikoak eta *Far West*eko filmek partekatzen duten *pietatearen* iruditik (Cano 2008: 74), edo behin eta berriro errepikatzen diren gaien arabera, maitasun erredentoretik, emakume adulteriogiletik eta abar (Cano 2008: 83).

Lau urte lehenago idatzi zuen idazle lasartearrak *Belarraren ahoa* (2004), bere poetikaren nolabaiteko paradigma fikzionala. Berriro ere lausoturik daude ipuin horretan zinemaren eta literaturaren arteko mugak, eta hausnarketa metaliterarioaren bidez adierazten da, besteak beste, osotasun narratiboaren ezinezkotasuna. Izan ere, testua Chaplinek elkarrizketa batean *The Great Dictator* filmerako baztertutako eszena bati buruz esandakoarekin hasten da:

... gidoiaren lehen bi zirriborroetan egon zen, azkenean, konplexuegia zela-eta, filmatu ez bagenuen ere. Izan ere, beti daude bi film: egin zena, eta bidean geratu zena. Bigarrena izaten da onena, ia beti. Historiako gertakariei so egiten badiegu ere, halako zerbait gertatzen den susmoa daukat.

(Cano 2004: 8)

Beraz, kontatuko denaren abiapuntua ezartzen da nolabait; alde bate-tik, artearen osotasun-adierazpenaren ezintasuna eta bukatu gabeko narrazioen aldarrikapena, eta, bestetik, kontatuko den ukronia edo historia alternatiboa aurkezten ditu. Testuak irudi ugari iradokitzen ditu, asko bereziki zinematografikoak dira, eta etengabeko elkarrizketan aritzen dira fikzioa eta errealitate edo gertakari historikoak, Chaplinen zinematik abiatutik.

## 2. *Kandelikara*, testu fragmentarioa: analisisia

*Kandelikara. Buñueli buruzko film baterako apunteak* (2021) liburuan aditzera ematen dira berriro ere Canoren literaturaren elementu ugari. Intermedialitatea da ildo nagusia, gidoi zinematografiko baten itxura hartzen baitu testuak, baita idazmen postmodernoaren joera fragmentarioa eta polifonikoa ere, perspektiba anitzeko narrazio poliedrikoa sortuz.



## 2.1 Paratestua: asmo-adierazpena

Paratestua aztertzeak irakurleari testura lehen aldiz hurbiltzeko aukera ematen dio. Azalean ageri den izenburu nagusia, *Kandelikara*, ez da hitz ezaguna, baina irakurle euskalduna, beharbada, gai izango da horren ostean dagoen hitz-jokoa zein den hautemateko: ‘kandelaren ikara’. Agian, azpitu-tulua edo izenburuaren jarraipena irakurrita, *Buñueli buruzko film baterako apunteak*, hainbat gauza argituko zaizkio irakurle hasi berriari, hala nola Luis Buñuel zuzendariari buruzko testu baten aurrean dagoela. Bestalde, testuaren generoari dagokionez nahastea sortzen da, uler baitaiteke, pertsonaia historiko batekin film bat egiteko apunteak ez-fikziozko testu biografikoa edo saiakera izan daitezkeela; edo, alderantziz, fikziozko film baterako gidoia edo oharra direla pentsa daiteke.

Horrekin batera, Buñuel zinemagilearen unibertsoa ezagutzen duen irakurleak, haren elementu bereizgarriei antzemango die liburu-azalerako Iñaki Landak egindako ilustrazioan, hala nola, eta bere hitzetan: «Begiak, begiradak, [...], emakumearen gorputza, animalia ustelduak, [...]» (Imaz 2021: § 9). Atzeko azaleko laburpenak argitzen digu, neurri batean, zer izan behar duen testuarekiko espektatibak: «[...] Luis Buñuelen eta beste artista askoren testu, film, elkarrizketa-zati, poema, *offeko* ahots eta bestelakoen *remake* bat da» (Cano 2021). Horrek esan nahi du, alde batetik, zenbait generotako zatiak nahastuta agertuko direla; eta, beste aldetik, *remake* hitzaren eskutik, berridazketa fikzionala izango dela. Aldi berean, zinemako hizkera edo jargoia erabiltzen da idatzizko testuari —literarioa, akaso— erreferentzia egiteko. Ildo berekoak dira azkeneko orrialdean umorez eta ironiaz idatzitako azken eskerrak; honelaxe hasten dira: «Film hau ez zen posible [...]» (Cano 2021: 165), berriro ere generoen arteko mugei keinu eginez.

Bestalde, lehen orrialdeetan bi elementu paratestual daude: hasierako eskaintza eta Roberto Bolaño idazle txiletarraren aipu bat. Lulepa izeneko bati dagokion eskaintzak honelaxe dio: «Arauengatik, jolasengatik, askatasunagatik» (Cano 2021: 7). Horren harira, progresio bat gauzatzen da —artearen, literaturaren, zinemaren, fikzioaren— arauetatik askatasuneraino doana, *jolas* hitza erdi-erdian dela, trantsizio horri bide ematen dion baliabide bezala. Ondoren, Bolañoaren aipamena dator: «... poesia sartzen da

ametsen hildako urpekari bat Jainkoaren begian bezala» (Cano 2021: 9). *Los detectives salvajes* (1998) eleberriaren idazle eta infarrealismoaren sortzaile den horren aipua aukeratu izanak Canoren testua kokatu egiten du, Bolañok elementu abangoardistak integratzen eta, aldi berean, desafiatzen baititu: «... la narrativa de Bolaño con todo lo excéntrica y antihegemónica que pretende ser, se centra en su propio modelo vanguardista y plantea su propia ruptura» (Zavaleta 2014: 122). Jorge Carriónek, berriz, *Los detectives salvajes* lanari buruz, hauxe idatzi zuen: «... una parodia de la vanguardia —al tiempo que una novela realmente vanguardista—» (Carrión 2003: § 7). Hortaz, litekeena da pentsatzea, Canoren testua abangoardiekin jolasen arituko dela, berekin solasean eta, aldi berean, berak aurkez aurke jartzen, beronen ikuspuntua dialektika horretan sortzen delarik.

## 2.2 Collage teknika eta berridazketa: *le cadavre exquis*

‘Hilotz paregabea’ edo *le cadavre exquis* surrealisten hitz-jokoa erabiltzen du testuak bere egitura zatikatuaren paradigmaz; hala, Canok hauxe diosku: «... bere izaera kolektiboa eta zoriaren esku uzten den zereginaren zatiak» (Cano 2021: 36). Horiexek dira, halaber, *Kandelikararen collage* egituraren oinarriak, alde batetik, zenbait iturritatik hartutako zatiek ahalbidetzen duten polifonia eta, bestetik, halabeharreko azken emaitza, azken esanahia. Aldi berean, kaosa eta horren zatiak dira errealitatea ulertzeko bidea, eta testuak sarreran bertan adierazita utziko du bere poetika, zentzu horretan:

Lo gauden bitartean armiarmek sarea egiten digute aurpegian. Zenbaitek ametsa esaten diete sare horiei. Esnatzen garenean, altxa orduko, amarauna apurtu eta hortzen eta begien artean korapilatzen zaigu: zatika baino ezin da ametsa dastatu eta berregin. [...] Bitxia da armiarmak izatea, hain zuzen, Luis Buñuel jauna izutzen zuten munduko zomorro bakarrak.

(Cano 2021: 11)

Surrealismoak ametsaren eta esnaldiaren arteko muga, errealitatea ulertzeko erabiltzen duen bezala, ametsak dirudi hemen «osotasuna» hobekien

adierazten edo errealitatea hobekien irudikatzen duena. Aldiz, esnaldian, zatiak besterik ez da geratzen eta zatiok dira egia berrantolatzeko edo berregituratzeko modu bakarra. Luis Buñuelen pertsonaia ere aurkezten du ekaritzen da: biografien, pertsonaien eta historiaren beraren ironia edo paradoxa. Horrek esan nahi du, bizitzaren eta artearen arteko kontraesanak azaltzeko modu gisa agertzen direla, beste behin ere, zati horiek. Esate baterako, surrealismoaren adierazgarri nagusienetakoa den horrek beldur die armiarrei, ametsen osotasunari edo inkontzientearen errealitateari. Ildo horretatik, testuan zehar Buñuelen —eta abangoardien edo abangoardisten— hainbat ikuspuntu eta jarrera inkongruente aurkeztuko ditu Canok.

*Le cadavre exquis* teknika ere beste artelan eta beste artisten sorkuntzetatik —edo sorkuntzen zatietatik— abiatzeko aitzakia izango da, hots, testuak bere idiosinkrasiaren gainean gogoeta egingo du eta diskurtso metaliterarioa sortuko da besteekiko solasean. Horrek dakarrena da, Amo Sánchez-Fortúnnek azaltzen duen gisara, testuak bere forman edo eraikitze-prozesuan arreta jartzea —izaera artifiziala duela erakusteko— eta fikzioaren eta errealitatearen arteko erlazioa zalantzan ipintzea (Cano 2021: 21-22).

Horrekin batera eta artifizioaren egiturarekin lotuta, nabarmentzekoa da testuak erabiltzen duen estilo oniriko edo surrealista. Horrela, edukiak eta formak bat egiten dute, abangoardien estilo literarioari jarraiki haiekiko elkarrizketan. Horiek horrela, hitz berriak asmatzen dira, jostagarri, eta hitzoi esanahi berriak esleitzen zaizkie. Lehen fenomenoaren adibidetzat har daiteke titulua bera, zinemari *Kandelikara* deitzen diona. Testua, hainbat momentutan, zinemaren jatorriari, izaerari eta helburuari buruzko hausnarketa kontzeptualarekin nahasten da: «Zinemaren hastapenetan zeluloideak oso erraz hartzen zuen su. [...] Zinema, beraz, kandela baten dardara da» (Cano 2021: 24). Hala, adibidez, generoaren ezaugarriak, berehalakotasuna eta amaikortasuna, hitz asmatuen inguruan garatzen dira: «... itzaltzearen dardara» (Cano 2021: 30). Bestalde, azken orrialdeetan «ezinbesteko hiztegia» (Cano 2021: 153) zerrendaturik dago, testu akademikoak ulertzen laguntzen duten hitz-glosarioen forma hartzen duena. Us-tekabeen, bertan bilduta dauden hitzei esanahi berriak eman zaizkie, esate baterako, Remedios Varok afaldu zueneko tokia bezala ageri da *Donostia* hiria, eta *fereka* hitza, berriz, «gutun-azaletan zigiluak kolpeka jartzen dituz-

tenek egiten ez dakitena» da (Cano 2021: 154). Horrela, berben esanahiak perspektiba berri batetik ulertzen dira eta «esangura» hedatu ere egiten da. «Errealitate hedatua» da, izan ere, surrealismoa:

Errealitate hedatua da belarretan etzate hutsarekin zure begien bistatik eraikinak desagerraraztea. [...] Errealitate hedatua da zure arropak erreka bazterreko harri zapaleak ikusi eta zu biluzik irudikatzea.

(Cano 2021: 134)

Beraz, surrealismoaren ideiek —eta postmodernitatearenen— zabaltzen ari den errealitate bat erakusten dute, errealitate absolutuaren ideia gaindizten duena. Horrela, subjektibitateak errealitatea sortzen du eta gizabana-koak, literaturarekiko, artearekiko eta hizkuntzarekiko errealitate berriak. Hortaz, abangoardietatik jasotako ideia hori garatu egiten du testu postmodernoak.

### 2.3 Generoen arteko mugak urtzea

Canoren generoen poetikak, *Zinea eta literatura. Begiaren ajeak* (2008) liburuak, generoen sailkapen estankoa egitea ezinezkoa dela azaltzen du, eta sailkapenak «disolbatzea», desegitea proposatzen da: «... literaturak literatura izateari uko egin [...], zinemak zinemari uko, arteak arteari uko, disolbatu egin behar ote duen molde tradizionalak eta infiltratu edo ezkutuko agente bilakatu, bere izenari ere uko egin eta beste zerbait bihurtu» (Cano 2008: 10-11). Horixe bera da *Kandelikaran* praktikan jartzen duena, literatura-generoak nahastea —saiakera, biografia, poesia, fikzioa— eta genero artistikoak *urtzea*, nahastea, hala nola literatura, zinema, argazkilaritza eta abar. Testuak bere izaeraren hibridotasuna edo anbiguotasuna aditzera emango digu, literatura-generoen sailkapenari dagokionez: «... eman su saiakerari eta eleberri bihurtuko da» (Cano 2021: 49), kandelaren eta suaren jolas metaforikoa dela medio, beste behin ere.

Hala, praktikan ere betetzen da fikzioa eta historia narrazio bakar baten bidez aztertzea hainbat pasartetan. Esaterako ez-fikziozko generoetan jatorria duten testuak moldatzen dira eta beste batzuk sortzen dira; adibidez,

Leonora Carringtoni telebista-saio batean egindako elkarrizketa asmatua (Cano 2021: 126). Bibliografiaren atalean (Cano 2021: 159), ikus dezakegu Carringtonen memoriak erabili direla testua dokumentatzeko, eta elkarrizketa fikzionalak legez ageri dira margolariak bertan azaldutako hainbat esperientzia. Hala ere, irakurleek ez dute zehatz jakingo non bukatzen diren memoriak eta non hasten diren artifizio fikzionala, asmakuntza eta jokoa<sup>1</sup>. Hortaz, pertsonaiaren bizipenetrako hurbilketa modu fragmentarioan edo haustura oinarri hartuta egiten da, narrazio subjektiboa berrinterpretatzen baita eta harekin sorkuntza fikzionala nahastean apurketa baitator. Ildo beretik doa Buñuelen bizitzaren eta beronen testuinguru historikoari buruzko hausnarketa; esate baterako, *Tristana* filmeko elkarrizketa batean aztertzen dira zuzendariaren egoera ekonomikoaren zenbait alderdi.

Surrealistak izan ziren soldatapeko lana lotsagarria zela aldarrikatzen lehenak. *Tristana* filmean halaxe dio so don Lopek Saturno mutuari: «... lana maldizio bat da, Saturno. [...] ez du, dioten moduan, inor duintzen; esplotatzen gaituzten zerriei zorroa betetzeko besterik ez du balio [...] Begira niri: ez dut kolpe zorrik jotzen. Eta ikusten duzu, bizi naiz bizi, gaizki baina lanik egin gabe». Buñuelek, paradoxikoki, erruz lan egingo du bizi osoan. Eta askotan, gehienetan, enkarguz ere bai (Cano 2021: 88).

Honela, Buñuelen pertsonaien ideia eta esperientzien eta zuzendariaren bizitzaren artean kontraesana dagoela igartzen da baita, akaso, surrealisten artearen eta haien esperientzien arteko distantzia ere.

Zinemaren eta literaturaren arteko harremanari dagokionez, testuak «filma» deritzo bere buruari eta praktikara eramaten du zinemaren eta testu literarioaren sailkaezintasunaren proposamena. Batzuetan, deskribapenetan eta narrazioetan zinema-teknikaz baliatzen da. Estilo zuzenak eta etengabe-ko narrazioak sortzen duten irudi mentalak ikus-entzunezko artearen behalaketasunera gerturatzen ditu irakurleak. Kasurako, «Toledoko ordena» (Cano 2021: 40) deituriko atal batean, hiriko kaleetatik dabilta

---

<sup>1</sup> Ez da kasualitatea elkarrizketaren generoa aukeratu izana, non eta Estatu Batuetako telebistako *talk show* famatu batean, Carringtonek kazetariengandik ihes egin baitzuen bitzta osoan.

Buñuel, Lorca eta Dalí, beste lagun batzuekin batera. Pasarte orainaldian kontatua da eta horrek irakurtzen denarekiko aldiberekotasun-efektua eragiten du, zineman gertatzen den bezala. Narrazioan biderketa-taulak tartekatzen dira, hasiera batean itxurazko zentzurik gabe: «Bi bider bat bi. Jose Urzelay euskal pintorea tartean dago, eta baita Ernestina González liburu-zaina ere. Bi bider bi, lau. Toledoko kaleetan abentura bila dabilta» (Cano 2021: 41). Azkenean jakingo du irakurleak, eskolako umeen ahotsak direla eta, testua berriro irakurriz gero, kontakizunaren bigarren mailan diren ahotsak entzun ahal izango dira, kontaketa nagusiarekin nahasian, film bateko giro-soinua bailitzan. Zentzu berean, deskribapenekin eta topikoekin jolasten du, irudi zinematografikoa sortzea lortzeko. Horrek esan nahi du, zineman behin eta berriro errepikatu izan diren irudiak deskribatuz gero, pelikula baten —edo ugarien— fotogramak irakurlearen begien aurretik igarotzearen efektua sortzen dela:

Zineman funtzionatzen dute: txistu egiten duten gazteak [...] / autoen kristalen gainean isurtzen diren zuhaitzek [...] / Ogi txigortuegiaren gainean gurinak egiten duen hotsak / Hilobi batera gauetz sartzen den gazteak [...] / Lehenbizi kolpatu eta gero galdetzeak ('Primero lo quebramos, luego lo averiguamos').

(Cano 2021: 99-101)

Horrela bada, arte zinematografikoan errepikatzen diren zenbait irudi gogora ekartzen ditu testu literarioak. Horrez gain, haietako batzuk Buñuelen pelikuletan ere badira, eta *Susana* (1951) filmean Felisaren pertsonaiaren ahotik entzun dugun «Primero lo quebramos, luego lo averiguamos» esaldia erabiltzen da horren paradigmatzat. Era horretan iradokia edo islatua du zinema testuak, eta horren berezitasunak azaleratzen dira, genero bakoitzaren konbentzio tradizionalak zalantzan jarriz.

## 2.4 Narratzailearen perspektiba anbigua: nor ari da hitz egiten?

Buñuelen —edo surrealismoaren, edo abangoardien, edo zinemaren...— istorioa puskaka kontatzeko, narratzaile anitzen ahotsak nahasten dira eta beren perspektibek josten dute narrazioa, kontakizun polifonikoa sortuz:

El concepto tradicional de unidad textual se desvanece para dejar paso a una narrativa de carácter fragmentario, polimórfico y heterogéneo, entreverada de diferentes voces narrativas y caracterizada a veces por complejas estructuras de muñecas rusas. [...] Emerge una novela coral en la que se cuestiona o *problematiza* la propia naturaleza de la voz narrativa [...]. Se da paso [...] a narraciones [...] cuyas historias se abordan desde diferentes y a veces contradictorias perspectivas.

(Amo Sánchez-Fortún 2010: 27)

Hortaz, hiru ildo nagusi bereiz litezke narratzaile eta ikuspegi desberdinak kontuan hartuta: narratzaile armeniarra, Agnés Vardá zinema zuzendariaren ekarpenak eta Jeanne Rucarren ikuspuntua.

Hasieran, bere burua identifikatzen duen narratzaile nagusia —agian autoreaekin bat egiten duena, testua saiakera gisa irakurriz gero— ageriko da eta *nia* aditzera emango: «Uste dut» (Cano 2001: 12). Horrek hurrengo narratzailea aurkeztuko du, testuaren egitura azaltzeko: «Inoiz edo behin, Buñuelekin zerikusirik ez daukan jendeak parte hartuko du: adibidez, aseguru-saltzaile armeniar batek» (Cano 2021: 15). Aurrerago, armeniarri egindako elkarriketa labur baten bidez azalera ekarriko du bere zeregina, alegia, artearekiko begirada subjektiboa begien aurrean ipintzea. Hala, zinema gustuko duen galdetutakoan, armeniarrek hauxe erantzungo dio: «[...] zinema, pelikulak, horiek guztiak, aseguru-poliza saltzaile baten begiekin ikusi ditut beti»; eta beste ahots batek diotsu: «Eta ze begirekin ikusten ditu aseguru-saltzaile armeniar batek filmak?» (Cano 2021: 21). Handik aurrera, armeniarrek bere hausnarketak eta ikuspuntuak lehenengo pertsonan kontatuko ditu noizbehinka, eta artea interpretatzeko orduan irakurle edo ikusle banakakoen testuinguru zein esperietziek duten garrantziaz ohar-taraziko gaitu.

Buñuelen pelikulen indarkeriatik eta zuzendariaren hitzetatik aurrera joz, terrorismoari buruzko hausnarketa egingo du armeniar narratzaileak, «armeniar bezala, aluditua sentitzen» baita (Cano 2021: 36). Agian narratzaile euskaldunaren aztarna ere sumatuko dute irakurle frankok, eta igarriko dute armeniarren begirada ez dela ausazkoa... Halaber, Buñuelen film

baten trama xehetuko du aseguru-saltzaileak, *Susana* filmarena, hain zuzen ere. Lehenik, hari buruzko hausnarketa orokorra mahaigaineratuko du: irakaspén moralista eta manikeo hutsaren interpretazio posiblea, edo ironiaz ehundutako satira aparta?: «Buñuel damu da egun, [...] amaierako parodia aski ez azpimarratu eta hura ironikoago ez egin izana. Jendea sinesbera da, eta sinetsi egiten ditu amaiera zoriontsuak, baita zuk parodikoki egin nahi izan dituzunean ere» (Cano 2021: 118).

Testuan ulertarazten da, beraz, egilearen eta hartzaileen interpretazioek ez dutela zertan bat egin, eta subjektibitatearen garrantziari erreparatzea nahi da: artearen gaineko begirada subjektuaren ezaugarri eta bizipenek baldintzatuta dago, guztiz. Orobat, armeniarren esperientzia filmeko sexu-sinboloekin loturik dago: oilategian jazotako eszena iradokitzailea ikusi zuenetik, «ezin [du] arrautza bat irabiatu sexuan pentsatu barik» (Cano 2021: 118). Modu horretan, hartzaile bakoitzaren eta egilearen edo artelaren arteko dialektikaz jabetu gaitezen nahi da.

Agnés Vardá, Nouvelle Vague mugimenduko zuzendari feminista, arduratuko da apunteak, oharrak eta edizioa argitu edo zehazteaz, gidoiaren editore edo ohargile den aldetik. Edonoiz gainjartzen da haren ikuspuntua, eta esaldiak ezabatzen, hitzak aldatzen edo oharrak gehitzen ditu. Zinemako «biluztasunaren» harira etorriko da Vardáren eta armeniarren hausnarketén efektu polifonikoa. Lehena, ikuspegi feministatik, emakumeen biluztasunaz —zineman eta zinematik kanpo— aritzen da, eta bigarrena, berriz, zinemaren efektuaz, eta 1980ko hamarkadan Armenian bizi izandako nerabezaroa oroitzen du: «... sexua ekintza zenik ez [zuten] ulertzen [...] Kalaxnikovak ziren ekintza» (Cano 2021: 39). Honela, 1960ko hamarkadako Frantziako elite kulturaleko emakume feministak eta Armenia sobietarrean hezitako aseguru-saltzaileak elkarren begirada antagonikoekin kontrajarrikodute biluztasunaren edo sexuaren irudien eragina.

Azkenik, Jeanne Rucarren memoriak izango dira Buñuelen biografiako testigantza nagusia. Horrexek osatzen du kontatutakoa; lekukoa gertakari historikoekin edo «historia ofizialarekin» solasean hasten da. Buñuelen emaztea aparteko toki batean dago eta handik idazten du. Haren istorio familiar eta pertsonalen bidez aurkeztuko da Buñuel jeloskor, zalantzati,



desleial eta emaztearekiko autoritario eta lehiakor. Ez da kasualitatea Buñuelen istorioa kontatzeko Rucarren memoriak aukeratu izana, ezin hobeto aztertzen baitira bertan zuzendariaren kontraesanak eta «bestearen», «kanpokoaren», begiradak. Askotan aurrez aurre ipiniko dira artea, teoria eta zuzendariaren sormena eta beronen eguneroko jokaera: «[...] semea jaio denean, Luis ez dago etxean [...]». Orduan, zinemagile surrealista izandakoak [...], zer eta, umea *normala* ote den galdetu dio» (Cano 2021: 70). Horrekin guztiarekin, zenbait ikuspegitatik abiatuta, narrazioa zatika josi eta irudikapen poliedrikoa sortzen da, errealitate bakarra ezartzen ez duena, baizik eta subjektibotasunak zuzendutako errealitate bat.

### 3. Ondorioak: fikzio hutsa

Hasieran irakurlea nahastuta utziko duen testu honek, pixkanaka bere istorioa kontatuko du eta bere poetika argituko. Hala, joko metaliterarioaren bidez, abangoardien, Buñuelen, Jane Rucarren, armeniar baten eta zinemaren historia jakinaraziko digu, eta, aldi berean, kontakizunaren beraren inguruko hausnarketa literarioa egingo du, artifizioa uneoro agerian utzirik. Modu horretan, fikzioari buruzko hausnarketa iradokitzailea egiten da: zer dira, bada, narrazioak eta zer, ordea, errealitatea? Nola eragiten diote elkarri? Zer da fikzioa eta zer ez? Zer da historia eta nola konta daiteke? Galdera horiei, zenbait ideia praktikan jarritz erantzun die Canok.

Lehendabizi, besteen sorlanetatik abiapuntua hartuta, testu berriak sortzen dira: «Un texto literario puede ser utilizado [...] para la creación de otro texto también literario, o puede ser utilizado como referencia necesaria en la construcción de un texto que no es en sí literario, sino metaliterario» (Medina-Bocos 2001: 18); esaterako, Buñuelen *Subida al cielo* (1952) filmaren gidoia sortzeko unean izandako elkarrizketa asmatzen duenean autoreak. Horretarako, filmaren jatorria oinarri hartzen du, hain zuzen ere, Manuel Altolaguirre poeta espainiarraren eskutik etorritakoa, berorrek proposatu baitzion Buñueli filmaren ideia eta finantzaketa. Beraz, filmaren trama eta trama horren «errealitate historikoa» hartuta, fikziozko beste testu bat sortzen da. Horretan, bi lagunok ideiak partekatzen dituzte: «Garraio

publikoen aldeko aldarri gisa aurkeztuko diogu Garraio Ministerioari, ea diru poxi bat ematen diguten [...]» (Cano 2021: 97). Ironia eta estilo absurdua ere baliatuz idazten da testu berria, jatorrizko testuen teknika errepikatzen delarik. Horregatik bada, literatura behin eta berriro gertatzen den berridazketa gisa aurkezten da, *palimpsesto* gisa.

Bigarrenik, landuko da, aipatutako «errealitate historikoa» edo historia zer den, hau da, zer har daitekeen fikziotzat eta zer egitate historikotzat. Testuak historia-zatiak (istorio osoaren puskak) kontatzen ditu eta narrazio absolutua desagertu egiten da. Hala nola, «Gerra Zibila» izenburua duen pasarte batean, lexikoari buruz gogoeta egingo da, ironiaz eta umorez: «Anarkistei *kompañero* esan behar zaie. Komunistei, *kamarada*» (Cano 2021: 57). Hori guztia, xehetasunen, pasadizoen eta, azken finean, «puskaren» aldarrikapen bezala uler daiteke, eta hartara, historiaren kontakizun absolutua desagertu egiten da.

Azkenik, fikzioak eta errealitateak elkarri eragiten diotela eta eurok bereiztea ezinezkoa dela aldarrikatuko da.

Paradigmatikoa da «anfitrión» hitzaren historia lehenengo orrialdeetan kontatzea, izan ere, Anfitrión pertsonaia klasikoaren mitoa gaur egungo adieratik aldentuta dagoela defendatzen da, Molierrek eman zion berrinterpretazioarengatik ez balitz...: «Mitoaren beste pasarte bat nabarmendu izan balitz, oso bestelakoa litzateke anfitrioiaren definizioa» (Cano 2021: 14). Horrek jabearazten gaitu, lengoaiaren, mitoen, historien, literaturaren eta fikzioen eraginaz mundua ulertzeko dugun moduan, errealitatetzat hartzen den horretan.

Postmodernitatearen ideia erlatibistak adierazten eta gauzatzen dira Canoren *Kandelikaran*. Alde batetik, metanarratiba desagertu egiten baita, eta «absolutua» kontatzerik ez dagoela onartzeko beharrezana agerian uzten da; bestetik, horrek fragmentarismoaren premia sortzen du kontakizunean, zatiketa izateagatik aukera bakarra, subjektibitateak zatitutako errealitatea kontatzen baitu. Halaber, ezinezkoa litzateke errealitatea eta fikzioa bereiztea, bien arteko muga ezin ezagutuzkoa, ezin banatuzkoa delako, errealitatea hizkuntzak berak eraikia den heinean.

## Bibliografia

AMO SÁNCHEZ-FORTÚN, J.M. (2010). «Los recursos metaficcionales en la literatura juvenil: el caso de dónde crees que vas y quién te crees que eres de Benjamín Prado», *Revista Ocnos* 6: 21-34.

BEVERLEY, J. (1992). *La voz del otro. Testimonio, subalternidad y verdad narrativa*. Lima: Latinoamericana Editores.

BÜRGER, P. eta PIÑÓN, H. (1987). «Prólogo», *Teoría de la vanguardia*. Barcelona: Península: 5-30.

CANO, H. (2004). *Belarraren ahoa*. Irun: Alberdania.

— (2008). *Zinea eta literatura. Begiaren ajeak*. Donostia: Elkar.

— (2021). *Kandelikara. Buñueli buruzko film baterako apunteak*. Nosferatu bilduma, 9. Donostia: Donostia Kultura.

CARRIÓN, J. (2003). «Roberto Bolaño, realmente visceral», *The Barcelona Review*. Kontsultagai: [[https://barcelonareview.com/38/s\\_jc.htm](https://barcelonareview.com/38/s_jc.htm)]. (2023/04/10 kontsultatua).

IMAZ, A. (2021). «Luis Buñuel, kandela argitan», *Berria*. Kontsultagai: [<https://www.berria.eus/paperekoa/1893/032/001/2021-11-11/luis-bunuel-kandela-argitan.htm>]. (2023/04/23 kontsultatua).

MEDINA-BOCOS, A. (2001). *Hacer literatura con la literatura*. Madril: Akal.

OTAEGI, L. (2020). «Kirmen Uriberen obraren irakurketa Bar Puerto proiektu multimediatik abiatu», in *Kirmen Uribe. Bizitza, fikzioa*, M.J. Olaziregi Alustiza eta A. Elizalde Estenaga (ed.). Bilbo: UPV/EHU.

URIBE, K. (2010). *Bar Puerto. Bazterreko ahotsak*. Donostia: Elkar.

VERES CORTÉS, L. (2010). «Fragmentarismo y escritura: de la vanguardia a la metaliteratura», *Sphera Pública* 10: 103-122.

ZVALETA BALAREZO, J. (2014). «Desde los márgenes: *Los detectives salvajes*, novela transnacional», *Catedral Tomada: Revista de Crítica Literaria Latinoamericana* 3 (vol. 2): 116-137.



# Mikoleta eskuizkribuko txistukarien auziaz<sup>1</sup>

Sobre la cuestión de las sibilantes del manuscrito  
*Mikoleta*

Sur la question des sifflants dans le manuscrit  
*Mikoleta*

On the problem of sibilants in the *Mikoleta* manuscript

ZULOAGA, Eneko  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)  
eneko.zuloaga@ehu.eus  
ORCID: <https://orcid.org/0000-0003-2579-6327>  
DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v1i70.296>

Jasotze-data: 2024/11/21  
Behin-behineko onartze-data: 2025/01/09  
Behin betiko onartze-data: 2025/02/10

Tradizioz, *Mikoleta* eskuizkribuan txistukarien neutralizazioa aurreraturik zegoela uste izan da; alta, Ulibarrirekin (2015) bat, azalpen horrek ez du argitzen nolatan erabil daitekeen <s> grafema (ia) edozein txistukari adierazteko. Lan honek Mikoletaren *Modo breve de aprender la lengua vizcayna* testuko txistukarien azterketa grafonologikoa dakar: erdal txistukariak garaiko aldaketa-dinamiken arabera azaltzeaz gain, euskaraz <s>-ren erabilera zabala azaltzeko proposamena aurkezten du. Halaber, euskal txistukarien sisteman neutralizazio aurreratuaren zantzuak ere bazirela proposatzen du.

**Gako-hitzak:** grafematika, fonologia, txistukarien neutralizazioa, Euskara Zaharra, Mikoleta.

---

<sup>1</sup> Lan honek honako ikerketa-proiektu hauen babesa izan du: «Monumenta Linguae Vascom VI: *Avances en cronología de la historia y prehistoria de la lengua vasca*» (PID2020-118445GB-I00) eta «Hizkuntzalaritza diakronikoa, tipologia eta euskararen historia» (IT1534-22) egitasmoena.

Tradicionalmente, se ha pensado que el manuscrito *Mikoleta* muestra avanzada la neutralización de las sibilantes vascas. Sin embargo, de acuerdo con Ulibarri (2015), dicha perspectiva no explica la posibilidad de emplear el grafema <s> para expresar (casi) cualquier sibilante. En este trabajo se ha llevado a cabo un análisis grafofonológico de las sibilantes castellanas y vascas del texto *Modo breve de aprender la lengua vizcaína*, se ha contextualizado el sistema castellano dentro de los cambios lingüísticos de la época y se ha tratado de explicar el uso extendido de <s>. Además, se defiende la existencia de indicios de neutralización avanzada en el sistema vasco.

**Palabras clave:** grafemática, fonología, neutralización de las sibilantes, Vasco Antiguo, Mikoleta.

Traditionnellement, on observe que le manuscrit *Mikoleta* présente une neutralisation avancée des sifflantes. Cependant, Ulibarri (2015) soutient que cette perspective néglige l'utilisation du graphème <s> pour représenter (presque) toutes les sibilantes. Dans cet article, je propose une analyse graphophonologique des sibilantes castillanes et basques présentes dans le texte *Modo breve de aprender la lengua vizcaína*, je contextualise le système castillan dans le cadre des changements linguistiques de l'époque et tente d'expliquer l'usage étendu de <s>. En outre, j'apporte des éléments démontrant une neutralisation avancée au sein du système basque.

**Mots-clés :** graphématique, phonologie, neutralisation des sifflantes, Basque Ancien, Mikoleta.

Traditionally, the *Mikoleta* manuscript has been understood to exhibit advanced neutralization of sibilants. However, Ulibarri (2015) argues that this view overlooks the use of the grapheme <s> to represent (almost) any sibilant. This paper offers a graphophonological analysis of the Castilian and Basque sibilants found in the text *Modo breve de aprender la lengua vizcaína*, situating the Castilian system within the broader linguistic shifts of the period and examining the extensive use of <s>. Additionally, evidence is presented for advanced neutralization within the Basque phonological system.

**Keywords:** graphematics, phonology, sibilant mergers, Old Basque, Mikoleta.

ZULOAGA, Eneko (2025). «On the problem of sibilants in the *Mikoleta* manuscript», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 70 (1): 381-419.

1. Sarrera
2. Txistukarien neutralizazioa
3. *Mikoleta* eskuizkribua
4. Ikuspegiak *Mikoleta* eskuizkribuko txistukariez
  - 4.1 Ikuspegi tradizionala
  - 4.2 Ulibarriren ekarpena
5. *Mikoleta* eskuizkribuko txistukarien azterketa
  - 5.1 Erreboluzio fonologikoa gaztelaniaz
  - 5.2 Mikoletaren erdal txistukariak
  - 5.3 Mikoletaren euskal txistukariak
    - 5.3.1 Frikarien saila
    - 5.3.2 Afrikatuen saila
6. Eztabaidagaiak
  - 6.1 Neutralizazio-zantzuak
  - 6.2 Fenomeno grafiko hedatuagoa
    - 6.2.1 Amenduxen eresia (1564)
    - 6.2.2 Landucciren hiztegia (1562)
    - 6.2.3 Iburguen-Cachopínen kronika (XVI. mendearen amaiera)
7. Ondorioak

#### Bibliografia

## 1. Sarrera

Azken hamarkadotako ikerketek aurrerapen esanguratsuak ekarri dituzte hala euskal grafiaren historiaren esparruan, nola fonologia diakronikoarenean. Egungo ezagutza orain dela mende erdikoa baino zehatzagoa eta sendoagoa da. Grafiaren esparruan, Altzibarren (1992), Pikabearen (1993) edo Mujikaren (2002) lanez gain, hainbat testuren edizioetan eginiko azterketa grafematikoak ezin utzizkoak dira<sup>2</sup>. Fonologia historikoaren arloan ugariagoak izan dira ekarpenak, Mitxelenaren (2011 [1961]) bidetik euskararen (proto)historia berreraikitzeke bermaleku emankorrak izan direla eta: ikertzaile franko arduratu dira sistema eta berrikuntza fonologikoen izaeraz, kronologiaz eta dialektologiaz.

Euskal filologoaren artean ezagunak dira euskararen eredu estandar orokorraren berankortasunak tradizio idatzian izandako ondorioak: euskal idazleak erdaretan alfabetatu dira oraintsu arte, eta erdaraz eta erdararako ikasitakoak baliatu behar izan dituzte, euskararen zenbait hots adierazteko, defektiboak izan arren<sup>3</sup>. Horren adibide garbia da txistukarien adierazpena. Hego Euskal Herriko euskal testuetan, gaztelaniaren tradizioko <c>, <ç> eta <z> grafemak dira ohikoak euskal frikari bizkarkaria adierazteko, eta <s> edo <ss> frikari apikaria emateko; alabaina, frikariaren eta afrikatuaren arteko bereizketa ez zen Larramendi etorri arte finkatu (Lakarra 1985), eta orduz geroztik ere ez zen erabat orokortu. Areago, XVI.-XIX. mendeen artean bazen beste joera bat, gutxitan aipatu dena eta lan honen erdigunera dakardana: txistukari bizkarkari eta apikariak, frikari zein afrikatu izan, <s> grafemaren bidez (ere) adierazten dituzten testuetakoa.

Idazkera-irizpideen batasunik ezak eta euskal testuetan ikusten diren poligrafia- eta polifonia-kasuek nahitaezko egiten dituzte azterketa grafematiko partzialak, inoiz joera orokorrak azaleratuko badira. Halaber, ezagutu

<sup>2</sup> Ikus, gainera, Gorrotxategi, Igartua eta Lakarra (2018), garaian garaiko grafiaz dakiguna laburbiltzen duena.

<sup>3</sup> Madariaga kaligrafoak XVI. mendean egindako ahalegina gorabehera; ikus Urgell eta Ulibarri (2019).



arren, duela denbora gutxira arte ikertu ez diren bi alderdi erdigunera ekarri behar dira euskal testu zaharretako arazo grafofonologikoak ikertzean: erdal grafien historia, alde batetik, eta garaian garaiko erdal sistema fonologikoak, beste alde batetik. Izan ere, biok izan zuten eragina euskal idazleengan. Hartara, saihestu egin behar dira irakurketa eta interpretazio inpresionistak, inoiz euskal idazleenganako gutxiespena ere eragin izan dutenak. Oyosak (2013: 294) zioenez (ikus, halaber, Núñez-Méndez 2021: 14), testu batean aurki daitekeen ezegonkortasun grafikoa ez zaio zertan aldakortasun fonetikoari egotzi: arau grafikoen nahastearen ondorio ere izan daiteke eta, horrenbestez, ikertzaileari dagokio ezer ondorioztatu aurretik azterketa grafematiko xehea egitea, hizkuntzaren barneko ezaugarriak eta tradizio grafikotik datozenak bereizteko.

Neure lan honek bi alderdi horiek landu ditu: Rafael Mikoleta bilbotarraren eskuizkribuaren kopia ezaguna ardatz hartuta<sup>4</sup>, helburu dut alderdi grafikoa eta fonikoa bereiztea, alde batetik, eta testuan txistukarien neutralizaziorik edo neutralizazio-zantzurik ote dagoen argitzea, bestalde. Zehatzago esanda, azken urteotan irekitako auzi bati irtenbide-proposamena eman nahi diot lan honetan. Tradizioz (§ 4.1) Mikoletarengan txistukarien neutralizazioa erabatekoa zela baieztu izan den arren, egiazki kontu grafikoa ez ote den proposatu zuen Ulibarrik (2015). Hemen, bada, proposamen bitzuoek berrikusi ditut, aurreko lan batean (Zuloaga 2019) hasitako bideari jarraituta.

## 2. Txistukarien neutralizazioa

Mendebaleko euskaran txistukarien neutralizazioa da sistema kontsonantikoaren berrikuntza esanguratsuen. Funtsean, protohistoriatik zetorren eta euskalki batzuetan oraindik ere gordetzen den txistukarien sistema seitar erlatiboki konplexuan zenbait bereizketa neutralizatu egin dira Euskal

---

<sup>4</sup> Ibarrari eta Hidalgori (2021) esker, ezagutzen den eskuizkribua ez Mikoletaren eskukoa, baina Samuel Sainthillen kopia delako zantzu garbiak daude orain; beraz, testua «Mikoleta eskuizkribua» izendatuko dut, Mikoletak 1653an ekoiztutako testuaren Sainthillen kopiatzat jo behar dela baitirudi.

Herriko mendebalean eta erdialde zabaleko kostaldean. Frikarien sailean apikariaren aldeko neutralizazioa gertatu da, eta afrikatuen sailean bizkarkariaren aldekoa<sup>5</sup>. Neutralizazio-prozesu bitar horri «neutralizazio tradizionala» deituko diot lan honetan, euskal testuetan ageri den lehenengoa eta hedatuena delako, eta berau izango dut aztergai. Beraz, aztergaietatik kanpo utziko ditut bestelako neutralizazio-prozesuak, Bizkaiko hizkera batzuetan egungo hiztun gazteen artean gertatzen direnak (ikus Hualde 2010), zein Gipuzkoako eremu batzuetan bizkarkarien alde gertatutakoak (ikus Zuloaga 2020; Krajewska, Zuloaga eta Egurtzegi 2022).

Txistukarien neutralizazioaren gertalekuei dagokionez, frikariak eta afrikatuak bereizi behar dira, bereizketaren galera ez delako bi sailetan txistukari beraren alde gertatu eta galeraren erritmoa ere ez delako bera izan. Frikarietan lau ingurune desberdinu dira Mitxelenaz (2011 [1961]: § 14.2) geroztik, eta bereizketa hori lagungarria da, zehaztasunaren mesedetan, berrikuntzaren indarra neurtzeko: (a) herskari aurea; (b) hitz amaiera; (c) hitz hasiera eta (d) bokal artea. Mitxelenak berak ikusi zuenez, herskari aurean eta hitz amaieran errazago gertatzen da neutralizazioa. Lau ingurune horiez gain, ozen ondoko kokagunea ere badago, baina arazotsua da kokagune hori, frikariak eta afrikatuak grafikoki bereizten ez diren testuetan ezin baita ebatzi ebakera zein zen.

Neutralizazio tradizionalaren hedadurari dagokionez, Mendebaleko euskararekin lotzen bada ere, ezaugarri supradialektala da izan, hedadura oso zabalekoa eta, dirudienez, multifokala (Atutxa eta Zuloaga 2014; Zuloaga 2020). Euskara Arkaikoaz<sup>6</sup> geroztik aurki daitezke neutralizazioaren zantzuak ingurune ahulenetan, Bizkaian ez ezik, baita Araban, Gipuzkoan eta Nafarroan ere (Zuloaga 2020: § 4.7). Osterantzekoa da orduz geroztik neutralizazio horrek izandako bilakaera: Euskal Herriko mendebalean ingurune guztietan sistematizatu zen bizpahiru menderen buruan, eta Euskal Herriko kostaldetik hedatu zen, nahiz eta hizkera guztietan indar berarekin egin ez.

<sup>5</sup> Horiez gain, sabaiaurreko frikari eta afrikatu bana ere badaude, baina oro har ez dira neutralizazio-prozesu tradizionaletan nahastu. Ikus Hualde (2000, 2010).

<sup>6</sup> Euskararen periodizaziorako, Lakarraren (1997) proposamenari jarraitzen diot.

### 3. Mikoleta eskuizkribua

Mikoletaren *Modo breve de aprender la lengua vizcayna* (1653) obrak interes berezia du, euskararen corpus historikoa gobernatzen duten gai eta funtzio erlijiosoen kanpokoak baita. 28 orrialdeko testu elebiduna da eta euskaratik ikasteko materialak dakartza. Londresko British Libraryn dago. Testua kaleratzeko gorde zen XIX. mendearen amaierara arte: Sanpere i Miquel historialariak (1880) argitaratu zuen lehenengoz *Revista de Ciencias Históricas* aldizkarian, eta handik gutxira berrargitaratu. Mendearen amaieran, Dodgsonek (1897) kaleratu zuen berriz, aurrekoaren zenbait akats zuzenduta, Sevillan. XX. mendearen bigarren erdian, Mitxelenak (2011 [1964]) eta Sarasolak (1983) atal batzuen edizioak atondu zituzten, eta Zelaietak (1988, 1995) testu osoaren beste transkripzio bat eman zuen.

Alderdi filologikoari dagokionez, Ibarrek eta Hildagok (2021) oraintsu argitaratutako lanak datu berriak ekarri ditu eskuizkribuaren egiletzaz eta transmisioaz: Dodgsonek (1899) plazaratutako susmo bati jarraikiz, eskuizkribuko letra-moldea Mikoletaren beraren eta Samuel Sainthill jaun ingelesaren beste eskuizkribu batzuetako letra-moldeekin alderatu dute, eta elkarren antz handiagoa ei dute 1653ko eskuizkribuko eta Sainthillen beste eskuizkribu batzuetako idazkeretik; hots, orain arte Mikoletaren eskukotzat jotako eskuizkribua ez litzateke Mikoletak berak prestatua, ezpada Sainthillek egindako kopia txukuna.

## 4. Ikuspegiak Mikoleta eskuizkribuko txistukariez

### 4.1 Ikuspegi tradizionala

Mitxelenaz (2011 [1961]: 232, 2011 [1964]: 18) geroztik, *Mikoleta* eskuizkribuan <s>-ren bidez edozein kokagunetako bizkarkariak eta apikariak adierazteko aukera eta poligrafia-kasuak neutralizazioa gauzaturik egoteari egotzi zaizkio. Mitxelenaren baieztapenei erreparatuta, XVII. mendeko Bizkaiko mendebaleko testuak/eremuak bereizi zituen Lakarrak (1996: 145-146), eta iparraldekoak (*Refranes y sentencias* eta *Mikoleta*) eta hegoal-

dekoak (*Viva Jesus* eta Orozkoko 1739ko otoitzak) desberdindu beharra erakutsi zuen hark. Orobat, halaxe zioen Pagolak:

Kontsonantismo mailan xistukarien grafien eta ahoskeraren nahasketak dira aipagarrienak eta, azken honen ondorio bezala, jarrai daitezkeen desfonologizazioak eta, azkenik, sistema murrizketa. Fenomeno hau bizkaieran hasten da eta, dirudenez, mendebaldean; Micoleta bera litzateke horren lekuko erakusgarriena, grafien nahasketari dagokionez batez ere. XVIII. mendean Larramendik ere gauza bera egiaztatu zuen Bilboko euskararen ahoskera txarra zela-eta, xistukariena batez ere. Esan daiteke, beraz, eta ezagutzen dugun euskarazko literaturak agertzen duenez, XVII. mendean hasiko zirela nahasteak, bereziki Bilbon eta inguruetan, lehenbizi ahoskeran, noski, gero literaturan agertuko zirenak. (2002: 204)

Areago, Mikoletaren testuko koherentzia, arreta eta ziurtasun falta kritikatu zuen Pagolak (2002: 202). Hualdek, halaber, ikuspegi tradizionalarekin bat egin zuen:

El examen de los textos parece indicar, pues, que la neutralización de sibilantes vascas tiene su origen en la zona de Bilbao en el siglo XVII. La expansión por la zona del dialecto occidental o vizcaíno a partir de este foco debió de ser bastante rápida (...). Lo que la preponderancia de la evidencia nos muestra es que la neutralización de sibilantes vascas en inicio de sílaba es un fenómeno que comienza en la época y lugar de nacimiento de Micoleta, es decir en el siglo XVII y en el habla de Bilbao, para de allí extenderse progresivamente por toda la zona de dialecto vizcaíno, incluyendo el occidente de Gipuzkoa. (2010: 108-110)

Berebat Atutxak:

Mikoletak darabilen idazkeragatik eta grafema bakoitzari ematen dion erabileragatik, apikari eta lepokarien arteko nahasketa handia dagoela ikus daiteke, ez frikarietan bakarrik (*ysan, sagos, elestun, sorrostu guilsea*), baita afrikatueta ere (*azegin, lozea*). Badirudi Mikoleta lepokari eta apikarien arteko nahaste horretaz konturatu zela eta bere burua zuzendu nahian-edo, hiperzuzenketak egin zituen. (2013: 69)

### Eta Atutzak eta Zuloagak:

A la vista de los datos aportados por Atutxa (2011, 2013), creemos que el proceso de extensión del fenómeno aquí tratado es, como suele ser habitual, algo más complejo que una propagación por contagio, si bien reconocemos el papel fundamental de Bilbao y aceptamos una dirección oeste > este en la evolución del fenómeno (...). Retomando el fenómeno vasco y teniendo en cuenta lo dicho hasta ahora, deberíamos pensar en centros urbanos occidentales como Bilbao o Vitoria-Gasteiz, entre otros, como primeros centros de difusión de la neutralización de las sibilantes. (2014: 25)

Laburbilduz esan dezadan, beraz, 1960ko hamarkada ezkerreko, oso aurretatuz edo burutuzat jo ditugula euskalariok neutralizazio-prozesuak XVII. mendearen erdialdeko Bilboko euskararen. Hain zuzen, *Mikoleta* eskuizkribuko sistema grafikoa izan da hori baieztatzeko euskarri nagusia.

### 4.2 Ulibarriren ekarpena

*Dotrinazko sermoitegia*<sup>7</sup> aztertzen ari zela, *Mikoleta* eskuizkribuko egoera bertsua aurkitu zuen Ulibarririk (2015), ñabardurak ñabardura: oro har <s> erabiltzeko aukera, edozein ingurunetako (ia) edozein txistukari adierazteko. Horren aurrean, ikuspegi tradizionala zuzendu beharra eta azalpen grafiko hutsa proposatu zituen, garaiko gaztelaniaren sistema fonologikoa eta grafikoa aintzat hartuz:

Garai hartako gaztelaniak dagoeneko txistukari bat baino ez zuen, alegia, /š/ (<s, ss> grafiaz): lehenagoko /s/ eta /ts/ XVII. mende hasierarako jada /θ/ bilakaturik ziren eta, hortaz, hots berri hori islatzen zuten <z, ç, c> grafiek (cf. Cano 2008a: 843). Hala Mikoletarenean nola sermoitegian kausitzen dut <s>-ren erabilera orokorra, bada, alde honetatik uler liteke: XVII.-XVIII. mendeetako euskal egileontzat grafia bakarra bide zegoen eskura txistukariak adierazteko, <s> alegia, eta honek euskal txistukariak oro (/tʃ/ izan ezik, esan bezala),

<sup>7</sup> Ulibarririk (2015) Arabako ipar-mendebalean kokaturiko sermoi-bilduma mardula da, XVIII. mendearen amaierakoa.

zirenak zirela, letra horren bidez adieraztera eraman zituen. Azalpen honen ondorio da kolokan jartzea orain artean mendebaldeko neutraltzearen historiaz esan izan direnak. (2015: 137)

Aurrerago:

Sermoigile anonimoak <s> grafia darabil euskal txistukari gehienak (egungo s, z, x, ts eta tz) islatzeko, lehenago Mikoletak bezala (...). Suposatu dut biek txistukari grafia bakarra zeukatela eskura, <s> alegia, gaztelania zaharreko <x>, <z> eta <ç> txistukari grafiek jada beste hots batzuk (/x/ eta /θ/) adierazten zituztelako<sup>8</sup>. Hipotesi honek, tamalez, kolokan jartzen ditu orain artean mendebaldeko neutraltzearen historiaz esan izan direnak oro, eta nahikoa zailtzen du hemendik aurrera historia hori egiten lagun dezaketen lekukotasunak aurkitzea. (2015: 315)

Hipotesi ausarta da Ulibarrirena: aurreko tradizio guztiarekin etena dakar, bai eta zenbait datu eta irakurketa berrikusi beharra, eta enpirikoki dakigunaren eta jakin dezakegunaren arteko mugak berrirudikatzea ere.

## 5. Mikoleta eskuizkribuko txistukarien azterketa

Atal honetan aurrekoan aurkeztutako bi ikuspegiak berrikusiko ditut, *Mikoleta* eskuizkribuko txistukarien azterketa xehearen argipean. Adibideak ugari eta askotarikoak izanik, bi pausotan antolatu dut azterketa; lehenik, beste lan batean (Zuloaga 2019) eskuizkribuko erdal txistukariez ateratako ondorioak laburtuko ditut, horiek lotura baitute euskal txistukarien adierazpenarekin; ondoren, euskal txistukarien sistemaren azterketa egingo dut.

### 5.1 Erreboluzio fonologikoa gaztelaniaz

Hispanistek «erreboluzio fonologikoa» deitutako aldaketa-prozesu garrantzitsua XVI.-XVIII. mendeen artean gertatu zen gaztelanian. Erdi Aroko

---

<sup>8</sup> Gerora, berankorragotzat jo zuten Ulibarrik eta Urgellek (2019: 505) /θ/-ren sorrera; Zuloaga-rekin (2019) bat, lan honetan ere irizkide gara.

sistema konplexua soildu egin zen orduan. Zehazki, sistema zaharrak txistukari ahostun eta ahoskabeak, eta frikari eta afrikatuak izatetik sistema sinpleagora jauzi egin zuen: alde batetik, ahostun/ahoskabe oposizioa galdu zen, azkenen alde; bestalde, afrikatuak ahuldu eta frikari bihurtu ziren; gainera, bizkarkari ahoskabearen artikulazio-gunea aurreratu eta [θ] sortu zen, eta sabaiaurreko frikari ahoskabearen artikulazio-gunea atzeratzeak [x] sortzea ekarri zuen (ikus 1. taula)<sup>9</sup>.

**1. taula.** Txistukarien erreboluzioa gaztelaniaz

Adibideak	<i>calça</i> 'galtzak'	<i>fizo</i> 'egin zuen' (3. p. sg.)	<i>cossa</i> 'gauza'	<i>casa</i> 'etxea'
<b>Grafemak</b>	<ç, c <sup>e,i</sup> >	<z>	<-ss->	<-s->
<b>Hotsak</b>	[ts]	[dz]	[s]	[z]
<b>xvi. mendea</b>	[ʃ]		[s]	
<b>1650</b>	[θ]		[s]	

*Iturria:* Núñez-Méndez (2021). (Neuk moldatua)

Aurreko prozesuak, baina, ez ziren gaztelaniaren aldaera guztietan gertatu, hizkera batzuetan *seseo* delako fenomeno gaiztu baitzen. Hispanisten artean, Andaluziako aldaeretakoa deskribatu da *seseo*a bereziki, baina Euskal Herrian ere aspaldirik lekukotua da. *Seseo* delako hori azaldutako hizkeretan bestelakoa izan zen hotsen bilakabidea. 2. taulak Andaluziako txis-

<sup>9</sup> Prozesu horien arteko kronologiari dagokionez, ikertzaileak ez daude ados (Cano 2014 [2004]: 838). Fonologia naturalaren ikuspegitik begiraturuta, badirudi errazago azalduko litzatekeela frikazitazioa > ahoskabetzea hurrenkera, Alonsorekin bat eta Pensadok (1983) prozesu fonologikoen ordenaz eginiko lanari jarraikiz. Ikus, halaber, Echenique eta Pla (2013), Pensadoreen proposamen berresten duena.

tukarien aldaketak labur erakusten ditu; zenbait alderdi Euskal Herriko gaztelaniara estrapola daiteke:

2. taula. Gaztelaniaren seseoaren bilakabidea

Adibideak	<i>calça</i> 'galtzak'	<i>fizo</i> 'egin zuen' (3. p. sg.)	<i>cossa</i> 'gauza'	<i>casa</i> 'etxea'
Grafemak	<ç, c <sup>e, i</sup> >	<z>	<-ss->	<-s->
Hotsak, XIV. mendea	[ts]	[dz]	[s]	[z]
XVI. mendea	[ʃ]		[z̥]	
XVII. mendea	[ʃ]			
Gaur egun	[s]		[ʃ] ≈ [θ]	

*Iturria:* Núñez-Méndez (2021). (Neuk moldatua)

Esan gabe doa aldaketa horien (ahoskabetzea, ahultzea eta ebakera fonetiko berriak sortzea) kronologia ezagutzea baitezpadakoa dela ondorio sendoak ateratzeko: berrikuntza horiek gaztelaniaz oro har eta Hego Euskal Herrian zehazki noiz gertatu eta hedatu ziren jakin beharko litzateke. Alta, Malkielek (1971: 1) zioenez, zenbait alderdi argitzea besterik ez da erdietsi, eta ziurgabetasunak, lausotasunak eta arazoak ugari dira (Satorre 1989: 267). Izan ere, aldaketa-prozesua luzea izan zen: XVI.-XVII. mendeak trantsizio-garaia izan ziren, aldaketen egonkortze- eta finkatze-garaia baino gehiago (Alarcos 1990: 53; Cano 2014 [2004]: 825). Blancoren (2006: 110-111) arabera, zenbait eremutan /θ/ hortzartekoa eta /x/ belarra sortzeko prozesuak XVI. mendean abiatuta zeuden arren, ez dirudi XVII. mendearen bigarren erdira edo XVIII.aren hasierara arte egonkortu eta orokortu zirenik. Ikus, halaber, Núñez-Méndez (2021: 48).



Banaketa geolinguistikoei dagokienez, Gaztela Zaharra eta Aragoi (beharbada Leonekin batera) jo izan dira berrikuntzen fokutzat (Cano 2014 [2004]: 835-836), nahiz eta erraza izan ez zehaztea noraino iristen zen Gaztela Zahar linguistikoa. Euskal Herrian, orduan, hauxe zioen Madariaga kaligrafo arratiarrak «De la Z» atalean:

Esta letra es Griega y nuestra, y no entra en diciones latinas. Pero digan lo que quisieren los antigos, que en nuestro Castellano deue tener otra consideracion su origen desta letra que en griego. Porque no es otra cosa que vna c, comedia y mas blãda en la pronunciacion, y aun la misma c, doblada en la figura (...) De la z y de la c, no se puede dar regla mas cierta de las que se pueden entender de lo dicho, es a saber. Que siempre que pronunciaremos la c, en toda su fuerça y rigor se pone c, como *çabala*, *çigueña*: y quando la c, no trae su entero sonido, sino que viene con mayor suavidad y dulçura, entonces echaremos z, como *zagal*, *zelo*, *azibar*. Deue se pues tener mucha cuenta en que lengua y pluma ygualen a la sutileza del oydo. (1565: 101r-101v)

Ulibarrik eta Urgellek adierazitako legez, «ez dago pasarte honetan /s/ eta /ts/-ren arteko oposaketaren aztarrenik ere», Alonsoren arabera (1955: 433), <c>-ren «indarrak eta gogortasunak» /s/ ahoskabea adierazten du eta <z>-ren «leuntasunak eta goxotasunak», ostera, /z/ ahostuna (2019: 505).

Berrikuntzen hedadura dela eta, ez da erraza euskal lurretako erroman-tzeek, Gaztela Zaharraren eta Aragoiren mugakide izanda, auzokoekin zuten lotura argi ikustea. Líbanok (1998), adibidez, alde nabarmenak aipatu zituen Aragoiko eta Nafarroako amanuenseen lekukotasunen artean. Hemengo ikergaira hurreratuta, zentzuzkoa da pentsatzea Bilbo aldeko gaztelania Gaztela Zaharrekotik hurrago zegoela, Toledokotik baino. Hualdek (2010), adibidez, neutralizatuta zekusan ahostun/ahoskabe bereizketa XVI. mendeko *Refranes* y *sentencias* bildumako eta Lazarraga eskuizkribuko erdal pasarteetan. Halere, Isasik (2006: 531) zioenez, «los datos sobre el castellano del área vasca occidental siguen siendo una ausencia notable en las reconstrucciones diacrónicas del complejo castellano». Badirudi hispanistek bereiz jartzen dituztela Penintsularen iparraldeko dinamikak: Canok, esate-

rako, «Cantabria, Vasconia, Castilla la Vieja» (2014 [2004]: 834) bereizten ditu, eta ez da ahaztekoa iparralde berritzailearen barnean ere eremu gorde-tzaileak ageri direla, hala nola Asturiasko mendebala, Salamanca, Sanabria eta Cáceres (Cano 2014 [2004]: 836).

Prozesu orokorrez landara, Hego Euskal Herriko erdal corpora aztertuta, nahitaez aipatu behar da *seseoa*: <s>, <ss>, <ç> eta <z> grafemen arteko trukeak islatzen duena eta norabide bitan ageri dena (<ç>, <z> → <s>, <ss> eta <s>, <ss> → <ç>, <z>). Tarteka zalantzak agertu badira ere (ikus Isasi 1999: 230-231, 2006: 534), badirudi berrikuntza hori Erdi Arotik datorrela eta, areago, berau dela Hego Euskal Herriko erdal dokumentazioko ezaugarri grafiko behinena (Iribar eta Isasi 2008: 256; Isasi, Iribar eta Túrrez 2012: 175)<sup>10</sup>.

Esparru grafiko hutsetik harago joanda eta *seseoaren* jatorriari loturik, euskararen eta erromantzeen arteko ukipen-egoera eta horren eragina aipatu izan dira (Mitzelena 2011 [1968]: 345; Hualde 2010: 113). Aitzitik, gaiarekin arduratu diren ikertzaileek ez dute argi zehazterik izan zer norabidetan gerta zitekeen eragin hori. Azken aldiko ikerketek eremu euskaldun osoan deskribatu dute *seseoa* erromantzez idatzitako agirietan (Isasi, Iribar eta Túrrez 2012: 177); beraz, euskal txistukarien neutralizazioa ez litzateke beharrezkoa erromantzeko *seseoa* azaltzeko, neutralizaziorik gabeko eremuetan ere badagoe-lako. Halaber, ondorio berbera dakar kronologia absolutuari begiratzeak: neutralizazioa Euskara Zaharraz geroztik hedatu zen Euskal Herriko mendebaleko hizkeretan (Zuloaga 2020: § 4.7).

Esparru fonetikora etorrira, *seseoaren* ebakera ez da kontu ziarra: hiztun batzuek apikari ebakitzen dute, eta beste batzuek bizkarkari (Isasi, Iribar eta Moral del Hoyo 2009: 233). Ebakeraren banaketak, gainera, badu interesik euskara dialektalari begira; izan ere, lehenengoa darabilten hiztunak Euskal Herriko mendebalekoak dira (alegia, neutralizazioa hedatuen eta sistematizatuen dagoen eremukoak), eta bigarrenak euskaraz bereizketa gorde den eremu zabalekoak. Mikoletaren garaiaz denaz bezainbatean, ez dago euskal

<sup>10</sup> Badirudi, halere, eremuen artean aldeak zeudela; izan ere, Madariagak (1565: 101) Valentzian eta Katalunian deskribatu zuen fenomenoak, baina ez Euskal Herrian.

seseoaren ebakera zehatzaren gaineko berririk, baina hispanistek seseoaren eta ciceoaren arteko ebakera proposatu dute XVII.-XVIII. mendeetarako, Lapesak [θ] -ren bidez irudikatutakoa eta nik lan honetan [ʒ] -ren bitartez ematen dudana (Satorre 1989: 286; Núñez-Méndez 2021: 48-49).

Horren arabera, [ʒ] zegokeen denbora-tarte erlatiboki luze batean, eta horretatik ez [θ] berankorragoa, ezpada forma seseodunak sortu bide ziren, lehenbizi, Euskal Herriko erdal hitzunen artean.

Gaztelaniaren XVI. eta XVII. mendeetako erreboluzio fonologikoaz esandakoak hurrengo puntu hauen bidez laburbil daitezke, beraz:

- i) XVI.-XVIII. mendeen artean Gaztela Zaharreko zenbait eremutan eraldatu egin zen txistukarien sistema zaharra.
- ii) Penintsularen iparraldea berritzaile izanik ere, aldaketen erritmoa ez zen bat eta bera izan eremu guztietan. Alde batetik, neutralizazioen zantzuak daude XVI. eta, batez ere, XVII. mendeez geroztik. Bestalde, neutralizazio horietatik sorturiko ebakera berriak berankoragoak dira: badirudi hortzarteko frikaria ez zela XVIII. mendera arte egonkor-tu eta orokortu.
- iii) Euskal eremuko testuekin lan egitean, seseoa aintzat hartu behar da, seseoa darabilten hitzunek ez baitute [θ] ahoskatzen.
- iv) Mikoletaren garairako [ʒ] espero da.

## 5.2 Mikoletaren erdal txistukariak

Hualdek (2010) *Refranes y sentencias* bildumako erdal txistukarien sistema ikertzeko baliatu zituen irizpideei jarraikiz<sup>11</sup>, *Mikoleta* eskuizkribuko gaztelania aztertu nuen orain zenbait urte (Zuloaga 2019), hizpide ditudan

<sup>11</sup> Alegia, (a) etimologikoki txistukari ahostun eta ahoskabe zirenen arteko oposizioaren galeraren zantzuak arakatzea, ez gaztelania modernoan baina portugesezko forma gordetzailagoetan bermatuz; (b) artikulazio-guneari dagokionez, seseoaren adibiderik ote dagoen aztertzea. Gaztelaniazko txistukari zaharren jatorri latindarraz, ikus Boyd-Bowman (1980).

gaztelania zaharreko berrikuntza fonologikoen egoera argitu nahian. Zehazki, testuak dakarren «euskara-gaztelania» hiztegia aztertuta, hona laburturik dakartzadan ondorioak lortu nituen.

i) Lehenik, gogoan hartu behar da Mikoletaren lana trantsizio-garai zabal baten erdian idatzi zela; hots, aurretik abiatutako aldaketak finkatzen eta hedatzen ari ziren bitartean. Hain zuzen, egoera horren arabera ulertu behar dira eskuizkribuak dakartzan ezaugarri grafikoak.

ii) Bigarrenik, *Modo breven* ageri den sistema grafikoak tradizio gordetzailaren hein bateko ezagutza islatzen du, ahozkoan gertatuak —edo gertatzen ari— ziren zenbait fenomeno grafia gordetzailaren azpian ostenduta baitaude. Egoera ez da ezohikoa: «Una gráfica puede distinguir artificialmente lo que en la pronunciación es igual, o bien se ha nivelado. Una distinción gráfica no indica forzosamente la existencia de una diferencia fonética» zioen Pensadok (1983: 25). *Mikoleta* eskuizkribuari dagokionez, sistema grafikoak idazlearen erabakiak islatzen ditu:

- Bizkarkari afrikatuen sailean, bokal arteko eta ozen ondoko /ts/ zaharra <ç>-ren bidez adierazten da oro har, eta hitz hasieran ere <ç> ageri da <e, i> aurretik; izan ere, <c>-k herskari belar ahoskabea adierazten du ingurune horietan<sup>12</sup>. Eta <c> eta <ç> vs <z> oposizioari dagokionez, azkena etimologikoki frikari ahoskabea zegoen kasuetan ageri da<sup>13</sup>, bokal artean nagusiki. 9v *zorra* berbak besterik ez du <z->, eta tradizio ortografikoaren bidez azaltzekoa da (Satorre 1989: 275).
- Bestalde, /dz/ ahostun zaharrari dagokionez, nahasteak gehiago dira. Hainbat adibidetan <z>-ren bidez adierazten da bokal artean eta ozen ondotik, Erdi Aroko tradizioari jarraikiz. Beste batzuetan, aldiz, <ç> ere badago bi kokagune horietan, baina ez hitz amaieran, non <-z> baita sistematiko.
- Aurrekoen argitan baieztatu daiteke, bada, *Mikoleta* eskuizkribuan <ç> eta <z> trukatu egiten direla bokal artean eta ozen ondotik, Erdi

<sup>12</sup> Adibide isolaturen batean <c> dago bokal artean, baina kopiagilearen akatsa izan liteke, halakoak urriak baitira; cf. 6v *endurecer*, baina 6v *endureçerse*.

<sup>13</sup> Arabismoak baztertu ditut, hala nola 5r *azafrán* eta 5r *azúcar*.

Aroko gaztelaniaren afrikatu hobikari bizkarkari ahostuna eta ahoskabea adierazteko; beraz, errazena da pentsatzea, idazlearen gaztelanian bereizketak galduak zirela.

- Frikari hobikari apikari ahoskabe eta ahostunaren atalean oso bakanak dira <-s-> *pro* <-ss->-ren adibideak, eta aztertutako laginetik kanpo daude (cf. 13v *aseo*). Badirudi Mikoleta gordetzaila izan zela puntu honetan, *Refranes y sentencias* bildumako erdal itzulpenetan ugarixea-goak baitira adibideak, testua mende erdi lehenagokoa izan arren: 32 *pasado*, 99 *vasura*, 173 *pasito* eta 409 *dieseys* aipatzen ditu Hualdek (2010: 102), vs Mikoletaren 7r *passado*, 8v *passar*, 8v *passo*, etab.
- Frikari hobikari apikari ahostun zaharra <-s->-ren bidez adierazten da oro har, baina zenbaitetan <-ss-> *pro* <-s-> dago eta hitz batzuetan grafia biak aurki daitezke: 6r *casa* (baina 12v eta 13r eta 13v —birritan— eta 14r *cassa*); 7v *mesa* (baina 12v eta 13v *messa*); 11r *camisa* (baina 6r *camissa*).
- Arestiko datuok bi joera islatzen dituzte berriz ere. Lehenik, <ss> *pro* <s> erabiltzeak erakusten digu posible zela bi grafemak trukatzea bokal artean; gainera, hitz berean <-s-> zein <-ss-> erabili ahal izateak zalantzarako tarte gutxi uzten du, eta errazena poligrafia proposatzea da. Bigarrenik, eskuizkribuak idazlearen hautu gordetzailak islatzen ditu berriz ere: oro har <ss> → <s> norabideko aldaketa gertatzen da (bokal arteko adibideak besterik ez dut aurkitu, afrikatuaren sailean legez).
- Maiztasun handiko zenbait aldaeraren azterketa kuantitatiboak berretsi egiten du ahostun/ahoskabe neutralizazioaren egoera aurreratua, baita zenbait aldaera grafikotzat jo beharra ere. Eskuizkribu osoa erabilita eta *decir*~*dezir* aldaerei dagokienez, 29tan aurkitu ditut *decir*, *dice*..., eta 15 aldiz *dezir* ereduak. Aldiz, *hacer*~*hazer* sortakoak aztertuta, azkena (zaharragoa) da ugariagoa: *hace* bakarra vs *hazer* ereduak 24 adibide. Kasu honetan, beraz, aldaera modernoa erabat minoritarioa da. Apikarietan, Mikoletak sistematikoki jokatu zuen *cosa* hitza erabiltzean: 23 aldiz aurkitu dut *cosa*(s) eta *coza*-ren adibide bakarra dago: neure iritziz, *seseo*arekin lotzekoa da.

iii) Hirugarrenik, *seseoa* bete-betea lekukotzen da espero zitekeen bi norabideetan: (a) <c>, <ç>, <z> → <s>, <ss> (6v *coser* ‘cocer’, ‘ego-si’; 7v *messer* ‘mecer’, ‘zabukatu’) eta (b) <s>, <ss> → <c>, <ç>, <z> (6r *cidra* ‘sidra’, ‘sagardoa’ 5r *abraçar* ‘abrasar’, ‘kiskali’; 5v *boztezo* ‘bostezo’, ‘aharrausia’).

Hartara, a) kasuan ahoskera *seseoduna* ageri da, eta (b)-ko adibideek aldaera grafikoen itxura dute; alegia, hiperzuzenketena. Azken batean, bizkarkari eta apikari zaharren adierazpena aztertzean azaldutako ideia berberak dira hemengoak ere: idazleak arau orokorrako, zuzenago edo jasoago bat erabiltzearen alde egin zuen, erabat lortu ez arren, eta testuak tokiko hizkeran *seseoa* arrunta zela islatu. Hain zuzen, *seseo* kasuak zuzentzeko (edo hiperzuzentzeko) ahaleginak, ahoskera *seseodunak* gorengo gizarte-mailetan eta horren ondorioz idatzi orduan ere zukeen prestigio faltaren erakusgarri bide dira. Mikoletaren garaia aintzat hartuz, bilbotarrak bereizketa grafiko hutsa baliatu zuen idatziz, idazlari ikasien artean gertatu ohi zenez (Satorre 1989: 272).

iv) Laugarrenik, Bilbo aldean 1650ean /θ/ proposa daitekeen ebatzi behar da. Homofoniak saihesteko artikulazio-gunea aurreratzea eragin zuten prozesuak (frikatizazioa eta ahoskabetzea) hedatuta eta orokortuta zeuden Mikoletak bere lana idatzi zuenean, eta hala agertzen du testuak; horrenbestez, hortzartekotzea gerta zedin behar ziren baldintzak betetzen ziren. Horren argitan, pentsa liteke, Ulibarrirekin (2015) bat, hortzartekoa hain hedatuta zegoela non posible eta beharrezko baitzen <c>, <ç> eta <z> grafemak /θ/ adierazteko gordetzea. Horrek, bide batez, euskal testuan <s>-k (ia) edozein txistukari adierazi ahal izatea azalduko luke. Gaztelaniaren esparrutik irten gabe, halere, ikuspegi horrek badu arazo bat: Mikoletak argiro erakusten du Bilboko *seseoa*, eta gogoan hartu behar da *seseoa* darabilten hiztunek ez dutela hortzartekorik ahoskatzen. Hiperzuzenketatzat jo daitezkeen kasuak ere oztupo dira; izan ere, 5v *boztezo*, 6r *graxa*, 6r *cidra*, 8r *coza* edo 9v *tox* adibideetan ezin pentsa liteke hortzartekoa zegoenik. *Seseoaren* ebakera dela eta, berriz gogoratu behar da [s̺] bazela bai Penintsularen iparraldean, bai hegoaldean (Satorre 1989: 286).

Neure ustean, hispanistek behin eta berriz aipatzen duten kronologia berankorra eta Mikoletaren testuko sistema grafikoa ez dira lagungarri Bilbo

aldean [θ] arrunta zela pentsatzeko. Ordurako soildua zen Erdi Aroko txistukarien sistema, hortzartekoaren sorrera eta orokortzea berankorragoa dirudi. Beraz, zertxobait egokitu beharra daukat Ulibarriren (2015) proposamena Mikoletaren lanari dagokionez, hortzartekoari buruzko azalpena apur bat aldatuz: gaztelaniazko *siseo*arekin/*ciceo*arekin lotuko nuke auzi hau ([ʃ] edo Lapesak [ʰ<sub>s</sub>] gisara irudikatutako ebakera), eta Mikoletarenean <s>-k euskaraz bizkarkariak (ere) adieraz ditzakeela baietsi.

### 5.3 Mikoletaren euskal txistukariak

Gaztelaniaz txistukariak adierazteko sistema grafikoaren gaineko ezagutza zehatzagoa izan ondoren, euskaraz txistukarien neutralizazioaren zantzurik ote dagoen argitzea da atal honen helburua; hots, bi hizkuntzok elkarren alboan ezarririk, euskarazko pasarteetan zer den grafiko eta zer den foniko argitu nahi dut.

#### 5.3.1 Frikarien saila

Txistukari frikarien sailean zailtasunak poligrafia-kasuak argitu nahi direnean azaltzen dira, bai eta neutralizazio-zantzuak dauden ebatzi nahi direnean ere. Azpiatal honetan ingurunez ingurune aztertuko dut txistukarien adierazpena, neutralizazioa errazen gertatzen den inguruetatik hasita.

Etimologikoki bizkarkaria zegoen kasuetan <s> ia bakar da herskari aurrean, ondoko kontsonantea <t>, <p> zein <c, q> izan (halere, <st> multzoa da ugariena). Guztira herskari aurreko <s>-dun 100 adibidetik gora daude eskuizkribuan: 2r *elestunoc*, 5r *sorrostu*, 5r *bustin*, 6r *bustanna*...; 5v *escurra*, 6r *escondu*, 5r *esquerretati*, 9r *egusquia*...; 2v *espatea*, 7v *vaspia*, 9v *ospina*, 10r *saspi*... Eskuizkribu osoan ez dut <zc>, <zq> zein <zp> multzorik aurkitu, eta <zt> bakarrak (9v *maztia*) hiperzuzenketa dirudi.

Hitz amaieran ere <s> da arruntena, luzaz: 2r *xaunagas*, 3v *a vis* 'ha biz', 4r *sagos*, 8r & 14r *es*, 13r *baricus*, 13v *betos*, 14r *erras*, 8r *es*, 14v *guilsas*, 14v *dagos*, 15r *baditus*, etab. Aldiz, oso gutxi izan arren, aurreko kokagunean

baino ugarixeagoak dira <z>-k: 5r *yaz* ‘iaz’, 5v *bolar – egaz eguin*, 6r *contigo – sugaz*, 6v eta 14v *artez*, 10v (bitan) eta 12v eta 13r eta 13v eta 14r *leguez*<sup>14</sup>.

Amaieran <z> duten hitzak oso gutxi dira <s> dutenen aldean (100 bat), baina sorta honetan esanguratsua da adibideen kopurua aurrekoan baino handixeagoa izatea eta amaieran <s> duten aldaera batzuk <z>-z ere agertzea, hala nola komitatiboko eta instrumentaleko markak dituztenak, eta *legez* hitza.

Hitz hasieran errepikatu egiten da aurreko sortako eskema: <s> duten formak gainerakoak baino oparagoak dira (300etik hurbil), baina aurreko kasuetan baino ugarixeagoak dira <z> eta <ç> dituztenak:

- i) Ondare zaharreko berba edo maileguak: 2v (bitan) *zuria*, 2v *zuriac*, 5v eta 8r *zaguaia*, 6r *zerua*, 7r *zayna*, 7r *zauria*, 8r *zyla*, 10v *zeloac*, 12v *zapatac*; 6v *çuritu*, 6v *çauala*, 7v eta 8r *çeatu*, 12r *çerua*.
- ii) Mailegu moderno edo gordinak: 12v (bitan) *çiertu*, 14r *çelestinac*, 14v *çiertuan*.

Hitz hasieran poligrafia aurki daiteke zenbait kasutan <s> erabiliaren eta <z> eta <ç> ez hain erabilien artean. <z>/<s> oposizioari dagokionez, *zil* berbari loturik besterik ez dut aurkitu adibide bat: 8r *ombligo – zyla*, *syla* dakartza testuak ondoz ondo. Hori ikusita, Pagolak (2002: 205) *zil* hitza bi eratara ahoska zitekeela iradoki zuen: hala izan daiteke, baina, halaber, poligrafia-kasu bat dela pentsa daiteke, hitz amaieran <-s> zein <-z> duten kasu-marketan bezala. Bestalde, <ç>/<s> bereizketari dagokionez, sei aldiz aurkitu dut *suri*- eta behin *çuri*-; behin *çauala* ‘zabala’ eta bitan *sabaldu*.

Bokal arteko kasuek jarraitu egiten diote aurreko sortetako joerari salbuespenetan, eta <VsV>-dunak askoz ere ugariagoak izan arren, aurreko hiru sortetan baino sarriago ageri dira <VzV> eta <VçV><sup>15</sup>:

<sup>14</sup> 13r *tapiz* ematen du, baina mailegatutako grafia izan daiteke (gaztelaniaz ere *tapiz* dakar).

<sup>15</sup> Behin aurkitu dut <c> (13r *mecede*), baina kopiagilearen akats txiki bat besterik ez bide da hitz beraren gainerako adibideen argitan.



- i) Ondare zaharreko berba edo maileguak: 5r eta 5v *bizarra*, 6r *azala* (baina 7r *asala*), 6v *arteza*, 6r *arguizaguia*, 6v *yzarra*, 8r *vizarra*, 8r *guizon* (baina 7v *guison*, 8r eta 12v *guisona*, 13v eta 14v *guisonac*), 9v *azebaria*, 12v *orraziagas*, 12v *vaziña*, 13v eta 14r *errazoea*, 13v *errazoeagas*; 4r *vaçina*, 5r *luçatu* (baina 7v *lusea*), 7r *yrapaçi*, 8v *orraçia*, 9r *açia*, 14v *guiaçacume*.
- ii) Mailegu moderno edo gordinak: 2v *Xerezzen*, 5r *azefraea*, 5r *gozotu*, 15r *cabezoe*, 5r *azucarea*, 6v *gozoa*, 12v *barnizadua*, 12r *azotaduen*, 14r *tazatan*, 14r (bitan) *taza*, 14r *azeytuna*, 14v *dozena*, 14v *gozo*; 9r *oraçionoe*, 12v *comparaçiñoytic*, 12r *meçedeorrec*, 12r *raçu*, 13r *pedaçuac*, 13r (bitan) *meçede*, 13r *meçedeoc*, 14r *palaçiora*, 14v *doçena*, 27v *viçioa*.

Aurrekoez landara, zenbait adibidetan <ss> ere badago: 5v *assea* ‘aza (abs. sg.)’, 7r *assurra* ‘hezurra’, 8r eta 14r *messea* ‘meza (abs. sg.)’, 9v *aussoa*, 10v *sufri essasu*, 12v *bissarrau*, 14r *essarri*, 15r *esseyen*.

Arestiko adibideez aritzean, kontuan hartu behar da zerrendatutako hainbat elementu mailegu modernoak direla eta Mikoletarenean parez pare ageri direla erdal eta euskal formak hiztegian, poemen itzulpenean eta elkarriketetan. Horrek, agerikoa denez, hitza ez ezik grafia ere mailegatzea ekar zezakeen hainbat kasutan. Eragin horren mende jar daitezke, agian, arestiko *palaçiora*, *pedaçuac*, *cabezoe* edo *Xerezzen*. Aitzitik, azalbide hori ezin da automatikoki erabili eta Mikoletaren gaztelaniak islatzen dituen bestelako fenomenoak ere aintzat hartu behar dira, inoiz euskal testua gaztelaniazkoa baino kontserbadoreagoa baita grafikoki: euskarazko *taza* ‘katilu’-ko <z> gaztelaniatik mailegatutzat eman liteke, baina gogoan hartzekoa da, *seseoa* tarteko, 14r *Por cuål tasa* dakarrela Mikoletak berak, eta alboan 14r *Seyn tazatan*. Berdina gertatzen da elkarrizketetan aipatzen den izen berezi batekin: gaztelaniazko tradizioko *Ganassa* (Vélez-Sainz 2000) *Ganaza* ematen du Mikoletak gaztelaniaz, eta *Ganasa* euskaraz, Minsheuk (1599: 2) dakarren *Ganasa*-rekin bat etorrita.

Frikari apikariaren adierazpenari dagokionez, <s> grafema da nagusi (2r *sagarra*, 6r *sagardaoa*, 9r *sarea*; 3r *esaten*, 5r *arnasea*, 5v *besoa*; 5r *laster*, 8r *nescatoa*, etab.) eta bokal artean <ss> ere badago (5r *abbadessea*, 6r *assi*, 7r *françessea*, etab.). Aurreko kasuez landara, arreta ematen du <ç> eta

<z> agertzeak etimologikoki apikaria dagoen adibide batzuetan, hiperzuzenketen itxura baitute: <ç> bokal artean dago, eta <z> herskari aurreko eta hitz amaierako adibide banatan: 5v *baçaçea* 'basatza (abs. sg.)', 5v *suritaçuna*, 6r *eroçi*, 8r *vçigui* 'usigi, ausiki'; 7r *ynez eguin* 'ihes egin', 9v *maztia* 'mahastia'.

### 5.3.2 Afrikatuena saila

Oro har, *Mikoleta* eskuizkribuan ez dira frikariak eta afrikatuak grafikoki bereizten, nahiz eta, tarteka, grafiaren historiarako aparteko interesa izan dezaketen digrafoak ageri diren.

Bizkarkarien sailean lau grafema hauek daude, maiztasun handienekotik txikierrenetara aurkeztuta: <z>, <ç>, <c> eta <tç>. Hona hemen laurion adibideak: 5r *garraza*, 5r *orrazta ta jostorrazta*, 5v *coroza* 'gorotza', 6r *ycaza*, 6r eta 10v *vioza*, 7r *ardaza*, 7v *mayaza*, 9r *azeguin* 'hatz egin', 9r *gaza*, 9r *puza*, 10r *martizena*, 10v *bioza*, 13v *yçal*, 14r *vrgazi* 'urgatzi'; 8r eta 10r *bederaçi*, 8v *amaraça* 'amarratza', 10r (bitan) *emereçi*, 10r *bederaçi-eun*, 10r *oguey-ta emereçi*; 14v *emerecico*; 5r *burucorratça*.

Aurrekoekin batera, baina, bokal artean eta hitz amaieran <s>-ren eta <ss>-ren bidez ere adierazten da jatorrizko bizkarkaria:

- i) Bokal artean: 5v *asetic*, 5v *basuetan*, 6v *aseti*, 6v *yrasarri*, 7r *arrausa-gorringoa*, 7v *ereyñosa*, 9v *asico* 'atzeko', 10v *xasu* 'jatzu, zaizu', 12r *osic* 'hotzik', 12v eta 13v (bitan) *lisate*, 13r eta 14r *basuc*, 13r *visisea* 'bizitza (abs. sg.)' 13r *enesat*, 14v *basuac* 'batzuek', 14v *mayordomusat*, 14v *salasat*, 14v *guarda-ropasat*, 5v eta 14v *basuetan*, 14v *dispenserusat*, 15r *bisuc* 'bitzuk'; 3r *ossa* 'hotza', 9v *asserengoa* 'atzerengoa, azkene-koa', 10r *asserengo-guino*, 12v *bassasacayti* 'basatzengatik', 13r *enessat*, 13r *bassuoc*.
- ii) Hitz amaieran: 4r *valis* eta 14v *balis*, 7r *vgas semea*, 7r *vgas alabea*, 8r *vgas-ayta*; 12v *oss* 'hotz'<sup>16</sup>.

<sup>16</sup> Beharbada bokal artean <VssV> erabiltzearen ondorioz; cf. 3r eta 7r *ossa*, 12v *ossonegasco*.

Afrikatu apikarien sailean <s> eta <ss> dira arruntenak: 6r *ysua*, 6v *asotu* ‘atsotu’, 8v *ausa*, 9r *oseguin*, 9v *vsitu*, 9v *usa*, 12v *esteusut*, 12v eta 13r *esean*, 13v *esera*, 14r *aseguin dau*, 14r *eyten deusat...*; 12r *osseyn*, 12r *asso*, 12r eta 12v *ecussu* ‘ekutsu’, 12r *aseguin*, 25 *iricassu* ‘irikatsu’, 14r *assoari...* Alabaina, badirudi kasu batzuetan afrikatuak bereizteko ahalegina egin zuela Mikoletak. Lehenik, <ts> dago: 5v *etsea*, 7v *ytsasoa*, 9v *atsoa*, 12r *ytsuric*. Bigarrenik, <zs> eta <sz>: 6v *vizsa* ‘bitsa’, 7v *ozsoa* ‘otsoa’; 9r *osza* ‘hotsa’<sup>17</sup>.

Adibideoi begiratuta ikus daitekeenez, zenbait berba emateko hiru aukera baliatu zituen Mikoletak, eta hortik etorri zitzaion (cf. 6v *asotu*, 12r *asso* eta 9v *atsoa*), besteak beste, Pagolaren (2002: 204) gaitzespena.

Aurrekoetz gain, kasu gutxi batzuetan <z>-ren eta <ç>-ren bidez adierazten da afrikatu apikari etimologikoa, beti bokal artean: 6r *auza* ‘hautsa’, 8v *mazorra* ‘mahats-orria’, 8r *eupaza* ‘aupatsa’, 9v *maza*, 9v *lozea* ‘lotsa (abs. sg.)’, 10r *biza* ‘bitsa’; 6r *yçutu* ‘itsutu’.

## 6. Eztabaidagaiak

### 6.1 Neutralizazio-zantzuak

*Mikoleta* eskuizkribuko gaztelaniazko pasarteak irakurrita, argi dago idazlea gordetzaila izan zela arlo grafikoan: garai hartako Bilboko gaztelanian galduta zeuden bereizketa zaharren desagerpena ostentzeko edo ezkutatzeko nahia erakusten du testuak, eta arau orokor, bereizle eta gordetzaila bati atxikitze ahalegina, nahiz eta sistematikotasunik lortu ez. Bestalde, orduko gaztelaniak /θ/ bazuela pentsatzea arazotsu da, Penintsularen iparraldeko dinamiken eta Hego Euskal Herriko gaztelaniaren berezko ezaugarrien argitan. Ulibarriren (2015) proposamenera (hots, <s>-ren erabilera zabala <z> [θ] adierazteko gordetzearen ondorio delakoa) emanago eta jarriago nago, baina Lehenengo Euskara Modernoko testuetako kasuistika

<sup>17</sup> Halere, ez dirudi kasu hauen atzean erabaki grafiko tinkorik dagoenik; cf. 9r *son* – *osza*, baina 9r *sonar* – *oseguin*.

azaltzeko; izan ere, ordurako hedatuago zegokeen hortzarteko ebakera, jende ikasiaren artean behintzat. Neure ustez, *Mikoleta* eskuizkribuko auzia seseoarekin eta, zehatzago, § 5.2-n aipatutako [ʃ] ebakerarekin lotuago egon daiteke, fenomenoaren ordukoaren proposamenen (Satorre 1989; Núñez-Méndez 2021) oinarri harturik.

Euskarazko pasarteei helduta, ezin esan daiteke txistukariak adierazteko grafema bakarra (<s>) zegoenik. Mikoletak berak herskari aurreko kokapenez kanpo emandako <c>, <ç> eta <z> grafemek bizkarkaria adierazten bide dute, are euskal ondare zaharreko adibideetan: 5r *yaz*, 5v *egaz eguin*, 6r *sugaz*, 6v *artez*, 10v *leguez*...; 5v eta 8r *zaguia*, 7r *zayna*, 7r *zauria*, 8r *zyla*, 6v *çuritu*...; 6r *azala*, 9v *azebaria*, 12v *orraziagas*, 7r *yraçaçi*, 9r *açia*, etab.

Bestalde, <s>-ren erabilera hedatua azaltzeko, gaztelaniazko [ʃ]-ren ebakera *seseantea/ciceantea* gakoaren delakoan nago; izan ere, ebakera ez zitekeen ez hortzartekoa, ez apikaria: hurbilago zegokeen euskal frikari bizkariaren ebakeratik apikariarenetik baino<sup>18</sup>, eta horrek azal lezake zenbait idazlek <s> hautatu izana euskarazko (ia) edozein txistukari adierazteko. Ondorioei begira, irakurketa horrek zenbait daturen bestelako interpretazioa eskatzen du: <s>-k euskal frikari bizkarkaria (ere) adierazi ahal izateak aurretik ere ezagun ziren zailtasunak dakartza, ez baitago ikusterik bizkari/apikari oposizioa galdua zen ala ez, Ulibarrik (2015) nabarmendutako legez.

Mikoletaren euskararen neutralizazioaren zantzutzat har daitezkeen datu ziurrak gutxi dira. Alde batetik, <s>-k bizkarkaria ere adieraz zezakeela onartuta, 8r *ombligo* – *zyla*, *syla* edo *suri*- (6 aldiz) eta *çuri*- (behin) zein 6v *çauala* eta 6v *saualdü* bikoteetan polifonia zegoela pentsa daiteke, Pagolarekin (2002: 204) bat etorritz; alabaina, poligrafia-kasua ere izan daiteke, beste testu batzuek islatzen dutenez (§ 6.2). Bestalde, hiperezuzenketaren itxurako kasu gutxi batzuk daude, non bokal arteko zein hitz amaierako grafemek ezin baitute apikaria adierazi: <ç> *pro* <s> dago bokal artean

<sup>18</sup> Horren alde, egungo datuetan oinarritutako azterlanak badira ere, ikus Iribar, Pagola eta Túrrez (2020, 2022). Ezagutza fonetiko garaikideak iraganaren berreraiketarako eman dezakeen laguntzaz, ikus Stuart-Smith (2004).

(5v *atolladero – baçaça, blancaura – suritaçuna, comprar – eroçi, morder – vçigui*), eta <z> pro <s> silabaren buruan (9v *viña – maçtia, 7r huir – ynez eguin*).

Eskuizkribuan den grafia-erabilerarik deigarriena <s>-ren baliatze hedatua dela ahaztu barik daukagula, aurreko adibideetan neutralizazioak eragindako hiperzuzenketak ikus daitezke, Ulibarrik (2015: 138) *Dotrinazko sermoitegiko ecuci* ‘ikusi’ eta *goce* ‘gose’ azaltzeko erabilitako logika berari jarraikiz. Horrenbestez, *Mikoleta* eskuizkribuko frikarietan neutralizazioa aurreratuta zegoela pentsatzeko zantzuak leudeke. Izan ere, oposizioaren galera bokal arteko kokapeneraino hedatuta legoke (hots, errazen gertatzen den inguruneetatik harago). Hain zuzen, horren alde egiten du <z>, <ç> eta <c>-ren kokapenak: 9v *viña – maçti* adibideaz landara ez dut besterik aurkitu herskari aurrean, non <s> baita arrunt; aitzitik, <z>, <c> eta <ç> grafemen erabilera ugaritu egiten da oposizioaren galera beranduago edo/eta zailago gertatzen den inguruneetan: kasu bakarra dago herskari aurrean, baina gehiago dira, hurrenez hurren, hitz amaieran, hitz hasieran eta bokal artean; hots, korrelazioa dago neutralizazioa beranduago iristen den inguruneen eta grafemen erabileraren artean.

Afrikatuak dagokienez, Pagolak (2002: 206) ez zekusan neutralizazioa proposatzeko arrazoirik, baina, zenbait adibide tentuz aztertuta, osterantzekoa ondoriozta daiteke: afrikatuak <s>-z edo <ss>-z adierazteak interpretazio ziurrak eragozten ditu, baina aurreko lerroetako logika bera aplikatuz, neutralizazioa sail horretan ere bazela lerakuskete 8v *mazorria* ‘mahats-orria’, 8v *maz passea* ‘mahaspasa (abs. sg.)’, 9v *maza* ‘mahatsa’ eta 9v *lozea* ‘lotsa (abs. sg.)’ adibideek.

Aurreko guztiak gogoan, egia da ia edozein txistukari adierazteko <s> baliatzeak irakurketak oztopatu eta interpretazio sendorik egitea eragozten duela. Halere, neutralizazioaren zantzuak dakuskit eskuizkribuan; areago, inguruneen arabera banaketa grafikoei loturik, neutralizazioa aurreratuta zegoela uste dut.

Lehentxoagoko ondorioari indarra emateko, Bilboko beste testu batzuetan zer gertatzen den begiratzea otu zait, baina Bilbo aldeko gainerako testuak ez dira bereziki lagungarriak. Izan ere, edo laburregiak dira edo, Miko-

letarenean legez, <s>-k edozein txistukari adieraz dezake. *Enojaduric* kantu zaharra (ca. 1622, *apud* Arejita 1991) da erkagai erazkoena.

*Enojaduric* kantuan, <s>-k sistematikoki adierazten du frikari bizkarkaria herskari aurrean eta hitz amaieran: 2 [*est*]aquidala, 9 *estaquit*, 11 *estaucat*, 12 *gustia*; 3 *aditu jatas*, 5 *guichigas*, 8 *nigas* eta 13 *yminiagas*. Hitz hasieran, aldiz, <c> besterik ez dago (2 *cegayti*, 6 *bior citean*, 7 *ce*, 9 *cer*), eta bokal artean ere <c> eta <z> ageri dira, izan ondare zaharreko hitzak, izan maileguak: 7 *egoceana*, 12 *mercedua*, 12 *licencia*, 13 *mereciçaga*, 19 *cirea*. Neure ustez, banaketa koherente horren azalpen errazena da herskari aurrean eta hitz amaieran bizkarkari/apikari bereizketa galdua zela esatea. Arestiko datuak eta *Mikoleta* eskuizkribukoak erkatuta, koherentzia linguistikoa eta kronologikoa ageri zaigu: XVII. mendearen hasieran (*Enojaduric*) herskari aurreko eta berba amaierako inguruneetara mugatzen zen neutralizazioa aurreratuago legoke *Mikoleta* eskuizkribuan.

## 6.2 Fenomeno grafiko hedatuagoa

Azpiatal honetan ideia bat azpimarratu nahi dut: *Mikoleta* eskuizkribuko gorabehera grafikoak ez dira bakanak Euskal Herriko mendebaleko testu-corpusean. Bilbo aldeko XVII.-XVIII. mendeetako hainbat testutan adieraz dezake <s>-k (ia) edozein txistukari: ez da hala gertatzen *Refranes y sentenciasen* (Lakarra 1996) eta *Enojaduric* kantan (Arejita 1991), baina bai Basabilbasoren gutunean (Sarasola 1983), Barnetxearen kantan (Zuloaga 2018) eta Zolloko galdetegian (Zuloaga eta Antequera 2019). Horiek ikusita, pentsa liteke Bilbori nola edo hala loturiko tradizioa edo ohitura grafikoa zela, baina baieztapen hori ez da zuzena, Bilboz eta Bizkaiaz gaindiko beste testu batzuetan ere badagoelako. Hala ikusi dut<sup>19</sup>, besteak beste, Ibarguen-Cachopínen kronikako zenbait materialetan (Arriolabengoa 2008), Sevillako euskal bertsoetan (Ulibarri 2011), Arrasateko udal-bando batean

<sup>19</sup> Zerrendatik kanpo utzi ditut ondorio sendorik ateratzeko laburregi diren testuak eta neutralizazioak eragindako hiperzuzenketa-kasutzat jo daitezkeen adibideak dakartzatenak, hala nola Rita Barnetxearen 1763ko euskal kanta, Eibarko 1685eko koplak, 1614ko *Sumario breve* eta Bizkai-Gipuzkoetako XVIII. mendeko zenbait egilerenak.

(Ozaeta 1992), Lubieta donostiarraren hiztegian, *Dotrinazko sermoitegian* (Ulibarri 2015) eta Getariako bi gutunetan (Leturiaga 2024). Ez dut hona ekarriko testu horien guztien azterketa xeherik (ikus Zuloaga 2020: § 4.7), baina arestiko zerrendaz gaindiko beste hiru testutako kasuistika bai, aztertuko dut; izan ere, lagungarri dira arlo grafikoa bere horretan aztertzearen garrantzia azpimarratzeko nahiz *Mikoleta* eskuizkribuko auzi grafofonologikoa argiago ikusteko.

### 6.2.1 Amenduxen eresia (1564)

Aintzat harturik txistukarien neutralizazio klasikoa Euskara Zaharreko berrikuntza dela eta Euskal Herriko mendebalean eta erdialde zabaleko kostaldean lekukotu dela historikoki (Zuloaga 2020: § 4.7), arreta ematen du Joan Amenduxen eresian <s> grafemak edozein txistukari adierazteko erabili izanak, testua XVI. mendekoa eta Nafarroakoa baita<sup>20</sup>. Lehenik, herskari aurreko adibideak daude: 11 *estu*, 11 *estudan*. Bigarrenik, instrumentaleko markari dagozkionak: 6 *gutis*, 10 *aldias*, 12 *garitates*. Hirugarrenik, bokal artekoak: 4 *lusean*, 8 *gusia*, 11 *isanen*, 14 *judision*, 15 *gusiequin*. Laugarrenik, 8 *arreci* 'harresi' ere badago. Bosgarrenik, afrikatuetan 8 *ysuriric* 'itzuririk' dakar testuak.

Herskari aurrean neutralizazioa errazago gertatzen dela eta antzeko adibideak bakan baina garai bertsuan han-hemen aurki daitezkeela presente daukadalarik, ingurune horretako adibideak azterketatik kanpo utziko ditut, badaezpada. Halaber instrumentaleko markari dagozkionak, Nafarroako eremu batean apikaria (izan) baita arrunt.

Amenduxen testua bere horretan irakurri eta arlo grafikoa eta fonikoa be-reiziko ez balira, neutralizazioa aurreraturik edo buruturik zegoela pentsatu

---

<sup>20</sup> Beharbada kasu ezagunena da Amenduxena, baina Nafarroako beste testu labur batzuetan ere azaldu da txistukarien interpretazioaren arazoa: Bortzirietako zenbait esaldiz ari zela, hau zioen Reguerok: «... txistukarien nahasketa gertatzen da, baina ezin jakin benetan ahoskerari dagokion ala kontu grafikoa den: *suc*, *es* (1549), *ser* (1609), baina *galceagatic* (1549), *guezurra*, *çayo*, *mordaça*, *oçar* (1609)» (2019: 86).

beharko litzateke, oro har oposizioaren galera berankorragoa den bokal artean ere ageri baita bertan<sup>21</sup>. Gainera, 8 *arreci* eta 8 *ysuriric* hiperzuzenketatzen jo litezke, neutralizazio-prozesua burututa ikustearen alde. Nik, aldiz, irakurketa okertzen dut hori. Izan ere, Iruñeko testu horretan neutralizazioa Euskal Herriko beste edozein lekutan baino aurreratuago zegoela onartzea dakar. Hartara, azaldu egin beharko litzateke zergatik ez den halako neutralizaziorik lekukotu Nafarroan ez garai berean, ez ondoren, eta nolatan egon zitekeen berrikuntza indartsuago XVI. mendeko Iruñerrian, neutralizazioa gerora indartu eta hedatu den eremuetan baino. Neure iritzian, azalpena bestelakoa da: nahaste grafiko hutsa; alegia, <s>-ren eta <c>/<ç>-ren arteko truke grafikoetara mugatu behar da auzia, eta ez dago zertan neutralizazio-zantzurik hartu.

### 6.2.2 Landucciren hiztegia (1562)

Landucciren hiztegiaren azterketa Amenduxen eresiarena baino konplexuagoa da, Euskal Herriko mendebaleko testua baita: alde batetik, lekukotasun faltaren ondorioz, zail da jakiten neutralizazioa, gertatu eta indartze-kotan, noraino iritsi zitekeen garai historikoan Gasteiz aldean; bestalde, neutralizazioaren adibidetzat jo izan diren adibideak dakartza hiztegiak. Atutxak (2013) zioenez, bizkarkari/apikari oposizioaren galeraren adibide garbiak herskari aurrean metatzen dira corpus horretan.

Zuloagaren lanari (2020: § 4.7.4.1.2) jarraikiz, herskari aurrean<sup>22</sup> hitz batzuek sistematikoki dute <s> Landuccirenean, hala nola *expata*, *pixti*, *iraztu* eta *eguarthen* berbek, eta horietatik eratorriek. Aurrekoez gain, badaude neutralizazioa isla dezaketen beste kasu batzuk ere, nahiz eta <ç>/<z> dutenak ugariagoak diren: *plaçan*, *gustion aurrean* behin, baina 18tan zenba-

<sup>21</sup> Mitxelena ere jabetu zen testuaren berezitasun grafikoez, baina ez zuen neutralizaziorik aipatu: «Particularidades gráficas curiosas son el repetido empleo de *gi* (como en la ortografía vasca moderna) por *gui*, y la frecuente confusión de *s* y *ç* (*c*, *z*), en favor generalmente de la primera letra (pero *arreci*, v. 8, parece estar por *arresi* «muro, muralla»). Por ello supone Irigaray que *ysuriric*, en el mismo verso, puede ser *yzuriric* (= *itzuriric*) ‘huido(s)’, no ‘derramados’» (2011 [1964]: 104).

<sup>22</sup> Segurtasun handiagoz aritzeko, bazter utzi ditut maileguaren kronologiak eta/edo gaztelaniatzko formak baldintza zitzakeen aldaerak.



tu dut *guzti*; *abustuyla* eta *abustua* daude, baina aurka dituzte *abuçtuan* eta *abuçtuc*. Bestalde, hiztegiak *esquerrerusc* dakar, baina <zq> dutenak dira arruntenak: *ezquerrerusc*, *ezquerra*, *esqu ezquerra*, *gauça ezquerra*; berebat, *escararr eguin* bakanaren aurka daude *ezcararra* (gainean emana) eta (C) *gazcararraquin joa*, eta *nezcato escongueya*-ren aurka daude *ezcondu*, *ezcondua*, *andra ezcondua*, *ezconçea*, *ezconcaria*, *andra ezconçaria* zein *dotea edo ezconçea*; ikus, halaber, *arçepisticoa*, *arçepisticoan gauçea*, *episticoa* eta *episticoan gaucea*, baina *croçea epizticoana*.

Berdintsu, *-zko* atzizkian <s> dago batzuetan (*çaçata ylariscoa*, *sedasco çaçulloa*, *espatasco ysgrimea*, *canasco jocuac*, *gauça pisu guchisco[a]*), baina aurkako adibideak gehiago dira: *burniazco gauçea afiladu*, *azerozco ballestea*, *çerazco blandoea*, *suzco votoya*, etab.<sup>23</sup>.

Aurreko adibideren batek islatzen duenez, Landuccirenean etimologikoki apikaria adierazteko <z> eta <ç> ageri dira tarteka; hots, hiperzuzenketa-kasuak daudela dirudi. Gainera, sail honetan ere oso ohikoak dira bikoteak: batzuetan <s>-z ematen direnak <z> edo <ç> dutela ere ageri dira (cf. *vezteri*, *competidu veztequin* eta *beçte gauça*<sup>24</sup>, baina *besten gauçea*, *ta orra beste aldera*, (B) *batetiq eta bestetic*, *villa vaterean bestera*, (B) *lecutica lecura*, (C) *bestelan*, *ez bata ta ez bestea*, *ez alde batera ta ez bestera*, *ez lecu batean*, *ta ez bestean*, *aynbeste*). Lauzpabost hitzek ez dute aurreko polimorfismorik eta <z>-z ageri dira sistematikoki, nahiz eta bakanak izan: azalean bitan aipatzen da *ezqueraz* ‘euskaraz’, *aratizteac* behin besterik ez dago<sup>25</sup>, eta *erakutsi* aditza *eracusçi* sarreraren bidez ematen da (eta *enseñado – eracusçia*), baina aditz-izenaren markarekin *eracuztea* dago.

Testu batean neutralizazio-kasu argiak daudenean hiperzuzenketak ere egotea ez da harrigarria; alabaina, Landuccirenean herskari aurretik apika-

<sup>23</sup> Inoiz, badago <sc> digrafoa frikaria adierazteko, oro har herskari aurrean; cf. *videsçcoa* eta *asçtu eraguin*.

<sup>24</sup> Adibide horri lotuta, ikus Mitxelena-ren oharra: «No se ve bien si se ha corregido *beste* en *beçte* o al revés» (2011 [1958]: 340, 176. oin-oharra).

<sup>25</sup> Testuan *eçe treznea* ere badago, baina kasu honetan bestelakoa da azalpena; ikus Mitxelena (2011 [1961]: 231).

ri etimologikoa <ç>/<z>-ren bidez adierazten den aldiro hiperzuzenketa-  
ren azalpena jotzeari gehiegi deritzot. Izan ere, neutralizazio-kasutzat  
eman daitezkeenak (hots, bizkarkari etimologikoa <s>-z adierazten dute-  
nak) baino gehiago dira. Nik neuk zalantza edo/eta hautu grafikoen eragina  
dakusat Landuccirenean, eta horiek ere gogoan hartuta, lehen begi-kolpean  
herskari aurreko hiperzuzenketa orokortutzat eman litezkeen adibideak  
azaldu beharrekoak direlakoan nago. Zalantza/hautu grafikoen eraginaren  
alde egiten dute, halaber, jatorrizko eskuizkribuak dakartzan zuzenketek,  
Mitxelena bere edizioan markatutakoek; cf. «s corrige una ç anterior»,  
*sartu*-ri buruz (2011 [1958]: 251, 37. oin-oharra); «s corrige z, o tal vez al  
revés», *abustua*-ri buruz (2011 [1958]: 272, 75. oin-oharra); «B tachó la ç y  
corrigió la s con una z», *aza*-ri buruz (2011 [1958]: 281, 91. oin-oharra); «ç  
corrige una s: yçossa», *yçosça*-ri buruz (2011 [1958]: 292, 106. oin-oharra);  
«ç corrige s», *abuçuan*-i buruz (2011 [1958]: 303, 120. oin-oharra).

Aurreko guztiaren argitan, neure ustez hautu grafikoek ere eragin betea  
dute Landucciren datuetan, eta kasu guztiak ezin dira itsu-itsuan interpre-  
tatu. Landuccirenean ere zalantza eta hautu grafikoen eragina atzematen  
da, nahiz eta ezin esan daitekeen Amenduxen testuko kasuistika bera du-  
gunik, ingurunearen araberrako banaketa esanguratsua baitago: neutraliza-  
ziotzat har daitezkeen kasu gehienak herskari aurrean metatzea ez bide da  
ausazkoa; neutralizazioarekin lot daitezkeen fenomenoak da, eta baliteke ho-  
rrek (edo horrek ere) zalantza eta hautu grafikoetan eragina izana.

### 6.2.3 *Ibarguen-Cachopínen kronika (XVI. mendearen amaiera)*

Ibarguen-Cachopínen kronikan bildutako materialak ugari eta askotari-  
koak izateak galarazi egiten digu material guztiak jatorri eta sorta bakar  
batekoak balira bezala aztertzea. Txistukarien neutralizazioari dagokionez,  
euskarazko material batzuen laburtasunak eta bakantasunak (esaldi solteak,  
hitz isolatuak...) ez du biderik errazten bereizketa galdua ote zen edo egi-  
leen hautu grafikoen ondorio den erabakitzeke. Kronikak biltzen dituen  
hala kantu epikoak, nola material laburrak bazter utzita (ikus horien azter-  
keta xeheagoa Zuloaga 2020: § 4.7.3.1.3 lanean), ordea, ikuspuntu grafiko-

tik ziurtasun handiagoa ematen dute Kronikan jasotako bi testuk: Andramendiko idatziek eta XVII. mendearen hasieran gehitutako bi hiztegik.

Andramendiko idatziak deigarriak dira, <s> kokagune guztietan agertzen baita, jatorrian txistukari bizkarkaria zein apikaria egon, bai frikarietan, bai afrikatuetan. Frikarietako adibideak dira 1-4 *escutari*, 1-6 *gustioen...*; 1-4 *ascogas*, 2-7 *barriacas...*; 2-3 *saspi*, 2-6 *san...*; 1-3 *isanic*, 2-9 *ysan...* Bada, aurrekoen argitan pentsa liteke neutralizazioa burututa zegoela, baina adibide jakin batzuen azterketak bestelakoa islatzen du: 2-3 *saxpi* ereduko adibide batean harrigarria litzateke, neutralizazioa islatzekotan, hitz hasieran <s> egonik herskari ahoskabearen aurretik <z> mantentzea; halaber, 2-7 *naguçi* eta 11 *naguçari* hiperzuzenketatzat jo litezke, baina horrek bereizketaren galera oso aurreratuta egotea eskatuko luke berriz ere: kontu grafikoa direla uste dut; alegia, <s> eta <ç>-ren arteko poligrafia-kasua dagoela.

Aurrekoek landara, 1-8 *caltesat*-ek gakoa ematen duelakoan nago: kontu grafikoa hutsa bide da afrikatu bizkarkaria <s>-ren bidez ematea (cf. 1-1 *emireçi*, 2-2 *jayaçea*, 2-6 *baçarrean*, 2-7 *gueçi*, 2-7 *eçe* eta 2-10 *bereçat* testu berean)<sup>26</sup>, eta gainerako kasuak ere hautu edo ohitura grafikoen arabera azaltzekoak direla uste dut, areago testua XVI. mendearen erdialdekoa dela kontuan harturik (Arriolabengoa 2008: 9 eta hurrengoak). Horrenbestez, ez dirudi Andramendiko idatzietan bizkarkariaren lekuan dauden <s>-ek nahitaez apikaria adierazi behar dutenik.

XVII. mendearen hasieran Kronikara gehitutako hiztegitxoek ere informazio interesgarria ematen digute. Zehazki, Bizkaiko eta Bizkaiaz (oso) gaindikoa berbak jasotzen dituzten bi berba-zerrenda dira, eta interesa bien arteko erkaketatik dator. Txistukariei dagokienez, <s> grafema ageri da zenbaitetan bizkarkariaren lekuan, baina <ç> ere badago apikariarenean. Hona hemen lehenengo hiztegitxoko adibide sorta bat:

— Frikari bizkarkariaren lekuan <s>: *a las uñas – ascaçalah, bermejuelas – escahua.*

<sup>26</sup> Halaber, afrikatu apikaria behin baino gehiagotan adierazten da <ch> digrafoaren bidez: 1-7 *egorrochi* (cf. OEH, s.v. *egorrotxi*), 2-8 *achacaba* eta 2-11 *acheçuin*.

- Frikari apikariaren lekuan <ç>: *a la barriga – çauela, a la espada – espata, al candill – criçellua, fuego – çua, manzana – çagarra, besugo – eroçela, [ç]erraja – çarralla.*
- Afrikatu bizkarkariaren lekuan <s>: *carbón – ycasa, rinñones – guilzurrinah.*
- Afrikatu apikariaren lekuan <ç>: *polwo – auça, cordero – bildoça.*

Ondoko hauek, bestalde, bigarren hiztegitxokoak dira:

- Frikari bizkarkariaren lekuan <s>: *ascaçalah – uñas, espatea – espada, escalua – bermejuelas.*
- Frikari apikariaren lekuan <z>, <c> edo <ç>: *coñecoac – vestidos, cricella – candil, erocela – besugo, zabela – barriga, zua – fuego, çagarra – mançana, zarrallea – cerraja.*
- Afrikatu bizkarkariaren lekuan <s>: *ez dago.*
- Afrikatu apikariaren lekuan <z> edo <ç>: *auza – polwo, bildoza – cordero.*

Agerikoaenez, hitzak berberak izanik ortografia eraldatuta dago bigarren hiztegitxoan, <z> grafema erantsita, bai eta aldaeraren bat aldatuta edo zuzenduta ere (*guilzurrinah – riñones* eta *ycaçà – carbón* dakartza bigarren hiztegiak). Bestalde, esanguratsua da eskuren batek apikariaren lekuan <z> zegoen hainbat kasutan <s> aldatu izana (ikus Arriolabengoa 2008: 137-143ko oin-oharrak). Balirudike idazleen hautu edo tradizio grafikoak nahasten zirela, eta <s> zein <z> baliokide zirela aipatutako adibideetan.

Esaera eta hiztegitxoetako materialez gain, Kronika barnean agertzen diren hitz solteetan ere lehen aipatutako bi joeren adibideak daude. Alde batetik, forma batzuek <s> dute bizkarkari etimologikoaren lekuan (*biscaitar, escutariac, urgaspide...*); bestalde, apikari etimologikoaren lekuan <ç>-dunak dakartza testuak (*hereçiac, naguçia*). Kasuren batean batera nahiz bestera agertzen dira hitzak; cf. *çançuac* eta *sansoac* eta *çuçia* eta *suçiiac*.

Aurrekoak esanda, Iburguen-Cachopínen kronikan txistukarrietan ikusten diren gorabeherak esparru grafikoari lotzen zaizkiola uste dut: ez dakusat arrazoi trinkorik testuan bizkarkari/apikari bereizketa galdua zegoela pentsatzeko. Txistukariak adierazteko grafema batzuk edo beste batzuk erabiltzea gehiago da, neure ustez, auzi grafiko hutsa.

## 7. Ondorioak

*Mikoleta* eskuizkribuaren (ber)azterketa ardatz harturik, lan honen bidez ekarpena egin nahi izan diot euskal testuen azterketa grafonologikoen esparruari. Ikuspuntu orokorretik, beharrezkoak baizen interesgarriak diren bi atazaren onurak erakutsi uste ditut. Alde batetik, testu zaharren ikerketari heltzean, jardun idatziari berez-berez loturiko azterketa grafiko beregain eta xeheen premia azaleratu dut: testu jakin baten azterketa linguistikoa egin eta hizkuntzaz ondorioak atera aurretik alderdi grafikoa bereiz eta bere osotasunean ikertzearen hobariak eskaini ditut. Bestalde, euskal idazle zaharrek baliaturiko sistema grafikoek erdal tradizio zabalagokoetan ikasitakoak oinarri dituztela gogorarazi dut, eta, horrenbestez, erdal tradizio horiek geure zeregin honetarako ezagutu beharra ere azpimarratu nahi izan dut.

Orokorretik zehatzera etorrira, *Mikoleta* eskuizkribuko euskarazko pasarteak ez zik gatzelaniazkoen lagin bat ere erabiliz, erdal eta euskal txistukarien adierazpena (ber)aztertu dut, eta berrikusi egin ditut bai euskalariek Mikoletaren txistukariez egindako irakurketak, bai Ulibarrik (2015) alor grafikoa eta fonikoa bereizi beharraz eginiko oharrak.

Orain, aurreko lan baten (Zuloaga 2019) ildoari jarraituta, sendoago baieztatu daiteke *Mikoleta* ez zela, inoiz idatzi denaren aurka, idazle «axolagabea» edo «galdua», ezpada aldaketa ugariko trantsizio-garaia bizi zuen gatzelanian alfabetatu eta ondotik euskaraz idatzi zuen egilea. Puntu honetan, eskuizkribuko aldakortasun grafikoa hurrago dakusat Cabrerak (2003: 163) emandako hurrengo deskripzio honetatik, Pagolarenetik (2002) baino:

La variabilidad no significa, como a veces se ha dicho, anarquía o desbarajuste, ni implica necesariamente la idea de un copista ignorante que comete errores, siempre inevitables evidentemente, sino ante todo refleja el proceder de quien actúa de acuerdo a una tradición escriptológica heredada.

Hain zuzen, garaiko konplexutasun linguistikoaren testigu da *Mikoleta* eskuizkribua: bertoko gatzelanian gertatzen ari ziren eta idazleari itzurtzen zaizkion aldaketekin batera, arau zaharragoa eta orokorragoa gordetzeko ahaleginak islatzen ditu testuak, Penintsulako beste eremu batzuetan jazo

izan zen legez; ikus, Andaluziako *seseoa* dela eta, Guitartek (1983) deskribaturiko fenomenologia.

Euskal datuei dagokienez, <s>-ren erabilera hedatua gaztelaniazko garai bateko [s̺]-ren tarteko ebakerarekin lotuago dagoelakoa daukat, eta horrek euskarazko frikari bizkarkaririk izan zezakeen hurbiltasunarekin, ezain grafema /θ/ adierazteko gorde izanarekin baino gehiago. Beraz, <s>-k txistukari bizkarkaria zein apikaria adieraz ditzakeela onartu beharra dakar aurreko irakurketak, eta horrek nabarmen apalarazten du, Ulibarrirekin (2015) bat etorriz, eskuizkribuko txistukarien neutralizazioaz esan daitekeena: xeheago bilatu eta aztertu behar izan ditut zenbait datu, auziari argi apur bat egiteko. Neure iritziz, neutralizazioa bazela eta, areago, aurreratuta zegoela pentsatzeko zantzuak egon badaude. Bi dira nagusiak: lehenik, hiperezuzenketatzat jo daitezkeen kasuak, non <c> eta <z> *pro* <s> ageri baita; bigarrenik, ingurunearen araberrako banaketa esanguratsua; zehazki, korrelazioa dakusat erabilitako grafemen eta oposizioaren galera gertatzen den inguruneen artean: <s>-ren ordeztu, <z>, <c> eta <ç> ugariagoak dira oposizioaren galera beranduago gertatzen den inguruneetan.

Ikergai nagusiaren osagarri, Euskara Arkaikoko eta Zaharreko beste hiru testuren azterketa grafonologikoa ere egin dut, eta erakutsi uste dut horietan ageri diren zenbait egoera eta arrisku *Mikoleta* eskuizkribuan ikusitako berak edo bertsuak zirela: testuak dauden-daudenean idazle edo idazlariaren hizkeraren transkripzio leialtzat hartzea arazo dela berresten dute, *Mikoleta* eskuizkribuak legez, Amenduxen eresiak, Landucciren hiztegiak eta Ibarguen-Cachopinén kronikak.

## Bibliografia

AGINAGALDE, Borja, ALDEKOA, Iñaki eta UGARTE, Felipe (ed.) (2007). *Joaquín de Alcibar Jauregui eta Acharan 1746-1810 eta Grand tourra (1772)*. Erroteta: Azkoitiko Udala.

ALARCOS, Emilio (1990). «De nuevo sobre los cambios fonéticos del siglo XVI», in M. Ariza, A. Salvador, A. Viudas (ed.), *Actas del I Congreso Internacional de Historia de la Lengua Española*. Madril: Arco/Libros: 47-59.

ALTZIBAR, Xabier (1992). *Bizkaierazko idazle klasikoak. Mogeldarrak, Astarloatarrak eta Frai Bartolome*. Nortasuna, dazlanak, grafiak. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.

AREJITA, Adolfo (1991). «XVII. mendeko Bizkaiko amodio-kantu ezezagun bat: *Enojaduric*», *Litterae Vasconicae* 6: 9-20.

ARRIOLABENGOA, Julen (2008). *Euskara Iburguen-Cachopin kronikan. Testu zaharren ediziorako kontribuzioa*. Bilbo: Euskaltzaindia.

ATUTXA, Udane (2013). «Txistukarien neutralizazioa mendebaleko euskaran XVI-XVIII. mendeen bitartean», in R. Gómez, J. Gorrotxategi, J.A. Lakarra eta C. Mounole (ed.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*. Gasteiz: UPV/EHU: 61-75.

— eta ZULOAGA, Eneko (2014). «La neutralización de las sibilantes en vasco: una perspectiva diacrónica», in F. Jiménez, A. Jimeno, A. de Lucas eta N. Celayeta (ed.), *Variación geográfica y social en el panorama lingüístico español*. Iruña: Nafarroako Unibertsitatea: 21-32.

BLANCO, Marta (2006). *Aproximación a la cronología de las transformaciones funcionales de labiales y sibilantes del español*. Santiago: Universidade de Santiago.

BOYD-BOWMAN, Peter (1980). *From Latin to Romance in Sound Charts*. Washington DC: Georgetown University Press.

CABRERA, Carlos L. (2003). «Reflexiones sobre grafemática histórica», in J. Borrego, J. Fernández, L. Santos eta R. Senabre (ed.), *Cuestiones de actualidad en lengua española*. Salamanca: Salamancako Unibertsitatea: 161-170.

CANO, Rafael (2014 [2004]). «Cambios en la fonología del español durante los siglos XVI y XVII», in R. Cano (ed.), *Historia de la lengua española*. Madril: Ariel: 825-857.

DODGSON, Edward S. (ed.) (1897). *Rafael Micoleta. Modo breve de aprender la lengua vizcayna*. Sevilla: F.P. Díaz.

— (1899). «Mr Sainthill and his Basque Studies». *Notes and Queries* 9 (3): 201-202.

ECHENIQUE, María T. eta PLA, Francisco P. (2013). «Reconstrucción fonética y periodización a la luz de la métrica y rima», in M.T. Echenique eta J. Satorre (ed.), *Historia de la pronunciación en lengua castellana*. Valentzia: Tirant: 63-106.

GORROTXATEGI, Joakin, IGARTUA, Iván eta LAKARRA, Joseba A. (ed.) (2008). *Euskararen historia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.

GUIARTE, Guillermo (1983). «Las supuestas tres etapas del seseo», in *Siete estudios sobre el español de América*. México: UNAM: 63-98.

HUALDE, José I. (2000). «Bizkaiko kostaldeko hizkerak atzo, gaur eta bihar», in K. Zuazo (ed.), *Dialektologia gaiak*. Gasteiz: AFA: 11-25.

— (2010). «Neutralización de sibilantes vascas y seseo en castellano», *Oihenart* 25: 89-116.

IBARRA, Irune eta HIDALGO, Bittor (2021). «Mikoleta eta Sainhillen eskuizkribuen azterketa konparatua», *ASJU* 54 (1/2): 177-223.

IRIBAR, Alexander eta ISASI, Carmen (2008). «El seseo vasco: nuevos datos para una vieja cuestión», *Oihenart* 23: 241-258.

—, PAGOLA, Rosa Miren eta TÚRREZ, Itziar. (2020). «Caracterización articulatoria de las fricativas sibilantes alveolares del euskera. Primera parte», *Loquens* 7 (2): 1-24.

—, PAGOLA, Rosa Miren eta TÚRREZ, Itziar. (2022). «Caracterización articulatoria de las fricativas sibilantes alveolares del euskera. Segunda parte», *Loquens* 9 (1/2): 1-9.

ISASI, Carmen (1999). «Seseo, ese sigmática y edición de textos vascos», *FLV* 81: 227-240.

— (2006). «A vueltas con el seseo y otras cuestiones de fonética y morfología en documentación vizcaína», in J.A. Lakarra eta J.I. Hualde (ed.), *R.L. Trasken oroitza-penetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritzaz historikoaz*. *ASJU* 40 (1/2): 531-546.

—, IRIBAR, Alexander eta MORAL DEL HOYO, Carmen (2009). «Una transferencia vasca: el seseo de hablantes vizcaínos y guipuzcoanos», *Oihenart* 24: 201-235.



— IRIBAR, Alexander eta TÚRREZ, Itziar (2012). «Seseo vasco. Nuevos aportes», in B. Camus eta S. Gómez (ed.), *El castellano del País Vasco*. Bilbo: UPV/EHU: 173-190.

KRAJEWSKA, Dorota, ZULOAGA, Eneko eta EGURTZEGI, Ander (2022). «Sibilant mergers in 18th-century Basque», *Phonological data and analysis* 4 (5): 1-31.

LAKARRA, Joseba A. (1985). «Literatur gipuzkerarantz: Larramendiren Azkoitiko sermoia», *ASJU* 19 (1): 235-282.

— (1996). *Refranes y sentencias. Edizioa eta azterketa*. Bilbo: Euskaltzaindia.

— (1997). «Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri», *ASJU* 31 (2): 447-535.

LETURIAGA, Olatz (2024). «Hiru euskal testu argitara: Getariako eskutitzak (1796-1797)», *FLV* 138: 375-419.

LÍBANO, Ángeles (1998). «Diacronía de las alternancias gráficas navarro-arago-nesas: las sibilantes medievales», in J.M. Blecua, J. Gutiérrez eta L. Sala (ed.), *Estudios de grafemática en el dominio hispano*. Salamanca: Salamancako Unibertsitatea: 135-148.

MADARIAGA, Pedro (1565). *Libro subtilissimo intitulado Honra de Escrivanos*. Valentzia: Iuan de Mey.

MALKIEL, Yakov (1971). «Deviational transparency as an occasional co-determinant of sound change», *Romance Philology* 25 (1): 1-52.

MINSHEU, John (1599). *Pleasant and delightfull dialogues in Spanish and English*. Londres: Bollifant.

MITXELENA, Koldo (2011 [1958]). *N. Landuchio. Dictionarium linguae cantabrigae* (1562). Berrarg. OC XII: 199-378.

— (2011 [1964]). *Textos arcaicos vascos*. Berrarg. OC XII: 1-197.

— (2011 [1961]). *Fonética histórica vasca*. Berrarg. OC VI: 1-543.

— (2011 [1968]). «Lat. s: el testimonio vasco». Berrarg. OC I: 343-358.

MUJKA, Juan A. (2002). *Euskal ortografiaren hastapenak Iparraldeko literaturan*. Leioa: UPV/EHU.

NUÑEZ-MÉNDEZ, Eva. (2021). «An overview of the sibilant merger and its development in Spanish», in Eva Núñez-Méndez (ed.), *Sociolinguistic approaches to sibilant variation in Spanish*. Londres: Routledge: 9-72.

OYOSA, Anabel E. (2013). «Consideraciones sobre grafemática en el ámbito hispánico», *Anuario de letras* 1: 273-348.

OZAETA, Arantzazu (1992). «Arrasateko testu zahar bi», *ASJU* 26 (3): 793-800.

PAGOLA, Rosa M. (2002). «Bilboko euskara XVII. mendean: Mikoletaren euskaraz ikasteko metodoa», in A. Arejita, A. Elejabeitia, C. Isasi eta J. Otaegi (ed.), *Bilboren 700. urteurrena. Hizkuntza-gunea*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea: 201-218.

PENSADO, Carmen (1983). *El orden histórico de los procesos fonológicos*. Salamanca: Caja de Ahorros eta MP de Salamanca.

PIKABEA, Josu (1993). *Lapurtera idatzia (XVII-XIX). Bilakaera baten lehen urratsak*. Leioa: UPV/EHU.

REGUERO, Urtzi (2019). *Filologiatik dialektologiara Nafarroako euskarazko testuetan barrena (1416-1750)* (ASJUren Gehigarriak 71). Leioa: UPV/EHU.

SANPERE I MIQUEL, Salvador (ed.) (1880). «*Modo breve de aprender la lengua vizcaína*», *Revista de Ciencias Históricas* 2: 122-156.

SARASOLA, Ibon (1983). «Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos», *ASJU* 17: 69-212.

SATORRE, Javier (1989). «c, ç y z en la zona de Valladolid en el paso del siglo XVI al XVII», *Anuario de Estudios Filológicos* 12: 267-290.

STUART-SMITH, Jane (2004). *Phonetics and Philology. Sound change in Italic*. Oxford: Oxford University Press.

ULIBARRI, Koldo (2011). «1619. urtean Sevillan argitaraturiko bertsoak». *ASJU* 45 (1): 361-385.

— (2015). *Dotrinazko sermoitegia: galduriko hizkerak eta dialektologia historikoa*. Gasteiz: UPV/EHU. (Doktorego-tesia).

— eta URGELL, Blanca (2019). «Euskararen gramatizazioaren hasikinak XVI. mendean: Pedro Madariaga eta euskal hotsak», in I. Epelde eta O. Jauregi (ed.), *Bihotz ahots. M.L. Oñederra irakaslearen omenez*. Leioa: UPV/EHU: 493-512.

VÉLEZ-SAINZ, Julio (2000). «El *Recueil Fossard*, la compañía de los Gelosi y la génesis de *Don Quijote*», *Bulletin of the Cervantes Society of America* 20 (2): 31-52.

ZELAIETA, Anjel (1988). «Rafael Micoleta Çamudio: *Modo breue de aprender la lengua vizcayna*», *Hizkuntza eta literatura* 7: 133-214.

— (1995). *Rafael Mikoletaren era llaburra*. Bilbo: AEK.

ZULOAGA, Eneko (2018). «Euskal kanta bat 1783ko antzerki-lan batean», *ASJU* 47 (2): 315-328.

— (2019). «Contacto y cambios lingüísticos en el pasado: sobre las sibilantes castellanas en el Bilbao del siglo XVII», *Anuario de Letras. Lingüística y Filología* 7 (2): 83-119.

— eta ANTEQUERA, José A. (2019). «Bizkai sartaldeko agiri judicial bat (1770). Edizioa eta azterketa», *FLV* 128: 123-172.

— (2020). *Mendebaleko euskararen azterketa dialektologiko-diakronikorantz*. Gasteiz: UPV/EHU. (Doktorego-tesia).



**Oharrak**

Notas

**Remarques**

Notes



# Jean-Baptiste Elizanburu (1828-1891) idazlearen lo-kanta ezezagun bat: *Haurcho bati*<sup>1</sup>

KALTZAKORTA, Jabier

Euskaltzaina

jabier.kalzakorta@labayru.eus

ORCID: <https://orcid.org/0000-0001-5650-0758>

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v1i70.300>

---

<sup>1</sup> Artikulu honen helburua bikoitza da. Batetik, Louis Dassanceren funtsean dauden Jean-Baptiste Elizanburu idazle saratarraren hamabi olerki autografodun bildumaren berri ematea. Bestetik, erran delako bilduma horretako *Haurcho bati* izenburuko lo-kanta ezezagun bat transkribatzea jatorrizko doinu eta letrarekin.

1. Sarrera
2. XIX. mendeko hiru idazle elizanburutar
3. Jean-Baptiste Elizanbururen hitz lauzko lanak
4. Zein dira Jean-Baptiste Elizanbururen euskal kantuak?
5. Louis Dassanceren ondareko eskuizkribu berria
6. *Haurcho bati* kantuaren gainean
7. Azken ondorioa

#### Bibliografia



*Jon Artza adiskideari*

## 1. Sarrera

Sehaska-kantak bi eratakoak izan litezke: herriarenak —ahoz aho eta belaunaldiz belaunaldi kantatu ohi diren horietakoak— eta idazle batek tradiziozko kantuen ispiluan sortutakoak. Europa osoan bi ereduok ditugu. Gaztelaniaz idatzi duten idazleen artean Federico García Lorca Espainiako lurretan kantatzen ziren tradiziozko sehaska-kantuez axolatu zen. Honelaxe zioen «Canciones de cuna españolas» 1928 urteko hitzaldian:

Hace unos años, paseando por las inmediaciones de Granada, oí cantar a una mujer del pueblo mientras dormía a su niño. Siempre había notado la aguda tristeza de las canciones de cuna de nuestro país; pero nunca como entonces sentí esta verdad tan concreta. Al acercarme a la cantora para anotar la canción, observé que era una andaluza guapa, alegre, sin el menor tic de melancolía; pero una tradición viva obraba en ella, y ejecutaba el mandato fielmente, como si escuchara las viejas voces imperiosas que patinaban por su sangre. Desde entonces he procurado recoger canciones de cuna de todos los sitios de España; quise saber de qué modo dormían a sus hijos las mujeres de mi país, y al cabo de un tiempo, recibí la impresión de que España usa sus melodías de más acentuada tristeza y sus textos de expresión más melancólica para teñir el primer sueño de sus niños.

(García Lorca 2021: 147)

Federico García Lorcak berak bildu ez ezik, zenbait sehaska-kanta ere sortu zituen.

Euskal idazleek ere ahozko tradizioaren ispiluan zenbait kanta sortu dituzte. Horietako bat dugu, lan honetan ikusiko dugunez, Jean-Baptiste Elizanburu.

Gure artikuluko labur honetan, beraz, Jean-Baptiste Elizanbururen kanta ezezagun bat argitara emango dugu. Delako kanta ezezagun hori laburra da, eta doinuaz zein mamiz sehaska-kanta da bete-betean.

Jean-Baptiste Elizanburu soldaduaren kanta hau mende bat baino gehiagoko lozorrotik atera —mende eta erdi, uste dugunez— eta argia ikus dezan nahi dugu lan honen bidez. Argitaratzeko xedean dugun lo-kantaren izenburua *Haur(t)xo bati* da, edo Elizanburuk berak izendatu zuenez, *Haurcho bati*.

Uste dugu, sehaska-kanta hau ahapaldi bakarrekoa izan arren, baduela gure letretan bere garrantzia.

## 2. XIX. mendeko hiru idazle elizanburutar

Hiru idazle elizanburutar izan ziren XIX. mendean. Mogeldar idazleak ere hiru izan ziren: Juan Antonio Mogel (1745-1804) eta honen bi ilobak, Juan Jose Mogel (1781-1849) eta Bizenta Antonia Mogel (1782-1854).

Sarako elizanburutarren hamaika haurrideko familia batean bi anaia euskal idazleak izan ziren: Leon Elizanburu (1816-1861) eta Jean-Baptiste Elizanburu (1828-1891). Leon Elizanburu —Jean-Baptiste Elizanbururen anaia gehiena— zazpi kanturen egilea behintzat izan zen (Haritschelhar 1991: 31-43). Hirugarren Elizanburu euskal idazlea Michel Elizanburu Errekart (1826-1895) lasalletarra izan zen, «Innocentius de Hasparren» bezala ezagunagoa, Leon eta Jean-Baptiste anaien lehengusua. Honelaxe diotso karta batean Jean-Baptiste Elizanburuk, 1880ko urtarrilaren 22an, Jose Manterolari:

Hazparrenen ez dut anayarik, baizik bai cusina bat (*un primo*) zeina baita Fraile edo fraïde (*frère de l'Ecole chrétienne*). Sortzez deitzen da ni bezala Elizanburu, bainan fraile gisa izena hartu du «Innocentius», Hazparreneko frailen eskolako nagusi da hogoi eta hamar urthe huntan bedere. Dudarik gabe zuk aiphatu dautazun kanta «Makilari», nere cusina horrek egina izanen da. Badakit maite duela batzuetan, astia duelarik, zembait bersoren moldatzea. Atsegin handia nuke, kanta hori eskutaratzen baduzu, copia bat egortzen bazine-rautazu.

(Kaltzakorta 2023: 30)



Jean-Baptiste Elizanburu (1828-1891), soldadu jantzita

Hiru Elizanburu hauetatik famatuena Jean-Baptiste Elizanburu izan zen. Elizanburu deitura bere hutsean aipatzen denean, antonomasiar, Jean-Baptiste Elizanburuz ari gara. Era berean, Mogel euskal idazlea aipatzen dugunean, Juan Antonio Mogezez ari gara.

### 3. Jean-Baptiste Elizanbururen hitz lauzko lanak

Jean-Baptiste Elizanburuk bizitza gehiena Napoleon III.aren armadan iragan zuen. Honelaxe dio Martin Gilbeau (1839-1912) Elizanbururen adiskideak:

Soldadu choil sartu zen armadan, eta 30 urtez ibili ondoan Afrikan eta Franziaiko zoko gehienetan, Italiako eta Franziaiko azken gerla, ofiziale gisa egin ondoan, etorri zen Sara bere herri maiterat, azken egunak bakean iragaiterat. Emen hil izan zen ichiltasunean, urtarri-laren 2an 1892an guziez ohoratua, maitatua, bere azkeneko urteak emaiten zituelarik, Ezpeletako bakezko jujekoan, Gobernamentuak ezagutu zuelakotz, gai zela eginbide horren betetzeko.

(Vinson 1898: 196)

Martin Gilbeau adiskideak baina Elizanburuk berak ere eman zuen bere bizitzaren berri 1880. urteko apirilaren 12an; honelaxe idatzi zion Jose Manterolari:

Nahia erakutsi dautazu zure eskutitzan nere zembait berriren izatekoa. Zer berri emanen dautzut nere gainean? Badakizu, adizkide on eta maitea, nor eta zer naizen. Euskaldun soldado zahar bat. 30 urtez nere herri maitetik urrun ibili ondoan, berriz ere (agian! bethikotz) nere-Sor lekhura bildua. Hogoy urthe nituelarik izan banitu hamar mila libera errenta, uste dut ez nuela nere Eskualherri maitea sekulan utziko, eta, gerlan edo gerlako gauzetan iragan edo galdu dutan dembora hobeki iraganen nuela, zuk egiten duzun bezala, gure mintzaira Euskara ederrean zembait ensayuren egiten. Orai berantegi da.

(Kaltzakorta 2023: 32)

Urterik onenak eta indarririk gehienak armadan eman ondoan, Elizanburu Sarara etorri zenean indargeturik eta eriturik zegoen. Berrogeita hamabi urte zituela «soldado zahar» eta erabat ahuldurik sentitzen zen. Soldadu ibili zen hogeita hamar urtez eta urte eder horiek euskarari ez emana damutu zitzaion. Elizanbururen eritasunaz Xabier Elozegi aritu da (1992: 89-90). Elizanburuk bere eritasun eta ahultasunaren berri argia eman zion Jose Manterola adiskideari. Honelaxe idatzi zion 1881eko maiatzaren 10ean:

Bizi zera? erraten darotazu, adizkide ona. Bai, bizi naiz oraino, bainan doi-doïa! Banabila, bainan herrestantche bezala. Zer nahi duzu? Behin uli beltzak yo duenean, ez da aise edo errechki altchatzen gizona. Osasuna galtzen da laster, bainan gero ez berriz kausitzen batzuetan luze ere. Halere ez dut behar sobra arrenkuratu, zeren, Yaincoari eskerrac! urthe hainitez gozatu bainaiz osasunik ederrenaz. Orai tzarraren aldia da. Yaincoac hala nahiko duen artean.

(Kaltzakorta 2023: 37)

Elizanbururen obra, beraz, neurri handi batean laburra da. Puntu honetan prosazko lanez arituko gara bakarrik. Ezagutzen ditugun Jean-Baptiste Elizanbururen prosazko lanak hiru eratakoak dira. Eskutitzak, idatzi politikoak eta *Piarres Adame* eleberria. Ez dago dudarik eskutitz asko betiko galduak direla. Idatzi politikoak hiruzpalaura mugatzen dira. Ezagutzen ditugun sei eskutitzak zein idatzi politikoak beste lan batean argitaratu genituen (Kaltzakorta 2023: 23-51).

Prosazko lanik inportanteena, inolako dudarik gabe, *Piarres Adame* izan zen. *Piarres Adame* eleberria, ordea, osatu gabe eman zuen eta beraren adizkide zen Martin Gilbeau (1839-1912) medikuak esan zuenez, osatzeko asmoa zuen:

Piarres Adame deitzen den liburuttoa gutik daukate. Berrogoi liburu baizik ez dire izan moldiztegituak. Bazuen chedea haren segida egiteko. Ezen Piarres Adame obra baten pasarte bat bezala zaukan Elisamburuk.

(Vinson 1898: 200)

Penagarria bada ere, Elizanburuk ez zuen *Piarres Adame* eleberria osatu. Daukaguntxoia edo utzi diguntxoia, bere ezinbestean, urregorritzat hartu behar dugu.

#### 4. Zein dira Jean-Baptiste Elizanbururen euskal kantuak?

Jean-Baptiste Elizanburuk olerkiak kantatuak izateko idatzi zituen. Beste era batera adierazteko: Elizanburu poeta kantagilea izan zen.

Elizanbururen kanta bildu nahian, Antonio Maria Labayenek 1978. urtean *Elizanburu. Bere bizitza ta lanak* liburua argitaratu zuen. Liburu hone-tan, «Lanak» direlakoetan olerkiak bildu zituen bakarrik. Prosazko lanik batere ez: ez eskutizik, ez idatzi politikorik, ez *Piarres Adame* eleberririk. Olerkietan, ordea, Elizanbururenak ez ziren zenbait ere sartu zituen. Ez gara orain ariko *Solferinoko itsua* Elizanbururena den edo ez eztabaidatzen... Kontu hori beste lan baterako utziko dugu. Antonio Maria Labayenek, esaterako, Joanes Berges saratarraren kantuak ere sartu zituen bere liburuan Elizanbururenak zirelakoan. Elizanburuk Jose Manterolari 1880ko urtarri-laren 22an idatzi zion karta irakurri eta hango esanak sinestu balitu, jakinen zuen Joanes Berjes ez zela Elizanbururen izengoitia, bere herrikoa, Sarakoa, eta agian adinkidea bazen ere, beste bertsogile bat zela. Honelaxe idatzi zion Elizanburuk Manterolari:

Zure azkeneko eskutiz ona heldu izan zait hilabete hunen 14an, eta, ez badarotzut egorri ordaina lehenago, ez uste izan ahantzia zintudala, baizik ere nahi nuela, zuri iskribatu baino lehen, ikhasi nere ezagun eta adizkidetarik nor eta zer diren edo ziren: Joanes Berjes kanta **Artzaingoa** egin duena eta kantegile **Eskalduna** egin duena.

Nahia erakutsi duzun bezala, huna zer ikhasi dudan bi gizon horien gainean.

Joanes Berjes da artzain bat, bere bizi guzia, batean lur-lanean, baina maizago mendian artzaingoa, iragan duena. Oray baditu hirur-hogoy eta zembait urthe. Ez daki iskribatzen ez irakurtzen ere. Aditu dut kanta franko egin izan duela eta egorri izan dituela urthe gehienez bertsolarien gudueta; baina haren kantetarik baxharra, moldizkiratua izatea merezitu duena, da —: **Artzaingoa**. Uste dut demora handirik gabe nere adizkide batek izan-araziko dauzkidan Joanes Berjes horren, zembait kanta. Ikhasi ondoan zer moldetakoak diren, kausitzen badut artean bat edo bertze zuri egortzea balio duenik, hitz-ematen darotzut, adizkide maitea, egorriko darotzudala.

(Kaltzakorta 2023: 30)

Elizanbururen olerkien lehen zerrenda Martin Gilbeau mediku eta saratarraren adiskideari dagokio (Vinson 1898: 193-224). Hona hemen Elizanbururen olerki-kantuak aipatu zituen bezalaxe:

1. *Lau andren besta*
2. *Churiko edo Mehetegiko chakurra*
3. *Zapataina edo gizon zuhurra*
4. *Maria*
5. *Apecha eta lorea*
6. *Chori berriketaria*
7. *Eskuara-Eskualduna*
8. *Nere Etchea*
9. *Biba Francia*
10. *Lehen eta orai*
11. *Maite zaitut*
12. *Aingeru bati*

Elizanbururen beraren kaierean, bere ordenan kantu hauek datoz (MS 237-2):

1. *Nere Etchea edo Laboraria*
2. *Gazte hiltzera dohana*
3. *Maria*
4. *Apecha eta Lorea*
5. *Zapataina edo Gizon zuhurra*
6. *Agur Herriari!*
7. *Lau andren besta (Amex bat)*
8. *Biba Francia!*
9. *Aingeru bati*
10. *Chori berri-ketaria*
11. *Lehen eta Oray*
12. *Eskuara eta Eskualdumac*
13. *Eskualduna*
14. *Churiko, Mehetegiko chakurra*
15. *Maite zaitut!*

Hamabost kantu hauetatik bi ez dira Elizanbururenak: *Eskualduna* (egileak, Joannateguy eta Louis Ithurbide izan ziren) eta *Xuriko* (egilea, Gratien Adema «Zaldubi») (Elosegi 1992: 92). Elizanbururen kantuak zein ote di-relako auziaz F.B. Larzabal ere aritu zen (1983: 323-327).

## 5. Louis Dassanceren ondareko eskuizkribu berria

Louis Dassanceren paperen artean badira Elizanbururen kanten eskuidatziak, Elizanbururen beraren eskutikakoak. Ez dugu, ordea, eskuidatzi hauen berririk inon irakurri. Louis Dassanceren paperak Baionako Pôle (Pôle d'archives de Bayonne et du Pays Basque) delakoan daude eta erreferentzia hauxe da: «Depot Bayonne 22 S 42 / Fonds Dassance». Funts horretan bi karpeta arrosa koloreko daude. Lehen karpetak Elizanbururen testu inprimatuak ditu; bigarrenean, orri solteetan, Elizanbururen kantu autografoak gordeta daude. Puntu honetan, Dassanceren paperen artean ageri diren Elizanbururen kantuen zerrenda emango dugu. Elizanbururen letra argiz transkribatuta dauzkagu kantu hauek:

**Haurcho bati.** Orri solte honek bi toles ditu eta orrialdea lau zatitan ikusten da. Ahapaldi bakarra pentagraman sartuta dago. (Neurriak: 200 mm luzera /155 mm zabalera).

**Lehen eta oray.** Bi toles ditu eta orrialdea lau zatitan markatua da. Orri soltea. (Neurriak: 200 mm luzera /155 mm zabalera).

**Maite zaitut!** Lau orrialdeko kuadernotxo bat da. Kanta lehen bi orrialdeetan dago transkribaturik. Lehen orrialdean lehen bi ahapaldiak datoz; bigarrenean, gainerako laurak. Kantak guztira sei ahapaldi ditu. Lehen ahapaldia pentagraman sartuta dago. (Neurriak: 215 mm luzera /161 mm zabalera).

**Chori berri ketaria.** Izenburuaren azpian, «Airea: Primaderan yuaiten dira marignelak untzikotz» dakar. Orri soltea da. Lehen orrialdean lehen lau ahapaldiak datoz; bigarrenean, hiru ahapaldi. Lehen zazpi ahapaldiak zenbakiturik daude. Zortzigarren ahapaldi bat letra zabarragoz eta zenbakitu gabe idatzia dago bigarren orrialdearen bukaeran. Ez dator pentagramarik. (Neurriak: 225 mm luzera / 175 mm zabalera).

**Nere etchea.** Lau orrialdeko kuadernotxoa da. Guztira 10 ahapaldi zenbakiturik. Lehen orrialdean 1-2-3 ahapaldiak; bigarrenean, 4-5 eta seigarren ahapaldiaren lehen bost bertso-lerroak; hirugarrenean, seigarren ahapaldiaren azken hiru bertso-lerroak, 7-8 ahapaldiak eta 9. ahapaldiaren hiru



lehen bertso-lerroak; laugarren orrialdean, 9. ahapaldiaren azken bost bertso-lerroak. Lehen ahapaldia letra urdinez transkribatua dago. (Neurriak: 225 mm luzera / 174 mm zabalera).

**Biba Francia.** Izenburuaren azpian: «Airea: Andre Madalène». Lau ahapaldi zenbakiturik datoz. Lehen orrialdean bi ahapaldi; bigarreanean, azken biak. Ahapaldien ondoren «Elizanburu» deitura dator. (Neurriak: 225 mm luzera / 165 mm zabalera).

Beste letra zabarrago batez transkribatuak daude Elizanbururen kanta batzuk. Kantu horietan ezin da aurreko kantetan bezala Elizanbururen letra argiaz transkribaturik daudenik esan. Baliteke Elizanbururen eskuzkoa izatea, baina ez dago kasu guztietan erabat baieztaterik.

**Gizon çuhurra.** Lau orrialdeko kuadernotxoa. Guztira 10 ahapaldi zenbakitu ditu. Lehen orrialdean lehen lau ahapaldiak; bigarreanean, bost ahapaldi; hirugarreanean hamargarren ahapaldia. Orri solte honek Elizanbururen zenbakia darama: 14. (Neurriak: 225 mm luzera / 174 mm zabalera).

**Laur andren besta.** Lau orrialdeko kuadernotxoa. Guztira 14 ahapaldi zenbakituta daude. Letra urdinez idatzita dago 7. ahapaldia. Elizanbururen letra dirudi.

**Agur nere herriari.** Seigarren ahapaldia letra urdinez transkribatua. Lehen sei ahapaldiak lehen orrialdean daude, azken laurak bigarreanean. Guztira, hamar ahapaldi zenbakitu gabe. Bi toles ditu orrialdeak. (Neurriak: 210 mm luzera / 135 mm zabalera).

**Lehen eta orai (Lehen eta orain).** Izenburuaren azpian: *Airea: Bidarraitarra nuzu ni ere*. Lau orrialdeko kuadernotxoa. Guztira 10 ahapaldi zenbakitu. Ez dago pentagramarik. (Neurriak: 225 mm luzera / 174 mm zabalera).

**Agur herriari.** Lau orrialdeko kuadernotxoa. Guztira 11 ahapaldi zenbakiturik daude. Ez dago pentagramarik. (Neurriak: 225 mm luzera / 174 mm zabalera).

**Apecha eta lorea.** Lau orrialdeko kuadernotxoa. Guztira 11 ahapaldi zenbakituak. (Neurriak: 255 mm luzera / 174 mm zabalera).

## 6. Haurcho bati kantua ren gainean

Aurreko puntuan zerrendatu ditugun kantuen artean badago bat orain arte ezezaguna egiten zaiguna. Gure kantua orrialde txiki batean dago transkribatua eta izenburua *Haurcho bati* du. Kantu hau pentagrama batean sarturik dago. Kantuaren letra Jean-Baptiste Elizanbururena da, zalantza-izpirik ez dago. Hona hemen kantua pentagramatik kanpora:

Hire amaren besoetan  
lo hagoen haurchoa,  
Aingeruekin amexetan  
irriz hago gachoa;  
Erregerentzat on badire  
Tronu eta khoroa,  
Hobeago duk hiretako  
amattoren altzoa.

*Haurcho bati.*

Hire a-ma-ren be-so-e-tan lo ha-go-en haur-cho-a, Aingerue-kin a-me-xe-tan ir-ri-g ha-go ga-cho-a; Er-re-ge-ren-tzat on ba-di-re tru-nu e-ta kho-ro-a, Hobe-a-go duk hi-re-ta-ko a-ma-tto-ren al-tzo-a.

*Haurcho bati* lo-kantaren pentagrama, Elizanbururen eskuzkoa

## Haurcho bati

Elizanburu

Hi-re a-ma-ren be-so-e-tan lo ha-go-en haur-cho-a, Ain-ge-ru-e-  
 5 kin a-me-xe-tan ir-riz ha-go ga-cho-a; Er-re-ge-ren-tzat on ba-di-re  
 9 tro-nu e-ta kho-ro-a, Ho-be-a-go duk hi-re-ta-ko a-ma-tto-ren al-tzo-a.

Itsaso Arrietaren pentagrama-transkripzioa

Kantuaren doinua, Elizanburuk ez badakar ere, ezaguna da: *Basoilarrak kantatzen dizü Iratiko basoan/so(r)oan*. Guk geure berri emate honetan jatorrizko dokumentua eta transkripzioa eskaini nahi ditugu. Tanskripzioa Itsaso Arrietak egin da. Sehaska-kantuaren letra da puntu honetan eskaintzen duguna. Interesgarria da, Napoleon III.aren soldadu izan zen Elizanburuk «Erregerentzat on badire/ tronu eta khoroa,/ hobeago duk hiretako/ amatoren altzoa» adierazpena.

Munduko sehaska-kantuen ezaugarririk bereizgarriena xalotasuna eta sentimenduen indarra da. Ezaugarri hau tradiziozko lo-kantei ez ezik, idazlearen lumak sortutako lo-kantei ere badaric.

## 7. Azken ondorioa

Gure xede nagusia Jean-Baptiste Elizanbururen *Haurcho bati* sehaska-kantaren berri ematea izan da. Delako lo-kanta horren jatorrizko eskuizkribua eta transkripzioa ere eskaini nahi izan ditugu. Artikulu honen bidez, era berean, orain arte inon aipaturik ikusi ez ditugun

Jean-Baptiste Elizanbururen eskutikako dokumentuak ezagutarazi ere nahi izan ditugu.

Idatzi hau Federico García Lorca poeta handiaren aipu batekin zabaldu dugu. Zilegi bekit, era berean, idazle beraren beste aipu batekin bukatzea. Euskal Herrira egin zuen bidaian uste dugunez Lauaxetak euskal sehaska-kanten berri eman zion. 1928ko hitzaldian aipamen hau egin zuen euskal lo-kanten gainean:

Existe una canción de cuna europea suave y monótona, a la cual puede entregarse el niño con toda fruición y desplegar todas sus aptitudes para el sueño. Francia y Alemania ofrecen característicos ejemplos, y entre nosotros, los vascos dan la nota europea con sus nanas de un lirismo idéntico al de las canciones nórdicas, llenas de ternura y amable simplicidad.

(García Lorca 2021: 147)

Uste dut Federico García Lorcak euskarazko herri sehaska-kanten gainean esan zuena esan litekeela Elizanburuk sortu zuen kanta honen gainean ere, «samurtasun eta xalotasun amoltsuz» betea dagoela. Bestela diodan, uste dugu lan honetan argitara eman dugun sehaska-kanta honek, urregoriak bezala distira egiten duela bere soiltasun zein edertasunean.

## Bibliografia

AKESOLO, Lino (1982). «Iru liburu eder Sendoa-k ber-argitaratuak», *Karmel* (1982-1): 95-101.

ARANA MARTIJA, Jose Antonio (1992). «J.B. Elizanburuk erabili zituen doinuak», *Euskera* 37 (1992-1): 181-203.

BARAIAZARRA, Luis (1991). «Jean-Baptiste Elissamburu, olerkari gozoa», *Karmel* (1991-2): 27-32.

BIDADOR, Joxemiel (1995). «Elizanburutarrak: xuri ta gorrien arteko liskarren adibidea», *Euskaldunon Egunkaria* 1995-9-1 eta 1995-9-8.

DASSANCE, Louis (1941). «Un manuscrit du poète basque Elissamburu», *Bulletin du Musée Basque XVII* (1941): 37-40.

(1969). «Recherches sur la filiation du poète J. B. Elissamburu», *Gure Herria XLI* (1969): 278-288.

— eta LAFITTE, Pierre (1967). *Kantu, kanta, khantore*. Baiona: Kordelieren Irar-kola.

DUNY-PÉTRÉ, Pierre (1962). «Recherches sur les couplets perdus de vieilles chansons populaires basques», *Gure Herria* (hazila-abendoa): 339-351.

ELOSEGI, Xabier (1992). «Jean-Baptiste Elizanbururen bizitza», *Euskera* 37 (1992-1): 83-107.

ETXAIDE, Jon (1954 eta 1984). «Elizanburu», in *Amasei seme Euskalerriko*. Kulis-ka Sorta bilduma, 21-22. Zarautz: Editorial Itxaropena: 29-36.

ECHEGARAY, Carmelo (1901). «Escritores euskaros. Elizamburu», *De mi país. Miscelanea histórica y literaria*. Donostia: Imprenta y Encuadernación de F. Jornet: 227-248.

ESTORNÉS LASA, Bernardo y José (1970). *Enciclopedia general ilustrada del País Vasco*. Cuerpo B: Enciclopedia sistemática arte, lengua y literatura. Vol. I: Literatura. Donostia: Auñamendi.

GARCÍA LORCA, Federico (2020). «Canciones de cuna españolas», *De viva voz. Conferencias y alocuciones*. Madril: Debolsillo: 145-160.

HARITSCHELHAR, Jean (1992). «Leon Elissamburu guarda, pilotari, olerkari», *Euskera* 37 (1992-1): 31-43.

KALTZAKORTA, Jabier (2023). «Jean-Baptiste Elizanburu (1828-1891) saratarra-  
ren gutunak eta idatzi politikoak», *Karmel* 322 (2023-2): 23-51.

LABAYEN, Antonio Maria (1949). «¿Quién es el autor de “Solferino”ko itsua»?  
Aclarando un viejo equívoco», *Homenaje a D. Julio de Urquijo e Ybarra*. T. II. Do-  
nostia: BRSAP: 243-248.

—(1955). *Elizanburu*. Donostia: Auñamendi.

—(1970). «Elizanburu’k erabillitako beste ezizen, izengoiti ta deiturak», *Gure Herria* XLII (1970): 199-204.

—(1971a). «Duvoisin eta Elisanburu», *Gure Herria* XLIII (1971): 167-174.

— (1971b). «Elisanburu kapitaina», *Gure Herria* XLIII (1971): 43-46.

— (1971c). «En torno a “Solferinoko itsua”», *BRSVAP* XXVII (1971): 171-173.

— (1971d). «Manterola eta Elizamburu», *Gure Herria* XLIII (1971): 175-176.

— (1971e). «W. Webster eta Elissamburu», *Gure Herria* XLIII (1971): 47-51.

— (1978). *Elizanburu. Bere bizitza ta lanak / Su vida y obras*. Donostia: Auñamendi.

LAFITTE, Pierre (1942). *Le basque et la littérature d’expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*. Aintzina bilduma. Baiona: Libraire Le Livre. (1941. urtean eginiko hitzaldia).

— eta ETCHEMENDY, P. (1946). *Kantuz. Recueil de 120 chansons populaires basques*. Baiona: Eskual-Herria.

— (1949). «Ressemblances linguistiques», *Homenaje a D. Julio de Urquijo e Ybarra*. T. I. Donostia: BRSAP: 223-225.

— (1959a). «Solferino (1859)», *Gure Almanaka*: 11-12.

— (1959b). «J.B. Elissamburu», *Gure Almanaka*: 13.

LARZABAL, F.B. (1983). «J.B. Elissamburu eta Oxalde, bi “gorri”», *Piarres Lafitteri omenaldia*. Iker bilduma, 2. Bilbo: Euskaltzaindia: 323-345.

MANTEROLA, J. (1880). «Curiosidades bascongadas», *Euskal-Erria*, tomo I (julio a diciembre): 257-260.

MOURLANE, Pedro (1919). «Los poetas en lengua vasca. La poesía vascongada en el siglo XIX», *Primer Congreso de Estudios Vascos* (1919). Bilbo: Eusko Ikaskuntza: 621-643.

- MITXELENA, Luis (1961). *Historia de la literatura vasca*. Madril: Minotauro.
- (1987). «Literatura en lengua vasca», in *País Vasco*. Madril: Fundación Juan March: 87-109.
- MUJICA, Gregorio (1912). «Elizanburu», RIEV VI (1912): 538-540.
- ONAINDIA, Santi (1954). *Milla euskal-olerki Eder*. Zarautz: Itxaropena: 535.
- ORMAETXEA, Nikolas «Orixe» (1927). «Euskal-literatura'ren atze edo edesti la-buía», *Euskal-Esnalea* 288: 148-252.
- ORPUSTAN, Jean-Baptiste (1996). *Précis d'histoire littéraire basque 1545-1950. Cinq siècles de littérature en euskara*. Baigorri: Izpegi.
- SAN MARTIN, Juan (1970). *Enciclopedia general ilustrada del País Vasco*. Cuerpo B: Enciclopedia sistemática arte, lengua y literatura. Vol. I: Literatura. Donostia: Auñamendi: 521-522.
- (1995). «Antonio María Labayen Toledo (1898-1994)», *Euskera* 40 (1995-1): 17-24.
- SARASOLA, Ibon (1986). *Jean-Baptiste Elissamburu*, Piarres Adame. Klasikoak bilduma. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte: 21-28.
- SOULÉ, Beñat (2011). *Neurtizlari bertsulari Iparralde*. Euskaltzaleen Biltzarra. Zornotza: Erroteta.
- VILLASANTE, Luis (1961 eta 1979). *Historia de la literatura vasca*. Oñati: Ediciones Franciscanas.
- (zuz.) (1972). *Literatura vasca* (Serie Mosaico Español I), in *Tesoro breve de las letras hispánicas*, G. Díaz-Plaja (ed.). Colección Novelas y Cuentos. Madril: Editorial Magisterio Español.
- VINSON, Julien (1898). «Fête de l'Association basque à Sare en 1897», *Revue de Linguistique et de Philologie Comparée* 31: 193-224.
- XARRITTON, Piarres (1992). «J.B. Elissamburu eta Gratien Adema», *Euskera* 37 (1992-1): 55-63.
- eta URKIZU, Patri (1997). «Koplari zenbaiten bizitzaz eta bertsoez ohar labur batzuk» in *Abbadiaren koplarien guduak (1851-1897)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

XXX (1911). «Cartas inéditas escritas en euskera. Carta a José Manterola, 1880», *Euskal-Esnalea* 20-21 (Urria), (1911): 275-276.

XXX (1880). «Carta en eusk[era] con trad[ucción] cast[ellana] sobre el monte Peña de Plata y narración de una visita», *Euskal-Erria* I (1880): 258-260.

WEBSTER, Wentworth (1892). «Le poète Elissamburu», *Euskal-Erria* XXVI (1892): 9-10.

ZAVALA, Antonio (1997). «Solferinoko itxua», in *Oñez eta jakin miñez*. Auspoa Liburutegia, 249. Oiartzun: Sendoa Argitaldaria: 129-132.

## Eskuizkribuak

ELIZANBURU, Jean-Baptiste (1828-1891).

*Kantuak eta Piarres Adame*, MS 237-2.

Pôle d'archives de Bayonne et du Pays Basque: Depot Bayonne 22 S 42 /  
Fonds Dassance.

MANTEROLA, José (1880-1881).

*Gutunak Jose Manterolari*, J.U. 049705329.



**Liburu aipamenak**

**Reseñas de libros**

**Comptes rendus de livres**

**Book reviews**



# *Language Rights and the Law in Scandinavia: Sweden, Denmark, Norway, Iceland, the Faroe Islands, and Greenland*

FAINGOLD, Eduardo D.

Published in 2023, 295 pg.

Publishing house: Palgrave Macmillan

ISBN: 3031430166


URRUTIA, Andres

Euskaltzainburua

aurrutia@euskaltzaindia.eus

ORCID: <https://orcid.org/0000-0002-2139-7137>

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v1i70.301>



In today's world, the relationship between language and law reveals how language serves as an essential medium for expressing legal frameworks, closely tied to each state's cultural context. However, the dynamics between language and law differ from one state to another, showcasing unique interactions based on local conditions. This is particularly evident in the Scandinavian countries, namely Sweden, Denmark, Norway, Iceland, the Faroe Islands, and Greenland (Introduction, Chapter 1).

This Atlantic and Baltic region features a diverse landscape where various languages coexist within different legal contexts. Eduardo D. Faingold, a noted academic and expert on the constitutional and legal status of languages in these territories, emphasizes the importance of understanding these relationships.

The primary focus of this examination is the legal protection afforded to minority linguistic groups, sign language users, and Indigenous and immigrant populations. It is essential to consider how each state formulates its language policies; not only to affirm the rights of diverse linguistic communities within its jurisdiction but also to understand the status of minority languages and how the corresponding regulations shape the daily lives of individuals whose primary language differs from the majority. Each state is characterized by a fluid and complex linguistic landscape.

Eduardo D. Faingold underscores that Scandinavian countries display a broad spectrum of coexistence between majority and minority languages. This reflects the commitment of these nations to upholding language rights and to ensuring that diverse linguistic identities are recognized and actively supported within the legal framework. The consistent methodology applied across these case studies examines six key areas: the interplay between language and law; legislation concerning language use in the public sector, courts, and education; and, in some cases, the discussion also extends to language use in the workplace and healthcare systems. It concludes with pertinent findings and references.

The author excludes the Finnish language from this study due to its unique linguistic and historical context. The countries mentioned demonstrate a supportive attitude toward human rights and linguistic rights, highlighting the need to address disparities in language education for their populations. Many users of minority languages, such as the Sámi and sign language users, face limited opportunities. While Faroese and Greenlandic Inuit are recognized as official languages, majority languages like Danish dominate higher education, public administration, and the legal system.

In the chapter dedicated to Sweden (Chapter 2), it is noted that five national minority (Finnish, Sámi, Meänkieli, Tomani Chieb, and Yiddish) languages have been recognized since the ratification of the European Charter for Regional or Minority Languages (ECRML) in 2000. However, the Language Act of 2009 established protections for the Swedish language in courts, administrative authorities, and other entities within the Swedish public sector.

Additionally, the standardization of the Swedish language is regulated to ensure it remains cultivated, clear, and comprehensible. Given its status as an official EU language, there is also a focus on developing terminology and using Swedish in international contexts. On June 11, 2009, Sweden enacted the Act on National Minorities and Minority Languages. This legislation includes provisions that grant the right to use minority languages in public spaces, as defined by the Act itself.

In Denmark (Chapter 3), studies on language use in the workplace and education promote the use of Danish. However, there is a growing presence of English, particularly in higher education at universities. Measures are being considered to ensure that teaching English does not lead to a new form of diglossia, where Danish is regarded as a lower-status language.

Norway (Chapter 4), the third kingdom of Scandinavia, has two linguistic codes for its official language: *Bokmål* (used for publications) and *Nynorsk* (which is more traditional and rooted in the history of the language). Norway recognizes several minority languages under the European Charter for Regional or Minority Languages (ECRML), including Kven (a Finnish variant), Romanes, and Romani (Gypsy languages), as well as the Sámi languages, the last with an official status.

In 2021, Norway enacted the Language Act (*språklova*) to promote equality between *Bokmål* and *Nynorsk* and to ensure the protection and status of the languages for which the state is responsible. Additionally, the Sámi Act was enacted on June 12, 1987, to safeguard the use of the Sámi language in various contexts, including the judicial system.

Like Iceland, Norwegian law requires that foreign nationals complete a Norwegian language course for foreigners before applying for permanent residence, unlike the regulations in Sweden, Greenland, and the Faroese Islands. In the courts and healthcare system, the lack of specialists fluent in minority languages poses significant challenges. Furthermore, the Language Act does not include provisions to regulate the use of Norwegian in the workplace. Education at the primary and secondary levels is essential for language development. In higher education, the concept of *parallellingual-*

*ism* has emerged, which involves simultaneously using two languages (Norwegian and English) for academic purposes.

Iceland (Chapter 5) has an unique political and linguistic history. The Late Middle Ages marked the beginning of the Icelandic language as a distinctly different, closely related to Old Icelandic and its sagas. The country's language policy emphasizes purism and protectionism. The Árni Magnússon Institute for Icelandic Studies is a key institution in establishing linguistic norms and functions as Iceland's official national language academy. According to the Act on the Status of the Icelandic Language and Icelandic Sign Language, enacted in 2011, Icelandic is Iceland's national and official language. Notably, sign language is recognized as the only minority language in the country.

Regarding language and immigration, Iceland does not require applicants to take a language test. However, those applying for a permanent residence permit must complete a 150-hour course designed for foreigners before they can apply.

Icelandic is the sole official language used in courts and by national and local authorities, with specific provisions outlined in various legal codes. In the education system, preschool, primary, and secondary education are provided in Icelandic, along with instruction in English and Danish. In higher education institutions and universities, Icelandic is the primary language of instruction, although English may be used when necessary. Additionally, Icelandic terminology must be available in all areas of teaching and research.

The Faroe Islands (Chapter 6) are an autonomous territory of the Kingdom of Denmark. According to the Home Rule Act of 1948, Faroese is the official language of instruction in schools from elementary to high school. However, in higher education, Faroese is considered a minority language, with Danish and English being more prominent.

The Faroe Islands' population is linguistically homogeneous, and written standards were developed in the nineteenth century. In the legal framework, certain areas of administration still fall under the responsibility of the

Danish government, which means that Danish is also used in Faroese public affairs. Regarding language and immigration, a language exam is not required as it is in Denmark. Courts and health services provide interpreters for non-Faroese speakers. There are no compulsory regulations regarding language use in the workplace. Education is primarily conducted in Faroese, while Danish classes begin in the third grade. In higher education, Faroese remains a minority language, with Danish and English being the dominant languages.

Greenland (Chapter 7) is the largest island in the world. It is located in North America and has a special relationship with the European Union, which makes it geopolitically part of Europe. As an autonomous territory of the Kingdom of Denmark, Greenland approved the Self-Government Act in 2009, establishing statutes for both Greenlandic and Danish languages. Following this, the Greenlandic Parliament passed the Act on Language Policy in 2010, which outlined various measures to promote the use of Greenlandic. This included requirements for private companies, public enterprises, and authorities to support the language.

In terms of immigration, a language test is not required to obtain a permanent residence permit in Greenland, unlike in Denmark. However, Greenland remains dependent on Denmark in legal matters. In the judicial system, the *de jure* official recognition of Greenlandic and Danish presents challenges for interpreters and translators working with these languages.

In the workplace, large-scale mining operations can only succeed by importing a foreign workforce, likely from Asia, as noted by Faingold. In education, both primary and secondary schools face a shortage of qualified Greenlandic-speaking teachers and written instructional materials. The situation is similar at the university level, where there is a lack of degrees offered in Greenlandic. Consequently, English or Danish is more common, while Greenlandic is spoken much less frequently than either of those two languages.

Summary, Conclusion, and Directions for Future Research (Chapter 8). This final chapter provides a brief overview of each preceding chapter, emphasizing that the book offers a comprehensive and systematic analysis of

language legislation affecting linguistic minorities in the included states. The author presents a serious diagnosis regarding the presence and social use of languages, particularly Arabic. The author argues that it is not unreasonable to expect that within two or three generations, Arabic —currently the most widely spoken foreign language in Sweden— could achieve recognition as an officially acknowledged minority language in the country.

Furthermore, the book includes a comprehensive index that helps readers locate key concepts throughout the text. This feature is particularly useful for differentiating the various state regulations regarding language and law in the Scandinavian countries.

This book is particularly relevant for those of us who belong to minority language communities, such as the Basque, situated between Spain and France. Although it is in Europe, the context differs from that of Scandinavia. Additionally, there is a growing immigrant population in Basque-speaking areas. The book emphasizes the importance of ensuring that all languages spoken in these regions have a strong social presence. It serves as an excellent source of information to support future initiatives for the Basque language.



# *Euskera Ikerketa Aldizkariaren idazketa arauak*

Normas de redacción de la revista *Euskera Ikerketa Aldizkaria*

Règles de rédaction de la revue *Euskera Ikerketa Aldizkaria*

Guidelines for contributors to the journal *Euskera Ikerketa Aldizkaria*



## ***Euskera Ikerketa Aldizkariaren idazketa arauak***

Hauek dira *Euskera Ikerketa Aldizkariaren* oinarrizko idazketa-arauak. Aldizkarira aurkezten diren lanek araubide hori bete beharko dute. Hala-ber, malgutasuna eskaini eta arautuak ez dauden xehetasunak bideratzeko, Humanitateetako Chicago estiloak finkatzen dituen arauak onartuko dira (<https://www.chicagomanualofstyle.org/home.html>).

*Euskera Ikerketa Aldizkariaren* helburua ikerketa-lan originalak diren artikuluko akademiko eta zientifikoak argitaratzea da.

Eskuizkribu bat ebaluaziorako igorri aurretik, berratu egin behar da haren edukiak aldizkariaren jakintza-esparruetara egokitzen direla.

**Eskuizkribu motak.** Egileentzako orientabide modura, *Euskera Ikerketa Aldizkariak* bere jakintza-esparruetako eskuizkribu mota hauek onartzen ditu:

1. Artikuluak: ikerketa-lan originalak, jite teoriko zein enpirikodunak, garapen tekniko eta analitiko egokia dutenak, eta alorreko aldizkari zientifikoek erabiltzen duten ohiko formatua izatea.
2. Ikerketa artikuluei eskatzen zaien hedadura, garapen teoriko eta zehaztasun analitikoa izan gabe, labur-labur, aurkikuntza esanguratsuak, ekarpen berriak eta orain arteko literatura zientifikoaren interpretazioak egiten dituzten azterketak eta ikerketa-oharrak.
3. Dokumentuak eta txostenak: aldizkariaren ikerketa-esparruan egin diren dokumentazio eta material-ekarpenen behaketa- eta azterketa-lanak.
4. Liburuaren iruzkinak: aldizkariaren jakintza-esparruan, interes akademikoa duten argitalpen berriak aztertzen dituzten saiakera izarako lanak.

**Hizkuntzak.** Artikuluak, oharrak, txostenak eta iruzkinak Euskal Herriko mundu akademikoan erabiltzen diren hizkuntzatan argitaratuko dira. Beren-beregi euskaraz argitaratzea sustatuko da, baina ingelesez, gaztelaniaz eta frantsesez idatzitako lanak ere lekua izango dute. Horietatik kanpo bes-

te hizkuntzaren batean idatzitako artikulua iritsiko balitz, Idazketa Batzordeak luke onartzea ala ez.

**Lanak igortzea.** Eskuizkribuak aldizkariaren webgunea erabiliz helarazi behar dira. Lehenbizi erregistratzeko urratsak bete behar dira, eta ondoren, fitxategiak *Euskera Ikerketa Aldizkari*ra igortzeko jarraibideak bete behar dira. Eskuizkribuarekin batera aurkezpen gutun bat erantsi behar da, eta hor artikulua tipologiaren berri emateaz gain, hura aintzat hartzeko eta aztertzeko eskaria egingo da. Gutun horretan, egileak lauzpabost lerrotan lanaren ekarpena ere azalduko du. Halaber, lana beste aldizkari batzuetara igorri ez izanaren adierazpena egingo du, eta egile eskubideak lagako dizkio aldizkariaren editore den Euskaltzaindiari.

**Lanen aurkezpenak.** Eskuizkribuak igortzean, egilea esaten ari da aldizkariaren lanak aurkezteko prozedurak ezagutzen eta onartzen dituela eta, halaber, *Euskera Ikerketa Aldizkari*aren argitalpen prozedura onartzen duela.

Igorritako artikulua behin betikoak izango dira, behar bezala idatziak, akats linguistikorik eta mekanografikorik gabeak. Horretarako, komeni da nork bere ordenagailuan zuzentzaile ortografikoa instalaturik izatea eta hura aplikatzea artikulua Euskaltzaindira bidali baino lehenago.

Artikulua hasieran, egilearen/egileen kidetza (unibertsitatea, ikergunea, erakundea, etab.) eta helbide elektronikoa ezarriko dira.

Testua idazteko 1,5 lerroartekoa erabiliko da, eta zein-nahi argitasun edo zuzenketatarako, orrialdearen albo bietan, 1,5 cm-ko koskarekin idatzirik aurkeztuko dira lanak. Orrialdeak eta oin-oharrak segidako zerrendan zentratuko dira.

Testu-gorputza 12 puntukoa izango da.

Esparru akademikoan ohikoak diren letra tipoak onartuko dira (Arial, Times New Roman, Calibri...). Artikuluaren atal eta azpiatal guztiak zerbaki arabiarretan eta hierarkikoki zenbakituko dira: 1., 1.1, 1.1.1, 1.2, 1.2.1, 2., etab.

Beste hizkuntza bateko hitz solteak letra etzanez idatziko dira. Halaber, letra etzanez idatziko dira liburuen izenburuak eta aldizkariaren izenak.

Artikuluak, zuriuneak aparte, ez dute 30.000 karaktere baino gutxiago eta 60.000 baino gehiago izango (tauletako testuak barne). Liburu aipamenek, hemen ere zuriuneak aparte, ez dute 6.000 karaktere baino gutxiago eta 10.000 baino gehiago izango.

Originalak (bi kopia, horietarik bat anonimoa) nahitaez euskarri elektronikoa (DOC(X), ODT edo RTF formatuetan) eta aldizkariko webguneko plataformaren bidez helaraziko dira. PDF bertsioa ere bidali behar da.

Taulak eta irudiak. Lerro eta zutabeetan ematen den informazioa TAULA izenarekin izendatu behar da. Argazkiak eta grafikoak IRUDIA izenarekin izendatu behar dira. Taulak eta irudiak ordena kronologikoaren arabera zerrendatu behar dira, taulak alde batetik eta irudiak bestetik. Bietan iturria adierazi behar da. Taulak eta irudiak deskribatzeko oinak 10eko letra-gorputzarekin idatziko dira, esandako horien aurretik.

Orokorrean, material grafikoa, mapak, laminak, argazkiak eta abar 1300 pixeleko gutxieneko zabalera tamaina izango dute eta 300 dpi-ko bereizmena. Irudiak eta taulak, eskuizkributik aparte, beste fitxategi batean txertatuta igorri behar dira. Irudi kopuruaren ondorioz, artikulua luzerak araututako muga gainditzen badu, aldizkariaren Idazketa Batzordeak erabakiko du argitaratu ala ez.

## **Idazlanaren formatua**

### **Lehen orrialdea**

Artikuluaren izenburua lau hizkuntzatan (euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa).

Egilearen izen osoa. Beheko lerroan, egilearen kategoria profesionala eta zein erakunderi atxikia dagoen. Lehenbizi erakunde nagusia eta jarraian, balego, erakunde nagusitik eratorritakoak. Halaber, helbide elektronikoa eta egile bat baino gehiago bada, nor izango den gutuneriaren jasotzailea.

Jarraian, lanaren laburpena aurkeztuko da. Ikerketa-artikuluarekin batera, haren laburpena (gehienez ere 500 karaktere) eta gako-hitzak (gehienez

ere sei) emango dira. Laburpenak eta gako-hitzak euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez idatziak izan behar dira. Esan gabe doa artikulua hirugarren hizkuntza batean idatzia badago, hizkuntza horretan ere aurkeztu behar direla aipatutako gako-hitzak eta laburpena. Gomendatzen da laburpenak argi adieraztea zein diren ikerketaren helburuak, metodologia eta erabilitako dokumentazio-iturriak, eta, jakina, zein diren aurkikuntza edo ondorio nagusiak.

### **Bigarren orrialdea**

Ikerketa-artikulua, oharra, txostena edo liburu-aipamena aurkezten da. Aintzat hartu behar da arestian zehaztu diren baldintzak bete behar dituela.

### **Oin-oharrak, aipuak eta erreferentzia bibliografikoak**

*Aipu laburrak.* Lau lerro baino laburragoak direnak testuan bertan jasoko dira eta testu-gorputzaren tamaina bera izango dute. Komatxoaren eredia hierarkia honen arabera izango da: «xxxx “xxx ‘xxx’ xxx” xxx». Azkenik, aipuaren amaierako puntua erreferentziaren ondoren ipiniko da: «[...] jarraitzen zuen Zaldibiak» (Intxausti 1999).

*Aipu luzeak.* Aparteko pasartean idatziko dira, letra tamaina 10,5 puntukoa izango da eta testu arruntetik bereizteko, ezkerretik eta eskuinetik 1,5 cm-ko koska utzi behar da. Halaber, aipuaren aurretik eta ondoren, tarteko lerro zuri bat utziko da. Kasu honetan, amaierako puntua erreferentziaren aurretik jarriko da: «[...] jarraitzen zuen Zaldibiak». (Intxausti 1999). Aipuko lehen lerroak ez du ondokoak baino barrurago egon behar.

Aipuaren barruko paragrafo artean lerro zuririk ezin da sartu.

Idatzi gabe geratzen den esaldia edo esaldi zatia kako zuzen edo parentesi karratu artean eta hiru etenpuntu jarrita adieraziko da: [...].

Aipaturiko erreferentzia guztiak, ahalaz, testu barnean txertatuko dira, artikuluaaren bukaeran erantsi ohi den bibliografiarekin lotuz, honela: (Larramendi 1729), (Mitxelena 1961: 123).

Egile bakarra denean, deitura eta urtearen artean ez da komarrik jarriko: (Villasante 1961).

Bi egile direnean, bi deiturak puntu eta koma bidez bereiziko dira: (Furet; Ozouf 1977). Hainbat libururi erreferentzia egiten zaienean, argitasuna helburu, bestelako formula batzuk erabili ahal izango dira: (Deumert eta Vandebussche 2003; Coupland, Kristiansen eta Deumert 2011).

Egileak hiru baino gehiago direnean, lehena eta *et al.* edo «eta beste» jarriko da. Bukaeran, erreferentzia guztiak zerrendatzen direnean, egile guztiak agertu behar dira.

Egilerik ez denean obra bera aipatuko da, eta izenburua luzea bada, eten-puntuak erabiliko dira: (Registro... 1829: 133).

Erreferentzia bibliografiko osoak artikuluaaren bukaeran zerrendatuko dira, oinarrizko eredu honen arabera:

AZKUE, Resurreccion Maria (1896). *Proyecto de ortografía: sometido á la censura de los que se dedican á cultivar el euskera*. Bilbao: Müller y Zavaleta.

LAFON, René (1975). «Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques», in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. Paris: Société de linguistique de Paris: 331-337.

LARRAMENDI, Manuel (1729). *El imposible vencido: arte de la lengua bascongada*. Salamanca: Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.

MITXELENA, Koldo (1959). «Euskal-itzak zein diren», *Euskera* 4 (1959): 206-214.

MITXELENA, Koldo, SARASOLA, Ibon (1990). *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia eta UPV/EHU.

URKIXO, Julio (1967). «De paremiologia vasca: Oihenart conoció los “Refranes y sentencias” en vascuence de 1596», ASJU I (1967): 3-44.

ZUBIMENDI, Joxe Ramon, ESNAL, Pello (1993). *Idazkera liburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Dokumentua modu elektronikoan soilik eskura daitekeenean, honela aurkeztuko da:

WALIÑO, Josu (2016). «Euskara eta Internet: Zortzigarren lurralde konkistatzen», *Euskera* 61 (1): 42-44.

Kontsultagai: <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/80887.pdf>. (2018ko ekainaren 4an kontsultatua).

Dokumentuak beste euskarri batzuetan argitaratu direnean (CD-ROM, DVD), irizpide berak erabiliko dira, baina amaieran euskarria zein den adieraziko da kako zuzenen edo parentesi karratuen artean: [...].

Egileak artikulua bibliografia oinarrizko eredu horren arabera antolatu du. Kasuan-kasuan izan daitezkeen zehaztapenak edota berezitasunak argitaratzaile-arduradunarekin batera konpondu behar ditu.



## Normas de redacción de la revista *Euskera Ikerketa Aldizkaria*

Estas son las normas básicas de redacción de la revista *Euskera Ikerketa Aldizkaria*. Los trabajos que se presenten a esta revista deberán cumplir dicha normativa. Para ofrecer una mayor flexibilidad y ayudar en aspectos que no estén lo suficientemente detallados, se tendrán en cuenta las normas que dicta el estilo Chicago para Humanidades. Los artículos adoptarán y utilizarán las reglas establecidas por el Chicago Style for Publication in the Humanities (Chicago Manual of Style. <https://www.chicagomanualofstyle.org/home.html>).

*Euskera Ikerketa Aldizkaria* tiene por objeto la publicación de artículos académicos y científicos que sean trabajos originales de investigación.

Antes de enviar un manuscrito para su evaluación, le rogamos que verifique que su contenido se ajusta a los ámbitos temáticos de la revista.

**Tipo de manuscritos.** Como orientación para los autores, *Euskera Ikerketa Aldizkaria* acepta para su consideración, dentro de sus ámbitos de estudio, estos tipos de trabajos:

1. Artículos: deberán ser trabajos de investigación originales, de carácter teórico o empírico, con un adecuado desarrollo teórico o analítico y tener el formato habitual de las revistas científicas especializadas.
2. Estudios y Notas de Investigación: deberán informar brevemente de hallazgos singulares, nuevas aportaciones, replicación de hallazgos o añadidos a la literatura científica que justifiquen su publicación sin la extensión y desarrollo teóricos o el detalle analítico requerido a los artículos.
3. Documentos e informes. Deberán presentar trabajos en los que se realice una exploración y análisis de aportaciones documentales sobre las materias y temas tratados por la revista.
4. Crítica de libros: serán trabajos ensayísticos que analicen novedades editoriales de interés académico y científico en el ámbito de la lengua vasca.

**Lenguas.** Los artículos originales de investigación, las notas, los documentos e informes y las críticas de libros se publicarán en cualquier idioma utilizado en el mundo académico del País Vasco. Se priorizará la publicación en euskera, pero tendrán cabida a su vez, los trabajos escritos en inglés, castellano o francés. Si llegase un trabajo escrito en una lengua diferente a las citadas, sería el Consejo de Redacción el que decidiera publicarlo o no.

**Envío de trabajos.** Los manuscritos deben ser remitidos utilizando la página web de la revista, registrándose y siguiendo las instrucciones para remitir ficheros a *Euskera Ikerketa Aldizkaria*. El manuscrito se acompañará de una carta de presentación pidiendo la consideración del manuscrito y una orientación sobre su tipología. En esta carta el autor explicará en 4-5 líneas cuál es la aportación del trabajo que presenta y la declaración de no envío simultáneo a otras revistas. Así mismo, en esta carta figurará la cesión de derechos al editor.

**Presentación de trabajos.** El envío de manuscritos presupone, por parte de los autores, el conocimiento y aceptación de estas instrucciones, así como de las normas del proceso editorial de *Euskera Ikerketa Aldizkaria*. Los artículos enviados serán definitivos, debidamente redactados, libres de errores lingüísticos y tipográficos. Para ello, es recomendable tener instalado un corrector ortográfico en el ordenador y aplicarlo antes de enviar los artículos a Euskaltzaindia.

Para la redacción del texto se utilizará interlineado de 1,5 líneas, y para cualquier aclaración o corrección, los trabajos se escribirán con sangría de 1,5 cm a ambos lados de la página. Las páginas y notas al pie se contarán cronológicamente. El cuerpo del texto será de 12 puntos. Se aceptarán tipografías típicas en el ámbito académico (Arial, Times New Roman, Calibri...).

Todos los apartados y subapartados del artículo se numerarán en números arábigos y jerárquicamente: 1., 1.1, 1.1.1, 1.2, 1.2.1, 2., etc.

Las palabras sueltas en otra lengua se escribirán en cursiva. Los títulos de libros y revistas también se escribirán en cursiva.

En general, la longitud de los artículos, sin contar los espacios, no debe ser menor de 30.000 caracteres ni mayor de 60.000 (incluidos los textos de

las tablas). Las críticas de libros, igualmente, sin contar los espacios, tendrán no menos de 6.000 caracteres ni más de 10.000.

Los originales (2 copias, una anonimizada) serán enviados mediante la plataforma en formato electrónico (formatos DOC (X), ODT o RTF). Una de las copias se debe enviar en formato PDF.

La información proporcionada en filas y columnas debe llamarse TABLA. Las fotografías y gráficos deben llamarse IMAGEN. Las tablas y las imágenes deben enumerarse cronológicamente, las tablas por un lado y las imágenes por otro. Ambas deben indicar la fuente.

Los subtítulos para los pies de foto y las imágenes deben escribirse en cuerpo 10 y colocarse encima de las tablas e imágenes.

En general, el material gráfico, mapas, láminas, fotografías, será de un tamaño mínimo de 1300 píxeles de ancho y 300 ppp, con la mayor calidad posible. Las figuras, cuadros o imágenes deberán enviarse en un archivo aparte del trabajo, no incluidas en el texto. En el caso de que la extensión resultante de los trabajos por causa de las ilustraciones sea mayor, el Consejo de Redacción decidirá si es pertinente su publicación.

## **Formato del escrito**

### **Primera página**

Título del trabajo en euskera (además en castellano, francés e inglés).

Nombre completo del autor y la categoría profesional con indicación debajo de cada autor, de la institución, universidad o centro de investigación donde ejerce su actividad (primero la institución general, seguido de la institución o instituciones subordinadas), dirección postal completa y dirección de correo electrónico. En caso de varios autores se indicará el responsable de correspondencia.

Después se proporcionará un resumen (máximo de 500 caracteres) y palabras clave (máximo de seis). Los resúmenes y las palabras clave deben

estar escritos en euskera, castellano, francés e inglés (Abstract y Keywords). No hace falta decir, que si el artículo está escrito en una tercera lengua, las palabras clave y el resumen también deben enviarse en dicha lengua. Se recomienda que el resumen exponga con claridad la finalidad del estudio o investigación (objetivos); los procedimientos básicos y/o fuentes documentales utilizadas (métodos); los principales hallazgos encontrados (resultados), y las conclusiones más relevantes, así como resaltar los aspectos nuevos e importantes del estudio.

### **Segunda página**

Será la de arranque del texto del manuscrito propuesto que, en todo caso, habrá de atenerse a las ya citadas características generales.

### **Notas, citas y referencias bibliográficas**

*Citas breves.* Las de menos de cuatro líneas se incluirán en el texto y tendrán el mismo tamaño que el cuerpo del texto. Las comillas dependerán de la siguiente jerarquía: «xxxx “xxx ‘xxx’ xxx” xxx». Finalmente, el punto final de la cita se colocará después de la referencia: «[...] Zaldibia continuó» (Intxausti 1999).

*Citas largas.* Se escribirán en un pasaje aparte, con un tamaño de letra de 10,5 puntos y sangría de 1,5 cm a izquierda y derecha. Además, antes y después de la cita, se dejará una línea blanca intermedia. En este caso, el punto final se colocará antes de la referencia: «[...] Zaldibia continuó». (Intxausti 1999). La primera línea de la cita no debe ser más profunda que la siguiente.

No se pueden insertar líneas blancas entre los párrafos de la cita.

La oración no escrita o parte de la oración se indicará entre corchetes y con tres puntos de corte: [...]. Todas las referencias citadas deben, si es posible, incluirse en el texto, vinculándolas a la bibliografía que suele ad-

juntarse al final del artículo, como sigue: (Larramendi 1729), (Mitxelena 1961: 123).

Cuando hay un solo autor, no se coloca coma entre el nombre y el año: (Villasante 1961). Cuando son dos autores, los dos nombres se separan por punto y coma: (Furet; Ozouf 1977). Cuando se haga referencia a varios libros o artículos, si se considera necesario, se podrán utilizar otras fórmulas (Deumert y Vandebussche 2003; Coupland, Kristiansen y Deumert 2011).

Cuando los autores son más de tres, deben aparecer el primero y luego *et al.* o «y otros». Al final, cuando se enumeran todas las referencias, deben aparecer todos los autores.

Cuando no haya autor, se mencionará la obra en sí, y si el título es largo, se utilizarán puntos de corte: (Registro... 1829: 133).

Las referencias citadas se darán completas al final del artículo, ordenadas alfabéticamente, de acuerdo con este modelo básico:

AZKUE, Resurrección María (1896). *Proyecto ortográfico: sujeto a censura por parte de quienes cultivan el euskera*. Bilbao: Muller y Zavaleta.

LAFON, René (1975). «Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques», en *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. París: Sociedad de Lingüística de París: 331-337.

LARRAMENDI, Manuel (1729). *Lo imposible vencido: el arte del euskera*. Salamanca: Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.

MITXELENA, Koldo (1959). «Euskal-itzak zein diren», *Euskera* 4 (1959): 206-214.

MITXELENA, Koldo, SARASOLA, Ibón (1990). *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos vascos antiguos*. San Sebastián: Diputación Foral de Gipuzkoa y UPV/EHU.

URKIXO, Julio (1967). «Sobre la paremiología vasca: Oihenart conocía los “Refranes y sentencias en euskera” de 1596», *ASJU I* (1967): 3-44.

ZUBIMENDI, Joxe Ramón, ESNAL, Pello (1993). *Idazkera liburua*. Gasteiz: Servicio General de Publicaciones del Gobierno Vasco.

Cuando el documento sólo esté disponible en formato electrónico, se presentará de la siguiente manera:

WALIÑO, Josu (2016). «Euskara eta Internet. Zortzigarren lurraldea konkistatzen», *Euskera* 61 (1): 42-44.

Disponible: <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/80887.pdf>. (Consultado el 4 de junio de 2018).

Cuando los documentos se publiquen en otro soporte (CD-ROM, DVD), se seguirá el mismo criterio, pero al final se indicará el soporte entre corchetes: [...].

El autor organizará la bibliografía del artículo de acuerdo con este modelo básico. Podrá consultar con la persona a cargo de la editorial para resolver cualquier problema específico o particular.

## Règles de rédaction de la revue *Euskera Ikerketa Aldizkaria*

Voici les règles de base de rédaction de la revue *Euskera Ikerketa Aldizkaria*. Les travaux présentés à la revue devront respecter ces règles. Pour offrir une plus grande flexibilité et apporter une assistance sur des aspects qui ne seraient pas suffisamment détaillés, on tiendra compte des règles édictées par le Chicago Style for Publication in the Humanities (<https://www.chicagomanualofstyle.org/home.html>).

L'objet de la revue *Euskera Ikerketa Aldizkaria* est la publication d'articles universitaires et scientifiques issus de travaux de recherche originaux. Voici les principaux domaines dont traitera la revue :

Avant d'envoyer un manuscrit pour qu'il soit évalué, nous vous demandons de bien vouloir vérifier que son contenu corresponde aux domaines d'étude proposés.

**Type de manuscrits.** Pour orienter les auteurs, sachez que *Euskera Ikerketa Aldizkaria*, parmi ses domaines d'étude, accepte d'examiner ce type de travaux :

1. Articles : il devra s'agir de travaux de recherche originaux ayant un caractère théorique ou empirique, avec un développement théorique ou analytique adéquat, et ayant le format habituel des revues scientifiques spécialisées.
2. Etudes et notes de recherche : elles devront faire état brièvement de découvertes singulières, de nouvelles contributions, d'interprétation de découvertes ou d'ajouts à la littérature scientifique qui justifient leur publication sans l'extension et le développement théoriques ou les détails analytiques requis pour ces articles.
3. Documents et rapports : ils devront présenter des travaux de recherche et d'analyse des contributions documentaires dans l'un des domaines de recherche dont traite la revue.
4. Critique de livres : il s'agira d'essais analysant les nouveautés éditoriales à caractère universitaire dans l'un des domaines de recherche dont traite la revue.

**Langues.** Les articles de recherche originaux, les notes, les documents et rapports et les critiques de livres seront publiés dans l'une des langues utilisées dans le milieu universitaire du Pays Basque. La priorité sera donnée à la langue basque mais auront également leur place les travaux rédigés en anglais, en espagnol ou en français. Si un article est présenté dans une langue autre que les langues citées, c'est le comité de rédaction qui décidera de le publier ou pas.

**Envoi des travaux.** Les manuscrits devront être remis en utilisant la page web de la revue, ils devront être enregistrés et suivre les instructions de téléchargement des fichiers sur *Euskera Ikerketa Aldizkaria*. Le manuscrit sera accompagné d'une lettre de présentation demandant l'examen du manuscrit et une information quant à sa typologie. Dans cette lettre l'auteur devra expliquer en quatre ou cinq lignes de quelle nature est sa contribution ainsi qu'une déclaration stipulant qu'elle n'a pas été présentée simultanément à d'autres revues. La lettre contiendra aussi la cession des droits à Euskaltzaindia.

**Présentation des travaux.** L'envoi des manuscrits suppose de la part des auteurs la connaissance et l'acceptation de ces instructions ainsi que des règles de procédure éditoriale de *Euskera Ikerketa Aldizkaria*. Les articles envoyés seront définitifs, rédigés comme il se doit, exempt d'erreurs linguistiques et typographiques. Il est pour cela recommandé d'installer sur l'ordinateur un correcteur orthographique et de vérifier le texte avant d'envoyer les articles.

Au début de l'article il convient de préciser l'appartenance de l'auteur ou des auteurs (université, centre de recherche, institution...) ainsi que les adresses électroniques.

Pour la rédaction du texte on utilisera l'interligne 1,5 et pour tout type d'éclaircissement ou de correction les travaux seront présentés avec un alinéa de 1,5 cm des deux côtés de la page. Les pages et les notes figureront en pied de page par ordre chronologique.

Pour le corps du texte on utilisera une taille de caractère de 12 points.

Seront acceptées les polices habituellement utilisées dans le milieu universitaire (Arial, Times New Roman, Calibri...). Tous les paragraphes et



sous-paragraphes de l'article seront numérotés en chiffres arabes et de manière hiérarchique : 1., 1.1, 1.1.1, 1.2, 1.2.1, 2., etc.

Les mots isolés en langue étrangère s'écriront en italique. Les titres de livres et de revues s'écriront également en italique.

De manière générale, les articles, sans compter les espaces, devront compter au moins 30 000 caractères et au plus 60 000 caractères (y compris les textes des tableaux). De la même façon, les comptes rendus de livres, sans compter les espaces, devront compter entre 6 000 et 10 000 caractères.

Les originaux (2 copies, dont une anonymisée) seront envoyés sur la plateforme du site web de la revue sous leur forme électronique (formats DOC (X), ODT ou RTF). Une version PDF du document devra également être envoyée.

Tableaux et images. L'information présentée sous forme de lignes et de colonnes doit être nommée TABLEAU. Les photos et les graphiques doivent être nommés IMAGE. Les tableaux et les images doivent être classés de façon chronologique, les tableaux d'un côté et les images de l'autre. Ils doivent tous les deux indiquer quelle est leur source. Les légendes de photos et d'images doivent avoir une taille de police de 10 et figurer au-dessus des tableaux et des images.

De manière générale, le matériel graphique, les cartes, les gravures, les photos devront avoir une résolution minimale de 1300 pixels et 300 ppp. Les images et les tableaux seront envoyés dans un fichier à part. Dans le cas où les travaux dépasseraient la longueur maximale fixée à cause du volume des images, le comité de rédaction décidera si leur publication est pertinente.

## **Format du document**

### **Première page**

Titre du document en quatre langues (basque, espagnol, français et anglais).

Nom complet de l'auteur. Ligne suivante, sa catégorie professionnelle et nom de l'institution, de l'université ou du centre de recherche où il exerce son activité. Tout d'abord l'institution générale, puis la ou les branches de l'institution concernée. L'adresse électronique et, dans le cas d'auteurs multiples, sera indiqué le nom du destinataire du courrier.

On fournira ensuite un résumé (avec un maximum de 500 caractères) et des mots-clés (6 au maximum). Les résumés et les mots-clés doivent être écrits en basque, en espagnol, en français et en anglais. Il va sans dire que si l'article est écrit dans une troisième langue, les mots-clés et le résumé doivent être écrits dans cette même langue. Il est recommandé d'exposer clairement dans le résumé la finalité de la recherche, la méthodologie, les sources documentaires utilisées et enfin quelles sont les principales découvertes et les conclusions les plus significatives.

### **Seconde page**

Elle présente l'article de recherche, les notes, le rapport ou la référence du livre. Il ne faut pas perdre de vue le fait que le texte doit répondre aux exigences précisées plus haut.

### **Pieds de page, citations et références bibliographiques**

*Citations courtes.* Celles qui ont moins de quatre lignes seront insérées dans le texte et auront la même taille de police que le corps du texte. Les guillemets respecteront la hiérarchie suivante : « xxxx "xxx 'xxx' xxx" xxx ». Enfin, le point final de la citation sera placé après la référence : « [...] continuait ainsi Zaldibia » (Intxausti 1999).

*Citations longues.* Elles figureront dans un passage à part et auront une taille de police de 10,5 points et un alinéa de 1,5 cm à gauche et à droite par rapport au reste du texte. De plus, avant et après la citation on laissera une ligne vide. Dans ce cas le point final sera placé avant la référence : « [...] continuait ainsi Zaldibia ». (Intxausti 1999). La première ligne de la citation ne doit pas avoir de retrait par rapport à la suivante.

On ne doit pas insérer de ligne vide entre les paragraphes de la citation.

La phrase non écrite ou la partie de phrase sera indiquée entre crochets et avec trois points de suspension : [...].

Toutes les références citées doivent si possible être insérées dans le texte et reliées à la bibliographie qui est habituellement ajoutée à la fin de l'article, ci-après : (Larramendi 1729), (Mitxelena 1961: 123).

Lorsqu'il n'y a qu'un auteur, on ne met pas de virgule entre le nom et l'année : (Villasante 1961).

Lorsqu'il y a deux auteurs, les deux noms sont séparés par un point-virgule : (Furet ; Ozouf 1977). Lorsqu'il est fait référence à plusieurs livres ou articles et si on l'estime nécessaire, on pourra utiliser d'autres formules (Deumert et Vandebussche 2003 ; Coupland, Kristiansen et Deumert 2011).

Lorsqu'il y a plus de trois auteurs, il convient de citer le premier et ensuite la formule *et al.* ou *et autres*. Enfin, lorsque les références sont listées, tous les auteurs doivent être cités.

Lorsqu'il n'y a pas de nom d'auteur, on ne mentionnera que le titre de l'œuvre et, si le titre est long, on utilisera des points de suspension : (Registro... 1829 : 133).

Toutes les références bibliographiques citées seront présentées à la fin de l'article, classées par ordre alphabétique, selon le modèle suivant :

AZKUE, Resurrección María (1896). *Proyecto ortográfico: sujeto a censura por parte de quienes cultivan el euskera*. Bilbao: Muller y Zavaleta.

LAFON, René (1975). « Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques », in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. Paris : Société de linguistique de Paris : 331-337.

LARRAMENDI, Manuel (1729). *Lo imposible vencido: el arte del euskera*. Salamanca: Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.

MITXELENA, Koldo (1959). «Euskal-itzak zein diren», *Euskera* 4 (1959): 206-214.

MITXELENA, Koldo, SARASOLA, Ibón (1990). *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos vascos antiguos*. San Sebastián: Diputación Foral de Gipuzkoa y UPV/EHU.

URKIXO, Julio (1967). «Sobre la paremiología vasca: Oihenart conocía los “Refranes y sentencias en euskera” de 1596», *ASJU I* (1967): 3-44.

ZUBIMENDI, Joxe Ramón, ESNAL, Pello (1993). *Idazkera liburua*. Gasteiz: Servicio General de Publicaciones del Gobierno Vasco.

Lorsque le document n'est disponible qu'en format électronique, il sera présenté de la manière suivante :

Nom, Prénom de l'auteur (année de publication), « Titre de l'article », *Titre de la publication*, numéro : p.-p., <http://www.xxxxxxxx>. (Il faut également citer la date de consultation).

WALIÑO, Josu (2016). « Euskara eta Internet. Zortzigarren lurraldea konkistatzen », *Euskera* 61, 1: 42-44.

Disponible: <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/80887.pdf>. (Consulté le 4 juin 2018).

Lorsque les documents sont publiés sur un autre support (CD-ROM, DVD), la même méthode sera utilisée, mais à la fin le support sera indiqué entre crochets : [...].

L'auteur organisera la bibliographie de l'article selon ce modèle de base. Il pourra en référer au responsable d'édition pour résoudre tout problème spécifique ou particulier.

## Guidelines for contributors to the journal *Euskera Ikerketa Aldizkaria*

These are the basic guidelines for contributors to the journal *Euskera Ikerketa Aldizkaria*. Papers submitted to this journal must follow these guidelines. To give greater flexibility and assist with aspects not defined in sufficient detail, the guidelines established by the Chicago Humanities style. Papers must adopt and use the rules laid down by the Chicago Style for Publication in the Humanities (Chicago Manual of Style. <https://www.chicagomanualofstyle.org/home.html>).

The purpose of *Euskera Ikerketa Aldizkaria* is to publish academic and scientific papers that are original research work. These are the main subject areas of the journal:

Before submitting a manuscript for assessment, please make sure its content fits into the fields of study proposed.

**Manuscript types.** As guidance for authors, *Euskera Ikerketa Aldizkaria* accepts for consideration the following types of work within its fields of study:

1. Papers: these must be original research work, of a theoretical or empirical nature, in appropriate theoretical or analytical depth and in the habitual format for specialist academic journals.
2. Studies and research notes: these must report briefly on singular findings, new contributions, replication of findings or additions to the academic literature to justify their publication without the theoretical length and depth or the analytical detail required in full papers.
3. Documents and reports: work submitted must explore and analyse documentary contributions to the subject and topics dealt with by the journal.
4. Book reviews: these will be essay-type pieces analysing new publications of academic and scientific interest in the field of the Basque language.

**Languages.** Original research papers, notes, documents and reports and book reviews will be published in any language used in the academic world of the Basque Country. Publication in Basque will be prioritised but work written in English, Spanish or French will also be acceptable. In the event of a piece arriving in a language other than those mentioned above, the Editorial Committee will decide whether to publish it or not.

**Sending work.** Manuscripts must be sent in via the journal's website, registering and following instructions for uploading files to *Euskera Ikerketa Aldizkaria*. The manuscript must be accompanied by a covering letter requesting it be considered and an indication of its type. In this letter the author must explain in 4-5 lines what the contribution of the work submitted is, and declare that they are not sending it to other journals at the same time. The letter must also include a grant of rights to the publisher.

**Submission of work.** Sending in manuscripts implies that authors are aware of and agree to these instructions, as well as to the rules of the *Euskera Ikerketa Aldizkaria* editorial process. The papers sent must be final, properly written and free from language and typographical errors. It is therefore advisable to have a spell checker installed on the computer and to use it before sending papers off.

The author or authors' institution (university, research centre, institution, etc.) must be cited at the beginning of the paper together with the pertinent email addresses.

Line spacing of 1.5 is to be used to write the text, and scripts must have a margin of 1.5 cm at both sides of the page for any explanations or corrections. Pages and footnotes are to be numbered in order.

Body text must be in 12 point.

Typical fonts in the academic sphere (Arial, Times New Roman, Calibri...) will be accepted. All sections and subsection of the article are to be numbered hierarchically with Arabic numbers: 1., 1.1, 1.1.1, 1.2, 1.2.1, 2., etc.

Individual words in another language are to be written in italics. The titles of books and journals must also be written in italics.

In general, articles must be of no less than 30,000 or more than 60,000 characters, not counting spaces but including text in tables. Book reviews must be between 6,000 and 10,000 characters, not counting spaces.

Originals (2 copies, one anonymised) must be sent via the platform in electronic format (DOC (X), ODT or RTF formats). One of the copies must be sent in PDF format.

Information arranged in rows and columns must be called TABLE. Photographs and graphs must be called IMAGE. Tables and images must be numbered in order, tables on one side and images on the other. The source must be indicated in both cases. Subtitles for captions for photos and images must be written in 10-point body text and placed over the tables and images.

In general, graphic material, maps, plates and photographs must be at least 1300 pixels wide and 300 ppi, in the best resolution possible. Figures, boxes and images must be sent in a separate file from the work, not included in the text. In the event that the illustrations make the piece longer, the editorial committee will decide whether to publish it.

## **Format of the document**

### **First page**

Title of the work in Basque (as well as in Spanish, French and English)

Full name of the author and their professional status, stating the institution, university or research centre where they work under each author (first the general institution, followed by the subordinate institution or institutions), full postal address and email address. If there are several authors, it must be specified which of them is responsible for correspondence.

After this an abstract must be given (maximum 500 characters) with key words (up to six). Abstracts and key words must be written in Basque, Spanish, French and English. Needless to say, if the paper is written in a third language the key words and abstract must also be sent in that lan-

guage. It is recommended that the abstract clearly outline the purpose of the study or research (aims), the basic procedures and/or documentary sources used (methods), the main findings (results) and the most salient conclusions, as well as highlighting the important new aspects of the study.

## Second page

This is where the text of the manuscript submitted begins, in all cases conforming to the general features mentioned above.

## Notes, quotations and bibliographical references

*Short quotations.* Those of less than four lines are to be included in the text and will be the same size as the body text. The quotation marks must conform to the following hierarchy: «xxxx “xxx ‘xxx’ xxx” xxx». Finally, the full stop at the end of the quotation must be placed after the reference: «[...] Zaldibia continuó» (Intxausti 1999).

*Long quotations.* These are to be written as a separate paragraph, with a font size of 10.5 points and a 1.5 cm margin to the right and left. Also, an intermediate blank line must be left before and after the quotation. In this case, the final full stop must come before the reference: «[...] Zaldibia continuó». (Intxausti 1999). The first line of the quotation must not be deeper than the following one.

Blank lines must not be inserted between the paragraphs of the quotation.

Unwritten sentences or part-sentences are to be indicated by an ellipsis between square brackets: [...]. A references cited must, if possible, be included in the text, linking them to the bibliography that generally comes at the end of the paper, as follows: (Larramendi 1729), (Mitxelena 1961: 123).

When there is a single author, no coma goes between their name and the year: (Villasante 1961). When there are two authors, the two names are separated by a semi-colon: (Furet; Ozouf 1977). When reference is made to



several books or articles, if it is felt necessary, other formulas may be used (Deumert & Vandebussche 2003; Coupland, Kristiansen & Deumert 2011).

When there are more than three authors, the first must appear followed by *et al.* or and others. At the end, when all the references are listed, all the authors must appear.

If there is no author, the work itself is mentioned and, if the title is long, an ellipsis is used: (Register... 1829: 133).

The references cited are to be given in their entirety at the end of the paper, in alphabetical order, according to this basic model:

AZKUE, Resurrección María (1896). *Proyecto ortográfico: sujeto a censura por parte de quienes cultivan el euskera*. Bilbao: Muller y Zavaleta.

LAFON, René (1975). «Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques», in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. París: Sociedad de Lingüística de París: 331-337.

LARRAMENDI, Manuel (1729). *Lo imposible vencido: el arte del euskera*. Salamanca: Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.

MITXELENA, Koldo (1959). «Euskal-itzak zein diren», *Euskera* 4 (1959): 206-214.

MITXELENA, Koldo, SARASOLA, Ibón (1990). *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos vascos antiguos*. San Sebastián: Diputación Foral de Gipuzkoa & UPV/EHU.

URKIXO, Julio (1967). «Sobre la paremiología vasca: Oihenart conocía los "Refranes y sentencias en euskera" de 1596», *ASJU* I (1967): 3-44.

ZUBIMENDI, Joxe Ramón, ESNAL, Pello (1993). *Idazkera liburua*. Gasteiz: Servicio General de Publicaciones del Gobierno Vasco.

Where the document is only available in electronic format, it is to be presented in the following way:

WALIÑO, Josu (2016). «Euskara eta Internet. Zortzigarren lurraldea konkistatzen», *Euskera* 61 (1): 42-44.

Available: <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/80887.pdf>.  
(Consulted on 4th June 2018).

Where the documents are published on some other medium (CD-ROM, DVD), the same criterion is to be followed, but at the end the medium is to be indicated between square brackets: [...].

The author must organise the bibliography of the paper in accordance with this basic model. They may consult the person responsible at the publisher to settle any specific or individual issue.

## **2025erako harpidetzaren prezioa / Precios de suscripción para el 2025 / Prix de l'abonnement pour 2025 / Subscription prices for 2025**

Espainia: 20 €

Atzerria / Extranjero / Etranger / Other countries: 25 €

## **Zenbaki solteen prezioa 2025erako / Precios de los números para el 2025 / Prix des numéros pour 2025 / Prices of issues for 2025**

*Euskera Ikerketa Aldizkaria* 2025, 70 (1): 20 €

*Euskera Ikerketa Aldizkaria* 2025, 70 (2): 20 €

## **Salmenta eta banaketa / Venta y distribución / Vente et distribution / Sale and distribution**

Euskaltzaindiko Argitalpen Zerbitzua

Plaza Barria, 15

48005 BILBO

Tel. 94 415 8155

Fax: 94415 8144

e-mail: [euskeraaldizkaria@euskaltzaindia.eus](mailto:euskeraaldizkaria@euskaltzaindia.eus)

Eskatzaileak, datu pertsonalak eman behar dituzenez gero, eskatzaile horrek esanbidezko baimena ematen du datu horiek Euskaltzaindiaren fitxategi informatikoan sar daitezenez; fitxategiaren xede bakarra zerbitzu pertsonalizatua eskaintzea da. Fitxategia Datuen Babeserako Agentzian inskribatuta dago, eta, berori kudeatzeko, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa (Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzkoa) eta horren garapenerako gainerako arauak betetzen dira. Eskatzaileak bere datu pertsonaletan sartzeko, horiek zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka jartzeko eskubideak ditu, eta badu eskubideon berri. Eskubide horiek idatziz egikaritu ahal izango ditu, helbide honetara mezu elektronikoa bidaliz: [info@euskaltzaindia.eus](mailto:info@euskaltzaindia.eus). Edozein kasutan ere, eskatzaileak bermatzen du emandako datu pertsonalak egiazkoak direla.

\* \* \*

El solicitante autoriza expresamente a que los datos personales aportados en relación a su pedido, sean incorporados al fichero informático de Euskaltzaindia, destinado exclusivamente a dar un servicio personalizado al usuario. Dicho fichero resulta inscrito en la Agencia de Protección de Datos y es gestionado de acuerdo a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre sobre Protección de Datos de Carácter Personal y demás normativa de desarrollo. El usuario queda informado de sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición respecto de sus datos personales, pudiendo

ejercitar estos derechos por escrito mediante correo electrónico a la dirección [info@euskaltzaindia.eus](mailto:info@euskaltzaindia.eus). En cualquier caso, el usuario garantiza que los datos personales facilitados son veraces.

\* \* \*

Lacheteur donne son autorisation expresse pour que les informations personnelles relatives à sa commande soient intégrées au fichier informatique d'Euskaltzaindia qui est destiné exclusivement à offrir un service personnalisé à l'utilisateur. Ce fichier est inscrit à l'Agence de Protection des Données et est géré conformément à la Loi Organique 15/1999 du 13 décembre sur la Protection des Données à Caractère Personnel. L'utilisateur est informé de ses droits d'accès, de rectification, d'annulation et d'opposition relatifs à ses données personnelles et peut demander l'exercice de ses droits par écrit, en adressant un courrier électronique à [info@euskaltzaindia.eus](mailto:info@euskaltzaindia.eus). Dans tous les cas, l'utilisateur garantit l'exactitude des données personnelles qu'il aura fournies.

\* \* \*

The applicant expressly authorises that the personal data provided in relation to his/her order may be included in the Euskaltzaindia computer file, intended exclusively to provide a personalised service to the user. This file is registered with the Data Protection Agency and is managed in accordance with the provisions of Spanish Organic Law 15/1999 of 13 December 1999 on the Protection of Personal Data and other implementing regulations. The user is informed of his/her rights of access, rectification, cancellation and opposition with regard to his/her personal data, and may exercise these rights in writing to the email address [info@euskaltzaindia.eus](mailto:info@euskaltzaindia.eus). In any event, the user guarantees that the personal data provided are truthful.